Jakintza-arloa: Historia

# Mikeleteak eta bidelapurrak

## Gizarte kontrolaren aldaketak Gipuzkoa tradizionalean, 1688-1808

Egilea: **DAVID ZPIRAIN KARRIKA**

Urtea: 2007

Zuzendaria: JOSE ANGEL ACHON INSAUSTI

Unibertsitatea: UD-DU

ISBN: 978-84-8438-301-7

## Hitzaurrea

Gure ikerketa 2006ko uztailean bukatu bagenuen ere, tesia defendatzeko aukera 2007ko azaroaren 9an izan genuen, Jon Arrietak, Rosa Ayerbek, Santiago Larrazabalek, Jose Antonio Rodriguez Ranzek eta Josetxo Urrutikoetxeak elkarrekin osatu epaimahaiaren aurrean. Tribunal honek ikerketarekiko erakutsitako interesa eta lanari emandako kalifikazioa, altuena, biziki eskertzen dugu. Eta, era berean, ezin aipatu gabe utzi tesiaren zuzendari Jose Angel Achón, etengabe emaniko aholkuengatik eta tesia euskara hutsean idazteko emaniko agindugatik.

Gure hausnarketaren ardatza 1796an Gipuzkoak bere polizia taldea sortu izana dugu. Gertakizun honen garrantzia baino, bere berritasun kutsua da neurtu nahi genuena. Horrek, ordura arte poliziaren funtzioak nola betetzen ziren ezagutzen behartzen gintuen. Horrela, kontrolaren ikuspuntu eta kontrolerako tresna ugari azalarazi genituen, Gipuzkoaren garapen politikoaren eskutik.

Gipuzkoako komunitatearen alde izkutuak ezagutzeko aukera izan genuen ere, tresna hauek ez baitziren teoria hutsa, pertsona zehatz batzuk jazartzeko lanabesak baizik.

Horrela, Gipuzkoako bazterretan bizi zirenak ezagutuz eta jazarpenerako tresnen zilegitasun politikoaren eztabaidaren bidez, gure hipotesia berretsi egin genuen: 1796koa gertakizun berria eta berritzailea zen, Gipuzkoako gizartea ezagutzeko eta ezaugarritzeko guztiz balekoa zena.

Epaimahaikide batek, Rodriguez Ranzek alegia, gogoratu bezala, ikerketa historiko orok, arazo historiko bati ez ezik, ikertzaileak berak bizitzari buruz dituen galderei eta kexei ere erantzuten dio. Gurean, behintzat, hala da. Izan ere, gure tesiak Gipuzkoa tradizionalean ematen zen bazterketa soziala eta honen inguruko kontrol-ekimenak aintzat hartzen bazituen ere, Gizarte kontrola du sakoneko helburu. Gure ustez, erabateko gaurkotasuna duen gaia, hain zuzen ere. Gizarte kontrola subjektu historikotzat hartuz, unean-uneko ezaugarriak eta xedeak bere testuinguru politiko eta soziala uler dezakegu. XVI-XIX. mendeen bitartean garatu araudi, teoria, erakunde, eztabaida politiko, gizakien sailkatze eta abar ez zaigu arrotz egiten XXI. mendean *Act Patriot*-en babespean munduan zehar nagusitzen ari diren kontrol-moldepean bizi garenoi. Eskubide zibilen murrizketa, gizarte laguntzen gutxitzea, eraso prebentiboak, badaezpadako atxiloketak... kontrol oldarkorraren sustraiak luzeak dira, eta egungo adarrak, besteak beste, Giorgio Agamben-ek “Salbuespen Estatua” lanean erakusten ditu.

Beraz, guk jasotakoa ariketa arkeologikotzat ere jo liteke; hori da ikerketa honek irekita uzten duen bide bat, alegia. Bide horretan, tesiaren muina jasotzen zuen liburua kaleratu zuen Deustuko Unibertsitateak.

Bestelakoak dira, baina, honen inguruan landu ahal izan ditugun aldarteak, hobe esanda, arlo zientifikoan baino, arlo dibulgatiboan jardun dugu gure tesia berretsi eta gero, beti ere tesiak egiten zituen ekarpen deigarrienetarikoaren

eskutik: euskal bide lapurren eskutik, hain zuzen ere. Euskal bandolerismoari buruz emaniko elkarrizketa, hitzaldi eta abarrei esker (horra hor bandoleroen inguruan Urretxuko Lekaio Kultur Elkarteak burututako kultur ekintzak, esate baterako), gure ikerketa erudiziotik haratago eramateko pribilegio izan dugu, gure Historia gizarteratuz eta aisialdirako probetxagarri bihurtuz.

David Zapirain
2010

**DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (Hirugarren zikloa)**

Kultur Ondarea, Historia eta Nortasuna.

# MIKELETEAK ETA BIDELAPURRAK:

GIZARTE KONTROLAREN ALDAKETAK GIPUZKOA TRADIZIONALEAN, 1688-1808.

David Zapirain Karrikak aurkezten duen tesia.

José Angel Achón Insausti Doktorearen zuzendaritzapean.

José Angel Achón Insausti
Zuzendaria

David Zapirain Karrika
Doktoregaia

Hendaian, 2006ko uztailan

*AURKIBIDEA*

**AURKIBIDEA** I-III

I. GIZA BAZTERKETA EZAGUTZEN. 1

**1. Ez da bakarra Europa zeharkatzen duen mamua.** 2

**2. Europa gizarte kontrolaren aurrean: bikoitza eta aldakorra den historia: gainbegirada historiografiko laburra eremu zabal batean.** 7

2.1 Gizarte kontrolerako molde berriak ohiko karitatetik haratago. 21

2.2 Hirietan zentralizatutako laguntza-gune handi eta bakarrak. 30
*2.2.1 Europan zehar.* 33
*2.2.2 Ez da ogirik neke gaberik. Pobreak baino zerbait gehiago: eskaleak, alferrak, arloteak.* 37

**3. Ikerketa eta bibliografiaren berri, Euskal Herrian XVI. eta XIX. mendeen bitartean.** 42

3.1 Nolako Gipuzkoa... 43
3.2 ...halako bazterketa. 56
*3.2.1 Aitonsemetzatik at.* 57
*3.2.2 Etxeko loturatik at.* 61
3.2.3 *Lurralde mailako erakundeen sorrerak: Etxe bereziak: Erruki-etxeak, Espetxeak. Polizia.* 66

3.3 Ikertzeko baliabide aproposak? 71

**4. Gure ikergunea** 73

**5. Iturriak eta bibliografia** 78

II. GIPUZKOA ETXEA 114

**1. Aterpe eraginkorraren oinak.** 115

1.1 Self-Help-aren euskarriak Etxean atxikitzeko aukerak. 117

1.2 Self-Help-aren euskarriak Auzoan atxikitzeko aukerak. 126

1.3 Gipuzkoa Etxea: bere garaikoen modukoa. 132

**2. Laguntza-bidea kolokan XVI. mendeko Gipuzkoan**

**ere bai?** 133

2.1 Loiola eta eskupekoak. 134

2.2 Garibai eta Gipuzkoako hiribilduetako ospitaleak XVI. mendean egokitzeko beharra. 142
*2.2.1 1586-87 bitarteko txostena* 147
*2.2.2 1593ko txostena: San Anton eta San Lazaro* 161

2.3 Errukia berritua 166
*2.3.1 Eskupeko baldintzatuak* 167
*2.3.2 Ospitaleen mugak* 171
*2.3.3 Erreforman ernatutako zigorra* 173

**3. 1673. urtea: ezinbesteko urratsa jazarpenaren bidean** 176

3.1 Ideiak eguneratuak, ohiko betearazleak 177

3.2 Bizimodu arbuiagarrien eremu zabalean 180

3.3 1673ko neurrien behin-behinikotasuna. 187

III. 1683-1771: IZUA ETA ZIGORRAREN ALDARRIKAPENA GIZARTE KONTROLAREN ARLOAN 189

**1. Izua ereiten** 190

1.1 Izuaren tresna orijinal bezain gorabeheratsu: Komisarioak 194

1.2 Abegikortasunaren gainean eraikitako Urkamendia 201

1.3 Alferkeria gaitzen guztien ama 208

1.4 Oinarri ideologiko sendoak 215

**2. Gizakiak ehizatzeko mandatu berrituak** 219

2.1 Komisarioen garra itzalita 236

2.2 Komisarioen behin behineko agerpena 241

2.3 Arrakasta bere neurrian 250

**3. Bide partekatuak** 253

3.1 Kontrol soziala ohiko bitartekoetan 255

3.2 Hutsuneak betetzen, mugak gainditzen 263
3.3 Esparru bateratuak 266

3.4 Antolaketaren galgak 287

**4. Bide kontrajarriak: Korrejidorea-Aldundia** 292

4.1 Zuzendu beharreko bide osagarriak: epaiketak 295

4.2 Zuzendu beharreko bide osagarriak: espetxeak 297

IV. 1772-1808. GIZARTE KONTROL OLDARKORRAREN ZUZENDARITZA LEHIAN. 303

**1. 1772ko arauadia. Aldundiak behin-betikotasunaren bidean.** 305

1.1 1772ko araudiaren balioa. 310
1.2 Erresumaren oldaraldia. 322

**2. Gerra ondoko gatazkatsua.** 326

2.1 Arazo zahar eta errepikorraren aurkako jokamolde berriak: mikeleteak. 340

**3. Ordena publikoaren zaintza lehian** 350

3.1 Tradizioaren bide berria. 357

3.2 Ermandadearen baliabideen aldarrikapena. 360

3.3 Lapur profesionalak eta alkateak aurrez aurre. 366

**4. Egoera trabatua** 381

V. ONDORIOAK 386

VI. ERANSKINAK 408-439

# *I. GIZARTE BAZTERKETA EZAGUTZEN*

## 1. EZ DA BAKARRA EUROPA ZEHARKATZEN DUEN MAMUA.

Bazterketa, pobrezia, zigorra, gaizkileak, integrazioa, laguntza, aurreikuspena,... XXI. mendearen hasieran ohikoak bilakatu diren ideiak eta hitzak ditugu, komunikabideetan maiz agertzen direnak eta jende arruntaren eguneroko solasaldietan askotan erabiltzen direnak. Inork gutxik jarriko du zalantzan, gainera, jendearen kezkak anabasa honen erdian emigrazioa eta pobrezia jartzen hasten direnik, ordena publikoa zein gizarteratzeko moldeak hauek gaineratuz: ongizateko sareen egokitasunari buruzko iritziak, miseriaren inguruko eztabaidak, gizarte-bazterketaren ingurukoak, pobreekiko jarrerak, pobrezia konpontzeko egitasmoak, txiroen gaineko kontrola, gutxiengo sozialak gizarteratzea...

Orain dela urte batzuk pobreziari atxikitako gaiak herrialde azpigaratuetan kokatzen genituela esan dezakegu. Urrutitik ikusten genituela, alegia. Egun, berriz, hango pobreak zirenak gurean dira. Jatorrian txirotasuna zena emigrazio bilakatu da; emigrazioak, berriz, bazterketarantz ala integraziorantz jo dezake; eta bietara, aintzat hartzen dugun eremuaren arabera: gizarte-bizitzatik at baina, hala ere, (edozein baldintzatan) lan-merkatuaren barruan. Honen gainetik, arau multzo bat topatzen dugu, etengabe aldatzen dena eta elkartasun/onarpenarekin zein kontrol/ukazioarekin tartekatzen dena. Protagonistek berek izaten dituzten bizipenak eta hartzen dituzten jarrerak anitzak eta kontrajarriak izaten direla ahaztu gabe.

Honi guztiari neoliberalismoak Mendebaldeko Ongizate Estatua kolokan jarri izanaren ondorioak gehituz gero, beste mota bateko protagonistak azaleratuko lirateke. Etorkizuneko pentsioak ordaintzeko modua edo gastu-medikuen murrizketa, esate baterako, ohiko gai bilakatu dira jende xumearen artean. Baina egoera honen protagonistak ez dira arrotzak; beren burua balizko ala etorkizuneko txiro bezala irudikatzen duten asko gizartean aspaldian sustruitua zegoen jendea dugu[1].

---

[1] Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren esanetan, 11.000 lagun dira EAEn pobrezia larrian bizi direnak. Pobre direnak, berriz, 110.000 inguru lirateke. Hau da; Autonomia Erkidegoaren %5,2. *www.berria.info*. 05-IX-14. Honi, Frantziako Errepublikan 2005eko udazkenean izandako sesioak gehitu ahal dizkiogu. Gizarte-laguntzak, pobreziari aurre egiteko ekimenak, aurrekontu publikoen banaketa eta gisa honetako eztabaidak puri-purian daude azken urte hauetan. 2000. urtean zehar, adibidez, Iruñeko eta Gasteizeko

Bi egoera hauen emaitzak, gainera, elkarrekin gurutzatzen dira, eta ondorioak oso modu desberdinetan ikusten dira. Horren isla, arlo politikoan (esate baterako hauteskunde garaietan), ekonomikoan (Frantzian "iturgin poloniarrari beldurra" izenez bataiatu dena, enpresak toki-aldatzea...), lan-arloan (langileen eskubideak aldatzea), gizarte-mugimenduan (mota askotako elkarteen sorrera)... erraz ikusten dugu[2].

Soziologoek, ekonomilariek eta are kriminologoek ere egoera hauen gaineko iritzia ematen dute maiz. Eztabaidan historialariek ere toki bat eduki behar dutela uste dugu. Gure uste apalean, gure arbasoek nekez konponduko dituzte egungo gizarteak pairatzen dituen arazoak. Halere, Neoliberalismoak dakartzan eta arestian aipatu eta zirriborratu besterik egin ez diren arazo horiek ulertu ahal izateko, lagungarria suerta liteke atzera begiratzeak, beti ere konparaketa automatikoetatik ihes egiten badugu.

Hau da: ez dugu inolaz ere esan nahi XX./XXI. mendeetakoak eta XVI. mendekoak gizarte-egoera berdinak direnik, jatorrizko liberalismoa nagusitzen hasi zen garaiko ondorio sozialak ezagutzeari oso argigarri deritzogula baizik. Hortaz, ezinbestekoa iruditzen zaigu jakitea liberalismoa eta Estatu-Nazioa elkarrekin jaio eta gorpuztu ziren garaian zer nolako pobrezia egoera zegoen eta nola egin zitzaion aurre .

Historiografian, gainera, badago eskarmentua gai hauetan, tankera honetako ikerketen hasierak batere xamurrak ez izan arren, berehala ikusiko dugun moduan. Aipatutako eskarmentua, baina, Europan kokatu beharko dugu, gurean historiografia

---

Parlamentuek Gutun Soziala eztabaidatu beste erremediorik ez zuten izan; bitartean, Euskal Herri kontinentalean, eskubide sozialen murrizketa etengabe da mintzagai.

[2] Pobreziak eta gizarte-bazterketak sortzen duten kezkaren isla diren heinean, ezinezkoa izango genuke, esate baterako, gizarte-elkartasuna aldarrikatzen eta jorratzen dituzten Gobernuz Kanpoko Erakundeak zerrendatu. Adibide bezala, 2001eko martxoan aurkeztu zen "Elkartzen" proposatzen dugu, herri ekimen anitz bateratzen du eta "*Queremos aunar fuerzas, ahora dispersas, contra la exclusión*", dio bertako kide Manuel Calvok 2000-III-14ko *Gara* egunkarian. Gizarte-bazterketaren aurka eta giza-eskubideen alde lan egiten duten zenbait talde "Elkartzen" honetan batu da, Giza-Eskubideen gutunak parlamentuetatik igaro ondoren pobrezia pairatzen dutenen egoera txarrera jo eta erakundeen laguntzak aski ez direlako. "*Pretende ser un aldabonazo con los diversos temas que están relacionados con la exclusión, viendo que la cosa está empeorando y los excluídos son cada vez más y en mayor grado. Pedimos que las personas dispongan de un trabajo y de una renta social que posibilite el acceso a ciertos derechos que debe tener cualquier ciudadano.*"

mota hau oso urria da eta. Aurrerago ikusiko dugun moduan, Juan Gracia Cárcamo aitzindariaren lanak kenduta[3] –90eko hamarkada bukatu ahala lan berritzaileak agertu arren– Euskal Herrian oso ekoizpen txikiko gaia izan dugu hau.

Dena den, akats hau ez da bakarrik gurea. Espainiako historiografiari erreparatzen badiogu, 1990ean oraindik pobreak eta gizarte-bazterketa ikertzea onuragarria, probetxagarria ala erreakzionarioa zen eztabaidatzen ari zen. Eztabaida gordin honen inguruan, bi aipu oso nabarmen aurki daitezke. Batetik, *Historia Social* aldizkariaren 1992ko 13. alean "*Pobreza y Asistencia Social en la España Contemporánea*" izeneko dosierrean Pedro Carasa Soto adituak egiten zuena[4]; bestetik, Mariano Esteban de Vegak *Pobreza, Beneficiencia y politíca social* bildumaren editoreak bertako atal batean jasoa.[5] Biek ala biek, 1990eko Lovainako *Tenth International Economic History Congress*ean eta Zaragozako Gizarte Historia Elkarteak urte berean antolatu zuen *I Congreso Nacional de Historia Social*ean izandako eztabaidak alderatzen dituzte. Lovainako Batzarrak "*Charity, the Poor and the Life-cicle*" izeneko jardunaldia aterpetu zuen bitartean, Zaragozan arbuiagarritzat jotzen ziren gai hauek. Carasa Sotoren hitzetan: "*se oyeron voces que protestaron por la aparición de comunicaciones y debates relativos a la historia del pauperismo, alegando que la historia de los grandes y permanentes conflictos de la humanidad sólo son detectables desde la dialéctica de patrono/asalariado que afronta la historia del movimiento obrero y denostando despectivamente la historia de la pobreza como una de las marías, o 'historia de las tres pes, de pobres, presos y prostitutas'. Quien lo dijo, esgrimiendo dicho razonamiento de que la única historia válida era la del eterno*

---

[3] Bere tesia laburbiltzen duen liburuan plazaratzen du ikuspuntu hau. Tesia 1989an defendatu zuen, -*Pobreza y marginación social en Vizcaya (1700-1833)*- eta ondoan aipatzen den bezala argitaratu zen: Juan GRACIA CARCAMO: *Mendigos y vagabundos en Vizcaya (1766-1833).* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1993.

[4] Estrukturalismoa gainditzeko deia egiten zuen, beti ere Historia ez-ideologikoaren gezurra salatuz (Fukuyama-ren urtea zela gogoratu), gisa honetako aurkezpena egitean: "*El marco de las tensiones historiográficas actuales y la Historia de la pobreza. Una profunda tensión historiográfica sacude a los historialaris inquietos y de mayor agilidad mental en estos momentos. Se trata de ampliar y enriquecer la perspectiva del historiador, incorporando una más corta medida del tiempo histórico que aprecie mejor el cambio social, centrando más nítidamente los contenidos del análisis en torno al hombre, situando la coordenada espacial en unas proporciones regionales o locales más ajustadas a la figura humana, liberando este quehacer de ciertas presiones ideológicas absorbentes y de determinados clichés políticos interesados, y entregando finalmente todo el producto intelectual en una forma más cuidada, narrativa y asequible*".

[5] Mariano ESTEBAN DE VEGA: "Pobreza y Beneficiencia en la reciente historiografía española." *Pobreza, Beneficiencia y Politíca Social.* Madril: Asociación de Historia Contemporánea, Marcial Pons, 1997. (Ayer; 25).

*conflicto capital/trabajo, incurría en el craso error de olvidar que anterior y padre de dicho conflicto es la contraposición riqueza/pobreza, de la que se ocupa esta historia...".*

Gracia Cárcamo bizkaitarrak berak ere, eztabaida honen isla helarazten digu; estrukturalismoak, estrukturalismo-ondokoak, Annales-eko eskolak, enpirismoak,... nonbait, denek izan dute hizpide pobreziaren Historia eta bere ingurukoa[6].

Hala eta guztiz ere, Carasa Sotok berak Pobreziaren Historia berritzeko beharra aldarrikatzen du, guztiz baliagarriak eta interesgarriak litezkeen alor berriak irekitzeko beharra azpimarratuz: "*Siendo estos dos aspectos válidos y necesarios* –ekonomia-sistema eta gizartearen artean dagoen dialektika-, *y considerando que fue muy valioso el avance producido...parece que debemos admitir que no llegó a agotar toda la amplitud histórica de la pobreza... Nuestra posición, pues, apuesta decididamente por la renovación de la historia de la pobreza, que ofrece excelentes posibilidades para aplicar las tendencias actuales antropológicas y humanizadoras...*".

---

[6] GRACIA CARCAMO: *op. cit.*, 14. or.: "*En efecto, actualmente se denuncia el excesivo peso dado a los factores socioeconómicos en este tipo de historiografía y es ya habitual criticar el marxismo 'vulgar' como lectura incorrecta de algunos seguidores 'progresistas' vinculados, en mayor o menor medida, con la escuela francesa de los Annales... Sin embargo, si esta tendencia llevada al extremo es incorrecta, aún más peligrosa es la postura actual dominante en ciertas variedades del post-estructuralismo que –llevada a límites intolerables por un neohistoricimso de moda- pretende que la evolución de las creencias y de las manifestaciones intelectuales responde a mecanismos autónomos sin contacto con la realidad socioecónomica. Si no tiene sentido una aplicación dogmática del materialismo histórico, más retrógrada es la postura de los que propugnan una vuelta a una lectura interesada de Hegel...*"

Eta hauxe gehitzen du ohar batean: "*Estaría fuera de lugar el hacer aquí una reseña de las consecuencias nefastas que podría traer a la historiografía una aplicación acrítica de las propuestas post-estructuralistas de la llamada 'linguistic turn' en la historia –formuladas por teóricos como H. Writhe, D. La Capra, P. Ricoeur, H. Hellner, F. Ankersmit...- que han influido en la obra de historiadores...como S. Garet Jones, J. Scott, A. Fargue... Hay que señalar que la alternativa a esta moda no pasa por reivindicar la vuelta al empirismo como reclaman, al fin y al cabo, P. Zagorin y L. Stone, sino en inteligentes propuestas como las de G. Spiegel – que abren implicitamente una puerta a recobrar los fundamentos de la historia de las mentalidades, claro está que que renovada-. Sólo de esta perspectiva se puede hacer frente la reivindicación neohistoricista de una Historia intelectual alejada del marco social como propugnan R. Chartier y otros epígonos actuales de la escuela de los Annales*".

Carasa Sotok oso hitz antzekoak erabiltzen du, estrukturalismoaren gehiegizko pisua salatuz, akats berdinak ikusten baititu historiografiaren arlo honetan pobreziari buruzko lan berrienetan, hots, 90eko hamarkadaren hasierakoetan: "*...un agobiante estructuralismo, en una atención insistente a los tiempos largos y desprecio de los cambios sociales más rápidos, en interpretaciones monolíticamente economicistas, en explicaciones demasiados mecanicistass y conflictivistas, en olvidos tan decisivos como pueden ser los aspectos mentales, de religiosidad, de sociabilidad, en definitiva, se centraron en la consideración de la pobreza y de la asistencia, más que como una condición y actividad del hombre y de la sociedad, como el producto de un sistema económico o como el resultado de una mera dialéctica social.*"

Hasieran plazaratu dugun hausnarketaren ildotik, gai honek sortu duen interesa gutiz zilegizkoa dela nabarmentzen da hemen. Era berean, baina, gure arreta eremu zabal honetako zein arlora zuzenduko dugun argitzea ezinbestekoa egiten zaigu, txirotasuna abiapuntua izateak norabide askotako ikerketa ahalbideratzen du eta.

Guri dagokigunez, pobrezian bizi zirenek garatzen zituzten ekimenak zuzentzeko eta disziplinatzeko agintariek burutzen zituzten saioetan miatu nahi dugula aitortu behar dugu. Halaber, miaketa hau gune politiko zehatz batean kokatu nahi dugu: politikoki eratzen ari zen Gipuzkoan, hain zuzen ere.

Horrela, bazterketaren handitzea ekarri zuen aldaketa sozialaren prozesuan erakundeek bultzatu jarduerak ezagutzen saiatuko gara, honek aipatu dugun eraketa politikoaren eta estu hartu nahi ziren gizartekideen gaineko informazio berria eta argigarria eskainiko digulakoan.

## 2. EUROPA GIZARTE KONTROLAREN AURREAN: BIKOITZA ETA ALDAKORRA DEN HISTORIA: Gainbegiratu historiografiko laburra eremu zabal batean.

1970eko hamarkadatik ikerketa enpiriko eta eztabaida ideologikoak etengabe bultzatzeaz gain, pobretzearen ingurukoak jorratzen dituen Bronislaw Geremek-ek pobreziak eta pobreziaren gainean eraikitzen diren egitasmoak ikertzeari buruzko zilegitasuna eta beharra utzi zituen behin betiko finkatuta, ***miseriaren nondik-norakoak ikertzeak eta konpontzen saiatzeak gizarte-zientzien garatzearen oinarrian dagoela*** aldarrikatzerakoan[7].

Geremekek berak Historia adibide-iturburutzat eta ezinbesteko erreferentzia-gunetzat hartzen dela dio. Historialari poloniar honek eskaleak begi bistatik kentzeko, alferrak lanera bultzatzeko eta pobreei lana emateko saioak Aro Modernoaren hastapenetan kokatzen direla dio eta ekonomiaz kezkatu direnen lanetan ere, gai hauek agertzen direla.

Errepaso historiografiko laburra bezain esanguratsua egiten du, Adam Smith, Malthus eta Marx abiapuntu harturik J.K. Galbraith-en lanetara, edota soziologia garaikidera (David Matza, Ch. I. Waxman,...) iritsi arte[8].

Ibilbide antzekoa egiten du Stuart Woolf historialari britainiarrak[9]. Honek ere 70eko eta 80ko hamarkadetan eman zuen argitara bere lehen lanik esanguratsuenetarikoak. Honen esanetan, pobreziarekiko piztu den arretaren funtsa Ongi-Izatearen Estatuaren ezintasunean datza[10].

---

[7] Bronislaw GEREMEK: *La piedad y la horca: historia de la miseria y de la caridad en Europa*. Madrid: Alianza, 1989. 9. or.

[8] Horrez geroztik neoliberalismoa, herrialdeen arteko menpeko harremanak, pobrezia mundu-mailan, eta abar ikertu dituztenen zerrenda neketsu bezain alferrikakoa izango litzateke, berdin soziologoena zein ekonomilariena, etengabe berritzen ari den gaia baitugu honako hau. Halere, orientabide eta ikuspuntu aberats, orijinal eta kalitate handikoa ematen dutelakoan, James Petras eta Noam Chomsky-ren lanak aipatu behar ditugu. Pentsalari hauen gaztelerazko bibliografia Moises LOPEZ CAEIROk zerrendatu du *www.rebelion.org* web gunean.

[9] Stuart WOOLF: *Los pobres en la Europa Moderna*. Barcelona: Crítica, 1989. 1971-1985 bitarteko lan-bilduma da.

[10] Zerrenda hau gehiago ez luzatzeko, bakarrik beste aipamen bat, Liège-ko Unibertsitateko Nicole HAESENNE-PEREMANS-ena. Honek kezka bera azaltzen digu bere 1983ko lan batean

Europako historialarien artean berandu piztu den arreta dela nabarmentzen du Woolfek, baita gai arras erakargarria dela ere, pobreen inguruan historian zehar errepikatzen diren egoerak oso antzekoak direlako, itxuraz behintzat. Halere, historialari honek ohar garrantzitsu bat plazaratzen du, arestian esandakoaren inguruan: XX. mendearen bukaerako eztabaidak eta Historian zehar bizi direnak ez dira, inondik inora ere, berdinak; oso bestelako jatorria dute. Hau erakusteko erabiltzen dituen adibideak ezin argiagoak ditugu. XX. mende bukaeran –ez eta gainontzeko XX. mendean zehar ere– ezinbestekoa den langabeziaren gaiak ez du pareko garrantzirik[11]; aldiz, agiri ugari eta ongizate-asmo zehatzak sortu dituen beste gai klasiko batek, umezurtzenak, leku txikia dauka egungo Europa garatuan pobreziaren ondorioei buruz ematen diren eztabaidetan.

Era berean, Woolfek bere lanak idatzi zuenetik gizarte garaikidearen kezkak eraldatu direla esan beharko genuke, emigrazioari eta elkarbizitzari lotutako gaiak areagotu direlako, edo Europa modernoak jendearen bizimodua ekoizpen industrialerako bideratzeko eta hezitzeko zuen beharra egun oso bestelakoa delako, esate baterako.

***Txirotasuna arazotzat hartzea*** omen da, Woolfen esanetan, lotura zuzena ematen duena historian zehar izan den eztabaidaren eta egungoaren artean. Ez zaigu, ez, gutxi iruditzen, 500 urte inguruko arazoa baita. Begi bistakoa den baieztapen hori, baina, oso interesgarria suertatzen zaigu, arazotzat hartze honek pobreziatik abiatuta gizarteak "arazoa" konpontzeko bultzatzen dituen ekimenak ezagutzea ahalbideratzen gaituelako. Kontzeptualizazio honen atzetik, pobrezia ez ezik, pobreak

(*Les pauvres et le pouvoir: assistence et represion au Pays de Liège, 1685-1830*. Kortrijk-Heule: UGA, 1983). Bertan, XX. mendeko Estatuaren pobreekiko betebeharra kolokan jartzen ari denean, boterearen eta pobreen arteko iraganeko harremanak ezagutzea biziki interesgarria dela dio.

[11] Nahiz eta epeak zertxobait zabaldu, ideia berdina errepikatzen du Historia Social aldizkariaren 8. alean, 1990ean; "Pauperismos en el mundo moderno" izeneko dosierraren barruan, "Estamento, clase y pobreza urbana" artikuluan, eta J.A. GARRATY-ren aipua eginez (*Unemployment in History. Economic thought and public policy*. New York, 1978), zera dio: "*En el siglo actual, (XX. mendeari buruz ari da) con el reconocimiento explícito del vínculo intrínseco entre empleo y evitación de la pobreza, el lenguaje del debate, y las medidas de protección social que han surgido de él, se ha estructurado en torno al concepto del derecho al trabajo. Aunque podamos encontrar afirmaciones morales y religiosas de este principio, la idea es, en términos sociopolíticos, relativamente reciente, e históricamente identificable con la Revolución Francesa*".

ere arazo eta arriskutzat hartzen direnez, gizarte-harremanen eta oreka hausle hauek estu hartzea guztiz beharrezkoa dela dugu ekuazioaren hurrengo urratsa. Horretarako, pobreziaren jatorria desagertu bitartean-edo, pobreen gainean diziplina ezarri behar dela ondorioztatzen da.

1980ko hamarkadan pobreziak eta bere arlo historikoak sortzen zuten kezkaren seinale dugu Europako adituek –Geremek eta Woolf, noski, baina baita ere Michel Mollat, Brian Pullan, Thomas Riis eta Edoardo Grendirekin batera– 80. urtean bertan, Cremoan egindako batzarra [12].

Ikerlariek beren lanetan abiapuntu komunak ezarri arren –gehienbat, esan bezala, txirotasunaren inguruan–, pobrezia, gizartearen gabeziak eta gizabanakoen portaerak zuzentzeko moldeak aldakorrak izan dira Historian zehar. Ildo honetatik zehaztapen bat egitea beharrezkoa zaigu. Pobrezia eta miseria gorria gertakizun objetiboak direnik ez da inolaz ere ukatzen. Hori egitea iraina litzateke egunero jateko adina lortzen ez duten miloika lagunentzat. Datu estatistikoak aski ezagunak dira, eta denok dakigu, gutxi-asko, zein egoeratan bizi diren Lurraren hiru laurdenetan[13]. Pobreziaren gaineko irakurketak eta jarrerak dira, berriz, aldatzen direnak. Eta aldaketa edo garapen hori dugu, hain zuzen ere, gure ikerketa kokatzeko eremurik aproposena.

---

[12] *Timore e Carità: i poveri nell'Italia Moderna. Atti del convegno "Pauperismo e assitenza negli antichi stati italiani", Cremona, 28-30 marzo 1980. A cura di Giorgio Politi, Mario Rosa, Franco Della Peruta.* Cremona: Bibloteca Statale e Libreria Civica, 1982.
90eko hamarkadan bide zaharren berritzearen lekukotasunak oso nabariak dira, besteak beste:
- Frantziako historiografian, Caen (1989), Paris (1991), edo Angers-en (1994) izandako Batzarrak.
- Thomas RIIS-en ardurapean bildutako lanak, *Aspects of poverty in Early Modern Europe* bilduman.
- Robert JÜTTEren *Poverty and deviance in Early Modern Europe*. Cambridge: University press, 1994 (repr. 1996). (New approaches to european history).
- Ole Peter GRELL, Andrew CUNNINGHAM, eta Jon ARRIZABALAGAk *Healt care and poor relief in Protestan Europe* zein *Healt care and poor relief in Counter-Reformation Europe* bildumetan jasotakoak.

[13] Nazio Batuen Erakundearen GNBP programak hau guztia laburbiltzen duela iruditzen zaigu. *www.undp.org*. 05-IX-08ko *www.gara.net*-en irakur daitekeen moduan, elkargo honen 2005eko txostenaren arabera, munduko biztanleriaren %40 baino gehiagok egunean bizirauteak du helburu. Munduko 500 pertsonik aberastenek pobreenak diren 416 miloiek baino gehiago irabaztea beste datu esanguratsu bat iruditzen zaigu.

Philippe Sassier-ek txirotasuna adierazten duten ideien bilakaerari buruzko ikerketa filosofiko interesgarri bezain borobila proposatzen du[14]. Xenofonte filosofo greziarrarekin abiatzen du bere errepasoa; honek, Sokratesen hitzez baliatzen da pobreziaren erlatibotasuna nabarmentzeko. Izan ere, sos gutxi izan arren, ongi administratzen duena ez omen da pobre; eta aberatsa izan arren, bere bizimailari eusteko aski ez duena, aldiz, herri xumean kokatzen du, *dèmos* eta *pénètai* (pobre) parekatuz. Ondorioz, pobrezia ez litzateke egoera materiala eskasa pairatzea, asetze eza baizik.

Aristotelesek, bestalde, errepublika desegituratzen duen eragileen artean kokatzen du txirotasuna. Horrela, ikuspegi orokor bat emanez, neurri gabeko nahiek, gehiegizkoek nola gutxiegizkoek, arrazoia mendean hartzeko gaitasuna oztopatzen dutela argudiatzen du. Gehiegi nahi izateak kriminal handiak sortzen ditu; beharrak, pobreziak, aldiz, gaizkileak eta lapur txikiak. Bi desorekatu mota hauek, alegia, agintzen ez dakiten nagusiek eta aginduak betetzen ez dakiten menpekoek, ezin dute inolako Hiri askerik osatu.

Itun Zaharrean pobreak babestea Jaungoikoari dagokio; honek, pobreak ditu bere kuttunak. Itun Berrian ere, ildo bereko etengabeko aipamenak azaltzen dira: "*Bejondiela pobre arima dutenei, Zeruko Erresuma haientzat baita*" (*Mateo 5,4*); "*Zorionekoak zuek, pobreok, Jaungoikoaren Erresuma zuena baita*" (*Lukas 6, 20*). Kristautasunak, halere, zehaztapen ugari egin behar izan du idei hauen inguruan: bizitza espiritualean ala bizitza materialean izan behar pobre? Nahita ala nahigabe? Zalantzarik gabe, horra hor aurrerago aztertuko dugun bikoiztasunaren oinarri posible bat.

Tradizio bikoitz honen jatorria, esate baterako, Jean-Pierre Gutton-ek Erdi Aroan kokatu zuen ezinbestekoa dugun erreferentzia-liburuaren –lehen aipatu dugun lana– atal bati izenburua jartzerakoan: "*La société et les pauvres à la fin du Moyen-Âge: une double tradition*". Erdi Aroan bertan, pobrezia eta pobreei buruzko oinarrizko pentsakerak jada finkatuta daudela dio historialari honek, nahiz eta definizio horietan ideiarik ala jarrerarik nagusiena zein den aurkitu ez. Pobreak, txalotuak eta irainduak

---

[14] Philippe SASSIER: *Du bon usage des pauvres: Histoire d'un thème politique XVIe-XXe siècle*. Paris: Fayard, 1990.

izaten dira hein berean: "*D'une parte, la pauvreté est considérée comme une vertu éminente qui, aux riches commes aux pauvres, fournit des occasions de sanctification par l'aumône ou par l'humilité. D'autre part, la pauvreté peut être conçue comme dégradante et le pauvre comme un être social dangereux*"[15].

Pobreekiko jokaera positiboa teologiaren barruan legoke, pobrea Jesukristorekin parekatuz; txiroak Jesukristoren pobreak omen dira eta hauek lagunduz Jesukristo bera laguntzen omen dugu; beren otoitzek bedeinkapenak ekarriko dituzte; eta pobreziak santu izateko aukera ematen du.

Pobre hauek bere egoera hautatu dute, pobre nahi dute izan. Borondatezko pobre hauek Apostoluen jarraitzailetzat aldarrikatzen dute beren burua, eta izpiritua hobetzea izango lukete helburu. Izen askoren pean agertu izan da Europa osoan zehar, gehienetan fraide Frantziskotarren lerroetan: "*fratres vel sorores voluntarie paupertatis; fratres pauperes de penitenti de tertio ordin sancti Francisci*".

Bestela ere, boluntarioen eragilea ez izan arren, jende laikoen artean ideia honen jarraitzaile eta defendatzaile sortuko dira. Txirotasunaren ideiak izugarrizko gizarte lana betetzen duela dio, berriro, Guttonek: "*La pauvreté permet au pauvre de se sanctifier à condition qu'il accepte sa pauvreté avec résignation et sans déplorer son sort. Pour les riches, l'existence de pauvres est une voie possibe du salut dans la mesure où elle permet l'exercice des oeuvres de miséricorde*". Beraz, txirotasuna ona da txiro denarentzat, eta, gainera, pobrea ez denak ere arima salba dezake haiei lagunduta.

Pobreen artean laguntza banatzea norberaren baitan dago. Kalean, elizaren atarian, bide-gurutzetan,... finkatu gabeko tokian, beraz, baliabideak dituenak eskupekoa ematen du. Nolabaiteko jarrera anonimoa da.

---

[15] Jean-Pierre GUTTON: *La société et les pauvres: l'exemple de la généralité de Lyon, 1534-1789.* Paris: Les belles lettres, 1971. 215. or.
Gainera, Erdi Aroari dagokionez, M. MOLLAT irakasleak, Pariseko Faculté des Letrres-etik pobreziaren inguruan zuzendu ikerketa eta etengabeko gaurkotzea proposatzen du. Honekin batera, beste aditu askoren lanak aipatzen ditu, besteak beste, Duby, Charlier, Chopard, Shahar, eta batez ere Mollat-en egitasmoaren barruan, F. Poulet.

Laguntzak bideratzeko garaian, dena den, hilburukoetako aginduak izaten dira eraginkorrenak. Jaraunspena egiterakoan monasterio, komentu, baseliza edota ospitale baterako kopuru batzuk zehaztea guztiz arrunta da. Monasterio eta komentuek pobreen artean banatzeko dirua izango dute horrela; baseliza eta ospitaletan, berriz, eskale, pelegrin eta gaixoek gaua pasatzeko edota jateko behar den tresneriaz hornitzen dira.

Bestetan, hildakoaren gogoa oroitzeko sortzen den kapilautzari atxikitzen zaio pobreen aldeko diru-laguntza. Herriko Elizaren barruan egiten da oroitze hori eta laguntzaren kudeatzailea erretorea bera ala sortzailearen oinordekoak izendatzen duena izan ohi da.

Antolaketa honi buruz, M. Mollat-ek korapilatsua eta, era berean, zehaztugabea dela dio. Erakunde honen barne-eraketa aztertzen du Frantzia aldean, baita Santu bereko babespean aritzen direnek elkarren artean dituzten harremanak ere. Bere ondorioek gune zentralik gabeko sistema dela argitzen dute, bere lana egiteko ez dago aldez aurretik emandako irizpide zehatzik: "*Cependat, à l'exception des grands ordres, il n'existait entre les divers hôpitaux aucune dépendance institutionelle; rappelons, d'ailleurs, qu'il ne faut pas déduire d'un vocable du Saint-Esprit, de saint Jacques, de saint Jean ou de saint Antoine l'appartenance d'une maison à l'ordre du même nom. La cohérence du réseau hospitalier...était d'une autre nature. Elle fut géographique dans le cas des hospices de pèlerins répartis sur la route de Compostelle. Elle fut spirituelle par la commauté de l'inspiration augustinienne, et matérieele par la similitude des ouevres de miséricordie...Même si beaucoup de maisons...étaiten desserviers par de petites congrégations régies par des statuts modelés sur des textes de références, un nombre plus grand se contentait d'un simple règlemente, approuvé par l'évêque ou l'autorité urbaine, ou les deux à la foix*"[16]. Araudia, besterik gabe, hildakoaren agindua izan daiteke ere bai, batez ere lehen aipatutako kapilautza ala oroitz-mezetan.

Sistema honen bitartez, arima salbatu, pobreak lagundu eta giza-oreka mantendu ez ezik, bestelako emaitzak lortzen dira. Oparotasunaz jokatzerakoan

---

[16] Michek MOLLAT, Michel: "Complexité et ambiguité des institutions hospitalières: les statuts d'hôpitaux (les modèles, leur diffusion et leur filiation". In: *Timore e Caritá...*

emaileak gizartearen aurrean bere burua lehenesten eta nabarmentzen du; bere izenak, bere ospe onak, luzaro irautea lortzen du, sortzen edo laguntzen duen erakundeak iraungo duena, alegia; eta berarekin, bere sendiarena ere bai.

Karitatearen aldarte honetaz aditu gutxi konturatu dela uste dugu, Marco Dubini italiarrak ideia honekin bat egin arren: "*A tale proposito si nota, però, sempre più spesso, il rifiuto da parte dei benefattori testamentari di versare l'offerta pattuita con l'Ospedale, mentre a voltre la carità si trasforma in ostentazione del proprio benefattore economico, publicizzato con le donazioni all'instituto*". Adibide bezala, Dubinik ongile baten afera aipatzen du: bere izena ezagutarazi ez bazuen ere, bere sendiaren armarria paratu zuena ordaindu zuen eliz-apaingarrian[17].

Horrela, behartsuei zuzendatuko laguntza gizarte-buruen esku gelditzen den karitatea dugu. Errentak eta etekinak bereganatzen dituzten heinean, eskuzabaltasuna espero da beraiengandik. Horregatik, Gipuzkoan bederen, Jauntxoen egoitza zentrala osatzen dutenen artean, ospitalea eta ermita azaltzen dira. Dorretxetik, eraikuntza eta nagusiaren egoitza denetik, bizitza materiala zuzentzen du (errota, burdinola, labea...) baina baita bizitza izpirituala ere, ermita eta ospitalearen bidez.

Honen ildotik zera azpimarratu nahi genuke: pobrea izatea eta baztertua izatea ez dela gauza bera. Eskatzen eta laguntza jasotzen duen pobreak betebehar bat dauka gizartean. Gizarte horren ideologian ez dago taldetik erabat kanporatua, emandako joko-arauak betetzen dituen heinean. Gizarteratze modu honek gizarte kontrolaren aldarterik bigunaren aurrean jartzen gaitu.

Alta, XIII. mendearen inguruan, beste jarrera bat azaltzen da, lehendabiziko honen aurkakoa. Ikuspuntu honetatik, pobrezia madarikazio bat besterik ez da, txiroak gizartearentzat arriskutsuak baitira. Pobreziak gizakiak behea jota uzten ditu; horregatik, humanisten lanek –*Roman de la Rose* delakoak lekuko– pobrezia jaio zen unea madarikatuko dute.

---

[17] Marco DUBINI: "'Padroni di niente'. Povertà e assistenza a Como". In: *Timore e Caritá* ...

Woolf ere bide beretik abiatzen da, denbora-mugak berdintsuak emanez. Miseria pairatzen dutenei eskaintzen zaion begirune moralak etengabe handitzen den mesprezu eta begikoari egin behar dio aurre. Ikertzaile honek ere XV. mendearen bukaeran kokatzen du pobreziari buruzko gogoeten jaiotza, orduan jarri ziren ildoak gaurdaino iritsiak direla azpimarratuz.

Bilakatze horretan, behartsuak *Pauperes Christi*tzat onartuak izatetik zigortu eta errefusatzen diren gizakiak izatera igarotzen direla ikusten du Woolfek. Pobre (*pauper*) hitzaren jatorrizko esanahia aztertzen du. Balio anitza duen ideia dela dio[18] eta bere kontrakoak *potens, miles eta cives* direla[19]. Onartzen du, era berean, XIII. mendean badirela pobreen kontrako jarrerak eta orduko matxinadetan eredugarriak ez ziren pertsona hauek sortzen zuten beldurra eta nazka areagotuz joan zela. XIV eta XV. mendeetako gerrek eta ekonomiaren gorabeherek pobreziaren hazkundea eta pobreen tokialdatzea ekarri zituzten.

Pobreziaren aurka jotzeaz gain, eskaleak berak ere salatzen dira, miseriazko egoeren aurrean lanaren balioa goraipatuz. Lana onuragarria izateaz gain, bizitzarako beharrezkoa da, arima eta gogoa garbitzen du eta. Honek, arriskutsua izateaz gain, bestelako sailkapen bat ekarriko du, guztiz garrantzitsua: laguntza merezi dutenen eta laguntza merezi ez dutenen artekoa, hain zuzen ere.

Mediebalisten ikerketei funtsezko ondorioa darie: gizakiak gizarteratzeko ala baztertzeko bideak aldakorrak dira. Pobreziaren gainean historian zehar hartutako jarrerak horren erakusle lirateke.

Alabaina, Erdi Aroan pobreziaren zilegitasunari mugarriak ezartzea ez da erabakiorra izango. J. L. Vives humanistaren beraren aburuz, besteen beharra duena dugu pobre. Platon eta Aristotelesen iturritik edaten du, beraz, edozein sar baitaiteke zehaztasun horretan, diruduna nahiz dirugabea. Laster azalduko dira, baina, pobrezia lan egiteko gaitasunarekin soil-soilik uztartuko duten lokarriak.

---

[18] Guk erabili dugun gaztelerazko bertsioan honako hau adierazteko adibidez: *enfermedad, infortunio, pena, desprecio, disgusto,...*

[19] *Ahaltsua, zaldun eta hiritarra.*

Jean Pierre Gutton historialariak, esate baterako, gaitzarekin eta oinazearekin era zabal batean lotuta dagoen pobreziatik beste pobrezia mota batera eramaten gaitu, behar gorriarekin zerikusi zuzena duenera alegia, XVII. mendean bai J.P. Camusek –"*Qu'est-ce donc que la pauvreté'? Ç'est, disente quelques-uns, la disette ou nécessité des choses requises pour vivre commodément, ç'est à dire sans travailler. D'autres, une privation des choses, droits et actions temporelles nécessaires pour l'usage de la vie humaines. D'où nous pouvons recueillir que celui-là seul est vraiment pauvre qui n'a autre moyen de vivre que sont travail ou industrie soit d'esprit, soit de corps*"– bai eta Clicquot de Blervachek ere –"*le travail est le seul patrimoine du peuple. Il faut qu'il travaille ou qu'il mendie*"– adierazitakoaren eskutik[20].

Camusek bere definizioa gehiago zorrozten du, gizarte mailarik ankerrena lana ezinbestekoa duen pobrearena baino eskalearena dela ziurtatuz: "*qui est non seulement privé de tous revenus, mais réduit à tel point de misère qu'il ne peut gagner sa vie de son travail, encore qu'il le désirait, soit qui'il en soit empêché par infirmites et maladies, soit par manquement d'emploi, étant en pleine santé et ayant une industrie suffisante si elle était mise en besogne*".

Bide beretik doa S. Woolf berak ere Jeremy Bentham-engandik hartutako 1796ko definizioa, pobreak eta behartsuak ezberdintzen dituena: "*Bizirik irauteko lan egin behar duen nornahi da pobre. Jabegorik gabe gelditu...eta hein berean lan egiteko gai ez dena ala lan eginez behar duen guztia lortzen ez duena miserian dago*"[21].

Hortaz, Aro Berriko ideologoek lan egin behar duten pobreak errukiz hartzen badituzte ere, pobrea ez dago miserian murgilduta. Lanak miseriatik salbatzen du. Halere, beste baliabiderik ezean, lanak ez du lasaitasuna bermatzen. Pobrearen gainean etengabeko mehatxua dago: abagune ekonomikoak, gaixotasunak, edozein lan egiteko gaitasun ezak,... miseria oso gertu dago.

---

[20] J.P. CAMUS: *Traité de la pauvreté évangélique*. Besançon, 1634. CLICQUOT DE BLERVACHE: *Essai sur les moyens d'améliorer en France la condition des laboureurs, des journaliers, des hommes de peine vivant dan les campagnes et celle de leurs femmes et de leurs enfants*. Chambéry, 1789.
Biak GUTTONek emanak: *op. cit.* 9. or. Berak, F. FURET-en *Dictionnaire Universe*-etik hartu ditu.

[21] Itzulpena gurea da.

Pedro Carasa Sotok 1990ean ezarritako behartsuen mailaketa ere arrakastatsua suertatu da. Aditu honek hiru mailako egoera ikusten ditu[22]:

- Txirotzeko gai direnak (“*pauperizables*”): Abagune okerretan pobrezia erortzeko zorian daudenak.
- Txiroak (“*pauperizados*”): gizartearen neurgailuen arabera pobreak direnak.
- Lagunduak (“*asistidos*”): gizartean ardura bereganatu dutenak. Laguntza-sarean txertatua.

Dena den, laguntza ez ezik pobretuen gainean jazarpena ere erabiltzen denez, gure ikuspuntutik laugarren maila gehitzea komenigarri litzateke: zigortuena ala jazarpenaren baitan sartzen direnena.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu aroak eta gizarteak zein bide lehenetsi –laguntzarena ala zigorrarena– baldintzatzen duela. Guri dagokigunez, ongi ulertu beharko dugu gurean zein den bazterketari eskaintzen zaion tartea:

-Antzinako Erregimeneko Gipuzkoan zein izaten zen baztertua,

-Alboratua izateko zein bide hartzen zen,

- Honek guztiak nola eragiten zion giza-taldearen antolaketari.

Adibidez, arestian aipatu diren definizioen ildotik, lan egiteko beharrari txirotasuna deitzea ez luke inolako emaitza berezirik izango gure Gipuzkoan. Ideia hauek industrializaziorantz, klaseetako banaketarantz, eta abarrerantz garatzen ari den gizarte baten isla izan daitezke, baina gure miaketaren abiapuntua izan behar duen garaian lan egiteak ez dakar jazarpen errepresiborik, ez eta giza-bazterketarik. Aitzitik, lan egiteak gizartean toki egoki bat lortzen laguntzen du. Hau da, lan eginez miseria aldendu ahal da.

Horregatik, ‘lana’ azpimarratu beharrean, gakoa gizarteak eskaintzen dituen bitartekoez baliatu ahal izatean datzala uste dugu. Gizartean betetzen den papera ez

---

[22] Pedro CARASA SOTO: “Metodología del estudio del pauperismo en el contexto de la revolución burguesa española”. *La Historia social en España: actualidad y perspectivas: actas del I Congreso de la Asociación de Historia Social, Zaragoza, septiembre, 1990.* Madrid: Siglo XXI, 1991. 359-384.

litzateke emango lanarekiko harremanari begira, baizik eta gainontzeko pertsonekiko izaten diren harremanei erreparatuz. Harreman horietan bere jokoa betetzen duenak saria izango du. Ados ez dagoenak, berriz, zigorra.

Oreka horretan, dirurik ez duenak, pobrea izanda ere, ez du zertan bazterketa pairatu behar. Pertsona ezaguna, zintzoa eta gizarte-sarean beharrezkoak diren senide edo lagunak baldin baditu, mailegu bat lortzeko behar diren bermatzaileak edota gizarteak eskaintzen dituen bestelako baliabideak lortuko ditu: opariak, eskupekoak, nagusi baten menpean lan egin ala emigratzea, herri-lurrei esker oinarrizko horniketa osatzea, interesik gabeko maileguak, ostatu eta aterpe duin bat... eskuratuko ditu. Pertsona horrek erabakitzeko ahalmenik ez duela bistan da; pobrea da, baina ez dago bazterturik, ez dago komunitatetik at.

Ostera, behar materialak asetuta izan arren, gizabanakoren bat zein pertsona-multzoren bat komunitatetik kanporatua ala gizartean ez onartua gerta daiteke. Dirua eta lana bezalako ezaugarririk, esan bezala, aintzat hartu gabe.

Logika berdina aurkituko dugu oinordetzak, seniparteak eta ezkonsariak banatzeko garaian: gurasoekin eta sendiarekin ongi jokatu duten seme-alabek dagokien senipartea jasoko dute bizimodua atera ahal izateko; etxeko nagusiak agindutakoarekin lerrokatu ez direnak, aldiz, ez dute deus jasoko.

Era berean, senidetasun estrategiek gizartearen barruan garatzen duten jokamolde integratzaile/baztertzailearen inguruan landu dituzte ikerlanak ere aski ezagunak dira[23]. Gure iritziz, gertakizun hauek islatzen dutena lagungarri da oso baztergarriak eta baztertuak direnengan garatzen den estrategia konprenitzeko. Bazterketaren egikaratzea Antzinako Erregimeneko Gipuzkoan gizartekide batek dagokion komunitatearekin izaten duen portaeraren arabera gertatzen dela

---

[23] Daniella FRIGO: *Il padre de famiglia. Governo della casa e governo civile nella tradiziones dell' 'Economica' tra cinque e seicento.* Roma: Bulzonmi, 1985. Gogoratu Vivesek ere halakorik aldarrikatzen zuela.
---: "Governo della casa, nobilità e 'republica': l' 'economica' in Italia tra Cinque e Seciento". *Cherion, 4 (1985).* 75-94 or.
---: "Disciplina Rei famiariae: a economia como modelo administrativo de Ancien Régime". *Penelope: fazer e desfazer a historia, 6 (1991)* . 47-62 or.

baieztatuko luke honek. Gainontzeko kideek osatzen duten kidegoak gizartekidearen ardura hartuko du, bere portaerak bidea ematen baldin badu, ezintasunean zein txirotasunean alboratua geratzea saihestuz. Ez dugu esaten desberdintasun sozialik ez dagoenik, komunitate politiko bakoitzak bere partaideak babesteko bere baliabide eta bitartekoak erabiltzen dituela baizik. Gizarteak berak, berdintasun soziala arrotza duen gizarte horrek, usadioa onartzen ez duenarentzat zigorra aintzat hartzen du, araua bete ez duenaren gaitasun materiala edozein dela ere[24].

Honekin batera ere, XX. mendeko 70eko hamarkadan jorratzen hasi zirenek –aintzindariek, beraz– Europa mailako pobrezia eta bazterketa ikertzerakoan ager daitezkeen zailtasunak azpimarratu zituzten jada. Haien artean, Guttonen esanak bereziki argitsuak iruditzen zaizkigu[25]. Bere ustetan, gizartearen eremu hau jorratzerakoan, ia ezinezkoa egingo zaigu gizabanako hauen ahotsa zuzen-zuzenean entzutea . Bere testigantzaren berri, normalean, epaiketetan izango dugu soil-soilik. Hor ere, euren kontakizunak zalantzak sortuko ditu; batetik, nork bere burua babestea normalena delako, horretarako egia osoa ez esatea beharrezkoa bada ere; bestetik, ikertzailea eskribauaren eskutan gelditzen delako, honek jaso –eta Gipuzkoari dagokionez, gainera, itzuli– duena besterik ez dugu jakingo.

---

[24] Hau irudikatzeko bi adibide plazara ditzakegu: 1612. urtean Mari Andres Zaraa Bolibarrekin gertatutakoa dugu hizpide lehendabizikoan. Arrasateko neska honek Antonio Ibiñarrirekin ezkondu nahi du, nahiz eta bere gurasoek, Pedro Fernandez Zaraa Bolibar eta Mariana Bergara, ados ez izan. Bere nahia aurrera eramateko komentu batean bilatu zuen aterpe eta bertan, lekukoen aurrean, ezkontzeko hitza elkarri ematen zioten. Ondoren, neskaren gurasoek gertakizun honen berri eman dien mezularia harrikatu zuten; gero, lagunak bildu, komentura joan eta aizkorakadaz ateak botatzeari ekin zioten. Lekaimeek, noski, Mari Andres entregatzen dute. Ondorioz, Pedro Fernandez Zaraa Bolibarrek Alcala de Henareseko komentu batean sartzen du bere alaba.

Beraz, Maria Andres Zaraa Bolibar, pobrea ez den pertsona bat –bere aita Zaraa Bolibar Arrasateko aberatsenetarikoa baita–, gizartetik kanporatua izaten da, bete behar diren aginduei men egin ez izateagatik. (Arrasateko Udal Artxiboa: E 7 IV).

Pobreak ez izan arren baztertuak izaten diren giza-multzoei buruz, XVII. mendearen hasieran ere, Pasaiako kaiaren inguruan salerosketan dabiltzan portugaldar merkatariak ditugu. Merkatari hauek Probintziatik kanporatuak izango dira aitoren seme ez izatea aitzakia hartuta. Behin eta berriro Gaztelako Erregearen aldekoak direla, emakume gipuzkoarrekin ezkonduta daudela eta Probintzian etxeak dituztela aldarrikatu arren, egotziak izango dira. Beren jarduera komertziala mehatxu larria zen Donostiako merkatarientzat eta garesti ordaindu zuten hori. Zokoratze honi buruz plazaratu dugu jada gure ikuspuntua: David ZAPIRAIN KARRIKA, Juan Carlos MORA AFAN: "Exclusión social en los siglos XVI y XVII: esclavos, judíos y 'portugueses' en la Gipuzkoa moderna". *Vasconia, 24 (1996)*. 57-192 or.

[25] Berak baino lehenago, adibidez, F. FURET-ek. Honen berri: Bartolome y Lucile BENNASAR: *Los cristianos de Alá: la fascinante aventura de los* renegados. Madrid: Nerea, 1989.

Guttonek berak ikusmira zuzentzen laguntzen du: "*Seulement il y avait quelque malhonnêté intelelectuelle à présenter une étude des pauvres comme on présente celle de commerçants, de banquiers, de bourgeois. Puisque notre tableau des pauvres risquait fort de refléter en fait l'idée que la société avait des pauvres, il fallait logiquement compléter et critiquer ce tableau para l'analyse des attitudes et des doctrines de la société à l'égard des pauvres*"[26].

Thomas Riis irakasleak aberastuta topatzen dugu iradokizun hau. Honek, Fiorentzako Unibertsitateko Institutu Europarraren eta Danimarkako Letren eta Giza-Zientzien Ikerketako Kontseiluaren babespean, 1979-1986 bitartean ikerketa handi bat bultzatu zuen, Europa osoa aintzat hartuz. Bilkura hauen ondorioz kaleratutako bigarren txostenean, pobreek gizarteari buruz izan zezaketen ikuspuntua argitzea eskatu zien, besteak beste, gainontzeko kolaboratzaileei[27].

Geremekek izenburu ezin egokiagorik hautatu zuen bere lanik esanguratsuenetarikoa denarentzat: *Litosc i szubienica.* Errukia eta Urkamendia. Berdin, arestian aipatu Cremoako batzarraren akta-argitalpenak hartzen duen izena: *Timore e caritá*. Beldurra eta Karitatea. Edota Haesenne-Peremansen lanaren izenordea*: assistance et repression...*: Laguntza eta Zigorra. Gizartearen *standarra* betetzen ez dutenek errukia ala zigortu merezi duten, gizarteratuak ala gizartetik kanporatuak behar diren; horra hor galdera, pobreziaren aurkako "live8"ko[28] kontzertu hipergarestien garaian oraindik argitu gabea. Baina, era berean hona hemen gure ikerketaren gaia: Urkamendia, Beldurra eta Errepresioa nola gauzatu ziren, zein diskurtsotan oinarritzen ziren eta zeinen gainean ezarri ziren: gizartea eta gizartekideen kontrola eta zigorra, alegia.

Bazterketaren eta pobreziaren inguruan gizarteak izan duen jarrera behin-betikoa ala finkoa ez dela izan ederki adierazten du ere Geremekek. Hortaz, lehengo

---

[26] GUTTON: *op. cit.*

[27] *Aspect of poverty in Early Modern Europe II. Les réactions des pauvres à la pauvreté: études d`histoire social et urbaine. Thomas Riis (arg.).* Odense: Universtiy Press, 1986. Partehartzaileen jatorria: Varsovia, Fiorentzia, Leipzig, Kopenage, Valladolid, Lyon, Trèves, Helsinki, Linz, Madril, Napoli, Paris, Oxford, Sofia eta Ljubljana.

[28] 2005eko uztailan mundu osoan zehar antolatutako kontzertuak, G8koen bilkurarekin batera. Honekin batera "make poverty history" leloa zabaldu zen.

hipotesi berbera topatzen dugu hemen. Arin bada ere, pobrezia ikertzerakoan, pobreak, behartsuak, eta abar bilatu, zenbatu eta sailkatu egin behar dira. Giza-multzo bat marraztu, zehaztu eta plazaratu, betiere 'pobreak daudela' esatea ez dela nahikoa gogoratuz. Hori egin ahal izateko, pobrezia aitzakia hartuta gizarte-kontrolaren subjektua zein hartzen dugun zehaztu behar da, horretarako erabiltzen diren irizpideak gizartearen eta aroaren arabera aldakorrak direla kontuan harturik.

Pentsamoldeak zein jokabideak, beraz, ez dira izan geldoak Erdi Aroan zehar. Ikuspuntu kontrajarri biek –Zigorrak/Errukiak– bere horretan jarraitzen dute Aro Modernoaren hastapenetan, XVI. mendean eztabaida gordinean elkarren aurrean gelditu. Hala, karitatearen egokitasunaren inguruko eztabaida sasi-filosofiko eta politikoari buruzko debatea aintzat hartu zuten goi-mailako pentsalariek eta Unibertsitateek[29]. Eztabaida honetan sustatuta, gure ustez, zigorraren bidea eta zigorra gauzatzeko garatzen ziren baliabideena gero eta zehatzago gelditukodira marraztuta.

[29] Eztabaida honen aurkezpena egiterakoan, Justiniano enperadorearean Kodizean jatorria duela esaten du WOOLFek, Zuzenbideko bilduma honek pobreekiko geroko jarrerak baldintzen dituela esanez. *Op. cit.* 32. or.

## 2.1 Gizarte kontrolerako molde berriak ohiko karitatetik haratago.

Ezin dugu ahaztu Alemaniako nekazarien matxinadak edota Erlijio-gudak bezalako gertakaera latzek XVI. mendearen hasieran miseria zabaltzerakoan eta jende xumeak bultza zezakeen arriskuaz ohartarazterakoan izan zuten erantzukizuna, hauen erruz karitate elizkoiak zein pribatuak gainezka egin zuten-eta. Hortaz, gizartearen oreka edo estatusari eusteko bideak egokitu behar dira ere. Pobreziaren gainean egiten den irakurketa, beraz, oso bestelakoa da. Guttonek, esate baterako, pobreziari darizkion hiru beldur identifikatzen ditu: gaixotzeko beldurra; lapurtzeko beldurra; matxinatzeko beldurra.

Batzuk zein besteak, mendean hartu behar diren egoerak dira. Pobrezia ez da uharte bakar bat, guztiz isolatua dena. Pobreak bere atean ikusten dituenari arrisku-ikur bat plazaratu zaio aurrean, txiro horiek sortu dituzten bat-bateko zein noizbehinkako arrazoiak ez baitaude urrun. Miseriaren munduak bere baitan darama inguruko jarrera-aldaketa sortzeko ahalmena. Arrisku fisikoak (gudan, gosez ala izurritean hil) alboratuta ere, bere balizkotasuna da beldurgarria. Pertsona baten bizitzan zehar aukera paregabeak  daude –egiturazko arrazoiak ala arrazoi estrukturalak direla medio– miseria gorrira igarotzeko. Aukera horiek haurtzaroan, zahartzaroan edota ezkontzarako agindu diren sariak gehiegi berandutzen direnean egiten dute gora; adibidez, emakumezkoengan gizonezkoengan baino ugariagoak dira.

| | Strasbourg 1523 | Toledo 1573 | North Walsham 1706/7 | Grenoble 1771/4 | Würzburg 1791 |
|---|---|---|---|---|---|
| gizonezkoak | 31 | 37 | 28 | 33 | 18 |
| emakumezkoak | 69 | 63 | 62 | 67 | 82 |

Europako hainbat hiritan pobreei eskainitako laguntza eta sexuaren arteko harremana (%tan emana), XVI-XVIII. mendeetan zehar.[30]

[30] Robert JÜTTEk emana: *Poverty and deviance in Early Modern Europe*. Cambridge: University, 1994 (1996 repr.). 41. or. Bertan, erabili dituen iturriak zehazten ditu.

Ez da harritzekoa, beraz, sortu diren eta sor litezkeen egoera gordinei erantzuteko plazaratzen diren egitasmoak ugariak eta ondo zehaztuak izatea, hala arlo teorikoan –diskurtsoak, iritziak eta abar– nola arlo praktikoan –lege errepresiboak zein karitatea–; hots, gizarte kontrolaren bi aurpegiak: urkamendia eta errukia.

Hau dela eta, lehenago marraztutako bikoiztasuna zuzena dela dirudi berriro, betiere iraupen luzeko aldaketa edo garapen baten historiaren aurrean gaudela azpimarratuz.

XVI. mendeak, alabaina, norabide aldaketa ekarriko du. Erdi Aroak egin ez duen hautua, aurrerantzean pixkanaka-pixkanaka hasiko da gorpuzten, Europa osoan aldi berean izango ez bada ere. Pobre izateak duen onuraren inguruko zalantzak nabarmenki lausotzen dira, pobreziaren aldeko iritziaren kalterako; mendebaldeko Europako gune garrantzitsuenetan 1520. urtetik aurrera pobrezia eta santutasuna berdintzen duen jarrerak ez du txirotasunari buruzko jokabidea jadanik gidatuko.

Hemendik aurrera, **pobre onak eta pobre maltzurrak bereiztea, laguntza ala zigorra merezi duten giza-multzoetan egokitzea,** hain zuzen ere, pobrezia kontrolatzeko ardura hartzen dutenen ekintzen ardatz nagusia bilakatuko da. Pobreaziaren kontzeptu berak ere, diskurtsoaren erdigunetik aldenduko da. Pobreak ez ezik, subjektu berriak agertuko dira diskurtsoetan. Hobe esanda, agintariek kontrola ezartzeko erabiliko dituzten deskribapenetan eta zabalduko dituzten giza-etiketetan, pobre hitza oso zehaztuta agertuko da, bestelako kalifikatibo guztiz esanguratsuen ondoan. Era berean, honek gizarteratzea edo laguntza ez diren bideak indarrean jartzea ahalbideratuko duelarik.

Tenore honetan, pobreziaren aldarte erlijiosoa kolokan jartzen da. Eskaleen aurkako literatura ugari hedatzen da, pelegrinak bereziki zigortzen dituena. Europako bideetan ikusten diren milaka pelegrinak, santutasuna bilatzeak edota bekatuak garbitzeak baino, alferkeriak bultzatzen dituela esaten da. Ez omen dago horrenbeste santurentzako tokirik ezta motiborik ere. Aldiz, gizarte desorekatu baten adierazlea da eta gizartea osatzen dutenen utzikeriak zerikusi zuzena du horretan.

Ikerlari guztiak bat datoz eztabaida honen jatorria XVI. mendeko 20ko hamarkadan kokatzerakoan, eta orobat denek, aho batez, J.L. Vivesen lana azpimarratzen dute: "*De subventione pauperum*", hain zuzen ere. Jatorriz Valentziakoa izan arren Brujasen bizi eta Moro eta Erasmoren lagun eta jarraitzailea den humanista honek bi zatitan banatzen duen lan honetan teknikoki nola aritu eta moralki nola jokatu argitzen du.

Karitatearen nondik-norakoak adierazten du lehendabiziko liburukian, onura egitea gizartearen oinarria dela aldarrikatuz, bera gabe ez baitago gizarterik. Eskale faltsuek sortu duten ezinegonari leporatzen dio jende asko eskaleekin gogaitua egotea; horregatik, pobreen jarrera eta jokabidea zein izan beharko lukeen zehazten du. Gero, bigarren liburuxkan, hiribilduetan zein laguntza mota antolatu beharko zen ematen du aditzera. M. Fatica italiarrak lan hau era borobil honetan deskribatzen du: "*l'opuscolo del Vives non solo è il più compiuto documento del cambiamento di una mentalità, ma per la combinazione di pezze giustificative tratte dal repertorio degli scrittori classici, dalla tradizione giuridica e dalle Sacre Scritture (per quest'ultima operazione è da accostare soprattutto a Lutero) divenga uno strumento insostituible nelle mani del botere (sia esso laico o ecclesiastico), chi vi attinge technice, regole, legittimazioni ad ogni tentativo di trovare una soluzine finale al problema della povertà e della mendicità...È anche il primo opuscolo che cerca di convincere la Chiesa cattolica ad abbandonare l'assitenza al botere pubblico in cambio del vantaggio di liberare i templi dall'ululat degli accattoni*"[31].

Laguntzaren zuzendaritza Elizaren eremutik Hirietako buruzagienera eraman behar dela defendatzen du Vivesek. Honen erakusgarri, Brujas hiriko agintariei zuzendu zien agurra aipatutako lanaren hitzaurrean: "*Particular desvelo de los administradores de la ciudad debe ser cuidar y poner todo su esfuerzo en que los unos sean socorro de los otros; y nadie sufra agobio ni reciba daño injusto, y que al que es más débil el que es más poderos le asista a fin de que con la concordia del común y la solidaridad ciudadana se aumente el mutuo amor de día en día y permanezca para siempre. Y así como es cosa fea para un padre de familia consentir que en su casa haya alguno que padezca hambre o sufra desnudez o la vergüenza de andar andrajoso, en medio de la opulencia de su estado, así tampoco parece*

---

[31] Michele FATICA: "Il 'De subventione pauperum' di J.L. Vives: suggestioni luterane o mutamento di una mentalità collettiva?". *Società e storia, nº 15. (1982).* 1-30 or.

*bien que en una ciudad, no pobre ciertamente, toleren sus magistrados que haya ciudadanos, siquiera sean pocos, que sientan las embestidas del hambre y el oprobio de la miseria"*

Eta berdin bigarren liburuaren lehendabiziko atalean: "*Cuanto convenga al gobernador de la ciudad tener cuidado de los pobres... en adelante diré lo que debe hacer la ciudad como colectividad y su gobernador, que es en ella lo que el alma es en el cuerpo. El alma no vivifica solamente una u otra parte del cuerpo, sino el cuerpo todo; así también para el magistrado que le rige ninguna cosa en aquella colectividad debe quedar descuidada. Los que se ocupan sólo de los ricos, con menosprecio de los pobres, hacen lo mismo que aquel médico que creyera que no se debe subvenir con remedios las dolencias de las manos y de los pies, porque están lejos del corazón. Y así como este tratamiento singular no sería sin gran daño de la totalidad del hombre, así tampoco en la República las clases humildes no se descuidan sin peligro de los poderosos...No es fácil imaginar cuántas guerras civiles han promovido en las naciones todas estas quejas*".[32].

Gorputzaren atalen loturak eta Gizartearen atalen artekoak berdinak dira. Orokortasunak zati guztien ongizatearen premia du, osasuntsua izango bada.

Ospitaleen eta laguntzen kudeaketa apaizen esku gelditzen bada ere, agintariek pobreen gaineko erabateko kontrola beharko lukete izan, kanpotarrak errefusatuz, bertakoak aintzat hartuz, eta beren egoera fisikoa aztertuz. Honekin batera, behartsuek lan egiteko ohitura har dezaten lan egitea gomendatzen du.

Erreforma hau, edota Lyonerako Jean Vauzelles-ek proposatu zuena, heretikotzat eta luteranozaletzat joko du batek baino gehiagok. Izan ere, ongizatearen erreforma eta XVI. mendeko eliz- erreforma batera doaz[33].

Ypres hiriaren bitartez, non erreformari Vivesek baino lehen ekin zioten, berrikuntza hauen egokitasun katolikoa Sorboneko teologoenganaino iritsiko da, hauen ebazpena, 1531n, erreformaren aldekoa izan baitzen. Beraz, katolikotasunean

---

[32] Ondoko argitalpena erabili dugu: VIVES, Juan Luis: *Del socorro de los pobres = De subventione pauperum (1525)*. Barcelona: Hacer, 1992.

[33] Protestante lurraldeetan, Wittenberg, Leisnig eta Altenburg abiapuntuta, Luterok, Karstadt-ek eta Wenzel Linck-ek bultzatuko dute. GEREMEK-ek, adibidez, errepasatzen du, 195. eta hurrengo or. Baita FATICAk ere: *op. cit.*

Vivesen idei humanistek Flandrian zehar hedatzen doaz. Hala, Lovainako Pietro Papus irakaslea haren alde azaltzen da, baita Andreas Fricius Modrevius poloniarra ere. Baina eztabaidaren unerik gorena, beharbada, Gaztelan izan zen, Karlos V.a eta Zamora, Salamanca eta Valladolid hiriak 1540. urtetik aurrera erreforma gauzatzen hasten direnean. Jarrera hauen kontra, Segoviako Domingo Soto azaldu zen 1545. urtean, kristauek laguntza beti eman behar dutela salatuz[34]. Beharrez tokiz toki eskatzea beste erremediorik ez dutenak babestu nahi ditu Sotok; ezin da zigortu bere etxeak lagatzera eta eskatzen bizitzera behartuta dagoena. Haien aurkako jazarpena ezin da zuritu ez legez, ez moralez. Pobretasuna goratzen badu ere, kezkati azaltzen da Soto, Europa osoan hazten ari den arazo honekin, egoera hau ulertzeko ekonomia pairatzen ari den aldaketa eta nekazarien ez-egokitasuna kontutan harturik.

Urte berean, Salamancako Juan Medina de Robles-ek erantzuten dio, erreformaren bidea defendatuz. Karitatea eta ospitaleak antolatzea laikoen esku gelditu behar dela dio, erakundeen egunerokotasuna kleroen lana izan arren.

Eztabaida Brujasen piztuko da urte batzuk beranduago, Wyts erreformazalearen eta Leonardo Villavicencio tradiziozalearen artean. Honek, Brujasen ereduaren aurka, Kordoba, Burgos, Granada eta Valentzia jartzen ditu, erreforma elizaren doktrinaren kontrakoa dela argudiatuz. Geremeken esanetan, eztabaidak goia jo zuen 60. hamarkadaren hasieran eta hemendik aurrera debateak elizarentzat arriskutsua izateari utzi zion.

Alta, gerora ere lan sakonak azaldu ziren: Van Hout, Pérez de Herrera... eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, guretzat biziki interesgarria suertatuko den Miguel Giginta katalanarena[35]. Honek, 1576. urtean aurkeztu zuen bere egitasmoa Gaztelako

---

[34] *In causa pauperum deliberatio*. 1554 eta 1561 urteetan berriro argitaratuta.

[35] Gigintari buruz, eta orokorrean XVI. mendeko pobreziaren inguruko ideiei buruz, Michel CAVILLAC-en lanak ezinbestekoak dira. “La reforma de la Beneficiencia en la España del siglo XVI: la obra de Miguel Giginta”. *Estudios de Historia Social, 10-11 (1979)*, 7-59 or.; eta Cristóbal PEREZ DE HERRERAren 1598ko *Amparo de pobres* lanari 1975ean egindako sarrera (Madrid: Espasa-Calpe. Clásicos castellanos bildumaren 199. alea. IX-CCIV orrialdeak).

Gorteetan eta jarraian beste hainbat lan argitaratu zituen. Ospetsuena, beharbada, 1579. urtean, *Tratado de remedio de pobres* izenekoa[36].

Erruki Etxe eraginkorrak martxan jartzea proposatu zuen. Hara joko lukete egiazko pobreek, eskatzeko eskubidea hauei bakarrik dagokie eta. "*Se habrá de publicar que todos los pobres se podrán recoger a ellas, certificándoles que todos tendrán allí lo necesario, con libertad de irse y volver cuantas veces quisieren. Y los que de aquesta comodidad no quisieren gozar, se vayan o tomen otro arbitrio de vivir, pues teniendo en ellas lo necesario, no podrán pedir limosna sin indicio de fingidos. Y encargarse ha al pueblo, por todas las iglesias, que no den más sus limosnas de mendigos, si no a los que de las dichas casas saldrán a pedir por todos con su señal conocida*"[37].

Gainera, pobreen egoera izpirituala hobetzea ere Gigintaren kezka da; horretarako, zaindaria, lana, otoitza eta heziketa etxe hauen baitan lantzea ezinbestekotzat jotzen du. Guztira, 50 arrazoi ematen ditu etxe hauen balioa zuritzeko. Finantzaketari buruz, Félix Santolariak metodo honek tradizioa eta modernotasuna uztartzen duela azpimarratzen du. Izan ere, aberatsek ematen dituzten eskupeko eta opariak hartzeaz gain, pobreek etxeetan egiten duten lana ere aintzat hartzen du, eta aipatzen ditu beste diru-iturri batzuk, hala nola loteria eta, beharrezkoa izanez gero, zerga bereziak. Hau guztia gastuaren kontrol zorrotzak bermatuko luke[38].

Pentsalari berritzaileen ideiak gorpuztu ziren, nola edo hala, Europa osoan zehar. Hau dela-eta, ez deritzogu funtsezkoa eredu protestantearen eta katolikoaren arteko banaketari, laguntza-gune zentralizatuak sortzeko ahaleginetan kokatzen baitugu ardatza, hiri bakoitzeko agintariek bertako behartsuen ardura hartu eta

---

[36] Besteak beste: *Exhortación a la compasión de los pobres* (Barcelona, 1583); *Cadena de oro* (Perpinyá, 1584); *Atalaya de la caridad* (Zaragoza, 1587). Aipatu *Tratado del remedio de pobres*, Coimbran kaleratu zuen.

[37] Félix SANTOLARIA SIERRAren ediziopean, ondoko argitalpena erabiltzen ari gara. Manuel de GIGINTA: *Tratado de remedio de pobres (1579)*. Barcelona: Ariel, EUB, 2000.

[38] Epe motzera oso arrakastatsua izan zen bere proposamena. Toledon 1580an jarri zen martxan, Madrilen 1581ean eta Bartzelonan 1583an; baina Gaztelako hiriek Gorteei 1587an egindako eskaerari ez zioten aldeko erantzunik eman. Madrilekoa 1586. urtera baino ez zen iritsi, eta Tolodekoa 1589ra. SANTOLARIAren ustetan, Bartzelonakoa baino ez da XXI. mendera iritsi, moldaketa asko jasan ondoren.

laguntza zeinek merezi duen zehazteko hauek ezinbestekoak zirelakoan[39]. Ildo horretatik, gizarte kontrolaren ezaugarriekin batera –hau da, ekintzen nortasunekin batera–, egitasmoak abian jartzeko zilegitasuna zeini zegokion zen eztabaidaren muina.

| **ESKUPEKOAK EMATEARI BURUZKO IRITZIAK** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ESKUPEKO BALDINTZATUTA** | | | **BALDINTZARIK GABEKO ESKUPEKOA** | | |
| **Pentsalari mota** | **Izena** | **Argitalpenaren urtea** | **Pentsalari mota** | **Izena** | **Argitalpenaren urtea** |
| Protestantea | Lutero | 1519-20 | | | |
| Protestantea | Karlstadt | 1522 | | | |
| Protestantea | Linck | 1523 | | | |
| Protestantea | Bugenhagen | 1526 | | | |
| Katolikoa | Vives | 1526 | | | |
| Humanista | Cellarius | 1530 | | | |
| Katolikoa | Vauzelles | 1531 | | | |
| Katolikoa | Loiola | 1535 | | | |
| | | | Katolikoa | De Soto | 1545 |
| Humanista | Forrest | 1548 | | | |
| Protestantea | Bucer | 1557 | | | |
| Humanista | Wijts | 1562 | | | |
| | | | Katolikoa | Villavicentio | 1564 |
| Protestantea | Hyperius | 1570 | | | |
| | | | Katolikoa | Drant | 1572 |
| Humanista | Van Hout | 1577 | | | |

[39] Baita Robert JÜTTEk berak ere: "*We are likewise not interesed in a quantitative measurement of poor relief agecies in either Protestan or Catholic communities. Our objective is to show how two highly competitive poor relief systems came into being and how it was possible that both civil and ecclesiastical authorities participated in the welfare reform that displaced medieval charity. In the sixteenth-century debate on the reorganization of poor relief the point of contention was not between state or church over charity, but between public or private, centralized or decentralized relief*". *op. cit.* 105. or.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Katolikoa | Giginta | 1579 | | | |
| | | | Katolikoa | Fulcus | 1585 |
| Humanista | Coornhert | 1587 | | | |
| Humanista | Arthington | 1597 | | | |
| Humanista | Pérez de Herrera | 1598 | | | |
| Humanista | Medina | 1606 | | | |

| **ESKALEEI BURUZKO IRITZIAK** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ESKATZEA DEBEKATZEAREN ALDE | | | ESKALEEI NOLABAITEKO MUGAK, BESTERIK GABE. | | |
| **Pentsalari mota** | **Izena** | **Argitalpenaren urtea** | **Pentsalari mota** | **Izena** | **Argitalpenaren urtea** |
| Protestantea | Lutero | 1519 | | | |
| Protestantea | Karlstadt | 1522 | | | |
| Protestantea | Linck | 1523 | | | |
| Katolikoa | Vives | 1526 | | | |
| Humanista | Cellarius | 1530 | | | |
| Katolikoa | Loiola | 1535 | | | |
| | | | Katolikoa | De Soto | 1545 |
| Humanista | Forrest | 1548 | | | |
| Protestantea | Bucer | 1557 | | | |
| Humanista | Wijts | 1562 | | | |
| Humanista | Vowel | 1575? | | | |
| Humanista | Van Hout | 1577 | | | |
| | | | Katolikoa | Giginta | 1579 |
| | | | Katolikoa | Benincasius | 1584 |
| Humanista | Coornhert | 1587 | | | |
| | | | Humanista | Perez de Herrera | 1598 |

### 2.2 Hirietan zentralizatutako laguntza-gune handi eta bakarrak.

Philippe Sassier-ek karitatearen bilakaera laikoa funtsezkotzat jotzen du, erdi aroko laguntza-sare zaharra tokiz kanpo gelditu baita; ospitale zahar eta txiki hauek oso barreiatuak daude landa-eremuan: "*Ce mouvement est rendu inéluctable par l'intense désordre qui règne au sein des maisons de charité. Au sortir des sombres années du Moyen Age finissant, après tan de guerres et d'épidemies, ces institutions sont totalement ruinées et désorganisées; tant sur le plan financier que disciplinaire, elles ne peuvent faire face à l'afflux des miséreux. Les oeuvres de charité religieuses et privées ne sont pas adaptées aux impératifs du grand nombre, à la concentration des nécessiteux dans les villes et aux problèmes d'orden public qu'elle entraîne. De plus, leurs fonds servent assez souvent à entretenir les gestionnaries plus qu'à soulager les malheureux*"[40].

Beraz, elizaren arloa gainditu eta gizarte-kontrolaren ardatza hirietan eta hirietako agintariengan kokatzea dugu berrikuntza nagusiena. Hau dela eta, XVI. mendeko tokiko arauek udalbatza bakoitzak bere pobreekiko duen ardura azpimarratuko dute; udalbatzari dagokio, hortaz, bere behartsuak zaintzea. Enrike III.ak ere hala zioen: "*Ç'est un faict qui despend de la charité et piété que doyvent exercer les bons citoyens envers leurs prochains, comme bons Chrestiens*"[41].

Woolfek ere aldaketaren muinean 1520-1540 bitartean abian jarri zen sistema udalgintzari atxikitako karitate-sistema dela nabarmentzen du. Hirietako agintariek hartzen dute ardura hau, karitatezko egintzak zentralizatuz, talde zehatzengana bideratuz, kalean eskatzea debekatuz, pelegrinoentzako aterpeak murriztuz eta pobreen artean lan egiteko gai direnak eta ez direnak bereiziz. Hortaz, gizarte-kontrolaren gune berriak ere bere nortasuna ezarriko dio kontrolari. Karitatea mugatuko da, eta honen ondotik hain indartsuak ez ziren bestelako jokamolde murriztaileak sendotuko dira.

Aldaketa funtsezkoa dela uste dugu guk ere. Izan ere, hurkoa laguntzea kristau ororen lana izanik –kristau ona izan nahi badu, bederen–, erlijio gizon-

---

[40] SASSIER: *op. cit.* 85. or.

[41] GEREMEK-ek ere aipatzen du: *op. cit.* 164. or.

emakumeei besterik ez dagokien lana dela errefusatzen da ikuspuntu honekin. Ardura hau laikoengana zabaltzeak Europako antolaketarekin harreman zuzena duela deritzogu. Enrike III.aren hitzetan Kristau ona izatea baino garrantzi handiagoa duen betebehar bat dagoela iruditzen zaigu: hiritar ona izatea, hain zuzen ere. XVI. mendetik aurrera, kristautasuna bitan erdibituta, pertsonen garrantzia neurtzen duten gaitasunak aldatzen ari direla ematen du. Aldatu baino, garapen luze baten gailurrera iritsiak garela ematen du. Hiria gune zentraltzat hartzen duen Europa kristau horretan, biztanleen arteko mailaketa nabarmen eta sakon ikus daiteke. Denak kristauak bai, baina batzuk karitatea eta errukia erakusteko eta gauzatzeko prest eta gai dira; beste batzuk, berriz, karitatearen eta errukiaren osagai pasiboak dira. Hau berria ez bada ere, ezinbestekoa da hiritar ona izateko. Eskupekoa emateak hala pobreen alde aritzeak ez du helburu nagusitzat arima salbatzea, baizik eta hiritarren ospea eta izen ona aldarrikatzea, sendiaren ahalmena erakustea, etxe-buruen oparotasuna zein baliabideak nabarmentzea,... Azken batean, laguntza ematen duen gizabanakoaren tokia, lehentasunezko tokia, gainera, bere auzokideen aurrean zehaztea, gizartearen buruan, gizarteak eskatzen dituen lanez arduratzeko eta pairatzen dituen arazoak irtenbideak emateko gauza dela erakutsiz.

Nork bere gain ardura hori hartzeak bestelako giza-beharrak betetzen ditu. Nabarmenena, noski, gutxiengo oreka mantentzea, eskaleek sor ditzaketen arazoak moteltzen. Baina, gure ustetan, erakusten duten oparotasun hori hiritar zintzo eta on horiek beren inguruan beharrezkoa duten gizarte sarea hedatzeko erabil dezakete ere. Eskupekoa eman behar da, baina eskupeko hori erabaki, kudeatu, bideratu eta banatzeaz arduratzen diren buruak eta hiriguneak zuzentzen dituzten agintariak berberak izango dira.

Garai batean eliz-munduak eta erdi aroko Jaunek betetzen zuten lana bereganatu dute hirietako agintariek. Lo egiteko ospitalea, eskupeko banatzea, gaixo eta antzekoentzat aterpeak ongi hornitzea,... ez da jada dorretxe baten inguruan nahitaez egin behar; ez, behintzat, nagusiki eta bakarrik. Hiri handietan Europako gizartea kudeatzen dutenek egiten dute.

Honekin batera, zera zehaztu nahi genuke: hiri bakoitzari dagokiola bere pobreen ardura. Komunitate politiko guztiek eman behar dute erantzuna, bakoitzak

bere eskumenean. Gisa honetan, pobreak hiri batetik bestera ez pasatzea lortu beharko zen, arazoari irtenbide eraginkorra ematen saiatzen diren tokiek ez pairatzeko besteen utzikeria. Baina, gainera, nortasuna islatzen duen jarrera ikusten dugu guk hemen. Komunitate batek bere partaide direnak ezagutzen eta baloratzen ditu eta haiei kargu hartzeko prest azaltzen da. Komunitate horrek ez du konponduko pobreziaren iturburua, baina egitasmoak martxan jartzen ditu, bere partaideak zeharo baztertuak geldi ez daitezen. Horretarako, baztertuak ez izateko, eguneroko ogia jasoz gosez ez hiltzeko eta, zer esanik ez, pobre izatetik eskale edota lapurra ala matxino izatera ez igarotzeko, baldintzak bete behar dira, komunitate horrek jartzen dituen baldintzak, alegia. Beraz, laguntza merezi ahal izateak aldez aurretik emaniko portaerak garatzea eskatzen du.

*2.2.1 Europan zehar*

Flandriako Ypres hiria berebiziko garrantzia izan zuen aldaketa honetan. Guttonek bertan kokatzen du berrikuntzaren sorburua, nahiz eta Woolfek Wittenbergen kokatu iturri nagusia eta Ypresen, Lyon-dik iritsita, Frantziako erresumarako eredua. 1530eko hamarkadan iritsiko ziren aldaketak Italiako hirietara.

M. Fatica Woolfekin lerrokatzen da, honako ibilbide hau luzatuz: 1522: Wittenberg, Augusta, Nurenberg, Altenburg; 1523: Kitzingen, Strasburg, Breslavia, Ratisbona, Leisnig; 1524: Königsberg-Kneiphof, Königsberg-Altsadt; 1525: Mons, Ypres; 1526: Brujas; 1527: Lille; 1529: Venezia; 1530: Valenciennes, Troyes, Paris, Lyon, Verona; 1531: Lovaina, Tournai, Malinas; 1535: Gante, Poitiers; 1538: Brusela; 1539: Genova; 1548: Bolonia. Mendearen erdialdean, Ingalaterra, Herbehereak, Alemania eta Eskandinaviaren txanda izango dugu.

Guttonek Lyongo udalbatzak 1534an antolatu eta eredutzat hartuta izango den "*Aumône*" ala "*Charité General*"en berri zehatza ematen digu eta honi esker ezagutzen dugu aldaketen mamia. Funtsean, egitasmo honek laguntza banatzea du helburu. Horretan, beraz, ohiko ideiarekin bat egiten du, baina, lehen esan bezala, laguntza banatzeko bidea da orijinala. Aldez aurretik zegoen aniztasuna bukatzen da, gune handietan eredu bakarra eta sinplea finkatuz, eliz-gizonak ez direnek gainbegiratuta, gainera. Horretaz gain, egoerarekin konforme ez dauden pobreak baztertuak izaten dira. Santutasunik ez zaie aitortzen, beraz.

Pobreei eskaintzen zitzaizkien laguntzak ordenatzea eta eskaleak kaletik desagertzea izango da helmuga, ekintza nagusi baten bitartez: ogia banatzea pobreen artean. Kanpoko pobrerik ez da onartzen, halere; ados ez daudenak kartzelaratzen dira eta eskatzen jarraitzen dutenak indarrez jartzen dira lanean.

Era berean, egitasmoa finantzatzeko era berria da. Flandriako hirietako eredua zabalduz, finantzaketaren oinarria ez dira hilburuetan utzi diren ala ospitaleei oparitu zaizkien sosak izango. Hauek erabat desagertu ez arren, dirua zerga baten bitartez

biltzen da. Bide honetan, bitartekaritza, ematen duenaren eta jasotzen duenaren artekoa, ez dagokio bete-betan elizari, hiriari baino.

Ypresen eta gainontzeko hiri flandriarretan udal-zerga sortzen bada, Lyongoa borondatezkoa da, teorian. Halere, bildutakoa ez baldin bada aski, zerga moduan jasotzen da ala pobre bati jaten ematen behartzen da[42].

Nahiz eta Lyongo erakunde hau izugarrizko arrakasta eta jarraipena izan, ezinbestekoa den orokortasun ikuspuntua lortzeko ikerketaren gunea Europa guztira zabaldu behar dela uste dugu, lurralde guztietan egiten baitu aurrera pobreziak.

Thomas Riis eta Bronislaw Geremek aitzindari izan ditugu esparru honetan; haien lanak ezinbestekoak dira miseriaren handitasuna ulertzeko eta haien eskutik, etengabe aurrera doan Europa Modernoan, txiroak eta behartsuak nonahi aurkituko ditugu. Kapitalismoaren hastapenetan 'Progreso'aren gurpila milaka gizaki bidaltzen ari da bazterretara; izan ere, gizartearen barruan pairatzen den jirabira-indarrak garbigailu baten gisa dihardu zentrifugatzen. Antza, ikerlan hauen bertute nagusienetarikoa, hain zuzen, zentrifugazio horretan zurgatuak izan direnak islatzea eta gorpuztea da.

Era berean, aldaketa hauek Europa osatzen duten gizartearen bilakaeraren berri ematen dute, haiei esker Aro Modernoaren jaiotza jarrai baitaiteke. "*En sesenta o setenta ciudades europeas se pone en marcha, al menos temporalmente, la reforma de la asistencia social, que, en la práctica, equivale a una revisión sustancial de la doctrina tradicional de la caridad. Era una de las poderosas mutaciones, a través de las cuales se forjaba la sociedad moderna*"[43].

---

[42] "*Mais à côté de tous ces dons volontaires, il existe, au bénéfice de l'Aumône générale...un véritable systéme de taxation. Il ne s'agit pas à proprement parler d'une taxe des pauvres, comme en connaissent les villes flamandes. Les contributions des Lyonnais, ou des étrangers membres des 'nations', qui donnet à l'Aumône sont volontaires...En d'autres termes, on commence par demander aux habitants ce qu'ils entenden donner et pendant combien de temps. Mias si la somme proposée est insuffisante, ou bien encore si les besoins grossissente considérablemetne avec le nombre des apuvres, l'Aumône générale fait appel à l'autorité du gouverneur pour cotiser d'office ceux qui n'ont pas accepté de se cotiser volontairemente. Parfois même, la Charité laisse le choix* entre la possibilité de payer une taxe et celle de nourrir directement un ou deux pauvres". Gainera, umezurtzak bere besoetakoak bihurtzen ditu Aumône honek. Gutton: *ibidem*. 276-277 or.

[43] GEREMEK: *op. cit.* 195 or. "Gizarte politika berria" izenburupean.

Begirada orokor honen bidez, Lyongo ereduari esker luzatu ditugun ondorioak egiazkoak direla frogatzen dugu. Geremekek, esate baterako, XVI. mendetik aurrera aldaketa hau Europa osoan zehar nola gauzatzen duen erakusten digu: Paris, Venezia, Ypres, Gante, Valladolid, Cáceres, Grenoble, Ruan, Lyon, Londres, Bristol, Canterbury, Salisbury... hiri handi hauetan pobreziak sortutako ezinegonaren aurrean proposatu ziren irtenbideak aztertzen ditu[44].

Europako agintariengandik espero zitezkeen bi bide antzematen dugu, elkarren osagarri eta sarritan banatzeko zailak direnak; lehen azpimarratu dugun bikoiztasuna da:

- Erruki-Karitatearekin lotutakoak
- Zigorrarekin zerikusi estuagoak dutenak.

Lehendabizikoarekin zerikusia duten ekimenen artean, honako hauek aukeratu ditugu, non eta noiz ezarri ziren zehaztuz:

| HIRIAK ARDURA BEREGANATU | | LAGUNTZA GUNEAK GUTXITU ETA BATERATU, LAIKOEN ESKU. | | ZERGAK BEREZIAK LAGUNTZEKO | | OGIA BANATZEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ypres | 1525 | Lyon | 1534 | Ypres | 1525 | Grenoble | 1513 |
| Lyon | 1534 | Salisbury | 1590 | Paris | 1525 | Lyon | 1534 |
| Paris | 1535 | | | Lyon | 1534 | | |
| Gaztelako hiriak | 1540 | | | Breizh | 1563 | | |
| Rouen | 1542 | | | | | | |
| Norwich | 1570 | | | | | | |

[44] Ikus ere gorago FATICAk proposatu duen hedapena.

Bigarrenarekin, berriz, beste hauek:

| KANPOKO SUSMAGARRIAK EZ ONARTZEA | | BERTAKO POBREAK BEREIZTEA: LANERAKO GAI/EZ GAI | | ESKALEAK LEGEZ KANPO UZTEA | | "BEHARTSU-LEGEAK" | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Venezia | 1529 | Venezia | 1529 | Paris | 1516, 1535 | Venezia | 1529 |
| Paris | 1535 | Gante | 1531 | Ypres | 1525 | Gaztelako hiriak | 1540 |
| Rouen | 1534 | Rouen | 1534 | Gante | 1531 | Eskozia | 1579, 1596 |
| | | | | Lyon | 1534 | Brandeburgo, Prusia | 1596 |
| | | | | Rouen | 1535, 1556 | Ingalaterra | XVI. mendean zehar[45]. |
| | | | | Grenoble | 1588 | | |

Ondorioz, Europak zenbait pobre onartuko du, agindutako baldintzak betez gero; gainontzekoak, aldiz, eskatzeari utzi eta produktibitatearen arloan sartu beharko ditu. Bereizketa hau egiteko erabiliko duen neurtzailerik nagusiena ustezko pobreek **lan egiteko duten ala ez duten gaitasuna** izango da. Honekin batera, eskaletasunarekin batera agertzen diren jarduera arriskutsuak (lapurretak, sexu jarduerak eta abar) zigortzeko tresnak zorroztuko dira.

[45] 1597-98koa 1640an moldatu eta 1834ra arte luzatu.

*2.2.2 Ez da ogirik neke gaberik. Pobreak baino zerbait gehiago: eskaleak, alferrak, arloteak.*

Alferkeria. Bizio eta gaitz guztien ama. Lanik ez egitea baino jarrera eta bizimodu kaltegarriagorik ote?. Pobreei buruz eta lanaren truke eskaletasuna aukeratzeari buruz idatzitakoei erreparatuez gero, ezetz esan beharko genuke.

Izan ere, hauxe dugu XVI. mendetik aurrera garatuko den beste ideia giltzarrietako bat. Lan egin nahi ez eta dirua irabazi nahi izatea –eskaleak– deabrukeriatzat eta izurritetzat joko da. Guttonenean adibide franko topatzen dugu. C. Ripa-ren *Iconologie* delako lanak, alferkeriaz –"*oisiveté*"– mintzateko "*peste dangeruese*" erabiltzen du; Lyongo Hiérosme de Chastillon-ek, bere aldetik, alferrak eta kriminalak parekatzen ditu 1577an: "*se sont accoutumés en tout oisiveté et paresse... se metent à brigander, desrobber et piller, dont il advient qu'ils tombent en mains de la justice*"; horra hor ere Claude de Rubys-en hitzak: "*l'oisiveté a esté toujours tenue entre les gens de bien et de vertu pour un crime détestable et ne servant que pour corrompre et gaster les bons esprits*"[46].

Hortaz, eskaleek eta lan egiten ez duten pobre orok ez dute inolako laguntzarik merezi; haien jarrera ezin da inolaz ere zuritu, ez du zerikusirik erlijiotasunarekin. Agintari on orok haien aurrean zor duen jarrera –alferrak zigortzekoa– izan behar du. Adituek Dracon (alferrak heriotza-zigorra merezi du), Solon (urtean behin bizimodua publikoki jakitera eman behar) eta Marko Aurelio (haren menpean inor ez zen agertzen ogibidea adierazten zuen ikurra nabarmen eraman ezean) aipatzen dituzte. Horrela, XVII. mendean nagusituko diren merkantilismoaren teorikoek hemen dute abiapuntu ezin hobeagorik. Ildo horretatik, lanaren bidez, eta ez pobreziaz, zuritu behar da jatorrizko bekatua. Hau garbitzeko lanean nekatu eta sufritu behar da.

---

[46] C. RIPA: *Iconologie en la science des emblèmes, devises...qui apprend à les expliquer, dessiner et inventer* (1593). 160. or.; Hièrosme de CHASTILLON: *Bref et utile discous sur l'immodestie et superfluité d'habits.* Lyon, 1577. 21. or.; Claude DE RUBYS: *Les privilèges, franchises et inmunitez...* 59-60. or. GUTTONek aipatuta: *ibidem*, 245. or.

Lana eta zigorra parez-pare gelditzen dira. D. Volckertsz Coornhert-ek azken muturreraino eraman zuen ideia hau, 1587ko *Boeventucht* lanarekin[47]. Bere proposamenaren helburua azpitituluan ematen digu: alfer gaizkileen kopurua nola gutxitu. Diskurtsoaren hasiera ere ezin argiagoa izan: nobleei eta Holandako hirietako diputatuei luzatzen die deia, botere zibilari, beraz, bere burua gisa honetan aurkeztuz: *"un citoyen soucieux du bien commun représente respectueusement que, considérant la grande et redoutable gêne causée sur les routes comme dans les champs para la racaille désoeuvrée qui depuis quelques années, du fait que les violentes tempêtes de la guerre ont fâcheusemetn empêché de sarcler toute cette lexuriantes mauvaise herbe, reste à peu près totalement impunie et dès lors...a grossi jusqu'à devenir une véritable foule..."*.

Oso ondorio esanguratsuak atera daitezke aurkezpen honetatik. Izan ere:

- Alferra izatea gaizkilea izatea da;
- Alfer ugari dago;
- Alferrak desagerrarazi eta zigortu behar dira.
- Agintari zibil eta hiritar onen ardura da egoera zuzentzea.

Coornhertek defendatzen duen zigorra lan eginaraztea dugu, heriotza-zigorrari ez baitiote inolako beldurrik gaizkile hauek. Hortaz, alferrak eta gaizkileak ugaritzea gelditzeko, bertoko biztanleriari lana eman behar zaio, kanpotarrei ateak itxiz. Gero, lan-zerrenda bat luzatzen du, hiri bakoitzak erabaki dezan zer den egokiena bere kasuan: galeretan arraun egin; ondarraitzak eta aintzirak lehortu eta soroak sortu; espetxe-tailer bereziak –lanak irakasteko eta herri-lanetan aritzeko– eraiki eskualde guztietan.

Horrela, langile bihurtuta eta gertutik zainduta, bizitza gogorra eta eredugarria izango lukete: "*devraient, partout et aux yeux de tout un chacun, avoir à endurer un esclavage si pénible, si lamentable, si désespérant, que cette misère sans issue des coquins et des malfaiteurs engendrerait plus de crainte que dix exécutions capitales*".

---

[47] Pierre BRACHIN-ek frantsesez editatua erabiltzen ari gara "De la correction des coquins". *Bienfaisance et répression au XVIe siècle: deux textex néerlandais.* Paris: Librairie Philosophique J. Vrin, 1984. Lehendabiziko bertsioa, halere, 1567koa litzateke.

Lan egitera behartuta, aterpe-tailerretan. Toki hauetan lanaren bitartez zigorra ezartzen da. Kapitalismorantz abiatu den Europan lana nola ulertzen den azpimarratzen da toki hauetan. Lana zer den, lanak zertarako balio duen, zergatik egin behar den lana... ikasgaia larrutik ordaintzen da.

Era berean, gizartetik at gelditzea zigor gisa irudikatzen da modu berri batean. Espetxea eta Lantegia betirako gelditzen dira batuak.

**ALFERKERIAREN AURKAKO LEGE ETA EKIMENAK.**

- Londoneko Bridewellgo "*House of correction*": 1552tik aurrera. Eskaleak eta kaleko emakumeak lan egitera behartuta daude barruan, baina laster mota guztietako jendeak ezagutuko du erakunde hau.
- Honen eredutik beste 200 ugarituko dira (Oxford, Salisbury, Glouzester, Norwich,...).
- Turin 1583, Erroma 1587, Modena 1592, Venezia 1594.
- Amsterdamgo gizonezkoentzat "*Rasphuis*" eta ume zein emakumezkoentzat "*Spinhuis*" (1596). 1600ean, gazteentzat beste etxe berezi bat. Esku-lan merkea bilakatzen dira, Brasilgo zura lantzen eta jostun lanetan. Etekin ekonomikoak karitatezkoak baino ez omen dira.
- Eredua hau zabaltzen da: Lübeck 1613, Hanburgo 1629[48]. Ganteko "*maison de force*" eta Suitzako "*Shellenwerke*".
- Pariseko *Hospital des Pauvres* 1611tik aurrera. 1616. urtean, 2.000 pertsona bildu ditu. 1656an Pariseko Ospitale Nagusia. XVIII. mendean, Ospitaleko zeregina "*Dépôts de mendicité*" delakoetara igaroko da. Ospitaleak, lanerako gai ez diren pobreentzat egokitzen dira; gainontzekoak eskaleen biltegietara pasatzen dira.
- Florentzia 1621.
- Danzing 1629.
- Viena 1670.
- Bristolgo *workhouse* 1696. Worcester eta Dublingoak 1703.

---

[48] Amsterdameko etxeei buruz, GEREMEKek zera dio: "*Veamos como se combatían la aversión al trabajo en una de las de Amsterdam: si un pobre se negaba a trabajar era recluído en un sótano que poco a poco se llenaba de agua. El recluso disponía de una bomba y, para salvarse de morir ahogado, debía bombear sin descanso el agua del local. Este método se consideraba eficaz para vencer la pereza y adquirir la costumbre del trabajo*" *op. cit.* 236. PEÑA MATEOSek ere jasotzen du, García Valdés-en

Teoria hauek Europa osoan sakabanatzen dira, hala Katolikoan nola Protestantean, lehen ikusi bezala. Gainera, ez da ezkutatu behar Europako gunerik garatuenetan lana aldarrikatzeak pobreziaren beharra defendatzeak baino indar gehiago hartu duela, baina honek ere ez du esan nahi pobreen eta eskaleen aldeko jarrerak guztiz ezabatzen direnik. Eta alderantziz, pobreziaren onura onartzeak ez du mugatzen aldaketaren beharra noranahi hedatzea.

Hortaz, bi sentimendu kontrajarri hauen garapena ez da berehala bukatzen, XXI. mendean ere biak irudikatzen dituzten jarrerak azaltzen baitira.

Laguntzaren arloari dagokionez, eskupekoak ematea ez dela ezer berri erantzun behar dugu; berritasuna, aldiz, eskupekoa emateko moduan datza: merezi dutenei eta hirietako agintearen mendean dauden guneetan. Gune hauek, gainera, bestelako laguntza eskaintzen dute, laguntza hezitzailea. Horrela, lana eta portaera morala irakasteak eskupeko tankera hartzen du. Vivesek berak ere, dirua ematea eman daitekeen laguntzarik ziztrinena zela esan zuen. Gorputza (gizartearena zein norberarena) babesteko dirua ez da nahikoa, ezta erarik egokiena ere.

Lanak, berriz, badu beste alderdi bat, batez ere XVII. mendearen erdialdetik aurrera ikuspuntu merkantilista hutsari nagusitzen zaiona. Jesusen Lagundiko kideak diren Guevarre, Dunon edo Chauranden filosofia segituz, lanari balio morala (nork bere burua menderatzea), hezitzailea (hierarkia) eta erlijiosoa (arimaren osasuna) gehitzen zaio. Lanaren balio ideologikoa.

Diziplina hau ez da nonahi irakasten, ezta edonola ere. Neke fisikoa, gorputzaren heziketa, araualdi zehatzak, denbora neurtua eta "ongi" aprobetxatua, zaintzapeko etxeak, emaitzaren araberako balorapena,... Laguntza-bidea ez ezik, lana zigorra ere bada. Plaza nagusian jendaurrean ematen ziren zigor eredugarriak

---

zuzendu eta aurrerago aipatzen den bilduman. Hanburgoko etxeak honako leloa zeukan: "*labore nutrior, labore plector*" = "lanak elikatzen du; lanak zigortzen du". Ezinbestez etortzen zaigu gogora Auswichtz-eko leloa: "lanak libre bihurtuko zaituzte".

desagertzen ez badira ere, zigor modernoa kartzelaren harresiaren barruan ematen da. Horrela, espetxeak eta lantegiak elkarren arteko batasuna osatzen dute[49].

Era honetan, Europako egoera orokorrari begirada aski luzea bota diogula deritzogu. Pobreziaren oinarriaren gainean bi ardatzeko diskurtsoa altxatu dela esan dezakegu, norabide kontrajarriak hartzen zituzten "Urkamendiarena" ala "Errukiarena", hain zuzen ere. Hortaz, nolabaiteko garapena antzematen da

Ikuspuntu hau osatze aldera, euskal gizarte tradizionaletik baztertuak izan direnek ikerlariengandik zer-nolako arreta bereganatu duten ezagutzeko, historiografiak gai honi buruz gurean zer dioen jakin beharko genuke. Dena den, datu hauek garapen prozesu batean ulertu behar direla uste dugu: komunitatea eraldatzen zuen eta XVIII. mendearen bukaeran gorpuzten ari zen prozesuaren baitan, hain zuzen ere. Hortaz, ikerketa hauetan ager litezkeenak irudi baten "negatibo"aren antzera har genitzazke. "Positiboa" zein "negatiboa", biek osatzen irudia, komunitatea.

---

[49] Michel FOUCAULT: *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*. Madrid: Alianza, 1996. (gaztelerazko 25. argitalpena, jatorrizkoa 1975koa.). Harreman hauek ederki ikertzen du, jakina denez. Ikuspuntu zabalago eta gaurkotuta, bibliografia osagarriarekin: Carlos GARCIA VALDES (zuz.): *Historia de la prisión. Teorías economicistas. Crítica: curso de doctorado.* Madrid: Edisofer, 1997.

## 3. IKERKETA ETA BIBLIOGRAFIAREN BERRI, EUSKAL HERRIAN XVI. ETA XIX. MENDEEN BITARTEAN.

Hau dela eta, Euskal Herrian jorratu duten ikerlanen berri ematea izango dugu helburu. Adituen iradokizunek lehendabiziko euskarriak eskainiko dizkigute gure lana kokatzeko. Ez gure interesa zuritze aldera bakarrik, baita ere gure ikerketaren subjektua identifikatzeko. Funtsean, euskal historiografiaren eremuaren gainean bi galdera orokor bezain sinple luzatuko ditugu:

- zeintzuk diren ygiza+ baztertzearen itzalean ikertu diren gizarte-taldeak.
- zein denboratan eta zein eremu politikotan ikertu behar diren hauek.

Hortaz, XVI. eta XIX. mendeetan zehar bazterketaren historia gurean ulertzeko asmoz, gida txiki bat osatzen saiatuko gara, ezinbestekotzat jotzen ditugun lanak komentatuz. Horrela, gure ikerketa bideratzen ari diren nondik-norakoak nabarmendu eta gure urratsak norantz zuzendu nahi ditugun argiago ikusi ahal izango dugu, bidean antzemandako hutsuneak osatzen laguntzeko.

Alta, lan hauetako emaitzen berri eman aurretik, Gipuzkoa osatzen duten gizarte-taldeen oinarrizko ezaugarriak ezagutu beharko ditugula iruditzen zaigu, hain zuzen ere, historiografiak era orokorrean “baztertu” bezala identifikatu dituenak zein egitura sozialetik gelditzen dira alboratuak jakin ahal izateko, eta, hein berean, gizarte horrek laguntza/zigorra bikoiztasunean aritzeko eta ekimenak gauzatzeko hartuko dituen bideen zergatiak ulertu ahal izateko. Izan ere, bide hauetan irudikatzen diren hautemate-aldaketak gizartearen jatorri kulturalaren aldaketetan ere txertatu behar dira.

### 3.1 Nolako Gipuzkoa...

Zorionez, goi mailako ikerlariek gizarte horren euskarri eta ardatz zeintzuk diren argitu dituzte jada[50]. Hauek ezagutzeko Pablo Fernández Albadalejok irekitako bideaz baliatzea baino ez dugu egin behar: "*Allí donde se produjo, la emergencia de esta sociedad* (egungo gizarteaz ari da) *se hizo al precio de llevarse por delante la serie de elementos* ***comunitarios, corporativos***[51]***, asociativos*** *y* ***estamentales*** *que configuraban la constitución política y social a la vez del antiguo régimen. Fue esta ruptura la que transformó la anterior ordenación en un agregado atomístico de individuos, en una 'auténtica'* ***sociedad****, frente a la cual pudo alzarse, en puridad, un 'auténtico' estado, el otro polo de la relación*"[52].

Hau da, Estatuaren aurreko gune batean gaudelakoan, gure intereseko gizarte-egitura *komunitatea*rekin lotuko dugu, eta ez Estatu bateko partaideekin. Ideia hauen eraginkortasunaz jabetzeko hona hemen Gipuzkoako Lizartza herriko auzokideek nola ikusten zuten beren burua XVII. mendean, gainontzeko gipuzkoarrek arazorik gabe sinatuko luketen adierazpena, gure ustetan. Elkarri zor dioten begirunea adierazteko eta epailerik gabeko adostasuna elkarrekin lortzeko ematen dituzten arrazoiak senidetasunean eta auzokidetasunean oinarritzen dituzte. Agiri honetako partaideak, beste ezer baino lehen, batasunean kudeatzen den errepublika bateko senide eta auzokoak dira: "*y que ahora considerando estos dichos constituientes los respectos que se tienen y deven tener lo uno por serlos como los son uno con otros parientes mui cercanos, y lo otro todos ellos [ser] vezinos de una Republica...*"[53].

---

[50] Elena BARRENA OSOROk marraztutako Erdi Aroko Gipuzkoari jarraipena emanez, atal honetako oharretan aipatuko diren Achón, Truchuelo, Oliveri, Urrutikoetxea eta abarren lanei esker. Horiekin batera, Gipuzkoako hiribilduen inguruan azken bost urtetan argitaratutako monografiei ere tarte bat egin beharko genieke, teoria orokorraren adibide praktiko diren heinean: Aduna, Altzo, Beasain-Igartza, Irura, Lazkao, Olaberria, Segura, Zizurkil...
Bizkaiko eremuaren bilakaeraren berri, F. MARTINEZ RUEDA: *Los poderes locales en Vizcaya: del Antiguo Regimen a la Revolución Liberal, 1700-1853.* Bilbo: EHU, 1994.

[51] Esate baterako, Gorputza eta Gizartea berdintzea Vives-engana topatu eta jada aipatu egin dugu.

[52] FERNANDEZ ALBADALEJO, Pablo: "El País Vasco: algunas consideraciones sobre su más reciente historiografía". *España en el siglo XVIII. Homenaje a Pierre Vilar*. Barcelona: Crítica, 1985. 536-564 or.

[53] GAO: PT 2089, 48. 1686-V-12: Lizartzako auzokideek Uliturrietan elkarrekin duten aziendari buruzko hitzarmena.

Hortaz, gizarte honetan ez omen dugu *klase* batekin identifikatzen den gizabanakorik topatuko, ez eta Estatu bateko hiritarrik ere. Gizakien arteko loturak beste nonbait bilatu beharko ditugu.

Erronka honi heldu dioten ikerlariek betebehar eta eskubide ororen iturria Etxea dela nabarmendu dute. Hortaz, Etxea ez da bizileku hutsa, buru bakar baten menpean dagoen gorputza baizik, aginte eta antolaketaren gunea dena. Etxetik eta Etxerako gobernatzen da, Etxekoen bizimodua zuzenduz eta, era berean, bideratuz. Honek eskatzen duen erantzukizuna ez da edonolakoa:

- Etxeko ardura etorkizunean zeinek hartu behar duen agindu behar du; ondorioz, gainontzeko senideek bizimodua atera ahal izateko jaso behar duten ordaina zehaztuz ere: senipartea, alegia.
- Etxekoen ezkontzak hitzartu; ezkontza eta etorkizuna bermatzeko, ezkontide bakoitzari dagokion ezkonsaria zehaztu.
- Etxekoen bizimodua (eliza, Ameriketara,...) ala ogibidea (lana irakatsi, neskamea,...) aukeratu.
- Etxearen etorkizuna bermatzeko, Etxeko ondorengoak izango ez direnen ofizioak erabaki.
- Etxeko hildakoez arduratzea; mezak ordaindu, hilobia hornitu,...
- Etxeak dituen zorrak bere gain hartu. Etxeari zor zaiona gozatu. Etxekoek hartzen dituzten maileguak bermatu.
- Auzolanetan (lanetan, hauteskundeetan, alardean, bozketetan, batzarretan, gastuetan,...) parte hartu.

Agintearen antolakuntza honetan, ez dira bereizten arlo pribatua (sendia) eta publikoa (auzoa)[54]. *Senideak* biltzen, zuzentzen eta agintzen arrakasta lortzeko gai dela erakusten duen Etxeko jaunak, *auzoa* eta *errepublika* gobernatzeko ere balio du; etxeko

[54] Talde osoaren onerako den bitartean, ezingo genuke kazikismoz edo antzekorik hitz egin. "Kazike" hitzak, gainera, ez du bere jatorrian esanahi itsusirik, Ameriketako aginte mota bat besterik ez du izendatzen. Europan, Espainiako erresuman batez ere, hartzen duen mespretxua, hain zuzen ere, erabiltzaileak gizartea mota hori gainditu duela aukeztu nahi du, botere banaketa dagoen Estatu bateko partaidea sentitzen dela aditzera emanez, usadio zaharreko zonaldeen aurrean.

jauna plaza-gizona bihurtzen zaigu[55]. Baliabide komunek eta *Komunitate*ko –Etxeko, Auzoko/Herriko, Lurraldeko– buruek partaide ororen etorkizun eta ongi-izatea bermatzen duten heinean, egitura honetan bake soziala nagusituko dela pentsatu behar dugu. Errukia, karitatea, eskuzabaltasuna, oparotasuna,... jarrera hauetan murgildu eta indarrean jarri ahal izatea maila sozialaren erakusle bikaina dugu. *Holista* deitu dugun gizarte mota hauetan, baliabide duenak bere ingurukoen egoera ere aintzat hartu behar du. Bere arrakastaz gozatzeko, taldeko behartsuenekin ere arduratu behar du, lan hau arrakastaren zati bat baita. Portaera egungo *Elkartasuna*rekin alderatzea ez zaigu guztiz bidezkoa iruditzen. Langileek berdintasunean elkarri eskaintzen dioten laguntzaren irudia alboratu behar dugu Antzinako Erregimenean. Hemen, lehen aipatu dugun "berdintasun ezak" gidatzen du besteekiko ardura. Gizartearen zuzendaritza bereganatu dutenei dagokie, hein handi batean, elkartasun mota hau. Batetik, gutxieneko lasaitasun sozialari eusteko; eta bestetik, jarrera hori zuzena dela sinetsita daudelako. Ematen duenak zein hartzen duenak, biek ala biek arauak betetzen dituzte. Aristotelesek amestu bezala, batak, oparoa izatean, arrakasta gizarteratzen du; besteak, aginduak bete duenak, ordaina ala donaria jasotzen du. Edozein kasutan ere, horrela jokatuz, biek izango dute hil ondoren saria.

Komunitateko zuzendaritzarengan interes partikularrak interes orokorra gainditzen duenean ala Komunitate osoko ondasunak galtzen direnean, berriz, gizartekideak taldeak bermatu behar dien babesa ez galtzen saiatuko dira. Bestalde, gizartekide hauek ez baldin badituzte eginbeharrak behar den moduan betetzen ala agintea behar den moduan errespetatzen, taldearen babesa ere galduko dute.

Gizarte filosofia honetan, gizartekideek elkarrekin lortu dituzten kontaktuak larrialdi batetik ala arazo sakon batetik ateratzeko baliagarriak dira. Adituek *problem-anchored helping networs* deitzen duten egoeraren aurrean geundeke. R. Jüttek-ek ematen duen eredua jarraituz, horrela irudikatzen dugu:

---

[55] Daniella FRIGO: *op. cit.*

Sare honetan, harremanak elkarrekiko mendekotasunean oinarritzen dira, bertan pilatzen diren giza baliabideak eta harremanak sareari atxiki direnenen arazoak




konpontzeko ezinbestekoa da eta[56]. Honek lehen aurreratu dugun ideia berresten du: pobrezia ez dela soilik neurtu behar baliabide materialen arabera, gizarte sarean gizartekideak betetzen duen tokiaren arabera baizik. Gobernu hau gidatzen duen ildoak ez ditu etekinak diruaren munduan soilik bilatzen. Gizarte filosofia honetan ekonomiak komunitatearen egituran txertatua segitzen du, giza-harremanetan bertan

[56] Robert JÜTTEk: *op. cit.* 6. atalak, "The poor helping themselves" delakoak, interes berezia du.

itsatsita. E.P. Thompsonek *moralezko ekonomia*[57] ala Antonio M. Hespanhak *mesedezko ekonomia*[58] deitzen duten ereduari dagokio, C.B. Macphersonek *merkatuzko gizarte-edukitzaile*tzat jotzen duen gizarte motan bilakatu ez dena[59].

Gipuzkoako antolaketa ekonomikoari merkatuak eta liberalismoak agintzen duten ekoizpen-sistema ez dagokiola begi-bistakoa da XVI-XIX. mendera doan tartean; helburu ekonomiko komun bati atxikitako elkartasunezko indarren aztarnak topatzea oraindik da posible, etekin-nahiak zein goseak dakartzaten eragin suntsitzaileak borrokatzen dituzten indarrenak, alegia[60].

Zenbakiz hutsez, merkatal logikaz, ulertu ezin den harremana osatzen dute, helburua ez baita zorrak kitatzea, zerbitzutan, leialtasunean ala mesedetan kobratzen diren zorrak sortarazteak baizik. Beraz, aipatu osagaiek sortzen duten ekonomia zenbakarria ez izateak ez du esanahi musu-truk denik; alderantziz, gizarte-harreman

---

[57] Edo "Moral economy". E.P THOMPSON: *Costumbres en común*. Barcelona: Crítica, 1995; *Tradición, revuelta y consciencia de clase: estudios sobre la crisis de la sociedad preindustrial*. Barcelona: Crítica, 1989 (1go arg. 1979koa).

[58] Antonio M. HESPANHA: "La economía de la gracia". *La gracia del derecho: economía de la cultura en la Edad Moderna*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1993. 151-176 or.

[59] C.B. MACPHERSON: *La teoría política del individualismo posesivo*. Barcelona: Fontanella, 1979 (jatorrizkoa 1962koa). Gizarte mota horretan lurra eta lan-indarra zeharo dira merkaturatu eta ondoko ezaugarriak azaltzen dituzte: lana, lan-kontratuak eta lanaren balioa zehazteko usadioak duen indarra desagertu da erabat; gizabanakoak, denak, etekinak gehienera eramaten saiatzen dira: ezin zaio gizabanakoari lan egiteko gaitasunaren jabetza kendu; lurra eta baliabideak norberarenak dira; gizabanako batzuek dutena baino botere edo diru-sarrera maila altuago nahi dute; gizabanako batzuek besteek baino indar, gaitasun edo ondasun gehiago dute. Estatuaren indarra eskatzen du, merkatua eta ziurtasuna bermatzeko.

Ildo honetan, herri-lurra senide bat bezala azaltzen zaigu oraindik orain, XX. mendeko hizkeran, eta senidetasun horrek lotura estuak eskatzen ditu, saihestu ezin diren betebeharrak seme-alaba onak izango badira. 1996ren inguruan, esate baterako, Urbasa-Andia Parkea kudeatzeko Nafarroako gobernuak kaleratutako planak errefusatzerakoan, Amezkoa aldeko alkateek sinatu zuten artikuluak herri-lurren balio ekonomiko eta *oekonomikoa* aldarrikatzen zuen: "*Sres. de Medio Ambiente, no se concibe amescoanos sin Monte Limitaciones, ni Monte Limitaciones sin amescoanos: éste es mucho más que un monte, es para nosotros como un precioso recuerdo de familia gracias al cual todavía subsiste este pueblo, y aunque la economía de estos valles no depende hoy tanto como antes de él, la inmensa mayoría de los amescoanos lo queremos y mimamos, y como* BUENOS HIJOS *no consentiremos que lo lleven al asilo, aunque nos digan que allí lo van a cuidar mejor...*". "Monte Limitaciones y parques naturales". *Egin*, 1996-IX-13. Eztabaida berean, Urbasa-Andia partzuergoko lehendakariak zera zioen: "*Nuesto objetivo último es mantener una actividad económica que heredamos de nuestros padres y transmitirla a nuestro hijos...*".

[60] Karl POLANYI-k leinuaren elkartasunari egokitzen dion ezaugarria da. K. Polanyi: *El sustento del hombre*. Barcelona: Mondadori, 1994 (jatorrizkoa 1977koa). 130. or.

honi etengabeko beharra dario, behar sasi-erlijiosoa (esker txarrekoa izatea bekatua da azken batean) eta morala[61].

Molde horretan ulertuta, agintariek oinarrizko jakien salneurria murrizten ala kontrolpean izaten jartzen duten ardura guztiz logikoa iruditukoa zaigu. Era berean, herri-basoak, ondasunak, partzuergoak eta jabego komunak, liberalismoak oztopo eta galgatzat jotzen dituenak, jende xumearentzat altxorra zirela ulertuko dugu. Herri-ondasunen partaidetza eskuratu ahal izatea bizitza-asegurua bihur daitekeela pentsatzen dugu. Hauek murrizteak baliabide urriko auzokideen bizimoldeari zein pobreei eskaintzen zaizkien laguntzeei berebiziko kaltea ekarriko diela uste dugu eta hala erakutsi nahi genuke[62].

Era berean, okertze hauek gizartekideen erantzuna ekarriko dute, gizartekideek duten babesa ez galtzeko egindako protesta ekintzen bitartez. E.P. Thompson izan da *moralezko ekonomiaren* borroka-ahalmena hobekien jaso duena. Gurean, matxinadak ditugu honen erakuslerik bikainenak. 1766koa ospetsua bada ere, Euskal Herria osoan aurki daiteke Thompsonek emandako eskemetan garatzen diren altxamendu herrikoiak, jende xumearen oldarraldiak miserian eta bazterketan ez erortzeko. Helburua ez da gizarte berri bat lortzea, baizik eta dagoen gizarteak ematen duen babesari edota usadioak bermatzen duen bizimoduari eustea[63].

---

[61] "*Jipoialdiek zakurrak nola, opariek esklabuak hala*". Marvin HARRIS antropologoak inuiteengandik jasoa. *Vacas, cerdos, guerras y brujas: los enigmas de la cultura.* Madrid: Alianza, 1975. Harreman hauek samurtzeko, laguntasuna eta amodioa daude.

[62] Antropologiak, berriro ere, liberalismoak ulertezinak jotzen dituen jarreren logika erakusten digu, Gipuzkoako herri-gizarteak herri-ondasunekiko duen jarrerakin guztiz parekagarria. Adibidez, Marvin Harrisek ematen duen argiarekin Indian behiak sakratuak izateko arrazoiak (etekin ekonomiko handiagoa ateratzen zaie horrela) ala txerriak debekatzeko basamortuko erlijioan (ekonomikoki ez da errentagarria inguru horretan hezitzea) ulertzen dira.
Era berean, guri dagokigunez, Herri-lurrak ez-produktibotzat jotzeak jende xumeak ateratzen dion etekina estaltzen du.

[63] Ikus daitezke, besteak beste:
- I. GURRUCHAGA. "La machinada del año 1766 en Azpeitia: sus causas y desarrollo". *Yakintza, 1933.* 373-392 or.
- Pablo FERNANDEZ ALBADALEJO: "El País Vasco...". *op. cit.*
- José Carlos ENRIQUEZ FERNANDEZ; Javier ENRIQUEZ FERNANDEZ: "Comportamientos populares durante las machinadas vascas: moral patibular y orden tradicional". *II. Euskal Mundu-Biltzarra: Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra. III. alea. II. Atala: Aro Modernoa eta Gaur Egungoa- II Congreso Mundial Vasco. Congreso de Historia de Euskal Herria. Sección II. Edad Moderna y Contemporánea.* 306-311.

**MATXINADA NAGUSIAK**

1590. Baiona.

1631-34. Bizkaia.

1641. Baiona.

1661. Zuberoa.

1654. Tutera.

1665. Baiona.

1669-71. Lapurdiko kostaldea.

1675. Fitero.

1685. Donazaharre.

1696. Iruri eta Mugerre.

1709. Donibane Lohizune.

1718. Bizkaia eta Gipuzkoa.

1724. Ainhoa.

1726. Lapurdi.

1734. Getari, Bidarte.

1738. Gasteiz.

1748. Garazi

1755. Deba Garaia.

1756. Donibane Lohizune.

1766. Gipuzkoa.

1773. Lapurdi.

1784. Asparrena.

1803. Gasteiz.

1804. Zamakolada.

- MADARIAGA ORBEA: "Conflictos sociales de los siglos XVI-XVIII". *Gran atlas histórico de Euskal Herria.* Donostia: Lur, 1995. 161-176 or. Ondoko taula hemendik dago moldatuta.
- Jose Maria IÑURRITEGI RODRIGUEZ: "Economia moral del fuero y cultura del conflicto en Gipuzkoa: la crisis de 1755". *Espacio, tiempo y forma. Serie IV-8 (1995).* 269-283.
----: *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres: foralidad y conflicto social al final del Antiguo Régimen en Gipuzkoa.* Bilbo: EHU, 1996.
- Celina RIBECHINI: *De la guerra de la Convención a la Zamacolada: insumisión, matxinada, dispersión.* Donostia: Txertoa, 1996.
- Manex GOYHENETCHE: "Croissance démographique et organisations des ressources". *Histoire génerale du Pays Basque. Tome III: évolution économique et social du XVIe au XVIIIe siècle.* Donostia, Baiona: Elkarlanean, 2001.
- David ZAPIRAIN KARRIKA, Juan Carlos MORA AFAN: "'Docena bat guizonec artu naute'. 1766ko urteko matxinadari buruzko zenbait xehetasun eta euskaraz idatzitako txosten baten berri". *Notitia Vasconiae, 2 (2003).* 433-442.

Ezin ahaztu erantzun herrikoiak ez ezik bestalako bozak ere altxatu zirela jauntxokeriak salatzeko. Adibidez, Larramendirena. Gure ikuspuntutik, Gerrate karlistak, hein handi batean, Etxea defendatzeko saiakerak ere badira.

Era berean, aldarrikapen saio hauek agintariengana sortuko duten beldurrak aginteak berak hartuko dituen neurri zuzentzaileei eragingo die, aldez-aurretik altxamendu gehiago ekiditeko ez ezik, arauekin bat egiten ez dutenen portaerak zigortzeko ere. Horregatik, altxamendu hauek eta, oro har, gizartekideen portaera gaiztoek ere erantzun ugari merezi zuten gizarte-kidegoaren buruengandik.

Hau dela eta, zehaztu behar dugu gizarte honen egituran, pobrezia, bazterketa eta gatazka areagotzen dituzten aldaketak ez direla Estatu Garaikidearen jaiotze bortitzarekin hasten. Nahiz eta sorrera hau gizarte tradizionalak pairatutako desegituraketaren gorenarekin lotu, arazoak lehendik bazeuden, betiere eman dugun egituraren neurrian.

Gizarte eredu hau ez da antropologoek ala historialariek asmatutako ariketa teorikoa. Mundu ikuskera hau pisu handikoa da pertsonen portaeran eta pentsaeran, Patxi Juaristi Larrinaga soziologoaren tesia maisuki erakusten duen moduan. Lan honen helburua euskaldunak eta ondasunen arteko harremanek euskal hizkuntzan zer-nolako isla utzi duten arakatzea bada ere, gu aditzera ematen ari garen gizarte-ereduaren balioa berresten du. Bere ikerketaren arabera "*... aztertzen ari garen errealitatean gizartekideak ondasun iraunkorren propietario gisa gutxitan agertzen direla ondoriozta daiteke. Norbere erabilerako diren gauzak propietate pribatuzkoak badira ere...ondasun iraunkorrak etxeko, etxerako eta herriko dira, eta gizabanakoek elkarte bateko kide diren heinean (etxe edo herri batekoak direnean), eta ez gizaki direlako, lortzen dute hauek erabili edota gozatzeko eskubidea. Etxea gizartekideena izan beharrean...gizartekideak dira etxeko eta etxerako direnak...hau da, etxearen zerbitzura daudenak. Propietate pribatuan oinarritzen den Zuzenbide Erromatarrak eskubide guztiak ematen dizkio lurraren propietariori; ius utendi, fruendi et abutendi delakoak, hain zuzen ere. Bilduma honetan agertzen den arau-bidean, ostera, jabeak ondasunak erabili (ius utendi) eta ematen dituzten fruituak jasotzeko (ius freundi) eskubideak baino ez ditu. Ius abutendi edo ondasunekin gura dena egiteko eskubidearen ordez, ardura betebeharra hartzen dute gizabanakoek. Iraganeko, gaur eguneko eta etorkizuneko etxekoen eta herritarren ongizatea bilatzen den heinean, ondasunen erabilerari mugak jarri eta era egokian zaintzera behartzen dira gizakiak...Nekazaritzak lur jakin batean finkatu eta soro zehatz batzuk erabiltzen hastea ekarri bazuen ere, nekazariek ez zuten ondasunekiko propietate pribatua erako harreman pertsonalik garatu. Ondasunak, iraunkorrak*

*zein eziraunkorrak, etxe edota herriei loturik gelditu ziren etxeko eta herritar guztien zerbitzurako."*[64].

Antolaketa honen muina elkarrekikotasun lotesle eta ukaezina dugu, harreman-sare honetan bere burua nahastuta ikusiko duen gizabanakoa jaio baino lehen emana zegoena. Era berean, betebeharrak eta eskubideak taldeko partaidetza horri aitortzen zaizkio, eta ez norbanakoari.

Ikuspuntu honek berebiziko garrantzia izango du errukiarekin zein-urkamendiarekin lotutako proiektuen sustraia eta jatorria bilatzeko garaian, baita ere giza-egiturak egitasmoa hauek garatzeko dituen (ala ez dituen) baliabideak behar den moduan neurtzeko tenorean ere. Izan ere, egitasmo horiek ez dira jaioko Estatu-egituraren barruan, eta ez dira profesional berezituen kontrolpean egongo. Gizarte buruen ardurapeko ekimenak izango dira, gizarteko harremanetan duten lehentasunezko postuari lotutako lanak dira eta.

Atxikimendu ala partaidetza hauek ez dira hautu baten ondorioa, jaiotzez eta ezinbestez egokituak baizik. Komunitate hauek, beraz, L. Dumont-ek *holista* deitutako gizartearen ezaugarriekin bat egingo lukete[65]. Taldeko bizimodua hierarkia zorrotz batek bermatzen du. Horrela, berdintasun ezan oinarritutako *komunitatea* da, komuna dena, hain justu, iraungo badu. Dumontek "*homo hierarchicus*" deitzen dio orduko gizabanakoari. Alta, hierarkia ez dago gizartekideengandik besteratua, ez dago haien gaineko erakunde orotariko bat. Hortaz, Albadalejoren eskutik arestian emandako deskribapenarekin egingo luke bat honek, berriz ere Estatu aurreko unean kokatzen gaitu eta.

---

[64] Patxi JUARISTI LARRINAGA. *Euskaldunak eta ondasunak*. Iruñea: Pamiela, 2001. 53-54 eta 61-62 or.
Bestalde, Gizarte ez-industrialetan bizirik errotua dagoen sentimendua da; oso nabarmena, adibidez, Ameriketako jatorrizko biztanleen artean. Maputxe hitza, esate baterako, Lur (Mapu) eta Jende (Txe) hitze osatuta dago. Eta Markos komandanteordeak, bere ohiko dotoreziarekin, horrela adierazi zuen harreman hau ETBri emandako elkarrizketan 2001-III-17an: "*La relación del indígena con la tierra es la misma que la de un árbol. Si le quitas la tierra al árbol, éste deja de serlo, es otra cosa, un madero o un mueble, pero no un árbol.*"

[65] Gizadiaren Historian eredu nagusi izan dena. Louis DUMONT: *Essais sur l'individualisme: une perspective anthropologique sur l'idéologie moderne*. Paris: Seuil, 1983.
Baita ere: *Homo hierarchicus: ensayo sobre el sistema de castas*. Madrid: Aguilar, 1970.
---: *Homo aequalis: génesis y apogeo de la ideología económica*. Madrid: Taurus, 1982.

Hau dela-eta, gorago, gizartekideen arteko loturak kokatzerakoan egiten genuen galderari erantzunez, komunitate honetako partaideek beren burua Etxe bateko senidetzat eta Herri bateko auzokotzat jotzen zutelakoan gaude.

Etxeak batuz Auzoa sortzen den moduan, Auzoko batzarrak batuz Gipuzkoako Lurraldeko erakunde politikoak izango genituzke, José Angel Achón-ek "Batzartuen batzarra" deitu izan duena[66]. Honek, ederki erakusten du Etxea antolatzeko era beste antolakuntza maila zabal honetako bidea nola igarotzen den, ondasun banaezinaren sistema, maiorazkoarena, Lurralde osora hedatuz eta Jaungoikoaren eskubidea bermatzeko katolikotasunaren defendatzailea den Gaztelako erregearen ustezko babespean jarriz. Gobernatzeko erabiltzen den hizkeran oso argi islatuko da ideologia hau: gipuzkoarrak Gipuzkoa Etxeko seme-alabak bilakatuko dira. Hizkera *politikoa*, beste behin ere, Etxeko arloari dagokion hitzez adierazten da: senidetasuna, maitasuna, elkarlana, ohorea,...

Botere gune hau ere, Batzar Nagusiena, ez da erabatekoa; bere kontrol bideak ditu. Lehendabiziko mugak, bertan biltzen direnek jartzen dituzten oztopoak direla-eta azaltzen dira. Bigarrenik, eta bereziki, maiorazkoa sakratua den heinean, Jainkoak jartzen duen muga dugu: inork ezin du bereganatu Jaungoikoarena den lurraldea. Ez lurraldea kudeatzen dutenek, ezta erregeak berak ere.

---

[66] Jose Angel Achónek ematen duen deskrizpzioa modu zabalean itzuliz: "*corporación de corporaciones*". Erdarazko honetan, "*corporación*" hitzaren jatorria berreskuratzea komeni da. Gipuzkoa kidego askok osatzen zuten kidegoa zen. Gipuzkoaren eraldaketa ulertzeko, ezinbestekoak dira historialari honen lanak, besteak beste:
-"Valer más o valer igual: estrategias banderizas y corporativas en la consitución de la Provincia de Gipuzkoa." *El Pueblo vasco en el Renacimiento, 1491-521: actas del simposio celebrado en la Universidad de Deusto –San Sebastián- con motivo del V° Centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola, 1-5 octubre de 1990*. Donostia: Loiolako Inazio Institutua, Universidad de Deusto, Ediciones Mensajero, 1994. 55-75 or.
- *A voz de concejo: linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Báñez y Mondragón, siglos XIII-XVI.* Donostia: Foru Aldundia, 1995. (Bere tesia jasotzen du).
- "Comunidad territorial y constitución provincial: una investigación sobre el caso guipuzcoano". *Mundaiz, 49 (1995).* 9-22 or.
- "Repúblicas sin tiranos, Provincia libre. Sobre cómo llegó a concebirse al Pariente Mayor banderizo como enemigo de las libertades de las repúblicas guipuzcoanas". *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal.* Bilbo: EHU, 1998.
*Gipuzkoako komunikabideen historia. 2. Aro modernoa, 1500-1833.* Donostia: Foru Aldundia, 1998.
- "La 'Casa Gipuzkoa'. Sobre como una comunidad doméstica llegó a concebirse en términos domésticos durante el Antiguo Régimen". *Redes familiares y patronazgo en el entramado social del Antiguo Régimen (País Vasco y Navarra, siglos XV-XIX).* Bilbo: EHU, 2001.

Alta, denbora igaro ahala, hemen ere eraldaketa ikusgarri baten aurrean gaude. "Batzartuen batzar"etik batzar beraren ordezkariarengana igaroko da indarra, gune askotariko erakundea gero eta bateratuagoa azalduz, ez Batzar Nagusiaren inguruan, Foru Aldundiaren sorrera eta nagusitzearen inguruan baizik. Ez da bide erraza izango, eraldaketak tokiko eskumenari uko egitea baitakar eta Errepublika handienetako buruek garapen hau bereganatzeko joera azaltzen baitute.

Foruaren babespean azaldu eta Batzar eta Aldundiaren jarduerak agindu, jorratu, garatu, zuzendu eta finantzatutako gaien zerrenda amaigabea da: ogasuna, defentsa militarra, aitoren semetza-frogak, bideak, kaiak, heziketa, ekonomia suspertzea... eta subjektu hauen artean, jakina, baliabiderik gabe gelditu diren seme-alaba zintzoek behar zuten laguntza ala gaizki jokatzen zuten seme-alabek merezi zuten zigorra aztertu eta indarrean jartzea.

*Komunitateak* lortu duen antolaketa mailarik altuena izan zen hau, Lurralde Foralen arteko elkarlana mamitzen ari denean Estatu Garaikidearen gorpuztearekin bat egiten du, ekonomia liberalarekin eta botere banaketarekin batera. Antzinako Erregimenaren bukaeraren aurrean gaude. Honek, besteak beste, komunitateak bere pobreak menpean izateko eta zaintzeko erabiltzen zituen bitarteko eta baliabideak, gizartearen oreka eta funtsa ,azken batean, hankaz gora jarriko dituelakoan gaude.

Laburpen xume honetan ikusi den moduan, senidetasuna eta auzokidetasuna ez dira adituek zehaztutako gizarte gipuzkoarraren zantzu bakarrak. Zirriborratzen ari garen Gipuzkoako Gorputzaren hezurdura ez litzateke osoa izango funtsezko atal bat alboratuko bagenuke: elizkoitasuna[67].

Kristautasuna ulertzeko bideak pobreekiko laguntza eta errepresioa gauzatzeko modua baldintzatzen duela, nortasun ezberdina ematen diela, bederen, ikusi dugu Europako egoera errepasatzerakoan. Horregatik, Gipuzkoako

[67] Hizkerak berak ere horren lekukotasuna eskaintzen digu: bizitza espiritualaren buru apaiza dugu; bizitza materialarena, aldiz, auz-apeza.

katolikotasun maila nolabait neurtu eta bizitza publikoan hartzen duen pisua kontutan hartu beharko dela uste dugu[68].

Portillok sortutako terminologiari segituz, Achónek berak gaia hau jorratu berri du, katolikotasuna gipuzkoarren nortasun-ikur nagusienetarikoa dela erakutsiz[69]. Historialari honek, "*Errepublika Katolikoa*" deitzen dio Gipuzkoari. Fede-kontuak ez ezik, alderdi politikoak ere ezkutatzen dira definizio horretan, Gipuzkoako askatasunaren emaile eta zaintzailea Jaungoikoa bera baldin bada, nekez ausartuko da inor legedi hori zalantzan jartzen. Era berean, Katolikotasunak eguneroko bizitzan ere joera zorrotzak izaten behartzen du, besteak beste eskuzabaltasun eta *karitatezko* portaerak. Horrelakoak bizitza-helburu izateak eta egunerako bizitzan martxan jartzeak ospea ziurtatzen du, ingurukoen loratze, miresmen eta eskerrona dakar eta[70].

Horregatik, gure ikerketaren abiapuntuaren oinarrizko ezaugarriak aipatzeko tenorean, Gipuzkoako gizarte-taldearen mugarriak senidetasunak, auzokidetzak eta kristautasunak direla berresten dugu.

Eta gure ustez hala ulertu beharko dugu gizarte-bazterketa eta bere inguruko ekimenak gurean, arlo horietatik aldendu diren aleak mendean hartzeko saioak diren heinean. Gure iritziz, gizartearen arlo izkutu hau ere baliagarria izango da gizakien arteko loturak ezagutzeko, eta, beraz, gizartearen bilakaeraz jabetzeko.

Egitura horretan gizarte-gatazka ulertu ahal izateko –eta lehen esan dugun moduan, pobreziaren gainean eraikitako ekimenak eremu honi dagozkio ere–

---

[68] Pribatuaren (norberaren sinesmena) eta Publikoaren arteko muga eza berriro gelditzen da agerian.

[69] Esteban de GARIBAY Y ZAMALLOA: *Las 'memorias' de Esteban de Garibay y Zamalloa: los siete libros de la progenie y parentela de los hijos de Estevan de Garibay. Edición a cargo de José Angel Achón Insausti (dir.)* Arrasate: Udala, 2000. Ikus honen "Estudio introductorio" delakoa.

[70] Esteban Garibaik helarazi digun erretrato andanan, esate baterako, ezaugarri politiko-moral hauek aipamen merezia izan dute. Hala jokatu duten pertsonek oroituak izatea irabazi dute. Adibidez, Katalina Sagurdia: "*Fue de mucha religion e imitadora asi de sus virtudes... Fue caritatiba, limosnera, abstinentisima y tan debota de las animas del purgatorio...Fue muy buena christiana, temerosa de Dios, debota de sus templos, muy asistente en los officios divinos, discreta, de buen juizio y muy caritativa y obediente en extremo a mi voluntad...". Ibidem.*

Floristanek eta Imizcozek plazaratutako gogoetak ezinbestekoak ditugu[71]. Gako nagusia ezin da berdintasunaren edota gizabanako eskubideen aldeko borrokari lotu, hierarkia eta gizataldea gizarte filosofiaren oinarri eta nahitaezko baldintzatzat jotzen ditugu, bizimodua bermatuko bada; esan nahi baita, "Etxea" batua atxikitzea gizartekideak irauteko baldintza izanik, batasun horri eutsi behar zaio taldeko partaideen arteko liskarren gainetik.

Sistema honetan gizarte gatazka etengabekoa dela ere Josetxo Urrutikoetxearen tesiari esker ikus dezakegu, bertan ederki bildu baitu Etxean onartua izateko baldintzak eta betebeharrak zeintzuk ziren[72].

---

71 Alfredo FLORISTAN IMIZCOZ, José María IMIZCOZ BEUNZA: "La sociedad navarra en la Edad Moderna. Nuevos análisis. Nuevas perspectivas". *Príncipe de Viana, anejo 15 (1993).* 11-48 or. Bereziki, 25-28 or.

72 Jose URRUTIKOETXEA LIZARRAGA: *'En una mesa y compañía': caserío y familia campesina en la crisis de la 'sociedad tradicional', Irun, 1766-1845*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1992. Bere ikerketa kostaldeko Euskal Herrira edo Euskal Herri heze osora zabal daiteke.

### 3.2 ... halako bazterketa

Historiografikoki, bazterketan eta miserian murgiltzen den multzo orok burutu diren lanetan aipamena duela iruditzen zaigu: gaizkileak, txiroak, eroak, umezurtzak, esklaboak, judutarrak,... han eta hementxe azaltzen dira[73].

Lan asko ez dagoela aitortu behar badugu ere, azken bolada honetan indartzen ari den eremua da. Adibidez, 1999an Euskal Herriko Unibertsitateak, César González Minguez, Iñaki Bazán Díaz eta Iñaki Regueraren zuzendaritzapean argitaratutako *Marginación y exclusión social en el País Vasco*, eta 2000. urtean Zumalakarregi Museoak antolatutako Batzarra eta kaleratutako lan-bilduma, *Los marginados en Euskal Herria, siglos XVIII-XIX*. Era berean, ezin aipatu gabe utzi gure lanarekin lotura zuzena duen Daniel Sanchez Aguirreolaren tesia, 2003an defenditu eta *El bandolero y la frontera: un caso significativo, Navarra siglos XVI-XVIII* izenburupean 2006an argitaratu duena.

Beraz, astiro-astiro ikerketak plazaratzen ari dira eta gainera, ikerketen ikuspuntua berrizen ari da, bazterketa pairatzen dutenen egunerokotasunari eta bizi-baldintzei bidea irekiz eta ikerketaren gaiak ugarituz: zigorrak, Erruki-etxeak, prostituzioa, espetxeak, lapurrak,...

---

[73] Liburuen berri zehatza eta ugariagoa bibliografia atalean emango dugu. Balorazio orokorra egiteko adina badago behintzat, ia beti bezala, euskara eta Euskal Herri Kontinentala oso gutxitan topatu arren.

### *3.2.1 Aitonensemetzatik at.*

Aipamen honen bitartez, errepublikek, Gipuzkoakoek behintzat, giza-eredu bat finkatu dutela erakutsi nahi dugu, sendotu ahala Ahaide Nagusien antolakuntza baztertu nahi duen eredua, hain zuzen ere. Nahia, aldiz, ez da bat-batean gauzatzen; bide luze baten gibelean dator. Jauntxo handiek euren jarrera eta eskumenak aldarrikatzen dituzte oraindik XVI. mendeko agirietan. Leinu baten buruak diren heinean zuritu nahi dute horrelako portaera. Hiribilduetan, aldiz, auzotasunean oinarritzen dute eskubidedun izatea, gizarte partaide aktiboa izatea. Giza-ereduaren oinarria familiei darien kaparetasun ala aitoren semetza orokorra dugu. Lehen, Ahaide Nagusi baten bezero edota senide izatea aski eta beharrezkoa zen gizarteratua izateko, alegia, baztertua ez izateko. Orain, bazterrean ez gelditzeko, ikusezina ez izateko, ezinbestekoa da "*universitas*" bateko partaide izatea eta aitoren semetza frogatzea.

Garai honetako baztertuak erraz antzemango ditugula dirudi beraz: auzotasuna ez dutenak, aitoren semeak ez direnak.

**Auzokideak ez diren biztanleak.**

Orain arte, Etxekoen etorkizuna bermatzeko bideak daudela defendatu dugu. Gizarte honen barneko loturak ikertu dutenek, baina, argi erakusten dute Etxeek ez dituztela beren barnean hartzen lurralde batean bizi diren guztiak[74]. Hots, funtsezko beste ezberdintasun baten aurrean gaude, baztertzailea dena, gainera: auzokideak eta biztanleak banatzen dituena, hain zuzen ere. *Komunitatea*ren ondoan, eremu fisiko berean, auzokidetza ez duten gizabanakoak azaltzen dira, biztanle hutsak direnak, *gizarte* horrekiko ez eskubide ez betebeharrik ez dutenak, *artean* ez daudelako.

Etxe batekoa izatea gizartean eskubideak eta betebeharrak izateko ezinbestekoa dela esan dugu jada. Etxeak pertsonari izena ematen dion moduan, horren aitonensemetza ere erakusten du. Eskubidedun izatea auzokidetzari dario, bigarren honek beste Etxeetako partaideekiko parekotasun maila ematen duelako.

Sistema hau, baina, ezin da etengabe biderkatu. Auzokideek herri-ondasunak ez agortzeko, eta modu eraginkor batean gozatu ahal izateko, hauen ustiaketa mugatu beharko dute, ondare komuna eskuratzeko baimena ukatuz bere maila berekoa ez diren etxeei: populazioren hazkundearekin ugaltzen diren baserriak, herriaren sorreran parte hartu ez zuten familiak, behin-behineko lanak etorri eta bizitzen gelditu diren “heldu berriak”, maizterrak,... auzokidetza lortu ez eta komunitateko bazterretan geratuko dira, batez ere egoera larrietan.

Dena den, egitura horretan inor nabarmen gelditzekotan kanpotik etor litezkeen gizarte-taldeak dira.

---

[74] Lehen aipatutako bibliografiarekin batera (URRUTIKOETXEA, IMIZCOZ...), udal-ondasunen inguruko arazoak jorratzen duena gehitu behar da orain. Ikus bibliografia arloan MIKELARENA PEÑA, ARIZKUN CELA, OTAEGUI ARIZMENDI, ELISSONDO, eta abarren lanak.

Horregatik, ongi aukeratu zituen Alizia Stürtzek ikertu zituen gizarte-taldeak: ijitoak, agotak eta juduak[75].

Antzeko gaia hautatu genuen ere Morak eta Zapirainek: esklaboak, judutarrak eta portugaldarrak[76]. Gure asmoa talde horien bazterketa-maila ezagutzea zen. Hiru ideia nagusi jasotzen dira bertan.

- Lehena, esklaboen kopuru altua, edo behintzat nabarmena. Talde honen jatorriari dagokionez, mairuen aurkako gudak eta Ameriketatik ekarritako zerbitzari eta seme-alabak aipatu behar ditugu.

- Bigarrena, nolabaiteko integrazio maila topatu izatea oso deigarria izan da. Herriko agintariek eta bizilagunek ez dute kezka berezirik plazaratzen. Familia bateko kidetzat hartzen dituzte, maila txikiko senideak bilakatzen dira. Jaietan parte hartzen, euskaraz mintzatzen edota maitale gisa aurkituko ditugu. Ezin genuen, bada, pobrezia/marjinazioa atzerriko jatortasunarekin erabat lotu, kanpotar horiek Etxe baten babesean eta sendiaren tartean sartzen diren bitartean.

- Hirugarrenik, Foru Aldundia "arrotzak" kanporatzeko aginduen iturburu izatea. Jarrera honek auzi luzeak sortuko ditu, zerbitzari eta seme-alaba "ez-egoki" ekarri dituztenen artean sona handiko familiak daude eta. Pertsonen arteko maitasunezko harremanak islatuko dira sarri. Kanporatuek, gehienbat, Oñatira eta Hendaiara joko dute, lotura afektiboak erabat ez galtzeko.

Esklabutzarekin batera, antzeko beste auzi garrantzitsu baten berri ematen da lan honetan: Donostiako eta Pasaiako kaiaren inguruan kokatu diren portugaldar merkatariena, goiko lerroetan aipatu legez.

---

[75] Alizia STURTZE: *Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian*. Donostia: Gaiak, 1988.
[76] ZAPIRAIN, D. ; MORA, J.C.: "Exclusión social..." *op. cit.*
Ikus daiteke ere bai: J.A. ASPIAZU: *Esclavos y traficantes: historias ocultas del Pais Vasco*. Donostia: Ttarttalo, 1997.

Hauei zera leporatzen zaie: aitoren semetza eza; judutarrak izatea; bizimodu arina eta moral txarra. Merkatari hauen portaeraren berri ematerakoan Donostiako "*lumpen*"a gelditzen da agerian; *zelestinismoa*, bortxaketak,... militarrak bertan egoteak giro mota hau areagotzen du.

Portugaldarrek beren burua zuritzeko erabiltzen dituzten argudioak azpimarratzekoak dira. Merkatari hauek oso ongi barneratuta daukate aitonensemetzaren eredua, badakite zer egin behar duten Gipuzkoan errotzeko, aitonenseme kutsua hartzeko: etxe bati atxiki, ondo ezkondu eta familia sortu; erregeari zerbitzatu. Garbi erakusten dute aitonensemetzaren diskurtsoa ez dela bakarrik gipuzkoarrena, beste gizarte-taldeek ere garatu dutela. Kanpotarrek, beraz, badituzte bideak Gipuzkoa Etxean errotu ahal izateko. Baina Gipuzkoa Etxeko buruzagitzan baliabideak era murritza ustiatu behar direla defendatzen duen jarrera nagusitzen den, erbesteratzea izango da ezarriko den eredua.

Adibide hauek, dena den, kanpotik iritsitako talde bereziei dagozkie; beste batzuk (flandiarrak, irlandarrak, italiarrak,...) ez dira kanporatuak izaten. Egiteke gelditzen zaigun galdera, beraz, barrura begira egin behar dugu. Nola sortzen dute marjinazioa aitoren semeen *komunitateek* beren baitan? Zeintzuek eta zein baldintzatan joko dute bazterretara?

*3.2.2 Etxeko loturatik at.*

Galdera hauen bitartez, egunerokotasunean kokatzen gara, bazterketa sortzen duten abaguneak zehazten. Arrazoi hauen artean, ondokoak aipatzea merezi du: herri-lurrak pribatizatzea; baserrien jabetza pertsona baten eskuetan gelditzea; bordak larretan altxatzea; eremu bat pribatua dela argudiatuz erabilera komuna ukatzea; udala osoaren aldekoak diren ohitura, usadio eta erakundeak bertan behera gelditzea; jabego pribatuak aurrera egitea; udalbatzak herri-batzarra ordezkatzea; liberalismoa...

Guzti honek pobreziara bultzatuko du etxe bat baino gehiago, orain bazterretara bidaliak direnak gizartearen barru-barrutik, Etxetik, ateratzen ari baitira. "Gizarte-bazterketa" esaterakoan oso irudi argiak bururatu arren, baliabideen gabeko egoera "Etxe-gabetzea" hobeto irudikatuko lukeelakoan gaude, betiere "Etxea" gizartearen funtsezko osagai gisa hartuta.

Aldi berean, Estatu garaikidea bizkortzen ari dela ezin ahaztu, bere aurretik ziren erakundeak eta antolakuntza –ekonomia morala eta komunitatearekin lotuak– txikituz. Kanpoko botere honek, Estatuaren itxurapean azaltzen zaigunak, ez du onartzen aurretik ziren *kidego* politikoak. Bide honetatik, lehen aurreratu bezala, gizabanakoak ez ezik, Euskal Komunitateak ere baztertuak izango dira.

**Arlote, eskale eta txiroak; eroak.**

Bilakaera honen ondorioz, egoera soziala oso larria bilakatuko da. Horrela erakusten digu Juan Gracia Carcamok, Bizkaia abiapuntutzat hartuta[77]. Arloteak, eskaleak eta behartsuak bilakatzen ditu protagonistak. Berari esker, ongi ezagutzen dugu Bizkaian gertatu zena. Era horretan, gainontzeko lurraldeekiko azterketa konparatiboak egin daitezke XVIII-XIX. mendeetako pobreziaren gainean.

Bere tesia mugatzen duten bi datak (1766-1833) arras esanguratsuak dira. Thompsonek aipatutako *ekonomia moralaren* suntsiketarekin, matxinadak lekuko, zerikusi zuzena du lehenak. Bigarrenak, ordea, Gerrate karlistekin lotura estua; orduan, marjinazio berri bat iragartzen da, Foru Lurraldeei dagokion izaera politikoa indarrez galtzean, lehen esan bezala.

Gracia Carcamok ez du jorratzen bi gertakizun hauek, bitarte horretako jende xumearen egoera baizik. Lan kuantitatibo handia egin du, pobrezia (txiroak, arloteak, eskaleak) zenbakietan plazaratuz. Orduko ekoizpen guneetan lan egiteko aukerarik ez zutenak zenbat ziren eta non kokatzen ziren jakitea beharrezkoa da, berak gogoratzen digunez. Baina Gracia Carcamoren lanaren muina bestelakoa da, askoz interesgarriagoa gure aburuz, ondoko ataletan laburbiltzen dugun moduan.

1. Pobrezian murgildutako guztiek ez dute gizartearengandik jarrera berdina pairatzen. Batzuk gizartearen bazterretan gelditzen dira, beste batzuk gizartearen magaletan onartuak diren bitartean.

---

[77] Lanaren hasieran, hain justu, J. GRACIA CARCAMO bazterketari buruzko euskal historiografiako aintzidaritzat jotzen genuela gogoratu behar dugu. Lehen aipatutako bere tesiaz gain:

- “El Asilo Calzada de Gernika-Lumo, 1882-1902”. *Gernika, 1993*. 15-19 or.
- “La mentalidad ilustrada ante el pauperismo y la marginación social en el País Vasco: la actitud del Conde de Peñaflorida”. *Ernaroa, (1986).*
- “Pobrezia eta gizarte-laguntza XVIII. mendean Bizkaian”. *Uztaro, 14 (1995*). 3-19 orr.
- “Orden y castigo: la vida cotidiana de los pobres en la Casa de Misericordia de Bilbao durante la crisis del Antiguo Regimen, en el contexto de los hospicios vascos coetáneos”. *Azterketa historikoak-Estudios históricos. Zumalakarregi Museoa, V (2000).* 99-122 or.

2. Era berean, zigorra jasotzen dutenen nondik-norakoak adierazten dizkigu, bizimoduak eta portaerak irudikatuz: atxilotuen eta epaituen ogibidea, egoera zibila, ezaugarriak, egunerokotasuna, gaixotasunak, etxea, lagunak, ibilerak,...

3. Ondoren, jende honekiko agintari ilustratuen jarrera aztertzen du: zein irtenbide plazaratzen diren; zer diskurtso mota erabiltzen duten; pobreenganako mehatxua non antzematen den, eta abar.

Hirugarren honetan sakontzea merezi duela uste dugu. Dirudienez, XVIII. mendean zehar Europa osoan eskaleen aurkako legeak ugaritzen dira. Gracia Carcamok bost tarte egokitzen ditu Bizkairako, eta, ikusiko dugun bezala, Gipuzkoako egoera ere oso modu antzekoa bana daiteke:

- A. 1700-1726. Arloteena da gehien nabarmentzen den taldea. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du bitarteko berezirik martxan jartzen. Udalek arazo honi eutsi behar diote, baina ez dira inolaz ere gogor saiatzen. 1718ko matxinadaren ondorioz, ospitaleak itxi edota gehiago kontrolatzen dituzte.
- B. 1726-1765. Lasaitasun urte hauetan kontzeptualizazio berria jorratzen hasten da, eskaleak eta alferkeria arazotzat hartuz.
- D. 1766-1786. Txirotasuna hedatzen da. Araudi sutsuak nonahi, bai laguntzeko bai eta zigortzeko ere. Geremekek aurreratu bezala, Urkamendia eta Errukiaren garaia da. Foru ebazpenen ondoan, ilustratuek ongizateko egitasmoa garatzen dute. Sasoi honetan, Colon Larreategik burutu zuena azpimarratzen du Gracia Carcamok: Karitate Batzarra, Miserikordia Etxea Bilbon, toki isolatu eta partikularretan arloteei babesa ez emateko agindua. Herrialde osoan aritzeko eskumenarekin "Partida Volante" delako talde sasi-polizial armaduna jaiotzen da.
- E. 1787-1812. Guden eragin nabarmena (Konbentzionea gehi Napoleonenak). Txirotasuna gorantz etengabe doa. Kanpotik iritsi diren eskale eta arlote kopurua kezkatzekoa omen da.
- F. 1813-1833. Agintariek lege gogorrak areagotzen dituzte. Eskaleei buruzko ebazpen metaketa kausitzen dugu. Eskatzeko debekua bertako txiroei ere luzatzen zaie.

4. Bukatzeko, zenbait ilustraturen jarrera eta diskurtsoa erakusten digu Gracia Carcamok. Industria eta heziketa aipatzen dute orokorrean, alferkeria ezabatzeko asmoz. Ondoko pertsonen ekarpenak, besteak beste, azpimarratzen ditugu hemen:

- Arrikibar: Hospizioak diziplina lortzeko; eskupekoak plangintza baten barruan sartzeko beharra.
- San Martin: Nekazal etxeak eraikitzearen aldekoa.
- Agirre: Irizpiderik gabeko karitatea gogor salatzen du, zilegizko pobreekiko baino ez du onesten. Ez da zigorzalea. Bertoko plazagizonek, herriz herri, asanbladak antolatu behar dituztela irizten du, herri bakoitzak bere pobreei laguntza emateko.
- Foronda: Gasteizko Miserikordia Etxea Parisekoarekin alderatzen du, gureari zer falta zaion argitzeko.
- Azkoitia: 1781. urtean emakume eskaleei buruzko txostena, neurri bereziak jasoz.

Arloteen, alferren eta eskaleen kopurua ez da gora egin duen talde bakarra. XVIII. mendean zehar beste talde bat handitzen ari da etengabe: umezurtzek osatzen dutena, jaio bezain pronto kale gorrian uzten diren tornuko umeena. Lola Valverde Lamfus-ek ematen du honen berri[78].

**Umezurtzak**

Kale gorrian azaltzen diren umeak buruhauste benetan itzela bilakatzen dira. Arazo hau oso esanguratsua da: egoera ekonomiko txarra iragartzen du; morala

[78] Lola VALVERDE: *Entre el deshonor y la miseria: infancia abandonada en Guipuzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*. Bilbo: EHU, 1994. Berea ere, besteak beste, dugu: "Entre la corrección y el castigo: la casa de la Galera de Pamplona en los siglos XVIII y XIX". *Príncipe de Viana, 16 (1992)*. Ikus daiteke ere bai: Arantzazu URIBEETXEBERRIA: *Marginalidad 'protegida': mujeres y niños abandonados en Navarra*. Bilbo: EHU, 1996.
Edadeko jendearen arazoen inguruan lehen aipatutako Urrutikoetxearen lana funtsezkoa dugu.

estutzen ari den sasoi honetan, afektibotasunean eta gogoan trauma eta damua sortzen du; inudeak ordaintzeko dirurik ezin bildu...[79].

Valverderen lanari helduz, gai honetaz ardura gehiena erakusten duten Jauntxoak Peñaflorida eta Zuaznabar ditugu. 1791. urtean txosten batean jasotzen dutenaren arabera, tornuko umeen auzia ez da benetako arazo larria, nahiz eta dagoeneko ume hauek oso baldintza kaxkarretan bizi: batetik, Zaragoza, Kalagorrin eta Iruñearen artean sakabanatzen dituztelako; bestetik, Miserikordia Etxeetan ez daudelako behar bezalako baldintzak umeak zaintzeko.

Napoleonen Gerrak bertan behera uzten du planifikazio guztia. Finantzaketa arazoa larria baldin bazen lehendik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru iturririk gabe gelditu da. Iruzurra, diru falta, inudeen soldatak, Miserikordia Etxeko tirabirak... XIX. mendean arazoa benetan larria bilakatu da.

Egoera tamalgarri honetan, umeak kale gorrian uzteak XVIII. mendean zehar berezko nortasuna hartu duen ekintza dela azpimarratzen du Valverdek. Umeak lagatzen dira beste norbaitek jaso eta hazi egingo dituelakoan. *Infantizidio*aren ordezkoa bihurtu da. Alta, umeak hiltzen ez direnez, jarduera honek parekatzaile demografikoaren kutsua galduko du. Gizartearen tamaina orekatu beharrean, familiaren hazkundea mugatzen du orain.

Ezkontzatik kanpo jaio diren seme-alabengana gizonezkoak nolabaiteko ardura hartzera behartzen zituzten legeak desagertzen direla gehitzen du Valverdek. Honekin batera, adulteroek, sasikoek, ezkongabeko amek,... gero eta zailtasun handiagoak dituzte gizarteratzeko. Estutasun ekonomikoa handitzen denean, familia sortzea eta eratzea are zailagoa bilakatzen da[80]. Giro zail honetan, bortxaketek ere gora egiten dute.

---

[79] Guk geuk honen testigantza asko topatu dugu gure ikerketetan eta amek umeen ondoan uzten zituzten oharren artean 1831ko bat euskaraz aurkitu dugu; horrela dio: *"maiazaren lauian bataiatu bada Jose Prancicu. Amak eçin açita ortara da, ez guchi amac nai diolako. Aur ori ongi ongi alimentatu"*. GAO: JD IM 1-20-90.

[80] Urrutikoetxea eta Imizcozen lanekin lotu beharko genuke hau.

Bestalde, familia zabalak lehen bermatzen zuen babesa desagertu denez, haurdun daudenek irtenbide bakarra dute: umeak kalean uztea. Babes-lanetan sortu den hutsunea orekatzen duen erakunderik ez dago. Asmatu behar da, teorizatu eta ordaindu.

*3.2.3 Lurralde mailako erakundeen sorrerak: Etxe bereziak: Erruki-etxeak, Espetxeak. Polizia.*

Hizpide izan ditugun lan eta historialariek betebehar zehatz eta bereziak dauzkaten etxeak, Miserikordia ala Erruki etxeak gehienbat, aipatu dituzte. Orain arte aterpe hauek artikuluetan baino ez baziren agertzen, dagoeneko beste ikerketa sakon batzuen gaia bilakatu dira[81]. Dena den, tesi bakoitzak Etxe bakar bati lotzen zaio. Erakunde bakoitzaren historia eta nondik-norakoak islatzen dira. Ez dago, esate baterako, Erruki Etxeei dagokien koadro orokorra jasotzen duen lanik. Eta etxe hauen bilakaera jorratzen duten lanak ere ez dira oso nabarmenak. Azpimarratzekoa, Carlos Javier Sanchez Vicenteren lana, eroetxea eta ongizateko gunea uztartzen zuen eta 1866. urtean Nafarroako Foru Aldundiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeei proposatu zien "*Centro de Beneficiencia Euskariano*" delakoari buruzkoa[82].

Espetxeei dagokionez, Foucaulten ereduko presondegitzat hartuta, atal honen hasieran iragarri dugun berritzearen ildotik, hauek ere, aztergai bihurtuta ditugu jada, oso maila apalean baina[83]. Nafarroaren kasua da hobekien landuta dagoena, Pedro Oliverri esker.

---

81 - Mª Rosario ROQUERO USSIA: *La beneficencia en San Sebastián.* Donostia: Instituto Dr. Camino, 2000.
- Camino OSLE GUERENDIAIN: *La Casa de Misericordia de Pamplona.* Iruñea: Eunsa, 2000.
- J. GRACIA CARCAMO: "Orden y castigo...". *op. cit.*
XIX-XX. mendeetako ongizatearen hastapenari buruz: Elena BARRENA OSORO: *Hemen.* Donostia: Kutxa, 1995.

82 Carlos Javier SANCHEZ VICENTE: "El proyecto de manicomio agrícola de Nicasio Landa". *Geronimo de Ustaritz, 8 (1993)*, 123-135 or.

83 Espetxeen inguruan erreferente izan behar dugu Pedro OLIVER OLMOren tesia, 1999koa: *La cárcel y el control del delito en Navarra entre el Antiguo Régimen y el Estado liberal.* EHUk argitaratua: *Cárcel y sociedad represora: la criminalización del desorden en Navarra, siglos XVI-XIX.* Bilbo: EHU, 2001.
Guk geuk ere artikulu bat kaleratu dugu Gipuzkoako egoera azalduz: "Gipuzkoako espetxeak XVIII. eta XIX. mendeetan". *Boletin de Estudios Históricos de San Sebastian, 35 (2001)*. 351-363.
UEUk Bentham-en inguruan antolatu zuen mintegia azpimarratu behar dugu, nahiz eta bere interes gunea arlo filosofikoan kokatu.

Beste erakunde batzuk, polizia, adibidez –baina zer esanik ez txiroen gainean laguntza ala zigorra ezarri behar zen mugatzen zuten araudiak–, ez dute inolako arreta merezi historiografian. Ez behintzat, modu sakon eta denbora historikoan kokatuta. Ordena publikoak ezartzeko bideei buruz ikerketa sakon eta erreferentzialak daudela aitortu behar dugu. Gai hau baino jorratzen ez dutenen artean, Jose Maria Iñurrategiren *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres* dugu. Lan honetan, baina, diziplinaren ingurukoak oso epe labur batera mugatzen dira, 66ko matxinadaren ildotik, alegia. Orduko ordena berreskuratzea tokiko agintarien ardura izan zela ederki gelditzen da jasoa. Baina errepresiorako molde horien jarraipena ala orijinaltasuna ez da ikertzen lan horretan. Hau da: ez dakigu hala izan zen beti ala mende osoan zehar, adibidez, gorabeherak izan ziren jazarpenerako ekimen horietan. Ez eta noiz arte mantentzen den tokiko agintarien indarra pake soziala ezartzeko ekimenetan.

Ikuspuntu zabalago emate aldera, Roberto Bergallik egiten dituen zehaztapenak erabiliko ditugu guk[84]. Bergallik gizarte kontrola zehaztu eta bere mailaketa edo banaketa egiten du. Alde batetik, kontrol eragile ala prebentiboa genuke, gizarteratzearen bidez gauzatzen dena. Beste aldetik, kontrol oldarkor (*"reactivo")* edo estua aipatzen du. Honen bidez, okertzat jotzen diren portaerak zuzentzen dira, modu formalez zein ez-formalez. Lehendabiziko multzoan, Bergallik mota anitzeko salaketak eta jokaerak aipatzen ditu: psikikoak (iseka, ohore galtzea, harremanak etetea), fisikoak, ekonomikoak,... Formalak, berriz, bereziki osatutako erakunde ala guneak lirateke: lege penala, polizia, epaitegiak, eroetxeak, espetxeak,...

Azken banaketa hau guztiz funtsezkoa egiten zaigu. Izan ere, gure ikuspuntutik Bergallik zerrendatzen dituen bide formal horiek gizarte-kontrola modu historiko batean hartzeko abagunea irekitzen zaigu. Hau da, historialarien artean oso

---

[84] BERGALLI, Roberto: *Control social punitivo: sistema penal e instancias de aplicación (policía, jurisdicción y cárcel).* Barcelona: Bosch, 1996.
---: "¿De cuál Derecho y de qué Control Social se habla?". *www.ub.es/penal/control.htm.* (Master europeo "Sistema penal y problemas sociales. Universitat de Barcelona).
--- "El control penal en el marco de la Sociedad jurídica". BERGALLI, Roberto (arg.): *Sociology of penal control within the framework of the sociology of law.* Oñati: Oñati International Institute for the Sociology of Law, 1991. (Oñati proceedings; 10). 25-45.

arrunta izan da kontrol mota guzti hauek maila berean jorratzea, betiere poliziarekin parekatuz. Horrela, guztiz arrunta da historiografia espainarrean "Poliziaren historia" mota bera topatzea: Errege Katolikoekin hasten den polizia eta XXI. mendera arte doana. Gainera, poliziaren eremu bezala Espainiako erresuma osoa hartzen da aintzat, eta horren arabera indar armatu honen gaineko balioespenak egiten.

Gu, berriz, gizarte kontrolaren aldarte ezberdinak ikertzearen aldekoak gara, indar polizialak aldarte horien garapenean txertatuz. Ondorioz, Soziedadeak eta Komunitateak zituzten jazarpenerako tresnak ezberdinak izateaz gain, jarraipen zuzena ez zutela eta, beraz, gizarte-egitura bakoitzaren barruan ikertzeko erakundeak direla defendatzen dugu. Poliziaren historia dagokion tokiari egokitu behar da, eta honenbestez, giza-egitura bakoitza une historiko zehatz batekin lotzen dugu guk. Une historiko horretan, bistan dena, poliziarekin egoera berezi bati egin nahi zaio aurre. Gure susmoa da egoera hau gizarte-bazterketaren adarrekin lotuta dagoela, gainera.

Erakunde polizialak, justizia eta espetxe sistemarekin batera, sistemaren egonkortasuna bermatuko du, unean uneko agintarien onurarako. Hala, egonkortasun horren zati garrantzitsua izango dira, agintarien helburua gizartearen bazterretan mugitzen direnak estu hartzea izango baita.

Gure hipotesia, beraz, gizarte kontroletik ordenu publikora doan bidean kokatzen dugu, eta bide horretan, beste gertakizun guztiz esanguratsu batzuekin topatuko gara.

Izan ere, kontrolaren bide formalak nagusitzen diren une berean, Estatua eta komunitatea ere banatzen direla iruditzen zaigu. Kontrola ez-formala komunitatean –bere kideengana– errotuta zegoen: ordena, elkarbizitza eta baloreen nagusitasuna gizarte beraren interakzioari esker ematen da. Kontrola formalak berriz, antolaketa profesional bat, funtzionarizatua eta Estatuaren zuzendaritza zuzenpean eskatzen du. Neurgailuak, arauak eta zuzentzeko tresnak komunitatetik atera (besteratu) eta profesionalen esku gelditzen dira. Hau da, guk abiapuntu bezala hartzen genituen gizarte *ekonomikoaren* antolakuntzaren eraldatzearen aurrean izango ginateke. Gipuzkoa Etxearen bukaeraren aurrean, alegia.

GAO: PT 2083, 23 eta 108. 1687-XII-1: 1670-I-26an: Juanes Iriarteren alarguna den Berastegiko Madalena Salberridik oinordeak hautatzen ditu, bere etxeek (Berrobiko Iriarte oinetxea, borda eta eraikitako baserri berria; Elduaingo Muñagorri etxea; Berastegiko Errekalde eta Gasparenea etxeak) irautarazteko... "*por tanto* ***por lo mucho que dessea esta otorgante el aumento y conservacion y perpetuidad de las memorias de las dichas casas****...*". Bere iloba bat eta bere senarra zenaren beste bat, Ana Maria Sorregieta eta Juanes Belauntzaran Etxabe, hautatzen ditu, elkarrekin ezkontzeko baldintzarekin. Ezkontza gauzatu baino lehen Ana Maria hiltzen da; ondorioz, Juan Belaunzaran Etxabe zendu den Ana Mariaren ahizparekin, Teresa Sorregietarekin, ezkonduko da.

burujabe izanda ere, Etxeko buruak ez dira beti guztiz autonomoak. Gorputz familiarraren atal guztiak beharrezkoak dituzte, eta, baita ere, arima eta gogoa. Hobeki esanda, **sen**a behar dute. Etxeko buru denak ardura nagusi bat du: aurrekoengandik jaso duen eta hil, bizirik ala jaio gabe diren **sen**di guztiarena den ondarea hobetu eta ondorengoei igarotzeak bere urratsak gidatzen ditu, Etxea taldea osatzen dutenen arteko lokarri sendoa eta zatiezina baita. Horregatik ere, Etxe bateko arduraduna bihurtzean, maizterra edo sendi biologikoa ez den eroslea bada ere berdin, hildakoen aldeko mezak ordaindu eta hilobian behar diren apaingarri eta eskaintzak izatea ere eskuratzen da.

---

GAO: PT 2084, 86 eta 113. 1689-VIII-13 eta XI-3: Maria, Felipe, Martin eta Ines Lizartza anai-arrebek bere osaba Bartolome Intzari Berastegiko Intza oinetxea eskualdatzen diote, haiek etxea batua izateari ezin diotela eutsi onartuz: "*en consideracion de no les poder tocar mas* ***ni poder sobrellevar las obligaciones y cargas que sobre si tienen los bienes comunes de dicha herencia, y porque dicha cassa solar se pueda mejor conservar en poder de un solo dueño descendiente de ella****...*".

GAO: PT 2091, 240. 1689-XI-2. Gazteluko Martin Goienetxea apaizak Goinetxea etxean dagokion senipartea bere anaiari eskualdatzen dio: "*y* ***para que la memoria tan antigua de la dicha cassa y de los difuntos della se conserve y vaya en aumento*** *con comunicacion, querer y voluntad de los dichos...sus padres y porque asi es su deliverada voluntad, por esta presente carta... y haviendo havido sobre ello su acuerdo y deliberazion segun combenia hazia e hizo grazia y donazion pura mera perfecta...*"

GAO: PT 2091, 56. 1690-VII-9. Berroeta etxeko senipartearen inguruan Kristobal Saroberen eta Migel Sorregietaren arteko hitzarmena: "*por ebitar pleitos gastos y diferenzias que podian resultar y desseando como* ***dessea conserbar su buena parentela y correspondenzia y y memoria tan antigua de la dicha cassa solar de Berroeta y de los difuntos de ella*** *y por otros respetos y caussas justas que a ello le mueben estando zertificado de su derecho y habiendole adbertido lo que le conbenia perssonas onrradas que ynterbenieron en ello de una y otra parte...*"

GAO: PT 2087, 129. 1697-I-18: Elduaingo Olaondo ahizpen arteko hitzarmena, Olaondo Nagusia etxearen inguruan. Etxeak 750 dukat baino gehiago zor ditu, hainbat errentatan: "***y que partida la dicha cassa y sus pertenecidos venia a aniquilar y destruir...aunque les es dificil dejar la propia hacienda pero con la conssideracion que es mas dificultosso atenta la flaqueza humana salir del pleito sin pecado y por ebitar y consserbar la parentela y el amor de hermanas y tambien la consserbacion de la dicha casa y sufragio de las animas de los cuerpos que de ella han salido sus passados y las suyas y porque se consserba dicha cassa en solo possehedor*** *estan combenidos por via de transssacion e ygualas todas las dichas differencias...*".

GAO: PT 2088, 153. 1698-X-23: Berastegiko Martin Goikoetxearen oinordekoa, Juan Goikoetxea, alegia, hilburukoa eman gabe hil zen 1694ren inguruan. Gainontzeko oinorde-gaiek adostasuna lortu berri dute Goikoetxea-Ikatzkinenea etxeko senipartearen inguruan: "*considerando los empeños que tiene...y que* ***partida la dicha cassa y sus pertenecidos venia a aniquilar y destruir*** *y por escussar los gastos que podian tener en liquidar como en dividir la dicha cassa...pero con la consideracion de ebitarlos* ***y conserbar la parentela y el amor de hermanos y tambien la conserbazion de la dicha cassa y memoria de los difuntos que han salido de ella, como de estos otorgantes, y por que se conserve dicha cassa en sola un posseedor****...*".

Hau dela eta, Etxeak bere zerbitzura egotea eskatzen duela esan dezakegu. Etxea ez da gizakiena, gizakiak Etxekoak eta Etxerakoak baizik. Etxekoek hartzen dituzten lanak eta ogibideak ikuspuntu honetatik baloratu behar dira, ardura horiek gauzatuz gizarteak berak gizartekidea aintzat hartuko baitu. Hori da, nolabait, *holismoak* gizabanakoari balio pertsonala erakusteko eskaintzen dion bidea[100]. Zerbitzu horiek ondo bete izateak, taldeko hierarkian gaizkien kokatuak daudenei *social capital* delakoa metatzeko bidea irekiko die. Etxearen alde aritzeak norbanakoaren balioa handituko du, ondasun komunen babesa erakarriz. Azken batean, Etxeak Etxekoak saritzen ditu.

Etxeak berarekiko ardura eskertzen garatzen dituen estrategiak eta kezkak hilburukoetan eta, bereziki, ezkon-hitzarmenetan eta senipartean islatzen dira, lehen esan dugun moduan. Agiri hauetan Etxeko buruak bikote ezkonduberriarekin erantzukizuna partitzeko prest azaltzen dira. Honenbestez, Etxeko buru berriek Etxeko buru zaharren ardura bere gain hartu beharko dute, betiere beren etorkizuna bermatzen dituzten baldintza zorrotzak betez gero. Gisa honetan, Etxea ala Baserria seme-alaben ezkonsaritzat eman dezaketen edadetuek oinarrizko betebeharrak (janaria, jantziak, aterpea) duintasunez asetuko dituzte, bikote berri baten etorkizuna ahalbideratzen duen hein berean[101]. Batzuk zein besteak “gizarteratuak” segitzeko tresnekin hornitzen dira, beraz.

---

[100] Adibidez, Maria Lapeirek, gainontzeko ahizpen izenean, bere anaia Pedro Lapeireri alkatearen aurrean ea arreben zainketa hartu behar duen ala ez –aitak hilburukoan agindutakoa– galdetzen dio: izan ere, Pedrok "*no ha hecho ni haze caso de ello ... declare desde luego si quiere ser, o no, tal tuctor y curador de las dichas sus hermanas y si quiere aceptar, o no, la parte de herençia que le toca*". Pedrok ezetz dio, bere lanak, pertzagintzak, ez baitio uzten hilburukoa betearazten: "*se alla muy ocupado en su oficio de calderero por el mucho quehazer que tiene y por otra parte enbarazado con algunos dares y tomares con diferentes personas, no puede acudir a la cobranza de muchos rezivos que dejo el dicho su padre... no quiere azetar el nombramiento... ni tampoco azeta la herençia*". GAO, PT 2079, 161. 1669-XII-9.

[101] Agirietan azaltzen den esamoldeak *“y dixeron que a su pedimento y de sus deudos, parientes y amigos se havian tratado palabras de desposorio y cassamiento”* edo *“con gusto, amor y voluntad de ambas partes y de otros parientes y amigos”* bezalakoak ditugu.

Berastegiko Juanes Mugerraren eta Ana Txurangiren arteko ezkon-hitzarmenean: "*Juanes de Churdangui dixo que por la mucha aficion, amor y voluntad que le tiene a la dicha Ana de Churdangi su hixa legitima* ***y porque ella se cassa por darle gusto y contento*** *con el dicho Juanes de Muguerra por tanto y por que assi es su determinada voluntad e intençion particular...*". Belzaidi txipia etxea ezkontzari. GAO, PT 2074, 42. 1669-VII-9.

---

Elduaingo Juanes Arginaenearen eta Ana Zabaleta Espillaren artekoan esamolde bera. "*por la mucha afiçion, amor y voluntad que le tiene a la dicha Ana de Zavaleta su hija legitima* ***y porque ella se cassa por darle gusto y contento*** *con el dicho Juanes...*". Ezkonsarian, Ezpilla etxea. GAO, PT 2079, 14. 1669-VIII-26.

Berdin esaten du lau hilabete eta erdi ezkonduta daramate Elduaingo Juanes Soroa Alonso eta Mariana Arbideren arteko ezkon-hitzarmenak: "*por la mucha afiçion, amor y voluntad que le tiene a la dicha Mariana de Arvide, su hixa lexitima,* ***y por que ella se a cassado por darle gusto y contento*** *con el dicho Juanes de Soroa Alonso*". Baita Franzisko Elorgak eta Katalina Sorregietak; biek gurasoak pozik izateko ezkontzen dira: "***se cassa por darles gusto y contento***". Ez dira, beraz, nesken kontuak bakarrik. GAO, PT 2075, 26. 1671-VIII-12 eta 2079, 338. 1687.II-23

Kontratu hauetan, Gurasoek alaba (gehienetan) emateagatik espero dutena zehazten da. Horregatik, ezkondu baino lehenagoko haurdunaldiek gurasoek aukeratu ez duten eta aldez aurretik ikusi duten kopurua bermatzen ez duten bikotekide bat ekar dezake. Ala okerrago oraindik; gizonezkoak ez baldin badu ezkondu nahi, ez baldin badu ezkonsaririk ordaindu nahi, emakumezkoaren etorkizuna kili-kolo gera daiteke, zailago baita bikote egonkorra topatzea. Epaitegian lortu beharko du, beraz, kalteordaina. Gizonezkoa ere erbesteratua izan daiteke aitatasuna eta ezkontzeko eman duen hitza (beharrezkoa sexu-harremanak izateko) aintzat ez hartzearren. Elkarbizitza gutxieneko kalitatekoa dela bermatzeko epe bat ematen da maiz, bikoteen bateragarritasun ezean berehala banatzeko. Hona hemen adibide bat: Amasa-Villabonako Franzisko Gorostidi eta Maria Lizarraga senar-emazteek Goietxea Behekoa, Bidarte eta Ezelarzarra etxeak, beste gauza askoren artean, Juan Gorostidi semeari oparitzen dizkiote. Semearen portaera saritu nahi dute horrela, bide batez haien etorkizuna ere ziurtatuz: "*tienen* ***particular cariño, amor y voluntad*** *al dicho Juan de Gorostidi,* ***por su mucha virtud y en atencion a ello y a los muchos y leales servicios que de el tienen rezevidos*** *y los que conforme esta escritura esperan rezevir y queriendo galardonar todo ello y para que con eso tenga mejor combeniencia para poderse cassar y por otros justo respectos que a su amor paternal les mueven...*". Baldintzen artean, Etxeko ondasuna nola gozatu behar den zehazteaz gain, zera gaineratzen dute: "*y si dejado todo ello por vejez o no poder governar o por otra caussa* ***y quisieren apartarse de la mesa y compañía*** *del donatario este en tal caso sea obligado a darles de zeveras, manzana, castaña y demas frutos que se cogieren en la dicha cassa, todo aquello que se acostumbra de semejantes haciendas en esta dicha villa a personas de su calidad. Ytem, con condicion que hasta el dia de la assumpcion de nuestra señora del año primero venidero de mil seiscientos y noventa y quatro, aunque el donatario se casse con su muger aia de vivir y viva como de presente vive en la messa y compañía de los donantes* ***y que si de alli en adelante no estubiere contento de ello****, los dichos donantes le aian de repartir al donatario la mitad de trigo, maiz, manzana, castaña y demas fructos que en dicha cassa de Goicoechea se cogieren, y que adelante vivan en la conformidad que quisieren los donantes y donatario*". GAO PT 2092, 269. 1693-XII-27.

Semea eta senarra galdu dituen Elduaingo Madalena Etxeberriak bere iloba Migel Elorgari Barberotegi etxea ohiko baldintzetan oparitzen dio, gaineratuz beste nonbaitera bizitzera joateak ardura hau ez duela baliogabetzen: "*Esta otorgante se halla constituida en hedad de mas de setenta años y cargada de axes y emfermedades y no puede acudir al gobierno y administrazion de la dicha cassa de Barberotegui... primeramente con carga y obligazion de que el dicho Miguel de Elorga* ***le aya de sustentar en su messa y conpañia por todos los dias de su vida buenamente a la dicha Magdalena de Echeverria su tia otorgante, asistiendola con lo demas nezessario de su bestuario, viviendo en esta dicha villa de Elduayen y en si de ella fuere el dicho Miguel, de donde vibiere, de modo que no tenga falta la dicha otorgante de lo que a menester para su sustento y bestuario en la dicha cassa de Barberotegui*** *quando ella quiere vibir en ella ynde quiere seguir a otra parte*". Hil ondoren, Etxeberriaren arimaren aldekoak ere egin beharko ditu. GAO, PT 2079, 109. 1673-X-27.

Josetxo Urrutikoetxeak gai honen inguruan bere tesia burutu zuen eta bertan inon baino hobeto dago jasota ezkon-hitzarmen, ezkonsari eta seniparteek betetzen duten gizarte-eraikitzaile lana[102]. Gure aldetik, zera gehitu nahiko genuke: edadeko jendearen arteko pobrezia moteltzeko bide guztiz eraginkorra da, "mahi baten inguruan elkartuta" bikote gazteago batekin bizitzea ez lortzekotan, edota adina dela medio lan egiteko gaitasuna gutxitua izatekotan, bideetara eskatzera atera beharko baitute.

Ezkontzarekin irekitako bidea heriotzarekin berresten zen. Horretarako, hilburukoetan, ezkontza garaian agindutakoari segida ematzen zitzaion. Gainera, hilburuko askotan, Etxetik Auzora doan tartea zeharkatzen zen, Etxeko Jaunen oparotasuna hedatuz. Eskuzabaltasun honek, sendia eta komunitateko alerik ahulenak hartzen zituen aintzat. Izan ere, XVI. mendearen bigarren erdialdean antzeman

---

Senide buruaren babesa emateko beharrizana senide ez-biologikoenganaino iristen da, hauek ere Etxekoak direlako. Etxean ongi zerbitzatu duten gazteek koskortu eta lana utzi ahala saria edo oparia jasotzen dute; neskameak ezkontzeko ere Etxeko buruaren lana da. Baita morroia atertzea ere bai. Honi buruz, hona hemen, adibidez, Berastegiko Arbide etxeko morroi Juanes Zabalaren eta Etxeko buru Santiago Iparragirre Arbideren arteko adostasuna. Zabalak, auzokidetza ez duenak, nagusiari eskualdatzen dizkio bere eskubide, errenta eta ondasuna guztiak; trukean, Santiago Iparragiren kontura biziko da hil arte: "*en quarenta y mas años por criado en su casa de Arvide alimentadose y bestiendose a costa de los dichos padre e hijo y tanbien a sido asistido de parte de ellos con todo el gasto que a resultado de las enfermedades que ha thenido y padezido durante el dicho tiempo y agora por quanto el dicho Juanes de Zavala se halla inpedido y biejo y sin fuerzas para poder trabajar como solia en la forma que de derecho mejor puede y debe por el thenor de la esta carta estando cierto y bien informado de su derecho y de lo que en este caso le conbiene hazer...hazia e hizo grazia y donazion renunziazion y consignazion buena pura mera precta e ynrevocalbe que el derecho llama entre bibos de todas las soldadas que pueda pretender contra el dicho Santiago de Arvide y bienes del dicho Domingo de Yparraguirre difunto su padre por razon del dicho servizio y de otras qualesquera pretensiones de dares y tomares que entre si los ayan thenido y de otros qualesquiere bienes y derecho que puedian ser hallados en todo tiempo propios y pertenezientes del dicho Juanes...**con obligazon que a de thener...de sustentar y alimentar al otorgante durante los dias de bida***". Salbuespen batzuk aipatzen ditu. Gainera, Zabalak Arbide etxetik alde egin eta itzultzeko eskubidea gordetzen du. GAO PT 2080, 276. 1682-VIII-25.

Sarritan, Etxetik kanpo (Ameriketan adibidez) dabilen semeari ere, sukaldea eta gela bat erabiltzeko eskubidea gordetzen zaio. Beste batzutean, zaharzaroan seniderik ez eta laguntza kanpoan bilatu behar da. Mari Lopez Olazaranek, Arrasateko beatak, esate baterako, Rodrigo Santamaria eta Mari Lopez Orori eskatzen die laguntza "*en sus necesidades, trabajos y enfermedades*" bere oinordeak izatearen truke. Halere, ez du hitza beteko eta Korrejidoreak betearazi egingo dio. AUA: E 7 III. 1603-V-7.

[102] J. URRUTIKOETXEA LIZARRAGA: *op. cit.*

Ikus ere bai: J. VIEJO IHARRASSARRY: "Familia y conflictividad interpersonal en Guipuzcoa, 1700-1750". *Estudios de Historia Social*, II-IV (1985). 7-81 or.

ditugun ongileen artean, oso ohikoa da baliabiderik gabeko senide pobreekiko ardura emakumezkoengana zuzentzea; horrela, neska ezkongabe ezkon-merkatuan sartu ahal izateko sariak egokitzen dira. Izan ere, gizartean txertatu eta toki bat betetzeko, bikotea lortu eta etxe batera ezkontzea oso bide eraginkorra da, eta hau gauzateko ezkonsaria funtsezkoa dugu.

Beren oinordekoek, hildakoen oroimenaren zaindariak eta Etxe bereko buruak diren aldetik, zendu denak utzi duen dirua zentsoan mailegatu eta, sortutako etekinak agindu bezala erabili behar zuten. Dirua kudeatzea, normalean elizako eta udaleko ordezkari bat ere tartean direlarik, Etxe-barruan belaunaldiz-belaunaldi igarotzen den ardura da[103].

Adibide bezala, Martin Etxenagusia erretoreak agindutakoa proposatzen dugu, berari esker ezkondu ziren neska ugari baitago aipatutako protokoloetan. Lehenik eta behin, bere senideen artean leudekeen neska pobre ezkongabe lehenesten dira; halere, horrelakorik egongo ez balitz, ordezkoak zeintzuk izango liratekeen zehaztu du: "*se gasten y se enpleen en casar donzellas pobres que sean mis parientas, abiendo asi en la dicha tierra de Verastegui como en el barrio de Eldua, e preferiendo las tales a otras. E no abiendo de las parientas, sean de legitimo matrimonio... e para casar una donzella de las dichas calidades señalo de dote çient ducados...* "[104].

---

[103] Albizturgo Migel Larrañaga, Berastegiko Martin Etxenagusia, Tolosako San Frantzisko komentua sortu zuen Pedro Mendizorrotz, Baltasar Iriarte, Lizartzako Domingo Ibarrondo,... edota XVII. mendean zehar Berastegiko Madalena Inda, Elduaingo Ana Olaondo, Tolosako Martin Igor, Alegiako Joan Irura, Anoetako Migel Ateaga,... ongile-zerrendan azaltzen zaizkigu.
Usadio hau, esan bezala, Gipuzkoa osoan, eta garai hartako Europa osoan, ematen zen. Esate baterako, Protokolo hauetan ere, Deba, Mendaro eta eskualde osoa aintzat hartzen zuen Andres Arronaren berri izan dugu.
Ameriketan hiltzen zirenak ere, herriko pobreak eta hauen sendiak izaten zituzten gogoak: Adibidez, Tolosako Diego Iurramendik Zacatecasen hil den bere osaba Pedro Frias-en saria kudeatzen du; edota zerrendan aipatu dugun Martin Igor bera ere. Honek Liman 6000 dukat utzi zituen: "*para que receviesemos y cobrasemos y distribuiesemos en las obras pias y dotacion de monjas y para en casamiento de doncellas pobres parientas...y dar a pobres vergonçantes, como todo ello y otras cossas mas cumplidamente constaban por el dicho testamento*". Dirua Ameriketatik herriraino iritsi eta aginduaren arabera erabiltzen zela bermatzeak, hildakoaren bazkide eta lagunen lana izaten zen, bere hilburukoa betearazi behar zirenena, alegia. GAO: PT 2063, 183 (1653).
[104] GAO: PT 56, 384. Etxenagusiaren oroimenaren zaindariek jarduera honen zilegitasuna defendatu zuten XVII. mendean zehar, Apezpikutzak neske pobreen sariei buruz emandako ebazpenaren aurrean: "*y porque del modo que se a tenido asta aqui en la doctacion de las donzellas no a avido reclamo de que aya avido perjuizio ninguno a las ynteresadas; y como patronos que somos de las*

Etxenagusiak saria jasotzeko moral kristaua baldintza bezala azpimarratzen badu ere, beste ongile batzuk ez dira, antza, hain zorrotzak. Alderantziz, kristautasun zuzenaren eta ezkontzatik kanpo izandako senideen artean inolako kontraesinik ikusi ez eta bereziki gogoan hartzen dituzte bigarren hauek, egoeraren arabera baztertuak izateko arrisku bizian egon daitezkeelakoan. Madalena Indak, esate baterako, bere ondasunak bi zatitan banatzen ditu: bata, senide ("*deudos*") pobreentzat; bestea, berriz, hirutan zatitu eta bereziki aipatzen dituen senideei egokituko zaie[105].

Norbanakoaren eta sendiaren arteko harremanek kontrako norabidea ere har dezakete. Hau da: portaera okerrak ez du *social capital* pilatzeko aukerarik ematen, sare horretatik kanporatua izateko baizik. Hortaz, Etxearekin modu zitalean jokatzeak zigorra ekarriko du. Hemen, zalantzarik gabe, gizarte-bazterketa sortzeko funtsezko tresna aurkitzen dugu, senipartea nahita ez egokitzerakoan, Etxetik egozterakoan,... gizartekideari nortasuna eta eskubidea ematen dion lotura eten eta bizimodua aurrera ateratzeko behar dituen baliabideak ukatu ahal zaizkiolako. Etxekoa izaten ez jarraitzea benetako marjinazioa da. Arrasateko Katalina Ozaeta, adibidez, oso esanguratsua da bere semearen ezkonsaria ezabatzeko: "*desobediente y le avia hecho muchos disgustos y sinsabores y por que en su vida lo queria ella gozar todo lo que asi le tenia prometido y mandado*"[106].

Deskribapen hauen bidez maiorazkoaren inguruan sortutako kulturak senideak gizarteratzeko ala baztertzeko betetzen zuten funtzioa argitu nahi izan dugu,

---

*dichas memorias, loamos y ratificamos las doctaciones de donzellas fechas hasta aqui*". GAO: PT 2056, 100 (1633). Dena den, Errege-ebazpenak murriztu du sariaren balioa.

[105] Jaiotze guztiz ez zilegia izan eta zeharo txiroak direnei, alegia. Arestiko oharrean nabarmendutakoari buruz, bere senarrari zera agintzen dio: "*que se valiesse durante su vida de todo el ajuar y alajas que avia dentro de la cassa nueba de su avitaçion, conserbandola bien porque la mayor parte dellas fueron adquiridas por fin y muerte de los padres de la dicha Magdalena y mediante los vienes que le dejaron ellos. Y que quando muriesse se hiciessen çinco porçiones todo el dicho ajuar y alajas, y que la quinta parte adjudicasse el dicho Domingo de Muguerra, su marido, a sus deudos pobres; y que las otras quatro porçiones declaro y expreso quería y era su voluntad determinada se diessen reduçidas a tres partes: la una a Maria su hermana lexitima uterina,... la otra a Antonia, hija natural de la dicha Maria, que actualmente la servia en su dicha cassa de avitacion; y la otra terçera parte a Domingo de Echeverria, hijo natural de Magdalena de Fagoaga menor en dias, difunta, y nieto de la dicha Maria de Eleyzegui, su hermana, a los quales queria asistir por ser sus deudos y parientes y pobres de solemnidad...*". GAO: PT 2085, 124 (1692).

[106] AUA: Escribanías 50. 6, 203. Gogoratu arestian jaso den Zaraa Bolibar afera eta orduan egindako aipamenak.

kontrol sozialaren aldarte eragilea osatzen zuen funtzioa, hain zuzen ere. Ahalmen hori familia mailako komunitatearen egituran bertan zegoen iltzatua, bestelako erakunde berezituaren beharrik gabe.

Bada, lehen aipatutako ideia bera berreskuratuz –nola Etxeko jaunak familiaren ondasuna hala Herriko jaunak udalaren ondasuna– Etxea eta senideen kudeaketa esparru zabalagora hedatuko da[107], Etxeko jaunen artean onenak direnek Auzoetan eta Herrietan aginduko baitute: ia beti, udal ofizioetan; batzuetan, aholkularitza lana eginez udal-karguduna izan gabe; beti, Etxea, Jaungoiko, Errege eta Hiribildu-Errepublikaren loria eta mesederako.

---

[107] Garibairen hizkera, berriro ere, argigarria da. Bere senide eta herritarra den Jorge Martinez Urrupainen bizitzaren nondik-norakoak ematerakoan, Etxeko buru bezala loriatzen du: "Fue joyoso y limpio en su persona y muy esplendido en su casa, muy regalador de sus amigos, tanto de estos reinos como fuera de ellos [Nantesen lagun asko zuen]; bere semearen heziketarako gaztaroari buruzko saio eta guztiz idatziz!. Eta bere plaza-gizon sena nabarmentzen du: "*muy inclinado a fabricas*" -hots, herrian ekimenak burutzea gustokoa zuela-. Gizon hau Arrasate osorako eredugarria zela esaten digu ere, bere esaerak, hitz-joko eta bertsoak arrasatearrek aintzat hartzen zituztela gaineratuz. "*Hablava bien su lengua natural y la castellana, y aun francesa y suficientemente la latina. Metrificava con mucha gracia hasta en la suya natural: dexo dichos propmtos y muy avisados, que algunos dellos se suelen referir por sentencias y refranes entre los naturales de la villa... Hablo y escribio cartas con mucho seso y prudencia. Era algo arrebatado con el enojo. Trato tanta verdad en sus dichos y hechos que fue enemigo de los mentirosos y facinerosos...*". Urrupainek, *oeconomia* jorratzen zituzten liburu klasikoek ederki ezagutzen zituen, bere liburutegian agertu ziren latinezko liburuek adierazten zuten moduan. Esteban GARIBAI: *op.cit.*, 258-260.

### 1.2 *Self-Help*aren euskarriak Auzoan atxikitzeko aukerak

Horregatik, Udalbatza ere, bere eskualdean, burujabea dela esan dezakegu, arlo judizialaren (arauak eta epaiketak) eta arlo ekonomikoaren administrazioan (ogasuna, hornikuntza, herri-lurrak eta herri ondasunak,...) eskuduntza zuzena eta lehenetsia baitu.

Tokiko botere honek, besteak beste, ondoko gaitasunak bereganatzen ditu herriko eskumenean[108]:

- Sortzen diren istilu eta aurkezten diren salaketak epaitzea; errudunen zigorrak betearaztea.
- Araualdia sortzea.
- Elkarbizitza baketsua lotzea.
- Zergak biltzea; bildu diren sosak erabiltzea.
- Oinarrizko gaien hornidura (garia, artoa, ardoa, sagardoa, pattarra, haragia, arraia, olioa, erregaia...) bermatzea eta beren prezioa mugatzea.
- Herriko ondasunak (errota, udal etxea, basoak, lurrak, eta abar) kudeatzea.
- Lurraldeko Batzarretan ordezkapena.
- Lurraldeko defentsan parte hartzea.
- Eliz-zerbitzua ziurtatzea.

Modu honetan Udalbatzaren jarduerak lehen aipatutako moralezko ekonomiaren eskaerak eta gainontzeko ezaugarriak guztiz betetzen zituen. Eskuduntza multzo honek bake sozialaren ardatza ziren. Parte-hartze zorrotz eta zehatz honen bitartez, Etxeak eta Sendiak asetu gabe utzi dituzten hutsuneak betetzen ahal dira, lehendabiziko "ziurtasun-oihala" aski ez denean, beste bigarren euskarri hau azaltzen baita.

---

[108] Herrietako antolakuntzari buruz: Lurdes SORIA SESE: *Derecho municipal guipuzcoano: categorías normativas y comportamientos sociales.* Oñati: HAEE-IVAP, 1992.
Juan José ORBEA MADARIAGA: "Municipio y vida municipal vasca en los siglos XVI al XVIII". *Hispania, 143 (1979)*. 505-557 or.

Gaitasunen hauen artean, bi azpimarratu nahi genuke bereziki. Alde batetik, oinarrizko jakien (janak, edariak, erregaiak) prezioen gainean udalak jar dezakeen muga, saltzaileak garestitu ezin duena. Horrela, kontsumitzaile den heinean, Gipuzkoako errepubliketako herritarrak nolabaiteko babespean eskuratzen ditu funtsezko gaiak.

Bestalde, herri-ondasunen tamaina eta ikaragarrizko balorea. Gipuzkoako seme-alabek, ekoizle diren heinean, aziendentzako bazka, Etxerako behar duten egurra, eta abar, doan eskura dezakete. Izan ere, *propietate pribatuzkoa* izatea ez da lurraren ezaugarririk nagusiena, ezta merkatal-gaia izatea ere[109].

Baliabide hauek, esate baterako, herri bakoitzak bere udal-ospitalea kudeatzea ahalbideratuko dute. Ospitale hauetan herriko behartsu eta jende edadetuak izango du bizileku duin bat, hau da, non jan eta non lo egin. Eta arlo mugatuago batean, adibidez, Etxe bateko buruak desagertzen badira adin txikiko seme-alabak utziz, alkateak hauen zaintza zeinen ardurapean jarri erabaki dezake: aiton-amonari, osabari, familiako lagunari,... edota alkatetzari berari[110].

Era berean, komunitatearen eremu honetan ere, zigorra ezartzeko zilegitasuna aurkituko dugu, lege/usadio hausteak epaitzeko gaitasuna alkateak

---

[109] Paolo GROSSIk *propietatearen* bilakaerari buruzko ikerketa historiko guztiz interesgarria egin zuen, ondoko lan honetan: *La propiedad y las propiedades: un análisis histórico*. Madrid: Civitas, 1992. Aurreneko atalean emandako argibideak eta adituen lanak ere gogoratu.

[110] Nahitaezko zaintza hauetan Etxea gobernatzeak dakarren zama ere ikus daiteke beste behin ere: lehen aipatu dugun Pedro Lapeire-ren antzera, Arrasateko Beltran Ibiñarri ere Etxeko burua izateari uko egiten saiatzen da. Alkateak, Esteban Garibaik, alegia, Juan Lara eta Katalina Okendoren seme-alaben zaintza berari egokitu dio. Lehenago Martin Saez Maturana izan zen hautatua baino beste zaintza zuenez ez du honen ardura hartu. Ibiñarrik Lararen koinatuak edota Maturana bera baino egokiagoak direla arraposten du. Bere burua horrela zuritzen du: 54 urtekoa, "*ocupado y embarazado en sus tratos y negocios y no sabe leer y escribir y es hombre forastero y estranjero oreginario y natural del reino de Francia*". Lararen koinatuei buruz, berriz: "*de hedad de mas de veynte y cinco años y menores de sesenta y hombres solicitos y cuidados y grangeros que sustentan casa y familia y tales que podrian regir y gobernar la tutela de los dichos menores y su administracion y hombres de negocios y que saben leer y escribir*". Trikimaluak ez du balio; aldiz, Ibiñarri errentaria dela utzi du agerian, ez duela lan fisikorik egiten, alegia; ongi dago errotuta Arrasaten eta Garibaik berresten dio karguan. Ibiñarrik onartu ez eta gartzelaratua izatea nahiago du. GAO: CO LCI 59.

Zaintzaileak bata bestearen atzetik hiltzeak nolako arazoak ekar ditzakeen erakusten digu Ali ERFAN idazle iraniarrak. Bere narrazioa XX. mendean kokatzen du, antolaketa mota hau guztiz garaitu ez den gizarte islamiar batean. Ali Erfan: "Bibi". *La 602è nuit*. Tour Aigues: Éditions de l'aube, 2000.

beraganatzen du eta[111]. Izan ere, arestian aipatu bezala, Herria, edo Hiribildua, justizia kontuetan bere burua zuzentzeko gai da.

Dena den, bide judizialean sartu aurretik, auziak adiskidetasunean, bitartekarien bitartez –"*amigables componedores*" diote agiriek– konpontzen saiatuko dira. Merkeago eta azkarrago izateaz gain, agirietan bestelako arrazoiak ematen dira, beti komunitatearen barruko batasunari buruzkoak: senideen arteko maitasuna gordetzea; senidetasunari berari eustea; bakea eta ordena mantentzen herriko gizonek adierazi duten interesa eta beharra,... Bitartekari hauek ez dira lege-gizonak, edo hala izatea ez zaie eskatzen behintzat, ospe oneko ala epaitu behar den gaian adituak baizik. Hauen lana ez da zigortzea, adostea baizik[112]. Bitartekaritzaren bidez adostasuna lortzen ez denean –Etxe bateko seniparteari ala hilburuko batek agindutako ondasun-banaketari buruz adibidez– baina baita ere salaketa kriminalak daudenean justizia formalaren tenorea da.

Tokiko komunitateak ezartzen dituen zigorrei dagokienez, nekez topatuko dugu guretzat hain arrunt den espetxearen arrastoa. Espetxeak udaletxeetan dauden gelak besterik ez dira, auzia aurrera aterako dela bermatzen duen baliabide prozesala baino ez. Arrunta eta merkeagoak izateaz gain, askoz eraginkorragoa da isunak

---

[111] Behintzat bai lehendabiziko epaile lanak; helegiteak, berriz, kanpora eramaten dira, Jainkoaren izenean Lurran epaitzen duen eta pakea bermatzen duen Jaunarengana, erregearengana alegia, ala honen ordezkaritzarengana (korrejidorearengana, *Chancilleria*rengana,...). Korrejidoreak lehen auzialdian aritzeko ahalmena du ere bai eta honek oso lehia bizia sortuko du.

[112] Antonio M. Hespanhak arrazio juridikoaren indar gozoa deitu dio honi. "Sabios y rústicos. La dulce violencia de la razón jurídica". *La gracia del derecho.*. 17-60 or.

Indar gozoaren adibide bat XX. mendeko Hegoafrikako etxealdetan aurki dezakegu: Charles VAN ONSELEN-ek Helen BARDFORD-en hitzak jasotzen ditu: "*les poings, les coups de fouet et les armes à feu on été essentiels au maintien de la relation maître-serviteur dans les exploitations. Mias elle s'empresse de ajouter que chez les propriétaires les plus riches, le racisme dur était parfois tempéré par une bienveillance émanant des principes de l'autorité familiale et que l'intimié réelle de la relation maître-serviteur elle-même a contribué à alimenter une forma approximative d'ethique paternaliste. Par là, elle suggère que les propriétaires terriens ont clairmente lié des Africains à leur familles, ce que étouffait toute contestation et indépendance de la part des fermiers*". Charles VAN ONSELEN: "Paternalisme et violence dans les fermes du Transvaal de 1900 à 1950". *Annales ESC 1992-1.* 5/34 orr.

Bestalde, egungo justizia osagarri moduan bitartekaritza aldarrikatzen duena badago. "Ados Jarri" zerbitzuak, esate baterako, bitartekaritza defendatzen du, batez ere senideen arteko auzitan: "*el cumplimiento de los acuerdos adoptados mediante la mediación es superior al de las resoluciones judiciales al uso...En pequeños litigios de comunidades de vecinos o de propietarios...si existieran los mecanismos adecuados estos problemas no tendrían por qué ir a los tribunales...es un proceso más flexible, más corto y más barato que el juzgado*". *Igandegin,* 1998-II-15.

ipintzea eta, batez ere, herritik, komunitatetik, denbora batez aldentzea[113]. Bakartzea, babes galtzea izateaz gain, zigorra da. Delituaren tamainak edo izaerak bestelako zigor mota ere bideratuko du: eredugarriak diren zigor fisiko ikusgarriak, itzulera gabekoak direnak eta gizarteratzeko helbururik ez dutenak. Belarriak, eskuak ala sudurrak moztea,... Sortzen dituzten orbainen bitartez, zigor hauek gizabanakoa nabarmen uzten dute gainontzeko kideen aurrean. Mailaketa honen gorena heriotza-zigorra dugu, gizabanakoa gizartetik betiko aldentzen duena.

Honekin batera, Auzokoen etengabeko zelatatze lanak agertzen dira, moralezko ekonomian erabat txertatuak zeuden salaketa publikoak, komunitateak berak arau hauslearen aurrean antzeztua. Etxe-arazoak auzo-arazoak diren heinean, auzokideek ere portaera itsusiak salatu eta aurpegiratzen zituzten, Xaribariak, Toberak, edo honen moduko antzezlanetan. Baita ere kopla, bertso eta abarretan. Alkatearen agintetik bananduta ospatzen ziren ekimenak ditugu hauek[114].

---

[113] Tolosako alkateak 1601. urtean ezarritako isunak eta zigortutako delituak. GAO PT 89, 626.

| Izena | Delitua | Isuna -marabeditan- |
|---|---|---|
| Maria Iribas | "Amancebada con mozo libre". | 600 |
| Juanes Soroa | Lapurra; espetxetik ihes egin du. | 1.500 |
| Martin Etxaiz | "Amancebado". | 500 |
| Juanes Ormaetxea | "Quebro la caveça de una moça". | 500 |
| Juanes Aia, bere semea eta bere emaztea. | Martin de Larreta eta bere semea jipoitzea: "por la fuerá y descalabro.. en una heredad suya". | 8.0000 |
| Migel Arzadun | "pendencias con sus suegros". | 1.000 |
| Domingo Ibarra | Beste lagun bat zauritzea. | 500 |
| Juanes Maizterra eta bere anaia. | Borrokan ibiltzea. | 300 |

[114] Xabier ITÇAINA: "Sanction morale, fête et politique: le charivari à Itxassou au XIXe siécle". *Revue d'histoire de Bayonne, 146 (1990).* 435-450 or. Hélène ETCHECOPAR ETCHART: *Théâtres basques: unes histoire du théâtre popularie en marche.* Baiona: Gatuzain: 2000. Etchecoparrek toberari buruz esaten dutena oso argigarria iruditzen zaigu: "*Kalapita handiak sortu dituzte toberek...aktoreen kalejira baten ondotik gaurkotasuneko gai bat jorratzen da antzerkian, auzi parodiko bat muntatuz. Gai minberak aipatzen dira...Herrian gai sozial edo politiko baten inguruan dagoen polemika plazaren erdian erakutsi dute, pertsonaia batzuk karikaturatuz eta, noski, alde baten defentsa hartuz*". *Gara*ko 125. *Aitzina* Historia gehigarrian, (2001-VII-31).

Era berean, alkatearen eskumena tokikoa zen, esan nahi baita, ondoko "Errepublikan" ezin zuela ez agindu ez eta epaitu ere egin, bere eskumenetik kanpo zegoen erumua zuelako.

Hortaz, alkateak buru zituen sistemak berebiziko zailtasunak zituen tokiko eremutik Lurralde mailako zigorra (edo laguntza) antolatzeko unean. Nola zigortu ondoko lurraldean aterpetu den gaizkilea? Nola ekidin kanpoko eskaleak herrira iristea? Edota nola egin aurre arazo orokorragoei, demagun gari faltari?. Gipuzkoako errepublikak Erdi Aroan hasi ziren antzeko galderak erantzuten, senidetasunetik auzokidetzara igarotzea onartzen ez zuten Ahaide Nagusien aurkako liskarretan. Haien erantzuna Etxetik Auzora zabaltzen zen eremuari beste hirugarren luzapen bat ematea izan zen, lurraldetasuna *Probintzia*raino hedatuz.

Gatazka korapilatsu horretan garatu zigorra, baina, ez zen guztiz egokia XVI. mendetik aurrera eraikitzen ari zen Gipuzkoa Etxerako. Horregatik, zigor araudiak eta zigorrezko ekimen zehatzak gizarte-kultura berriari egokitu beharko direla. Ordena publikoari dagokionez, Gipuzkoako Ermandadea bere boterea Lurralde mailan hedatzen hasi zenetik, "Ermandadeko Alkateak" bezalako irtenbideak ekoizten zituen herriren arteko mugak gainditu ahal izateko. Edo ekonomia moralaren erantzunetik haratago, zigorrak gauzatzeko alkateek behar zuten finantza-laguntzak eskaintzen[115].

Baliabide hauek ezagutzea eta erabiltzea zigorraren praktika guztiz normalizatua zegoela ematen du aditzera, logikoa denez. Baina Probintziak ez du oraindik behar bezala trebatu errekurtso hauek, ez behintzat lurralde osoan arintasunez jarduteko.

---

[115] Horrela, Alkateak ere Batzar Nagusien ordezkari moduan aritzen dira, lapur eta arloteak zigortzeak sortzen dituen fakturak Batzarretara igorriz. XVI. mendeko erdialdeko faktura bakan batzuk ematen ditugu, aski argigarriak izango direlakoan.
-1550-IV-29. Donostiako alkateak lapur bat eta Bergarakoak 6 arlote makilatu dituzte, –"*fueron açotados*"-.
-1550-XI-24. Donostiako alkateak lapur bat makilatu eta beste bati belarriak moztu dizkio, makilatu ondoren.
-1555-V-27. Ordiziako alkateak emakumezko bat kaleetatik arrastaka eraman eta urkatu egin du.
-1556-XI-23. Borreroak kobratu behar duena zehazten da: Bi dukat urkatze edo zatitze bakoitzeko "*por la persona que ahorcare o descoartizare*"-.
-1557-XI-24. Arrasateko alkateak aurkezten du faktura: "*por la justiçia que yzo en Ysavel de Hurigoeien que fue encoroçada y pintada e açotada*".

Ildo horretatik, laguntzaz edo zigorraz arduratzen ziren gune zentralak eta bateratuak ez ditugu topatuko. Ez Probintziaren ardurapean, ez eta, are gutxiago, kutsu estataleko edo norbanakoaren eskubideetan oinarritutako bestelako erakundetan ere. Gizarte-segurantza, pentsioak, sindikatuak, Probintziako kartzela, eta abar ez dira gizarte honetako partaideak[116].

[116] Lanarekin zerikusi zuten elkargoek ere tokiko eraginkortasuna zuten. Adibidez, itsas-gizonen kofradiak. Izenak berak ere (kofradia = anai artekoa) oekonomiaren arrasto sakona du. Horri, santu ala ama birjinaren zaintzapean sortutakoak gehitu beharko genizkioke, ohiko antolaketaren zantzuak berriz izateko.

### 1.3 Gipuzkoa Etxea: bere garaikoen modukoa.

Horregatik, lerro hauetan zirriborratu dugun portaera eta gizartearen kontrolerako jarduerek bat egingo lukete XVI. mendean Europa osoan zehar zuzentzen eta erreformatzen ziren ekimenekin. Etxea eta Auzoa, betiere kristautasunak zeharkatuak, ditugu diziplina sortzaile nagusiak. Horretarako erabiltzen zituzten lanabes zehatzak, XVI. mendeko Europak berritu nahi zituen tankera berekoak dira: eskupekoak, tokian tokiko ospitalea,...

Gipuzkoako Komunitate hau izango genuke, beraz, gure ikerketaren abiapuntua. Geografikoa, politikoa eta ideologikoa den esparru horretatik lehen aipatu dugun 1796ko indar polizialaren hedatzera nola heltzen den argitzea dugu gure betebeharra. Horretarako gure hurrengo urratsa, sistema honen inguruko eztabaidak bilatzea izango da, Europa mailan Errukiaren sarean eginiko moldaketak gure lurraldean eragina izan zuen ala ez jakiteko asmoz.

## 2. LAGUNTZA-BIDEA KOLOKAN XVI. MENDEKO GIPUZKOAN ERE BAI?

"Laguntzarako baliabideak hobeto erabiltzea": Gurean ere mahai gainean jarri zen irizpidea zela uste dugu. Dena den, Europan ez bezala, eztabaida botere erligiosoa eta zibilaren arteko tirabiran baino, udalbatzen garapenean –eta jarraian Probintzia politikoarenean– txertatu behar dela pentsatzen dugu.

Hobetze-bide honetan aipamen isolatuak agertzen zaizkigu; hala nola: 1563. urteko Batzar Nagusien agindua, erlijio kontuak direla-eta Frantziako eskaleen egonaldia herriko egun batera murrizten duena; edo erakunde berak 1578. urtean plazaratutako proposamena, ijitoak eta arloteak egozteko, pobreen ogia jaten zutelako[117].

Ezinbestean baina, erantzunik nagusienak eta landuenak kultur katolikoaren bidean topatuko ditugu, bereziki katolikotasuna sakonki bizi duten bi pentsalariengandik: Inazio Loiolako eta Esteban Garibairengandik, alegia. Bakoitzak, gainera, laguntzarako bi erakunderen birmoldaketa proposatu zuten: eskupekoak eta udal-ospitaleak.

---

[117] GAO: JD AJI 1, 17 eta 25.

**2.1 Loiola eta eskupekoak.**

1535. urtean Inazio Deuna izango zenak Azpeitian eman zuen egonaldian bere auzokoen ohiturak zuzentzeko parada ederra izan zuen. Loiolak berak hala aipatzen du, 1541ean Erromatik bere herrira igorritako eskutitz batean; besteak beste, pekatarien aldeko kanpaiak jotzea, emakumezkoen burukoak kendu izatea, karta-jokoak desagertaraztea eta... eskale moduan ez zitezen ibil, pobreentzako eskupekoak finkatu izana omen dira bere lorpenak: "*mucho tengo en memoria el tiempo que allá estuve, en qué propósito y determinación quedó el pueblo, después de haber constituido laudables y sanctas constituciones, es a saber: de hacer tocar las campanas por los que en pecado mortal se hallasen; que no hubiese pobres mendicantes, mas que todos fuesen subvenidos; que no huviessen juegos de cartas, no vendeedores ni compradores de ellas; y que de poner tocados las mujeres, sobre mal fundamento y ofensa a Dios N.S. que fuese extirpado tal abuso. La custodia y observación de las tales y tan santas constituciones se me acuerda haberse principiado y continuado todo el tiempo que allá estuve, y no con poca gracia y visitación divina, que tales sanctas cosas os hacia obrar*"[118].

Herrikideen morala estutzeari ekin zion, beraz, Loiolakoak. Katolikotasunaren aldarte espirituala eta portaera publikoetako seriotasuna ekartzearekin batera, pobreekiko ikuspuntu europarra bertaratu zuen ere. Loiolakoa Parisetik iritsia zen, eta, zalantzarik gabe, inguru haietan indarrean jartzen ari ziren neurriak gogoan izan behar zituen[119].

Santu azpeitiarrak bultzatu zuen ekimenaren ezaugarriei dagokienez, Loiolak bere jardueraren esparrua oso ondo murrizten du: bere "*patria*". "*Patria*"k, baina, aitaren (*pater*-en) etxea gainditu eta auzoko familia politiko osoan hartzen du bere geruzapean. Azpeitia du helburu, eta azpeitiarrei baino ez zaie zuzentzen. Udala zuzentzen dutenekin lan egitea, bere predikua legea bilakatuz, auzoko guztienganaino iristeko bidea du. Hortaz, honako hau Etxeko jaun batek abaitutako tokiko ekimena dela esan dezakegu.

---

118 Candido Dalmases: *Monumenta Ignatiana. Series Prima. Epistolae et instructiones. I.* Matriti: tipys gabrielis Lopez del Horno, 1963. 161-165 or. "Epist. 26 Civibus Azpeitiae. Roma, Augusto-septembre 1540".

119 Izan ere, 1534. urtean, aurreneko tauletan jaso bezala, Lyonek eta Rouenek jarri zituzten martxan bere plagintzak; Parisen, berriz, 1535ean ekin zioten neurri berriak garatzeari.

Karitatea hobetzeko asmoz, hiriko kaleetan eta inguruan zebiltzan eskaleen gaineko gutxiengo kontrola ezartzeko beharra azpimarratzen du. Zigorra ez da plangintzaren gako nagusia, baina karitatearen baliabideak alferrik galdu ez, eta eraginkorrak bilakatzeko, txiroak zeintzuk ziren jakin behar dela adierazten du, ordura arte bat-bateko eskaleak zirenak irizpide trinko baten arabera eskupekoa jasotzen duten hartzaile ezagunak bihurtuz. Loiolakoak Vivesen hitz berak erabiltzen ditu: "*subvenidos*", lagunduak.

Dena den, gizabanakoaren lana da hurkoari eskua ematea, norberaren arima salbatzeko modua izateaz gain. Horregatik, Loiolakoak pobreziari aurregiteko zerga bereziren bat sortu beharrean, ohiko baliabideei norabide berria emango die. Azpeitiko pobreen liburuak, "*Relación del principo y origen de la memoria de los pobres vergonçantes*" izenburupean hasiera dutenak, lan honen emaitzatzat jo ditzakegu[120].

Liburuaren hitzaurreak Loiolakoaren izena goraipatzen du, gure aurrekoen gogoa loratzeko aukera ematen duen idatzizko kulturaren apologia eginez[121]. Inazioren asmoa pobreak laguntzea izan zela berehala plazaratzen du; ez, ordea, edozein pobre, bertakoak eta benetakoak direnak baizik. Komunitateko alerik ahulenak taldeko altzoaren babesa bermatuz: "*este santo varón, visto el Evangelio y Sagrada Scriptura, que es su ábito y continuo exercicio, procuró quanto pudo, para que los verdaderos pobres de la* ***patria****, que sufrían hambre e otras muchas necesidades, fuesen socorridos*".

---

[120] Candido Dalmases: *Monumenta Historica Societatis Iesu. Ignatiana. Fontes documentales de S. Ignatio de Loyola. Documentos de S. Ignatii, familia et patria, iuventute primiis sociis.* Roma: Institutum historium societatis Iesu, 1977. Vol. 115, 88: "De Azpeitiae pauperibus sublevandis, 1535-1542". pg. 439-463.

[121] *"Porque la memoria de los hombres es flaca y feneçe con su vida, el remediador e proveedor de todas las cosas proveyó el remedio de la scriptura, e por esta aparecen las cosas pasadas. E consiguiendo esto y los futuros vean y sepan la verdad de la que se dirá adelante en esta relación del caso presente, es que el año de 1535 llegó a esta villa de Aizpeita el señor maestro Ynigo de Loyola, de las partes de Iherusalen y Roma, donde andubo los tiempos pasados en las peregrinaciones, vida, doctrina, e exemplo que por sus obras se ha visto.... este santo varón, en el tiempo e días que en esta su patria y villa de Aizpeitia residió, visto las necesidades sprirituales que en los della avía, y para la emienda y remedio de su salvación convenía, dio la doctrina que de su mano se sperava, y travajo en general y particular por el remedio de los peccadores...".*

Honen arabera, 1535eko maiatzean, pobreei buruzko udal-arauak onartu ziren. Loiola Etxeak Azpeitian betetzen zuen lanaren ildotik aritzen da Inazio, herriko txikiaz arduratzen den ahaide nagusitasunaren ildotik, alegia. Ahaide Nagusien gatazkak, ordea, atzean gelditzen ari dira, eta Loiolarrak bere jakinduria udalbatzaren bitartez helarazten du auzokoeengana, "naturalegiak", gutxi zibilizatuak, ikusten zituen auzokoeengana, hain zuzen ere.

Udalaren bitartez arauak gizarteratze hau Europa zeharkatzen zuten irizpide berritzaileekin bat dator guztiz. Gure ikuspuntutik, halere, araualdi honen gakorik nabarmenena, irizpiderik modernoena, kanpotarrak eta alferrak ez onartzean datza. Loiolakoak bultzatutako ebazpenak pobreek sortarazten duten errukiaz baliatzen ziren alferrak laguntza eta eskupekoetatik aldendu behar direla defendatzen du. Xede hau buruan, bi pertsonen bitartez, eliz-gizona bata eta laikoa bestea, pobreentzako ziren sosak era ordenatu eta zehatza jasotzea agintzen da, gero merezi dutenen artean banatzeko. Diruzain hauek pobreen beharrak asetuko direlakoan, Azpeitiko txiroek ezingo dute eskale moduan ibili.

"*Subventione*" merezi dutenak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa bilakatzen da, horretarako pobreen errolda osatuko delarik: "*porque, según la esperiencia nos demuestra, rresultan muchos ynconbenientes e exçessos, por no se dar horden que en cada juridiçion e parrochia sean sostenidos e alimentados los probes della, conforme a la prematica de sus magestades, de lo qual se a dado ocassión e materia, que muchas personas que podrían trabajar e mantener con su trabajo e sudor, andan hechos bagamundos e araganes, burlando el nonbre de nuestro Señor, e rresultan otros muchos ynconbenientes; por tanto hordenamos, e estatuymos, e mandamos que los allcaldes, fieles e rregidores desta villa, de aquí adelante, en cada un año ayan de elegir e nonbrar dos buenas personas de conçiençia, el uno clérigo e el otro lego, de la juridiçion de esta villa, los quales ayan de tener e tengan cargo de pidir e coger limosna los días domingos e fiestas de guardar para todos los probes de la juridiçion. E para ello encargamos sus conçiençias, e hexhortamos a todos nuestro vezinos de la juridiçion desta villa ayan de acudir a los tales mayordomos de los probes con toda la limosna que solían antes dar e distribuyr a los probes, naturales e estrangeros, cada uno según su facultad e como quisieren, los quales mayordomos ayan de distribuyr e ripartir la dicha limosna entre todos los probes de la juridiçion, abiendo rrespeto a la nesçesidad e calidad de cada persona probe...*"

Lan egiteko gaitasuna –gaitasun eza– pobre eskaleak onartzeko ezartzen den ezaugarria dugu. Era berean, atez-ate joan beharrean, onartuak direnek aipatutako pobreentzako arduradunengana jo beharko dute. Besteak, berriz, hiribilduko eskumenetik kanpora joan beharko. Beraz, lan egiteko gaitasuna izan arren eskean dabiltzanentzat 6 eguneko atxiloketa azaltzen da hemen ere. Dena den, ez du ematen pobre edota alferra izatea zigortzen denik, araualdia bete ez izatea baizik, debekuei men ez egitea. Bestalde, ez da aurreikusten lan-beharturik, edota indarrezko heziketa gune itxietan. Hori ez litzateke bat etorriko Azpeitira mugatzen den plangintza honekin; Azpeitiari, noski, ez zaio interesatzen aterpe-espetxe gune bat, "ospitale nagusia"ren modukoa, martxan jartzea. Alderantziz, behartsuak Azpeitian ahalik eta gutxien egotea agintzen da.

Azpeitira mugatzen den araualdi honen funtsean, beraz, kristautasunak eskatzen dituen errukia eta arreta onartzen dira, erabat neurtuta bada ere: ematen duena, batetik, ongilea izan eta salbaziorako hurbil dadin; jasotzen duena, bestetik, ez dadila eskale moduan ibil eta ez dezala iruzurrik egin. Eskatze-murrizketa hau lortzeko udal-araualdian gauzatzen diren urratsak alferrak ez onartzea, pobreak erroldatzea eta eskupekoak zuzentzea ditugu. Zerga bereziak, gune berezietan pobreak bildu eta ixtea, edota lan behartuak ez dira aipatu ere egiten[122].

---

122 *"Yten hordenamos e mandamos, que ningunos probes estrangeros, ni de fuera de la juridiçion desta villa, non puedan pedir ni demandar limosna ostiatin, de puerta en puerta, en la dicha nuestra juridiçion, salbo que el tal mendigante probe, seyendo tal que no podría trabajar e ganar de comer con su labor e trabajo, o peregrino que pasa en rromería, aya de acudir e acuda a los tales mayordomos de los probes...e considerando su persona e neçesidad, les ayan de dar alguna limosna con que puedan pasar, e sin detener quando mucho de una noche en esta villa. E mandamos que ninguno pueda dar limosna a los tales probes en la dicha nuestra juridición,...asimesmo el tal probe, si pidiere la dicha limosna, aya en pena de tres días de carçel."; "Yten ordenamos, que si algunas personas estrangeras, que podían buenamente trabajar, andubieren a pidir limosna en nuestra juridiçion, que ninguno les aya de da limosna a los tales, so pena de los dichos dos rreales aplicados para el atabaque* [saskitxoa] *e bacín de los probes; antes mandamos...sean tenidos de manifestar e traerlos ante la justiçia al tal, que, seyendo sano, anda mendigando; y asimesmo a los dichos questores e demandadores de yglesias e ospitales de fuera desta juridiçión, para que la dicha justiçia, hallando ser tal, le aya de condenar en pena de seys días de cárçel por la primera, e por la segunda en pena de çient açotes" "yten, porque no se de ocasión que algunas personas, so esperança desta limosna, se ayan de fingir e hazer cabtelosamente probes, podiendo sostentarse con el trabajo e sudor de sus manos, hordenamos que el rregimiento que es o fuere desta villa aya de hazer matriculla de todo los probes desta juridiçion con verdadera ynformaçion, e los dichos mayordomos sean tenidos de acudir con la dicha limosna tan solamente a los probes que por el dicho rregimiento fueren puestos e examinados por tales en la dicha matrícula, e no a otros" "Yten hordenamos e mandamos, que ningunos aministradores de los ospitales desta villa no puedan ni ayan de acoger en los*

Hortaz, ez da inolako zerga berezirik ezartzen baina eskupeko guztiak egitasmo honetarako bideratzen dira. Agindu honek nolabaiteko zentralizazio-kutsua hartzen du, Valbanera eta Orreagako monastegien izenean izan ezik, ez baitira diru-bilketa gehiagorik onartuko; helburu komunetik eskupekoak desbideratzea debekatzen da. Dirua biltzea eta pobreekin banatzea azpeitiarren eskumena izango da, ez beste inorena. Aginduak errespetarazteko, 6 egunetako espetxea aipatzen da, 50 zartadako jipoia bigarren aldia izatekotan, hainbat ospitale, eliza edota monastegiren izenean eskean ari direnentzat. Legez kanpo eskupekoak ematen dutenek, berriz, isun bat ordaindu beharko dute, pobreentzat izango dena[123].

Esan bezala, Inazio Deuna izango denaren lanaren emaitza 1541ean irekitzen den hiriko pobreen liburua dugu. Bertan, Juan Egibar eta Maria Joaniz Zumiztain senar-emazteek pobreentzako diru-laguntza finkatzen dute. Loiolakoaren lanaren eta udalbatzaren deialdiaren ondorioa dugu. Liburuak, berriro ere, Inaziok egindakoa saritzen du: "*Comunicado con el regimiento e principales de la dicha villa, dio toda la orden que podía y el tiempo (y disposición desta tierra) le ofrescía, como parece por las provissiones que hizo y capitulado que en este libro (está puesto y dio comien)ço y fundamento al bien que después acá ha subçecidido subçederá*".

Honek emandako adibidearen jarraitzaile sutsuak Egibar eta Zumiztain ditugu[124]. Ospeak eta ondasunak irautarazteko, bikote hau herriko pobreen babesle –ala *subventione*-emaile– bilakatu zen, txiroak izan ez zituzten seme-alabatzat jotzen zituztela. Haien ekimenak udalbatzak luzatutako deialdiari erantzuten dio, 1541eko urriaren 26an 160 dukateko zentsoa sortuz eta eskupekoak jasotzeko arduran parte zuzena hartuz. Kopuru honek eman behar zituen errentak, urteko 8 dukat, pobreen

*dichos sus ospitales a ningunos demandadores ni questores estrangeros, ni a ningunos probes, que, teniendo salud e disposiçion para trabajar, andan mendigando...*"

[123] "*Ytem, hordenamos e mandamos, que ningunos questores ni demandadores de ningunos hospitales, ni casas, ni yglesias, desta provincia ni fuera della, sean osados de pidir ni demandar ningunas limosnas hostiatin, de puerta en puerta, ni en otra manera... mandamos que ningún vezino no le ayan de dar ninguna limosna a los sobredichos, so pena de cada dos rreales" que se destinarán a los propios pobres...*"

[124] Ez da kasualitatea 1535ean udal-kargodunen artean berau azaltzea. Hitzarmena sinatzen dituzten lekukoen artean, leinu zaharren pisua naberman oso da: Beltran Oinatz, Andres Loiola erretorea eta Joanes Murua. "*Firmado en la torre del difunto señor Pedro Perez Zabala*".

eskupekoa elikatu behar zuen[125]. Loiolakoarekin gertatu bezala, bere jarduera biderkatzaile suertatu zen, beste lagun batzuentzako bidea erakutsiz[126].

Funtsean, 1535ean agindutako guztia betetzen da: udalak izendatutako diruzainak, kontabilitate-liburua, pobreen errolda...[127]. Halere, hainbat moldaketa onartzen dira. Adibidez, udalak senar-emazte hauek kudeaketan, diru-bilketan, parte zuzena har dezaten onartzen du. Era berean, sortzaile hauek eskuzabalagoak dira azpeitiarrak ez diren pobreekiko ("*estrabagantes*"[128]); izan ere, bertakoen beharrak asetu ondoren kanpotarren artean diru-laguntza banatzea onartzen zaie, betiere hauek

---

125 "*e para pagar los dichos ocho ducados de censo, a respecto de veinte uno por millar, ciento e sesenta ducados de oro para comprar el dicho censo sobre unas caserías e heredades e haciendas de la dicha villa e su jurisdición*".

126 "*(E visto ello, Juan de) Eguibar, mercader, e dona María Joanez de Çumiztain, su muger, vezinos (de la dicha villa, que se hallaron sin hijos) ni herederos forçosos, puesto que los tubieron, hijos de bendicíon (porque por permisión de nuestro Señor fallecieron), se esforçaron a dottar el bacyn y atabaque que (para los dichos pobres se puso, e dottaron) con cyento y sesenta ducados, y con la renta dellos que (son ocho ducados que dieron perpetuamente), y demás dello, como verdaderos servidores de Dios, tomaron (el cargo de la administración del dicho atabaque e) baçin e su execución, e dando harto buen exemplo y cumpliendo el artículo de la humildad, por sus personas tubieron por bien de entender en ello, pidiendo limosna, y aquella con la dicha renta distribuyendo en los dichos pobres por mucha orden; y según su prudencia y conoscimniento que tienen de lo spiritual, se spera que adelante darán fabor al casso...han dado causa al fabor que al dicho bacín después acá otros han dado y adelante se spera que darán, y abrán el galardón que todos desseamos... E porque es verdad y por tal parezca, se scrive y dize que los que dieron principio a esta santa obra y en su execucion entendieron son los sobredichos, como ello es notorio en la patria...para que conste y sea exemplo del origen y principio desta memoria pia de limosna de los pobres vergonçantes y de sus autores...*"

127 "*...fuese el mayordomo que a de tener el cargo de coger la dicha limosna de pobres e a su poder venga todo quanto se cogiere para los dichos probes e por su mano sea distribuydo entre los pobres que el dicho concejo e rregimiento tienen e tuviere(n) senalados en obrado en su nómina, que para ello tienen los dichos ocho ducados, con todo lo otro que para el dicho efeto fuese dado y cogido de limosna ...Yten que, conplido con los dichos probes, nonbrados por el dicho rregimiento e contenidos en la dicha nómina, de lo que sobrare puedan hazer limosna ha algunos probes estrangeros e nescesitados que ocurrieren e pasaren por la dicha villa, a los tales con que más no pidan los tales probes e bayan de la dicha villa con la limosna que se les diere.*
*Yten que, si el dicho rregimiento quisiere e le paresciere, e ynterbeniendo su licencia e abtoridad, pudiesen pedir por sí o por una persona que senalarian para ello, por el tiempo de agosto, por la dicha villa e su juridicion, pidiendo limosna para los dicho probes, e esto con licencia espresa del dicho rregimiento, que lo pidan en cada año, e no de otra manera, e si se les concediera la dicha licencia, usando della pidan la limosna..*
*Yten que los probes que en la dicha nómina e matrícula se an de poner se pongan agora e en todo tiempo perpetuamente por los dichos alcaldes, fieles e regimiento de la dicha villa, sin parte alguna de otro, precediente ynformacion que para ello tomen de las vidas e nescesidades de los tales probes, e que ninguno dellos se ponga en la dicha nómina, sino por mano del dicho rregimiento...*
*Ytem que el dicho rregimiento e oficiales queda que no ayan de dar licencia a ningún probe para que pida en la dicha villa ni en la yglesia della, e harán como en esta rrazón sea guardada la premática del rreygno, en la dicha razon dispone*".

128 "*puedan dar e distribuyr la limosna onesta e acostumbrada por una bez a los tales probes e con que con tanto bayan de la dicha villa, e no pidan más en ella*"

gehiago ez eskatzekotan. Bertakoena, berriz, pobreen erroldara mugatu behar da, izen berriak gehitzeko udalaren txostena eta baimena beharrezkoa izango da eta.

Hortaz, 1542ko otsailan, udalak Egibar eta Zumiztain senar-emazteak pobreentzako sosen diruzainak izendatzen ditu, hauek utzitako errenta onartu eta berretsiz. Bikoteak emandako zentsoen errentaz gain, hilburukoen bidez pobreei egokitzen dena eta, bereziki, elizan jaiegunetan pobreentzako saskitxoetan biltzen dena kudeatu beharko dute. Izendapen honek, udalaren filosofia ederki laburbiltzen du: bilketa zentralizatua, bertakoen beharrak asetzea, udalbatzaren kontrol zuzena[129].

Honek guztiak Europa zeharkatzen ari den moldatzearekin bat egiten du, bai denboran bai eta ideologiaren aldetik ere. Bestalde, Loiolako Inazioren argudioak Vivesen parekoak dira. Europan bezala ere, ekimen honen eremua, hiribildua dugu. Oraindik, Gipuzkoa ez dirudi prest dagoenik erantzun orokor bat emateko. Herri bakoitzaren ardura da eskaletasunari irtenbide bat ematea. Erabakiak hartzekotan, udal-mailan hartzen dira, herriko buruen eskutik. Komunitateak bere partaideak laguntzen ditu, babesa emateko bideak irekiak uzten ditu. Arrotzak, "*estravagantes*" zirelakoak, ez dute tokirik; ez dira baztertuak, onartuak izatera ere ez zirelako iristen.

Vivesen antzera Loiolako Inaziok bultzatu zuen bidea –hots, eskaleak desagertaraztea eta eskupekoak arautzea– ez da, baina, abian jartzen den bakarra. Eskupeko eraginkorrak lortzeak ez zituen pobreziarekiko kristautasunaren agindu

---

129 "*fue hordenado, para que los probes de la dicha villa e su juridición fuesen socorridos e sustentados, andubiesen en la yglesia parrochial della dos bacines pidiendo limosna para los dichos probes, e lo que en ellos se cogiese e a ellos fuese aplicado fuese distribuydo por mano del mayordomo que el dicho concejo pusiese en los dicho probes del pueblo e en los otros que de pasada a la dicha villa acudiesen, e que con esto, en la dicha villa ni en la yglesia della no andubieses ni se permitiese andar a ningún probe de la dicha villa ni de fuera parte, ni los alcaldes de la dicha villa ni otro alguno fuese osado a dar licencia a ningún probe, fuera de los dichos bacines, para pidir la dicha limosna...los alcaldes que son o fuesen...no daŕian licencia alguna ni permitirían para que en la dicha villa ni en la yglesia parrochial della andubiesen probes algunos a pidir limosna, ni otro bacín particular para ninguno dellos, salbos los dichos dos bacines conoscidos e instituidos para los dicho probes, cuyo mayordomo es el dicho Juan d'Eguibar e su muger, otros ningunos; antes todos los otros los quitarían e defenderían* [debekatu], *para que no andubiesen ni pidiesen, todas las bezes que a su noticia beniese...por manera que otro probe alguno ni bacin de probe particular non obiese ni andubiese, salbos los dichos dos bacines de probes susodichos, e esto porque con lo que en los dichos dos bacines se cogía e a ellos hera aplicado se sostentaban los probes de la dicha villa por mano de los dichos Juan d'Eguibar e su muger. E hera conbeniente e nescesario para la conserbacion e abmento de la limosna de los dichos bacines que lo susdicho así pasase e fuere goardado*".

klasikoa bermatzeko laguntza-molde guztiak agortzen. Honekin batera, ospitaleek finkatzen zuten abegikortasuna dugu, aurreneko atalan ikusi bezala. Europan eskupekoen egokitasunak bezainbeste esames sortu zuen gaia, hain zuzen ere.

## 2.2 Garibai eta Gipuzkoako hiribilduetako ospitaleak XVI. mendean egokitzeko beharra

Era berean, hilburukoen bitartez zuzentzen diren laguntzak, baina, ez dira eskupekoetara, edota ezkontzeko eta ikasteko sarietara mugatzen. Lehen aipatu ditugun Etxenagusia eta Ibarrondo, adibidez, bere herrietan ospitaleak sortzeko adina diru ere finkatzen dute[130]. Diru-iturri sendo batekin atxikitzerakoan, ospitale eta bere elizaren etorkizuna bermatzen dela aitortu behar da, karitate tradizionala sustraitzen eta indartzen bada ere. Laguntza mota hau, beraz, ez da guztiz baztertzen; ez behintzat eraginkortzat jotzen baldin bada.

Berriro ere Etxenagusiaren azken nahiari erreparatuz: "*para recetar e acoger a los pobres de Dios, peregrinos e caminantes que piden... que en la casa de Areiztun que asi tengo conprada...rreparando aquella como conbiene de mis bienes propios, en una camara se pongan quatro cuxas de camas y en ellas quatro camas buenas de pluma, con cada dos cobertores de lienzo... Ninguno de ellos se consienta estar mas de un dia e una noche* [aterpetzen direnetaz ari da] *e luego sean echados si acaso no fueren muy enfermos... Conbiene tengan para calentar...una cozina que sea en lo baxo de la dicha casa*".

Laguntza merezi dutenen eta ez dutenen arteko oreka bilatzeko beharra aurkitzen dugu, berriz ere. Kristoren pobre, pelegrino eta gaixoek laguntzarako gai dira. Laguntza eta nolabaiteko duintasuna: ohe onak eta sua[131].

Esteban Garibai ospetsua erreforma/tradizioaren tirabiraren eredurik nagusiena bilakatzen zaigu, hainbatetan aipatutako bikoiztasunaren eredurik nagusiena. Bere senideek sortutako ospitalea egokitzeko asmoz 1586ko udan Juan Martinez Urrupain lehengusuari igorritako aholku sorta Garibairen ospitalekiko

---

130 Eta daturik zaharrenetarikoa 1516. urtekoa dugu, Martin Astigarretak Santandriko Sancti Espiriti ospitalea Probintziaren esku utzi zutenekoa, erromesak –ugariak eta nekatuak nonbait– atertzeko. GAO: JD IM 1 21 1.

131 Bere nahia bete behar dutenek ere hala ulertzen dute, etxea oso jota dagoenez, saldu eta beste bat erosten baitute. GAO: PT 57, 535 (1579). Etxenagusiak Berastegin sortutako ospitalearen errentei buruzko informazioa GAO: PT 2080, 208 (1682. urtekoak) eta 2086, 285 (1695. urtekoak) aurki daiteke.

grinaren ispilu dugu[132]. Lehengusuarentzako prestatu zuen plangintzan, besteak beste, zera topatzen dugu: "*le aconseje que a la yglesia del hospital de Nuestra Señora de la Concepcion, estramuros de Mondragon, fundado por su abuelo Martin Perez de Urrupayn, como queda visto, cuyo patron es él, añadiese una nave, alargandola mas, y la dotase de una capellania perpetua a la administracion de los religiosos del colegio y monesterio de Sanct Francisco, de la mesma villa, y se enterrasen en ella marido y muger, él en una ornezina de la parte del evangelio, y ella en otra de la de (sic) epistola...Aconsejele más, que en el vinculo que a su hija, doña Simona, hiziesen, obligasen a ella y a sus descendientes y sucesores en él, se enterrasen en este mesma yglesia, por obligarlos a ser mayores bienhechores della y de esta casa de hospitalidad, poniendoles algunos exemplos en estas matherias de grandes prelados y señores que estas cosas avian hecho en estos reynos por esta Orden.*"

Nonbait, karitate tradizionala erreformatu beharraren errudun bakarrak ez lirateke eskupekoa maltzurki eskatzen zutenak. Izan ere, hemen azaltzen zaigun ospitaleak Urrupaindarren mausoleo bilakatzea du helburu; eta helburu nagusia esatea asko bada, bai behintzat lehentasun handiko helburua. Bada, Garibaik dioenez, horrelakoak ez dira soilik Arrasate bezalako tokietan gertatzen, baizik eta Erresuma osoan eta Noblezia Handiarekin.

Dena den, Garibaik ez omen du inolako kontraesinik ikusten erreforma eta ospitalen tradizionalen artean, hala Herriko Jauntxoek nola Probintziakoek, bakoitzak bere eremuan karitatea ziurtatu behar du eta. Hau dela eta, Urrupainen ospitalea haunditu zuen urte berean, 1586an alegia, Gipuzkoako ospitale-sarea era berri batera egokitu behar dela defendatzen du.

---

[132] Urrupaindarrek sortutako ospitalea, 1523-1525 bitartean jaio zen, Garibaik berak kontatu bezala: "*Martin Perez de Urrupayn y su muger doña Mari Lopez Alçarte fueron tan zeladores de sus almas que en salud ordenaron ambos sus testamentos en esta villa en 19 de hebrero del año de 1523, con gran christiandad y prudencia, no solo dando en él mucha paz a sus hijos...mas aun estendiendo la caridad de sus entrañas religiosas con sus proximos, porque en una clausula de esta escritura ordenaron de fundar un hospital de sus bienes libres del quinto. Para cuya execucion, por escritura ordenado despues en la mesma villa en 11 de junio del año de 1525, concertaron su fabrica de cantera muy hermosa con Juan de Erquiça, maestro cantero de esta villa...Y porque esta sancta obra dedicada a Dios y a su sanctisima Madre se hiziese con la devida solenidad, alcançaron para ello facultad del licenciado Hernando de Valdeolibas, provisor y vicario general en el obispado de Calahorra y la Calçada por el obispo don Alonso de Castilla...para lo fundar en el arrabal de abaxo entre el hospital viejo de la advocacion de Sanct Estevan prothomartyr... y las casas de los herederos de Juan Amarita, o en otra parte del dicho arrabal*".

Bere oroitz-lanetan, Gipuzkoako txiroen miseria konpontzeko bideari ekin diola jakinarazten digu. Atal honi eskainitako izenburua ezin esaguratsuagoa da: "*De mis diligencias sobre la reformacion de los pobres de Guipuzcoa, y ocupaciones mias y nacimiento de Luisica, mi hija*"[133].

Ekimen pertsonalak Garibairen oroitz-liburuaren orri guztiak buztitzen ditu, berriro ere. Lehenik eta behin, Garibaik bere alabaren jaiotza eta Gipuzkoako txiroen aldeko lana parez-pare jarri izana azpimarratu behar dugu. Funtsean, gauza bera dugu familia biologikoa eta familia soziala (ala politikoa nahiago izanez gero) gobernatzea. Garibai, edo Loiola, bezalako Etxeko jaunentzat ardura maila berdina eskatzen duten eremuak dira. Bi arlo hauek zuzentzean sendiaren ospe, gaitasun, izen on eta balio handia aldarrikatzen, iragarkitzen eta gizarteratzen da[134].

Beraz, izenburu luze eta korapilatsu hau –egun korapilatsu irudi dakigukeena, hobe esanda– ez da Arrasateko kronistaren bitxikeria bat, bere bizitza zuzentzen duen ildoaren mamia baizik, bere idazlanetan hainbatean ederki islatu bezala.

Bigarrenik, eta lehenengoaren haritik, bere kabuz eta ekimen hutsez prestaturiko lana dela nabarmentzen du Garibaik: bere ekimena da berari bururatu zaio. Esaldi berean hiru bider "nire" hitza erabiltzea ez da kasualitate hutsa. Hemen ere, Loiolakoarekiko parekotasuna nabarmena da.

Eta hirugarrenik, Arrasateko kronistak Gipuzkoako ospitaleetan pobreen moduan dabiltzan gaizkileak salatzen ditu. Ideia hau azpimarratu behar dela iruditzen zaigu, pobreziari atxikita dabilen arazoaz ohartarazten du eta: "*para que...se diese orden en la reformacion de los bagamundos malechores que andavan a titulo de pobres por los hospitales de toda aquella Provincia en mucho deservicio de Dios y daño de toda la tierra.*"

---

133 *Las memorias... op. cit.* 405. or.

134 Hala adierazten zuen Jeronimo Castillo de Bovadilla Lizentziatuak, 1597. urtean "*Política para corregidores*" lanean. Bertan, politikaren eta etxearen kudeaketa –hauxe baita oekonomia hitz grekoaren esanahia– guztiz alderagarriak dira, Errepublikaren benetako irudia ongi zuzendutako sendiarena baita; etxeko agintea aginte gorena bezalakoa da, eta etxeko gobernu ona Errepublika gobernatzeko eredu zuzena dugu.

Pobre onak eta pobre gaiztoak bereizi behar direla azaltzen da hemen, beste behin ere: Jaungoikoaren zerbitzuaren aitzakiarekin, laguntza merezi ez duten arloteak dabiltza, pobre onek merezi dutena zurgatzen. Horien kontra aritu behar da[135].

Oraingo honetan, Garibaik Gipuzkoa osoa jotzen du lan-eremutzat. Probintziaren garapen politikoak nabarmen egin omen du aurrera; bai behintzat Garibairen ikuspuntutik. Ondoren, Garibaik zer-nolako pausuak eman dituen adierazten du. Bere plana Juan Martinez Urripainen bidez Batzar Nagusira igorri du. Esan bezala, ez du ematen Batzar Nagusiak eskatutako lan bat denik, eta, proposamenak baino agindu kutsua hartzen duten nahiak ziren.

Bestalde, Garibaik "bere" erreforma nondik atera duen ez du ezkutatzen; alderantziz, argi eta garbi aurkezten du: "*Embiele con la carta el tratado impreso de los hospitales generales que su autor, Miguel Giginta, canonigo de Elna en Cathaluña, me avia dado*". Beraz, Garibaik Migel Gigintaren lana gipuzkoaratzeko ahalegin tinko baten aurrean gaude[136].

Garibai itxaropentsu azaldu da, Batzar Nagusiek erreformari ekingo diotelakoan. Hauek, berriz, bestelako eginbidea hartuko dute. Izan ere, 1586ko azaroaren 24an Garibaik igorri duen liburua –"*que trata de la orden que se deve tener y se a puesto en Castilla para el govierno de los ospitales y acojamiento e limosna que en ellos se haze a los pobres que obcurren*"– aztertu eta udaberriko Batzarrerako txosten bat osatuko dela erabakitzen da. Ondorioz, 1587ko maiatzean Batzarretako lehendakari Berastegi Lizentziatuak laburpen bat plazaratzen du, liburuaren ideia nagusiak bilduz: "*reduziéndose los ospitales en uno, se da la orden cómo se an de governar los pobres que a ellos*

---

135 GAO: PT 79, 122. 1562. urtean Villabonako alkateak ospitalean egindako bisitan, Juan Katalana eta Sebaste Basko gazteak kaleratzen ditu bertatik. Alkatearen esanetan, gazteak sendoak eta osasuntsuak dira. Haiek ere ezinduak direla ukatzen dute, eta jende onaren eskupekoen kontura bizi direla esaten dute.

136 Batzar Nagusian aurkeztu baino lehen, Arrasateko udalbatza eta batzarrari irakurtzeko eskatzen dio Urrupaini: "*El qual lo recibio muy bien, segun el mesmo Juan Martinez me lo abiso en su respuesta, y despues lo propuso en la dicha Junta General de la mesma villa, y en ella se acogio con mucho amor la sancta obra, cuya orden y traça se remitio a la Junta General seguiente de la villa de Sanct Sebastian del mes de abril del año seguiente de 1587. De lo que se hizo en ella no tengo aviso hasta ahora, aunque por diversas cartas ha solicitado al dicho Juan Martinez que Mondragon tornase a hazer instancia, en la qual yo no dudo.*"

*obcurren sin que anden pidiendo de puerta en puerta, travajando cada uno d'ellos en lo que supiere e por los maiordomos e cargoavientes les fuere ordenado de forma que ningund pobre que no tubiere causa legítima esté ociosos y sin travajar, eçeto los estrangeros que se acojen tan solamente por dos noches, que estos tales no travajen* [betiere bi gau baino gehiago ez badute ematen]".

Batzar Nagusiek Garibai-Gigintaren plangintzaren gainean erabakiren bat hartzeko prest daudela ematen badu ere, bere agindua Martin Elkano ospitaleen egoerari buruz osatzen ari den ikerketaren emaitzak itxoitea da. Izan ere, Garibairen esku-hartzea ez da guztiz orijinala izan, ospitaleen erreformaren ingurukoak azken bi urteetako Batzar Nagusietan, gutxienez, eztabaidagai izan baitira. Halere, hiribilduetako kexaren bat edo beste azaldu arren[137], ekimena ez da Probintziakoa izan, Mandojana Zarate korrejidorearena baizik. Honek, Aita Santuak eta erregeak emandako aginduak jaso eta Gipuzkoan ikerketa bat abian jartzea bideratu baitzuen.

1585eko Mutrikuko Batzarrean, Diputatu Nagusiak ekimen honen berri eman zuen: "*mediante provision real e vreve de Su Santidad que el dicho señor corregidor tiene, atento que por el dicho señor Ovispo está cometido las dichas diligençias a martin d'Elcano, escrivano vezino de Carauz, y el senor Corregidor a ofresçido de dar su comisión ansí bien al dicho..., se proveyó y mandó que con toda vrevedad se agan las dichas diligençias...*". Dena den, 1586ko udaberrian agindua gogoratu behar izan zioten. Urte bereko azarora arte ez dio Elkanok bere txangoari hasiera emango. Emaitzak, aurreratu bezala, 87ko apirileko Batzarrean eman zituen[138]. Txosten hau eskutan, Batzar Nagusiak Garibairen proposamena baztertu eta Elkanok egindako iradokizunak betetzeko agintzen du[139].

---

[137] 1587-IV-17: Elgoibarren eskaera: "*castigar a los bagamundos que por las villas andan pediendo limosna siendo útiles de sus personas para travajo. Y que se mande así bien a las justiçias ordinarias que a los pobres estrangeros no consientan que se detengan en los ospitales de las dichas villas e lugares si no fuere por una noche de pasada, como no tenga ynpedimiento de enfermedad o otroa causa que justa sea. Y que mande nombrar algunas personas que pidan limosna para los pobres naturales para que no anden pediendo por otras partes e lugares*".

[138] Horrela aurkeztu zuen: "*descargo de lo que avía fehco en execuçion e cunmplimiento de la comisión que se le dió por el Reverendísimo de Panplona y Corregidor d'esta Provinçia, mediante la que tenía por provisión real e breve del Papa*"

[139] "*que en esecuçion e cunplimiento del breve del Papa e provision del Rey nuestro Señor, atento que es cosa neçesaria y conveniente, para que se lleve a devido efeto lo que sobre ello apunta el dicho Martin de Elcano en el pareçer que da al pie de las dichas diligencias, suplicó al dicho corregidor mande enbiar los dichos autos e diligençias a su Magestad y al su Real Consejo de Justiçia según que por la dicha real priviisón se le manda*". 88ko azaroan berretsiko dute.

*2.2.1 1586-87 bitarteko txostena.*

Martin Elkano zarauztarrak egindako ikerketak garrantzi ikaragarria duela iruditzen zaigu, Gipuzkoako ospitale-sare osoaren berri jasotzerakoan gizarte-laguntzaren funtsezko alderdi baten egoera zehatz-mehatz eskaintzen baitu, –orain arte gure historiografian ezezaguna genuena– XVI. mendeko Europan puri-purian zegoen eztabaidarekin bat eginez.

Ikerketaren eragile zuzena Probintzia ez izan arren, eta oinarrizko baimena aginte erlijiosoak eman arren, ospitale-sarearen egoera aztertzeko garaian ezinbestekoa da Lurraldeko erakundeen bitartekaritza.

Dena den, txosten honen aurrekoetan jasotzen diren helburuak eta Batzar Nagusiek abiatzen duten egitasmoarenak ez dira guztiz berdinak. Izan ere, ikerketa honek Gaztelako Koroak eta Pio V.a Aita Santuak 1560ko hamarkadan martxan jarritako ekimena du abiapuntu[140], lurralde bateko ospitaleak errotik murriztu eta pobreak ospitale bat edo bitan hartzea helburutzat duena.

Murrizketa honen arrazoiak ospitale-zaindari zein babesleek sortzaileen nahiak ez betetzea, eta gune honetako errentak desbideratzea omen dira. Hau zuzentzeko, errenta guztiak laguntza gune bakar bat, bi gehienez, elikatzea omen da onena[141]. Korrejidoreak ez du bere gain hartuko lan hau eta Elkanori aginduko dio Gipuzkoako ospitaleen kopurua murriztea beharrezkoa den ala ez erabakitzeko ezinbestekoak diren datuak biltzeko. Hots: Kalagorriko eta Iruñeko apezpikueen oniritzia duen egitasmo honek ez du murrizketarik agintzen; egoera neurtzeko ikerketa bat da. Hau da, bada, Elkanok egingo duena: egoera ezagutu eta bere ondorioak Batzar Nagusian eman.

---

[140] 1581. urtean Felipe II.ak emandako aginduak 1567ko beste bat hitzez-hitz jarraitzen du eta.

[141] *"aviendo nos entendido...por rrelaçion de algunas personas celosas del servicio de Dios que en muchos lugares de nuestros reinos avia muchos ospitales fundados y doctados por diversas personas algunos de los quales tenian tan poco facultad y hazian que la mayor parte de ella se consumia y gastava en los mismos oficiales de los tales ospitales y hera muy poco la ospitalidad y obras pias que en ellos se hazian y no se cumplian ni podian cumplir la yntencion y fin que los tales fundadores avian tenido, que seria muy conveniente al serviçio de dios...que todos los dichos ospitales se rreduxisen en uno o dos yncorporando y vinyendo en ellos la hazienda de todos los demas...".*

Elkanok Gipuzkoa osoa zeharkatu zuen, herriz-herri, ospitaleak eta artxiboak bisitatuz, alkateak eta auzokoak elkarrizketatuz eta tokian-tokiko emaitzak idatziz jasoz[142]. Hiribildu guztiko errejidoreentzako galdera sorta bat prestatu zuen: zenbat ospitale dago hirian, zeinek sortua, zein egoeratan dagoen, zeintzuk diren erabiltzaileak, administrazioa nolakoa den, errentak, kontu-liburuak...

Bidaia, esan bezala, 1586ko urrian hasi zuen, Gipuzkoako bi hiriak –Donostia eta Hondarribia– bisitatuz; jarraian, bi hirien tarteko herriak. Hemendik Azpeitia-Azkoitira abiatu, Urola osoa ikusi eta, Seguratik hasita, Oriako arroan zehar jarraitu zuen. Hurrengo zatia, Hernanin hasita, kostaldea da. Neguan etenaldi bat egin behar izan zuen (berak etenaldi hau egin behar izate hutsak etxerik gabekoentzat alde batetik bestera ibiltzea zein latza suertatuko zitzaien adierazten digu). 87ko otsailan ekin zion berriro bidaiari, oraingo honetan Deba Garaitik abiatuta. Ibilaldi honi bere herria eta ingurua ikuskatzen eman zion bukaera.

Zeintzuk dira, orduan, lan trinko honen emaitzak, Garibai-Gigintaren plangintzaren gainetik Batzar Nagusiak lehenesten dituenak? Bada, Probintziak ez du murrizketa orokorra agintzen. Ez du, beraz, bat egiten ez erregearen aginteareki ez eta Gigintarekin. Ixteko agintzen dituen ospitale bakarrak, hirigunetik urrun dauden bakan batzuk dira, bertan babesten direnak lapurrak-edo direlakoan. Are gehiago, erabilera ez-egokia eman arren, inguruan txiro eta erromesentzako bestelako aterperik ez egotekoan, ez ixtearen alde azaltzen da. Gainera, ospitalea sortzeko dirua eman zuenaren nahia errespetatzea ezinbesteko baldintza da gune hori irekita jarraituko badu.

Elkanoren datuen arabera, Gipuzkoako ospitale gehienak hiribilduko ospitaleak dira, esan nahi baita: hirigunean kokaturik, elizatik gertu, santu berezi baten babesik gabeak[143] eta udalbatzaren kontrolpean. Normalean, hiribilduarenak bezala aurkezten dira. Eskumen bakoitzeko gunerik nagusienetan, eta kaletik urrun

[142] Ohi den moduan, txosten mota hauek ez dira Batzar Nagusietako erregistroan atxikitzen; zorionez, Gipuzkoako Artxibo Orokorraren beste sail batean topatzerik izan dugu. Bere egoera oso kaxkarra izan arren, posible da ia osorik irakurtzea. GAO: JD IM 1 21 5.

[143] Arrasate ("*Hospital nuevo de la concepcion*"), Getaria ("*Hospital de San Sebastian*"), Segura ("*San Juan Bautista*") eta Zumaiakoak ("*Hospital de nuestra señora*") izan ezik. Donostiakoak, aldiz, "*Hospital General de la villa*" eta "*Hospital de San Anton*", bezala agertzen dira.

dauden auzoetan, orokorrean ospitale bat agertzen zaigu. Beste udal-azpiegitura bat gehiago direla ematen du, miserian erori diren auzokoentzako ostatua, eduki beharreko zerbitzu bat.

Hiribilduko ospitale honekin batera, legendunentzako gune berezituak agertzen dira batzuetan, Madalenaren baselizen ondoan edota Lazaro Deunaren babespean. Hauek, kaskotik at, harresitik kanpo gehienetan, kokatzen dira. XVI. mendearen bukaeran, baina, gaixotasun mota honen eragina oso txikia da gure lurraldean. Hauek lirateke, beraz, egungo "ospitale-eritegi"en antza izango luketenak.

Azkenik, etxe bakar bati atxikitako ospitaleak agertzen zaizkigu txostenean, Urrupainena bezalakoak, alegia.

Ospitaleek betetzen dituzten orubeak, hiribilduetan duten kokapenak, bere sorreraren adierazle ditugu. Madalenak, jatorriz gaixo kutsagarrientzako izanik, harresitik kanpo daude, esan bezala. Hiribilduko ospitale nagusiak, elizaren ondoan agertzen dira maiz, hiribilduko jatorrizko azpiegitura balira bezala; Ongileren batek sortuak, berriz, bere sortzaile egokitutako etxean jartzen dira. Aurrerago ikusiko dugun moduan, guzti hauei Ertaroko usaina hartzen zaie, XVI. mendean ontzat ematen den kokapena hiriko gunetik aldenduta baitago: arrabaletan, herriko sarreran, bide ondoan,...

Honekin guztiarekin, baserritarrek pobre eta erromesei eskaintzen dizkieten gelak edo oheak genituzke. Aterpe mota hau, esate baterako, Areriako alkatetzan dagoen bakarra dugu[144]. Zehaztapen honi oso esanguratsu deritzogu, gure ustetan Gipuzkoako ospitaleak eta hiribilduak banatuezinak zirela adierazten du eta.

---

[144] *"en esta dicha alcaldia y siete conçejos e pueblos della...por quanto no ay en todos los siete pueblos ningun ospital general ni particular ni confradia y la ospitalidad que se hazia hera que a los pobres e peregrinos que andan a los dichos pueblos las buenas gentes hazian y daban limosna y a dormir se acogian en algunas casas de particulares que a su boluntad les daban cama".*

ELIZ-ONDOAN KOKATU OSPITALEAK

Irun, Ataun, Tolosa, Oiartzun (Elizalde, 1560), Bergara, Antzuola, Aia, Segura, Eibar, Zumaia, Hernani, Donostia (Santa Katalina, 1538).

Hiribilduetako ospitaleetan aterpetzen diren lagunei buruz, bestalde, errespetoz eta kezkaz hitz egiten da; adibidez, Debako udalbatzak –"*verdadera ospitalidad y mejor tratamiento de los pobres*"– edota Segurakoak –"*Son bien tratados e servidos. La villa tiene mucho cuidado de ellos*"–, besteak beste, bere lana aldarrikatu eta zainketaren berri ematen dute. Ordiziakoa oso zehatza da: "*acuden muchos pobres mendigos asi naturales como estrangeros de dibersas naciones asi los que ban al señor santiago en romeria como a otras partes y se les da lumbre, luz y camas buenas y de hordinario esta en el por hospitalero un hombre de bien con muger y una criada y tiene una cavalgadura que trae la leyña que hes menester*". Diruzaina pobreen osasunaren arduradun zuzena da: "*tenga cuidado de que a los pobres se les haga buen acogimiento y se les de rrecaudo*", gaixo daudenak, eskatzen ezinduak, janaria eta zainketa medikuak jasotzen dituztela bermatuz; hilko balira, gainera, lurperatu eta haien arimaren aldeko meza ordaindu beharko da.

Ospitale hauek ez dira auzokoentzako zama astun bat, gainetik kendu nahi dutena. Ostera, Elkanok eta errejidoreek bertan bizi diren pobreen bizi-kalitatea bermatu behar dela errepikatzen dute, abegikortasuna, ospitalitatea, lortu behar dela. Betiere, noski, pobretu direnak herriko seme-alabak direnean, haiek baitira ospitaleen helbururik nagusiena. Hau dela eta, elbarritu eta gaixo fisiko sendaezinak agertzen badira ere, emakumezko alargun edadetuak dira, gehienbat, ostatu hartzen dutenak. Hots: etxeko babesa galdu dutenek, haien *patria* den hiribilduak, etxe komunak, eskainitako aterpea dute hemen.

Hauekin batera, erromesak agertzen dira; hauentzat, baina, gau bakar batentzako ostatua baino ez omen da ematen.

Ordizian aurreratu bezala, ospitaleak gutxiengo errenta bat jaso behar du abegikortasuna bermatuko bada: elizkizunetan bildutako eskupekoak, zentsoen errentak, opariak, maiztertzak, edota beste hainbat eskubideren bitartez. Ospitalekoen eguneroko bizitzarako gelak duinak –oheak, arropa eta gizon/emakume zein arduradunentzako banatuak– eduki behar dira, baita otoi egiteko kapera, aldare edo eliza, sukalde, egurra eta baratz bat ere bai. Kudeaketa, esan bezala, hiribilduari dagokio, elizarena dagokion moduan. Udalbatzak diru-zaindari bat jartzen du[145], baita ere eguneroko administrazioa eramaten duen serora, senar-emazte edo maizterra ere[146].

Oro har ez dira, beraz, toki ikusgarriak, kozinatzeko, baratza lantzeko eta lo egiteko tresnariaz zein arropaz hornitutako etxeak baizik[147].

---

145 "MAYORDOMO" dutenen artean**:** Donostia, Orereta, Urretxu, Segura, Ordizia, Tolosa, Hernani, Usurbil, Asteasu, Aia, Orio, Zumaia, Deba, Mutriku, Elgeta, Eibar, Elgoibar, Zestoa, Aizarna, Zarautz, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aorazatza, Arrasate, Bergara, Oiartzun.

146 "HOSPITALERO", "HOSPITALERA", "MAYORAL" edota "SERORA" ondoko ospitaleetan aipatzen da: Donostia, Irun, Orereta, Arrasate (Urrupain), Antzuola, Eibar, Zarautz, Zumaia, Segura, Urretxu, Ordizia, Aizarna, Azpeitia, Elgoibar, Oiartzun.

147 Adibidez, Villabonako ospitalezaina 1562an aldatzerakoan ordezko berriak hartzen duena hauxe dugu: "*primero dio por quenta aber en el dicho ospital çinco camas de rropa cummplidas traydas, e un cobertor de lieço biejo; e un sabana bieja; e quatro cosnas o plumones; e siete cobertores sin sabanas; y siete cabeçales sin cobertores e una fraçada bieja; yten, un cobertor labrado de algodon de cabeçal bueno; yten, una sabana bieja; yten una caldera; e un pichel de estaño; y seys asadores; e una cochara de yherro quebrado; y çinco tajadores de palo; e un serbidor*". GAO: PT 79, 122.

Tolosakoak, berriz, hobeto apainduta dago, kalitate hobeagoko arropak, gela eta ohe gehiago, errenta anitza, eta abar. Esate baterako, Tolosako Madalenak, 1565ean, Eperradategi baserriko maiztertza eta hainbat sagasti, mendi eta gaztañadi ditu egokituak; etxe eta ospitalearen barruan, berriz, zera aurkitzen dugu: "*diez y siete camas con sus cobertores senzillos, entrando en ellas la que enbio por el legado que yzo Maria de Çaldibia; y mas quatro açadones e un aparejo de labrar tierra llamado goldea e otro llamado arrea y un itaçurra e una bostorça e quatro escarbadores de fierro llamados escuareak e un açadon con tres picos; e syete jarros de estaño quebrados y uno sano, con que se syrven; e un plato de estaño e diez ocho tajadores e un candelero de açofar; e tres cobertores de cabeças e una sabana de morturio; e una taça de plata sin pie; e veinte obejas e seys corderos e un rroçin; e tres caxas de cubas que estan en la dicha casa las dos buenas e la otra bieja; e dos sartenes e seys cuchares de fierro e çinco asadores de fierro e una caldera de alanbre e un burusy (?) de diez syes baras e otra de doze baras de sayal y un mortero de madero; e seys arcas o caxas de tabla; y los trigos que estan senbrados en las pertenençias de dicha casa; e otros alajes de casa e quatro manteles de ofresçer oblada en la yglesia*". Urte horretan, hau dena Ibarrako Domingo Zubiaurreren esku gelditzen da, ezkontza-kontratu bat izango balitz bezala; Etxerako saria eraman eta bizitza osorako "*mayordomo*" moduan Etxea ustiatu eta balizko gaixoak zainduko dituena: "*se dio por entregado de los dichos bienes de sus declarados para los rregir y administra bien y lealmente; y para sustentar los languidos y enfermos del mal de san lazaro pobres al dicho ospital acudan, dixo que traya y traxo en dotaçion para la dicha y ospital los bienes segyentes: vente y tres ducados en dinero, los queles an de ser para maese Martin de Artano el moço, por el edifiçio que a echo en la dicha casa y ospital y rreparo; y mas veynte obejas e diez corderos e un rroçin castaño, con todo su aparejo, y dos puercas; y una cama conplida; y siete anegas de trigo, que a espendido en la dicha casa despues que bino a ella, y mas doze aneagas de trigo que tiene*

Ostatua emateko gaitasuna ere oso aldakorra da, ondoko taulan ikusten dugun moduan.

**OHE-KOPURUA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrasate –erre zena- | 2-3 | Azpeitia –Bustinarri- | 20 |
| Bergara | 20 | Aia | 20 |
| Elgeta | 11 | Orio | 19 |
| Eibar | 24 | Gatzaga | 8 |
| Soraluze | 16 | Orereta | 16 |
| Aizarna | 2 | Orereta –Madalena- | 12 |
| Berastegi | 4 | Zarautz | 20 |
| Hernani | 10 bat | Itsasondo | 6 |
| Irun –zaharra- | 14-15 bat | | |

---

*suyos al presente y quatro açadones e quatro escardaderos e un arado e quatro orrayas e una rreja de fierro e un taçurra e otra bostroça e dos pares de layas e çinco ozes de segar trigo; e una errada e una sylla e una caldera de fierro y otra de alanbre; y ciento e treze libras de toçino*". GAO: PT 51, 881.

Madalena baserri baten antzera alokatzen bada; Tolosako ospitalea, berriz, diruzain baten ardurapean kudeatzen da, udalbatza osoarekin batera urtero aldatzen dena. Elkano bere txostena burutzen den sasoi berean, Tolosako ospitalean honako baliabideak dira: "*... e dixieron que el año hultimo passado el dicho Martin Rruiz de Ayaldeburu por la justiçia y rregimiento de la dicha villa avia sido nombrado por mayordomo de la cassa y ospital de la dicha villa y de las rrentas y aver de ella, y que como tal mayordomo avia administrado y serbido el dicho ofiçio de mayordomo desde el dia que fue nombrado hasta el dia veynte y seis de octubre hultimo passado que como a mayordomo nombrado nuevamente por la justiçia y rregimiento de la dicha villa entrego y dio al dicho Domingo de Aztina las escripturas de çensso y otras cossas del aver de la dicha cassa y ospital que son las que se siguen: çinco sabanas o cortinas de cama; una sabana grande de mortuorio; siete manteles, los seis de ellos de los que se traen en la yglessia con sus barras grandes de algodon y el septimo de messa; una tunica de lienço con su açote y aparejos; doze cobertores de caveçales; unos manteles de messa; y doze servilletas, las dos de ellas de Flandes y las otras diez de lienço de la tierra; vara y terçia de brin; bara y media de caça; dos tobajas de lienço, la una con rredes y la otra sin ellas, ambas con sus fluicos; un rossario de azabache grande labrado; una sobremessa labrada de Portugal; dos sabanas de mortuorio echadas a color amarillo, la una con su tiença de seda negra y la otra colorada; dos fundas de caneçalles labrados con seda carmesí; dos sayas blancas biejas; una rropa de frailengo rrota; dos cozneos nuevos sin pluma y dos plumones nuebos sin pluma; dos cabeçales menos sin pluma; veynte platos de estaño entre mayores y menores; y çinco jarros de estaño, quatro grandes y uno pequeño; diez cocharas de fierro; honze assadores de fierro; mas dos jarros pequños de estaño llamados aguamaniles; tres calderas de cobre, las dos nuebas y la otra traida; un coberotro de fierro de olla; tres sartenes de fierro; tres herradas de traer agua con sus fierros; tres arcas de madera; tres sillas de madera; dos camas de la tierra cumplidas; y un cozneo traido; dos candiles pequeños de fierro nuebos; catorze camas de la tierra que se traen de hordinario; y dos plumones; y mas una cama bieja que se lleba de cassa de Azpiroz; y mas çiento y quinze rreales que se an por alcançe al dicho Ayaldeburu en las cuentas que a dado de la dicha mayordomia, con mas diez y ocho escripturas de çensso que al dicho Domingo de Aztina dio y entrego como por el libro de rregemiento de la dicha villa paresçia*". GAO: PT 91, 121 (1586-IV-30)

Ospitalean bertan bizi ez diren administratzaile edo diruzainek beren lana musu-truk egiteak asko merkatzen ditu gastuak, eta gainera ospitaleak ez ixteko ezaugarri lagungarria suerta daiteke. Elkanok ospitaletako kontuak zuzenak direla eta administradoreek beren mesederako dirua bideratzen ez dutela bermatzen dituzten kontu-liburuak eskatu eta ikuskatuko ditu eta horrelako kontrolik ez dagoen tokian, Asteasun adibidez, liburua sortuko du.

Finantziaketan, aldiz, ospitale bakoitzaren jatorriak izango du eragina. Irunen eta Oiartzunen, adibidez, bailarako errotek errenta bat ematen zuten; Aiakoak, ordea, Alzate, Sarri eta Goiburu baserriek zor zituzten errentak zituen; Tolosakoak Ferradategi baserriak Madalenari ordaintzen ziona eskuratu du; Perun zendu zen Joan Ibañez Garagarza indianoak emandakoak Azpeitiko Bustunarriko ospitalentzat dira; Urretxun ala Ordizian, udalbatzak urteko errenta bat egokitzen du; eta Asteasun jasotako eskupeko bati udalbatzak errenta bat gehitu dio; hainbat udalbatzek (Donostiak, Hernanik, Debako berriak, Elgetak, Eibarrek, Elgoibarrek...) diruzain edo arduradun bat izendatzen dute, hilburukoen edota eskupekoen bitartez herritarrek emandakoa jasotzeko; beste batzuetan, berriz, (Zumaian, Eibarren ere bai...) aterpetu diren pobreek edo hauen zaintza arduratzen diren serorek jasotzen dituzte eskupeko eta abarrekoak; Villabonan diru-sarrerak zera dira: "*limosnas de la buena gente*"; eta eskupekoak ere ditugu Gatzaga eta Leintz-Bailarakoen (Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aozaratzakoen) laguntza bakarra.

Arkitekturari ere garrantzia ematen zaio, abegikortasuna lortzeko ezinbesteko osagai moduan. Hain zuzen ere, ospitale-etxeak maila oneko ostatua eskaintzea bermatzen du delako *ospitalitateak*. Baldintza hauek, esate baterako, Donostiako ospitale-etxeko kokapenak betetzen ditu: "*por ser como es el dicho sitio sano, apazible, deshalado, sobre camino real por do pasa e anda el mayor concurso de los vezinos e moradores...por ser el hedificio del dicho ospital de gran anchor y largor*[148]. Dena den, Segura, Mutriku, Arrasate eta, batez ere, Bergarako ospitalea ditugu Elkanoren laudorio

---

[148] Irun: "*La casa es ancha y bien hedificada*"; Orereta: "*buena casa a la salida de la dicha villa, pegante a un rio grande*". Etxe ona, sendoa, handia eta harrizko hormak Azkotian; Urretxun oso eskura eta ongi kokatutako herriko sarreran; Eibarren, berriz, etxea ona izan arren, ez dago egokituta: "*edificio razonable pero no qual conbenga para la buena ospitalidad*".

bereziak jasotzen dituztenak, ospitaleek eta ospitalitate edo abegikortasunak arkitektura berezi bat behar dutela argi ta garbi adieraziz[149]. Beste eraikin batzuk, berriz, oso egoera kaskarrean daude, egurrezkoak direlako edo kokapen txarra dutelako[150].

Kudeaketan, finantzaketan edota arkitekturan batasun-zantzurik topatu ez arren, ospitale eta "abegikortasungintzarako" irizpide garbia agertzen dira. Azpeitiakoak, ziurrenik herriko jaun-andere batzuen atxikimenduari Inazio Deunaren plangintzaren eragina gehitu zaiolako, kudeaketa txarraren eredu, "ospitalitate" ezaren eredu, bilakatu direla ematen da aditzera. 1508an sortutako Bustinarrikoari buruz, adibidez, zera esaten da: "***La casa no es hedificada a modo de ospital, sino a la antigualla***"; "***es a la antigualla y no a forma de ospital*** *y que esa en agostura y no nada segregado sino conjunto a otras y que no se escussa de tornarlo a rehedificar como si antes casi nada estuviese hedificado*"; hortaz, udalbatzak etxea eta orubea saldu eta Jauribarren aldean berri bat eraikitzea proposatzen du, Arrasaten eraiki den baten eredua segituz![151].

Honen ondorioz, XVI. mendean Europan nagusitzen den oinarrizko idei bat, ospitaleak udalaren kontrolpean izatea, alegia, Gipuzkoan indarrean zegoela jada esan

---

[149] Bergara: Behar bada Gipuzkoako onena. "*de gran hedifficios y aposentos*"; etxea, abegikortasuna, zerbitzuak eta antolaketa ikaragarri onak.
Mutriku: "*Casa muy buena de muchos y buenos aposentos, y esta hecha a proposito para la ospitalidad y buen tratamiento e acogimiento de los pobres, con su capilla y altar en medio de la cassa muy decente*". Gehi baratza, frutaondoak, larajandokoak,...
Urrupainena Arrasaten: "*casa de buenos edifiçios hecho a proposito y para hefecto de ospitalidad*". Beheko solairuan; sukaldea eta gelak, emakume eta gizonezkoak bereiztuz; goiko solairuan, egongela, tximinia, gela gehiago; gela eta sukalde bereziak erlijio-gizon eta hiru ospitale-zaindarirentzat.
Segurakoa ondo eraikitako etxean, 5 aldare eta gela aunitzekoa, mahia haundi batekin bazkariak emateko

[150] Donostiako San Martingoa: "*...ospital de San Martin o San Lazaro...lugar sombrio, lobrego y malsano por la mucha humedad y aguas que...a el caen, y la casa donde se abian de acoger los pobres enfermos del mal de Sanct Lazaro caida y deshecha del todo*". Villabona, Hernani, Leintz, Arrasateko madalenarena, Elgoibarrekoak... etxe xume, zahar eta egurrezkoak. Elgoibarko Ubitartekoa: "*pequeña de tabla y madera vieja y de rruines aposentos, aunque ay algunas camas*".

[151] Zalantzarik gabe, lehen goraipatu den Urrupainena; Garibairen garaipen txiki bat, beraz.
Ubitarteko beste etxean Elgoibarren eraiki behar denak dauden guztiak ordezkatzeko ere, eraikuntza modernoa izan behar du: "*la otra casa de Ubitarte es cerca de la villa, e este es buen sitio para donde se pueda hazer buen ospital a la traça y en condiçiones*"; "*a traça y modo de ospital con aposentos apropiados para ello*".

dezakegu. Hiribilduek ospitaleak sortu egin dituzte, baita Etxe ala Ongile jakin bat –elizgizonak maiz[152]– bultzatutakoak bereganatu ere. Azken hauen artean, Donostiako San Martin auzokoa nabarmendu behar dugu. Izan ere, toki umel eta zokoratuan paratu eta zeharo jota egon arren, bere sortzaileen oinordekoek ospitale-zaindari bezala agertzen dira, hainbat errentaz jabetuz eta honek Donostiako udalbatzaren haserrea sortzen zuen. 1535. urtean, alegia, Migel Santiagok pobreentzako errentak ematen zituzten ospitaleko hainbat lur saldu egin zituen; udalbatzak honen inguruko ikerketa abian jartzerakoan, Santiago San Martingo elizan gotortu zen. Ondorioz, udalbatzak isuna ezarri eta erbesteratu egin zuen. Valladolideko Kantzilertzak, dena den, ospitaleko zaintza Santiago sendiari berretsi zion[153].

Antzeko eztabaida somatzen da Arrasaten ere, Perez Barrutiak sortu eta orain erreta dagoen ospitalearen inguruan. Udalbatzak Kalagorriko apezpikuarekin lehiatu behar izan zuen hemen, azken hau Ruiz Otalora ospitale-buru izendatzen saiatu baitzen. Auzia 1493-1547 bitartean luzatuko da, erregeak Arrasateren alde agertuz.

Hortaz, Gipuzkoako erakunde "zentralak", Batzar Nagusiak, inolako zuzenketarik ez agintzea guztiz da normala, eremu honetan bere eskumen eta ahalmena murritza baita. Ez da, oraindik, "errepubliken errepublika"ri dagokion arazoa, errepublika bakoitza jotzen duena baizik.

Guztira 68 bat ospitale aipatzen dira txostenean, nahiz eta aterperako irekita dauden guneak 63 izan[154], XV. mendearen bukaeran edota XVI. mendean zehar sortu berriak direnak bat baino gehiago izanik (Antzuolakoa 1489an; eta Arrasatekoak,

---

[152] Elizgizonen artean, besteak beste: Arrasate (errea): Pedro Perez Barrutia; Antzuola: Pero Lopez Gallastegi; Itsasondo: bertako bi apaiz; Ataun: Otsoa Aldaola; Lizartza: Domingo Ibarrondo; Berastegi: Martin Etxenagusia; Aia: Juan Agirre.
Gainera: Aizarna: Alzolaras Etxea; Igartza: Igartza Etxea; Azpeitia (desagertuta): Santxa Eizagirre eta Fernand Olaberrieta ama-semeak; Azpeitia (Bustinarri) Maria Lasao; Azpeitia (Barrenportal) Santxo Martinez Etxenagusia; Elgoibar (egin gabe): Joan Ibarra kapitaina; Deba: partikular bat. Sasiola: Juan Perez Balento. Eta abar.

[153] Zazaio sendiak sortutako ospitalea litzateke, XV. mendean zehar bere ardura bazuten eta.

[154] Hauetako 5, berriz, ez daude irekita: Errioxako artzapezpikua izandako Pedro Perez Barrutiak Arrasaten sortutakoa, 1581ean-edo erre zena; Elgoibarko Juan Ibarrak agindu duena, oraindik egin gabe; Santxa Eizagirre eta Fernand Olaberrietak Azpeitian sortu zutena, jada desagertuta; Getariko San Lazarokoa, itsasoak emana; eta Donostiako San Martin auzokoa, erorita.

Azpeitikoak, Oiartzungoa, Itsasondokoa,... XVI. mendean zehar; gehi Elgoibarren egitear dagoena, edota 1587an bertan, Albizturren irekiko dena).

Elkanok bere ondorioak txostenaren bukaeran eransten ditu, betiere hiribildu guztietako agintarien iritzia entzun eta errespetatu duela azpimarratuz. Ondorioz, 17 ospitale itxi behar direla esaten du:

- Donostian, Zazaio-Santiago familiak sortu duenak ematen dituen errentak hiriko ospitaleari eransteko agintzen du, azken hau handitzeko iradokizunarekin, legendunentzako badaezpadako tokia egiteko asmoz[155].

- Gaizkile, lapur eta moral arineko jendea hartu dituzten artean, Lezoko, Beasaingo (Igartzakoa), eta Itsasondoko ospitaleak ixteko agintzen du.

- Elgoibarren eta Deban ospitale bana utzi beharko da.

- Debako eskumenean baina hirigunetik kanpo daudenak, hots, Arroa, Itziar, Mendaro eta Sasiolakoa, desagertzeko eskatzen da. Izan ere, udalbatza pobreen alde saiatu arren, aipatutako ospitaleak gaizkileen aterpe dira: "*gente perdida y de mala vida que, en son de pobres, andan bagando, robando e haziendo otros ynsultos...ussando los tales mendigos de todo livertad, vicio y mala vida...amancebamiento, juego y escandalos*"; hirian dagoen berriena ere, orain dela hogei bat urte sortua, soberan omen dago, Mungia Lizona Doktorearen babespean ireki zena aski izanik.

- Elgoibarren ere antzeko arazoak daude. Lau gune daude martxan: arrabalean, Madalena ondokoa, Karkizano etxekoa den Arriagakoa eta Lastur etxekoa Altzolan. Arloteak, batez ere, Arriagakoan biltzen dira. Arrabalekoa kenduta, errentarik gabeko ospitaleak dira, Joan Ibarra kapitainak utzitako errentekin

---

[155] 1535ean Santiago sendia eta udalbatzaren arteko liskar bortitza sortu zuen ospitale hau, lehen ikusi bezala, fisikoki desagertuta baldin bazegoen ere, Santiago sendiak ospitaleko errentak berdin kudeatzen zituen.

batu eta Ubitarteko etxeetan bat irekitzeko agintzen da, aipatu bezala, ospitale moderno eta egokia sortuz.

- Azpeitian, baita ere, sistema berrantolatu behar da. Bustiniturriko ospitalean dauden laurak batu behar dira, eta berau era berrian eraiki behar da, Zestoarantz doan bidean. Gainera, pobreen artean banatzen diren 120 dukatak oso gaizki administratzen ari dira, auzoko txiroen artean banatzen badira ere, hauek agerian gelditzen baitira: "*habiendo sido la intençion de los fundadores y memoria se hiziese entre los pobres vergonçantes de la villa y su jurisdiçion sin nombrar ni descubrir ni declararlos, los señalan y nombran y estos ban a pedir su limosna a casa del distribuidor en la villa nombrando publicamente de manera que estos no son ny se puede llamar envergonzantes, y asi se abria de distribuyr esta renta entre gente que ha venido a menos e por verguenza no ossa pedir limosna*".

- Mutrikun eta Arrasaten ospitale bana uzteko agintzen du.

Baserrietan eskaintzen diren oheak ere ez direla baimendu behar gogoratzen du, txiroak diren aitzakiarekin arlote eta gaizkile aterpetzen baitira. Bestalde, ixteko baldintzak ematen direla iruditu arren, ospitale batzuk mantentzea erabakitzen da:

- Leintzeko hirurak, eskasak eta abegikortasun gutxikoak izan arren, mantendu behar direla dio, 17 elizaurre hauek beste aterperik ez dutelako.

- Itsasondon edo Igartzan bezala Ataunen gertatu arren, inguruko ospitale bakarra denez, gorde behar da; alkateak estuago hartu beharko du. Berdin Antzuolakoa.

Honekin batera, "*Santisimo Sacramento*" kofradia ez ezik, gainontzeko guztiak debekatu eta baselizetan zein elizetan bazkariak debekatzea eskatzen du, bertan sortzen diren borrokak, istiluak eta auziak saihesteko asmoz.

Hauetaz gain, ospitaleek dituzten ondasun higizinak saldu eta lortutako dirua berrikuntzetan inbertitu beharko lirateke. Dena den, hainbatetan hobekuntzaren nondik norakoak zehazten dira:

- Asteasun, esate baterako, etxea ona izanik ere, ez dago guztiz bukatuta; ohe berriak behar ditu, eta zera gehitu: "*al lado, en un salidizo que tiene, se le haga un servicio para que los pobres dispongan de sus personas*".

- Aia eta Getarikoek moldaketak behar dituzte. Lehengoan konponketa batzuk egin berriak izanda ere, pobreekiko arreta hobetu behar da eta bertan ostatua duten emakumezkoen egoera argitu; bigarrenean, eraikina gaizki dago, nahiz eta ospitale moderno bat egokitzeko errenta aski izan: "*combiene que se hagan algunos traçados en forma de ospital porque tiene con que se puedan haser*." Hernanikoa ere berritze lanaren premian dago, gelarik ez baitago eta etxea oso kaxkarra delako. Gatzakoak ere erreformak beharko lituzke; zerekin ordaindu, ordea, ez dago.

- Soraluze, Zarautz,... moldaketa txiki bat behar dute: emakumezkoak eta gizonezkoak ondo bereizteko.

- Eibar eta Azkoitian, aldiz, ospitalea ez ezik, bestelako erabilerak ematen dira bertan. Azkoitian, adibidez, Batzar Nagusiek ospitaleko etxean dute egoitza. Eibarkoaren goiko solairuan udalbatza biltzen da. Udal-bilerak ondoko etxean egitea eta ospitalezainaren soldata pobreei bideratzea agintzen da.

Ondorioz, Elkanok murrizketa agintzeko ematen duen arrazoirik nagusiena ospitale batek bere lana, "*hospitalidad*" delakoa, alegia, ez betetzea da, dela sortzailaren nahia errespetatzen ez delako, dela pobreak ez ezik lapur eta gaizkileak bertan aterpetzen direlako. Hortaz, itxi behar diren ospitaleak alkateak kontrolatu ezin dituen hirigunetik at daudenak, alkate-epailearen agintearen urrun eta ikuskatzeko aukera gutxikoak, ditugu.

Laburbilduz: Ospitale batek gasturik ematen ez badu, eta urrun egon arren alkatearen kontrolpean baldin badago, ez dago ixteko arrazoirik. Arrazoi hauek, errenta-eza, eraikinaren egoera kaskarra, edo istiluak zein pobreak ez diren gaizkile aterpetzea dira. Egoera kaskarrean daudenak baina berezko errentak dituztenak, berriz, moldatu eta berritu egin behar dira. Ospitalea Ongile ala Etxe bateko sorkuntza izateak eman ditzakeen arazoak, bestalde, zeharo gaindituta daudela ematen du, Arrasate edota Donostiako aferek erakutsi bezala. Azpeitia litzateke, nonbait, eredu hau guztiz gainditu ez duen tokia; Loiolakoaren eraginez ote?.

Hau guztia laguntzarako ereduaren erreformaren barruan sar genezake. Alta, zigorraren eraikina iragartzen duen egoeraren berri agertzen da txosten honetan ere. Izan ere, pobreen moduan dabiltzan arlote eta gaizkileak (*"bellacos"*) Probintziatik kanporatu behar direla uste du, benetako pobreentzako laguntzaren kontura ezkondu gabeko gizon-emakumeak nahastuta, jokoan eta espioi lanetan dabiltzalako[156]. Hala dio: *"**me pareçe que se deben mandar quitar e que no aya ospitales en caminos y otros lugares dondo no ay justiçia y poblaçion ni tampoco aya camas para pobres en caserias apartadas de los pueblos, porque en esos se acoje, so color de pobres y romeros, muchos e diversos vagabundos y bellacos disfraçados, donde no se les puede pedir ni piden cuentas ni ser visitados ni castigados y hazen a su livertad muchos atrebimientos y males, y sin que aya los tales ospitales y camas los ay quasi en todos los pueblos en muy poca distançia de unos a otros.** Otro si me pareçe que se debia mandar vender todos los bienes raizes de todos los ospitales en almoneda publica y su preçio y proçedido ponerlo en rentas para las cosas neçesaria de los tales ospitales, como se ha hecho en muchos por mandamiento y horden del* [concejo?: ROTO] *conveniencia de desterrar vagabundos y bellacos que se hacen pasar de pueblo en pueblo por pobres* [peregrinos?: ROTO] *castellanos, catalanes, aragoneses, nabarros, alaveses, vizcainos, franceses y tambien algunos naturales, los quales por una parte comen el sustento de los pobres verdaderos...ser espias e porque ussan de muchos viçios de juegos, amancebamientos y otros..."*

---

[156] Korrejidoreak ere iritzi berekoa dugu. Izan ere, 1588an, Ordizian izandako Batzarretan eskaletasunarekin bukatzeko bere burua eskaini zuen. Ospitaleak erabiltzeko alkateen baimena edukitzea eta galera zigorrak ezartzea proposatu zituen, besteak beste. GAO: JD IM 4 10 10.

Azkenik, Probintziako gune bakar bat sortzea aipatu ere egiten ez dela azpimarratu behar da. Bide hori pobreekiko abegikortasna bermatzeko gauzatzat ez omen da jotzen; izan ere, zigorraren aldeko jarrerak agertzen diren arren –eta gizakiak pobreziara bultzatzen dituzten baldintzak zuzendu ezean zigorra/errukia txanpon bereko bi aldeak direla guk uste arren– laguntza merezi duten pobreen gutxieneko bizi-baldintzak bermatu behar direla ez da inoiz zalantzan jartzen.

Horren lekuko, Martin Elkanori berari 1593an eskatzen zaion bigarren txostena dugu.

*2.2.2 1593ko txostena: San Anton eta San Lazaro.*

Zazpi urte lehenago gertatu bezala, txosten hau ez da Gipuzkoaren ekimena. Oraingo honetan, gainera, ez du ospitaleen kopurua murriztea edo antzeko asmorik. Gaztelako erregeak berak egiten duen galdera dugu ikerketa hau, Lorenzo eta Anton santuen zalea den eta pobreen egoeraz biziki kezkatua dagoen erregearena: "*Y por la mucha deboçion que tengo a señor San Lazaro y Sant Anton y deseo que sus pobres sean bien tratados y mantenidos, os mando que en rrecebiendo esta mi çedula os entereys de todo lo sobredicho*". 1586-87ko inkestaren jatorria erresuma osorako ekintzen barruan sartzen baldin bazen, oraingo hau Gipuzkoako korrejidoreari zuzen-zuzenean egindako eskaera dugu eta erregeak galdetegia guztiz zehazten du[157].

Korrejidorea oso lanpetuta dagoenez –berak esana–, lana Martin Elkanori egokitzen dio, bere eskarmentua gogora ekarriz[158]. Honek agindutako galdetegia banatu, herriko artxiboak kontsultatu, ospitaleak bisitatu eta ospitale-liburuak ikuskatu egingo du, beste behin ere. Aldiz, Madalenak dituzten herriak baino ez ditu aintzat hartuko oraingo honetan: Azpeitia, Getaria, Mutriku, Elgoibar, Arrasate, Segura, Tolosa, Oiartzun, Orereta eta Donostia baino ez[159].

---

[157] "*...al serviçio de dios y nuestro conbiene saber y entender las casas que ay de las hordenes de San Lazaro y San Anton en vuestra jurisdizion y distrito y el estado en que agora estan, que hazienda, heredades, tierras, limosnas y rrenta tienen, en que consiste como se gasta, que numero de pobres ay y se curan aora en cada una de ellas y los que de hordinario suele haber, como son tratados, que caridad abrigo e rrecogimiento se les haze, que ordenanças y rreglas traian, quien visita las dichas casas y por que derecho, causa o rrazon, y que tienpo ha que esto se hizo, que personas y ofiçiales ay en ellas, quien los probeyo, que salario lleban y en que se ocupan cada uno. Y por la mucha deboçion que tengo a señor San Lazaro y Sant Anton y deseo que sus pobres sean bien tratados y mantenidos, os mando que en rrecebiendo esta mi çedula os entereys de todo lo sobredicho, muy particular y puntualmente, como de bos lo confio, haziendo para conprobaçion y verificaçion de ellos las averigoaçiones y deligençias que conbenga y os pareçiere ser necesasarias, rrecebiendo ynformaçion de personas antiguas y platicas, y rreconoçiendo qualesquier archibos de escrituras donde entendieredes ay qualesquier papeles, prebision, bulas y letras apostolicas tocantes a lo sobredicho...*". GAO: JD IM 1 21 6. Erregeak 1692ko urriaren 19an emandako agindua.

[158] Martin Elkano XVI. mendeko bukaerako Gipuzkoako politikan oso gizon esagunratsua dugu; besteak beste, eta lan hauetaz gain, Probintziako artxiboa ordenatzea edota Probintziaren eskubide eta tituluen berri jasotzea egokitu zitzaion.

[159] Funtsean, 1586-87ko txostenarekin Madalena gisa agertzen ziren berberak dira; Irungoa da aurreneko zerrendan azalduta orain aipatzen ez dena.

Negua pasata, martxoaren 5 eta 27 bitartean hamar herri hauei buruz biltzen duen informazioa lehenengo txostenean jasotakoa baino askoz zehatzagoa da. Probintzian San Antonen babespean inolako ospitalerik ez dagoela, eta herri horietan legendunentzako aterpeak direla –edo izan direla[160]– ziurtatzen du. Hortaz, ez du inolako ondoriorik ematen, ez baitzaio hori eskatu, eta bere lanaren emaitza guztiz deskriptiboa bilakatuko da.

Ospitale hauen jatorria gaixoen zaintza izan bazen arren, XVI. mendearen bukaeran, oro har, herriko lagun pobretuak baino ez dira azaltzen madalenetan. Lagun hauei buruz errukiz eta errespetu osoz, berriro ere, mintzatzen da, udalbatza guztiek behar den abegikortasuna eta zaintza ematen dietela azpimarratuz, eta ospitale hauei egokitutako errentak modu onean, eta betiere kontrolpean, gastatzen direla bermatuz. Horrela, pobreak eta gaixoak subjektu pasiboak dira, beren nagusien errukia eta laguntza jasotzen dutenak, adin gutxiko pertsonak balira bezala; ikus bestela:

- Oreretan: "*En una parte de la casa se rrijen los dichos enfermos, y en otra tiene su bibienda una serora o freira que como mayoral de la dicha cassa tiene quenta de los servir y tambien la dicha hermita, que lo hace con mucha voluntad y charidad. Tiene la dicha cassa sus lagares en lo alto, bodega en lo baxo, con algunas cubas para envasar sidra*"; "*son mantenidos con mucha caridad, cuenta y cuidado que de ello ha tenido y tiene el rregimiento de la dicha villa*"
- Seguran: "*sustentar también a vecinos naturales...que aviendo sido azendados viniesen a no lo ser y a padecer necesidad*". "*Los vienes que tiene ha acquirido de haver ydo a la dicha cassa algunos vezinos con lo que tenian y poseyan a pasar su vida y morir en ella, aplicandolos para ella e de haber despues vendido muchos de ellos.. se gasta en sustentar lo enfermos que ay en la dicha casa como han sido los tocados del mal de sanct Lazaro y otros que ay de hordinario en la dicha cassa en buen numero, a los quales se da su comida y cena con su buen hordinario de pan cecina y tocino y sidra y tambien algunos dias carne fresca y a los enfermos carnero, caldo y los demas regalos que el*

[160] Getaria eta Donostikoak txikituta daude, lehen ikusi bezala. Tolosakoa maiztertzan emana. Azpeitikoan aspaldiko partez ez dago gaixorik ez eta pobrerik ere eta serora bat bizi da bertan ermita zaintzen.

*medico hordena; y los curan con todo cuidado y charidad teniendo quenta y cuydado particular de ello el regimiento, y de les traer siempre que conbenga medico y çirujano y lo demas necesario. Y en dar al capellan que dize tres misas en cada semana por ellos sesenta reales, por su estipendio...Y demas dellos se haze y da de vestir y calçar a los que asi se sustentan en el dicho ospital de los dichos vienes y su rrenta. La qual no vastando para lo susodicho suple lo que falta algunas vezes la limosna de las buenas gentes de la dicha villa...muchas camas y otras cosas neçesarias para el serviçio de los pobres que biben y se mantienen en ella."*

- Mutrikun: *"suele acoger en la dicha cassa algunos naturales de la propia villa y jurisdicion envergonçantes que vienen a estrema neçesidad y con ellos se gasta los frutos que los dichos vienes traen y lo que se recoge de limosna para la dicha hermita".* Hau aski ez denez, pobreek eskupekoak jasotzen ibiltzeko baimena dute.
- Oiartzunen: "*con mucha caridad en quanto la sustançia de la limosna que se coge lo permite"; "siempre que se admite alguno para la dicha casa y ospital, por la forma dicha, lo llevan al dicho ospital la clerezia del y el regimiento y otros vezinos que se guntan en forma de procesion con cruz y cantando canticos y salmos con mucha debocion*".
- Elgoibarren: "*Casa vieja, cuyos altos son para la bibienda de la freira...de la hermita y su criada. Y en lo baxo esta otra muger que tiene quenta y ha tenido de los enfermos..."; "...sirvienta del dicho hospital y de los pobres de sant lazaro que ha habido en ella, aunque dixo que al presente no habia...sino una pobre muger natural de la dicha villa que se mantiene en el dicho ospital con lo que de sus manos trabaja y limosna de los vezinos de ella e que ella mesma hazia lo mismo, e asi se habian susstentado los del dicho mal de sant lazaro, porque cada sabado se pidia y pide limosna para ello en la villa*".

Herri askotan ostatu hartu dutenak legendunak direla esaten bada ere, Elkanok berak gaixotasun hau dutenak oso urriak direla baieztatzen du; ondoko taulan jasotzen den moduan, Elkanok bere bisitatan ikusi zituen ospitaleetako behin-betiko biztanle gehienak edadekoak emakumeak dira. Guztira, sei Madalenetan aterpe hartu duten lagunak 29 dira. Hauetako 19 emakumezkoak dira, 8 gizonezkoak, gehi gazte eta umezurtz bana. 29 horietatik 7 omen dira legendunak, Seguran eta Oiartzunen kokaturik.

| Herria | Pobreak | Legendunak |
|---|---|---|
| Mutriku | 3 emakumezko | |
| Elgoibar | 2 emakumezko (bata serora da) | |
| Arrasate | 2 emakumezko[161], umezurtz 1 | |
| Segura | 8 emakumezko, 5 gizonezko | gizonezko 1, emakumezko 1 |
| Oiartzun | | 2 gizonezko, 3 emakumezko |
| Orereta | Gizon edadeko eta gaixo bat; beste bat gazteago: "*Tullido de çintura abaxo e puesto en una carreta delante la dicha cassa*" | |

Udalbatzaren kontrola, berriro diogu, erabatekoa da; Apezpikuaren bisitan jaso arren –Tolosan, eta beharbada Mutrikun, ezta hori ere–, ospitale hauek ez daude inolako ordenu-erlijiosoen menpe edo zaintzapean. Sinesmen kristauaren eta udal-boterearen batasunaren eredu, Oiartzungo ospitalea dugu. Elkanok oso berri zehatza hartzen du herri honetan. Izan ere, hogeita hamar urte eskasekoa da.

Ospitalea kokatzeko, elizarena den etxe bat, auzokoena beraz, aukeratzen da, Elizaldeko enparantzan dagoen etxe zabal eta on bat, ohe eta gainontzeko zerbitzuekin (kapera, baratza) hornituta. Ospitale honen jaiotza Oiartzunek Baionako Apezpikutzari 1560-61 bitartean egindako eskaera dugu. Arrazoi nagusi bi: oiartzuarren arima salbatzea eta merezi duten laguntza pobreei ematea[162].

---

[161] Hala dio Elkanok bisita gauzatu ondoren; bere informatzaileek gizonezko bat zegoela dioten arren.

[162] Udal artxiboan dauden eta Elkanok latinetik itzularazi egin dituen bi pergaminozko agirien arabera: "*por parte de los nobles varones vezinos y moradores del valle y pueblo de Oyarçun se nos ha sido porpuesto* [Bainoako apezpikuari] *que ellos imflamados del zelo de devoçion, deseando renovar y acrescentar y comutar los bienes pereçederos fragiles en perpetuos y estables y los temporales en espirituales, y los terrenos en celestiales y los transitorios en eternos y permanentes con feliçe comerçio para que mediante esta obra y otras tales merezcan ser participantes del reino de los cielos y escaparse de la yra del altissimo y poderosisimo dios a quien no ay resistencia, y para que se puedan tambien augmentar o mejorar los cultos divinos...y los pobres puedan ser sustentados y alimentados en reconoscimiento de los infinitos beneficios y dones de dios resçevidos por no mostrarse ingratos y desagradesçidos siendo tantos y tan cresçidos y en remision de sus pecados y de los de sus anteçesores y bienhechores que de su linage y estirpe descendieron y proçedieron, desçenderan y proçederan agora y siempre jamas hasta el fin del mundo y por el descanso de los difuntos y rremedio de sus almas deseaban y tenian propuesto y determinado fundar y edificar una capilla o basilica mediante nuestra liçencia y facultad en el dicho lugar de Oiarçun, con su templo y morada sin perjuicio alguno de la yglesia*

Eskaeran kutsu kristau tradizionala aurkitzen badugu, kudeaketan, berriz, XVI. mendeko ideia europarrak azaltzen dira, gurean jada ematen zirenak: "*para el remedio, socorro y amparo de los pobres*", den-dena udalbatzaren kontrolpean gelditzen da.

Beraz, nahiz eta 1587an Elkanok emandako aholkuak Donostian, Getarian edota Azpeitian gauzatu, ospitaleak irekitzeko argudioek indarrean diraute XVI. mendeko Gipuzkoan. Usadio zaharrek eta ideia berriek, biek bere tokia dute gizarte honetan. Loiolak eta Garibaik erakutsi bezala, gizarte-kidegoa sendatzea tokiko nagusien arduren artean egon arren, ekimen pertsonal hauek ia erabat udalbatzaren menpean daudela esan dezakegu. Eta alderantziz ere, karitatea eta laguntza –errukia– erreformatzeko garaian gaudela ezin da ukatu, baina hauek gauzatu ahal izateko erabiltzen diren moldeak ez dira oso berritzaileak. Probintziaren esku baino, ekimen pertsonaletan oinarritzen dira maiz, bai tokiko nagusietan, herriko jauntxoak edota udalbatzak direla, bai eta kanpokoetan ere, korrejidoreak edota erregeak direla.

Hau dela-eta, erreformak eta laguntza-jarduerek tokiko maila gainditu eta eremutzat Probintzia osoa noiz hartzen duten ikertzea bide berrien arrakasta eta bilakaera neurtzeko puntu egokia izan daitekeela uste dugu.

---

*parrochial...de modo que en ella se pudiese celebrar el offiçio divino y los pobres que alla acudieren puedan ser albergados y sustentados mediante las limosnas de los fieles christianos..."*

**2. 3. Errukia Berritua.**

XVI. mendean Gipuzkoako biztanleek pobreziari buruzko ikuspuntuan, kristautasunean eta talde-elkartasunean oinarritutako ikuspegia dugu nagusi: pobretu direnekiko errukia eta laguntza; eskupekoak eta abegikortasuna. Txiroak auzotarren babesa dute, ez dira taldetik egotziak edo baztertuak. Hau da, komunitate batek bere burua eta bere partaideak babesteko indarrean jarritako gizarteratze neurriak dira, baztertzeari aurrea hartze aldera. Gurean, ekimenaren eremua udalerriari dagokio, oinarria ekimen pertsonalean dagoen arren.

Bibliografiaren berri ematean ikusi dugun bezala, baina, jarrera honetan berrikuntzak antzeman daitezke, Europa osoan zeharkatzen duen ildotik. Izan ere, eskupekoak eta abegikortasuna bermatzeko bide eraginkorrak lortzeari (dirua biltzeko eta banatzeko; erosotasuna eta zerbitzuak eskaintzeko) gero eta arreta handiagoa jarri zitzaiola ikusi dugu jada. Eta erreforma horiek Gipuzkoan nola txertatzen ziren ikusi dugu ere bai.

Errukia eta laguntza unibertsalak baino merezi ez dutenentzat direla dugu lehentasun berri hauetan gorpuzten den ideia giltzarria. Gaixotu, pobretu edota *etxegabetuak*, bai, baina bizitza auzokoen artean eta auzokoen arautegiaren barruan eraman dutenentzat nagusiki.

Halere, baldintzak betetzen ez dituztenekiko jarrera zehazteko garaian ez da saio teoriko trinko eta sakonik jorratzen. Kriminalentzako zigorrak daude, heriotza-zigorra ere bai, eta, hainbat adibidetan aipatu bezala, baldintzak betetzen ez dituztenak taldetik kanporatzen dira. Zalantzarik gabe. Baina pobreziaren babespean zigortzeko ekimenak aipamen orokorrean gelditzen dira, gehienbat. Gertatu arren, gogortasunez gertatu ere, krimena edo alferra bere izaera hutsetik zigortzea ez da gako nagusiena. Gorago jaso dugun bezala, txostenak eta ikerketak ez dira eginak zigorra zorrozteko; ez dute halako helbururik. Horrela izango dela suma daiteke diskurtsoetan; etorkizuneko ideiak erein direla iragarri da, baina ez dirudi oraindik justiziaren balantzan pisu gehien duen aldea zigorrarena denik.

*2.3.1 Eskupeko baldintzatuak.*

Honen erakusle, esate baterako, eskale moduan aritzeko baimena zuenari tutore bat egokitzea dugu, jarduera honen zilegitasuna bermatzen eta, ondorioz, saria jasotzeko bidea ematen duen pertsona, alegia. Laguntzaile honen bidez, tokiko agintariek atez ate ibiltzea bideratzen die eskaleei, hobeto kontrolatuz eta eskupekoak jasotzen dutela ziurtatuz. Azken finean, eskaleek duten ogibidea, jakina, eskatzea da, bai bideetan baita herrietan ere[163].

Prozedura honetan ez dago arazorik, dena araututa baitago; ordea, horri zintzoki eta lasai eusteak zail xamarra dela ematen du, batez ere gudetan trebatu eta kale gorrian bizitzen ohitu direnenentzat.

Zigorra, jakina, portaera zehatzen gainean ezartzen da, portaera okerrak erakutsi eta elkarbizitzaren baldintzak errespetatzen ez dituztenen gainean. Portaera hauek bidetik ez direla ateratzen bermatzerakoan, herriko jendea topatzen dugu lehen-lehenik. Komunitatearen esku dagoen kontrolerako ardura da.

Gure ustetan, Urkamendiaren plangintzaren lehendabiziko helburuak Gipuzkoa-Etxekoak ez direnen artean azalduko dira; etxe, nagusi edota lanik ezean, gizarteratzeko biderik ez dutenen artean. Kanpotar hauek gure gizarteko bazterretan kokatzen dituzten baldintzak bilatzeko tenorean, abagune zehatzetan miatu beharko genuke, guda bezalako gertakizunetan, hain zuzen ere.

XVII. mendean Europan bizi duen gerra-giroa bortitza da oso. Hogei eta hamar urtetako gerrateak, Erlijio-gudak, Italiako gatazkak, Frantzia eta Gaztelako koroen arteko guda bukaezinak, Portugaleko independentzia,... mertzenario bezala ogibidea topatzeko nahi beste aukera jende xumearentzat. Baita alderantziz ere, armadan, ejerzitoan edota galeretan bortxaz aritzea oso zigor arrunta da-eta, esku-lan merkea hornitzen duena.

---

[163] Eskatzeko behar den baimena, bestalde, Batzar Nagusiak berak eman dezake, baita herrietako agintariek ere.

Bestalde, gerraren ondorioek ejerzitoan aritu direnen bizitza baldintzatuko dute. Heriotzaz gain, zauri larriak pairatzeak edota etxera bueltatzeko ezindua gelditzeak eskaletasunaren eta arloteriaren bideetan botata geratzeko aukerak biderkatuko dituzte.

Esandakoa begi bistakoa bada ere, eta guda egoera ekonomikoarekin lotzen dituen harreman argi eta estuak alboan utzita, egoera gatazkatsu honek Gipuzkoari ea nolabaiteko eragina sufriarazi zion ez dago behar bezala argituta. Izan ere, ugari dira gure lurraldean eskean topatzen ditugun soldadu ohiak, bereziki atzerritarrak. Hortaz, atzerritar armadun eta gerra pairatutako kopuru zehaztugabe honek zer-nolako elkarbizitza arazoak sortu zituen eta, era berean, egoera horretan zeudenei zer-nolako irtenbideak proposatzen/ezartzen zitzaizkien ikertu behar da.

Bada, Donostian topatzen dugu galdera honi erantzun dion aplikazio praktiko bat, arestian aipatu dugun "ospitaleetatik kanpoko laguntza"rekin lotuta: eskupekoak jasotzen dituzten pobrez jantzitako soldadu ohiak eta bere laguntzaileak, alegia.

Lehenik eta behin, soldadu ohiak arloterian eta eskaletasunean nola murgiltzen diren, nolako bizimodua egiten duten eta laguntza/zigorraren arteko muga meheak nola igarotzen dituzten jakin behar dugu. Horretarako, soldadu izandako hauek Gipuzkoako korrejimenduan utzi dituzten aztarnak ditugu[164]. Beraz, auzi judizialak dira gizaseme hauek inguruan sortu diren kezka, beldur edota elkartasunaz jabetzeko ditugun bideak.

Etxe/nagusi/lanik gabeak izan arren, haien jokabidea molde zuzen bati atxikitzen den bitartean soldadu ohiak eskale onartuen taldean sartu beharko genituzke. Izan ere, aurreratu dugun bezala, Donostian laguntzaileak jartzen zaizkie,

---

[164] Nabariak dira 1657koak, hau da, Korrejidoreak bere eskaera luzatzen duen urte berekoak: GAO: CO CRI 42, 5; 45, 3.

eskupekoak jasotzeko bitartekaritza eta bermea diren laguntzaileak, hain zuzen ere[165]. Orduan, nola da posible kriminalak bezala auziperatuak izatea?

Laguntzaren eta zigorraren arteko muga mehe horiek nola igarotzen diren ikusteko, Jose De los Oros izeneko mutilaren aurkako auzia hartu dugu, muga-pasabide hori argi erakusteaz gain soldadu-eskaleen bizimoduaren ingurukoa ederki marrazten baitu[166]. Era berean, auzi honek atzerriko soldaduak eta bere arazoak Gipuzkoan aski ezagunak direla, eta nolabaiteko babesa bermatzen zaiela berresten du[167].

Auzi honetan Korrejidoreak berak agindu du atxiloketa, De los Orosek taberna batean izan duen sesioaren ondorioz. Alabaina, auzia abiatzeko lehendabiziko urratsak herritarrek emanak ditugu: jende xumea da, hain zuzen ere, De los Orosen izaera eta joan-etorriak mehatxagarritzat hartu eta salatzen dituena: tabernariak, tabernako inguruan eskaleak ikusi dutenak,... hauek dira eskaleek onartuak izateko baldintzak betetzen duten ala ez lehen juzkatzen dutenak. Salaketa honek autodefentsako kutsua hartzen du, herritar arruntek lapurreta edota zauri larri bat bezalako gertaerei ezingo liekete-eta aurre egin miserian murgilduta geratu gabe. Haiek dira, bada, kanpoko erasorik gabe aski egongaitza den bizimodua zapuztear dagoela ohartzen diren lehenak.

Hau dela-eta, De los Orosen sesioak ez duela tabernariarekin edo herritarrekin zerikusi zuzena izan jakiteak ez gaitu harrituko. Horiek guztiak beldurtu diren arren, –sastakai bat atera, ordaindu duen txakolina edan ez, edota keinu arraroak egin

---

[165] GAO: CO CRI 56,2.

[166] Auziaren interesa ingurua gorpuzteko duen gaitasunean datza, gure ustetan anekdota hutsa baino zabalagoa dena. Dena den, biografiako datuak ere interesgarritzat jotzen ditugu, giza-talde honetako profil orokorrarekin bat etortzen direlako. Salamancako herri batean (La Albercan) jaioa, igeltsero lanetan herritik kanpo ibilia da, Madrilen gehienbat, ejerzitoan sartu arte, 1657an, Yelbes-eko gatazkaren ondoren. Dena den, Pedro Vielmaren tertzioetan parte hartzeari uko egin zionez, bere soldadu-plaka ezabatu diote. Ondorioz, Penintsulara bueltatu eta berriro bere lanari ekin dio, Montserraten; handik, Bianatik Gasteiz eta Bilboraino iritsi da eta aurreztutakoa bukatutakoan, eskatzeari ekin dio. Bilbotik Donostiara abiatu da, kostatik, armadan izena emateko asmoz.

[167] Besteak beste, auziperatuaren fidagarritasuna neurtzeko erabiltzen den bidea ea ejerzitoan dauden Gipuzkoako semeak ezagutzen dituen galdetzea da.

dituelako "*volvio el rostro haciendo algunos ademanes con las manos*"– kalapita beste eskale batekin izan du.

Pelegrin itxura izan arren, bigarren eskale hau ere soldadu ohia dugu[168]. Bien artean mesfidantza da nagusi, Donostiarako bidean elkarrekin topatu baitira lehen. Biei ere, eskupekoak eskatzeko hainbat laguntzaile egokitu zaie: De los Orosi soldadu bat; beste lagunari, bi jaun. Hau da, alegia, De los Orosen haserrea piztu duena, ez baitu onartzen pelegrin batek berak baino laguntza hobea izatea. Ejerzitoan izandako graduazioaren arabera izan behar du laguntzak eta orduantxe areagotu da eztabaida, hain zuzen, norberaren merituak aldarrikatzean[169].

Ondorioz, jokabide arriskutsu eta neurrigabe hau da, azken batean, laguntza-sare honetatik at gelditzea ekartzen duena; De los Orosi dagokionez: hamar urtetako desterrua; hau bete ezean, lau urtez bidaliko dute Afrikako presondegietara.

Era berean, eskaleek laguntza jasotzeko betebehar diren ezaugarri, meritu eta hierarkiak oso ondo ezagutzen eta barneratzen dutela erakusten dute, hauek bereganatzeko lehia gordina dagoela adieraziz.

Soldadu ohien aferan eskaletasunaren nolabaiteko onarpenaren aurrean egon arren, jarrera hau ez da eskaleen arazoak sortzen duen erantzun bakarra, noski. Gai honen inguruan ere oso bestelako neurriak topatzen ditugu, herrialde osorako lege orokor kutsua hartzen dituztenak, agintariak –eta, ikusi bezala, jende xumeak ere– ez baitaude prest eskaletasunaren zama hau etengabe pairatzeko.

Ospitaleei buruzko txostenen garapenak berak, gure ustetan, egoera biziki aldatu dela ohartarazten digu. Izan ere, afera honen inguruan osatzen diren berriek 1587 eta 1593koarekin zerikusi gutxi dutela pentsatzen dugu.

---

[168] Francisco Mazot valentziarra.

[169] De los Orosi entzun omen zaion mehatxu --"*en la parte y puesto que le topase le avia de quitar la vida y el coraçon y avia de beberle su sangre*"- eta irainak –"*portuges renegado y embustero*"- ez dira nolanahikoak. Mazot-ek, bestalde, gezurti eta "*picaro*" deitu dio.

### 2.3.2 *Ospitaleen mugak.*

Nahiz eta Elkanok egindako txostenen berri ez izan, ospitaleetatik iristen zaizkigun berriak XVI. mendean bizi zen lasaitasun eta gozotasun egoerarekin zerikusi gutxi dute. Aldiz, komunitatearen abegikortasunaren helburua betetzeko izugarrizko zailtasunak baino ez dira agertzen albiste hauetan. XVI. mendean Gipuzkoan baliogarriak ziren ostatu-guneak zeharo gaindituta daudela ematen du. Garai horretan toki hauek egokitzeko orduan marraztu ziren erreformak azalezko ukituak baino ez zirela izan berresten dugu eta beren balizko eraginkortasuna oso mugatua izan zen denboran.

Adierazpen hauek abstraktoak ez direla ilustratzeko, ospitale pribatu horietako baten egoera ezagutzea eredugarria izan daitekeela uste dugu, Igartzakoarena, alegia[170]. 1605. urtean ospitale honetako ostalariaren portaera salatzen da, Beasainen inguruan antzeman diren kanpotar eta arloteen artean zaindariaren alabarekin oheratzen den gizona eta bere lagunak daude-eta. Ospitalezainari pobreak uxatu eta gaizkileak zein ezkondu gabeko bikoteak aterpetzea leporatzen zaio, jokoetan, errietan eta zalapartan jarduten dutenak, hain zuzen ere[171].

Ostalariak, Maria Bidaniak, bestelako ikuspuntua du. Bera ere eskale moduan ibilia, ospitaleko ardura Franzisko Idiakezengandik, Igartzako jaunarengandik, hartu du[172] eta ezkontzeko beharrezkoak dituzten agiri eta baimenak bildu artean, alabak eta honen senargaiak ere Idiakezen baimena dute[173].

Beraz, udalbatzaren gainetik, oraindik, Igartzako Jaunaren laguntza eta karitatea emateko gogoa eta borondatea aurkitzen dugu, bere eskuzabaltasun-eredu

[170] GAO: CO CRI 13, 5.

[171] "*en las camas adonde se havian de acoger los pobres mendigos verdaderos, y la dicha Maria ospitalera no los queria acoger a los tales pobres verdaderos, sino a vellacos, merçeros y bagamundos, los quales hacian en el dicho ospital y otras casas muchos exçessos de juegos, causando muchos rruydos y escandalos de suerte que las gentes se maravillan de ello*".

[172] "*a pedir limosna por amor de dios y solia acudir al ospital de Yarça adonde al pressente suele servir por ospitalera por mandado de Don Francisco de Ydiaquez*".

[173] Gainera, alabak Astigarretako bikarioaren neskamea da.

propioa nabarmen lehenesten duena. Ospitalea lurralde mugatua da udalbatzarako, eta, gainera, udalbatzaren beraren ikuspuntutik babes-etxearen molde okerra.

Gipuzkoako ospitaleen ezintasunaren zantzuren artean, Gipuzkoako Etxearen laguntza-sarea gainezka dagoela adierazten dutenen artean, 1649an Iruñeko Apezpikutzak igorritako zerrenda dugu. Bertan, 1632 eta 1649 bitartean Lurralde honetatik atera eta Iruñeko ospitalera jo dutenak azaltzen zaizkigu, izen-abizen, jatorrizko herri, eta sartze-data zehaztuz[174].

Tamalez, zerrenda honek ez du gaixo hauek pairatzen dutenen gaitzaren berririk ematen. Iruñea edota Zaragozako ospitaleek eroak eta gaixotasun psikikoak jota daudenak hartzen badituzte ere, gure ustez herriko ospitaleetan lehen aterpetzen ziren pobre eta zahar asko zerrenda honetako 120 partaideren artean ditugu orain. Zerrendan, esate baterako, badira bederatzi bat izen errepikatzen direnak, hots, beste noranahi joan ezean ospitaletik atera eta itzuli beharrean daudenak; gehienak 1645ko neguaren eta 1646ko udaberriaren bitartean.

---

[174] Zerrenda osoa eranskinetan jasotzen dugu. GAO: JD IM 1 21 10. Durangaldekoak ez ditut jaso, zerrenda berean azaltzen badira ere. Bestalde, Apezpikuaren helburua Gipuzkoako Probintziak bere gaixoek sortu dituzten gastuetan parte-hartzea da, xede horretarako eskupekoak jasotzeko baimenak emanez.

### *2.3.3 Erreforman ernatutako zigorra*

XVI. mendean ikusi ditugun gizartea eta mundu-ikuskera XVIII. mendean gaindituta agertzeak gure tesiaren muinarekin bat egiten du. Pobreziari lotutako mundua gero eta zokoratuagoa geldituko da, laguntzarako baldintzak gero eta zorrotzagoak bilakatuz. Honekin batera, zigortzeko eta errepresiorako ekimenak indartu eta ugalduko dira, tokian tokiko noizbehinkako neurriak gainditu eta Lurralde osorako behin-behineko gizarte-diziplinarako ekimen eta baliabideak sendotu arte.

Aldez aurretiko gizarte kontrol eragilearen eraikinaren ondoan, gizarte kontrol hertsatzailea, oldartzailea, altxatuko da. Honek, zigor molde berriak ekarriko ditu, eta, era beran, kontrol "biguna"ren murrizketa eta zehaztapena. Garai bateko diskurtsoa, errukia ardatz hartzen zuena, ez da, jada, bakarrik agertuko. Pobreziaren ideiari erantsita, pobre bezala jotzeko baimena ez dutenen kalifikazioa garatuko da.

XVIII. mendera arte zigorraren bideak ezezagunak zirenik ez dugu, inolaz ere, defendatzen. Aipatu dugun moduan, XVI. mendeko Batzar Nagusien aktetan, adibidez, arras arrunta dugu lapurrei ezarritako heriotza-zigorra. Zer esanik ez XV. mendera bitartean Ahaide Nagusien aurkako borrokaldietan jaio eta guda-kode itxura hartzen duten Probintziako Ordenantzei buruz. Era berean, ospitale eta eskaleei buruzko ekimenetan ere, zigorra aipatua izan dela gogoratu besterik ez dugu egin behar.

Alta, zigorrari buruzko debatea goi-mailako eztabaida nagusietan azaldu ez dela esan behar dugu ere, ez behintzat XVII. mendearen azken laurdenetik aurrera emandako modu gordinean. Ikerketaren helburuetan iragarritako bazterkeriaren gaineko jarreren iraunkortasuna edo aldakortasuna neurtzeko asmoarekin bat eginez, pobrezia eta krimena lotzen zituen jarrera XVII. mendean zehar indartu izana hausnarketa berritzaile gisa aurkeztu behar dugu hemen. Aurkitu eta batu egin behar ditugun kontrol-moldearen lehendabiziko aleak ordukoak direlakoan gaude. Jarrera horren sendotasunean eta nagusitasunean datza, gure ustetan, mende bukaerako berezitasuna.

Gizaldi honen zehar ordenua berreskuratzeko aginduak ugariak dira, errepikakorrak, eta, bide batez esan dezagun, inolako arrakastarik gabekoak. Ohi gertatzen den moduan, errepikapen etengabe honek aginduek ezer gutxirako balio zutenik adierazten duela ematen du; epe laburrera hartutako neurriak dira, sakoneko arrazoiak kontutan hartzen ez dituztenak, eta unean-uneko egoera nekez konponduko dutenak.

| URTEA | ERAKUNDEA | ESKAERA-EBAZPENA |
|---|---|---|
| | | |
| **1563** | **BBNNetako agindua** | **Eskale frantsesen egonaldia murriztea, katolikotasuna ez kaltetzeko.** |
| **1578** | **BBNNetarako Tolosako ordezkaria** | **Pobreen ogia jatera etortzen diren ijito eta arloteak Probintziatik egozteko.** |
| **1587** | **BBNN** | **Felipe II.aren ijitoen aurkako agindua.** |
| **1588** | **Korrejidorea** | **Bere burua eskaintzen du eskaletasuna ezabatzeko: galerak, erbesteratzeak, eta ospitaleak erabiltzeko baimena zehatza proposatzen ditu.** |
| **1615** | **Iruñeko apezpikutza** | **Baimenik gabeko pobre edota eskale ospitaleetan ez aterpetzeko.** |
| **1617** | **BBNN** | **Ijitoak egozteko, bereziki Debaldetik eta Azkoitiatik. Atxiloketak gauzatzeko, Alkateak ondoko eskumenean sartu ahal izango dute.** |
| **1617** | **BBNN** | **Ospitaleetan gau bat baino gehiagoko aterpea ez emateko.** |
| **1652** | **Segurako Partzuergoa** | **Bidelapurrak harrapatzeko koadrila osatzen du.** |
| **1657** | **Korrejidorea** | **1640-57 bitartean galera eta espetxe zigorrak jasan dutenen zerrendan arlote ugari.** |
| **1661** | **BBNN** | **Hernanin dabiltzan ijitoak egozteko, eskribaua bidaltzen dute.** |

| | | |
|---|---|---|
| **1673** | **BBNN** | **Lapurretan dabiltzan gaizkile, arlote eta ijitoak antzemateko.** |

Mende honetako bigarren erdialdean, ostera, gaizkileak harrapatzeko eta zigortzeko saioak gero eta zorrotzagoak bilakatzen zaizkigu. Gipuzkoako Korrejidoreak, esate baterako, 1640-1657 bitartean galeretara, Afrikako presondegietara, Almaden-go meategietara zein armada eta ejerzitora zigortuak izan direnen egora eskatzen du, gaztiguak antolatu eta betetzeko asmoz[175]. Ez dago, beraz, gizarteratzeko inolako asmorik, zigorraren bitartez erabilgarritasun edo etekina ateratzearena baino.

[175] GAO: CO MCI 1835. Lope de los Rios y Guzman Korrejidoreak presoei ile eta bizarra moztu, eta Toledora eramateko prest uzteko eskatzen du.

## 3. 1673. URTEA: EZINBESTEKO URRATSA JAZARPENAREN BIDEAN.

Era berean, 1673. urtetik aurrera zigor eta jazarpen antolaketarena Gipuzkoako Batzarretan errotutako gaia dela azpimarratu behar dugu. Hau dela-eta, XVII. mendean zehar ospitaleak gainezka izatera eraman omen dutenen bizimoduak azalarazten eta, bestalde, gizarte-diziplinarantz garamatzaten eta debakatzen diren portaera hauek nola lotzen eta zigortzen diren ikusten saiatu behar dugu, lehen iragarri ditugun helburuetan jaso dugun bezala.

### 3.1 **Ideiak eguneratuak, ohiko betearazleak.**

Urte horretatik aurrera eta mendea bukatu arte, 1687-89, 1693-1695 eta 1699-1701 bitarteko epealdietan bereziki, ospitaleetan gertatzen ziren istiluak eta pobre-eskale-arlote-ijitoak nahasten zituzten salaketak agintarien kezka nagusien artean azalduko dira. Ospitaleen ezaugarrien artean, etengabe izango dira aipatuak gaizkileek sortutako kalteak, lehen aurreratutako egoera areagotuz.

Horrela, txirotasunari lotutako gizarte-taldeak susmopean gelditzen dira behin betiko, agintariek parekotasun horretan zigorraren eztala eskaletasunaren eremuan zartatzea sustatuko dutelarik.

Ideia giltzarri honen hedatzaileak, eta beraz 1673ko saioaren antolatzaileak, Batzar Nagusiak izango ditugu. Jarrera tradizionalaren iraunkortasunak, dena den, oso agerikoa izaten jarraituko du; horregatik, kontrol eta diziplinarako hartuko neurriak bi norabide hartu zituztela esan genezake. Horrela, proposamen berritzaileak merkantilismoan eta erabilgarritasunean sustraitu arren, eskaletasunean murgildutako aleak zuzentzeko egokitutako bideak gauzatzea izango da gizarte-buruen ardura.

Norabide horietako batek eskale bilakatu aurretik baliabiderik gabeko gaztetxoak gizarteratzen saiatzera eramango gaitu. Izan ere, Aldundiak bultzatu dituen hausnarketen artean, eskean aritzen diren umeen egoerari dagokiona aurkitzen dugu[176]. Luis Beroiz eta Kristobal Olazabal Akorda jaunak izendatzen dira afera aztertzeko eta zuzentzeko; hauen aburuz, ume hauek itsasontzietako txo bezala lanean jarri behar dira, arrantzan zein merkataritzan Ameriketara edota kortsora abiatzen ziren itsasontzietan, alegia. Neurri hauek hamar urteak bete dituztenei ezarri behar zaizkie. Prebentzio saio bat izan zen, beraz, umeak lanaren bidez zuzentzeko beharra azaltzen zen eta. Hau da, komunitatetik aldenduak izan baino lehen gizarteratzeko aukera bat eskaintzen zitzaien.

[176] GAO: JD AM 72.

Ekimen honek epe ertainera begiratzen du; hau dela-eta, umeek bidaia bukatu ostean eskatzeari berriro ekin ez diezaioten bermatzeko, itsasora berriro atera arte ontzien zaindariekin gelditzeko eskatuko da. Honekin batera, jaso behar duten soldata zehazten da: txo moduan, ohiko soldata, itsasorako arropa erosi ahal izateko; zaindari moduan, jateko bezainbeste.

Adituen esanetan, gisa honetan bi helburu beteko dira: itsas-gizonen kopurua handitzea eta lapurrak bilakatzen diren eskale alferrak gutxitzea. Gipuzkoako agintarien ustetan, bada, lapurretara iristeko biderik zuzenena alferkeria dugu, hau da, lanik ez egitea.

"*En conformidad de lo que VS nos mando emos considerado los medios con que se podra conseguir el que se apliquen al arte de navegar los muchachos que andan pidiendo limosna en el distrito de VS y son los que abaxo referimos.*
*El primero que VS se sirva de hordenar a las justiçias de su districto que en llegando a su jurisdiçion limosna a pedir qualesquier muchachos de diez años arriva le recoxan y retengan asta el mes de febrero proximo venidero, sustendolos aora sea de limosna o a costa de las republicas, conforme a VS le pareçiere.*
*El segundo, que VS se sirva de señalar en la ziudad de San Sebastian alguna persona de calidad y de posiçion que en nombre de VS able a los dueños ynteressados y armadores de los navios de armada, corsso, vacallao y grassa y otras marchantes del districto de VS para que en cada navio reçivan uno de estos muchachos por paxe o grumete del navio, dandoles el emprestido que a los de esta calidad se suele dar para que con el se puedan abrigar de la ropa que necesitan para la mar.*
*El tercero que quando qualquiera justicia recoxiere algun muchado de esta calidad, de luego avisso a la persona que VS hubiere nombrado en la ziudad de San Sebastian para que los acomode en algunos de los navios referidos.*
*El quarto que quando buelvan del viaxe no teniendo a donde recoxerse podrian bolver de nuevo a pedir limosna y no se consiguiria el intento de VS; se a de servir de hordenarle al mismo nombrado para que asi bien los able a los dueños de los tales navios les ocupen a estos muchachos introduçiendolos a una con los guardas de los navios, sin que los aia de dar otra cossa que el substento asta que llegue el tiempo de bolber a nabegar, con que sentimos que VS consigue dos cossas: la primera, ademas de la caridad y piedad que VS usa con estos muchachos, el que se aumente la marineria; y la segunda, el que en las republicas de VS no anden estos muchachos perdidos y creçiendo con la araganeria se hagan ladrones. Esto sentimos.*"

Batzar Nagusiak irizpide honekin guztiz egingo du bat, Beroiz bera antolatzaile gisa ahalordetuz. Heziketa hau ematerakoan, Gipuzkoako ume eta gazteak kanpotarren aurretik lehenetsi behar direla gaineratzen zen. Hortaz, haur hauek ez dira gizartetik egotziak izan; alderantziz, neurri hauek ez dira zigor moduan ematen. Orduko merkantilismoak agintzen zuen bezala, errentagarritasuna bilatzeko asmoa agertzen bada ere, errukia eta prebentzioa nagusi ditugula dirudi.

Prozedurari dagokionez, ume eskaleak harrapatzea alkateen lana izango da, itsasoratu arte eskatzea baimendu ala zuzenean alkatetzatik mantenduko zaielarik. Gero, Donostian armadoreekin umeen lanak negoziatzeko, ordezkari bat izendatuko da. Hortaz, ekimena gauzatzeko bitartekariak –bigarren eta laugarren puntuetan ikusi dugun bezala– komunitatearen baitan erreferentzialak ziren pertsonak aurreikesten ziren, eta alkateek ere, zigorraren ordez, zaintza lanak egiten zituzten. Era berean, gurasoen hutsunea betetzeko, gazteak nagusi bati atxikiak gelditzen ziren, gizartean iltzatuak geratzeko ugazaba baten menpekoa izatea helduleku baliogarri bezain funtsezkoa zela berretsiz.

Ikuspuntu hau ez zen nagusitu eskaletasunean murgilduta zegoen beste giza-multzo batzuekin. Ohiko plaza-gizonen esku gelditu arren, gazteentzako asmoak berritzat jotzen bagenituen, helduei dagokienez, ez da inolako aukerarik zabalduko hauek gizarteratze aldera. Laguntza-saretik Pobre-Arlote-Gaizkile ekuazioaren arabera kanporatu behar direnentzako erbesteratzea jartzen da helmuga. Hau da, gizartetik kanporatze fisikoa. Ibilbide luze baten hasieran gaude.

Agintariek, baina, etiketa hau ezartzeko neurgailua zorroztu beharko dute, jazarpenaren eraginkortasuna bermatuko badute. Izan ere, 1673an eskale gazteei buruzko ebazpen hau ematearekin batera, eskupekoak eta gaizkileak uztartzen zituen orokortasuna azaltzen zen. Anabanasa honetan, gainera, alfer eta arloteekin batera ijitoak ere lotzen ziren. Ijitotasuna antzemateko, baina, zalantzak agertzen ziren.

### 3.2 Bizimodu arbuiagarrien eremu zabalean.

Eskupekoen egokitasunarekin ala baserrietan aterpe ematearekin gertatu bezala, ijitotzat jotzen direnen aurkako neurriak han eta hemen azaltzen dira, denboran zehar barreiatuta. Halere, Gipuzkoako ez ezik honako hau Europa osoko "arazo" dela azpimarratu behar dugu[177].

Dena den, gure aburuz, XVII. mendean zehar ijitoen aurkako jazarpena motelduko da. Izan ere, aitoren semetza eta gipuzkoarren odol garbiaren diskurtsoa dela-eta beste "arraza-talde" batzuek pairatuko dituzte eraso hauek: judutarrek, mairuek, beltzek...[178].

1583 eta 1588ko Felipe II.aren aginduak Batzar Nagusietan jasotzen badira ere, ijitoen egozpena 1617an Batzarraren beraren ekimena da, Deba arroan eta Azkoitian egin dituzten gehiegikeriak direla eta. Besteak beste, muga zaintzen duen "Alcalde de Sacas" delakoari Pausutik sartzen ez uztea agindu eta alkateei hiribildu bateko eskumenetik ondokora pasatzeko ahalmena baimendu egiten da.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoak ijitoen atzetik aritzeko inolako arau edo tresna eraginkorrik garatuta ez duela ematen du. 1661ean, esate baterako, Donostian bildu diren Batzar Nagusiek Simon Gorostizu Hernanira bidaltzen dute, herri horretan azaldu diren ijitoak kanporatzeko. Hasiera batean 21 pertsonaren taldea aipatzen bada ere, umeak barne, Hernaniko alkatearen aginduz Astigarragako mugaraino eraman izan direnak 4 emakume eta 8 ume dira. Beste herri honetan, Gorostizuk berak antzeman eta, Oiartzun zeharkatu ondoren, Pausuko mugatik pasarazten ditu.

---

[177] Baita Danimarkan eta Finlandian ere. RIIS, T: "Poor relief and health care provision in sixteenth-century Denmark"; KUORI, E. I.: "Healt care and poor relief in Sweden and Finland: 1500-1700". Ole Peter GREELL and Andrew CUNNINGAHM (eds.): *Healt care and poor relief in Protestant Europe: 1500-1700.* London: Routledge, 1997.

[178] ZAPIRAIN, MORA: *Exclusión... op. cit.*

Eredu sinple honek Gipuzkoako aginte zentralaren ezintasuna islatzen du. Alkateen lanak bere eskumenaren mugetan bukatzen direnez, herri batetik bestera pasatzeko ahalorde bereziak bidali behar dira; aipatutako deportazioan, Gorostizuk bere laguntzailea aldatu behar du herri-muga gurutzatzen duen bakoitzean[179].

Hau dela-eta, 1673ko martxoan Aldundiak eskatuta Zestoan bildutako Batzar Nagusiak ijitoen eta lapurren aurka aritzeko agindu zehatzagorik ematen saiatuko dira. Orduan, merkatarien eta bertakoen lasaitasunaren kalterako lapurretan eta bestelako gehiegikerietan dabiltzan gaizkile, ijito eta arloteak atzeman eta erbesteratzeko agintzen da[180].

Lapurrek ijito, alfer eta arloteekin bat egiten dutela zehazten da eta bideetan ez ezik ermitetan ere erasoak eta lapurretak izan direla. Probintziaren iritziz, Gipuzkoa jaio denetik gaiztakeriak ez du inoiz horren egoera larririk sortu:

---

[179] GAO: JD IM 4 – 10 – 66.

[180] Foru Aldundiaren agindua oso egoera kaskarrean gorde da (GAO: R 32 –JD AM 71, 2. 75g./78a.-; JD CO 19, 13.): "*Habiendose conferido en plena Diputacion por las notiçias tan yndividuales con que se hallavan los señores de que se compone la Diputazion de los continuados robos que ladrones azen en los caminos de esta Provincia* [ROTO] *a estrabar a tan grandes* [ROTO] *[se]mejantes insultos a los comer[ciantes] an bajado a esta ziudad* [ROTO] *de Castilla, Navarra y [ROTO] [Aragon?] a la compra del abasto* [ROTO] *en tiempo de la cuaresma* [ROTO] *mucha cantidad de dinero que traian pasando a tan grande maldad con el de quitarles las azemilas y vendiendolas para el reyno de França que apenas no tan solamente* [ROTO] *ziudad de San Sebastian, Andoayn y otras* [ROTO] *an robado y urtado* [ROTO] *andando por los caminos y en los puertos secos de esta Provinçia asoçiados de muchos* ***jitanos*** *y* ***gente aragana*** *y* ***bagamunda*** *y reconoçiendo la Diputazion que gente de semejante calidad puede cometer tales robos y daños y otros tan detestables como el de despojar imagenes de santos y santas de muchas hermitas de esta Provincia y considerando la Provinzia que desde su ser a este tiempo no se a crecido la maldad a tanto rigor y deviendo poner pronto eficaz remedio a maldad tan inaudita acuerda que açiendo relazion de la proposicion referida se haga despacho general a todo su distrito...avisando a todas las republicas de ella para que el dia treze de este mes las justiçias hordinarias cada una en su territorio recorran su jurisdiçion saliendo al campo y rexistren cassas y parajes sospechossos en donde se pueda presumir estan en el los malhechores y ladrones y prendiendolos con bastante seguridad* [ROTO] *Diputazion de esta provincia* [ROTO] *para mejor recorrer* [ROTO] *limpiar cada republica su jurisdizion dividan en cuatro partes por vezinos de maior satisfazion con bastante fuerza para en caso de resistençia que ladrones hizieren. Y no se conbençen ni suspendan solo con la salida del dia treze, sino lo continuen en adelante. Y de haverlo echo ansi y executado en virtud de esta horden remitan testimonio a la secretaria de esta provinzia, para que por medio de los avisos que ansi dieren se ocurra al remedio que tanto importa.*"

GAO: JD DJ 126, 1: ijitoei dagokionez: "*que ninguno de los señores alcaldes ordinarios del distrito de VS permita en su jurisdiccion jitanos ni xitanas y a los que prendiere en ella, castigue con toda brevedad y conforme a lo establecido por leyes reales y fueros y decretos de VS*"; "*que ninguna persona del lugar en su cassa que ospeden jitanos ni jitanas y si algunos lo vieren les den pronta noticia para ocurrir al remedio*".

*"considerando la Provinzia que desde su ser a este tiempo no se a crecido la maldad a tanto rigor"*.

Salaketa honen helburuak jabetza eta merkataritza babestea genuke; jarrera hutsak izan ezik, mahai gainean ekintza zehatzak eta kaltegarriak ere paratzen dira, errotik moztu behar direnak. Egonezinak, gainera, herrialde osoa jo du; ez da gizabanako batek sortutako istilu bat; orokorra da. Beraz, erakunde probintziala neurriak hartzera behartuta dago egoera zuzenduko bada.

Alta, erantzun estrukturalak eman gabe diziplina zein arlo errepresibora mugatzen diren neurri hauek gauzatzeko tenorean, alkateak izango ditugu, berriro ere, Diputazio eta Batzarren tresnak. Erakunde bakoitzaren lana ondo zehazten da: alkateek bai atxilotzeari bai eta gaizkileei aterpea emateko debekua iragartzeari berehala ekin behar diete, sei hilabetero Batzarretan atxiloketen berri emanez. Horretarako, auzokoen laguntza armatua jaso behar zuten. Baina korrejidorearen auzitegian akusazioak egiteko ardura Aldundiak hartuko luke[181].

Honen ondorioz, hainbat zigor-ekintza antolatzen dira. Ikusi dugun moduan, hainbat auzi aldi berean gauzatu izana ez da inolako kasualitatearen emaitza, Gipuzkoako erakundeetan ematen ari den bilakaera iragartzen duen seinalearena baizik, aurreneko oin-oharrean jaso dugun bezala.

Zigortuak, baina, ez dira soilik ijito edo gaizkileak izango. Amezketako alkateak, esate baterako, 20 dukateko isuna jasotzen du, bere herrian ijitoak bizitzen

---

181 "*sentimos que VS mostrandosse parte se querelle ante el Señor Don Bernave de Otalora, su Correxidor, de los presos que se an remitido a las carzeles de la ziudad de San Sebastian y de los que adelante se remitieren en virtud del dicho despacho...de los que hubieren cooperado en urtos y otros semejante delitos, por que devan ser castigados; y para formar la querella contra ellos, puede VS nombrar por abogados a los lizenciados Don Iñigo de Aztina y Don Antonio de Arze y darles su poder...; que en despacho jeneral se escriba a todos los señores alcaldes ordinarios de su distrito, y en particular a los que an remitido los presos con causas formadas espontaneamente, hagan dejacion de ellas, por quanto VS se querella como parte ynteresada unibersalmente por ser de las materias de mas importancia que se puede ofrezer para conseguir la quietud y sosiego de sus republicas y seguridad de los comerciantes; y que den noticia al Señor Corregidor o a los dichos abogados de los robos y salteamientos que en jurisdiccion de cada uno se hubieren cometido y de los indicios que hubiere*".

uzteagatik[182]. Juan Loidi alkatearen delitua, Batzar Nagusien ebazpenaren kontrakoa, Bartolome Deunaren jaietan danbolin-jole ijitoa onartu izana da.

Legazpiko alkatea, bestalde, askoz eraginkorragoa izan da. Aldundiaren eta Batzarraren ebazpenari jarraiki, lapur batzuk inguruan zebiltzala jakin bezain pronto auzoko-talde bat armatu eta miatzeari ekin dio. Ondorioz, Bikuñako burdinolan ezkutatzen zen bost ijitoren taldea atxilotu egin du eta bi karabina eta bi sastagai atzeman dizkie[183]. Dena den, haietako lau eliz-eskumenean sartu dira eta bakar bat baino ez da egongo epaitzeko moduan.

Zigor-ekintza bi hauek, ijitoak zeintzuk diren ezagutzeko parada eskaintzen digute, ijitoen, lapurren eta arloteen arteko nahastea ulertzen laguntzen eta zirriborratu nahi dugun pobreziaren prosopografiarako datu gehiago ematen.

Izan ere, bai danborjoleak bai eta Legazpin atxilotuak, biek, bere bizitzen berri helarazi digute, nahiz eta bere adierazpenak jasan zituzten auziaren barruan kokatu behar ditugun.

Biak gazteak dira, 17 urtekoak, eta biak ere gurasoen falta –lehendabiziko etxearena, beraz– izan dute. Alta, datu hauek ez dira gehien harritu behar gaituztenak, gure bi ijitoak euskaldunak direla jakiteak, baizik. Musikaria –Bentura de la Mata izenekoak, baina "Felix" goitizenez– baztandarra da[184] eta ama zena zuen ijito; aita, ordea, ez. Hiru urte eman ditu Gipuzkoan, Itsasondoko alkateak Probintziatik joateko agindu arte; ondoren, Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean egin du bizitza eta musika

[182] GAO: CO CRI 69-6. 1668an ere, ijitoak aterpetu omen dituen Usurbilgo Jose Igartza epaitzen da. Auzi honetan ikus daitezkeenez, aldi baterako lanetarako ijitoak hartzea oso arrunta zen. Igartzak alde egin dion morroia ijito batekin ordezkatzen du, beste auzoko batentzat lanean ari zena jada. Igartzak, ohi den bezala, dena ukatuko du, baserrian ijitoak zeudela entzun duenean handik botatzera agudo joan dela esanez. GAO: CO CRI 60-12.
[183] GAO: JD IM 4 10 72. JD DJ 126, 2.
[184] Behenafarrokoa baina.

izan du ogibide[185]. Azken boladan, baina, herrietara jotzeko beldurrez, baserrietan jateko eskatu behar izan du.

Ea ijito gehiago ezagutzen duen galdetzen diotenean, "Felix"ek ezetz dio, bere anai-arreben artean Gipuzkoan bizi den bakarra Franzisko anaia dela; hau Amezketan, hain zuzen ere, ferratzaile dugu eta bertan ezkonduta bizi da.

Bigarren "ijitoari" dagokionez, Juan Bautista Agirre Uzin dugu[186]. Azken bi urteak Azkoitiko Miramondres eta Arrieta baserrietan morroi lanetan eman ditu, bere aitak, bertako jauntxo bat denak, semetzat noiz hartuko duen zain. Honek ere ama zuen ijitoa eta giro horretan 11 urte bete arte hezitu da, "*exercitando el mismo oficio de xitaneria*"[187].

Agirreren alde ere lekukotasunak azaltzen dira. Besteak beste, aitaren izena hartu, baserriko lanetan beste hiribilduko edozein semek bezala jardun, eta mezatara joaten dela esaten da. Hau da, gizarteko partaidea izateko bete beharreko baldintzak bezala berriro ere etxe batekoa izatea, lanean aritzea eta kristautasunean bizitzea agertzen zaizkigu, nortasun ikurrak eta taldearen onespena ahalbideratzerakoan bazterketa saihesten laguntzen duten baldintzak.

Ondorioz, "X*itaneria*" egon badagoela onartu arren, bai Felix baita Agirre ere, bizimodu arbuiagarri horren partaide ez direla frogatzen saiatu dira: ogibidea, senidetasun loturak (aita edo herri batera ezkonduta dagoen anaia), eta bere inguruan onartuak eta ezagunak direla aditzera ematen ahalegindu dira. Hau da, ohiko gizarteratze-sistemari eusten saiatzen dira.

---

185 Amezketako jaietan ez ezik, Segurako Korpusean eta Idiazabalgo Sanjuanetan egin du lan, Lazkaoko Jose Agote musikariaren eskutik, hain zuzen. "Felix"ek herri horietan ezaguna dela azpimarratzen du, batez ere Amezketan.

186 Gainontzeko lagunekin ez omen zuen zerikusirik, baina Oñatiko jaietara joaterakoan haiekin elkartu eta, Legazpiko alkateak atxilotu arte, edaten eta lan egin gabe izan dela. Esan bezala, gainontzeko lagunek (Juan Elizalde, Martin, Migel eta Juan Etxeberria) Legazpiko elizan babesa bilatu dute, eliz-eskumenari atxikiz.

187 Auzian zehar, beste behin atxilotua izan zela agertzen da, umea zenean beste ijito-talde oso batekin batera. Orduan ez zuen zigorrik jaso, nahiz eta ijito batzuk zepoan -"*argolla*"- jarri zituztela gogoratu. 1668ko atxiloketa honetan, Blas Larrea izan zuten defendatzaile, orain fiskal lanak egiten dituen berbera.

Honen arabera, ijitoa izatea "egipziar arrazakoa" izatea baino zerbait zabalagoa dela esaten ausartzen gara, batez ere bizimoduarekin zerikusia duena, hain zuzen ere.

Hortaz, legeak berritu aurretik, Probintziako agintaritzak beste zeregin bat bete behar du: bere etsaiak zeintzuk diren zehaztea. Izan ere, botere egitura den heinean, Gipuzkoako agintaritzak bere izaera eta jarduera zuritzeko aukera eta antolakuntzarako gaitasuna hedatzeko parada ezin hobeak ditu eremu honi esker.

Ildo horretatik, finkotasun eta menpekotasun eza gizabanakoen maila neurtzeko tresnak bilakatzen dira: ezaugarri horiekin bat egiten dutenak etsaitzat jotzen dira. Eskale gazteei buruzko arauetan erakutsi bezala, ezaugarri baztergarri bat nabarmentzen da: alferkeria.

Agirreren aurka Probintziaren izenean akusazioa eramaten duen Blas Larreareen jarioak, esate baterako, bizimodu arbuiagarriaren aldarte guztiak bilatzen tematzen da. Horreratako, gaizkile baten aurrean frogatzeko, hala bizimodu axolagabe, arduragabe eta arina dagoela, nola diziplina eta kontrolik gabeko jarrerak ematen direla frogatzeari ekingo dio. Era berean, ijitoa izatea delitua dela aldarrikatuko du: "*haber cometido atroçes delitos fuera del de ser gitano que no es el menor*". Honek ijito-lantzat zer duen argitzen du ere: "*robando a los passageros, hurtando ganado a los caseros...propio exercicio de esta gente*".

Batetik alferkeria eta bestetik ijitoengan antzematen den bizimodu arina eta diziplinatu gabea, biak lapurrekin lotzen direla azpimarratzekoa da. Oso urrunera jo gabe, Legazpiko Bikuñan atxilotuei kentzen zaizkien armak gaiztakeriak eta lapurretak egiteko zirela esaten zen, Juan Mondragon lapur-taldearekin zerikusia zutela leporatuz.

Bi adibide hauek, 1673ko ebazpena dela-eta egindako atxiloketen adibide urria omen dira, preso hartutako gehienei lapurreta leporatzen baitzitzaien. XVII. mendeko agintarien begien arabera, arlote moduan bizi zirenak lapurreta eta egonezaren

arduradunak ziren, nahiz eta, ikusi bezala, horren froga garbirik ez izan beti. Horretarako bada, aldez aurretik emandako definizioak zeuden garatuak.

Adibide bakanen gainetik, Batzarrek eta Aldundiak ekoizten duten arau eta ebazpenak aurkitzen ditugu, jarraian eta alferkeriaren magalean ijito-lapur eta arloteria kokatzen dituztenak. Arestian aurkeztutako 1673ko ijitoen aurkako oharrak, lapurrak atzemateko araudi zabalago baten zatiak baino ez dira, Bikuñaraino Legazpiko alkatea eta bere auzo-talde armatua eraman duen berarena, alegia.

### 3.3 1673ko neurrien behin-behinikotasuna.

Gipuzkoa bere karitatetik, hala tradizionaletik nola erreformatutik, aldendu dituen portaerak etengabe identifikatzen eta zehazten ari dela ematen du. Jarrera hauek erakusten dutenek ez dute tokirik ez Erruki-Etxeetan, ez eta eskale onetsien artean ere. Eskupekoak eskatzea bera, gainera, lapurretarekin parekatuta dago jada, hau da: eskatzea eta lapurtzea, elkarrekin doazen eta arriskutsuak diren pertsonek burutzen dituzten ekintzak dira.

Jarrera hauek zuzentzeko indarrean jarritako neurriak zigorrarekin lotzen dira. Gaztigu hauek bazterketa irudikatzen dute beren baitan: gaizkileak Gipuzkoa-Etxetik kanporatuak izaten dira[188]. Alta, joera berriak ere antzematen dira, espetxe-zigorrak eman ez arren, derrigorrezko lanak (ejerzitoan, itsasontzietan,...) gero eta ugariagoak baitira.

Bilakaera horretan, 1673. urtea lehendabiziko mugarri gisa agertzen zaigu –edota arestian erabili dugun irudia berreskuratuz "ontzia"ren oina bezala–, eta baita etorkizunerako abiapuntu bezala ere, abian jartzen dena zer den oraindik oso argi ez dagoela ematen badu ere. Argi daude, bai, zigorgarriak diren ekintzak; ez, ordea, gaztigua jasotzen dutenen delitu eta zigortagarritasun horren arteko parekotasuna; are gutxiago egitasmo honen bideragarritasuna bermatzeko finkatzen diren erakunde eta baliabideak.

Neurri hauen eragina epe motzekoa izango dela aurreikus dezakegu, ez baitute sakoneko aldaketarik proposatzen. Bestalde, sakona izan litekeen bideari, ume eskaleen etorkizuna bermatzeko aukeratutakoari, fidagaitza deritzogu eta. Honekin batera, zehazten den errepresio maila gogorra izanda ere, bideetara eskatzera edo lapurtzera irten behar dutenak kikiltzeko ez dela aski ematen du.

---

[188] Aurreko bi ijitoei dagokienez, esate baterako, biak erbesteratuak izan zirela esan behar dugu, makilkadak edota galerak bezalako punimenduak balizko erreinzidentziarako utziz. Beste behin ere, taldetik aldentzea aukeratzen da, honekin gizarte-sareak bermatzen zituen laguntza-motak eten eta taldeko partaidea izateari bukaera emango zitzaiolakoan.

Horren erakusle, 1683. eta 1687. urtean irekitzen den aro berria dugu, non eta ijitoek-arloteek-lapurrek osatzen duten hirukoitasunaren aurkako ekimenak berriz azaleratu eta areagotzen diren.

## *III. 1683-1771: IZUAREN ETA ZIGORRAREN ALDARRIKAPENA GIZARTE KONTROLAREN ARLOAN*

## 1. IZUA EREITEN.

1673. urtean irekitako prozedurak kimu berriak ernaldu zituen, hamar urte beranduago Batzar Nagusiek egingo duten hausnarketa aipatutakoaren oso antzekoa dugun arren. Alegia: arestian identifikatu ditugun taldeek –arlote eta ijitoek–, egoera jasenezina sortu omen zuten Gipuzkoako hainbat eskualdetan[189]. Salaketaren erdian ijitoak agertu arren, gai hau aztertzen dutenek ijitoak eta arloteak etengabe nahasten eta parekatzen dituzte.

Ijitoen ekintzen oinarrian alkateen axolagabekeriak eta ijitoak aterpetzen zituzten arduragabekeria zeudela azpimarratzen zuten aditu hauek. Geldotasun honek ijitoen egonkortasunari eta, ondorioz, lapurreta ugariri irekitzen zien bidea. Hortaz, gabezia hauek gainditzeko, ermandadeko alkateak izendatzean ijitoak eta arloteak sarritan ikusiak izan diren tokiak zelatatzeko 4 ala 6 lagun izendatzea proposatzen da. Hauen lana susmagarriak atxilotzea izango da, betiere delituak leporatzerakoan erruduntasuna probatzea bideragarria den heinean, korrejidorearen entzutegian epaituak izateko[190].

Pertsona hauek nahi eta behar bezainbeste lagun eraman ditzakete atxilotzeko. Era berean, alkateei elkarlana eskatzen zaie, batez ere herrietako espetxeak erabili ahal izateko. Prozedura honen gastu guztiak, berriz, Probintziari egokituko zaizkio.

Ijitotzat hartzen direnei buruz xehetasun bereziak egiten dira. (Honek, bide batez, ijitoak ez ezik bestelako lapurrak ere bazirela ematen du aditzera). Xehetasun horiek sexuaren arabekoak dira. Izan ere, emakumezkoak gizonezkoak baino lehenago iritsi eta gelditu izan omen dira Probintzian. Hau dela-eta, emakumezko ijitoak

---

189 Gaia batzarrera eraman zuena Usurbilgo ordezkaria izan zen. Arrazain baserrian 6 ijitok osatutako taldeak burututako asalto eta lapurreta azpimarratu zuen. Hau gauzatu eta gero, arlote bihurtu eta Gorrititik Nafarroan sartu ziren. Hilabete batzuk aurrerago, Aldundiak ijito hauek Iruñean atxilotuta zeudela eta bertako agintariei gogor zigortzeko eskatuko ziela iragarri zuen. "*para que a ellos les sirva de castigo y de exemplo a los demas para vivr en paz, seguridad y quietud*". GAO: JD AM 76, 4.

190 Korrejidoreak berehala eta azkar epaitu beharko lituzke, eta "por términos jurídicos".

Probintziatik egozteko agintzen da. Hala eta guztiz ere, ijitoen jantziak utzi, ofizio ondradutan jardun eta iskanbilak sortu gabe bizi badira, agindu hau ez zaie ezarriko.

Azken honek, bistan denez, gizarteratzeko abagune garbia da. Hobe esanda, orduko kulturaren arabera gizarteratuak zeudenak babestuta agertzen ziren.

Lurralde osoan zehar eta modu arautuan atxiloketak burutu ahal izateko komisioak, berriz, jokamolde berria dugu. Kontrol sozial oldarkorraren garapenerako oinarrizko mugarria dugu, beraz. Izendapen hauen bidez funtzio betearazlea eta gaizkiletzat hartzen zirenen aurkako jazarpena gauzatzeko tresna berri bat jartzen zen indarrean. Tresna honek lurralde osoa hartzen zuen aintzat; ez zen toki zehatz bati lotzen, eta erakunde probintzialaren finantzapean gelditzen zen.

Batzar Nagusiek txosten hau ontzat eman zuten, ondorioz atxiloketak burutzeko komisiodunak izendatu zituela. Komisario hauek ondokoak izan ziren: Antonio Ikuza alfereza, Martín Zabala, Antono Etxaniz eta Esteban Lardizabal. Haiekin batera, korrejimenduaren auzitegian fiskal lanak egiteko beste bi lagun izendatu ziren, baita gastuak ordaintzeko 200 dukateko probisioa gorde ere[191].

Erabaki honen garrantzia, beraz, bere izaeran datza, lortu zituen emaitzak oso zalantzazkoak iruditzen zaizkigu eta. Izan ere, 1687 eta 1688an erakunde Probintzialek eginiko deskribapenetan 1683an esandako guztiak errepikatu zuten. Oraingo honetan ere, Batzar Nagusiek egoera aztertzeko aditu talde bat eratu zuen, helburua, betiere, ijito eta arloteen kopuru handia ezeztatzea zelarik[192]. Azterketan agertu ziren berritasunen artean, aurretik agerian gelditu ziren gabeziak eta legeak berak zituen mugak azpimarratu izatea aurkitzen dugu. Zehatz-mehatz, Probintziaren araualdiak 31. puntuan jasotzen zuena eraginkorra ez zela, bai ordea garestia, salatzen dute aditu hauek, ematen ziren zigorrak arinak zirela azpimarratuz. Izan ere, araualdi honen

---

[191] "*a quienes se despachan comisiones de esta Provincia conforme en dicho parecer se expresa y para seguir los pleitos en el tribunal del señor don Garzia de Medrano y Mendizaval y en los demas que convenga en caso que los dichos comisarios remitieren algunos delinquentes, se sigan a voz costa de esta provincia, acusandolos de los delitos criminalmente se otorgo poder a Antonio de Zorroviaga y Miguel Odriozola*". Batzarraren akta puskatuta dagoenez, bosgarren komisario baten deitura osoa ezin da irakurri, soilik bere abizena: Albiztur.

[192] GAO: JD AFI 7,5.

arabera esparru hau ez litzateke Aldundiaren eskumenaren barne sartuko, ermandadeko alkateenean baizik. Ondorioz, tokiko alkateei erresumako aginduak betetzeko eskatzea ez litzateke guztiz zilegia izango[193].

Honekin batera, ospitaleekin gertatu bezala, ebazpen hauek guztiz zahartuta gelditu zirela adierazten da, "ibiltarien" aurka zuzentzen baitira, XVII. mendearen bukaeran identifikagaitza suertatzen den mailaketa dela aditzera emanez: "*...es cierto que en este nombre de andariego y vagamundos se comprende los gitanos y gitanas, pero con esta forma de castigo no se pondria remedio*".

31. titulu honek borrakatzen zituen une arriskutsuak Probintzia, Ermandadea hobe esanda, sortzen ari zenekoak ziren[194]. Orain dugun buru-haustea, berriz, Probintzia osatu ostekoa da. Berria. Hori da, hain justu, lehen gogorarazi digutena: gaiztakeriaren maila Gipuzkoa Probintzia izan aurretik baino ez zela izan horren tamainakoa; hots, Ahaide Nagusien gaineko garaipena eskuratu eta Probintzia moduan aritzen denetik ez da inoiz horrelakorik somatu. Ondorioz, garai honetako arerioen ezaugarriak adierazteko eta elkarbizitzarako moldeak ezartzeko tenorean, Gipuzkoak garai zaharreko zailtasunak ekarri ditu gogora eta egoeraren larritasuna Probintziaren hasierako ibilbide historikoarekin parekatzen du.

Gogoetak pisu ideologiko handia hartzen du, irudia oso eite gogorra izan arren, Ahaide Nagusien aurkako legedia erabat zaharkitua gelditu da. Gipuzkoako

---

[193] *Berdin: "que VS no tiene autoridad para mandar a los señores alcaldes ordinarios para que executen las vezes del Reyno, aunque es de su obligacion la observancia de ellas, por razon del oficio, y quando ellos quieran ponerlas en execucion sus sentencias son apelables."*

[194] 1696an argitartuko den Foruetako 31. tituluak "*De los vagabundos y andariegos*" du izena, "*De los receptadores y encubridores de los malhechores*" eta "*De los acotados o sentenciados en rebeldia*" tartean kokatuta eta bi atal osatuta. 1397ko eta 1453ko ordenantzak jasotzen ditu lehenak, "*De la pena de los andariegos y vagabundos*"-pean: "*...ha muchos hombres andariegos, que no tienen señores propiamente con quien vivan, que les den de comer y beber, y de vestir y de calzar y la que han menester, mas llamandose de algunos Caballeros y Escuderos, andando pidiendo por la tierra, haciendo otros muchos desaguisados...*". Bigarrena, "*Que los vagabundos y andariegos de mala vida no sean sueltos en fiado*" delakoa, 1457ko ordenantzei dagokie.

*Nueva recopilacon de los fueros, privilegios, buenos usos y costumbres, leyes y ordenes de la M.N. y M.L Provincia de Guipuzcoa, reimpresa por acuerdo de la Excma. Diputación de 28 de noviembre de 1918.* Donostia: Inprimategia, 1919.

BARRENA OSORO, Elena: *Ordenanzas de la Hermandad de Guipuzcoa: 1375-1463. Documentos.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982.

oinarrizko baliabide errepresiboa bere jaiotze-unean eratu zuen berbera dela agerian gelditzen da; alabaina, Ahaide Nagusiak eta haien menpekoak mendean hartzen bete-betean asmatu arren, XVII. gizaldiaren bukaeran tokiz kanpo dago.

Zehaztasun eza gainditzeko, Probintziako ordezkariak Gaztelako Erresumako "Novísima Recopilación" delakoari atxikitzen dira, VIII. liburua, XI. titulua, XI. legeari hain zuzen ere, "*...que declara ser vagamundos los exipcianos y caldereros estrangeros, que por leyes y prematicas de estos reynos estan mandados echar de el, y los pobres mendigantes sanos que piden, y andan vagamundos y los gitanos tienen algunas tendezuelas y andan por las calles vendiendo y casserias y en todas ellos nos parece se debe executar la ley primera...*". Horrela, Felipe II.ak 1566an egindako deskribapena berreskuratu eta gaizkile tipologia egokiago batekin aberasten dira[195].

Dena den, besterik ezean eta gastuak ahalik eta txikien izan daitezen eskatuz, adituak aipatutako 31. araua berrestearen aldekoak dira, honen bidez zabaltzen den izua eta zigorra eredugarriak gerta daitezen: "*...para que si quiera con el terror y el castigo que previene se remedie en parte el daño que resulta de este genero... mandando a dichos alcaldes de hermandad ayan las causas breve y sumariamente y con la menor costa que se pudiere...*".

[195] Elena MAZA ZORRILLA: *op. cit.*, 62. or.

### 1.1 Izuaren tresna original bezain gorabeheratsua: Komisarioak.

Izua eta zigorra zabaltze honetan, 1688ko Azpeitiko Batzar Nagusiek ijitoek eta arlotek gauzatzen dituzten irainak gelditzeko ebazpenak ematen dituzte, modu gordinean. Aurretik aginduta dagoena betetzen ez denez, Batzar honek bost komisario izendatuko ditu berriro, "garbiketa" egin dezaten: "*Por reclamo general que ha havido en la junta de que no se da cumplimiento a lo decretado en la ultima junta general de la villa de Deva en orden a limpiar la tierra de bagamundos y gitanos y haver sobrado numero de ellos y convenir poner remedio a los insultos que cada dia estan cometiendo y para que el dicho decreto tenga subsistencia y debido cumplimiento, la Junta confirmaba y confirmo su tenor y disposicion, y para la exacta execucion de ella, nombraba y nombro por comisarios es a saver, en el partido de Asteasu a Juan Bauptista de Alurralde, y Antonio de Icuza hasta la villa de Tolosa inclusibe. Para el partido de Villafranca a Fermin Joseph de Anzizar. Para el de Bergara a Antonio de Echaniz. Y para el de Amezqueta a Miguel de Sarastume*"[196].

Hortaz, berriro ere denboraren poderioz eta indar betearazleen utzikeriaz zein gabeziaz zeharo ahulduta zegoen agindua berreskuratu behar da[197]. 1683an Deban agindu bezala, komisarioek lapurretekin zerikusia duten ijitoak eta arloteak atxilotu eta Korrejidoreen esku utzi behar dituzte. "*para que ynquiriendo con toda cautela los parajes de nuestro distrito en que podra lograr el aprisionar a todos los gitanos y a los bagamundos de quienes tubiesse noticias bastantes y que se le podra probar los latrozinios e ynsultos que avian echo, los prendiesse...*". Sexua ere kontuan hartzen da berriro eta ijito emakumezkoak tokiko alkateen esku geldituko dira, ilea moztu ondoren, kanporatuak izateko: "*prendiessen a todas ellas menos las que havian dejado aquel traje y bivian onestamente y sin dar escandalo, ocupandose en exerzizios dezentes, y entregassen a las otras que andavan en traje de gitanas y con su libertad a los señores alcaldes hordinarios en cuya jurisdiccion fuese pressas...*".

---

[196] GAO: JD FJI 7,6. Etxaniz eta Ikuza 1683an agertu dira era bai.

[197] 1689ko Batzarrek, adibidez, Hernani, Usurbil, Urnieta, Andoain, Billabona, Asteasu, Albiztur, Bidania, Goiatz eta Errezilgo alkateen utzikeria salatu eta onartezinak zein biziki zigorgarriak ziren lapurretak eta erasoak aintzat hartzeko gogorarazi zien, bere eginbeharrekoen artean sartzen baitziren. GAO: JD AM 78, 4.

1688an berreskuratzen den ebazpenaren eta 1687koaren artean, beraz, nolabaiteko kontraesanak agertzen dira. 1688koa aurrekoa baino leunagoa da, frogak eskatzen baititu prozesu judiziala irekitzeko. Giza-talde bateko partaidea izatea ez da nahikoa erruduna izateko, eta, orokortasunean erori gabe, jarrera egokia erakutsiz gero Gipuzkoa-Etxean bizi daitezkeen ijitoak daudela aditzera ematen du. Hortaz, 88koa 1683koaren errepikapena izan zela esan dezakegu, argudioak eta esaldiak hitzez-hitz kopiatuta agertzen baitira.

Era berean, Aldundiak kontrolatutako komisarioen bitartez aritzeko modu honek, froga garbiak auzian erakustea eskatzen eta zigorrak betetzea Korrejidore eta alkateen esku uzten duenak, alferrikako gastuak saihestea eta lurralde osorako gutxiengo koordinazioa bila lezake. Era berean, komisarioen sistemak Probintziaren barruko eskumenak gainditzeko tresna guztiz egokia zela ematen du, hiribilduen mugen gainetik aritzeko ahalmena zuten eta. Komisarioen aurretik, eskumenen mugen oztopoa salbuespen moduan gainditzen zen[198]. Hortaz, eskumen anitzeko lurralde batean jarduteko komisarioen antolakuntzak egokia zirudien. Azkenik ere, jazarpenaren helburu ziren aleak tokiaren zein senideen loturatik askatuak zeuden heinean, alkateek haiengan ezar zezaketen kontrola eta beldurra guztiz zen txikia eta eragin gabea.

Sistemak, baina, ez zuen aurrera egin, arazo propio eta berriak sortu zituen eta. Horrela, 1688ko Batzarrak eta Aldundiak ermandadeko alkateek zuten gaitasuna tokiko alkateek bereganatzeko eskaria luzatu zioten erregeari[199]. Beraz, Batzar Nagusiek komisarioak baztertu eta berriro alkateengana jo zuten, 1689ko Zarauzko eta 1693ko Bergarako Batzarretan ikus daitekeen moduan[200].

---

[198] Hala jaso zen gorago aipatu ditugun bi adibideetan (1617an –Azpeitia eta Debaldea- eta 1661ean -Hernani, Astigarra, Oiartzun, Pausu-).

[199] GAO: JD AM 78, 1.

[200] GAO: JD AJF 7, 7. AJI 2, 12. "*Este dia acordo y decreto la junta que los alcaldes ordinarios de esta Provincia atiendan con todo cuidado y vigilancia si algunos gitanos andan o se acogen a los terminos de su jurisdicion y casso que los haya los sigan a todo diligencia asta prenderlos y haciendoles causa breve y sumamente los condenen a galeras por seis años, conforme la ley real, y los remitan a la caxa real de Soria.*
*Y en quanto a las gitanas, que qualquiera de las dichas justicias cogiendolas mande rapar y las destierre del distrito de esta dicha provincia para siempre, con apercivimiento de que casso que buelvan a entrar en los terminos de dicha provincia, se les agravaran las penas y seran castigadas mas severamente*". 1683,

Komisarioak alboratzean, bi helburu bete nahi ziren:

- bata, ekonomikoa: gastuak murriztea. Izan ere, ijito eta arloteen jarduera aldakor eta sasoiaren araberakoak komisarioen soldatak desegoki bilakatu zituen. Honi, komisario hauen gehiegikeriak medio, auzi berriak biziki areagotu zirela gehitu behar zaio.
- bestea, politikoa: Korrejidorearen lana eta protagonismoa bideratzea eta gutxitzea.

Honek agerian uzten du Gipuzkoako botere banaketa ez zegoela prest ohiko egitura baztertzeko, ez eta espero ez ziren gastuetan murgiltzeko ere. Era berean, prozedurak eskatzen zuen errespetuak izugarrizko garrantziari zor zitzaiola. Seguru asko Probintziaren eta Korrejidorearen arteko lehia ez areagotzeko.

Komisarioek burututako lana gertutik ezagutzeak hau dena hobeto ulertzen lagunduko digula uste dugu, haiek egindako ikerketek agintarien zalantzak ederki islatu eta, era berean, baliabide betearazle hauen egokitasuna neurtzeko tresna aproposak direlako.

Alde batetik, Komisarioren tarte honetako ekimena arrakastatsu eta eraginkorra izan zela aitortu behar da. Horren adibide, 1689an hainbat lapur eta arloteri buruz agertzen diren berriak ditugu: preso egin eta epaitu ondoren, dagokien zigorra betetzea –Afrikan, galeretan eta armadan– antolatzen ari baitzen: arloteen aurkako agindua bete ondoren, Soraluzeko Domingo Solaguen eta Donostiako Roke Guerrero galeretara izan dira kondenatuak, eta berdin Baigorriko Juan Hermagarate arlotea ere. Altzako Migel Otazu eta Doneztebeko Franzisko Berroeta arloteak, aldiz, Afrikako presondegietara bidaliko dira; eta Inazio Ondarra ejerzitora[201].

eta 1687-89 bitartean, gainera, Segurako eskualdean ermandadearen izenean aritzen zen Pedro Aranburu, Ordiziako eskualdean aritzen zen Lukas Oriar eta Azkoitikoan aritzen zen Franzisko Agirrek burututako atxiloketak (besteak beste: Martin Otaegi "Unantxo", Juan Olara "Otro" edo Juan Arsuaga "Peranton"-enak) agertzen dira Batzarraren zein Aldundiaren aktetan. Baita hainbat herritako auzi kriminaletan eta galeretako zigorrak ezartzean izandako gastuak ere. Hau da, jazarpenarako molde zaharrak ez dira alboratzen.

[201] GAO: JD DJ 136, 1.

Era berean, Bergarako eskualdean aritu behar zen Etxanizen lana, adibidez, eredugarritzat jo dezakegu, haren ekintza azkarra, garbia, gogorra eta inolako helegite gabekoa baita: Bizkaiatik Elgetara pasatutako ijito-taldea jazarri eta berehala sakabanatu zuen. Hau gutxi balitz bezala, Zarauzko Batzarrean ahoz aurkeztu zuen txostenean, soldatari uko egin zion, saririk onena berriro Probintziaren deia jasotzea izango zuelakoan[202].

Komisario guztiak ez ziren, baina, hain prestu, trebe eta eraginkor. Etxanizekin batera aukeratu, eta Irun-Tolosa bitartean aritu behar zuen Antonio Ikutza, berriz, izugarrizko iskanbila sortu zuen eta eratu zuen *razzia*ren zilegitasuna oso zalantzazkoa izan zen.

Ikutza urnietarrak Irungo Olaberria auzoko Paradisu baserrian bizi zen Pedro Iturbide "Larralde" eta bere sendiak hartu zituen helburu[203]. Berak zuzendutako asaltoak, gauez eta hainbat laguntzaile armatuk lagundurik, benetan beldurgarria izan omen zen. Baserria hobeto inguratzeko, auzokoen laguntza ere izan zuen, hauek esnatu eta indarrez eraman bazituen ere. Modu horretan, sua eskutan, baserriko atea bota eta tiroka sartu ziren barruan; orduan, Iturbide eta bere semeak beren burua lehiotik bota eta ospa egin beharrean izan ziren.

Ondorioz, Iturbidek berak jo zuen auzitegira, ijitoa izanda ere Ikutzaren ekintza legez kanpo zegoela, eta Probintziak emandako aginduan ez bera ez eta bere sendia ere sartzen zirela ukatuz. Izan ere, agindua herriko giro ona zapuztu –"*preseguir a los jitanos y bagamundos que perturbasen la quietud*"–, etxe trinkorik eduki ez, edota besteen lepotik bizi zirenen aurka zuzentzen zen; hau da, aspaldiko partez ezagunak egiten zaizkigun baldintzak urratzen dituztenen aurka.

---

202 GAO: JD FJI 7,7: "*mucha tropa de gitanos escluidos de Vizcaya, les habia seguido y hecho desaparecer de aquel parage, refugiandose a diferentes pueblos comarcanos*".

203 GAO: CO CRI 82, 4 eta 83, 6. Iturbide "Larralde" maizterra Ustaritzen jaioa da, orain dela 60 bat urte; azken 38ak Hondarribialdean eman ditu.

Iturraldek, lekukoek frogatu bezala, azken hamasei urteetan inguruko hainbat baserritako maizterra izan da eta beti baketsu eta kristauen eran bizi izan da; hauek ere ezagunak egiten zaizkigun argudioak dira.

Hau dela-eta, Ikutza komisarioa bera izan zen epaitua, eta zigorrik ez jaso arren, Korrejidoreak Probintziako ahalordetzak hemendik aurrera behar den moduan betetzeko aginduko dio –"*execute las comisiones de esta dicha Provincia puntualmente y sin exceder en cosa alguna*"–. Batzarrak, bestalde, ahalordetza bertan behera utzi eta bere soldataren zati bat Iturbideren auzia argitu arte ez ordaintzea erabakiko du. Hortaz, Iturbideren errugabetasuna oraindik ez dago guztiz frogatuta.

Izan ere, eta komisarioaren jokabidea okerra izan dela aitortu arren, korrejidoreak berak Iturbide auziperatuko du. Kasu partikular hau ingurua ulertzeko tresna baliogarri moduan berriro hartuz, "ijitotasuna"ren inguruko zalantzak agerian geldituko dira. Alabaina, Ikutzak topatu zituen zantzu okerren artean, Iturbideren sendia "jerigonza" mintzatzea[204], bere alabek ijitoen soinekoak eramatea, eta beste herri batzuetatik egotziak izatea ditugu. Jaso omen dituen datuen arabera, gaineratzen du Ikutzak, Iturbide ijitoz jantzita eta eskean ibilia dela. Une batez, "Larralde" sorginen gaitasunez jota dagoela ematen du, bere Paradisuan aterpetu dituen ijitoekin Gipuzkoa erdian, Bizkaiko partean eta Araitz eta Leitza aldean ikusi omen dute eta. Lapurretarekiko harremana mugikortasun ikaragarri honekin lotuta agertzen da, oso lausotuta baina: guraize batzuk, armaren bat edo beste, ardiak,... ijitoak pasatu ondoren zerbait desagertzen omen da beti.

Iturbideren defentsak lana eta finkotasuna aldarrikatzen du, gizarteratzearen balore gorenak horiek direla azpimarratuz; horrela, "Larralde" ez da inoiz Gipuzkoatik atera, ez du inoiz behin-behineko etxoletan lo egin edo bizi, etxeetan eta

[204] Ezaguna da oso euskal ijitoek hitz egiten zuten erromintxela. Honen hiztegi labur bat, besteak beste, Koldo IZAGIRREk jasotzen du: *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak.* Donostia: Elkarlanean, 1999.

errenta ordainduz baino, ez da arlote moduan ibili, eta, ezta ere nekazal-morroiarena den beste jantzirik erabili[205].

Tenore honetan, normala zen, beraz, hain garesti eta luze jotzen zuten auziak usatzeko asmoz komisarioen aukera baztertzeko eta auziperagaiak gertutik ezagutzen zituzten alkateak hurrengo urteetan lehenesteko hartutako erabakia.

Esan dugun moduan, Batzar Nagusiek hala berresten dute, 1693 eta 1694an, Bergaran eta Hondarribian[206], ijitoen arazoa, eskaletasuna eta kontrolik gabeko mugikortasunarena elkarren ondoan, ohi den bezala, jorratzen direlarik. Batzar hauetan azpimarratzen den alderdi kaltegarria bizimoduarena dugu, bai ijitoena, "*persiguiendolos por el escandaloso modo de vida*", baita, oro har, eskaleena ere: "*por no saberse el estado que tienen y acompañarse hombres y mujeres, como si verdaderamente fueren casados, sin que conste que cumplen con las obligaciones de buenos cristianos*".

Eskatzea ezinduentzako baino ez da aukera, betiere norberari dagokion eremuaren barruan ematen denean; gainontzeko guztiek lanari ekin behar diote, arloteen artean sailkatu eta zigortu egingo ez badira.

Hogei urte lehenago bezala, gazteenek kezka berezirik sortarazten dute, bost urte baino gehiago duten eskaleen seme-alabak alkateen ardurapean gelditu behar direlarik, lanaren bat ikasi eta arloteriarengandik urruntzeko[207].

Aurrerantzean, Batzar Nagusiek eskaintzen dizkiguten ebazpenek bide berea jorratuko dute. Alta, lehen ikusten ez genuen zehaztasuna gero eta mamitsuagoa agertzen da. Lehenik eta behin, Karlos II.ak 1695ean ijitoen aurkako eman zuen

---

[205] Ijito izaera ez du ukatzen; esate baterako, Ustaritzen oso arrunta izanik hizkuntza mintzatzen dakiela, edota beste ijitoekin hartu-emanak izan dituela onartzen du. Erlazio hauek bere emaztearen bidez izan dira, honek Lapurdin erosten dituen gaiak gero saltzen dituelako. Era berean, zigorraren beldur, gizonezko ijitoak ez dituela etxean inoiz hartu aitortzen du; bai ordea emakumezkoak, ijitoz jantzitakoak baina inoiz ez jaiotzez ijitoak direnak, bere emaztea bezalakoak "*aunque algunos dias el confessante se acompañava con ellos [gitanos] y tambien dormia, otros se retirava a su cassa y esta amistad fue nazida por estar el confessante cassado con muger jitana, aunque de nacion no, si por el traje y modo de vivir*".

[206] GAO: JD AJI 2, 12 eta 2, 13.

[207] "*y ponerlos en parte donde sirvan o aprendan algun oficio con que se puedan mantener, para que no sean vagabundos y andariegos*".

ebazpena bereganatzen da. Honekin, ijitoei buruzko auzia 20 bat urtez desagertzen da gure epaitegietatik[208].

Gero, 1699 eta 1700. urteetan Hernanin eta Elgoibarren burututako Batzar Nagusiek azken 25 urte hauetan erabili diren etiketak zorroztu eta hobetu egiten dituzte, gizarte kontrolaren gorputzari gero eta itxura zehatzagoa eskaintzen.

[208] Eranskinean.

### 1. 2 Abegikortasunaren gainean eraikitako Urkamendia.

Aurreratu bezala, Elkanoren XVI. mendeko lanek ez zuten inolako jarraipen sistematikorik izan, eta XVIII. mendera arte ez dugu gisa horretako txosten berririk topatuko. Probintziako erakunde nagusiak lan hauek bultzatu ez zituen heinean guztiz logikotzat jo dezakegu etena. 1709. urtera arte itxoin beharko dugu antzeko egitasmoren berri izateko [209].

Urte horretako azaroan, dirudienez herri askotako kezkak jaso ondoren, Azkoitian zegoen Foru Aldundiak ospitaleak erreformatzeko egokitasunaren inguruko galdeketa jarri zuen abian, Gipuzkoako hiribilduetara helarazi zuen itaunketa baten bitartez. Ikerketan jasotako erantzunak, Aldundiaren iritziarekin batera, Batzar Nagusira igorri ziren. Emaitzak ezin gordinagoak izan: hiribilduetako finantzak kaltetzeaz gain, ospitale gehienetan ez dago inolako abegikortasunik, gaizkileek eta arloteek baino ez baitute bertan aterperik.

Ondorioz, komunikabide-sareko gune garrantzitsuenetakoak izan ezik, ospitaleak ixtea onesten da. Eusten dietenek pobreak itsasorantz ala Frantzia alderantz bideratzea bermatuko lukete: Gaztelatik etortzen direnentzat, Eskoriatza, Arrasate, Urretxu, Zumarraga, Ordizia, Segura, Tolosa, Hernani, Oiartzun eta Irun; Bizkaiko kostaldetik datozenentzat Mutriku, Getaria eta Donostia; Elorrio ala Ermutik sartzen direnentzat Eibar, Azpeitia –Oria arrora iristeko– eta Bergara –Arrasatera joateko–.

Mende bat lehenago bezala, baserritarrek aterperako eskaintzen zituzten gelak debekatzea agintzen da ere bai.

Gainera, egokitzen diren ospitaleetan, aterpea egun bakar batekoa izango da, berau, betiere, ostatua hartzen duena “benetako pobrea” edota “bidaiaria” dela alkateak bermatu ondoren.

[209] GAO: JD IM 1 21 14.

Hitzez-hitz, Aldundiaren analisia horrela dio:

> "*entendio la quexa de sus pueblos por los continuos rovos que se cometian y que contribuian al abrigo y a la escuela de los malechores los muchos ospitales de su jurisdicion, porque si bien se introduxeron para acoxida de verdaderos pobres y peregrinos, la malicia de los tiempos y la inclinacion al ocio conduxo a muchos a mover con fingidas necessidades la incauta piedad al mal empleo de las limosnas, y criandose con ellas los hixos de estos dissimulados bagamundos, crecian en tan perniciossa escuela para que quando su robustez no permitiese el disimulo, ni su educacion otra tarea, se entregassen a perturbar la publica seguridad y quietud con sus perjudiciales exercicios, y en tanto numero y con tanta insolencia que se hizo impossible a la justicia, por mas que belase, el escussar que se introduxesen en los mas atendidos ospitales ellos y muchas malas muxeres; y mas en otros que situados en paraxes despoblados o en pueblos muy cortos con la justicia distante o poco autorizada, los quales combidavan, en algun nodo con su aloxamiento, a los delinquentes y a que mendigassen fuera de sus propios lugares los que devian, siendo pobres verdaderos, mantenerse en ellos segun justicia, y a que se metiessen a mendigos lo que no eran ni se atrevian a manifestarse por tales donde eran conocidos, por lo qual se aumentava el numero de los pobres inxustos entreteniendose los que no podian ser salteadores unos en juegos y continuos eccesos y otros en aorrar y esconder dinero que manifestavan quando morian, como el fingimiento que con que avian vivido. Y vagando todos, assi vezinos como naturales de la Provincia, en continuos giros viciosos de lugar en lugar y consiguientemente fatigando y entiviando la caridad con que los mexor inclinados se compadesen de los pobres*"...
> ..."*Y tambien acordo la Junta que cuidasen las justicias de que ni en los ospitales reservados para los passaxeros se diesse aloxamiento mas que por un dia y una noche; y ni por este breve tiempo si no es a los verdaderos pobres y passaxeros*".

Aldundiaren txosten hau Batzar Nagusiek berretsi eta ebazpen moduan emango dute[210].

Bestalde, itxiarazten diren ospitaleei aurretik egokitutako errentak herriko pobreentzako zuzendu beharko dira. Neurri hauen zilegitasunaren inguruan zalantza franko izango da, ospitaleen sortzaileen aginduaren aurkakoa izan daitezke eta. Hortaz, Zumaiako Batzar Nagusiek aipatutako neurrien zuzentasunaren inguruan deliberatzeko Deba eta Azkoitiako batzarkideak izendatzen ditu. Izan ere, ospitaleei

---

[210] GAO: R 41, JD AM 93.

atxiki berri zaien estatusa zein helburuak sortzaileek agindutakoarekin bateragarriak diren aztertu behar zen.

Bi xedapen hauek Gipuzkoako *ospitalitatea*ren bersorkuntzarako oinak dira.
- Lehenik, ostatugai direnen kategoria berri bat sortu duelako, bidaiariena -"passaxeros"-, aterpeetako ateak eskaleei erabat itxiz.
- Bigarrenik, ospitale andana ixterakoan, haien sortzaileen nahia modu orokorrean desbideratzen delako.
- Azkenik, abegikortasunaren bultzatzaile berriak Gipuzkoako erakundeak direlako, toki mailako arautzea behin-betiko gainditu.

Erabaki den berrikuntzaren tamainaz ohartuta, Batzarretako ordezkariek aterpe-gune hauen historia laburbiltzen dute: "*Los nombrados por la Junta han reconocido todos los informes que se an presentado a la Provincia, y no hallan fundacion alguna que llame a peregrinos ni que señale ospicio por disposicion de los fundadores para passaxeros, sino que todos los ospitales de la Provincia se introduxeron por la piedad de sus naturales, y la costumbre y los decretos de las republicas los an destinado para que se acoxan en ellos los pobres, assi naturales como estraños, que andan mendigando*"[211].

Abegikortasun berri honek ez zituela erreformatzaileen arimak kondenatuko, eta ez zela ospitaleak sortu zituztenen nahia ezeztatzen ziurtatzeko, ebazpen osoaren berri Jesusen Lagundiko Salvador Ribadeori igorri zitzaion, bere iritzia eman zezan. Honek ebazpenarekin bat egingo du, bere zuzentasuna eta egokitasuna berretsiz[212].

Izan ere, bekatua "pobrez jantzitako gaitz-ibiltariari babestean" legoke, Ribadeoren esanetan, hartu diren neurriak ospitaleen zerbitzuak mantentzeko ezinbestekoak izanik. Hau dela eta, ebazpenari erabateko kutsu kristaua dariola uste du berak, baita politikoaren gainetik ere: "*tengo por no menos christiano que politico el*

---

[211] Jarraitzen du: "*Y en alguno de ellos se an fundado capellanias y anibersarios y casi todos son muy pobres y se mantienen de limosnas continuas, pero todos se examinan por los visitadores eclesiasticos que suelen dar sus permisos para mudanzas de fabricas y reconocer sus libros. Y todos se administran por las republicas, menos algunos, quatro o cinco, que son de patronos particulares*".
[212] Loiolan, 1710eko uztailaren 13an. Txosten guztia jurisprudendetziaz eta aipamen ugariz hornituta.

*acuerdo con que la mui Noble y Leal Provincia de Guipuzcoa ha decretado desterrar de los Hospitales de su territorio los perniciosos desordenes en ellos introducidos, providencia a que por su authoridad estaba obligado el desvelo de su gobierno, para que no se le impute que favorece el desorden... dispone que los hospitales alvergues de la beneficencia no sean aloxamientos de malhechores; que para que esto –sin faltar un punto a la piedad- se consiga, dexo, en las partes menos sospechosas de maldad extraviada, abiertos los precisos hospitales...pues solo prohibe que estos se admitan en los que por estar en partes retiradas de los caminos inevitablemente, y sin poder curarlo, mas han servido de alvergue a la maldad bagante en trage de pobre, que de socorro a las necesidades. Y asi fue obligacion indispensable cortar este mal para que no inficionasse la piadosa bondad de los hospitales...*".

Ospitaleen kopurua murriztu eta gune kontrolgarrietan paratzeak, hain zuzen ere, aterpeen jatorria sendotu eta beren sortzaileen borondatea indartuko du, bertako pobreek beti izango dutelako babes. Erreformak ospitaleen funtzioa, bat eta bakarra, bermatzen du: pobreen babesa, ez beste inorena[213], izatea.

Hortaz, XVI. mendean ez bezala, Gipuzkoako erakunde probintzialak zuzen-zuzenean eragiten du ospitaleen aferan: ikerketaren-ekimena, erantzun-bilketa, hausnarketa, aholkularitza, proposamena eta erabakia. Ildo beretik, orduan ez bezala ere, ospitaleek sortu duten kezkarik nagusiena ez dago antolaketari lotuta, erabiltzaileei baizik, bertan ostatu eta ezkutaleku hartzen dutenekin.

Aldaketa, zentzu guztietan gainera, ez da batere makala. Ezinbestekoa egiten zaigu, bada, txosten hauek egiteko eman diren arrazoiak ezagutzea. Izan ere, Ospitale-sarearen gainbehera begi bistakoa da; itaunketa honetan, esate baterako, Diputazioak oso erantzun gutxi jaso zituela gogoratu baino ez dugu egin behar, dozena bat herrik baino ez baitzuten informaziorik bidali[214].

---

213 "*hace que los hospitales sean verdaderamente hospitales, esto es, refugio de pobres y no de malhechores, en que nada se opone a la voluntad piadosa de los que los fundaron: lo uno, porque quisieron que verdaderamente fuesen hospitales, y no abrigo de maldades; lo otro, porque –como en la consulta se advierte- no piden expresamente que se acojan en ellos estraños, sino indiferentemente pobres, y los pobres naturales, por ser naturales, no dexan de ser pobres*". Testu guztia eranskinean.

214 Herri guztiek ez zuten erantzun; litekeena dagorde diren erantzunak (Asteasu, Zumaia, Zarautz, Idiazabal, Baliarrain, Aia, Zestoa, Elgoibar, Bergara, Antzuola, Soraluze, Azpeitia,

1709ko itaunketak jasotzen dituen datuen artean, adibidez, oraindik baserrietan eta Jaun-Andereen menpeko ospitale pribatuetan aterpea ematen dela jasotzen du[215]. Laguntza mota hau tokiko agintaritzarako nolabaiteko muga gaindiezina dugu.

Pentsatzekoa da, orobat, hainbat ospitale udalbatzaren eta alkatearen eskumenetik kanpo egoteak eta beraz alkateek ikuskatu ezin izateak erabilera okerraren arriskua areagotzen duela. Zilegizko erabilera orokorra, baina, ezin da bermatu ezta alkateak bere grina guztia jartzen duenean ere. Oso esanguratsuak dira Ribadeori emandako txostenean txertatzen diren adibideak: "*Este cuidado de la Diputacion despertaron tambien dos cassos que se sucedieron a la sazon en Azcoitia, que tiene ospital suficientemente acomodado y en buen paraxe, y en el un sacerdote* [ROTO] *y un ospitalero de vastante representacion, que con el alcalde y el mayordomo que suelen ser de los primeros cavalleros del lugar, cuidan de evitar escandalos en el*". Hau irakurtzeak nolabaiteko istilu larriak eman zirela pentsarazten badu ere, aipatzen diren bi aferak bestelakoak dira.

Lehendabizikoan, ospitaleko sukaldean berotzen ari den neskato batek bertan aterpetu den bikote bat salatzen du. Aurreneko gauean hirurek aurkitu zuten aterpe baserri batean; orduan bikoteak senar-emazte gisa lo egin arren, orain ezezagunen plantak egiten dituzte eta gizonezkoa eliz-gizonaz jantzita dagoela. Hau dena ospitaleko apaizari kontatu eta honek argibideak jarri zituen martxan.

Bigarrenean, emakumezko batek bi bikote ikusi ditu ospitalean sartzen eta ezkondu gabeak direlakoan salaketa plazaratu du.

---

Sasiolako komentua eta ospitale pribatu batzuk) jaso ziren bakarrak izatea. Gainera, Idiazabal eta Baliarrainek ez dute ospitalerik.

[215] Ohartu, gainera, hauetako bat, Elgoibarkoa, hiribilduko ospitale nagusia izateko agindu zela.

Beraz, benetako arazo larria, txostena eta erreforma bultzatzen duena, errotik eraldatu behar dena, ospitaleetan ezkutatu eta zilegizkoa ez den bizimodua eramateko sare hau erabiltzen direnek osatzen dute.

Honekin batera, eta abegikortasunaren inguruko arazoetara itzuliz, kudeaketa-arazoak ez direla garaitu gaineratu behar dugu, udalbatzak, ospitaleak bideragarriak egiteko orain gai ez direla igar daiteke eta. Ongileen interesak beste norabait zuzentzen ari direla pentsatzeko datua ote?.

Laburbilduz, ospitale tradizional hauek erabat zaharkituta gelditu dira, kudeaketa egokia bilatu ezinik eta gaizkileen ezkutaleku bihurturik. Bistan denez, ez dira portaera ez-egokiak zituztenen jarrerak zuzentzeko tresna egokia. Beraz, kontrol neurri berriak mahai gainean jartzea dugu espero daitekeen ondorioa da.

Egoera zuzentzeko martxan jartzen den abegikortasun berrituaren ondorio nagusienetariko bat "Erruki Etxeak" martxan jartzea izango dugu. Miserikordia hauek jada ez dira oinarrizko tokiko aterpe guneak izango, eskualdeka antolatzen diren eta Foru erakundea buru duten Etxeak baizik[216]. Beraz, gizarteratzea merezi dutenen eta ez dutenen arteko ezaugarriak ondo zehaztu beharko dira.

Era berean, etxe hauek eratzean, laguntza-gune bereziek guztiz beharrezkoak izaten jarraitzen dutela gelditzen da agerian: gorantz doan pobre kopuruak, laguntza merezi dutenenak, edota laster arazo larria eta itzela bilakatuko diren umezurtzek ere, Gipuzkoa Etxeko arreta piztu eta bereganatuko dute.

Historiografiaren aldetik Erruki Etxeek gutxiengo ardura jaso berri dutela esan dezakegu, nahiz eta gauzatu diren azterketek lehenetsi duten alderdiak erakundearen funtzionamenduari buruzkoak izan. Gipuzkoak Errukia garatzeko plangintza orokor bat martxan jarri duela uste dugu guk. Hau dela eta, abegikortasunaren berritzea islatu, pobreen diziplinarako itxialdiak prestatu, formakuntza erlijiosoa eta teknikoa eskaini, edota gainzergak sortarazten dituzten heinean, Miserikordia Etxeen

[216] Donostia, Azkoitia, Arrasate, Tolosa.

antolaketari buruzko ikuspuntua oraindik aberas daitekeelakoan gaude. Betiere, aldaketa guzti hauek gizartearen oreka eta kontrolaren garapenean barne kokatzen ditugularik.

Dena den, gure arreta ez dugu orain Errukian jarriko, bere bilakaera nabarmena eta argia iruditzen zaigu eta[217]. Gipuzkoako Etxean aterperik ez dutenek, harreman gizarteratzaile pilatu ez dutenek eta lan produktiboan hezituak ez daudenek zein jarrera hartu zuten ezagutzeko eta, laguntzaren zirkuitotik aldenduak ziren heinean nola erantzun zitzaien argitzeko asmoz, Gipuzkoak gizarte kontrol hertsatzailea eraikitzeko erabilitako bideari begiratzen jarraituko dugu.

Izan ere, ospitaleak erreformatzen zituzten diskurtso hauek bigarren aldarte bat adierazten zuten. Abegikortasuna berritzeaz gain, eta XVI. mendeko txostenek ez bezala, ospitaleak mintzagai izan dituen 1709ko txosten horrek krimena eta pobrezia estu lotzen ditu, 1673an jarritako oinari segituz, txiro-maila guztiek, lapurrek, gaizkileek, ijitoek, edota ezkondu gabe eta etxerik gabe elkarrekin herriz-herri dabiltzanek, gehi zehazten diren jende malapartatu maila berriek, denek, gizartearen bazter berberean bizileku dutela azalduz.

---

[217] Donostiako Etxea 1714an bertan abiatzen da. Bere bilakaera jarrai daiteke, besteak beste, ondoko sortetan: GAO: JD IM 1 21 15 - JD IM 1 21 16 - JD AJI 2, 5 - JD IM 1 21 21 - CO LCI 4671. Etxe honen araudia gordetzen da, baita Gipuzkoako herrien iritzia ere. 1714an eraikitako etxea 1719an izan zen suntsitua. 1734-35 bereraiki zen. 1738an, pattarraren gaineko zerga Etxea hau finantziako bideratu zen. XIX. mendean berriz ere eraldatutako sistema dugu.
XVIII. mendearen zehar ere, berriz, Iruñeko ospitalea, Zaragozako Ospitalea edo "Casa de Corrección" zenekoak ospitale zein espetxe edo erruki-etxe moduan erabiltzen ziren eta honek sortutako gastuak eskupeko berezien bitartez finantzatzen ziren.
Ospitalaritza tradizionalari buruz, 1587an sortua eta 1736. urtean erabat berritua izan zen Albizturgo ospitalearen egoera aipa dezakegu (GAO: PT 852, 185).

### 1.3 Alferkeria, gaitz guztien ama

Zigorraren xedeak zehazteko bide horretan, portaera okerrak eta delituak gero eta argiago zehazteko saioak ugaltzen dira Probintziako agintarien artean. 1699ko Batzarrak, adibidez, eskale faltsuen gehiegikeriaz eta ospitaleek hauei eskaintzen zieten doaneko babesa salatzeaz gain[218], txanpon-iruzurra eta arloteria zuzenean lotzen zuen. Hau da, zehaztu gabeko bizimodua edota lapurretaren ordez, delitu zehatza, eta larria, leporatzen zien.

Baina, zalantzarik gabe, zehaztasunik handienak Elgoibarko Batzarrean topatzen ditugu, 1700. urtean[219]: "*todos aquellos que no tienen rentas, ni exercen, o no tienen oficios, para sustentarse, ni impedimento en su personas para trabajar y servir, y anden dando repetidas vueltas por las Republicas de V.S. con nombre de pobres, pidiendo limosna, con perjuycio de los que verdaderamente lo son, acogiendose, ya en los ospitales, ya tambien en las caserias. Y estos muchas veces executavan latrocinios, y insultos, y otras veces sirven de espias, para que otros cometan robos, assi en los poblados, como en los caminos publicos*".

Funtsean, definizio hau ez dago Tolosako udalbatzarenak 1596an emandakotik oso urrun. Orain, ordea, Lurralde guztirako baliogarria den ebazpen baten aurrean gaude, saio honek arau trinko eta komun bat finkatzeko helburua baitu. Gipuzkoako erakunde nagusia tokiko aginteei garaitzen ari zaie, berezko lege eta araudi bereziak garatzen eta indarrean jartzen duen botere batua bezala agertuz: tokiko botereen aurrean eta Erresumaren parez pare, hain zuzen ere. Bere buruaren jabe izateko nahia 1687-88an iragarrita zegoen, Ordenantzak eta Forua berritzeko eta gaurkotzeko plazaratutako aldarrikapenarekin.

Idatziz jarri berria den 1696ko Foruaren baliogarritasuna frogatzeko aukera ematen du 1700. urteak, Salamancan zeuden Henao eta Samaniegori Gipuzkoan zehar eskupekoak eskatzen ari zirenen egoera arautzeari buruzko aholkularitza eskatu

---

[218] Sasiolakoa bereziki. Alkateek baimenik gabeko eskaleak ez onartzeko eta ospitaleen erabilera oztopatzeko agintzen die. GAO: JD AJF 7, 17.
[219] GAO: JD AJF 8, 1.

zitzaienean[220]. Aditu hauen arabera, batez ere Henaok emandako irizpideen arabera, Gipuzkoako eskumenak erabateko nagusitasuna zuen eskaleek erakusten zituzten eskatzeko baimenen aurrean. Gipuzkoak bere Foruak erakutsi eta aldarrikatu behar zituen, horiek baitziren lehentasuna zuten kodeak. Lurraldeko antzutasuna zela medio, gaineratzen du, Gipuzkoako baliabideak gipuzkoarren mesederako erabili behar ziren, eskaleak ziren atzerritarrak, Gaztelarantz zuzendu behar zirela erantsiz, eskupekoak eraginkorrak izango baziren[221]. Honekin batera, eskaleek etxez-etxe eta baserriz-baserri joateko jasotzen zuten laguntza bertan behera utzi behar zela deritzo, ohitura berri hau guztiz kaltegarria baitzen[222].

Gainera, mende bukaera honetan kanpotarren eta bertakoen mugak jada erabat lausotu direla ematen du. Gipuzkoako seme-alabak zirenak ere, gazteenak gehienbat, aurki daitezke kaltetuen multzo honetan. Etxe baten babespean *social capital* delakoa metatzeko aukerak gero eta urriagoak zirela ematen du, maiorazkoak eta udalbatzak bideragarriak izateko ordurako zituzten zailtasunaren seinale.

Krisialdi honekin batera, gizarteratzea bermatzen zuen balore berri bat indartzen ari zen: lan egitearena. Lan egin ahal izateak gizabanako batek behar zuen guztia lortzeko bidea ematen omen zuen. Balore hori erabili nahi ez zuenak ez zuen gizartean tokirik; are gutxiago gizarte honen laguntza merezi. Aldiz, bere tokia zigortuen artean egongo da. Balore honek, gainera, kristautasunak –komunitate gorenak beraz– agintzen zuen errukia mugatzeko balio zuen. Komunitateak beste ezaugarri bat jarri dio bere buruari: ekoizle eraginkorra izatearena, alegia. Eta lanarekiko erakutsitako jarrera gizarte-neurtzaile bezala erabiliko da. Lan egitea izango da orain gizabanakoak gainontzeko kideekiko atxikimendua eta begirunea

[220] GAO: JD IM 4 3 28 eta 4 3 43.

[221] "*sera combeniente prevenir con todos estos motibos a las justicias de los lugares que estan en su jurisdicion, que quando ocurran mendicantes forasteros, les prevengan sin extorsion ni violencia ni otra coaccion alguna, las muchas neçesidades, asi de los veçinos de la Probincia como de los conventos y yglesias que hay en ella; y que no podran recoger limosna alguna que les sea util. Y que assi, lo mas combeniente sera que se passen a Castilla, donde podran lograrla con los fines de sus licencias, advirtiendo a dichas justicias que por aquellos medios justos prevengan a los vecinos que si se dejan llevar de la piedad en estas limosnas no podran ocurrir quando se ofrezcan las necesidades propias...*". Probintziak Henaoren txostena inprimatu egingo du.

[222] Aterpe modu hau lehendik ere debekatua izan zen behin baino gehiagotan.

adierazteko erabili beharko duen lanabesa. Ale bakoitzaren lanak komunitatearen aberastasunean eraginiko du eta. Edozein lana, gainera, ez da onartua izango; atarramentua ateratzeko gaitasuna erakutsi behar da[223].

Azkenik, lanak eta Foruak elkarrekin nolabaiteko lotura dutela ere iruditzen zaigu, Gipuzkoaren araudi foralaren oinarrietako bat lurraldearen antzutasuna zen eta. Antzutasun hori gainditzeko, komunitateko partaideen lana ezinbesteko zen, Probintzia bideragarria egite aldera. Horregatik, kalitatezko lana burutzeko jarrera forudun komunitatean aintzat hartua izateko adierazpen bezala ikusten da, eta, era berean, komunitate horrek babesten dituen artean lerrokatua agertzeko baldintza da.

Gizarte kontrol hertsatzailea eraikitze aldera, agintarien ekintza hauen balioa juzkatzea zaila da. Alde batetik, errepikakorrak direla esan behar da eta errepikapen horrek arrakasta ukatzen duela. Eta askotan aginduak bete gabe gelditu ziren. Alta, horrelakorik Probintziaren kudeaketan, beste arlo batzuetan ere, maiz gertatzen zelan esan behar dugu. Hau dela eta, emaitzak epe motzera, behin-behinekoak eta, litekeena, eskualde batzuetan baino ez ziren ikusten.

Baina, hein berean, tarte honetan Aldundiak eta Batzar Nagusiek bere zigorrerako tresneria zorroztu egin zutela nekez uka daiteke. Metodologia bera antzematen da larrialdia eragiten den bakoitzean. Jazarpen-ekimenak martxan jartzearekin batera, jazarpena zeini egokitu behar zitzaion zehaztu behar izan zuten, bai 1673. urtean, bai eta komisarioak abiatu orduko ere. Hau da: portaera okertzat zer jo behar zen eta estuan nola hartu behar ziren gero eta argiago ikusi ahal izan dugu.

Horregatik XVII. mendearen bukaeran eta XVIII.aren hasieran hartutako erabakiak ez zirela guztiz antzuak izan pentsatzen dugu. Joan-Etorri dinamika honetan, lasaitasuna 1708an puskatzen da berriro, urte horretako udaberriko Batzar Nagusiek Gipuzkoa asaldatzen zuten lapurretak iragartzerakoan. Erasoak, baina, ez

---

[223] Fernando DIEZek "gizarte lanpetuta" deitu du ezaugarri hauek betetzen zuen multzoari. *Utilidad, deseo y virtud: la formación de la idea moderna del trabajo.* Barcelona: Península, 2001.

dira lotzen aurreko abaguneekin, berriak zirela, "berriki" gertatzen zirela, esaten da eta.

Bada, "gaiztoak" gero eta ausartagoak omen dira eta gero eta ugariagoak ere. Honetaz jabetzeko Aldundiaren 1709ko txostena dugu aski; honen esanetan, gaizkileen aterpea ez ezik, ospitaleak okerraren eskola dira, "ikasketa-plana" eta guzti. Halaber, Azkoitian ikusi bezala, gaizkileei leporatzen zaizkien krimenak arras bitxiak zirela aitortu behar dugu: delitoa "egitean" ez ezik, "izatean" ere datza-eta; bizimodua eta ekintzak, biak dira arbuiagarri eta zigorgarriak.

Ideia honen arrakasta eta erabilera erabatekoa izan zen. Auziperatuen jarrerei buruzko informazioa biltzerakoan, sarritan bizimodu "dibertigarria"[224] izatea leporatuko da delituaren froga gisa. Arintasuna, poztasuna, axolagabekeria edo aisialdia ez omen dira gizarteratzeko baliogarriak, gehienetan "gaizki emandako denbora" horretan, dantzaka, jokuetan eta algaraka ibiltzen baitzen. Hortaz, ordenu sozialarentzat kaltegarria ez izateko, tajuz lan egitearena gero eta nabariagoa den baldintza dugu. Horrela, alferrak, arloteak eta oker hauek elkarrekin nahastuta, diziplinatu gabeko –eta beraz, diziplinatu beharreko multzo nagusia– ("*ociosos y mal entretenidos*" bezala ezagutuko duguna) osatuko dute, betiere lapurretakin eta iskanbilekin lotuta agertzen direnak. Eta, zer esanik ez, kalifikazio hauek arraza ala ijitotasunaren inguruko eztabaida antzuak –ikusi bezala, ijitotasuna arrazaren arabera bizimoduaren neurgailuarekin antzematen zelako– gainditzen ere lagundu beharko du, jazarpenareko helburuak hobeto zehaztuz.

Alfer eta okerren artean nolabaiteko bereizketa egiten zela ematen du. Honen arabera, alferrak eskatuz eta noizean behin lapurreta txikiak gauzatzen bizi diren bitartean, "*mal entretenido*" delako multzoaren barne, mozkorrak, lizkarzaleak, istilu sortzaileak eta abar topatuko ditugu[225]. Beraz, alferkeriatik haratago doan definizioa da, lagun hauen jarrera aldez aurretik txarra zela erabakita zegoen-eta, portaera oker horren jatorria edozein izanik ere. Posible egiten zuen, besteak beste, ofizioa bai baina

[224] Jatorrizko dokumentazioan gaztelerazko "divertido": RAEk galizismo bezala duen esanahia "grina txarretan murgilduta bizitzea" ematen du.
[225] GAO: JD AJI 2, 15.

lanik ez zutenak gaizkiletzat hartzea, beren denbora gaizki ematen ari zirelako (*mal entretenido,* beraz). Definizio honek bete-betean egiten du bat lehen esan dugunarekin: maila gutxiko lanek ez dute baliorik gizarte lanpetua deitu dugun horretan, ez dute era positibo batean eragiten taldeak sortzen duen aberastasunean. Gaizki emandako denbora da, beraz, zuzendu eta zigortu behar dena.

Gizarteak zilegitasuna zuen lagun hauek onugarri bilakatzeko, beren denbora ongi eman zezaten. Neurgailu honekin, Gipuzkoa-Etxetik egotzia izateko aukerak biderkatzen dira.

Lanerako grina hau, eskaletasuna estutzeko aginduan ere ikusten zen, aipatu dugun Batzar berean emandako aginduan, alegia. Ospitaleen murrizketarako analisiarekin batera agertzen zen txosten honetan, lan egiteko gai ziren eskaleak zeregin horretan ez onartzea zehazten baitzen. Eta herritarrak ez zirenak ere ez dira onartuko[226]. Agintariak eskaleen mugikortasuna mugatu nahian zebiltzan, kontrolik gabeko joan-etorrietan gaiztakerietan ez zitezen ari. Baina bilatzen zena, batez ere, lan egin zezatela zen. Berez, hori zen alkateek lortu behar zutena: lanerako gai zirenek lanean jardutea. Hauxe 1709ko analisiak agertzen digun kausalitatea:

---

[226] GAO: R 40, JD AM 42. "*Reconozido los graves incombinientes que resultan de el excesivo numero de personas, hombres y mujeres, que se han amparado al [ilegible] en todos los lugares de esta Provincia, pidiendo muchos limosna, que se conservan en entera salud y pudieran travajar por sus personas para adquirir el mantenimiento necesario y con la desorden de permitirse mendiguen y pidan limosna, no solo los que son naturales de las villas y lugares de ella, donde la pide, mas tambien los que de fuera parte bienen en grande numero a residenciar en esta Provincia, viniendo en toda libertad, y algunos con sobrado escandalo, por no saver el estado que tiene y acomparse hombres y mugeres, como si verdaderamente fuesen casados, sin que conste que cumplan con las obligaciones de buenos christianos en la observancia de los mandamientos de la ley de Dios y los de la santa madre iglesia romana...que no se abuse en el pedir limosna por los que no la merecen, privando de ella o minorandola a aquelllos a quienes justamente se deve y puede ser mas agradable a los ojos de Dios nuestro señor: acordo y decreto la junta que a las personas que no fueren verdaderametne pobres no se permita el pedir limosna en las partes y lugares donde no fueren naturales y moradores y en sus tierras y jursidicciones. Y a los que no fueren naturales de cada villa y lugar de esta dicha Provinçia o moradores de ella, tampoco se permita el mendigar sin pedir licencias al cura de su parrochia y sin cedula suia aprovada por la justicia de la ciudad o villa de donde el tal pobre fuere natural o morador; y que los curas y justicias no den las dichas cedulas y licencias sino es a las personas que verdaderamente fueren pobres, y que no puedan travajar y no a otros algunos, y que antes y al tiempo que dieren las dichas cedulas y licencias, se informen con mucha diligencia y cuidado de si son verdaderamente pobres...*"

**gaitzaren arrazoia**:

alferkeria ("*ocio*")



**gaitzaren gorputza**: arloteak ("*dissimulados bagamundos*")



**gaitzaren ekintza**, taldeko ziurtasuna kolokan jartzea ("*perturbar la publica seguridad*").

Honekin batera, halere, eskaletasunaren eta katolikotasunaren arteko lotura ez zela guztiz desagertua gelditzen da agerian. Hau da: alferkeriaren ondorio latzak aipatzen baziren ere, beti bilatzen zen eskupekoak benetan merezi zutenentzat sari aski eta eraginkorra bermatzea. Azken batean, Jaungoikoa zerbitzatzea eta Gipuzkoa babestea helburu guztiz bateragarriak ziren.

Bestalde, soldaduekin gertatu eta lehen aipatu bezala, zorigaitzak jotako gipuzkoarrek ere eskatzeari ekin ziezaioketen; adibiderik nabarmena: etxea erre zitzaienek eskale ibiltzeko baimena beti jasotzea.

Gainera, 1673 eta 1693ko aginduak besten behin errepikatuz, eskaleei bost urteak beteta zituzten seme-alabak haiekin eramatea debekatu zitzaien. Arlote ez bilakatzeko, gaztetxo hauek alkateen ardurapean gelditu beharko dute, zerbitzatzen edota ogibideren bat ikasten[227].

---

[227] "*que puedan traher sus hijos consigo pidiendo la dicha limosna, siendo demas hedad de cinco años, y que a los tales hijos y hixas de los dichos pobres demas hedad que la de cinco años, tengan las justicias cuidado de acomodarlos y ponerlos en parte donde sirvan o aprehendan algun oficio, con que se puedan mantener para que no sean vagamundos y andariegos; y que les apliquen a oficios y egercicios que usan los tales; y que a todos los demas de qualquier suerte y calidad que sean y no puedieren tener licencia de mendigar y pedir limosna, por no ser naturales de las villas y lugares donde la quisieren pedir o siendolo pudieren valerse de sus personas para travajar o emplearse en algunos ministerios en que puedan ganar lo necesario para su mantenimiento, no se les permita el mendigar ni pedir limosna en parte alguna de*

Azkenik, 1709ko Batzar honek ez zituen ijitoak ahaztu, nahiz eta orain gainontzeko "gaizkileekin" bateratu ez. Ebazpena oso zuzena zen: ijitoak Gipuzkoatik egozteko. Horretarako, 1708an gogora ekarritako errege-ebazpen berbera berreskuratu zen.

Probintziak bere kabuz prestatu eta bereganatu dituen legeei esker, laguntzatik bereiztu eta, ondorioz, zigortu beharreko jarrerak zein bizimoduak ederki asko argitu dira. Zigorraren bidean eman beharreko hurrengo urratsa, "gaitza" sendatzeko erabili beharreko "botika" aurkitzean datza, bidean sortutako arazoak garaitze aldera. Arazo hauen artean, nabarmen ditugu: zigorra ezartzea ekarriko lituzkeen gehiegizko gastuak; hiribilduek nork bere eskumena babesteko azaltzen duten jarrera; Lurralde osorako indar betearazle iraunkorraren falta; araudien iraungitze azkarra; edota Erregearen esku-hartze nahia arlo honetan.

Gipuzkoako erakundearen Zigorra eta Laguntzaren banaketa gero eta nabarmenagoa uzteko agertutako borondateaz eta plazaratutako ebazpenen sakontasunez 1710eko Batzarrek jabetzen gaituzte, bertan 1709ko ospitaleei buruzko txostena berretsi, abegikortasun berrirako urratsak eman, eta ostatuen kopurua errotik murriztearekin batera, pobrezia-alferkeria-gaizkileriaren arteko atxikimendua ideia nagusi bezala jorratu zen eta[228].

Hau da: 1708ko aginduak 1709an berretsi bezala, 1710ean 1709koak berrestu ziren.. Horrela, 1708-1710 bitartean arlo honetan agindutako ikerketa, txosten, ebazpen eta dekretu orok eskaletasuna, txirotasuna, ohitura onen ustelketa, lapurreta eta abar bat nahasi egiten du, salatzen dena konpontzeko asmoz araudi luze bat erdituz.

---

*esta Provincia: antes bien, sehan havidos y reputados por bagamundos y castigados con las penas que estan establecidas contra los dichos vagamundos, compeliendolos y apremiandolos a que travajen".*

[228] GAO: R 41, JD AM 43.

**1.4 Oinarri ideologiko sendoak**.

Hiru urte hauetan zehar, Gipuzkoako erakundeek gezurrezko pobreen, ijitoen, arloteen, eta abarren kontrako baliabide anitz menderatzen zituztela eta, beharrezko balitz, tresna berriak plazaratzeko pronto zegoela erakutsiko dute. Agindu hauek, baina, isolatuak ematen ez zirela esan dugu lehen; alderantziz: gero eta hobeto zehazten ari ziren portaera okerrak estuan hartu nahi zituen soka trinko eta luzea osatzen zuten.

Berritasunen artean, aldiz, Gipuzkako errepublika bakoitzak bere espetxea edukitzeko agindua dugu. Izan ere, Korrejimenduko espetxeetan (Tolosan, Donostian, Azkoitian eta Azpeitian) presoen pilaketak osasun arazo larriak sortzen zituen. Besteak beste, gaixotasunak kutsatzea eta hildakoak egotea. Gainera, labore-aleak urriak eta bertako pobreak ugariak ziren sasoi hauetan, presoek sortarazten zituzten gastuak jasangaitzak bilakatu ziren txandako lau hiribildu hauetako.

Espetxeak egokitu beharrak presoen zenbatekoa handitu zela esan nahi du: hots, Aldundi eta Batzarretako ebazpenak zirela-eta epaiketaren zain zeudenak asko ziren. Egokitze lanaren nondik-norakoak zehazteko, ohiko txostena burutu zen, herriz-herri Gipuzkoako ziegak nolakoak ziren eta zer moldaketak behar zituzten jakinarazten[229].

Legeak sortzea ala egokitzea ez zen izan Probintziako agintaritzak jorratutako bide bakarra. Bere baliabideen artean sariak ematea ere aurkitzen ditugu: Afrikara ala galeretara zigortzen zen atxilotu bakoitzeko Batzarrek eta Aldundiak diru-kopuru berezi bat ordaintzen zuten, betiere auziperatze eta epaia ziurtatzen zituzten agiriak aurkeztuta. Hasiera batean neurri honek auziperatuaren onerako dela ematen badu ere (erruduntzat jotzen direnengatik baino ez baita saririk jasotzen),

[229] GAO: JD IM 2 8 26. Txosten honen berri eta espetxeen bilakaeraren berri ondoko artikuluan eman genuen: David ZAPIRAIN KARRIKA, Juan Carlos MORA AFAN: "Gipuzkoako Espetxeak XVIII. eta XIX. mendeetan". *Boletín Histórico de Estudios sobre San Sebastián, 35 (2001)*. 351-363 or. Honi, 1750-1753 bitartean Korrejidorearen ekimenez agindutako berrikuntza gehitu beharko genioke, Ibero arkitektoaren txosten zehatza eta guzti. GAO: CO CRI 1750.

funtsean herritar oro zaindari bilakatzeko akuilua da, aginduak denboran zehar luzatzeko eta Batzarren beroalditik haratago eramateko saioa, alegia.

Horrela, erakunde probintzialak prozedura honen kostuen zaman parte hartzeko prest agertzen zaigu, atxiloketak egiteko tenorean ikerketak eta auziak alkateei eta herriei sor lekizkiekeen gastuak oztopo ez bihurtzeko asmoz.

Erakunde Probintzialari zerion aintzindaritasun eta nagusitasunezko aire hau berresten, alkateei bi agindu eman zitzaien: lehenengoa, epaiketak azkar burutzekoa; bigarrena, gogortasunez ("*severidad*") epai zezaten. Zera gaineratuz: lege eta arrazoiaren aurrean ebasleak eta bidelapurrak bezain gogaingarria zenik ez zegoenez, gogortasunezko jarrera hau zen, hain zuzen ere, jarrera naturala.

Jokabide propioa martxan jartzearekin batera, Gipuzkoako agintariek Gaztelako erresumako legeak aintzat hartu ala egokitu egin zituzten. Berriro ere, 1687an antzera, ijitoak eta arloteak identifikatzeko saioa egin zen, salmenta ibiltaria delitu eta ordenu faltarekin lotuz; ondorioz, arlotetzat hartuak ez izateko hamabi urte beteta eta –osasun onekoak zirenek– ogibide ezagun bat eduki beharko zen[230]. Ordea, ijitoak zigortzeko Karlos II.ak 1695ean emandako *pragmatica* delakoa zuzen-zuzenean hartu zen, 20 urte lehenago egin bezala[231].

Epaiketen kostu handiak genituen, hain zuzen ere, arazotzat jotzen genuen beste atal bat. Bada, arlo honetarako baliabide egokia ere badugu: karitatea. Izan ere, pobreak debalde eta Jaungoikoaren izenean[232] defendatu behar zituztela gogoratu zitzaien. Abokatuek kobratu gabeko lanari errefusatzekotan, alkateek auzokoen parte-hartzea bultzatu beharko zituzten. Defentsarako aukera, beraz, bermatzen zen.

---

[230] "*...quantos siendo sanos y demas hedad de la de doze años viven baldios, sin oficio, exercicio de servir o acoxidos a la mendicidad o solamente a vender algunas tendezuelas y a emplear por las calles fruta y otras cosas, a todo lo cual combiene poner remedio para que, ocupada justa y ordenadamente, toda la gente que avita en el Pais se ebiten los delitos y desordenes que se experimentan*".

[231] Eranskinean.

[232] Hobe esanda: "*por amor de Dios*".

Legeak sortzen, legeak egokitzen, prozedura zehazten, sariak eta diru-laguntzak banatzen... ahalbide andana honen bidez Probintziak Lurralde osoa bere eskumenean hartzeari ekin dio, zigorraren buruzagitza bere gain hartuz. Lege murriztaileak egiteaz gain, lan betearazlea, bide prozesala zein judiziala, eta zigorraren gauzatzea banatzen eta eremu propioetan egokitzen saiatu dira tajuz Gipuzkoako erakunde nagusienak.

1708-1710 finkatu eta Foruarekin babestu eta bermatutako ideia hauek, Gipuzkoa Etxeko aterpea galtzeko zorian zeudenik aurrerantzean laguntzarako zein zigorrarako nola jokatu zehazten zuten.

Hausnarketa eta lan ildo hauetan oinarrituta, eta XVII. mendearen bukaeran izandako eskarmentuarekin, Gipuzkoako erakundeek diziplinarako eta gizarte kontrolerako tresnak egokitu zituzten.

Beraz, hemendik aurrera tresna horiek hobeto bereizten eta bere barneko funtzionamendua ezagutzeari ekin beharko diogu, betiere, helburuetan adierazi bezala, funtzio polizialak gauzatzeko erabiltzen ziren moldeei arreta berezia eskainiz.

Tresna hauek helburu bera izango dute, gizarte diziplinari eustea eta kontrola bermatzea, nahiz eta bakoitza bere aldetik ala beste baten batekin elkarlanean martxan jarri ahal. Honek bakoitzaren izaera bereiztea oztopa dezake. Hala eta guztiz ere, gizarte kontrolaren bizkortze lanetan eragindako lanabesen bilakaerari gerturatzeko modu kronologikoa alboratzea eta diziplinarako horniduraren aleak banan banan aztertzea lehenesten saiatuko gara, izaera anitz horrek bestelako informazioa eskainiko digulakoan: bere jatorrizko esparru politikoari buruzkoa, adibidez. Izan ere, orain arte ikusitakoaren arabera, jokamolde oldarkor ala errepresibo hauek komunitate familiarraren gainetik topatuko ditugula uste dugu: alkateengana, korrejidorearengana, edo erakunde espezializatuengana.

Une honetan, beraz, 1708ko Batzar Nagusiek gidatuko dute gure ikerketaren norabidea, bertan, 90eko hamarkadaren hasieran baztertu ziren komisarioen sistema

errekuperatzeri interesgarri iritzi zioten eta. Mandatu berezi hauei esker, lan betearazleak eta judizialak banatu ahal zituzten eta horrek tokiko eskumenak gainditzea eta jazarpenaren eraginkortasuna orokorrean areagotzea bideratzen zuen, lanez gainezka zeuden alkateak lagunduz.

## 2. GIZAKIAK EHIZATZEKO MANDATU BERRITUAK

Helburu zehatzak zituzten komisioak banatzea Batzar Nagusiek etengabe erabiliko duten baliabidea da. Batzuetan, gainera, ohore handiko betebeharrak zirelakoan, goi mailako gipuzkoarren artean banatzen ziren, noble handien igarotzeak Gipuzkoan barrena antolatzeko, ejerzitoen hornikuntzaz arduratzeko,... eta Batzar guztietan berritzen ziren; kargu trinkoak ziren.

Beste komisio batzuk, berriz, lan astunago bat zuten helburu, bideak konpontzeko zama zutenak, esate baterako, mota honetakoak izango ziren. Gaizkileak atxilotzea ere, ohiko komisio banaketa honetan kokatuko genuke, baina helburua guztiz berezia iruditzen zaigu, jakina denez, zeregin hau komunitate buru zirenei zegokien eta. XVIII. mendearen hasieran betebehar hau behar bezala betetzeko alkateek erakusten zuten ezintasuna, baina, ederki laburbiltzen da Errenterian bizi zen egoeran[233]. Herri honetan, Juan Galardi alkateak Antonia Elizondoren bizimodua[234] ikertzeko 1700. urtean abiatu zuen prozesua hiru urtez pasatzen da alkatez alkate, hirugarrenak ordezko bat izendatu arte: "*los autos precedentes...los quales se me han devuelto por el señor lizenciado don Sebastián de Ochoa y Arin, abogado de los reales consejos, alcalde y juez ordinario que fue de esta villa de Renteria el dicho año pasado, con horden verbal para que en su nombre entregue al señor don Diego Manuel de Echeverría, caballero del orden de Santiago, alcalde y juez ordinario actual* (1702)". Honek, era berean: "*esta ocupado en cosas tocantes al servicio de su magestad...administración de justicia que requerian su hassistencia personal como otras cossas pertenecientes al consejo y gobierno de esta villa por lo qual delegava...en Sebastian de Iriarte, vecino de la mesma villa*".

Hau dela-eta, guztiz zilegia zen aipatutako 1708ko Batzar Nagusiek atxiloketak gauzatzeko mandatuak berriz banatzeari ekitea. Oraingo honetan,

---

[233] GAO: CO CRI 103, 4. Lapurretak, hiri kaskoan zein landa eremuan, maiz gertatzen direla gogoratzen da, nahiz eta gehienetan auziak abiatu ez.

[234] Ez ziren, gainera, oso gertakizun larriak. Elizondok zegokion bizimodua baino oparagoa eramaten zuenez eta bere izena lapurreta txikiekin zein ezkontzatik kanpo izandako sexu harremanekin lotzen zenez, bere bizimodua miatzen da. Bide batez, eguneroko harremanei buruzko datu ugari eta interesgarriak agertzen direla esan dezakegu: Hendaian erositako arropak, arrain salmentari buruzkoak,... Elizondo asto baten gainean publikoki lotsarazia eta herritik erbesterastua izango da.

Komisarioei Lurralde osoan zehar toki susmagarriak miatzea galdetuko zaie, batez ere zonalde menditsuak zein basoak, eta behar zituzten armaz hornituta. Miaketetan harrapatutako ustezko gaizkileak eskumen horretako alkatearen esku utziko dituzte, honek epai zitzan: "*Con la noticia que tubo la Junta de los robos y salteamientos que nuevamente se registran por el Pais, siendo justo al paso que crezen los delitos crezcan tambien las providencias para el castigo de los malechores, y para lograr el sosiego publico y la seguridad de los viandantes y de las personas y haciendas de los abitantes de esta Provincia, considerando que los señores alcaldes ocupados en otras muchas de su empleo, no pueden desembarazarse para el continuo registro de motañas y espesuras que es necesario para la prision de semexantes ladrones y de tantos gitanos y bagamundos como se acoxen a la montuosidad de este terreno, acordo y decreto la Junta el que se nombren por aora comisarios que atiendan a este cuidado y alivien a las justicias en este travajo, cursando por todo el districto de la Provincia, con la compañia de armas ofensivas y defensivas que necesitaren, reconociendo todos los paraxes sospechosos, y prendiendo los ladrones, gitanos y bagamundos que encontraren, a los quales los deveran entregar luego a la Justicia en cuyo territorio o jurisdicion los prendieren para que les hagan causa...*"[235].

Bere erabakien egokitasunaren inguruan, gainera, duda izpirik ez zegoela dirudi. Hala behintzat jakinarazi zien Arabako agintariei. Hauek lapurren aurkako bi lurraldeen arteko elkarkidetzarako deia egin zieten gipuzkoarrei, baina Gipuzkoak komisarioek emaitza hobea, sakonagoa, diskretoagoa eta iraunkorragoak lortuko zituztela erantzun zien; hori bai, deia eskertu zuten.

1708ko komisarioek idatzizko txostenen bidez helarazi zizkioten Aldundiari burutu lanaren berri. Horrela, Donostiako Gabriel Irisarri, Astigarragako Asenzio Zamora eta Asteasuko Gabriel Beldarrainek gauzatu ekintzak gelditu dira bilduak[236].

Komisiodun hauek ez dute beraien mandatuaren jatorria Aldundia eta Batzar Nagusietan kokatzea inoiz ahazten. Zamorak eta Irisarrik egindako aurkezpenaren gaindi ("*uno de los comisarios de VS nombrado en la hultima junta general para que pudiese proceder a la prision de los ladrones, bagamundos, jitanos y gitanas que se hallaren en el*

[235] GAO: R 40, JD AM 91.
[236] GAO: JD DJ, 145, 1.

*distrito de VS", "nombrado por VS para prozeder a la prision de los ladrones y demas jente de mal vivir*"), Beldarrainek funtsezkoa iruditzen zaigun zehaztapen bat gehitzen du. Izan ere, lehendabiziko biek lapurrak, arloteak eta ijituak –hala gizonezkoak nola emakumezkoak- atxilotzea helburu zutela esaten duten bitartean, asteasuarrak atxiloketen xedea presoak tokiko agintarien eskuetan uztea zela zehazten du: "*para prender bagamundos y ladrones y entregar a las justicias en cuio territorio se executase*".

Jarduteko moldeari dagokionez, susmagarriei buruzko berriak jaso bezain pronto, komisarioek laguntzaile talde armatu bat osatu eta ehizari ekiten ziotela agerikoa da. Ekintza hauetan izandako gastuak (laguntzaileentzako janaria, adibidez) eskribau baten bitartez zuritzen zituzten, Aldundiak bere gai har zitzala.

Lortutako emaitzei begira, azkar ibili arren komisarioak beranduegi iristen zirela ematen du. Hala, behintzat, kontatzen du Irisarrik. Honek ez zuen inor atxilotzea lortu, bere talde armatua hainbat egunetan zehar alde batetik bestera eraman arren. Zamorak, ordea, atxiloketak burutu ez ezik, armak apaingarri moduan ez zituztela eramaten erakusten du. Honek hiru lagun (Juan Ikuza, Antonio Artusa eta Manuel Ipintza) harrapatu zituen Astigarragako Intsusagako obi batean ezkutatuta, baina horietako batek, Artusak alegia, ihes egitea lortu zuen tiro egin zioten arren. Beldarrainek ere atxiloketa bat gauzatzea lortu zuen, bere bizitza arriskuan jarrita: Aiara ezkondutako Txomin Moreno, desertorea, arlotea eta lapurtzat jotzen zenarena.

Zailtasun guzti hauek gainditze aldera, komisarioek beraiek hainbat iradokizun aurkeztu zuten. Irisarrik, adibidez, agindu zehatzagoak eskatu zituen, Donostiako Ibaeta auzoko Ansotegi baserrian bizi ziren ijitoak atzeman ahal izateko. Izan ere, ijitoek zilegizko bizitza egiten zutela argudiatu eta agindua ezin zitzaiela ezarri aldarrikatzen zuten. Honekin batera, ostatuetako jabeen jarrera salatzen zuen Irisarrik, bere laguntza berandu ala oker ematen ohi zuten eta.

Zamorak, berriz, epaileen jarrera salatzen zuen. Bere esanetan, zigor eskariak aztertzeko eta berresteko gehiegizko denbora ematen zen, komisarioen lana

alferrikakoa bihurtuz eta honen eragina biziki gutxituz[237]. Izan ere, epaia berretsi arte komisarioek ezin zuten kobratu Aldundiak ematen zuen saria. Antzeko kezkak agertu zituen Beldarrainek. Berak atxilotu Txomin Morenok libre utzi baitzuten Aiako agintariek, nahiz eta gero Aretxabaletako alkateak harrapatu eta galereetara bidali. Ondorioz, komisarioen lana aintzat hartzeko eskatzen zuen honek: "*para que se sirva de tomar la provindecia que combenga y que los comisarios que esponiendo a riesgo su vida y ocasionandoseles gastos se dedican al servicio de VS tengan premio de su afan*".

Epaiak berresteko gertatzen ziren atzerapenek bestelako kaltetuak sortzen zituen: presoak. Astigarragan harrapatu Ipintza eta Ikutza, esate baterako, Astigarragako alkateak Donostiako espetxera eraman arren ez zuela deus ordaindu beraiek mantentzeko, espetxe-zaindariaren haserrea eta idatzizko kexa sortu zuena. Presoek beraiek, komisarioaren ekintza gehiegikeria izan zela salatu zuten, Larraburu baserriaren ondoan atseden hartzen baino ez baitzuten egin haiek. Epaia berandutzen ari denez eta, bitartean, haiei presoaldia eta lanak ezartzen zaizkienez, pairatzen ari diren egoerari bidegabekeria deritzote. Foruen babesa aldarrikatzearekin batera, gehigikeriaren arduradun guztientzako zigorra ere eskatu zioten Aldundiari.

Dena den, komisarioen izendapenei esker foru erakundeak asmatu zuela ematen du. Izan ere, 1709ko Batzarretan lapur, arlote eta alferren aurkako neurri guztiak berretsi ziren, egokiak izan zirelakoan. Baina berehala konturatuko gara atxiloketak ugaltzeak ez zuela lapurretak gutxitzea ekarri. Batzarkideek aitortu bezala, lapurretak eta kalteak ez ziren eten. Lapur, arlote eta alprojek baseliza, eliza, bide eta herrietan egiten zituzten lapurretak zein kalteak ez ziren erabat ezabatu. Ondorioz, Batzarrek komisarioak izendatzen segituko dute, eta hauen kopurua gehitzea behar izanez gero Aldundiaren esku utziko dute izendapenen ardura, era publikoan zein isilpekoan gauzatu daitekeena.

---

[237] "*entrego a dicha justizia [Astigarragakoa] quien haviendo echo los autos y sustanciados, se hallan para determinar en la difinitiva en el estudio del Lizenziado Don Carlos Juaquin Aztina abogado de lso Reales consexos...y aunque el suplicante a deseado y solicitado la Brevedad en la obtencion de dicha sentencia, como comisionario de VS, es la ora que no a podido conseguir, ya por que se an escusado alguno o algunos de los avogados de VS, o ia por que [a] avido alguna inteligencia. Y por que de dar lugar a semexantes atrasos es prevertir el celo y acuerdos tan soberanos de VS y consequientemetne enfriar los afectos de los comisarios de VS...*".

Gainera, gai honen inguruko beste txosten berri bat eskatu zen, eta baita –orain bai– arazoari aurre egiteko gainontzeko euskal lurraldeekin batera aritzeko harremanetan jartzeko agindua eman ere.

Espetxeekin gertatu bezala, aipatutako 1710eko txosten berak komisarioen lana zorroztera eta hobetzera jotzen zuen[238]. Hasteko, lapurreten inguruan emandako ebazpenak errepasatzen ziren, 1708an hartutakoak bereziki azpimarratuz. Ebazpen hauek komisarioena biderik egokiena zela zeritzoten, plangintza eta baldintza orokorrak hobetu behar zirela gaineratuz. Gehitu ziren zehaztapen berriak diruari eta prozedurari zegozkien.

- 1708an atxiloketak ugaltzeko finkatu ziren sariei dagokienez, susmagarriak galeretara ala Afrikara bidaltzeko balio izan zuten atxiloketak ez ezik, presondegi, desterru edota edozein zigor publikorako baliogarriak izan zirenek ere sarituak izatea mereziko dute. Ordainketa hauek Batzar Nagusietan bertan gauzatuko ziren.
- Diru-laguntzei buruz, komisarioen bidaiak atxiloketa gauzatu denetik etxera itzuli arte ordaindu behar zirela deritzote, presoa entregatzeko Korrejidoreenganaraino egin behar zuten bidaia barne. Halere, bidaiak laburragoak izateko, atxilotuak alkateen ardurapean uztea baimendu beharko litzatekeela diote.
- Atxiloketek sortzen zituzten gainontzeko gastuei erreparatuz, gastu-prozesalak Korrejidoreari egokitzen zaizkio; garraioarenak, berriz, Diputazioari. Aldundiak diru-kopuru bat (“*seis quartos de vellón*”) egokitu beharko luke preso eta egun bakoitzeko.
- Diputazioak mailegu bat hartu beharko du gastu hauek ordaintzeko, zentso honek sortuko zuen errenta kitatzeko eta horretarako, suen araberako bilketa orokorra egin beharko da.

Neurri prozesal berriei dagokienez, aldiz:

- Gaizkile izan litezkeenak ikaratuko lituzkeen borreroaren falta nabaritzen dute. Hortaz, txostenaren egileek Aldundiak eredugarria eta beldurgarria suertatuko litzateken borreroa kontratatzeko esaten dute.

---

[238] GAO: JD DJ 145, 2 bis. 1710-V-7.

- Korrejidorea Ermandadeko prozeduraren baitan sartzea egoki ikusten dute; hau, berriz, foruek aintzat hartu ez eta erregearekin negoziatu beharko litzateke[239].
- Azkenik, alkateek beren lana gogoz eta gogor betetzeko agintzen dute.

Neurri hauek guztiek prodezura kriminalaren bidezko jazarpenaren lanak banatzea ekarriko dute. Auzia abiatzeko ekimena alkateena zein korrejidorearena izan zitekeen. Horretarako, korrejidoreak bere kabuz informatu ala komisarioek atxilotuak nahiz pasadizo susmagarrien berri helarazten zieten. Horrelakoetan, gainera, komisarioek berek lekukotasunak biltzeko agindua jasotzen zuten oso maiz. Alkateei dagokionez, argitu beharreko gertakizunen berri bere kabuz ala salaketen ondorioz izaten zuten; epaiketa garatzeko oinarrizko informazioa, testigantzak eta, ahal izanez gero, atxiloketak burutu eta gero, autoak korrejidoreari igortzen zizkioten. Hau da, abagune berezi honetan, korrejidorearen bidezko epaiketak eta zigorrak lehenestu ziren.

Modu honetan estu hartu nahi ziren egoerak lapurretek sortutako egonezarekin lotzen ziren. Ohiko lapurreta txikiaz, –neskameek, zerbitzariek ala auzokoek jabeei zein ondoko lagunei oharkabean hartutako diru kopuru urriak, gerora saltzen ziren arropak, janariak, barazkiak edo antzeko gaiak ostutzerakoan ematen ziren ebasketaz– ez garela ari azpimarratu behar da. Hauek, gehienetan, tokiko kontrolaren menpen geratzen ziren, edo, behintzat, ez zuten erakunde probintzialaren esku-hartzea ekarriko.

Gure iritziz, ezinegon hori talde armatuek bideetan eta etxeetan eginiko lapurreta ikusgarriek sortu zuten. Hauek probintziaren eremu komunean gertatzen ziren, helburuak aldez aurretik erabakita eta lapurtzea ogibidea hartuta zuten lagunek emanak.

Urduritasun honen lekukotasuna ederki laburtuta agertzen da korrejimenduan, batez ere Villegas korrejidoreak ofizioz bultzatu zuen ikerketa eta auzietan. Donostian ikusten zen egoeraz, adibidez, horrela mintzo da: "*algunos de mala sospecha y fama sin*

[239] Gipuzkoako Foruen hirugarren tituluaren azken atala.

*ofizio ni aplicarse al trabajo, con quienes concurren otros de fuera parte que se acogen a esta ziudad de la misma sospecha y mala fama, vagando por donde quiera*"[240].

Ez da, baina, Donostiara mugatzen den arazoa. Segurtasuna, onura, lasaitasuna eta Jaungoikoaren zerbitzua Probintzia osoan bermatuko badira justizia errespetatu behar da eta hori lortzeko delituak zigortzea ezinbestekoa da: "*y por que en tanto que se castigan los delitos es temida y respetada la justicia conviniendo executar y observar ambas cosas para mayor servicio de dios nuestro señor, bien, seguridad y quietud de los havitadores de esta dicha provincia*".

Honen ondorioz gauzatu ziren epaiketen berri hainbat sortatan sakabanatuta agertzen da[241]. Espediente hauetan 1709-1711 bitartean nabarmentzen diren ekintzak hauek genituzke:

- Bautista Argiarro eta Antonio Egurenen gaiztakeriak, emakume baten hilketa eta apaiz bati sortutako zauriak barne. Eibarreko alkateak atzeman zituen.
- Oriamendiko bentaren inguruan merkatari frantses baten aurkakoa: 7 lagunek egina. Antonio Irigoien "Bizarbeltza", Baltasar Berridi eta Alejandro Aristizabal tartean.
- Mendizorrotzen Santiagoko Zaldun Lorenzo Rabanal Elizalde teniente koronelak eta bere zerbitzariek pairatutakoa: 8 lagunek egina. Antonio Irigoien "Bizarbeltza", Baltasar Berridi eta Alejandro Aristizabal tartean.
- Donostiako Goiatz-txikia baserrian gertatutakoa. Agustin Alberro eta Felipe Arrietari egotzia.
- Leaburuko apaizaren etxean gertatukoa.
- Altzoko apaizaren etxean gertatutakoa.
- Barbara Mugerzaren etxekoa.
- Asurtzia baserrikoa. Azken lau hauek Francisco eta Lorenzo Urkijo anaiek, Juan Bautista eta Jazinto Arsuaga anaiek, eta Juan Bautista Alluralde eta Luisa Rezola senar-emazteek osatutako taldeari egotziak. Ordiziako alkatearen ekimenez harrapatuta.

---

[240] Esaldi bera GAO: CO CRI 111, 1 eta 111, 4 sortetan agertzen da. Antonio Eugi, Korrejidore-ordearena da.
[241] GAO: CO CRI 109, 11. 111, 2. 114, 4. 111, 1. 115, 2.

- Altza-Astigarraga-Hernaniko inguru eta bideetan gertatutakoak.
- Mutrikuko Aranzamendi oinetxean lapurreta. Domingo Muguruzak, nagusiki, gauzatua. Antonio Aizpiri eta honen ama Maria Irunagaumansorok ebatsitakoa jaso eta saldu egiten zuten, lapurrei balioaren zati bat ordainduz.
- Baita ere Araban edo Nafarroan eginiko lapurreta batzuk. Ihesean zebilen Baltasar Berrak Francisco Garratxanearekin batera Malerreka inguruan; Fausto Zubiri eta Pedro Agirre Lizarran,...
- Antonio Etxanike, Migel Arregi, Martin Aranibar, Jose Begiristain "Ataun", Martin Zugasti "Kabelleras", Fausto Zubiri, Pedro Agirre, Juan Isasa,... lapurretan antolatuta zebiltzan beste lagun batzuk izango omen genituzke.
- Abere-lapurrek ere, maila berean sartzen zirela ematen du: Irungo Juan Larzabal eta Pedro Goia; Hernialdeko Juan Aranzabe; Iparraldeko Pedro Lafite, Martin eta Paskual Elizalde anaiak,... Mendaroko Lorenzo Indo oinarrizko auziperatzean delitu bera erabili arren, lapur historio askoz luzeago izango zuen .

Zalantzarik gabe, talde hauek burutu zituzten hainbat ekintza –batez ere Berridi-Irigoien koinatuek ala Urkijo anaiek buru izan zutenek– oso ikusgarriak izan ziren[242]. Mendizorrotzen zein Oriamendin eginikoetan, adibidez, zortzi lagunen artean zazpi eskopeta, pistola bat eta ezpata bat erabili zituzten, aurpegiak estalita eta arropa beltzez jantzirik, betiere azpi-taldeetan banatuta.

Urkijotarren taldea ere antzeko gisan aritu zen eta helburuak ere oso ondo aukeratzen zituzten. Luisa Rezola beste edozein partaide moduan jokatzen zuela azpimarratzen da hemen.

Esan bezala, epealdi honetan kontrolerako errotutako sistemak korrejidorearengan jartzen zuen zigorraren ardura eta, gure ustetan, zigor eredugarri hauek ezartzeko gehien nabarmendu zen korrejidorea Alvaro Villegas izan zen. Izan ere, abereak lapurtzea edo goi-mailako lapurreta egitea antzeko zigorrak merezi

---

[242] Dena den, Korrejimenduarenganaino auzi apalak ere heltzen ziren: Andres Malkorra, adibidez, Ikaztegietan atxilotua izan zen, bera bertaratu zenetik artoa, aleak, sagarra, gaztainak eta abar maiz desagertzen zirelako. Lorenzo Indo zaldi batengatik izan zen atxilotua, eta berdin Laffite, Larzabal, Aranzabe eta beste asko.

zituzten: Afrikako presondegiak, galerak, ejerzitoa. Gehienetan, jendaurrean lotsatuak eta jipoituak izan eta gero, gainera.

*Galerak:*

8 urtez: Baltasar Berra. Ihesean zebilen Franzisko Urkijo.

6 urtez: Alejandro Aristizabal, Agustin Alberro, Felipe Arrieta.

4 urtez: Franzisko Garratxanea, Martin Aranibar.

*Afrikako presondegietara:*

10 urtez: Bautista Argiarro. Domingo Olaso. Jose Begiristain. Alejandro Arana. Lorenzo Indo (hasieran 6 galeretan). Juan Bautista Artsuaga.

8 urtez: Jazinto Artsuaga. Esteban Urrutia.

6 urtez: Domingo Muguruza. Antonio Etxanike. Migel Arregi. Martin Zugasti (hasieran 10).

4 urtez: Juan Larzabal. Fausto Zubiri. Juan Arazabe. Agustin Garaiburu.

3 urtez: Jazinto Arrieta

2 urtez: Pedro Lafite.

Iraupen ezezaguna: Migel Etxeberria, Franzisko Zabaleta.

*Iruñeko presondegira:*

4 urtez: Antonio Eguren. Sebastian Iartza (hasieran 4 urtez Afrikara, baina osasun eta adinagatik Iruñeara bidali; bertan ere, gaztea izanik, berehala askatu zuten.

*Hondarribiko presondegira:*

2 urtez: Pedro Agirre (hasieran 4 urtez Afrikara, baina osasun arazoengatik 2 urteko desterruarengatik aldatu zioten zigorra).

*Donostiako presondegira:*

10 urtez: Lorenzo Urkijo.

Baina korrejidoreak ezarritako zigorra gauzatu ahal izateko, gertakari hauek azkar ikertu behar ziren. Hau da, korrejidoreak lana mamitu ahal izateko, aldez aurretik Batzar Nagusiek martxan jarritako komisarioen tresneria ezinbestekoa bilakatu zen.

Horrela, alkateak ez ezik, komisiodun hauek susmagarriak eta enparauak atxilotzeko gaitasuna izango zuten ere, atxiloketa hauen inguruan garatutako autoek auzi kriminalaren oina izaten zuten eta. Gabriel Irisarri, Asenzio Zamora, Pedro Goikoa, Antonio Artola, Juan Arrizurieta, Martin Arano Rekarte, Martin Begiristain eta Migel Goikoetxea ditugu gehien nabarmendu ziren komisarioak[243].

Komisario hauen aritzeko erari dagokionez, molde finkorik ez zegoela uste dugu. Haiekin batera agertzen diren osagaiak eskribaua eta, behar izanez gero, lagun armatuak ditugu. Eskribau batek prozesuaren zilegitasuna eta, batez ere, informazio bilketa bermatu behar zuen. Laguntzaile armatuak, bistan dena, atxiloketak gauzatzeko beharrezkoak suerta zitezkeen.

Donostian egoitza zuen 1710eko korrejimenduak, esate baterako, hiriko justizia-aguazil Juan Rementaritegi izendatu zuen eskribauen zereginetan laguntzeko. Salaketak onartzeko, berriz, lekuko bakar baten testigantza onargarria zela erabaki zuen, ondorioz gauzatu beharreko atxiloketak burutzea Donostialdean aritzeko komisionatu zen Gabriel Irisarrirena lana zela zehaztuz. Eskribauak "*para la prision de ladrones, vagante y demas*" bezala aurkezten du Irisarriren komisioa, honek eta bere taldeak Irigoien-Berra lapurrak atzemateko izugarrizko lanak eginak zituztela, gehienbat Oriamendin merkatari frantses bati eta Mendizorrotzen Lorenzo Rabanal militarri eginiko ebasketak argitze eta zigortze aldera[244].

Lan honen indarra eta Donostialdean korrejidoreak jarritako grinaren erakusle, Irisarriri ordezkoa jarri izana dugu. Hau da, korrejidoreak berak komisario bat sortu zuen Irisarri gaixo eman zuen denboraldi baterako. Aukeratutakoa lehen aipatu Juan

[243] GAO: CO CRI 111, 4. 110, 9. 111, 5. 110, 3. 111, 2. 114, 4. 115, 12. 112, 6. 113, 5. 116, 2. 115, 4. 113, 8.
[244] GAO: CO CRI 114, 4. 111, 1. 111, 4.

Rementeritegi izan zen, eskribau moduan informazio jaso eta abere-lapur izateagatik atxilotuak izan ziren Irungo Juan Larzabal eta Pedro Goia korrejidorearen espetxera eramateko ardura hartu zuena[245].

Korrejidoreak ere atxiloketak gauzatzen zituzten komisarioak informazioa jasotzeko agintzen zien, baita prozesu judizialari lotutako beste lan batzuk ere, epaiketa gastuak ordaintzeko eta ihesaldia ekiditeko auziperatuen ondasunak bahitzea, esate baterako[246].

Izan ere, atxiloketak gauzatu eta informazioa biltzearekin batera, auziperatuak lekualdatzea komisarioek burutu beharreko oinarrizko lana dugu. Garraio lan hauek herrietako ziegetatik korrejimenduko espetxeraino izan zitezkeen. Baina baita ere ezarritako zigorra betetzera eramatea ere: Probintziako edo Iruñeako presondegietara, ala Soriara, bertan presoak pilatu eta galeretara ala Afrikara eramaten baitziren.

Bidai hauek diru-iturri garrantzitsuak ziren komisiodunentzak, Batzar Nagusiek gastuaren gaineko kontrol estua jarri arren. Hau dela eta, komisarioak eskatutakoak eta Batzarrek ordaindutakoak ez zuten beti bat egiten. Juan Arrizurieta komisarioak, adibidez, Lorenzo Indo bi aldiz atxilotzeagatik eta Domingo Muguruzaren auziagatik ohiko sari eta dietekin batera onartu ez zitzaizkion eskupeko bereziak eskatu zituen, izandako gastuen artean, besteak beste, fiskalarentzako lekukoak bildu izatea aipatu baitzituen. Era berean, Pedro Goikoaren kontu batzuk aurkitu ditugu: dietak eta soldatak gehi Nafarroatik eta Berastegitik abere-lapurren aurkako lekukoak ekarri eta ostatuan jaten eman izana, gehi auziperatuak Alegi eta Albizturgo ziegetatik Donostiara eramatea –hiru erreal legoa bakoitzeko, gehi gastu

---

[245] GAO: CO CRI 111, 2.

[246] GAO: CO CRI 112, 6: Villegas korrejidoreak Migel Goikoetxeak atxilotu zuen Juan Aranzaberen inguruko informazioa biltzeko Goikoetxeari berari agintzen dio.
GAO: CO CRI 113, 5: Arano Rekartek komisarioak atxiloketak egin eta gertakizunei buruz informatu behar du, baita ere auziperatuen ondasunak bahitu eta enkantean jarri ere.
GAO: CO CRI 116, 2: Arrizurieta komisarioak Lorenzo Indori buruz alimalezko informazioa bildu zuen, hasiera batean zaldi bat lapurtu izana baino ez zena, lapurreta pila bilakatu arte. Fiskalarentzako lekukoak bilatu zituen ere bai.

prozesalak–[247]. Beranduago, gainera, Goikoa Soriarako bidaietan espezializatu zela ematen du eta bidai berean lau bat lagun eramaten zituen[248].

Garraioarena ez zen bigarren mailako lana: gizarte-kontrolerako zigorrak gauzatzen zirela erakustea ezinbestekoa zen, korrejimenduan aitortu bezala, eta, gainera, atxiloketak gauzatzea bezain arriskutsua bilaka zitekeen. Izan ere, garai hauetan zigorra jasotzen zutenek ez ziren, gehienetan, komunitatetik guztiz aldentutako gizasemeak, senidetasun eta auzoko loturak oraindik gordetzen zituztenak baizik. Honek, beren aldeko jarrera biziarazten zuen, kanpotarrak eta arrotzak ziren indarrak areagotzen zutenak. Hau dela eta, presoak askatzeko saioak oso ugariak ziren, bai herriko ziegetatik bai eta lekualdatze-bidaian bertan.

Lekualdatze hauek, gainera, auziperatuentzako aukera berri bat eskaintzen zuten: elizaren babesa bilatzearena, alegia. Gune sakratuak eskumen berezituak zirenez, ez Probintziak ez eta Korrejidoreak ere, ezin zituzten presoak indarrez berreskuratu.

Hau ez zen errekurtso teoriko hutsa, XVIII. mende osoan zehar presoek tajuz bilatua eta legeen bidez moztu behar izan zena baizik. Aztertzen ari garen sasoian ere, adibide esanguratsuak agertzen dira. 1714an, esate baterako, zaindariak garraiorako ezarri nahi zituen baldintza gogorrak altxamendu bat sortu zuen Zerainen. Izan ere, Juan Faulin buru zuen talde armatuak Afrikako presondegietara zigortuak ziren Legazpiko Migel Etxeberria eta Franzisko Zabaleta zepoan lotuta eraman nahi zituen. Bai honetan baita 1728ko antzeko gertakizunetan ere Martin Elola dugu partaide. Ondorioz, 1729an Elola bera izaten da atxilotua eta zigortua, altxamendu horren partaide izan zelako eta bizimodu arina zuelako. 4 urteko zigorra jaso eta gero, Elola

[247] GAO: CO CRI 110, 9. 1710ean, 1709ko Batzar Nagusiek izendatuta izan zen.

[248] GAO: CO CRI 112, 6: Juan Aranzabe, Juan Bautista Argiarro, Pedro Lafite, Juan Larzabal.
GAO: CO CRI 116, 2: Lorenzo Indo, Alejandro Arana eta Jazinto Arrieta.
Eta antzeko garapena edo lan pilaketa antzematen da Arano Rekarterengana: GAO: CO CRI 113, 8. 1715ean.
Franzisko Irazustak, bestalde, Lezoko Sebastian Igartza eraman zuen Iruñeko ziudadelara. GAO: CO CRI 113, 2.

baseliza batean aterpetuko da Donostiarako bidean. Indarrez aterarazi zutenez eta epaiketa baten ondorioz, korrejidoreak presoa ermitan askatu beharko du[249].

Adibide horretan herriko protesta eta sakratuzko babeslekuan agertzen dira elkartuak, beraz, eta berdin gertatzen da Urkijo-Artsuaga-Alluralde bandarekin. Soriatik bidalitako gutunetan leku sakratuan babestu izana ez zela errespetatu idatzi omen zuten. Korrejidorearen ustetan, baina, dena gezurra da, eskribauak fede txarrez jasotako testigantzak eta lekukoen asmakizunak zirela medio[250].

Komisarioen lan hauek guztiek alkateen ezintasunak noraino osatzen zuten berehala gelditu zen agerian. Bai atxiloketen garaian, bai eta presoen zaintzan ere. Izan ere, batzuetan alkateek erakusten zuten geldotasuna ederki deliberatua zen, alferrikako gastuak ez izateko. Lehen aipatu Aranzamendi etxean izandako lapurreta egoeraren gordintasuna islatzen du. Lapurrak atxilotuak egon arren, Elgoibarko alkateak ez zituen espetxeratu. Oraingo honetan, lapurtua izan den Pedro Urruzunok berak ikerketa bultzatu zuela ematen du, atxiloketak auzoko batzuek burutu zituztela. Alkateak, berriz, ziegako giltza eman zien, presoen ardura ez zuela hartu nahi argudiatuz. Arrizurietak komisarioak kargu hartzerakoan, alkateak presoen elikadura ordaintzeko eskatzen dio komisarioari; honek, presoak bere gain hartu, eta Elgoibarretik Mutrikura eta handik Donostiara eraman zituelarik.

Dena den, hau bezalako jarrerak ez du tokiko agintarien ezinbesteko lana izkutatu behar, oso arriskutsutzat hartzen ziren Argiarro eta Eguren edota Urkijotarren banda atzematea Eibarko eta Ordiziako alkateen ekimenak izan zirelako, esate baterako.

Presoen zaintza komisarioen ardura izateak auziperatuen bizi-baldintzak biziki kaltetu zituela ematen du, garai honetan espetxean hildakoak ugari izan ziren-eta: Pedro Dorronsoro “Galtzagorri”, Franzisko Aranaz “Patxikubaliente”, Martin eta Paskual Elizalde, Luisa Retolaza eta Bartolome Bizkarrondo, besteak beste, epaia

[249] GAO: CO CRI 159, 2 eta 165, 5. Gerora, Elola lapurretan murgilduko da.
[250] GAO: CO CRI 126, 8. Eskribauari ogibidea kendu eta lekukoak Afrikara bidali egin zituen.

ezagutu baino lehen espetxeratu eta hil ziren. Heriotza hauek ez dira harritzekoak, espetxean emandako denbora badaezpadakoa izanda ere –hau da, zigorra ezarri aurretik eta auziperatua epailean aurrean agertuko dela bermatzeko–, ez zegoen batere garbitasunik eta, Arrizurieta eta Elgoirbargo alkatearen tirabirak erakutsi bezala, elikadura kaskarra zen oso.

Bizimodu txar eta gordin honi prozesu judizialean zehar pairatutako tortura latzak gehitu beharko genizkioke, batez ere Villegas korrejidorearen zuzendaritzapean. Artsuaga anaiek, adibidez, bi urte preso eman eta gero, tortura ezingo zutela jasan egiaztatzen da 1714an[251].

Lotsarazi eta gero zartailuz emandako jendaurreko jipoiak oso arruntak izan arren –aurrerago ikusiko dugun moduan–, ikerketak iraun bitartean aitortzak lortzeko torturaz ari gara hemen. Borreroak gauzatzen zituen hauek Korrejidorearen aurrean, gertatukoaren berri jasotzen zuen eskribaua eta zigorrarekin segitzea neurtzen zuen medikuaren laguntzaz. Tortura hauen erritualean, torturatzaileek beren burua zuritzen zuten, esanez mutilazioak edo heriotza sortaraztea ez zela beren helburua, egia jakitea baizik: "*si ojos se la saltasen, piernas o brazo se la quebrase o perdiese la vida no fuese por quenta de dicho señor juez porque solo su animo era de averiguar la verdad*".

Medikuaren oniritziarekin eta zaldikoaren aurrean biluzturik hiru aldiz itaundua izan ondoren, auziperatua lotu eta itaunketa hasten zen berriro. Erantzunak epailearen gustukoak ez baziren, torturatuaren gorputza luzarazten zuten, loturak estutu eta besoak ala hankak makil batez astintzen zitzaizkiolarik. Hala pairatu zuen, esate baterako, Agustin Garaiburuk, Hernani-Astigarraga-Altza gunean gertatutako lapurreten inguruko ikerketan. Honek bere burua amabirjinaren esku jarri eta ordubeteko tortura saioaren zehar dena ukatu arren, Afrikako zigorra jaso zuen gero[252].

---

[251] GAO: CO CRI 113, 8.
[252] GAO: CO CRI 113, 5.

Urte berean, 1713an eta Villegas korrejidoreakin, Urkijotarren taldeak jasan zuen estira. Lorenzo Urkijori osoa ezarri zioten; bere lagunek, berriz, lotuak izan arte pairatu zuten tortura, nahiz eta gero zaldikoari eragin ez[253]. Urtebete beranduago, Juan Zarautz Ganboa korrejidorearen ordezkoak, denak berriz torturatzeko eskatuko du. Izan ere, hauek ere ez zuten deus aitortu.

Azpimarratzekoa da bai banda honetan, bai eta Irigoien-Berra taldean ere, auziperatuen arteko senidetasun eta elkartasun-harreman estuak, torturapean ere bigundu ez zirenak. Talde-senari eutste honek torturatzaileak biziki ernegatu zituela ematen du. Irigoien-Berraren taldea, gainera, ez zituen guztiz betetzen lapur "profesionalen" ezaugarriak. Gazteak eta maizterrak badira ere, familia osatu, ezkondu eta seme-alabak dituztenen aurrean gaude, toki batean bizileku finkatua zutenak, lapur mota honen artean, ezkongabe eta ibiltari izatea ohikoa zen bitartean. Ekintzen froga gisan, lapikoan ardi haragia agertzea, aski esanguratsua iruditzen zaigu. Beraz, ez da harritzeko eredu oso kaltegarri bezala hartuak izatea.

Beste auziperatu batzuek patu hobeagorik izan zuten, noski. Horretarako, bere aldeko testigantzak ezinbestekoak ziren, errugabetasuna argitu ala ez, bizimodu arautua, lanarekiko atxikimendua eta ohitura zuzenak izatea funtsezkoa izanik aldeko epaia lortzeko. Tenore honetan, oso deigarria da Agustin Alberro. Goiatz-txiki baserrian lapurtzeagatik gogor zigortu bazuten ere, 1718an zigorra bete gabe zegoen oraindik. Are gehiago, haren aldeko testigantzan, herriko kargoduna izatea, kortsoan ibili izana eta etxeak eta errotak izatea agertu eta kargurik gabe gelditu zen, nahiz eta aipatu lapurretan ez ezik, fiskalak Mendizorrotzeko gertakizuna eta Baltasar Berrarekin nahasten saiatu arren[254]. Aipatzekoa da Alberroren lehendabiziko epaia Villegasek emana zela eta agindu hau bertan-behera uzten zuena, berriz, Pedro Arostegik eman eta Bartolome Henaok berretsia izan zela.

---

[253] GAO: CO CRI 117, 1. Luisa Retolaza barne; medikuak bularrekin kontuz ibiltzeko aholkatu zuen. Migel Mokoroari, berriz, tortura ez ezartzeko eskatu zuen osasun arazoengatik. Juan Bautista Allurralde eta Asencio Urrutiaren aurka ere horrelakoak erabili omen ziren.

[254] GAO: CO CRI 132, 8. Juan Antonio Artola, Juan Isasa "Zunbeltz" eta Felipe Arrieta "Krusik", berriz, zigortuak izan ziren. Franzisko Aranaz espetxean hil zelarik, aipatu dugun moduan.

Lapur handien aurkako jazarpena, herrietan ematen ziren bizimodu arinak zuzentzeko saioekin osatu zen. Nagusiki, ezkondu gabeko bikoteen egoera arautzeko, ala gizonak etxeetan hartzen zituzten emakumeak kontrolatzeko saioekin. Komisario lanetan agertutako bi lagun "portaera ez zuzen" hauetan nahastuta ikusteak gure arreta deitu du. Gure ustez, honek erakusten du komisioren bitarteko sistemaren arrakasta jokamolde honek banatzen zituen sarietan oinarritzen zela. Izan ere, ordenua berreskuratzeko sortutako tresna bereziak bizimodu arinaren parte erraz bilakatzen ziren, beren ideologiak kontrolaren hastapenak barneratu gabe zituela adieraziz. Bizimodu arinean murgilduta agertzen diren komisarioak, gutxienez, Juan Arrizurieta eta Martin Begiristain ditugu.

Arrizurietaren aurkako auzia 1713. urtean abiatu zen, komisarioa izandakoak 44 urte zituela. Mutrikuar honek lurrak laboratzea eta ongarritzea bizimodu zuela agertzen du. Hau da, ez litzateke jabea izango, nahiz eta txakolina saltzen zuela ere agertu, bere maila soziala jazartzen zuenenaren oso urrun ez zegoela ematen duela. Bere esanetan, ezkontzarik gabe izandako harremana bat-batekoa eta isolatua izan zen, Santa Agedaren jaiaren inguruan, orduko bikoteak, Rosa Garmendiak, haurdun dagoela publikoki esan duelako egin omen da ezaguna gertatutakoa[255].

Ikaztegietako Martin Begiristainengan, berriz, oso bestelako jokaera aurkitzen dugu. Alde batetik, Zufiaurre baserriko jabea zelako, eta bere menpean maizter eta zerbitzari agertzen zirelako. Hau da, herriko jabe nabari bat zen. Bere menpean zeuden emakumezkoekin harremanak izaten oso ohikoa zuen, ezkonduta egon arren. 1731n auziperatua izan bazen ere, 14 urte lehenago ezkontzatik kanpo izandako haurra ohitura horren erakuslea da. Arrizurietarena auzitegian berehala pasatu bazen ere, Begiristainek Valladoliden helegiteak aurkeztua beharko ditu, korrejimenduan bere jarrera ez zela ondoegi onartu ematen baitu[256].

Hala eta guztiz ere, Probintzia mailan ezarritako komisarioen moldeak, korrejidorearekin lanean eta tokiko aginteen sostenguarekin, bere helburuak bete

---

[255] GAO: CO CRI 118, 11. Arrizurietak isun bat jaso zuen, Garmendiak berriz, herritik aldentzeko agindua

[256] GAO: CO CRI 168, 2.

zituela esan dezakegu. Hala adierazten du Mutrikuko 1713ko Batzarrak, delinkuenteak zelatatzeko auzokoen mobilizatzea bertan behera uztea agintzerakoan, lapurrak, ijitoak eta arloteak zigortzeko ebazpenak sortarazi zuen egoera –"*excesos y desmanes*"–desagertua zela argudiatuz.

1713an iragarritako bake-une honek ez zuen luze jo, 1715ean ijito-talde batek Batzarren aztoramendua piztu zuen-eta. Jazarpen honekin irekitzen den tartean, aurretik ekoiztutako zigor-bidearen errepikapena izango dugu.

### 2.1 Komisarioen garra itzalita.

Tenore berri –ala berritu– honetan, eta 1710ean finkatutako bideari jarraituz, Batzar Nagusiek komisario bereziak banatu zituzten eta kontrolerako ekimenaren indarra komisiodun hauengana jarri. Horrela, zonalde menditsuetan arloteek egindako lapurretek hala eskatzen omen zutela ikusirik, 1716ko Donostiako Batzarrak zortzi komisario izendatzeko bidea ireki zuen. Era berean, bere eraginkortasuna indartzeko, Batzarrek isilpeko izendapenak bultzatu zituzten: "*respecto de las quexas que se propusieron a la junta de los muchos robos que estos dias se han cometido en varios parages montuosos de su territorio, y de la comarca, y de lo que combiene dar alguna especial providencia para la prisión y castigo de los delinquentes y gente malentretenida: acordo la junta revalidar o nombrar de nuevo en secreto hasta ocho comissarios de la mayor confianza, en la misma forma y facultad con que corrieron los años passados, encomendándome a mí, el secretario, la formación de los despachos competentes*"[257]. Jarduera hau hurrengo urtean, Elgoirbargo Batzarretan, berretsi egin zen[258]: "*Continuando tambien la junta su aplicación al alivio común y al castigo de los delincuentes: acordó aumentar*(sic) *en la misma forma que en la última algunos comisarios secretos, para la prisión de ellos, con los sueldos y premios que están acordados y que los señores alcaldes escojan personas de satisfacción y vigilancia me den aviso a mí, el secretario, para que les despache la comisión con fecha de esta, junto con el disimulo y cautela conveniente.*"[259].

Isilpekoak izanda ere, 1716an eta beranduago 1722an agertzen diren izenak ezagunak ditugu jada. 1716an, adibidez, Martin Arano Rekarte dugu "*comisario nombrado por esta provincia para la prision de ladrones, gitanos, vagamundos y gente mal entretenida*"[260]. 22an, berriz, Juan Rementaritegi agertzen da Probintziako komisario gisan[261].

---

[257] GAO: JD AJF 8, 7.
[258] GAO: JD AJF 8, 8.
[259] *Registro de la Junta General...impreso...por Bartholome Riesgo...*
[260] GAO: CO CRI 127, 8.
[261] GAO: CO CRI 137, 8. Ordurako eskarmentu handikoa, 1712an larriki zauritua suertatu zen eta. GAO: CO CRI 113, 8.

Isilpeko izendapena ere beranduago aurkituko dugu, adibidez, 1728ko Azkoitiko Batzar Nagusietan. Orduan, Oiartzun, Astigarraga, Tolosa, Amezketa, Segura, Zizurkil, Orio, Azpeitia, Legazpi, Bergara, Elgoibar eta Elgeta ditugu –lapurrak, arloteak eta ijitoak direla medio– komisarioen beharra izan zuten tokiak[262]. Alta, egindako atxiloketengatik zor zitzaion saria eskatuz, Orioko Antonio Illunbe komisarioa baino ez dugu antzeman hurrengo urteko Batzarretako aktetan. Hala eta guztiz ere, 1729ko batzar hauetan, Mutrikuko ordezkariak ezkutuko komisario bat eskatzen du bere eskumena zaintzeko, inguruan jende susmagarri ugari omen zebilen-eta. Batzarkideek Mutrikuko ordezkaria berari luzatzen diote ahalmena bere ustetan aproposa zen pertsonaren bat aukeratzeko. Eskaeraren berri ematen digun Batzarretako idazkariak honen ondoan egindako oharra, berriz, askoz zehatzagoa agertzen zaigu. Laburpenean susmagarriak aipatzen bazituen ere, ohar honetan lapurrak aitatzen ditu: "*mandase dar una comisión contra ladrones*"[263].

Gure ustetan, ezkutuko prozedura hau atzerritik iritsitako jendea baino, Gipuzkoako jendearen aurka zuzentzen zen. Izan ere, kanpotarrek ez zituzten alkateak edo bere ordezkariak ezagutuko, eta, hortaz, isilpekotasunak ez zuen eraginkortasun gehiagorik lortuko. Bertako jendeak, berriz, ederki asko zekien zeinek zeuzkan atxilotzeko, morala zuzentzeko, jarrera ez egokiak deitoratzeko eta portaera okerrak zuzentzeko ahalmena eta aginte makila. Horregatik, bizimodu normalizatua bermatzeko jada etxeko zein herriko giroa gai ez zirela, diziplinatzeko eta zigortzeko eragileak ezkutukoak behar ziren izan. Propio jarritakoak eta ekintzen arrakastaren arabera sarituak. Bide horretatik ere, gizarte osoa zelatari bilakatzen zen berriz ere, agintarien ordezkaria zein zen jakiterik ez zegoen-eta: nornahi izan zitekeen.

Ezkutuko izaera honek, izendapenaren ofizialen arrastoa desagertarazi dituelakoan gaude, Batzarretako idazkariek utzi dizkiguten oharrak baino ezin direla ikusi[264]. Izendapenak ez ziren urtero ematen, ez eta Gipuzkoa osorako ere, bailara ala

---

[262] GAO: JD AJF 8, 19.

[263] *Registro de la Junta General...impreso...por Bartholome Riesgo...*

[264] Bistan da idazkariek aktak garbira pasatzen zituztela, eta lan horretan berriak laburtu ala, besterik gabe, gorago aipatu dugun lanean, RUIZ HOSPITALek gogoratu bezala, desagertzeko aukera zutela, beharrezkoa izanez gero.

herri bakoitzean baizik, betiere lapurretak ohikoak baino ugariakoak zirela ala inguruetan jende arrotza, identifikatu gabea edo susmagarria ikusi ondoren. Azpimarratu behar da, beraz, pertsona-ehiztari hauek, isilpekoak izan arren, bere burua identifikatu behar zutela, Probintziaren izenean zilegitasun osoz ari zirela erakusteko. Horretarako, beren lanaren berri idatziz jasotzen zuten, herriko ala korrejimenduaren eskribauen bitartez. Prozesu osoa eta izandako gastuak gehi zegozkien sariak Batzarretan aurkeztu eta, kontu ikuskatzaileen onespenarekin, Probintziaren kontura kobratzen zuten. Onespen honetarako, alkateei gertatu bezala, auziperatua erruduna izatea gertatu behar zen.

Komisarioak aukeratzeko, Aldundiak ala Batzarrek konfiantzako pertsona batengan uzten zuten hautaketa; baita ere komisarioen galdera egiten zuten alkateengan. Boluntario gisa aurkeztu zenik ere agertzen da, Donostiako bi aguazilek hala eskatu zuten, Pasaian alfer bat antzeman eta gero. Ez hori bakarrik; beraiek egindako atxiloketengatik komisarioek bezainbeste kobratzea ere. Lehendabiziko eskaeraren erantzunik ez da agertzen; baina sariari dagokionez, komisarioek baino gutxiago, eta baita ere Pausuko alkatea baino gutxiago, ordaindu zitzaien. Agerian gelditzen da, beraz, sari ekonomikoa zela lan honetan murgiltzeko ezinbesteko pizgarria.

Komisario hauen lana epaile-lanekin ez zen inolaz ere nahasten. Hau da, Probintziak banatzen zituen mandatuen helburua ondorengoan zetzan: zelatatzean, argibideak eman zitzaten susmagarriak antzematean, eta auziperatuen zein epaituen garraioa burutzean. Oso funtzio espezializatua, beraz.

1716tik aurrera komisarioen ekintzak ez ziren aurreneko hamarkadan jasotakoak bezain ikusgarriak. Ez dira agertzen, ez behintzat guk aurkitutako dokumentazioan, orduko lapurreta handirik. Arano Rekartek zuzendutako atxiloketa, adibidez, Itziargo elizan eta Mutrikuko komentu batean saiatu lapurretak baziren ere, 1712an gertatukoak ziren; eta atxiloketak, beste ekintzekin baino, susmagarrien bizimoduarekin du lotura: "*andavan ocultamente sin aplicarse al travaxo ni oficio con que poder mantenerse recelava la gente de esa mala vida, por lo qual havia preso a los suso*

*dichos*"[265]. Izan ziren, zalantzarik gabe, oihartzun handiko lapurretak: errege-postariek Santandrin pairatutakoak oso ospetsuak izan ziren[266], baina abere-lapurretek eta, batez, ere bizimodu okerrek horiek baino arreta handiagoa eskatu zutela ematen du. Gainera, korrejidoreei ere ez zaie Villegasen grina bera antzematen. 1722an, esate baterako, desterruak noiznahi puskatu eta gaizkileak Tolosaldean lasai elkartzen zirela esaten da[267].

Hogeigarren hamarkadan komisarioen arrastoa arina bada, hurrengo urteetan bere aztarnak guztiz lausotu ziren, nahiz eta 1731n Batzar Nagusiek onartutako ordainketetan, berriz, alkate ugarirekin eta lehen agertu den Illunbe komisarioarekin batera, Miguel Garcia eta Martin Larrandobuño komisarioak topatzen ditugun egindako lana kobratzen[268].

Urte berean, gainera, komisarioak izendatzeko beharra berresten da: "*aviendo entendido la junta los muchos robos que en año ultimo ha havido en el distrito de esta provincia y la falta que hay de personas que asistan a la prisión de gente mal entretenida, por no poder los señores alcaldes, ocupados en otras dependencias de su empleo, atender como combiene a este cuidado. Acordó la junta se despache titulos de comisarios en forma acostumbrado a los sujetos*

---

[265] Korrejidoreak, gainera, atxilotuak askatuko ditu (Fermin Gilisasti eta Baltasar Berridi).
[266] GAO: CO CRI 128, 10.
[267] GAO: CO CRI 137, 8.
[268] Aldez aurretik, Batzarretako idazkaria txostenak aurkeztu zirela jakinarazi zuen: "*presentaronse tambien memoriales de comisarios contra vagabundos, con los autos hechos contra varios reos, y las cuentas juradas de las republicas en que se han sustanciado, pidiendo libramiento de su importe. Y la junta acordo remitirlos a los señores repartidores para que los reconozcan y libre su importe en gasto de diputación, conforme a los decretos que hay en esta razon. Y para quitar la duda que se ha ofrecido sobre la retribución de los tres reales por legua, señalados a los comisarios por el gasto de conducion de los reos a la carcel de el señor corregidor, declaró la junta deberse entender tres reales en legua, por cada uno de los reos que conduxeren*". *Registro de la Junta General...impreso...por Bartholome Riesgo...*
Larrandobuñoren lanari buruz: GAO: CO CRI 163, 4. 1730ean atxilotutako familia ibiltari bat da, ijito kutsukoa, nahiz eta haiek ijitotzat bere burua ez jo. Abereak hiltzea eta arloteen laguntzaz Aduna-Anoeta-Villabona-Andoain inguruetan jendea izutzea eta lapurtzea leporatzen zaie. Gizonezko gazteena, 14 urtetako Domingo Etxeberria, Iruñeko presondegira bidaliko dute; 30 urtetako Martin Iturbide, berriz, galeretara 6 urtez. Edadekoak eta emakumezkoak desterruan. Alta, Biriatutik idazten da jende pobrea baina langilea dela esanez. Zapataria, pelaire eta antzeko lanetan aritutakoak baitziren. Baztan eta Iparraldeko jendea da.

*que señalare el señor don Joseph de Vicuña, quien tenga facultad de elegir los nuevos, y quitar los titulos a los que le parecese de los que los tienen antes*"[269].

Dena den, azken komisio hauen balioa zalantzazkoa iruditzen zaigu oso. Bere arrastoa, behintzat, ez da ageri guk erabilitako dokumentazioan. 30. hamarkadaren hasieran berriro bide lapurren izua pizten ari zela dirudien arren, –berdin berehala eta azkar tribunaletan nagusituko diren sexuari lotutako portaera moralak zuzentzeko ahaleginetan ere–, erakunde probintzialek, aurrerago ikusiko dugun moduan, komisarioak ez beste tresnak lehenetsiko dituzte: alkateak, hain zuzen ere.

Hortaz, ia berrogei urtez funtzio sasi-polizialak betetzeko emanak ziren mandatu berezi hauen bukaeraren aurrean gaudela ematen du. Alta, kanpoko eragile batek sortutako abagunea medio, Gipuzkoak komisio mota hauek erabiltzeari ekin beharko dio.

Izan ere, bereziki 1745etik aurrera Korrejidorearen bitartez Ensenadako Markesak plazaratutako eskaerek Gipuzkoako antolakuntza ataka txar batean jartzeko balizkotasuna zuten, erresumako ejerzitoak osatzeko bertan agintzen ziren atxiloketak eta epaiketak gauzatzeko korrejidorearen protagonismoa guztiz lehenetsi eta militarren parte-hartzea gotorleku militarretatik Probintzia osora zabaltzea ekar zezaketela ikusita, Gipuzkoak kargu hauek berreskuratuko ditu.

---

[269] Izendapen hauekin lotuta, Martín Francisco Andonaegi izango genuke, 1732an bere lanaren berri ematerakoan, zera duela dio: "*comisión secreta de la provincia para estos apresamientos*". GAO: JD IM 3 14 8.

### 2.2 Komisarioen behin-behineko agerpena

Agindu hauetan, desertoreak, arloteak, eta orokorrean portaera oker adierazten zuten eta armadan zerbitzatzeko gai zen gizon oro atxilotzeko eskatzen zen. 1745tik sakon erabilitako bidea izan zen, nahiz eta aurrekari oso esanguratsuak izan:

- 1717ko Gerraren ildotik, eskatzen zebiltzan eta lanerako gai ziren gazteak, beste delituengatik ez bazuten ordaindu behar, atxilotu eta armadara bidaltzeko agindu zuten Batzar Nagusiek[270].
- 1726ko urtarrilean Errege kontseiluak arloteak atxilotzeko eta gotorlekuetara eramateko agindu zuen; eskaera hau Junco Cisneros korrejidoreak aurkeztu zuen 1727an[271].
- 1738ko Debako Batzarrek alkateei emandako agindua, atxilotuak epaitu eta Afrikako presondegietara bidaltzeko eskatu zen[272].

Azpimarragarriena, dena den, 1741ean korrejidoreak egindako eskaera, Donostian zegoen erregimentua lizentziatzear zegoen-eta, tropa berritu ahal izateko arloteak atxilotzea eskatzen zen: "*Hallándose el reximiento de infantería de Vitoria mui falto de jente, y en disposición de extinguirse a causa de estar para restituirse la mayor parte de los soldados, de que oy se compone, por haver cumplido el tiempo en que se empeñaron, y siendo este cuerpo uno de los que mas se han distinguido en el servicio del rey...encargo a VM que por si y sus subalternos se aplique a asegurar los vagamundos y mal entretenidos que se [borrado] en los pueblos comprendidos en ese correximiento...*"[273].

---

[270] GAO: JD AJF 8, 8.

[271] GAO: CO CRI 149, 4. Honen ildotik, Batzarrek erregearen itsasontzi baten eskifaia osatzea jarri zuten helburu.

[272] GAO: JD AJF 8, 19.

[273] GAO: CO CRI 224, 5. Tolosako alkateak eskaera hau hartu zuen oinarri emakume bat eta berarekin izkutuan zebilen gizon ezkondu bat harrapatzeko.

Ebazpen honen erabilera, esate baterako, Aretxabaletako alkateak abiatutako auzia eta Oñatiko Domingo Urretari emaniko zigorra izango genuke: lapurreta ugari leporatuta, Donostian zegoen tropan sarrarazi zuten 4 urtez[274].

Baina, esan bezala, agindurik nabarmenenak 1745ean hasi ziren, ekainean eta abenduan, orduko gerraren beharrez eta aldez aurretik errekrutatzeko erabilitako bideak antzuak suertatu eta gero [275].

Eskaera hauen erantzuna, 1746ko Batzar Nagusiek eman zuten, agindu hauek aztertzeko aditu talde bat osatu eta gero. Izan ere, bertan Korrejidorea epaile bakartzat jotzeak zekarren traba gainditu behar zen. Horretarako, alkateek auziak beren borondatez igarotzeko aginduko dute. Gainera, atxiloketak saritu eta gai honen inguruko agiri guztiak inprimatzea erabaki zuten: "*Los nombrados por VS hemos conferido los medios que pudieran ser más eficazes para la entera execución de las Ordenes del Rey, Dios le guarde, que ha presenta a VS el Señor Corregidor, para la prisión y destino de los bagabundos, gitanos y desertores. Y nos parece que VS pudiera servirse de mandar que se imprima luego la carta-orden del Señor Marques de la Ensenada con la brevedad*

[274] GAO: CO CRI 226, 4. Lapurreten artean: Galartzako elizan, Goronaetako baserri batean, Arantzazuko bentan. Berarekin atxilotu Felipe Uzelairi, berriz, bi urtetako desterrua ezarri zitzaion.

[275] Ekainekoak, adibidez, hala zioen: "*Entendiendo el Rey presente quanto conviene a la causa pública y a la tranquilidad del reyno, restablecer el exército completando los cuerpos de infantería, que han venido de Saboya y Piemonte deteriorados...y atendiendo igualmente su Magestad al beneficio de sus pueblos, aliviándoles del repartimiento de quintas...reflexionando al mismo tiempo lo útil e importante que es al bien comun, y a la seguridad del buen Gobierno el limpiar los pueblos de vagabundos y dessertores y como las providencias que hasta aora se han dado por varios conductos nos han sido suficientes…manda se persigan con el mayor rigor y se recojan con suma vigilancia todos los vagamundos, ociosos, mal entretenidos, gente de mal vivir, los defraudadores de todas rentas reales y otras quealesquiera reos de delito que no sea feo*"
Urtebete beranduago emandakoan, berriz, tokiko arduradunen axolagabekeria plazaratzen zen, iheslariak eta arloteak salatzea eta ejerzitorako ehizatzea biztanle guztien ardura zela aldarrikatuz: "*aviendose experimentado que sin embargo de las ordenes que en el mes de junio del año passado se han expedido y comunicado a todas las justicias del reyno para la aprehension de bagamundos y desertores no se han conseguido los efectos…motivado de la omision y desidia con que proceden las justicias…en cuya inteligencia prevengo a VS de orden de su majestad, procure por su parte atender con el mayor cuidado al cumplimiento de lo que tanto importa, encargando a todos sus subditos no consientan en los pueblos de su jurisdicción persona alguna de la calse de bagamundos, ociosos, mal entretenidos, ni los que viven sin destino y poca aplicacion al trabajo… como tambien que persigan con el maor rigor los desertores…". Registro de la Junta General...1746...impreso...por Bartholome Riesgo...*
Tartean, 46ko otsailean, iheslariek elizaren eskumenean aurkitzen zuten babesa bertan behera utzi zen.

*correspondiente, a que los cavalleros procuradores de las repúblicas puedan llevar a ellas sus copias...Esta Real Orden manda, que la aplicación de toda la gente que se destinare al servicio de la tropa, la haga por sí el Señor Corregidor, inhibido de qualquiera otra juridicion, sin más dependencia que de la Secretaría de Guerra. Y nos parece, que para su cumplimiento, sin perjuicio de la primera instancia de las Justicias de VS, pudiera servirse de mandar que conforme a los decretado por la última Junta General de San Sebastián, las Justicias remitan voluntariamente al Señor Corregidor quando gustaren las sumarias, y los reos que prendiesen, para que assi se eviten gastos. O que si quisiesen sentenciar por sí los autos, lo executen brevemente, pues para destinar por bagabundos, y ociosos conforme a las Reales Pragmáticas, y al Fuero de VS, no es necesarria justificación de otro delito...También nos parece...se impriman...las órdenes contra bagabundos, gitanos y desertores que han salido este año, para que con su noticia las hagan executar las Justicias de VS con la puntualidad correpondiente...Y para adelantar a que aya denunciadores que a los señores alcaldes den noticia de la gente de esta clase...se señalen dos pesos de premio a qualquiera que prenda algun sugeto que sea capaz de entregarse para la recluta general*"[276].

Hala eta guztiz ere, Espainiako armadaren egoera tamalgarria zela-eta, aginduak 46ko azaroan[277] eta abenduan berritu ziren. Azken honetan, beste behin ere, mota honetako ebazpenak herrietan izan zuten oihartzun eskasa salatzen zuen erregeak, ejerzitoa osatzeko 25.000 lagun gehiago beharrezkoa zela gehituz[278].

---

[276] *Berdin.* Aditu taldea honako hauek osatu zuten: Jose Domingo Aroztegi Etxeberri, Jose Francisco Laplaza Sarria, Jose Antonio Azkue, Juan Ignacio Ibañez de Zabala, Felix Ignacio Samaniego Munibe, Antono Inza, Juan Baptista Iriarte, Manuel Ignacio Altuna, Luis Indart, Juan Antonio Iun Ibarbia, Mateo Antonio Etxaniz, Joakin Ignacio Moya Izagirre, Agustin Jose Leizaur, Pedro Etxebeste Palencia, Pedro Ignacio Zabala Ozaeta.

[277] *Berdin. "aunque la precision de completar y poner en el pie correspondiente los regimientos de infantería del exercito del rey que se halla en campaña para que no solo no sea mirado con desprecio de los enemigos, ni por su debilidad arruinado con pérdida de tan bizarra y apreciable gente, sino es respetado y temido como lo ha sido hasta aquí tanto por el honor de las armas y poder mantener el empeño de la guerra como por ser medio para asegura una paz sólida y ventajosa, pedia la mas prompta remessa del numero de gente capaz a ocurrir a tan precissa como necessaria urgencia…mandar que el reemplazo de la infantería se execute de la gente vagabunda, viciosa y mal entretenida que se hallare en los pueblos y de los reos que lo sean, no de delitos feos…Lo que participo a VM para que en inteligencia de la real intencion de SM se dedique con el mas activo puntual cuidado a facilitar la aprehension de la gente ociosa viciosa y mal entretenida… y a aplicar a este fin los reos que huviere en las carzeles de ella…como tambien aprehender todo genero de desertores…"*

[278] [*Registro de la Junta Particular...25-III-1747...impreso...por Bartholome Riesgo...*]. *"La duración de la guerra y la conocida inescusable precission de continuarla como medio de assegurar la paz..."*. *"Por cuanto es notoria y manifiesta la omission de los pueblos en la observancia de las repetidas ordenanzas promulgadas contra los desertores...encubriendose y tolerandose..."*.

Errekrutatze honetan parte hartzeko deia 47ko martxoan egiten da Gipuzkoan, eta horretarako Probintziak Miguel Antonio Zuaznabarren aholkua eskatu zuen. Honek, egoeraren korapilatsua ikusirik, Forua, Erregea zerbitzatzea eta Lurraldearen egoera uztartu ezinean, inolako aholkurik emateko gaia ez zela erantzun zuenez, –"*siendo los puntos que ay que examinar en el assumpto: uno, la lealtad y celo de VS al Real Servicio; otro, la possibilidad o impossibilidad en el presente caso; y el otro, la atencion de VS a su modo de govierno, en ninguno de ellos puedo alcanzar yo las luces conveniente...* "– gaia jorratzeko antolatutako Batzar Bereziak Ahaldun Nagusi Domingo Olazagaren beraren iritziarekin bat egingo zuen. Hortaz, laguntza bakarra dirutan egingo zen, –zera gehituz: "*quedarán en sus casa mis hijos para cuidar a la defensa de este corto rayo de la anchurosa Corona*"– eta, bide batez, Probintziak Itsas-armadan eginiko ekarpenak, Lurraldea defendatzeko hartutako neurriak zein mendeetan zehar eginiko balentriak gogoratu, eta, bereziki, desertoreak harrapatzen eta erregearen armada arlotez hornitzen eginiko lana aldarrikatu zuen: "*de dos años a esta parte han recibido mi Corregidor y justicias, varias ordenes, dirigidas a la prisión de dessertores y bagabundos: y concurrrendo todas a esta importancia, con el celo correspondiente, se han entregado muchos a los Oficiales de Recluta. Y limpiando de ellos el Pais, como quitado a otros la esperanza de refugiarse en el...En mi ultima Junta General, además de otras providencias, señalé premio a qualquiera que prendiesse desertor, o bagabundo. Y mandé a mi Alcalde de Sacas que deteniendo en el passo precisso de Yrun a todo hombre sospechoso, diesse parte a mi Corregidor. Por este medio, logré privar a desertores, bagabundos, y fugitivos de la leva no solo de hallar acogida, sino también de el tránsito por mi territorio. Y si bien oigo decir que en Bayona ay gran numero de estas clases, es precisso se ayan conducido por otros caminos...* "[279].

Abagune berezi honetan, Probintziak malgutasuna erakutsi zuen Korrejidorearen epai-eremua lehenesteko, betiere bere eskumena babesteko beharrezkoak ziren xedapen guztiak emanez. Sasoi berean eman ziren kontrabandoaren afera ala Korrejidorearen egoitza finkatzeko eztabaidarekin alderatuz gero, honako hau erraz pasatutako ataka izan zela esan beharko genuke. Lehentasuna korrejidorearen tribunalari ematea beti oso mugimendu arriskutsua zela kontutan harturik.

---

[279] *Berdin*.

Jokaldia, dena den, herrietako mesederako izan zitekeen beste behin ere, gastuak ez sortzeaz gain, hain kaltegarriak omen ziren eta gizarte-sistemak irentsi ezin zituen ale diziplinatu gabeak kanporatzeko erabiltzerik baldin bazuten. Hau, baina, ez zen aski aginduak asetzeko, hauek betetzeko, aurretik Korrejidoreak zein epaitu eta ejerzitoratu eduki behar zuelako, bistan denez. Probintziarentzat, baina, ez zen inolaz ere komenigarria zeregin hau erregeen ordezkarien eskuetan uztea; hala jokatzea, utzikeria, ahulezia eta lurraldea babesteko gaitasun-ezatzat har zitekeen, hau da, Probintziako gobernuaren zutabe bat haustea. Beraz, akats izugarria litzateke korrejidorea –ofizioz eta bere laguntzaile bitartez zein aginte militarrez lagunduta– bakarrik uztea tribunalaren surako ikatza hornitzen.

Hortaz, Probintziak jada ezaguna ditugun komisarioak berreskuratu zituen. Orain baina, komisiodun hauek beste oinarrizko funtzioa betetzen zuten Probintziarako, kutsu nabarmen politikoa zuena, berehala ikusiko dugun moduan. Horrela, 1746tik aurrera, Erregeak Aldundiari zuzendutako eskaera zehatzak kanpo-laguntzaren beharrik gabe betetzeko ezinbestekoak izan ziren. Horregatik, komisioak eta komisarioek betetzen zuten lana Aldundiaren ikurretako bat izan zirela iruditzen zaigu, jokamolde honen bidez, Korrejidoreekin sortzen ari zen giro mikatza areagotu gabe eta Forua ukitu gabe, Gipuzkoako erakundeek beren burua babesteko eta beren konpromisoak betetzeko ahalmena erakusten zuten eta. Salbuespenezko molde honekin, zalantzarik gabe, ohiko agintarien gainean oinarritutako sistema babesten zen.

Gauzak horrela, Gipuzkoako erakundeek atxiloketak gauzatzeari ekin zioten, horretarako bere diziplina ezartzeko proiektuan erabilitako tresnak eraginez, eta proiektu honen sendotasuna erakutsiz. Hau dela eta, alkateak eta, batez ere, komisarioak nabarmendu ziren atxiloketa gauzatzen[280]. Markos Aiestaran, Juan Inazio

---

[280] Baita noizean behin ere auzokoren bat: GAO: CO CRI: 1754-1 270, 5. Elgoibarko hiru auzokok Ispasterko Juan Uriarte atxilotu eta lotu egin zuten. Uriarte "osteatin" zebilen euskaldun eskale moduan agertzen da. Eskale moduan ibiltzeko bihotzeko gaixotasuna bat aukezten du; honek, lanerako ezindu duela, Baionan eta Bilbon lanean saiatu arren. Lapurretak

Garikano eta Nikolas Errementaria komisiodunak etengabe agertzen dira atxiloketak burutzen eta atxilotuak korrejidorearengana eramaten.

Beraz, 1746-1750 bitartean, Garikano, Rementeria eta Aiestaran gizasemeak ehizatzen espezializatu zirela esan genezake. Haiekin batera ere, Juan Jose Arrieta agertzen da inoiz. Dena den, ez dugu uste erakunde trinko baten aurrean gaudenik; izan ere, komisiodun hauek izen ugarirekin agertzeak eta pertsona berak ere komisio bera adierazteko esamolde ugari erabiltzeak zereginaren behin-behinekotasuna agerian utziko luke gure aburuz: *"aprension de gente mal entretenida y baga"*; *"comisario de esta provincia para la prisión de los ladrones, vagamundos, jitanos, jitanas, desertores fuxitivos de las levas"*; *"comisionario para la aprension de vagantes y malentretenidos"*; *"para aprehension de gente de mal vivir y sospechosa"*; *"comisionista nombrado par esta muy noble provincia para la aprension de bagantes y desertores"...*

Era berean, mendearen erdialdean aurkezpen gisa erabiltzen ziren xedapen hauetan desertore edo iheslariak komisioaren xedea bezala ez agertzea ala beste mailaketa batzuekin batera agertzea –nahiz eta atxilotu gehien ezaugarri horiek bete– oso adierazgarria iruditzen zaigu. Honen arabera, Probintziak ez lituzke estu-estuan errege-aginduak beteko, bere beharrei eta bere kontzeptualizazioei egokitu ondoren baizik. Desertoreak ez ziren komisarioen helburu bakarra; aginte probintzialak desertoreak multzo zabalago baten partaide bezala hartzen zuten. Izan ere, komisario hauek ez zituzten soil-soilik jardun iskanbilatsuak ziren gipuzkoarrak atxilotzen.

Urte hauetako Komisarioak jarduteko moduari buruz, hau da, armak, zaldiak, espioitza eta zelatatze lanak eta abarrei buruz, agiriek ez digute informazio soberan eman. Esanguratsuenak, Rementeria komisarioak burututako atxiloketa baten arrastotik eskuratu ditugu, aipatu berri duguna berresteko, gainera, lagunduko diguna[281]. Gertatutakoaren lekukotasuna jaso duen eskribauaren esanetan, arlote izateagatik bizimodu susmagarriko lagun bat atxilotu omen du Rementeriak Eibarren,

---

eta alargun batekin eskatzen eta ezkondu gabe bizitzea leporatzen zaio ere bai. Ezaugarri bezala, marinel-jantzi zahar eta urratu bat ematen da. Azkenean, bi urtez Ferrolera zigortua.
Era berean, Tolosako aguazilaren bat ere tarteka agertzen da, desertoreen aurka aritzen baina Probintziako komisiodun gisa.
[281] GAO: CO CRI 1750-2.

espetxeratua izango dena bere erruaren berri izateko[282]. Susmagarriaren berri jasotzeko, oso deigarri egiten zaigu eskale batzuek Rementeriarekiko zuten konfidantza. Honek, ospitaleak, bideak, bentak eta antzeko guneak zelatatzeko komisiodunek espioiak izango zituztela pentsatzeko bide ematen digu. Hauen informazioari eta ahoz aho zebiltzaten zurrumurruei esker, alkateek zein komisiodunek jende susmagarria han-hemenka zebila "entzun" dutela adieraziko dute maiz. Dena den, hizkuntza alde batera utzita ere, gazte ezezagunak erraz asko nabarmentzen ziren herrietan. Nolanahi ere, jantziak edo eskale moduan ibiltzea susmagarritasunaren ezaugarriak areagotzen zituzten.

Pasadizo honetan ikusten den moduan, komisiodunak armatuak eta lagunduak ibili ahal ziren. Dirudienez, aurreneko batean oraingo preso hau beste preso batzuk askatzen saiatu zen, Eskoriatzako alkatearen izenean Rementeriak korrejidorearen espetxera eramaten zituenak. Askatzeko saio horretan hiru lagunek hartu zuten parte, makilez armatuta. Rementeriak ez omen zituen bostak kontrolatu ahal, eta Eskoriatzako alkateak jarritako laguntzailea atzerago zegoenez, eskopeta batekin defendatu behar izan zuen bere burua. Laguntzailea iristean, denak hartu zituzten preso bien artean, baina orain atxilotu duena zauritua egonik, berarekin errukitu eta libre utzi zuten[283]. Rementeriaren esanetan, bere garaian libre utzi zuen laguna eta orain atxilotutakoa persona bera da eta atxilotzearen arrazoia mehatxuka ibiltzea izan da. Arrateko ferian aurkituko zuelakoan, Eibarko alkatearekin bildu eta han atzeman zuten. Alkateak hartu zuen preso eta Rementeriaren esku utzi.

Atxiloketa gauzatzeko arrazoiak jasotzea eskribauen lana zen. Hemen ere hala gertatu zen, bidean, Altzolako zubian, Franzisko Txurruka eskribauarekin topo egin eta itaundu egin baitzuten susmagarria. Txurrukaren iritziz eta bidean ere elkartutako

---

282 *"se le ha dado parte a su merced haver conducido a la carcel real de ella a un hombre de vida sospechosa, haviendole prendido por bagante... y para la aberiguazion de la culpa que contra dicho hombre resultare mandava y mando su merced que haciendose entrega formal de el al alcaide carzelero, se reziva declarazion por el presente escribano a dicho Nicolas de Rementaria, conductor, en razon de la apresion de dicho hombre y las causas y motivos que para ello hubiere tenido ".*

283 *"empezaron a hacerle cargo a donde llebava a aquellos hombres diciendo no consentian que los llevase y condujese a la carzel...encañonandoles la escopeta que tenia cargada de valas y perdigones les amenazo a los cinco"*. Rementeria sari-ehiztari profesionala dela garbi gelditzen da, laguntzaileak zurgintza baitu ogibidea, eta bigarren liskar hau gertatutakoan Gaztelan zegoen lanean.

Juan Franzisko Gorbea eskribauaren iritziz, atxilotuak emandako erantzunak bere susmagarritasuna berretsi baino ez zuten egiten[284].

Informazio-iturri gisa eta atxiloketak gauzatze aldera sari-ehiztari hauek izan zituzten bidelagunen artean, ezin aipatu gabe utzi aginte militarra, bere kabuz atxiloketak gauzatzen zituena, gainera. Dena den, biren artean sortutako harremanak nolabaiteko ustelkeria utziko luke agerian, epaia azkarra zein galdera gutxikoaren ondoren zigorra ejerzitoan bideratzeak, saridun atxiloketak ugaltzea lekarke. Hala ikusten da Aiestaran komisarioak egindako atxiloketa batean.

Aiestaranek berak kontatzen digu nola atxilotu zituen Noreñako (Asturies) Juan Lopez Valdes eta Borjako (Aragoi) Felix Aperiz: "*en virtud de comision que tiene de esta muy noble y muy leal provincia para prender desertores vagabundos y jente mal entretenida, el dia veinte y uno del hultimo mes prendio el compareciente a los dos ombres contenidos en estos autos por causa de que haviendo preguntandoles a donde yban de donde heran y con que pasaportes, y espresadole el uno que era estudiente y el otro de ofizio cantero, y que no thenian pasaportes ni papeles algunos y que venían para esta ziudad y no parecerle que su traje era sino de desertores o vagabundos, les prendio*". Hau Tolosan gertatu zen, handik zegoen batailoi batekin Donostiara igorri zituelako.

Valdesek eginiko adierazpenetan, Nafarroan zurgina eta Frantziako banderapean kortsario ibilia zela esaten da, Ingalaterran preso zegoela ihes egin eta itzuli egin zela. Lizarratik Donostiarako bidean zeuden biak Aiestaran geldiarazi eta itaundu egin zituztenean, goi-mailako militar bat tartean zegoela. Bizimodua ogibidez atera nahi zutelako, ejerzitoan izena emateari uko egin zutenez, atxilotu egin zituzten.

---

[284] "*le aseguraron al declarante asi un hombre vizcaino que pidiendo limosna llega a su casa, llamado Domingo, como tambien otros pobres montañeses y vizcainos en ocasion que asistio al santuario de Nuestra Señora de Arrate, que este hombre que oi se halla preso, decia que en qualquiera parte que le encontrase al declarante le sacaria las tripas y le dexaria muerto. Que con este motivo y recelos...de que se empleava en contrabando, ha estado...a la mira de si puede pillarle...tal hombre era sospechoso pues le hablaba con mucha variedad*".

Hau dela eta, Aiestaranen aurka planta aurkeztu zuten: "*han sido sin ningun fundamento sino mera voluntariedad [de Aiestaran]. Siempre...han sido de buena vida y costumbres...haverse mantenido con el trabaxo cotidiano de sus oficios*".

Aiestaranek eta beste harrapakariek atxiloketak arintasun osoz burutzea ez gaitu harritzen. Lehenik eta behin, hori zelako beraiei komisionatua: susmagarriak atzematea, gero epaitzeko. Hurrenik, militarrek zuten soldadu behar asegaitzak zirela hartu behar da aintzat. Eta azkenik, gazte hauen bizipenak eta zigorra jaso zutenen beste askorena nekez bereiztu zitezkeela ere aitortu behar dugu; izan ere, "lanaren bila zebilen sasoikako langile izatea" auziperatu askok emandako argudioa zen. Hemen, nonbait, aldez aurretik Donostia ezagutzea eta bertan lan egin izateak lekuko andana aurkeztea bideratu zuen. Honek, eta prozedura behar bezala ez betetzeak, Aiestarani kargu hartzea ekarri zuen: "*que en adelante los sujetos y personas que prendiere mediante su comision no los entregue sino es que sea con mandato de juez a quien corresponde el conocer de semejantes causas, pena de que sera castigado con mayor rigor*"[285].

Halere, erabili dugun dokumentazioaren arabera, eta komisarioek lortutako emaitzak zehatz-mehatz zenbatzeko ez badugu ere, hauek eginiko atxiloketak oro har korrejidoreen eta Probintziaren gustoko izan zirela esan dezakegu eta proportzio handi batean asmatu zutela esaten ere ausartuko ginateke, eginkizun hauetan, gainera, aurreneko garaietan baino iskanbila gutxiago sortuz. Horretarako, ikusi bezala, izugarrizko adostasun eta babes ideologikoa zegoen zabalduta erakunde guztietan eta guztietatik. Alde horretatik, beraz, XVIII. mendean zehar Probintzian hedatutako sareak jazarpen eta zigorraren egitasmo sendoa osatu zuela esan dezakegu.

[285] GAO: CO CRI 256, 5. 1749koa.

**2.3 Arrakasta bere neurrian**.

Jarduera honen tamaina irudikatzeko, Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean dagoen Korrejimendu sailera jo dugu, bertan gordetzen baitira auzitegi honetako prozesuak. Informazio iturri bezala, sail hau oso egokia da gure ustez, korrejidore guztien informazioa toki bakar batean eta modu jarraitu batean biltzen delako. Sail osoan 3.400 agiri baino gehiago agertzen dira, aurkibide eraginkor baten faltan, banan-banan ikusi behar direnak[286].

1600-1808 bitarteko auzi guztiak gainbegiratu ondoren, portaera okerrak izateagatik epaitegi honetan auziperatu zirenak XVIII. mendearen erdialdean nabaritu zirela esan dezakegu[287]. Are gehiago, kopururik esanguratsuenak 1747-1757 hamarkadan agertzen dira, gorde diren 772 auzi kriminaletatik 42 lapurreta (bi asalto barne) eta 188 –ia laurden bat– portaera oker moduan agertzen baitira.

Zenbaki hauek kontu handiz erabili behar diren arren –egun ditugun auziak izan ziren auzi guztiak ez direlako, eta zenbakien gainean kontserbazio arazoek ere

---

286 Hori zen egoera guk datuak jaso genituenean. Egun, berriz, oinarrizko datu-base bat dago, testu hau idazten ari garela, 1753. urtera arte baliogarria dena. Bilaketak testu-librean egiten dira.

287 -XVII. mendeko lehendabiziko 50. urteetan 274 agiri ditugu, ohekidetza eta bidelapurretari buruzko bana baino azaltzen ez delarik;
- 1651-1675 bitartean, berriz, auziak 360 dira; haietako bat bidelapurreta, 3 portaera ez egokiak (“malvivir”), ijitoen aurkako beste bat, gehi 2 istilu larri jaialdi publikoetan;
-1676-1700 epean, azkenik, auziak 419 dira: bizimodu arbuiagarriak 5 lirateke; ijitoak eta ogibide susmagarriak dituztenak, 2; bidelapurretak eta antzekoak, 3. Hauekin batera, lapurreta txiki asko izango genuke. Garai honetarako estatistikak burutzeak dakarren arriskuaz jabetzen garen arren, oso arriskutsua izanda ere, 1676-1700 bitarteako epaiketa hauetan azpimarratzaen ari garenak 1688-1699 artean eman zirela ohartu behar dugu: bizimodu eskandulagarriak 1688an (2) eta 1698an (3); ijito eta susmagarriak 1689-90ean, deportazio orokorra agindu ondoren; lapurreta handiak 1690, 95 eta 97an. Hortaz, 1687-1700 bitarteko kontrolaren garapenaren oinean leudekeen delituak genituzke hauek.
- XVIII. mendearen lehendabiziko erdialdeari dagokionez, 1701-1750 bitarterako gorde diren auziak 1.400 dira; horietako 150 bat (%10,7) “mal vivir”, 95 lapurretak eta 6 asalto dira. 150 horietatik, 1747ko 18ak, 1748ko 19ak eta 1749ko 25ak nabarmentzekoak dira, hiru urteren bueltan 50 urte hauetako %41 jasotzen da eta.
- Era berean, 1750-58 bitartean sail honek ematen dituen datuen arabera, “mal vivir” delakoaz diren auziak etengabe handitzen dira: 9 urte hauetako 520 auzi gorde dira, horietako 115 (%22) portaera okerrak direlako. Hauetako 26 1751ean jaso ziren; 29, 1754an; 15, 1755ean; 20 bat, 1756an eta beste horrenbeste 1757an. Dena den, 1754ko urtean gordetzen ziren asko 1747. urteari dagozkie.

bere eragina izan dezaketelako[288]–, datuak argiak direla uste dugu. Horretarako arrazoi zehatzak daudela pentsatzekoa da. Alde batetik, era guztietako auzien gorakada bultzatzen dituzten arrazoi orokorrak izango genituzke, matxinadak sortu zituzten arrazoi ekonomiko eta sozial berak, esate baterako. Bistan dena, gure lanetik kanpo dagoen eremua da hori. Horiekin batera, baina, arrazoi zehatz batzuk tartekatzen direla iruditzen zaigu, unekoak direnak, aipatu auzien kopuru eta mota sortarazten dituztenak eta, ondorioz, gizartearen diziplinaren bidean eragina izaten dituztenak.

Arrazoi zehatz hauen artean dugun ziorik nagusiena, zalantzarik gabe, 1745ean areagotutako errepresio soziala izango genuke, arestian ikusi bezala. Hortaz, XVIII. erdialdean, 1746-51 artean bereziki, desertoreak harrapatzeko hedatutako sarekadek, berriz, Iberiar Penintsulako gazteak ditugu gehienetan jazarpenaren helburua berebiziko eragina izan zuten lehen aipatu ditugun zenbakien gainean. Hau da, zenbaki hutsei erreparatzeak, auzi kriminalen gorakadak Gipuzkoako jendeak sortutako gatazkei egoztea balekar, gure analisia oker egongo litzateke, agiriak zenbatzeaz gain aztertzen baditugu, atxilotuak, epaituak eta armadara berriro bidaltzen direnak kanpotarrak direla jabetuko baikara.

Hala eta guztiz ere, zigorrak ezartzea ahalbideratzen zituen jazarpenerako jokabidea Gipuzkoak erabat zehaztuta eta trebatuta izan arren, ezin dugu esan polizia garaikidearen jaiotzaren aurrean gaudenik. Hitz hau, poliziarena, ez da inoiz azaltzen gure XVIII. mendean, ez behintzat egun ematen diogun balioarekin. Balio hori ez dagokio garai honi. Gainera, polizia izango denaren hainbat funtzio bereganatzen zuten komisarioak urtero –edo noizbehinkaka– berritu eta izendatzen zirela argi eta garbi gelditu da. Ez zuten talde iraunkor bat osatzen. Lege onean, talde bat osatzen zutenik ere ezin dugu esan. Bakoitzak bere eskumena zeukan, eta laguntzaileak behar zituenean auzokideei armak hartzeko eta laguntzeko eskatzeko beharrean zeuden. Hau dela-eta, soberan ikusi dugun bezala, komisarioen irudiari gehien hurbil dakioken portaera sari-ehiztari batena da, *western* filmetan ikus ditzakegunen

[288] Korrejidoreak Gipuzkoan zehar txandaka ibiltzeak ere dokumentazio galera ekarriko zuen. 1746ko batzar nagusietan, korrejidoaren egoitza finkatzeko eztabaidaren barnean, azken 10 urteetako leku aldatzetan 1.200 auzietatik gora galdu direla esaten da. GAO: JD AM 103.

modukoak. Lizentzia honekin une batez segitzea zilegi izango zaigulakoan, alkateen ahalmena gainditzen bazuten ere, komisarioak ez ziren inongo *FBI* bateko partaideak. Une honetan Gipuzkoak ez zuen indar armatu probintzial erabatekorik sortu, bere errepubliken gainetik guztiz aske izan zitekeena.

Egoera honek Probintziak gizarte kontrolerako bere burua nola hornitzen zuen eta nola aritzen zen ikusteko parada eskaini dugu. Honengatik, Aldundia-Batzar Nagusien eta Korrejimenduaren artean elkarlana bultzatu ala adostu zela, edo gutxienez baliabideak partekatu zirela esan dezakegula uste dugu. Korrejidore-Alkate bikotea lehenesten da, atxilotze-komisioak banatzea lausotu den bidea bada ere. Lapurreta handiak edo bide-lapurretak emango ziren, noski, baina ez etengabe eta nonahi. Ekintza mota hauek tarteka-marteka gertatuko ziren orain, eta ez beti pertsona berek eginak.

Elkarlan horretan, Korrejidoreak bere epaitzeko ahalmena eta erresumako osoko legeak jarriko ditu mahai gainean. Laguntza hau baliogarri izango zaie Gipuzkoako erakundeei diziplina erakustaldia egiteko dirua xahutu gabe: kaltegarriak ziren herritarrak –edo, besterik gabe, alkatearen aburuz kaltegarriak izan litezkeenak– gehi susmagarriak ziren atzerritarrak korrejidoreen esku uztea doan bilakatu zen udalbatzarentzat.

### 3. BIDE PARTEKATUAK

XVIII. mendearen lehendabiziko erdialdean Gipuzkoako agintariek erabiltzen zuten diziplinarako sistema aurreneko atalean zehaztu dugun ildotik abiatu zen. 1710. urtera arte jorratutako tresnak eta ideiak gizarteratzen segitu zutela esan dezakegu eta orobat sistemaren ezaugarririk nagusiena bere lausotasuna zela. Hau da, gure aburuz ez zen era iraunkor batean jazarpenarako erakunde tinkorik eratu, baina kontrakoa ematen badu ere, honako hau ez zen utzikeriaren ondorio, ez eta irizpideen ahuleziaren adierazgarri; guztiz alderantziz. Erakunde trinkoaren ordez, agintaritzak finkatu zuena aritzeko modu bat izan zen, aldez aurretik diseinatua eta agintarien tresneria ideologikoaren artean gordetzen ziren diziplinarako aleak beharren arabera erabiltzen zituen moldea, alegia.

Zeregin honetan, propio landutako diskurtso eta txostenak zein Korrejidorearen bitartez iritsitako Erresumako legeak izango ditu Probintziak oinarrizko lanabes. Hauen bitartez marraztutako xedeak antzemateko, ohiko jazarpena –alkateen buruzagitzapean–, kargu espezializatua –komisiodunen bitartez–, edota korrejidorearekiko elkarlana erabiliko dira. Aritzeko modu honek jopuntuaren norabidea uneko "arriskuen" arabera egokitzen ahalbideratzen dio Probintziako agintaritzari, jazarpenaren helburuaren xedea maiz argitzen behartu arren.




Elkarrekintza hauen jarduera eta emaitzak komisarioen eskuetatik ikusi ditugu. Baina eragile hauek 1688-1715 abaguneari daude egokituak, mendearen erdialdean burututako ekintzak ez ohikoak izan zirelako. Honen ildotik, 1710-1720 eta 1746-1750 hain arrakastatsu suertatu zen komisarioen sistema, XVIII. bigarren erdialdeari

dagokionez ia desagertutzat emateak ez gaitu harritu behar. Atxiloketaz arduratzeko komisioak 1750etik aurrera agertzen badira ere, bere lanaren berri sistematizatua ez zaigu iritsi, ez behintzat aurreneko urteetan utzitako arrastoaren sendotasunarekin. Alderantziz, topatu duguna sistemaren erakundetze falta izan da. Ildo horretatik segituz, ez dirudi Probintziako antolakuntzarako sistemak errepresioaz arduratzen den erakunde finko bat sortzeko bidea jorratuko duenik. Alderantziz, uneko beharren arabera eragiten ala moteltzen diren irtenbideak lehenestuko dira. Erakunde berezi baten bitarteko baliabide hauek Probintziak antzemandako larrialdi-unetan eragiten zirela ematen du, gainontzeko denboraldietan ohiko jazarpen moldeek martxan segitzen zuten bitartean: bide batez esan dezagun, komisarioekin inoiz desagertu ez ziren molde tradizionalak, ohiko agintaritzaren zuzendaritzapekoak. Horrela, susmagarriak, arloteak, alferrak eta abar atxilotzeko, auziperatzeko, eta zigorrari lotutako gainontzeko ekimenetarako, alkateen eta korrejidoreen ofiziozko lanak gertu daude beti.

Zigorraren egitasmoaren arrakasta, baliabideen erabilera malguari eta tresnak metatzeari zor zitzaiola uste dugu. Baina, batez ere, tokiko ordezkariek Lurralde osoa aintzat hartzen zuen proiektu politikoari erakutsi zioten atxikimenduari. Adostasun hau ezinbestekoa zen jazarpen orokorra bilakatzeko eta tokiko eskumenek altxatzen zituzten muga finantzario zein praktikoak gainditzeko.

### 3.1. Kontrol soziala ohiko bitartekoetan.

Ugaritasun hau bi ardatzetan egikaratuko da. Batean, Lurraldeko erakundeak izango ditugu, Aldundia buru, alkateak betearazle eta baliabide legal propio zein bereganatuak erabiliko dituena. Bestea Erresumako ordezkariek osatuko dute, bereziki militarrek eta korrejidoreak. Biek ala biek elkarren beharra eta elkarlanean aritzeko interesa adierazi eta gauzatu ere egingo dute abagunearen arabera. Baina, zalantzarik gabe, kontrol tresnen sorrera eta bilakaera ikertze aldera gizarte kontrola oldarkorraren nagusitasunaren inguruan piztuko den lehia bizia askoz esanguratsua izango dugu.

Komisarioak bete zuten lana ikusgarria izan bazen ere, ez dugu ahaztu behar XVIII. mendean zehar alkateen jazarpenerako ekintzak ez zirela inoiz alboratu. Are gehiago, 30eko hamarkadan komisarioak indargabetzearekin batera, alkateak izan zirela lehenetsiak esan dugu jada. Bere mugak eta guzti, ohiko eta gertuko agintea gorpuzten zuten buruzagi hauek erakunde probintzialen ekimenetan oinarrizko osagai izan ziren: laguntzarako zein zigorrerako. Are gehiago, bietako zein ezarri erabakitzea bere lana zela esan dezakegu, errukia[289] eta kontrol hertsatzailea gorputz bereko atalak baitziren. Adibideak ugariak dira, esate baterako pobreen artean laguntza merezi zutenak bereizteko eta hauen egoerari irtenbidea emateko 1763ko Batzarrek Peñafloridako kontea eta Inazio Jazinto Agirre Elizalde izendatzerakoan erabili zituzten argudioek 1734koek agindutakoa –gorago jaso duguna- ekartzen digu gogora: "*Y considerando la junta el gran numero de pobres forasteros y naturales que anda en todos los pueblos de la provincia y que con capa de pobres anda mucha gente ociosa y malentretenida asi de hombres como de mujeres pidiendo limosna sin las licencias prebenidas por el capitulo 10 del titulo 29 de los fueros de esta provincia, acordo que los señores Conde de Peñaflorida y don Ignacio Jacinto de Aguirre y Eleizalde discurran la forma en que podran recogerse semegantes mugeres y pobres y especialmente los muchachos que handan mendigando y los medios de que podra valerse la provincia para el aumento y subsistencia de ellos*". Era

---

[289] Laguntza merezi dutenen saria mende hasieran finkatutako irizpideen arabera bermatu zen. Horretarako, Gipuzkoak Erruki Etxe sistema antolatzeari ekin zion, 1711 eta 1714 urteen bitartean Donostian egoitza bat eraikitzen eta geroago beste etxe batzuk Urola, Deba eta Oria arroetan. Goragoko oharretan aipatutakoa gogoratu.

berean, 1766ko Batzar Nagusiek benetan pobre zirenei ziurtagiria emateko alkateei galdegin zietela gehi dezakegu, baimenik gabe aritzen zenari Foruaren X. atalaren 29. izenburuaren arabera zigortzea aginduz.

Azken honek karitate tradizionala deuseztatzea bilatzen zuen, eta baserrietan ibiltariei aterpea eskeintzen jarraitzen zuen jende xumearekin batera, oso bestelako aurkariak oldartu zitzaion oraingo honetan. Izan ere, Bergarako apaiz Rafael Garitanok alkatearen aginduak ez betetzea aldarrikatzeaz gain, pisuzko argudio idatzizkoak jorratu zituen neurri hauen kontra 1767. urtean. Garitano apaizak bere jarrera pulpituan eman zuen jakitera, alkatearen agindua irakurriko ez zituela aurreratu zuenean: "*Beste gauza bi edo iru aguintzen ditu Alcate jaunác, baña ez dira lecu santu onetaraco*". Pobreei eskatzeko jartzen zizkieten mugak eta herritarren abegikortasunaren gaineko debekua jorratzen zituen atala dugu apaizak onartzen ez zuena, murrizketa hau foruen aurkako zela gaineratuz[290].

Alta, alkateak ez ziren soilik Aldundiak herrialde mailan gizarte diziplinarako hedatutako ekimenen oinarri izan. Botere egiturarik gorenetik Lurralde osoan zabaltzen zen sarearen partaideak izateaz gain, alkateek berezko eraginkortasuna zuten ordenari eusteko garaian. Beren tokiko komunitatearen kontrolaren buruak izanik, kontrol sozial tradizionalaren burua ere ziren eta[291].

Azken jokabide horretan, baina, Gipuzkoako ordezkari bezala aritzerakoan bereganatutako baliabideak txertatzen ikasi zutela esan genezake. Diziplinarako bide hau bitarteko berezirik gabe jorretzen zen, eta komunitateak bere kideak gizarteratzeko ohiko zituen baliabideen ezintasuna, baserria, ondazilegiak eta premua

---

[290] AHN (Espainia): Consejos, 10967. Foruak, Sorbonako epaiak, Sotoren lana eta Ebanjelioak aipatzen ditu bere argudioetan erabilitako bibliografian.

[291] Harreman zuzen bezain xinple hau oso argi antzematen da alkateek auzokoen laguntza deiak ziztu bizian erantzuten zituztenean. Adibidez, 1738an bi gazte bizkaitarrek emakume batzuk eta gaztetxo batek Donostiatik Andoainera salgaiez (kakao, azukrea, abadejoa, erretzeko pipak...) eramaten zuten mando-taldea lapurtu ondoren, emakumeetako batek negar batean Andoaingo alkatearengana jo zuen gauez eta honek, errukituta, lagun talde bat osatu zuen lapurrak jazartzeko. Ekintza honen ondorioz, Martin Mendieta 8 urtez Oran-era zigortua eta Franzisko Lizarzegi –probetxuz lan egiteko agindu eta gero– desterratua izan zen. GAO: CO CRI 205, 8.

oinarri hartzen zituen antolakuntzaren ezintasuna, era gordin batean erakusten du[292]. Tradiziozko molde horretan, alkateek etxe askotako agintaritza bereganatu behar zuten, senideen portaera estu hartu eta ale konformagaitzak komunitatetik aldenduz.

Hau adierazteko Arrasateko Maria Basarte aukeratu dugu, Errezilgo Basabil baserrian 1752an atxilotua. Bera atxilotzeko eta epaitzeko ezinbestekoak izan ziren komunitateak izandako susmoak. Horretarako, Basarteren arropak, adibidez, esanguratsuak suertatzen ziren: "*en las dos ocasiones que la testigo los ha visto, tenian un genero de trage y vestido sin mutación algunas, hallándose vestida dicha muger ordinariamente, pues sus vestidos se reducían a un ajustillo o almilla de camelote azul, pañuelo de seda azulada, devantal barreteado, saia de bayeta berde y con zapatos*". Eta atxiloketaren arduraduna ere, itxuran antzeman dio bizimodu arbuiagarri "*por sus aires de vida escandalosa*".

Komunitatea, beraz, erne zegoen kalteak sor lituzkeenak baztertzeko prest, nahiz eta Mariaren bizimodua errepasatzen, komunitatea bera da aurrez kale egin duena. Gizarteratzea, gizarte kontrol eragilea, ez da alboratu, baina bere gaitasuna oso zalantzazkoa dugu, arestian aipatutakoaren ildotik. Izan ere, sei hilabete ezkonduta egon ondoren amaren etxera itzuli zen, senar mozkorti eta langabetuaren jipoiekin gogaituta. Han, aspertuta, lagun baten alabak lagundu zion zerbitzatzeko etxe bat bilatzen. Bide horretan, kontrabandozaleak eta saltzaileak ziren lagun berriak egin eta bizimodu honi ekin zion[293].

Gizarteratzea bermatu beharko lukeen ezkontzaren eraginkortasun eza honek, baserrietatik aldenduak eta beste ogibide bat zutenen bizimoduaren krisialdiarekin egingo luke bat.

Testuinguru honetan, oso nabarmenak izango dira gizarteratzea etxe barruan emateko alkateek garatu ekimenak, seme-alaben lehendabiziko heziketa eta kontrola

---

[292] Josetxo URRUTIKOETXEAk maisuki aurkeztutako tesian frogatu bezala: *En una mesa y compañía: caserio y familia campesina en la crisis de la sociedad tradicional.* Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1992.
[293] GAO: CO CRI 293, 2.

gurasoengana finkatzeko ahaleginetan. Era berean, seme-alaben portaera ez-egokia zela-eta, gurasoek plazaratzen zituzten kezkak korrejidorearen auzitegian uste baino maizago kitatzen ziren, auzitegi honetan gorde diren arrastoak mendeak aurrera egin ahala ugariagoak direla. Era berean, alkateek gazte ezkongabe eta lan egiten ez zutenen aurka ofizioz bultzatutako auzi kontaezinak gizarte kontrol mota beraren barruan sartuko genituzke. Beraz, etxean ematen zen tokiko gizarte-kontrolak bi norabideko bidea zuen: gurasoek alkateengana (lehendabizikoek laguntza eskatzen zutenean) zein alkateek gurasoengana (aurrenekoak iskanbilak murrizteko ardura propio hartzen zuenean).

Azkoitiko alkateak Manuel Aranbururen aurka hasitako auzia jazarpen mota honen eredurik arruntena eskaintzen digu, 19 urte zituen gazten honen portaera horrela zehaztuz: "*a handado y vibido ocioso, sin dedicarse a ningun oficio, concurriendo a juegos, tavernas, pasos y otras ocupaciones equibalentes a la vida ociosa*". Gaztea zirujau laguntzaile ibili eta une horretan zerbitzatzeko nagusirik ezin zuela topatu argudiatu arren, ejerzitoarekin izan zen zigortua[294].

Dena den, auzitegi formalengana jotzea gizarteratzeko urratsek kale egin ondoren hartutako erabakia izango zen, portaera oker hauek gertuko pertsonak zuzentzen saiatuko ziren aldez aurretik, sendi-multzoaren barruan ala tokiko gizartearen barruan esanguratsuak ziren pertsonak, alegia. Amezketan eskribaua zen eta ezkonduta zegoen Juan Antonio Artolak ezkontzatik kanpo zuen harremana zuzentzeko urratsak, esate baterako, apaiza zuen anaiak emanak ziren. "Bitarte leun" hauek alferrik izan eta gero, alkateak bideratu zuen auzia, korrejidorearengana irisi arte[295]. Berdin Oiartzunen, Bernarda Ugalderen eta herriko jauntxo baten arteko harremanei dagokionez. Jauntxoaren izena izkutuan eramaten da auzian, ohore kontuak direla-eta. Hemen, gainera, tokiko ahaltsuek juztiziari jarritako oztopoak agertzen dira, alkate Manuel Zuaznabarrek bere beldurra agertzen du-eta, nahiz eta adulteroa, Joakin Ribera, familiakoa izan. Hala jakinarazi zion korrejidoreari: "*mui señor mio. La fuerza de la obligación que conozco de obedecer las ordenes de VS a podido vencer*

---

[294] GAO: CO CRI 1776, 3.
[295] GAO: CO CRI 1754, 1.

*la grande repugnancia que tengo, nacida de el amor a mi propia seguridad y quietud, a entrar en el asunto a que me empeña la carta de VS de fecha 4 de el mes corriente, porque siendome imposible dar paso, ni movimiento sin ser observado de alguno de tanto alcahuetes y apasionados como mi cuñado tiene, es necesario me noten zelador, quando sin fundamento lo an hecho antes que io recibiera la carta de VS"*[296].

Hauxe bera zen ere, zalantzarik gabe, jende xumeak erabilitako bidea, ondoko hitzek adierazi bezala: "*puestos a los pies de VE con el mayor rendimiento suplican por quanto tenemos un hijo llamado Manuel, de veintiséis años, y este nos a dado mucho que sentir por su proceder no arreglado a su nacimiento y averle puesto por dos veces en carrera, en la huna por relixioso...después, por la Compañía de Caracas...no podemos suxetarlo ni por reconvenir el juez ni curas*". Hori dela eta, guraso hauek beren semea ejerzitora bidaltzeko eskatzen zuten[297]. Berdin argudiatu zuten, beste adibide batzuk gehitzearren, Asteasuko Fermin Lertxundik, 22 urteko bere semeak aukeratutako neskalaguna onartu ez eta lanarekiko atxikimendu gutxi eta parrandarekiko asko semeari leporatu zioneko salaketan[298], edo Leon Zubizarretaren anaiek, agintarien esku-hartzea beharrezkoa ikusten zutenek Leonen portaera zela eta: "*deseando evitar males maiores que pudieran resultar de su ociosidad*".

Beste batzuetan, gazteen gaineko segimendua alkatearen ekimen zuzena da. Oso deigarri iruditzen zaizkigu Arrasateko alkate Manuel Maria Gaitan Aialak, errege-ebazpen batean oinarrituta, 1776an alferren aurka gauzatutako atxiloketa orokor baten emaitzak. Izan ere, atxilotuak eta epaituak suertatu ziren alfer horiek 11-15 bitarteko herriko ume eta gazteak izan ziren. Alkatearen esanetan, eskolatu gabeak eta galdukerian heziak, ez zuten inoiz ogibiderik izango eta denontzat kaltegarriak izango ziren egoerak sortuko zirela[299].

---

[296] GAO: CO CRI 277, 7 eta Oiartzungo Udal Artxiboa (OUA): auzi kriminalak, 3-4.
[297] GAO: CO CRI 1781, 2.
[298] GAO: CO CRI 1785-2. Dena den, semeak aurrea hartu eta ezkondu egin zen.
[299] GAO: JD IM 3 14 43. Haurrak zazpi urte betetzean eskalea ez zedin bihur, haurren heziketaren ardura gurasoei zegokiela esaten zuen errege ebazpenak. Haurrak libre gelditu ziren, baina gurasoei heziketa eman edo lana erakusteko galdetu zitzaien. Auziaren oinan, gurasoen pobrezia aurkitzen zen.

Herriek berek portaera okerrak zehazten eta ezabatzen hartzen zuten parte, beraz, eta horretarako agindu zehatzak ematen zituztela udal ordenantzen bitartez. XVI. mendean Tolosan ikusi genuen adibideari jarraipena emateko, 1698ko Berastegiko eta 1756ko Eskoriatzako udal araudiak hautatu ditugu[300].

Herrietan kokatzen diren arau hauek gizarte kontrol tradizionalean paratu ahal genituzke, alkatea kontrol mota horren buruetako bat den heinean. Alta, askotan debakatzen dena, herriko kontrol sozialerako tradizioz erabiltzen ziren jokamoldeak ziren –gauez antolatzen ziren burrunbak, xaribariak edo moral herrikoiak okertzat jotzen zituen pasadizoak salatzeko ekitaldi satirikoak zein nekazal bizimoduari lotutako libertimenduak, hain zuzen ere– eta, baita ere noski, frustazioak edo ezintasunak sortzen zituen tentsioak askatzeko adierazpenak, edo gazteek beren buruak gizarteratzeko eta sozialki mailakatzeko ospatzen ziren ekintzak[301]. Gainera, debekatzen dena ekintza zehatzak izanik, eguneroko bizimoduan ematen ziren egoeren aurrean jartzen gaitu, debekatuko ez balira ezagutuko ez genituenak.

Berastegiko araudiari dagokionez, hau ez zen guztiz berria, erregistro-liburuan kopiatzen eta meza nagusian euskaraz ematen den ebazpena 1690ean emaniko bera da eta. Bertako gazteek gauez antolatzen zituzten parrandak eta burrunbak ditugu nagusiki salatuak. Alkatearen esku-hartzeak gurasoen eta ugasaben hutsak zuzendu nahi ditu, gazteen gaineko lehendabiziko kontrola haiei zegokien eta[302].

Zigorra, hortaz, gazteei eta nagusiei egokitzen zaie. Lehendabizikoentzat galerak eta desterrua aipatzen da; bigarrenentzako, hilabete bateko zigorra gehi isuna.

---

[300] Antzeko portaeren berri agertzen dira Zumarraga, Elgoibar, Azpeitia, Oiartzunen...: GAO: CO CRI 1744, 3; 1745, 2; 1746, 2; 1747, 1.

[301] Hau ulertzeko, ezinbestekoa dugu: ITZAINA, Xabier: "Tobera-mustrak Lapurdi barnekaldean". *Sukil, 1998-2.* 369-386.

[302] GAO: PT 2088, 4. "*por haver esperimentado en esta villa y sus cassas solares en sus ventanas y parrales muchas demostraziones y rovos de que se an podido seguir muertes y desgrazias, caussando notable escandalo, perturbando la paz y quietud en toda nuestra republica, los manzevos naturales della y estrangeros que sin themor de Dios andan de noches executando otras acziones viles, enbarazando los caminos reales con maderos y traiendo carros de las heras de las honrradas caserias y remos asta la plaza publica y cometiendo otros delictos, dando de pedradas a los que assoman a las ventanas, dignos de gran castigo por consertirlos sus padres y amos en todos ellos, permitiendo en que salgan de noches y apoyando como quienes no tienen themor de Dios*".

Honen bidez, kontrolaren lehenengo esparrua etxea izan dadila ziurtatu nahi da, ardura honetan kale egiten dutenak ere zigortuz. Hau da, nagusi baten ardura ez zen mugatzen lan kontuetara, esparru moraleraino ere iristen zen, bere menpekoen portaerak estu hartu ala hauen erantzukizunak bereganatuz.

Portaera zehatz bat mendean hartzeko ebazpen honekin batera, beste batzuk orokorragoak agertzen dira: kanpotarrekin ezkontzeko baldintzak, armak eramateko debekua, elizkizunak errespetatzeko jokuentzako eta tabernan egoteko ordu-mugak, ama ezkongabeen jantziak, suteak... gehi beste batzuk arloteria eta langileen bizimoduak arautu nahi zutenak, betiere etxe nagusien kontura: "*que ninguno resciba en su cassa ni acoja pressonas de mal vivir, como son ladrones, bagamundos y otras sospechosas... que ninguna perssona que vive de su travajo particularmente faltando a los criados a cuya quenta estan en dia de lavor, de dia ni de noche no entre en taberna alguna ni messon... ni se detengan. Y acudan a su travajo no hallandose legitimamente impedidos*".

Eskoriatzakoaren edukia zabaltzeko ere erregistro-liburua eta, batez ere, mezan egindako itzulpena erabiltzen dira[303]. Leintz bailara osorako ematen den araudi honetan, emakumezkoen portaerak (gizonezkoen jantziak ez ditzaten erabil ez eta inauterietan ere, ezkongabe direnak bakarrik ez bizitzeko agindua,...) jokuak, sexu-harremanak, mezatarako jantzi egokiak edota armak eramateko eta kalean musika egiteko orduak zehazten dira.

Adibide hauetan, beraz, lan egitea ez da nahikoa gizarteko partaide izateko. Lana era diziplinatu batean egin behar da. Horregatik, alferrak izan beharrean, gazte hauek gaizkileak dira, oker bizi dira. Hau da, XVIII. mendean zehar garatu den "*mal vivir*" edo "*mal entretenido*" delakoek edozeini egokitzeko moduko etiketa horrekin egingo dute bat.

Zigorra edo jazarpena merezi zuten portaerak zehazteaz gain, alkateek bazuten jokaera horiek zigortzeko ahalbidea, soberan jakina denez, bere eskumeneko epaileak zirelako. Baina, epaiketaz ez ezik, susmagarriak antzemateaz eta ikerketak burutzeaz

[303] GAO: CO CRI 1754, 4.

alkateak berak arduratzen zirela ez dela behar bezala azpimarratu uste dugu guk. Eta gure ikerketaren norabidea jazarpenaren zati honi zuzendu nahi diogula gogoratu behar dugu. Beraz, epaitzearekin batera, susmagarriak jazarri, atxilotu, gorde eta zigortzea... betebehar horiek guztiak alkatearen ofizioari zegozkion, eta honek inor auziperatu behar zela erabakiz gero ofizioz jardun eta bete egin behar zuen. Hau da, botere banaketarik topatzen ez dugun moduan, funtzio banaketarik ere ez da agertzen antolaketa honetan. Eskumen bakoitza bere diziplinaz arduratzen zen, bere ordezkarien bitartez.

Halere, eskumen jakin bati atxikiak egotean, hirigunetik aldendu eta eskumen bat baino gehiago nahastu ahala, bistakoa da alkateek gara zezaketen kontrola ahultzen zela. Horregatik, nahiz eta hiriguneetan alkateen lanak bikoitza –legea betearaztea eta epaitzea– izaten segi, komisarioak tresna eraginkorrak ziren hiri-kaskoetatik kanpo aritzeko. Oso ohikoa zen, gainera, indarrak metatzeko alkateak komisarioari zein komisarioak alkateari deitzea. Hortaz, sistema batek ez zuen bestea ezabatzen, elkar osatzen baizik. Eskumenaren barruan aritzeko gaitasun hori, beraz, alkateen lanaren mesederako eta kalterako zen. Izan ere, alkateak arau-hausleak eta portaera-okerrak jazartzeko tresnarik garrantzitsuena zirela ahaztu gabe, ikusi dugu jada tokiko agintariek ondoko mugak zeharkatu ezin izateak komisarioen sistemaren sorrera eragin zuzena izan zuela. Hortaz, komisariorik gabeko antolakuntzak tokiko eskumenak gainditzeko modua kausitu beharko du ere. Oztopo hau gainditzeko, ohiko kontrolaren gorputza ziren alkate edo udalbatzek elkarren arteko elkarlana bultzatu zuten, partzuergoen edo itunen bitartez.

### 3.2 Hutsuneak betetzen, mugak gainditzen.

Horretarako, eskumenak batu eta zaintza lanak partaideen artean ordaintzea adosten zen. Gainera, elkargo hauetan lapur mota zehatz bat ekiditeak garrantzi haundia hartzen zuela uste dugu: abere-lapurrena, alegia. Ondoan aurkezten dugun aukeraketak ideia hauek berresten laguntzen du:

- 1652an Altzaniako Partzuergoko herriek osatutako elkargoa. Altzaniakoek lapurren aurkako koadrilla bat finantzatu zuten. Jeronimo Zarautz eta Inazio Arrueren ardurapeko konpainia honek mendian eta bidean zebiltzan susmagarriak atxilotzeko helburua zuen. Bistan dena, partzuergokideen mugak gainditzeko ahalmenarekin[304].

- Oria-Urumeako arroako herri batzuek 1684. urtean osatutakoa. Andoain, Zizurkil, Villabona-Amasa, Berastegi, Elduain, Hernani, Urnieta eta Asteasu izan ziren 1684an indarrak batu eta beren bide zein mendietan egiten ziren lapurretak zigortzeko ekimen bateratua bultzatu zutenak[305].

- 1721ean Hondarribia, Oiartzun eta Oreretako udalbatzek elkarrekin egindako miaketa[306]. Aldez aurretik postari militarraren lana babesteko eta gaizkileak basoetatik uxatzeko militarren eta Aldundiaren eskaera egon bazen ere, alkateek adostu zuten zer eta nola egin. Hartutako neurriak, bakoitzak zaindu beharreko lurrak zehaztea, edozein alkatek epaitzeko gaitasuna izatea, gastuak partekatzea, eta auzokoen laguntza eskatzea ditugu. Auzokoen parte-hartze ezkutukoa bermatzeko, inguruko hainbat harri zehaztuko ziren, bertan mezuak uzteko.

---

304 Segurako Udal Artxibategia (SUA): A – 1 - 6 – 1 (1652-VIII-18).

305 GAO: PT 2574, 297-298 eta 278-284: "*Para hazer union y ermandad entre todas las villas y limpiar las montañas y caminos de los conzejos de ellas de ladrones salteadores y quatreros...complices y auxiliadores, para castigo suio y ejemplo de otros*". Lapurretak orokorrak omen ziren zonaldean, baina prozesuari eta zigorra gauzatzeari lotutako gastuek zein baliabide faltak tokiko justizien ezintasuna zekarren.

306 Hondarribiko Udal Artxibategia (HUA): A 15 1 2. Hondarribiaren eta Irunen arteko tirabirak gorago aipatu bezala agertu arren.

- 1729an Berastegik eta Elduainek osatutakoa, 1746an berretsiko dutena. Bietan, elkarlanaren iraupena bederatzi urtekoa da, eta helburu nagusia alkate batak zein besteak abere-lapurrak atzematen eta zigortzen izango zituzten gastuak partekatzea zen[307].

Udalbatzek, bistan dena, zehaztasun osoz ezagutzen zituzten beren eskumenean iskanbilak sortzen zituzten gertakizunak. Antolakuntza natural batean oinarrituta ikusten zen herriko giroa zikintzen zuten gertakizun bezala hartuta, baina, debekuen zerrendetan gelditzen ziren jasoak. Horrela, Gipuzkoa Etxeko barne bakea herriz herri hasten zen osatzen eta orekari eustea tokiko buruen ardura zen betiere. Esan bezala, Probintziako agintariek alkateen beharra izango dute. Hau dela eta, Partzuergo hauek herrietan bertan jaiotzen baziren ere, zigor eta diziplinako bidean tokiko mugek sortzen zituzten arazoak konpontzeko eta gainditzeko urratsik esanguratsuenak Aldundiak eta Batzar Nagusiek emanikoak izan zirela iruditzen zaigu.

Horregatik, Batzar eta, batez ere, Aldundia sendotu ahala eta erakunde hauen ahalmena Lurralde osoa atxiki ahala, jendea diziplinatzeko arauak iturri komun batetik emango dira. Hala, Aldundiak eta Batzarrek alkate-epaile eta alkate-zaindari lanak gero eta gehiago estutuko dituzte. Horretarako, Probintzia mailan aritzen ziren erakunde hauek alkateei lagungarri suerta lekizkieken baliabideak eskaini beharko ditu, beren asmoa lurralde osoan zabalduko bazen.

Horretarako, probintziako erakundeek lege edo ebazpen propioak sortu ala Korrejidoreen bitartez iritsitakoak onartu ego egokitu egingo ditu. Ebazpen hauek

---

[307] GAO: PT 2129, 204: 1746koak hala dio: "*para maior conservazion de ambas republicas y sus terminos y montes comunes de Leizaran en poner el eremdio de muchos urtos de ganado bacuno, yeguno y otros generos que faltavan... en los nueve años inmediatos costeasen en los gastos que se podian ocasionar por qualquiera de los señores alcaldes de ambas dichas republicas en el prendimiento de los malechores que cometian dichos urtos, y otro daño que requeria ser castigado, y en todo lo demas que se pfrezia asta dar su destino*". 1729koan, berriz: "*hurtos de ganados vacunos y de otros generos y otras cosas por alguna o algunas personas de mala conzienzia... se zele por las justicias ordinarioas de ambas dichas republicas por si y otros zeladores secretos que los elixieren a su satisfazion, y prendidos que sean los tales echa cuasa ante la justicia ordinaria por quien se prendieren. Y que los conzejos de ambas republicas contribuian con sus rentas en los gastos que se ocasionen en lo referido por iguales partes y por mitad*".

betearazteko, baina, alkateak funtsezkoak izango dira. Modu honetan, alkateen agintea bikoitza da: batetik, tokiko komunitatearen jagole gisa; bestetik, lurraldeko ordezkari moduan. Ordezkaritza hau alkate bakoitzak noraino zuen barneratua eta eskatzen zitzaion moduan gauzatzeko baliabideak eskuratu ahal izateak Probintziaren ildoen arrakasta ala porrota erabakiko dute.

Probintziak bere irizpideak tokiko agintariraino helarazteko urrats sendoak eman zituen. Oinarrizkoena, noski, Batzarretan biltzen ziren hiribilduetako ordezkarien bitartez ematen ziren, hauek berriak herrietara eraman behar zituzten eta. Batzuetan, ziurtatzeko hala egiten zela, ebazpenak Batzarrak iraun bitartean inprimarazten ziren. Ideiak ahoz eta idatziz igortzeaz gain, Probintzia alkateen lana bideratzen saiatzen zen.

### 3.3 Esparru bateratuak

Lehenik eta behin, alkateak Probintzia mailako jardueran hezi behar ziren; haiek ere ikasgintza horretako partaideak ziren. Alkatzetzak Probintziako patrizioen esku zegoen tokietan, hots, Probintzia mailako eskumena bultzatzen zutenen eskuetan, lurraldeko irizpideak gauzatzea bermatuta zegoen. Bestela, aldiz, utzikeria orokor modukoa antzematen da, tokiko justiziak aginduak betetzen ez zituztela salatzen baitzen[308].

Beste batzuetan, berriz, udalbatzaren barneko tirabirek Aldundiaren aginduak obratzea oztopatu ahal zuten. Alkatearen eskumenean hirigune ugari pilatzen zirenean oso nabarmen zen hori. Jendilaje gaiztotzat jotakoak eta beren ekintzek izugarrizko ezinegon eta beldurra sortzea ez omen ziren aski agintari guztien kolaborazioa batzeko; ez behintzat tokiko eskumenak zalantzan jartzen zirenean. 1746ko abenduan korrejidoreak Irungo kapitainaren aurka Aldundiaren aurrean eginiko salaketa hala adierazten du, behintzat. Korrejidorearen esanetan, horrek desertore ala arlote bat atxilotzen lagundu beharrean, soldaduen lana oztopatu ditu, inolako errege-aginduren berririk ez zuela argudiatuz. Ahaldun Nagusiak, guztiz harrituta agertu eta gero, Hondarribiko alkateari hartu zion kargu, honek ere bere harridura agertu zuelarik, ez baitzuen uste Irungo ordezkaria Aldundiaren betearazleen artean egon behar zuenik. Aldundiaren haserrea eta harridura handitzea lortu zuen erantzun honek, erregearen eta Batzar Nagusien aginduak baitzeuden atxiloketak gauzatzeko. Hortaz, Aldundiak berak jakinarazpenak hiriaren eskumenean zabaltzeko mehatxua bota eta gero, Hondarribiko alkateak Irungo buruari behar bezala informatzeko eta aintzat hartzeko amore eman zuen[309].

Beste aldetik, Aldundiak alkateei luzatu euskarrien artean, auzi kriminalen gastuak bere gain hartzea dugu. Herrietako finantzak ez ukitzeaz gain, honen bidez kriminal bezala auziperatuak Probintzia osoko etsaiak bilakatu, eta Probintzia mailan zigortzen ziren. Hau gauzatzeko, alkateek Batzar Nagusietan, ala Aldundian, beren

---

[308] HUA: A 15 1 2. 1723an.
[309] GAO: JD AM 103. 1746-XII-7 eta 1747-I-2an.

lanen berri eman behar zuten eta eskaeraren egokitasuna ikuskatzaile bat aztertu. Honek, eskaera ontzat emango du, betiere alkateak abiatutako prozesu kriminala arrakastatsua suertatu eta atxilotua zigortua izatekotan[310].

Azkenik, Aldundiak tokiko arduradunen eskura jarritako beste ezinbesteko heldulekua korrejidorearen bitartez iritsitako legeei bide ematea eta alkateei hauen

---

[310] 1746ko Batzarretan, adibidez, 20 epaiketan 27 lagun auziparatu agertzen ziren honako auzi kriminaletan:
Hondarribia:
Jose Sueco, Tarazonakoa, zaldia lapurtzeagatik ejerzitora.
Donibaneko Agustina Mitxelena. Txkolatera, salero de estaño eta bestelakoak lapurtzeagatik, Zaragozara.
Catalina Garaikoetxea, irainak.

Donostia:
Maria Josefa Karrandia, desterrua ez betetzeagatik, Zaragozara.
Bergarako Jose Albisu: ejerzitoa
Francisco Guerrero, "Pancho el malagueño" goitizenea: ejerzitora.
Bidaniko Juan Iraola: ejerzitora.
Francisco Ruiz Moron; ejerzitora.
Teresa Antonia Sanchez: desterrua.
Jose Estolaza: ejerzitora.

Orereta:
Azpetitiko Inazio Olaizola: alkandorak lapurtzeagatik: desterrua.

Arrasate:
Manuel Erzilla, lapurretak: Donostiko presondegira.
Jose Arozena eta Mateo Aranbea: beste lagun bati sortu zauriengatik: desterrua.

Gatzaga:
Francisco Gorostiza y Domingo Campos, txerri bat lapurtzeagatik: Donostiko presondegira, baina helegitea aurkeztu eta gero, ejerzitora.
Manuel Agiriano, Juan Salterain eta beste batzuk: sortarazi zituzten zauriengatik: ejerzitora.
Juan Iñiguez eta Petronila Orobengoa, ohekideak: amancebados: Donostiako presondegira eta Zaragozara.
Luzia Garro, lapurreta txikiak: desterrua.

Bergara:
Josefa Arzamendi, Maria Josefa Aristi, zilarrezko bitxiak lapurtzeagatik: desterrua.

Ataun:
Juan Bautista Urdangarin, Juan Begiristain, ardiak lapurtzeagatik. Urdangarin, Iruñeko presondegira.

Soraluze:
Mariana Soloeta eta Juan Angel Olabegoitia, ohekideak. Ezkondu ala desterrua.

berri helaraztea izan zen. Esate baterako 1727, 1732, edo 1734n, eta, ikusi dugun moduan, bereziki 1746-1751 bitartean, Korrejidorearen bidez Erresumatik iritsitako legeak aintzat hartu eta Aldundiak zein Batzar Nagusiek herriei banatzen eta betetzeko agintzen ikus dezakegu. Probintziako erakundeen jokamolde honetan, gainera, egokitzapenak egiteko unea izaten zen beti.

Lehendik ere ohitu gara ikusten Erresumako lege orokor bat Probintzian erabiltzen. Ijitoen aurka, adibidez, Aldundiaren aginduz eta erresumako legeen babespean jardun zuten alkateek. XVIII. mendean ijitotasuna oso maila gutxiko arazoa badugu ere Gipuzkoan, zirriborratu berri dugun sinbiosiaren ispilua da ere bai. Adibidez, 1715ean aipatutako lasaitasun giro hura puskatu omen zuen ijitoen berragerpenean, jokamoldea zehazteko urratsak aski ezagunak ditugu: 1695eko *pragmatica*ri heldu eta ijitoak jazarri. Hau betearazteko, auzoko talde-armatuak erabiliko dira; epaiketa antolatzeko, Ermandadearen bidez aritzea agindu; eta zigor moduan galeretara ala Afrikako presondegietera bidaltzea aukeratu. 1715eko aferan, ekimena gauzatzea Oiartzungo alkate Manuel Urdinolari egokitu zitzaion[311].

---

[311] 1715eko ijito hauei dagokienez, Andoain, Berastegi, Elduain, Amasa eta Urnietan sortutako kalte eta lapurretak egozten zaizkie: "*causando mucho daño y destrozo de ganado sin temor de sus guardias*". Haiek zelatatzen ibili diren auzoko talde armatuek Oiartzungo bidea hartu dutela ohartarazten diote bertako alkateari. 40 bat ijitok osatutako taldea omen zenari aurre egiteko, Oiartzungo alkateak 16 herritar bildu eta armatu egin zituen, inguruko mendiak arakatu eta gero Artikutza inguruan taldea aurkitu arte. Taldean, 3 gizon eta 11 haur zein emakume baino ez ziren biltzen: "*tenian en fuego tres ollas grandes que llaman tapias llenas de carne y una mujer de ellas tenia una pierna de carnero, berras, mijo, y mantas burdas de lana de Biscaya, y lo demas necesario para dormir en campo*". Hau da, larrialdia pizteko erabili diren arrazoiak zalantzagarriak dira, edo bilatzen zuten taldea ez dute antzeman, ez baitu ematen talde honek horrelako arriskutsu orokorra sortzeko gai izan denik. Are gutxiago haien adierazpenak entzun eta gero. Izan ere, gizonetako bat –Domingo Urtezabal– 76 urtekoa zen, eta ez zuen bere burua ijitotzat hartzen. Bai ordea bere aita zena, Zaldibian hargina izan zena. Nekazaritzan eta lapikoak saltzen bizimodua atera duela dio, nahiz eta edadeagatik orain eskupekoak biltzen bizi. Egia da onartua izateko baldintza guztiak ez zituela biltzen, helbide jakin bat ez zuen-eta (Bortzierietan gehienbat bizi izan da), baina bere emaztea Hernanikoa zela argudiatzen du. Gazteenek ere –Esteban Etxeberriak eta Jose Zamorak–, antzeko bizimodu eta lanbide ibiltari aitortzen dute: danborjoleak, abereei ilea moztea,...

Agindua bere zorroztasun osoz betearazten da: Etxeberria eta Zamora 8 urtez galeretara eta hauek egon ezean, Zeutako prensodegira. Urtezabal, berriz, zuzenean Zeutara.

Ijitoen esparruan alkateek egin eta gehitzea merezi duen gertakizun bakarra[312] Oiartzunen, eta bere alkatearen ekimenez –alkatearen Migel Urdinola semearen ekimenez alegia–, jazo zen beste behin ere. Berrikuntza, aldiz, erabilitako lege orokorrean aurkituko dugu, oraingoan 1695ekoa 1749an emandako batekin ordezkatu baitzen[313].

Dena den, ijitoak jazarpenaren helburu nagusien artetik desagertu direla da adibide hauetatik nabarmendu behar duguna. Dela bere bizimodua beste portaera batzuekin nahasten zelako, dela gure herrialdera ez zirelako hurbiltzen, ijitotasunak bazterkeria eta jazarpena kontzeptualizatu behar zutenen arreta gutxi bereganatu zuen mende honetan zehar.

Honen ordez, eta lehen aurreratu dugun moduan, kontaezinak dira XVIII. mende osoan zehar arloteak, iskanbilatsuak eta bizimodu okerrarekin lotutako lagunak bide zuzena eraman dezaten egindako saioak. Horretarako, eta ikusirik Etxea eta Herria ordenua lortzeko aski ez zirela, bortxazko lanak ala armada bezalako inguru disziplinarioak aukeratuko dira, arauak onartzen ez zituzten edo lan egiten ez zuten hauek probetxagarri bilakatzeko asmoz.

Engaiamendu hauek 1715ean bertan hasi ziren, Probintzian sartu berriak eta beste herrialdetatik egotziak zirenak erbesteratzeko agindu zenean[314]. Honek jarraia izan zuen hurrengo urteetan, bai Donostian izandako Batzarretan: "*respecto de las quexas que se propusieron a la junta de los muchos robos que estos dias se han cometido en varios parages montuosos de su territorio, y de la comarca, y de lo que combiene dar alguna*

---

312 Aurreneko oharrean 1729rako jasotako agirian, ijitoak eta arloteak atertzeko debekua ezartzen zen.

313 Harritzeko bada ere, alkatearen ekintza Ensenadako Markesak berak –legi-iturriak berak– geldiarazi zuen, atxilotuen berri zehatza izan arte eta Gipuzkoan lasai bizi ziren ijitoen kontra ez aritzeko aginduz: "*por aora no se aga nobedad una vez que vivan ocupados en su trabajo y sin sospecha ni recelo de que cometan excesos… que las justicias esten mui a la vista y que no les permitan separarse de la poblacion en que residen*". Hortaz, susmoa baino zerbait gehiago, izaera baino zerbait gehiago, jazarri behar dela ematen zaigu aditzera hemen. Zehaztapen honek Oiartzungo alkatearen kalterako da, 1749ko aginduari segituz, atxilotuen ondasunak (abere batzuk batez ere) bahitu eta enkantean salduarazi baitzituen honek.

314 GAO: JD AJF 8, 6. Arrasateko Batzarretan. Bizitza gaiztoko pertsonak zirenak.

*especial providencia para la prisión y castigo de los delinquentes y gente malentretenida...*"[315]; baita 1717ko Elgoibarko Batzar Nagusietan ere: "*Y por que también se reconocen ... daño de las repúblicas muchos mozos de buena disposición y salud, que andan vagando, acogidos a la mendicidad y a los hospitales, a los quales muchas vezes los solicitan y reciben en los presidios los capitanes de los regimientos para reclutar sus compañías: mandó la junta poner por advertencia esta circunstancia, para que las justicias prendiesen algunos de estos vagantes que por sus delitos no merecen graves castigos, lo avisen a los presidios y procuren que los capitanes los recojan y empleen en la milicia, para que por este medio se remedie sin gasto el gran daño que se padece*"[316].

Bistan denez, zigorraren eremua gizabanakoaren gertuko ingurutik inolako heldulekutik eskaintzen ez zion inguru batera aldatzen da. Eta patu honetan harrapatua izateko, ez zen beharrezkoa delitu larririk gauzatzea, herrietan lanik gabe zebiltzan gazteek sortzen zituzten zehaztu gabeko "kalteak" –"*daños*"– aski ziren horretarako. Etxeak, ez fisikoak ezta ideologikoak ere, ez zituen jada baliabiderik gizarteratzeko bere seme-alabak, baina are gutxiago zigortzeko ere. Izan ere, zigor "naturala", Etxetik eta bere babespetik ateratzen zena, besterik gabe ematen ari zen, ez diziplina moduan, egoera ekonomikoa, sistemaren ahulezia eta liberalismoaren hastapenak hala ezarrita baizik.

Oso antzeko hitzak erabili ziren ere 1726an, 1710ean itxiarazitako ospitale batzuk berriro ireki egin zirela salatzerakoan. Horren ildotik, bertan bildutako arloteak eta enparauak atxilotu eta erregeak agindu bezala gune militarrei bidaltzea eskatzen zen, garraio gastuak saihesteko soldadu multzoak baliatuz. Berriz ere diziplina modu hau ezartzeko pairatutako kalteak, alta, orokorrak ziren: "*graves inconvenientes*"[317].

30eko hamarkadatik aurrera, alkateek burututako atxiloketak eta korrejidorearen eskaeraz Aldundiak zein Batzarrek plazaratu zituzten errege-aginduen arteko lotura askoz estuagoa agertzen zaigu. Mutrikuko alkateak 1730ean

[315] GAO: JD AJF 8, 7.
[316] GAO: JD AJF 8, 8.
[317] GAO: JD AM 98. Aiako ospitalea da ireki den horietako bat.

egindako atxiloketa batean eta Elgoibarkoaren 1732ko beste batean horrelako aipamenak egin zituzten, esate baterako[318].

Beste batzuetan, aldiz, alkatearen eta korrejidoaren arteko lana guztiz onartzen zen. Komisarioen faltan, alkateek funtzio poliziala betetzen zuten, baina auzia bide judizialetik bideratu eta gero, autoak korrejidorearen esku uzteko parada zuten. Alkateen lan praktikoa aztertzerakoan, tokiko agintariek korrejidorea beste baliabide bat bezala erabiltzen zutela ikusiko dugu. Hau ikusteko, komisariok alboratu eta gero 30eko hamarkadan bandolero edo lapur moduan ibiltzen zirenen aferak aztertu baino ez dugu egin behar.

1731 eta 1734 bitartean Inazio Lazkano eta honen lagunak agintarien lehentasuna bilakatu zirenen auzian, esate baterako, alkateen jarduna eta bere baliabide osagarriak aurkituko ditugu. Inazio Lazkanok behin-behineko lanetan aritzen bazen ere, Villabonan eginiko lapurretengatik 10 urteko zigorra jaso zuen Afrikan betetzeko. Gune sakratuan babestea lortu zuen eta hori aprobetxatuz lapurreta gehiago burutu omen zituen. 1734an berriro atxilotua, fiskalak heriotza-zigorra eskatu zuen. Jendaurrean lotsatua eta jipoitua, 10 urte bidali zuten galeretara, eta hala egin zuten 36ko uztailean. Hurrengo urtean, alabaina, zigorra aldatzeko parada izan zuen, 4 urtez Almadengo meategietan lan egitearen truke[319].

Lazkano, baina, ez omen zen bakarka aritzen, berau atxilotua izan zen urte berean harrapatu zuten 19 urteko Franzisko Kerejetaren inguruan Lazkanorekin eta hau bezalako jendilajeekin ibiltzen zela zehaztu baitzen, bortxaketa saio bikoitza, lapurretak eta abar leporatzerakoan[320].

---

[318] GAO: JD IM 3 14 7 eta 8.

[319] Osorik bete zuena. GAO: CO CRI 165, 4 eta 182, 3.

[320] Kerejeta Aldabako Ugarangoena etxean bizi zen eta bertako maizterretako bat bere aita zen. Beizamako Larrañagatxo baserrian ere bizi ziren. Bortxaketa saio bikoitza –egun berean eta jarraian eginda– haurdun zegoen Maria Leundak pairatu zuen. Ez zuen salatu lekukorik ez zegoelako; honen ondoren, Kerejetak Leundaren senarra mehatxatu zuen: "*que dios no le salbaria si no es que fuese artandose de su sangre*". Lapurreta saio ustela, ardo hornitzaile baten zerbitzariaren aurka, eskopeta batekin egin zuen. Hornitzaileraren semea trabuko batekin agertu eta Kerejetak barkamena eskatu zion honi. Hortaz, joaten utzi zuten. Lazkano eta Kerejetarekin batera honen anaia Inazio ere aipatzen da, ziurrenik aurrerago topatuko dugun

Kerejeta eta Lazkanoren gainontzeko lagunei dagokienez, Orendaingo ermitaua eta Tolosan bizi zen Alegiako Migel Larrazabal aipa ditzakegu. Hala agertzen da, behintzat, azken honen 1732ko auziperatzean[321]. Azkoitiko alkate Pedro Agirre Atxaranek atxilotu zituen, Batzar Nagusien aginduz, Batzarrek berek Agirre ahalordetu baitzuten epaiketa aurrera eramateko. Auziperatze honetan, gainera, erakunde probintzialak salbuespen arau bat ezartzen saiatu zirela azpimarratu behar da. Izan ere, Larrazabalek Karakaseko Elkargoan bortxazko lanak bete zitzan nahi zuen Aldundiak, lehendik erakunde honek berak emandako ebazpen baten ildotik. 1732ko otsailan, aldiz, Estatu kontseiluburu Patiñok murriztu zuen orokorra izan nahi zuen agindu hau, auziperatuen aipatutako erabilera hori noizbehinka baimenduz, betiere arloteria beste auzitegi baten oniritzia izanez gero[322].

Larrazabali, ondorioz, kaltea irudikatzen zituzten ezaugarri guztiak leporatuko zaizkio: "*de mala vida y costumbres, ocioso, olgazan, andariego, escandaloso y muuy perjudicial a la republica. Y ha cometido y cooperado en diferentes robos, urtos y salteamientos y otros excesos y esta opinado de ladron*". Lapurretei dagokienez, iritzi horrek lauzpabost ekintza egozten zizkion Larrazabali, 1730-31 bitartean gertatutakoak: Santa Marinan, Muruan, Iturriotzen eta Legorretazarrean. Auzokoen eta lapurretak jasan zituztenen iritziaz gain, aldi baterako lanetan ibiltzea da Larrazabalen aurkako frogarik nagusienetako bat: neguko lana, burdinoletan, onargarria zen; udakoa –toreatzailea, hain zuzen ere– ez[323].

---

bera. Kerejetaren jantziak: "*calzones azules de tripe, almilla roja de cordillate, montera de paño negro y abarcas con sus mantarras y calcetas*". GAO: CO CRI 177, 6.

321 Archivo Histórico Nacional (Espainia) (AHN): Suprimidos, Causas civiles y criminales, 6145-6; Expedientes de gobierno y oficio, 49990.

322 "*mozos ociosos, sin destino a oficio o que trabajaban poco o nada; a casados olgazanes que dando mala vida a su mugeres no atendian a el cuidado de sus familias; y a otros que con indicios o nota de mal vibir havia en esos pueblos...con algun particular sujeto declarado ya por bagamundo, pero no por punto general con los que su Diputacion quiera considerar ociosos*".

323 Halere, nolabaiteko kontraesana agertzen da ogibide hau arbuiagarrai zela esatean eta, era berean, ospakizun publiko eta pribatuetan zezenketak antolatzea. Gainera, antolatzailearen gaitasun ekonomikoak burdinolak eskaintzen zituena baino diru-sarrera handiagoak bideratzen zituen maiz. (Esate baterako, Juan Idiakezek antolatu zituen ospakizunetan). Larrazabalek aipatzen dituen burdinolen artean, berriz, Bediako Txiriboketa eta Tolosako Amaroz agertzen dira.

1733an Probintziako erakundeak Karakaseko Elkargoan eman beharreko bortxazko lanetan tematuko dira epaia emateko garaian, baina zigorra hau zuzendua izango zaie Kontseiluan, bidelapur batentzako ez omen zen egokia eta.

Esan bezala, gertakizun larri hauetan jazarpen-ekimenen zamarik nagusiena alkateena izan zela azpimarratu behar da[324] eta antzeko jokamoldeak antzematen ditugu arloteak eta ohaidetzak jazartzeko tenorean. Alkateen eta Korrejidoreen arteko elkarlanak eta zereginen banaketak bandoleroen auzietarako ikusitako berak ziren, gutxienez 1734. urtetik aurrera atxiloketen helburua laxokerian dabiltzan alferrak nagusiki izan arren. Larrazabalekin gertatu bezala, auziperatu gehienek ogibide bat dute, baina ez urte osoan eta etengabe aritzeko aski zena, hortaz, arloteen aurkako legeen arabera lan diziplinatua ejerzitoan ezartzen zaie, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- Baliarraingo Juan Zabala "Fanfarron". Adierazten dituen lanak: aldi baterako soldatapekoa; egurra garraiatzea; Nafarroan segalaria. Korrejidoreak abiatutako auzia txosten bat jaso eta gero. Arloteriatzat zigortua[325].
- Azkoitiko alkateak Hondarribian bizi zen Arribeko Juan Angel Perez korrejidoreari bidalitakoa, arlote izan litekeelakoan eta lagun susmagarriak zituelako: morroi, baleatara ibilitakoa, otar-egile Donostian eta Elgoibarren. Aske[326].
- Urnietako alkateak Juan Migel Etxeberria (ala Barrenetxea) harrapatu nahian zebilen, baina korrejidoreak luzatutako komisioarekin Genua anaiak atxilotu zituen. Ikazkinak, Leizaranen lan egiten zuten Arrasateko ikazkinen kontra aritu nahi zuten hauek soldatak merketzen ari zirelako; artzaiei lapurtzea eta

[324] Lazkanoren aurka Zestoa eta Alegiako alkateenak, adibidez. Azken horrek, lagun talde bat armatu eta Alegiako taberna asaltatu zuen; borrokaldi baten ostean, atxilotu zituzten. Kerejetari dagokionez, berriz, Bidaniako alkateak ekin zion ikerketari. Azkenik, ikusi bezala, Azkoitikoak jazarri zuen Migel Larrazabal. Era berean, Donostiako alkatearen eskaeraz preso zegoen Paskual Errezabali zigorraren berraztertzea proposatu zitzaion, Agustinetako komentuan 1729an pairatzen ziren lapurretak eta asaltoetan zelatari moduan ibiltzearen truke (AHN: Consejos 10588).
[325] GAO: CO CRI 180, 6. 1734.
[326] GAO: CO CRI 193, 4. 1736.

zauritzea leporatzen zaie ere bai. Arloteria eta portaera okerrengatik 10 urtez ejerzitora[327].

- Korrejidoreak Urnietako Pedro Larburu Egurrolaren aurka, bere bizimoduagatik: "*trae una vida disoluta sin asistir con su mujer e hijos, sin trabajar para lo referido, antes vien vagando continuamente sin oficio ni veneficio, dilapidador y malgastador de su hacienda, teniendo por este motivo su muger e hijos sin comer ni vestir y causando con esto grave escandalo en dicha villa*". 8 urtez Gibraltarrera[328].
- Hernaniko alkateak lapurreta txiki baten ondoren ikazkina izateari utzi zion Franzisko Etxanike korrejidorearengana eramaten du. Lapurreta txiki gehiago gertatu dira bera bizi den tokitik gertu. Donostiako presondegira bortxazko lanak egitera[329].
- Zarautzeko alkateak Jose Barbarin korrejidorearengana eramaten du, lapurretengatik. Ejerzitora[330].

Eta lege berak hartzen ziren aintzat eskale ala lizunkerietan zebiltzaten ezkonduen aurka, azken portaera hau, batez ere, gizarte kontrolaren eremuan mendean hartzen zena baina nabarmen delitu kriminala bilakatu dena[331]:

- Korrejidoreak maitaleak dituen Andoaingo gizon baten aurka[332].
- Zarautz zein Bergarako alkateek herriko ospitaleetan atzemandako eskaleak korrejidorearen esku uzten zituzten. Gizonezkoak ejerzitora, eta emakume bat, 6 urteko itxialdia[333].
- Korrejidoreak Elgoibarko Antonio Urruzunoren aurka, ezkonduta izanik, bere ondoan bizi den alargunarekin harreman sexualak omen dituelako[334].

Gure ustez, korrejidorearekiko elkarlanean alkateek topatzen zutena epaiketa merkea izatea eta zigorra Probintziatik kanpo egin beharra zen, korrejidoreak gisa

---

327 GAO: CO CRI 202, 5. 1737.
328 GAO: CO CRI 199, 11. 1737.
329 GAO: CO CRI 205, 3. 1739.
330 Berdin.
331 Mende hasieran, batez ere 1709tik aurrera. Nabarmentzekoak dira urte horretan Ataunen salatutako 9 kasuak.
332 GAO: CO CRI 187, 7. 1735.
333 GAO: CO CRI 203, 5; 199, 4. 1737.
334 GAO: CO CRI 225, 4. 1741.

honetan auziperatutako gizonezkoak ejerzitoan sartzen zituen eta. Beraz, alkateren batek berak osatutako informazioa korrejidorearengana bidaltzerakoan, auziperatua tokiko komunitatean gizarteratzeko ahaleginari uko egiten zion. Era berean, komunitateak probetxagarria ez izateaz gain zama soziala ala gainzama ekonomikoa bilakatuko ziren aleak kanporatzen zituen. Korrejidoreak bilatzen zien erabilgarritasuna gizabanako hauei erregearen aldeko zerbitzu militarrean.

1734ko Batzarrek ere, erakunde guztien arteko lotura argia adierazten dute, erne egoteko ardura gipuzkoar ororena dela gogoratuz: "*Considerando la junta lo mucho que importa a la publica quietud y combeniencia de los pueblos el castigo de gente ociosa y malentretenida, acordo que las justicias tengan especial cuidado en la ejecución del decreto de SM comunicado por el señor corregidor para la prisión y castigo de ellos y que qualquiera vecino de los pueblos de esta provincia de cuenta al señor corregidor o a los señores alcaldes de los ociosos y malentretenidos que aia en ello con los materiales necesarios para la sumaria y que se paguen de cuenta comun a tasación los gastos que causen estos procedimientos*"[335].

Agindu hau dela-eta, Madrilgo gorteetan ezarritako pragmatika bera Gipuzkoaratzeko eskatu zieten Batzar Nagusiek korrejidoreari. Eskaera honen oinean, Probintziak bere Foruetan aurkitzen zituen hutsuneak zeuden, arloteen ugalketa Foruen 8. legearen 29. atala ez betetzeagatik gertatu zirela esanez[336].

Pragmatika hori 1734ko otsailaren 26an aldarrikatu zen, Gortean ematen ziren lapurretak jazartzeko. Ebazpen honek heriotza-zigorra ezartzen zuen hamabost urte bete eta lapurretan aritzen zirenentzako, eta galerak gehi jipoia gazteentzako. Prozesu judiziala ere laburtzen zuen, froga bezala lekuko bakar baten testigantza aski izanik. Erregeak hala egin zuen, 1735eko martxoaren 1ean[337].

Honek egoera benetan korapilatsuak sortuko ditu. Honen erakusle bikaina Elgoibarko Bartolome Arozenaren aurka 1742an abiatutako auzia dugu, prozesu kriminalean parte hartu zutenek ezin zutelako adostu zein legeren arabera ekin

335 GAO: JD AM 99. Arrasateko Batzar Nagusietan.
336 HUA: A 15 1 2.
337 *Berdin.*

auziperatuaren kontra. Era berean, alkateen aginte mailak zer nolako oztopoak aurkitzen zituen erakusten da[338].

Arozenaren bizimoduak arrunta ematen bazuen ere, 1733tik hainbat arazotan sartua ibili dela gelditzen da agerian. Nabarmendutako lehendabiziko istiluak urte horietan gertatu ziren, jaietan izandako iskanbila batzuk medio. Orduan bere bila alkateak bidalitakoak Arozenak uxatu zituen eskuarea hartuta; bigarren saio batean eskopetarekin lagunduta agertu baziren ere, Arozenak ere beste bat lortu, aurre egin eta Bizkairantz ospa egin zuen. Bere ondasun batzuk bahitu bazituzten ere, auzia inolako jarraipenik gabe gelditu zen[339]. 1742an, berriz, bere bizimodua auzitan jarri zen berriro –"*se a exercitado en licenciosa vida no teniendo respecto a dios ni a la justicia y con sus malos procedimientos a turbado la paz y a cometido diferentes rrobos de ganados y otras cosas, poniendo manos violentas a muchas personas y a ministros de justicia*"– eta 1736an emaztea jipoitu eta bere maitalearen bidez pozoitzen saiatu zela agerian gelditu[340].

Elgoibarko ziegatik ihes egin eta bere kabuz itzuli eta gero, epaiketan zehar 1734an Probintziak Erregeari eskatutako legearen arabera –Gipuzkoa eta Gortea berdindu eta heriotza-zigorra ezartzen zuena– epaitzea eskatu zen, Foruak lapurretak ekiditeko eta prozesu kriminala garatzeko aski ez zirela argudiatuz.

Arozenaren defentsak, berriz, aipatutako aginduak inolako balioa zuela ukatu zuen, Probintziak ez baitzuen komenigarria ikusten bere erabilera: "*no esta presentada en el real acuerdo de los señores presidente y oidores de Valladolid a causa de haber tenido esta provincia superiores razones para no usar de la referida real zedula*".

Hortaz, alkateak berak eman zuen epaia, aholkulari batek lagunduta eta Arozena Almadenera 10 urtez bidaltzea deliberatu zuen[341]. Arozenak berriz egingo du

---

[338] GAO: CO CRI 227, 11.

[339] "*una casaca y chupa negras de paño de Segovia, unos calzones de tripe negros, una tomasina amusca, un sonbrero, unas medias negras de lana, una montera negra, tres camisas, una corbata, unos zapatos con sus hebillas de azero, unas calzetas, una almilla de bayeta blanca cansada y un viricu*".

[340] "recado de Solimán" izeneko pozoia (merkurioz eginikoa) tripako mina arintzeko azukredun pattara balitz bezala emanez.

[341] Arozenaren maitale Maria Josefa Urriategi, jendaurrean lotsarazia eta desterratua.

ihes 1744. urtean, baina 1747ko maiatzean Migel Zuberiak Zaragozara eramandakoen artean aurkituko dugu berriz[342].

Garai berean epaitu eta zerrenda berean agertzen den Jose Gerardoren auzian, aldiz, oso bestelako prozesua eman zen. Gerardok 200 zartada eta galeretarako 10 urteko zigorra jaso zuen. Zartaden inguruko ziurtagiria, gainera, guregana iritsi da: "*doi fe que a cosa de las once horas de la mañana de este dia, en egecucion y cumplimiento del auto...haviendosele sacado a Joseph Gerardo, contenido en el, en bestia menor de albarda por las calles publicas de esta ciudad, se le dieron los azotes que previene dicho auto, por mano de berdugo y a boz de pregonero, que publicó se le davan por ladron*". Baina berarekin batera epaitu eta gune sakratuan babestuta zegoen Tomas Xabierri heriotza-zigorra ezarri zitzaion, Arozarenaren aurka ukatutako 1734ko lege beraren arabera: "*cuia sentenzia se consulto con dichos señores governadores y alcaldes del crimen y haviendo confirmado dicha sentencia en quanto al referido Thomas Xavier se dispuso si se havia de llevar a pura y devida execuzion la real pracmatica de S.M... publicada en la corte en razon de los rovos que se executavan en ella y en el contorno de las cinco leguas, cuia real pracmatica se havia expedido asi mismo por dicha Provinzia*".

Hau da, auziperatzea eta zigortzea bermatzen zituzten baliabideak eraginkor izateko moduan zeuden beti eta guztiz ezagunak ziren. Probintziaren eta kanpoko legearen zein korrejidorearen elkarlanak unean-unean ekar zezaketen arriskuek baldintzatzen zuten, berriz, batzuk ala besteak aukeratzea. Izan ere, Ruiz Hospitalek jasotzen duen moduan, alkateek lehen auzialdian epaitzeko zuten gaitasuna Probintziak etengabe aldarrikatu eta babestu zuen korrejimenduaren aurrean, honek ahalmen beraren jabe aurkezten zen eta. Hau arautzeko, 1737an konkordia sinatu egin zen eta 1745ean berretsi[343]. Jakina denez, korrejidorea foru-sistemaren osagai bat izan arren, Probintziako erakundearen eta Korrejidoreen arteko tirabira ugari izan ziren beti. Gipuzkoako antolakuntza politikoek jorratu dutenek aski soberan eman duten Korrejidoaren betebeharren berri, baita honek zekarren ondorioena ere[344].

---

342 GAO: CO CRI 1746. Hauekin batera Lazaro Inazio Goia eta Inazio Sorregieta.
343 RUIZ HOSPITAL, G: *op. cit.*, 141. or. eta 274. oharra.
344 Susana TRUCHUELO GARCIA: *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna.* Donostia: Aldundia, Kultura eta Euskara Departamendua, 2004. Gonzalo RUIZ HOSPITAL: *op.cit.*

Orokorrean, portaera okerren jazarpenean aritzeak Erresumaren presentzia handitzeko bide guztiz egokia zen, erregearen ordezkariei, korrejidoreei, baina baita ere buru militarrei, Erresuma osoko legeak eta jardunak Probintzian txertatzen saiatzeko parada ederra eskaintzen zien eta. Are gehiago orain arte ikusi ditugun Probintziko neurri eta erakundeak *just-in-time* kutsukoak zirela kontutan harturik. Korrejidore bakoitzaren izaera eta konpromiso maila zuzenduko dute bakoitzaren ekarpenen tamaina, betiere Probintzia-Erresumaren arteko harreman korapilatsuek uzten zuten tartea baliatuz. Aski ezaguna da Gipuzkoako historiografian Korrejidoreak Segurako alkatearen eta Probintziako idazkariaren aurka 1732an irekitako auzia[345].

Komisarioen lana aztertzerakoan ikusitakoa baino zabalagoa dugu jarduera hau. Prozedura orokor hau 1748ko agindu bati erreparatuz gero antzematen dugu, jarduteko uneak erakundeen artean nola banatzen eta txandakatzen ziren ikusten baitugu argi eta garbi[346]. Errege-kontseilua dugu legearen iturburu, nahiz eta gurean korrejidorea bera izan aginduak helarazten zuena. Gero, Probintziak onespena eman, zirkular moduan inprimitu eta udalbatzei igortzen zien agindua: "*enterado de barios robos y insultos que frequentemente se cometen en los caminos y otros lugares por diferentes personas que mal acostumbradas han hecho puerta de su ociosidad para los vicios que tanto daño traen a la quietud publica. Y siendo como es ese pais y partido de donde llegan repetidos lamentos de los atemorizados por semexante jente, tengo por preciso que luego que reciva VM esta, y interin se acuerda otra providencia y se destina tropa arreglada, procure tomar seguros informes del paradero de los hombres de mal vivir; que aprovechándose de la confianza que tubiere VM de personas de su satisfacion haga por la propia, sirviendo su ejemplo de caudillo;*

---

[345] Laburbilduz: Segurako goi mailako jaun batek ("*un caballero de los de primera estimación*") urte horretako Batzarrek alfer eta okerren aurka berretsitako 27ko ebazpena gauzatzea liskarraren jatorrian zegoen. Ahaldun Nagusiarekin batera, jaun horrek susmagarrien zerrenda egin eta Segurako alkateari igorri zion, ustezko gaizkile hauek Mutrikuko portuan erregearen armadan itsasoratzeko. Alkateak zerrenda egokitu, langile zintzoak zirenak askatu, eta herriko pregoilariarekin zeuden arazoen berri eman eta gero, Aldundiaren esku utzi zuen prozesua. Ahaldun Nagusiaren harridurako, korrejidoreak autoak eskatu eta lehendabiziko instantzian aritzeko zuen gaitasunaren izenean, Aldundiko idazkaria auziperatu zuen, Aldundia eta Korrejidorea batzartuta aritzen zirela esaten zuen esamoldea erabili izanagatik.

[346] HUA: A 15 1 2.

*que se prendan o ahuyenten de todo ese partido tan perniciosas jentes, tomando a este fin las medidas mas prudentes y oportunas".*

Atxiloketak gauzatu eta gero, epaiketa hauen prozedura beti da bera. Alkateek –edo jardutzen zuen bestelako erakundek– itaunketa xume baten bidez berresten zituzten bere susmoak. Atxilotuaren jatorria eta lanari buruz hiruzpalau galdera eginez. Herria, gurasoak, eta lana: hau da, gizabanakoaren gizarteratzearen eta balioa bermatzen zituzten arrastoak bilatzen zituzten.

Tenore horretan harrapatutakoak, korrejidoreengana eramaten ziren, bere ardurapean kudeatzen ziren espetxeetan giltzaperatuz. Prozedura honetan betebeharrik korapilatsuena, ziur asko, une bakoitzaren testigantza jasotzen zuen eskribaua gertu izatea izaten zen. Gero, korrejidorearen aurrean epaiketa garatzen zen, labur-labur[347]. Aurreko itaunketa bera errepikatzea –batzuetan, ezta hori ere– aski zen epaia erabakitzeko[348].

Gehienetan epaitua armadara itzultzea agintzen zen, korrejidoreak erabakitzen zuela erregearen zerbitzurik emankorrena non gauzatu: bortxazko lanetan, ejerzitoan, itsasoan,...

Azken urratsa, epaiak betetzen zirela bermatzea zen, bistan dena. Mende hasieran ikusi dugun bezala, oraingo honetan ere komisiodunak izendatzen ziren horretarako, gorago Arozenaren ingurua afera aurkezterakoan ikusi bezala. 1747ko adibide horretan, lehen aipatutako Migel Zuberia gehi Esteban Galartza agertzen ziren garraio arduradun gisa: "*comisario nombrado para conduzir a la Real Caxa de rematados de esta ciudad [Zaragoza] las personas de...rematados a las penas de galeras, minas y presidio*" eta baita ere "*comisarios nombrados por Don Manuel Arredondo y Carmona, Correxidor de la*

---

[347] Erakundeen elkarlanaren egikaritzearen adibide ederra GAO: CO 282, 3 signatura duen agirian agertzen da, bilduma moduan korrejidoreak arlo honetan emaniko auzi ugari bilduz. GAO: CO CRI 254: 3; 256: 1, 9, 10, 11; 257: 7, 9, 11; 262: 3, 7, 8, 9; 264: 13, 14, 16, 17, 19; 266: 1, 5; 267: 4, 12; 270: 5; 272: 4; 273: 11; 276: 13; 287: 5; 290: 9; 293: 2, eta 8-k, besteak beste, ekintza hauen berri ematen dute ere bai.

[348] 1751. urtean Pausu inguruan atxilotuak izatea eta jazteko modua aski da epaituak eta zigortuak izateko, inolako deklaraziorik egin gabe. HUA: E 7 II 39 4, 5 eta 6.

*M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa para la conduccion de...".* Zaragozan preso hauen helmugaz arduratzen zen eskribauetariko batek ziurtagiria ematen zuen presoen truke, eta beste arduradun batek beste horrenbeste egiten zuen presoak Zaragozatik zegokien porturaino eramateko bidaia ordaintzeko utzitako diruaren truke: "*quien ha entregado los veinte y ocho pessos de a ocho reales de plata casa uno para la conduccion de dichos quatro reos, desde esta real caxa al puerto que S.M. destinare*"[349].

Desertoreak jazartzeko erabiltzen diren ideia-gakoak, Gipuzkoan errotuak baina istilutsu bezala har zitezkeen lagunen gainean ere ezarri ahal ziren. Berez, Aldundiak zein Batzar Nagusiek desertoreak aipatzerakoan, arloteak eta enparauak gehitzen zituen beti. Hala egin zuten 1746-1748 bitartean: 46ko Aldundiak: "*perseguir y prender a vagabundos y desertores*"; Zumaiako 47ko Batzarretan: "*que cuiden de la prisión de ladrones, vagabundos, gitanos, gitanas, desertores y fugitivos de las lebas del reino*"; edo 48ko Hondarribiakoak: "*prender a los vagabundos, desertores y fugitivos de las levas que llegaren*"[350].

Produktiboa ez omen zen multzo bat erregearen mesederako lanean jartzeaz gain, laguntza merezi ez zutenentzako xede bat finkatzerakoan, Probintzia bere buruari laguntzen ari zitzaion, arloteak itsas-armadarako zor ziren marinelak betetzeko erabili ahal zirelako, esate baterako, edo bertako pobreentzako lehiakide suerta litezkeenak kanporatzen zirelako. Ezarritako lanetan ederki ikusten da zigortuei atarramentu ateratzeko nahia: ejerzitoaren beharrak eta hutsuneak estaltzeak lehentasuna izan zuen 1749ra arte, baina Afrikako presondegiek eta Almadengo meategiek galerak ordezkatu zituzten Akisgraneko pakea sinatu eta gero[351].

Gogoratu behar da agiriek "delitu ez oso itsusiak" aipatzen zituztela erabilera hau ezartzeko. Horrek esan nahi du beste auziperatuen gaiztakeriak heriotzarekin zigor zitezkeela. Gorago aipatu dugun Tomas Xabier lapur eta hiltzailearekin hala erabaki zen, eta berdin 1747an ere Juan Bizentes Jansul-en hilketaren arduradunarekin,

---

[349] GAO: CO CRI 1746.
[350] GAO: JD AM 103, 104 eta 105.
[351] 1749ko Errege-agindu baten arabera. Hernaniko Udal Artxibategia (Her): E 3 I 1 4.

Fernando Origüelarekin, alegia[352]. Zigorraren berri abenduaren 14an jakinarazi zion, hiru eguneko epea emanez bere burua prestatzeko: "*le notifique y aga saber en su persona la dicha sentencia...y echo, se execute dicha sentencia dentro de terzero dia y el dia sabado diez y seis de este presente mes y año, a las diez de la mañana, cui thermino se le conzede para su preparazion y disposizion...*". Epaia puntualitate osoz bete zen: "*fue sacado de la carzel publica de esta ciudad en que se hallava a cosa de las diez dadas de la mañana y puestole sobre una bestia menor de albarda, teniendo puesto un capuz y verretina de color morado en su cuerpo fue llevado por los parajes publicos de esta dicha ciudad publicandose en las esquinas y parajes acostumbrados por Alberto de Pata el pregon, diciendo en altas e intelegibles bozes: esta es la justicia que el rey nuestro señor manda hazer en este hombre por omisida y haver azeptado y emplazado desafío. Y llegados a la plaza nueva de esta dicha ciudad, donde en su mitad estava levantada una horca, en ella publicamente por Juan Dominguez Romero ministro executor berdugo publico, fue suspendido y haorcado la persona de dicho Fernando de Origüela, que quedo muerto y suspendido con unos cordeles en el pescueso altos los pies del suelo*".

Delituaren itsusitasunaren mailan, gertaera bera baino kanpoko baldintzak garrantzi gehiago izan zitzaketen. Izan ere, Origüelak urkamendia ezagutzen zuen urte berean eta Probintziako seme Lazaro Inazio Goiari, lehen aipatutako berari, heriotza-zigorra beharrean galerak egokitu zitzaizkion, hilketa bat eta ihesaldia tartean egon arren. Goia Zaragozan eramandakoen artean dugu, gorago aipatu ditugun agirietan. Goia harrapatzeko ardura ez zen korrejidorearena izan, Aiako alkatearena baizik, eta iritzi publikoak, zurrumurruek, garrantzi handia izan zuten ekimen horretan: "*ombre vicioso y de mala intención e inclinado a quimeras y otras raterias, en cuia fama y opinión le tienen quasi generalmente en esta universidad [Aia] y en los lugares zircunbezinos, y que guiado de estas depravadas costumbres avia cometido diferentes maldades y delitos*". Delitu hauen artean, 1739an Kizkitzan gertatuko hilketa bat leporatzen zitzaion, bai auzitegitik kanpo, –"*especialmente se decia por publico*"– bai eta auziperatu eta torturatu ondoren ere, nahiz eta berak hilketa ukatu.

Alta, Goiaren esanetan kontu hau ordainduta zegoen, urte eta erdi La Motan eman eta gero, Oranen eman beharreko 10 urteak ejerzitoan 5 urtez zerbitzatzeagatik

[352] GAO: CO CRI 1743, 3.

aldatu zizkioten eta. Bi urte eta erdi Bartzelonan egon eta gero, libre utzi zuten elbarri gelditu izanagatik. Honetaz gain, itsasoan zegoela, kortsario batek preso hartu omen zuen. Oraingo delituak, zigorra ez betetzea, jendea izutzea eta dirua kentzea, edota tabernaren atarian emakumeei gordinkeriak esatea ziren[353]. Alferren aurkako legeak aipatu gabe ere, prozesu kriminal abia zitekeen beraz.

Beraz, ejerzitoa eta galerak hornitzeko estrategia berezia garatu arren, ohiko justiziak bere bidea segitzen zuen. Ez bakarrik korrejimenduan, baita alkatetzetan ere. Jazarpen mota berezi horren helburu nagusi bilakatu zirenak gipuzkoarrak ez izan arren[354], langabetasunean edo nagikeriatan murgildutako multzoa probetxugarri bihurtze aldera Probintzia mailako erakundeek gizarte kontrolerako abiatutako bide berrian tokiko agintariak behin betiko lotzeko urrats garrantzitsuak eman zirela uste dugu. Goiaren auziak hala erakutsiko luke, eta ez zen salbuespena izan.

Izan ere, alkateak ere heziketaren parte ziren eta tokiko justiziek aginduak behar bezala betetzen ez zituztela ikustea arrunta izaten zen. Hernanin izandako lapurreta handiaren ondoren, eta inguruetan ematen ari ziren beste ebasketak kontutan harturik, Aldundiak segurtasun publikoa (sic) zaintzen eta aginduak betetzen arreta gehiago eskatu behar izan zien alkateei, esate baterako[355]. Ildo beretik, eta harritzekoa bada ere, 1748 eta 1749 bezalako urteetan alkate batzuek atxilotuekin zer egin galdetzen zuten oraindik. Horrela, Urretxukoak ospitaleak antzemandako bi emakume eta gazte batekin nola jokatu galdetu zuen Batzar Nagusietan[356], eta Berastegiko alkateak lapurretagatik auziperatu eta libre utzitako lagunak zigortzeko, zehaztapen berriak eman behar izan ziren, zera zirela zehaztuz: "*forasteros, vagos, no arraigados, ni dedicados a oficio alguno determinado y faciles de incurrir en mayores delitos*".

Jarrera hauen atzean zegoena ez zen beti utzikeria, ez jakintasuna ala alkatetzaren urteko txandakatzeari lotutako antolakuntza oztopoak. Izan ere, alkateek

---

353 GAO: CO CRI 256, 8.
354 Betiere Gipuzkoan, desertore gipuzkoarrak ere izan zirelako, beste toki batzuetan atzematen zirenak.
355 GAO: JD AM 116.
356 GAO: JD AM 105. Azkar epaitzeko eta gastuak Batzarretan aurkezteko agindu zitzaiolarik.

ere ez zituzten inoiz beren interesak alboratu. Horren adibiderik nagusiena, behar bada, 1746. urtean dugu. Arlote eta desertoreen jazarpenaren inguruan Ensenadak eta Probintziako erakundeek elkarrekin oso korrespondentzia eztitsua izan bazuten ere, urte horretako uztailean Ensenadak bere kezka bitan helarazi zion Aldundiari, ejerzitorako bidaltzen ari ziren lagunak ezinduak eta elbarrituak zirelako. Hau dela eta, aginduak zehaztu behar izan ziren, armadarako ez-gai ziren "gaizkile"ei behar bezala zigortzeko[357]. Hau da; alkateek susmagarriak zirenak izan ezik, beren udalbatzentzat zama bilakatu ziren gixajo guztiak ere bidali omen zituzten ejerzitora, hauen arduraren zama arintzeko asmoz.

Horrekin batera, armadaren bidezko zigor honetan alkateak ederki trebatuak zirela eta desertoreak ez ezik herrian ikusten zituzten portaera okerrak ere zigortzeko molde egokia ikusten zutela pentsatzen dugu. Horretarako, Aldundiak eskainitako babesa zuten, ikusi dugun bezala Aldundiak berak bere ebazpenak desertoreak eta bestelako jende-mota atzemateko iragarkitzen zituen eta. Alkateek bultzatutako auzi hauetan, lehen aipatu dugun prozedura bera erabiltzen zen: prozesatzeko autoa osatu eta korrejidorearen esku utzi. Gertaera hauetan, ekintza eta izaera, biak leporatzen ohi zizkieten akusatuei. Esate baterako, Errezilgo alkateak 1749an Alejandro Urkiaren aurka abiatutako prozesuan, Urkia abere-lapurra zela argudiatzen zen; baina honekin batera, ezaguna egiten zaigun kalifikazioa agertzen da: "*no aplicado al trabajo, vago y mal entretenido*". Urkiak beste batzuen kontura lan egiten duela erakutsi arren, Hondarribiko gune militarrera bi urtez izan zen zigortua. Izan ere, alkateak bilatzen zuena, berak aitortuta, eskarmentua eta eredua sortzea zen, horretarako Urkia zera bezala epaitu: "*según lo son los malhechores... vagos, mal entretenidos y divertidos sin querer aplicarse al trabajo*"[358].

[357] GAO: JD AM 103: "*El rey ha resuelto que solo se recojan y apliquen a la recluta general los desertores del exercito y marina y los hombres de talla, sanidad y robustez para el servicio de la infantería, y que sin estas circunstancias no se recivan; ...que no se recoja ni admita ninguno para la marina y que se proceda en justicia con los delinquentes que no tengan la claridades para ser admitidos a las armas a fin de castigarlos según convenga*". Adibide zehatzak: GAO: CO CRI 282, 3an aipatzen dira.
[358] GAO: CO CRI 272, 4.

Alkateek interesgarria aurkitzen zuten beste arloetariko bat, auziperatuen zigorra bermatzeko eta herrietatik kanpo gauzatzeko Korrejidoreak bere burua eskaini izatea dugu. Korrejidorearen engaiamendu horrek, urteetan zehar pairatu baina irtenbiderik ez zituen hainbat egoera konpontzeko erabili zuen hainbatek; hots: kontuak kitatzeko. Horrela, bertako auzokoak prozesatzeko hartutako erabakiaren funtsan Korrejidoreak eginiko eskaintza zela adierazten zuten. Adibidez, Orereetako alkateak: "*enterados de que VS ofrezio dar el destino correspondiente a qualquier vago, remitimos a VS uno con la sumaria información que se ha recivido para que VS determine lo que le pareciere conveniente*". Auziperatua kanpotarra izan arren, abizen euskaldun zuen Puerto de Santa Mariako Jose Basterretxea marinela, alegia, ez zen iritsi berria, azken hiru urteak, gutxienez, herrian emanak baitzituen. Denbora horretan zehar sortutako iskanbila eta hitz potoloengatik eta eskatutako eskupekoengatik auziperatzea eskatzen zen[359].

Andoaingo Juan Bautista Atorrasagastiren aurka bertako justiziak abiatu zuen prozesuak ere antzeko salaketak jasotzen zituen. Delitu kriminaltzat jotzen zirenak, mehatxuak, edanda egotea, ondarea xahutzea,... eta antzeko portaerak ziren: "*muchas y continuadas quejas que...han tenido contra Juan Baptista Atorrasagasti por las inquietudes que causa por su genio altibo y revoltoso tratando mal de obra y palabra a muchas personas y teniendo atemorizados con sus amenazas y acciones no solo a los extraños sino es a sus parientes y hermanos, haviendo disipado y perdido su patrimonio en embriaguez y otros vicios*"[360].

Agian, maila honetan sar dezakegun adibiderik esanguratsuena Peñafloridako Konteak, Azkoitiko alkatea zelarik, egina dugu. Korrejidorearengana bidaltzen duena adin txikikoa zen, eta leporatzen zitzaion delitua iskanbiletan eta neskatan ibiltzea zen. Korrejidoreak Peñafloridak eginiko autoak onartu, bereak garatu gabe, eta gaztea hiru urtez ejerzitora bidaliko du[361].

---

[359] GAO: CO CRI 1754-1. Akusatuak gaixoa zegoela, perlesiak jota, esan arren, medikuak ukatu eta Donostiako gotorleku militarrean lan egitera bidali zuten.
[360] GAO: CO CRI 1756-6: Honek aurretiak bazituen ere, Mallorcan ordaindutako urteak. Orain berriz, 8 urtez tropara, eta bete ezean bikoitza Afrikan.
[361] GAO: CO CRI 256, 1.

Azkenik –azkena ez izan arren– Berastegiko alkateak Leitzako auzoko bat Korrejidorearen esku uzterakoan erabilitako argudioak ere ildo berekoak ziren. Akusazioa zehatzagoa izanda ere –kontrabandistentzat lan egitea eta espioi lanak leporatuta–, alkateak nabarmentzen zuena, besteak beste, auziperatuak lan egitearekiko zuen lotura arina da: "*reputado por poco apegado al trabajo*"[362].

Hortaz, desertoreen aurkako jardunean lortutako eskarmentua, mende hasieratik zehaztu eta indartutako lerroekin ongi uztartzen jakin zuten alkateek, betiere eskuragai zituzten tresna guztiak bere eskumenean zegoen multzoa diziplinatze aldera. Alkateek Aldundiaren betearazle gisara aritzen ziren, lurralde-erakundearen ordezkari bihurtuta, alegia.

Gizarte diziplinarako herrialde mailan osatu sareari dagokionez, erakundeen arteko orekari eusteko izugarrizko garrantzia izango du, horretarako kargodunen izaera berebiziko eragina izango dutela. Probintzia mailako ordenuaren buruzagitzari eusteko, Probintziak tokiko agintarien lana bultzatuko du eta komisariok erabat baztertu. Horrekin, 45. urtean puskatutako inertzia berreskuratzen zen, alkateak Aldundiaren eta Batzarren beso betearazle moduan sendotuz. Jarrera honen mesederako, badirudi ez zirela oso maiz agertu Probintzia mailan aritzen ziren lapur-talde handiak, ez eta kanpotik iritsitako talde arrotzak.

Baimenik gabeko eskale, arlote eta ibiltariak ibiltzen ziren, prefosta, baina alkateek mendean hartzeko neurrian, dirudienez. Eta gauza bera lapurretei buruz: ez dira inoiz eteten, baina oso gutxitan lortu zuten aztoramendu orokorra sortzea. 1757an epaitu eta hilketak, kontrabandoa zein lapurretak metatzen zituzten Zubiaurre eta Landradoirenak[363], edo 1769an[364] Madril-Baiona bidaia egiten zuen mandozain bati

[362] GAO: CO CRI 1756-6. Korrejidoreak Errege-Aginduak zehaztutakoen artean zegoela eta presondegi komandante orokorraren esanetara jarri zuen lau urtez.
[363] GAO: CO CRI 1757, 6. Oiartzuarrak, ala Oiartzunen bizi zirenak. Oso epaiketa luzea izan zen, izugarrizko agiri sorta osatuz gainera. Azkenik, 8 urtez Almadengo meategietara izango dira bidaliak, gorago aipatu dugun 1749ko ebazpenaren arabera.
[364] GAO: CO CRI 1769, 1 eta 4. Ostalariak bi urte preso eman eta gero, kargurik gabe libre gelditu ziren.

Eskoriatzako ostatu batean ostutako diru kopuru handia ditugu azpimarratzeko moduko lapurreta handiak.

### 3.4 Antolaketaren galgak

Alkateen lana, Aldundiaren borondatearen luzapen gisa zein tokiko komunitateak bere burua kontrolatzeko aldarri moduan, begi bistakoak ziren mugek jota zegoen beraz. Baina gizarte-kontrolarekiko ezintasunak herri mailakoak baino askoz ere orokorragoak zirela esan behar da[365].

Horrela, 1755ean Ataungo alkateak arkumeak eta bestelako gaiak lapurtzen zituztenek senideen baserrietan eta familengan aterpe aurkitzen zutela salatu zuen, urtebete lehenago gobernu onerako emandako ebazpen batean abegikortasun hori guztiz galerazita izan arren: "*que ninguna persona se atreva a recoger en su casa a ninguno que sea sospechoso en nuestra santa fe, ni amancebado ni de mala vida ni vagamundos, pena de treinta mil maravedis por cada vez que se le averiguase*"[366].

Egoera hau orokorra zela, urtebete beranduago Aldundiak berak aginte militarrari idatzitako eskutitz batean aitortzen zen. Bertan, desertoreak Probintziaren helburua izaten jarraitzen zutela ziurtatu eta herri-guneetan kontrolgarriak baldin baziren ere, baserrietako jendearen abegikortasun zabala medio, landa eremuan egoera oso bestelakoa zela aitortzen zen: "*donde es tan natural como general la piedad de los naturales en hospedar a los pobres pasageros sin el conocimiento necesario por distinguir sus calidades*"[367].

Aginduak ez ezik, zigorrak ere nekez betetzen zirela ikusten dugu 1769an. Izan ere, mozkorraldiak, familiarekiko utzikeria, iskanbila franko, eta abar izan ondoren, eta alkateak zein herriko beste pertsonak Azkoitiko Franzisko Urretaren bizimodua zuzendu ezinik ibili ondoren ("*ha pasado y pasa un vida ociosa y mal entretenida, sin querer*

---

[365] Bete gabeko zigorrak ugariak eta arruntak ziren maila guztietan. Esate baterako, 1746ko Batzarretan 1738an lapurreta txikiagatik epaitu zuten emakume batek 3 urteko desterrua ez zuela oraindik bete gogorarazten da. GAO: JD AM 103.

[366] GAO: CO CRI 293, 2.

[367] GAO: JD CO 28. 1756ko apirilean. Baina jada 1723ko Batzarretan, herritarrek desertoreei eskaintzen zieten babesa plazaratu zen: "*habiendo personas que incauta o maliciosamente encubren y disfrazan a los soldados para la deserción*". Ondorioz, gune militarreko ondoko alkateei eta auzokoei desertoreak salatzea eta desertzioa iragartzen zituzten kanoikadei arreta ematea eskatzen zen.

*sujetarse al trabaxo de su oficio, sin embargo de haberle amonestado su mrezed varias vezes, como tambien otras personas para que se dedque a trabajar en su oficio y no ande ociosamente... suele tener quimeras y pendecias con su propia mujer*"), bide judizialean sartu eta 5 urtez ejerzitoan ematea behin lortuta, Donostiako troparen arduradunek etxera itzuli zuten Urreta, presondegia beteta eta ezaugarri hauek zituzten gizonak ezin zituztela onartu argudiatuz[368].

Agintariek zigorrak behar bezala bideratzeko adierazten zuten ezintasunak eta auziperatuek zigorrak ez onartzeko zein agintariak mehatxatzeko zuten gaitasunak, diziplinaren bidea heldugabe zegoela ematen digute aditzera. Ezkioko Santiago Agirrezabal, Beizamako Inazio Kerejeta edo Errezilgo Patxi Izagirreren adibideak egoera honen islatzat har ditzakegu.

Agirrezabali dagokionez[369], 1757an aipatzen delitu bakarra desertore izatearena zen, nahiz eta desertzioa Badajozen bete behar zuen zigorrekin lotuta zegoela zirudien. Bestela ere, Donostiako presondegitik egin zuen ihes[370], handik bere amaren etxera bueltatu eta bera atxilotzen lagundu zuten guztiak akabatu behar zituela iragarri omen zuen. Honek alkatearen zein eskribauen kezka piztu zuen. Hortaz, Aizpuru eskribauak korrejimenduari idatziko eskutitzan, maltzurren aurka aritzeak merezi zuen ala ez jartzen zuen zalantzan: "*vien se puede guardar cada de intervenir en diligencias de castigar a picaros, pues para cojerlos dan tantas ordenes como todos los dias vemos, y cojidos que sean, ningun caso se hace de ellos, antes vien los dejan marchar libremente. Luego que se puede esperar de ellos, si no muertes, incendios, rovos*".

Berriro atxilotu eta gero, presoarekin zer egin erabaki behar izan zuten; hau da, ezarrita zeukan zigorra betetzen saiatzea, ala zigor berri bat ezarri, berau betearaztea bermatu ahal izateko. Azkenean, bigarren aukera nagusitu eta Donostiako

[368] GAO: CO CRI 1769, 3. Ondorioz, korrejidorearen oniritziz, 4 urtez Oran-era bidaliko dute.
[369] GAO: CO CRI 1757, 2.
[370] "*hallandose el confesante a una con los demas prisioneros travajando en el valuarte que esta fuera de la puerta de tierra con su cadena de veinte y cinco libras, a cosa de las onze de medio dia, haviendo saltado el arenal, se escapó acia el convento del Antiguo, y entrando por unos manzanales paso al manote de Igueldo, donde rompio la cadena y desde el mismo monte y via recta pasao a la villa de Ezquioga a la compañia de su madre, sin que al tiempo de la fuga ni despues le hubiese auidado ni auxiliado persona alguna.*"

presondegian bortxazko lanak berriro egiten behartu zuten, Donostiako presondegiak gizarteratzearen inolako bermerik ematen ez zuela jakin arren.

Hala behintzat erakusten du 1754an Azpeitia-Tolosa-Alegiako bideetan izandako lapurreta andana, emakumeen zein bere burua defendatzeko aukera gutxi eskaintzen zuen jendearen aurka zuzenduta. Asalto hauen buru Franzisko Izagirre "Patxi Ezama" litzateke, Donostiako Motako gotorlekuan lapurreta egiteagatik kondena bete eta gero berriro zeregin berari ekin ziona: "*que unos mozos mal entretenidos han andado assaltando en los caminos publicos que hay entre esta dicha villa y la de Azpeitia y en el camino que desde la de Tolosa se dirige a la referida de Azpeitia, robando a mugeres y otras personas flacas, de tal suerte que han intimidado a varios transitantes. Y que uno de ellos es Francisco de Izaguirre ["Patxi Ezama"] natural de la universidad de Regil, el qual fue echado al castillo de la Ziudad de San Sebastian por delitos de hurtos, y con poca emmienda a buelto a sus malas costumbres*"[371].

"Bordon" edo "Artxiduke" ezizenez ezagutzen zen Beizamako Inazio Kerejetaren atxiloketak oso egoera antzekoa irudikatzen du 1763an[372]. Oraingo honetan, korrejimenduan bertan epaitu eta emandako zigorra bete gabe zuen gizon hau atxilotzeko ekimena merino gisa Franzisko Garate eskribaua Baliarraingo alkatearengana bidaltzearekin batera antolatu zen. Agirrezabalek egin bezala, Kerejetak ere presondegia utzi eta etxera itzuli zen, agi denez, bizimodua ateratzeko bere ikazkin lanbidearekin.

Garateren eskaeraz, alkateak hamar lagun bildu zituen, zazpik suzko armak zituztela eta beste hirurek makilak, ekintzaren helburua isilpean gordez. Atxiloketa guztiz ikusgarriaren ondoren[373], korrejidorearen espetxera eraman bitartean era

---

[371] GAO: CO CRI 1754, 2. Bere anaia Juan gehi Beizamako Felipe eta Ana Maria Orbegozo anai-arrebekin batera. Felipe Orbegozo erbesteratu eta Patxi Ezamari bortxazko lanak beste bost urtez ezarri egin zizkioten.

[372] GAO: CO CRI 1763, 5. Ziurrenik lehen aipatu ditugun Lazkano, Larrazabal eta abarrekin ibilia, bere anaiarekin batera.

[373] "*a cosa de las tres horas de la mañana del dia siguiente...salimos de la citada concexil de Baliarrain para el expresado monte de Gainza y paraxe a poca distancia en donde dicho Ignazio de Querejeta tenia dispuesta su choza y descansso para dormir y cocer su alimento diario. Y luego al rayar el dia...cargamos sobre la dicha choza en donde con buen fuego se hallaba echado dicho Ignazio y puestas bocas de fuego a la puerta de su choza se le desperto diciendole que era preso. Y sin embargo de que al primer impetu de esta expression se agarro de una acha...se rindio...diciendo que por mas jente que hubiesse ido a prenderle*

guztietan ihes egiten saiatu zen Kerejeta: Baliarraingo elizan babestu, zalditik bere burua bota, sastakai bat atera, zaindariak kolpatu, mehatxuak,... Baina deigarriena, zalantzarik gabe, Garatek berak jasotako esamesa dugu: Kerejetaren sendia presoa askatzen saiatuko zela, alegia: *"se murmuraba que si supiesen los hermanos de este reo y otros algunos de su parentela pudiessen quitar y poner en libertad a dicho reo, quien decia que aunque la zorra se muriesse vivirian sus cachorros"*[374].

Behin Korrejidorearen eskuetan, Kerejetak bere bizitzaren berri eman behar izan zuen, batez ere 1753-57 bitartean egindakoaren berri, urte horietan hilketa batengatik Donostian zegoen Gasteizko infanteria armadan zerbitzatzera behartuta zegoen eta. Kerejetaren kontakizuna oso bizia da: Donostian ez zuen ez eta urtebete eman lanean, ihes egin eta lanera itzuli baitzen: Andoain, Ramales, Urriz... atxilotua izan arte tabako gehiegi edukitzeagatik. Orduan zigorra betetzen behartu zuten: Iruñean, Malagan, Cádiz, Puerto de Santa Marian, Rotan eta Portugalgo gerretan. Gerratik ihes egin zuen berriz, Aragoian burdinola batean sukaldari aritu ondoren, herrietan sartu gabe eskupekoei esker bizi izan zen, berriro ikazkin lana berreskuratu arte Amarotzen eta Gaintzan.

Auzi hau anekdota eta ikusgarritasunetik haratago doala uste dugu. Batetik, Kerejetaren ahotan jarri diren hitzek XVIII. mendearen erdialdean mendeku partikularraren indarra ez zela desagertua adierazten dute. Benetan, hori esan zuen ala ez jakitea baino –berdin auziperatuak esanak ala lekukoek asmatuak–, gakoa ideia horiek indarra zutela eta sinesgarriak zirela baieztatzean datza. Liskarrak kitatetzeko ahalmena gizartearen barruan zeuden oraindik, eta ez kanpoko erakunde ala gainegituran. Alta, disziplinarako ekimen hau gauzatu ahal izateko gizartekide ala auzokoen beharra izateak bere mugak ditu ere bai. Adibidez, atxilotu behar den pertsonarekiko loturarik ez duen auzorik aukeratzea.

---

*se hubiera escapado por todos ellos a tener consigo las armas que solia traer y no quisso rebelar ni descubrir en donde se las tenia... Y a luego se le ato en sus dos brazos con un ceñidor, que yo el esscribano traia ceñido, puestole en medio de todos y uno por espaldas agarrado del ceñidor empezamos a caminar"*

[374] Kume eta sendi horien artean, zalantzarik gabe, 1734an ikusi dugun Franzisko Kerejeta; baita ere 1753an bizimoduagatik epaitua izan zen Juan Kerejeta (GAO: CO CRI 295, 13). Beizamakoa baina Hernaniko Fagollagan aingura-egilea; hiru urte lehenago neskatxo bat bortxatzen saiatu zen; gerora gaixotua eta depresioak jota hil zen neskatoa. Orain, ezkonduta egonda, alargun batekin harreman sexualak izatea leporatzen zaio.

Dena den, honako hau antolakuntzarako gabezia izugarriak zituen gizartea zela esango bagenu, guztiz oker egongo ginateke, ezin baitugu inoiz ahaztu eskumen ugariko gizarte bat aztertzen ari garela. Horregatik, XVIII. mendean zehar arrakastatsua suertatzen den bidea unearen arabera jatorri ezberdin zituzten tresna eta eskumen ugari erabiltzean datza. Esan dugun moduan, finkotasuna, beraz, jarduteko moldean datza, eta ez erakunde berezi batean.

## 4. BIDE KONTRAJARRIAK: KORREJIDOREA-ALDUNDIA.

Berrogeiko hamarkadan desertoreak atzemateko sortutako bidean oinarrituta, Mucientes Cano korrejidoreak diziplinarako tresneriaren eremuan izandako jokamoldea honen isla da, atxiloketak gauzatzea ahalbideratzen zituzten komisario propioak, adibidez, izendatuz. Hala egin zuen 1754. urtean, adibidez, Tolosako Jabier Bikuña aguazilaren bitartez. Hau, "*comisionista nombrado por su señoría para la aprension de vagantes y gente mal entretenida*" gisan aritu zen[375].

Beste batzuetan, berriz, soldaduei eman zizkien mandatu hauek korrejimenduak. Hauen lana oso gaizki hartzen zela esan dezakegu, herriko jendea atxilotuak askatzen saiatzen zela[376], edo alkateek beraiek soldaduen zilegitasuna onartzen ez zutela. Iskanbilarik esanguratsuena 1754an Elgoibarren gertatutakoak ditugu. Alkateak ez zituen aintzat hartzen Elgoibarren eta Soraluzen alferrak zirelakoan soldaduek atxilotu zituzten Nafarroa Behereko hiru gazte, langileak eta ezagunak zirela argudiatuz. Horrekin batera, herriko gazteek ere soldaduei kargu hartu zieten, horrelako atxiloketak egiteko zuten gaitasuna zalantzan jarriz[377].

Mucientes Canok berak bere lorpenak aldarrikatu zituen 1757ko zirkular batean, bere lanari esker 100 lagun baino gehiago ejerzitora, presondegietara ala desterrura bidali zirela esanez. Gainera, Iturriotzen gertatutako hilketa eta lapurreta baten ildotik, Mucientes Canok Aldundiaren utzikeria aurpegiratu zion erakunde probintzialari, honek ez omen zuelako ordenuaren zaintza behar bezala betetzen: "*No dexan de haverse oido algunos otros casos de urtillos por el resto de la Provincia. Bien se hara VM cargo que esta por sus situacion aspera y montuosa es sumamente ocasionada para toda especia de facinerosos... Toca a VM por obligacion, el zelo y cuidado de su jurisdiccion. Avisansela a VM las repetidas estrechas providencias de los Fueros de esta Provincia, las Leyes del Reyno, y tanto succesivos Reales Decretos del Soberano. Y assi confio en el desempeño de su*

---

[375] GAO: CO CRI 1754, 3.
[376] GAO: CO CRI 1754, 3. Azkoitian.
[377] GAO: CO CRI 1754, 1. "*quien les metia a hacer prisiones en aquella conformidad*".

*empleo la observancia. Desde que vine a esta Provincia, no he cessado en sus Juntas Generales y en particulares avisos a las justicias, reencargar la grave importancia del sossiego publico "*[378].

Baina, esan bezala, gure indarra jazarpenerako eta susmagarriak atxilotzeko bideratutako erakundearen inguruan miatzen eman arren, zigorraren proiektuan ezinbestekoak diren beste arlo batzuk aipatu beharrean gaude. Izan ere, ikusi dugun moduan, gizarteratu ezin ziren aleak zigortzeko, aldez aurretik atxilotu eta auziperatu behar ziren. Horretarako, jazarpen sasi-poliziala ez ezik, beste tresna batzuk erabili behar zirela begi bistakoa da: justizia eta espetxe sistemak. Bi eremu hauetan egiten da ikusgai, hain zuzen ere, eskumenen arteko adostasun falta, hein handi batean, bi proiektu politiko ere islatzen dutenak.

Ikerketa berezia mereziko lukeen kontrabandoaren aurka egiteko aitzakia hartuta, esate baterako, Koroaren ordezkariek beren menpeko indar armatu bat probintzia osoan zabaltzen saiatu ziren behin eta berriro XVIII. mendean zehar. Probintziako agintariek, berriz, tentu handiz jokatzen zuten afera honetan. Batetik, kontrabandisten aurka aritzen baziren ere, arlote, alfer, oker eta abarrekin ez zituzten inoiz nahastu. Beste arlo batean kokatzen zituzten. Bestetik, korrejidoreak Pausuko bidea estuki kontrolatzeko eskatutako neurriak, bereziki 1747ko Batzar Berezi batean galdetuak, ez ziren serioski aintzat hartzen. Eta, azkenik, barneko aduanetako zaindariak ordain-gunetik aldendu bezin pronto haien aurka oldartzen ziren[379]. 1745ean Usurbilgo alkateak inguruan zebilen zaindari-taldea gaizkile gisara atxilotu izatea horren adibiderik esanguratsuenetarikoa dugu.

1766ko matxinadaren ildotik, egoera hau bere gordintasunean ikus dezakegu. Hiribilduetako buruek Probintziako ordezkaritza bereganatu eta inolako artekaririk gabe gaizkiletzat jotzen zituzten matxinoak oldartzeari ekin zioten. Militarrak menpekoak bilakatu zituzten eta Korrejidoreak berak ere gogor egin beharko du lidergoa partekatu ahal izateko[380]. Jakina da errepresioaren buruan Probintziako goi-

---

[378] Zirkularraren kopia HUA: A 15 1 2.

[379] Adibidez, 1731, 45, 46 eta 48ko Batzarretan.

[380] Honen guztiaren berri zehatza IÑURRATEGIk ematen du, aipatu lanean: *Monstruo indómito...*

mailako jauntxoak jarri zirela, baina matxinoak mendean hartzeko zituzten baliabideak ez ziren profesionalak izan; agintariek jende xumearen beharra izan zuten gobernuaren kontrola indarrez berreskuratzeko, nahiz eta honetan ere herritar askok kontrako gogoa adierazi[381]. Ordena naturala berreskuratzeko borroka honetan, Gipuzkoa lurralde bateratua eta eremu politiko bezala eratzen eta kudeatzen ari ziren patrizioak zuzenean aritu ziren, tarteko baliabiderik erabili gabe eta Probintziako eskumena bereganatzeko lehiatzen zuten beste erakundeei aurre eginez.

Gizartearen kontrola bideratzen zituzten indar armatuak osatzeko eta zuzentzeko moldeetan ez ezik, lehia hau sistema hertsatzailearen parte ziren espetxeetan eta epaiketetan ere antzematen zen. Gure ikerketaren erdigunean funtzio polizialaren gauzatzea egonda ere, zigor, kontrol eta diziplinarako beste eremuetan ere erakundeen arteko harreman-bikoiztasun bera eman zela (batzuetan elkarlan positiboa, beste batzuetan irizpideak ezin batu) zehaztu behar dugu. Horregatik, zigorraren bidea gero eta marraztuago agertze aldera, gure lanaren helbururik nagusiena ez diren baina aipatzea ezinbestekoa ditugun beste arlo batzuen antolaketan, eskumenen artean emandako liskarren gainean begirada labur bat bota behar dugu. Hauen artean, nabarmen, bere baitan epaiketa eta espetxeetako egonaldia hartzen zituen prozedura penalarena; gehienbat, arlo kriminalekoa. Erresumako ordezkarien eta probintziako arduradunen adostasun faltaren adierazle bikainak aurkituko ditugulakoan eta ohiko aginteak eremu hauetan jarduteko erakusten zuen gaitasun maila ezagutzeko.

---

[381] Adibidez: OUA: auzi kriminalak 4-2, 1766. urtean: "*Autos de oficio de José Ignacio de Zuaznabar contra Ignacio de Olaciregui, Gregorio de Oyarbide, José Antonio del Puerto, Manuel de Zapiain, Francisco de Ameztoy, Diego de Feloaga y Pedro de Arbide, vecinos que no quisieron armarse, conforme a las órdenes recibidas del Ayuntamiento, para hacer frente a los que promovieron el alzamiento llamado la Machinada y se acercaron al Valle.*"

### 4. 1 Zuzendu beharreko bide osagarriak: epaiketak.

Epaiketak gauzatzeko erabiltzen zen prozedura judizialari buruz, lehenik eta behin honek berak ikerketa berezi bat mereziko lukeela esan behar dugu. Horren zain, Batzar Nagusiek Pedro Ignacio Alzolaras eta Vicente Oro-Miotari auzi judizial guztien prozesuak azkartzeko modua ikertzeko eskatu izatea azpimarratu behar dugu hemen. Prebentibo moduan presoek pairatzen zuten kalte eta mina arintzearekin batera, zigorren eredugarritasuna ziztu bizian gizarteratzea eta presoek hiribilduei eta herrei sortarazten zieten gastuak murriztea –elikadura, gaixotasuna eta defentsa lanengatik– neurri hauen oinean aurkituko genituzke.

Izendatutako adituek –Forua eta Batzarren Aginduak oinarri hartuta–, Probintziaren ardurapean gelditzen ziren auzi kriminalak azkar epaitzeko prozedura 1766ko Batzarretan aurkeztu zituzten. Prozedura ala "*Instruccion*" honek denboran irautea eta eredu finko bat ezartzea du helburu, 1689an desagertu zen Ermandadeko Alkateen lana gaurkotuz eta auzi kriminalak azkar burutuz[382].

Alzolarasek eta Oro-Miotak, berauek esan bezala, epaiketak azkar burutzeko prozedura ordenatu baino ez zuten egin. Horretarako, aipatutako neurrien artean ondokoak azpimarratzea merezi duela iruditzen zaigu:

- Eskribaua aukeratzeko malgutasuna.
- Delituari isuna, desterrua ala Gipuzkoako presondegia "baino" ez balitzaio egokituko ere, epaia gauzatu helegitearen zain egon gabe.
- Delituari egokitutako zigorra, jipoia, gorputz-adarraren bat moztea, heriotza, ala Afrikako presondegia balitz: delitua frogatzeko eta epaiketa ixteko 8 eguneko epea eman, fiskal lanak alkateak berak bereganatuko zituelarik; honi, gehienez, lau eguneko luzapena eman; batu daitezkeen jakinarazpen guztiak aldi berean ematea; autoak ez uztea akusatuen ordezkarien esku, frogak eta lekukoak bilduak izan arte.

---

[382] GAO: JD AJI 3, 1. Matxinadaren urtean honen berri ematea kasualita hutsa denik ez dugu uste.

- Prozesu sumarisimo honen berri Aldundiari emateak ere ez luke ekimena berandutu beharko.

Alzolaras eta Oro-Miotak aurkeztutako neurriek epaiketak eraginkor bilakatzeko beharra aldarrikatzen zuten, inolako zalantzarik gabe[383]. Era berean, korrejidoreak bereganatutako protagonismona murriztea helburu izango zuela pentsatzen dugu ere bai. Dena den, erreforma honen aurkako oztopo ugari agertuko da, eta 1784ko Batzar Nagusietan neurri hauen defentsa bultzatutako helegiteak bertan behera uztea erabaki zen eta aldi berean lehendabiziko instantziaren banaketari buruzko jarraipen estua egitea berretsi[384]. Hortaz, aurrerago topatuko dugun gaia izango dela uste dugu.

---

[383] IÑURRITEGIk matxinoen aurkako epaiketan erabilitako prozedurak proposamen honekin bat egiten zuela dio. *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres.* Bilbo: EHU, 1996.

[384] Jatorrizko "Instruccion" hari ezarritako murrizketak zirela eta. Lehendabiziko instantziaren inguruan, Fernando Bizente Ansorenagaraioa eta Bizente Maria Alzibar-Jauregi izendatu zituzten.

### 4.2 **Zuzendu beharreko bide osagarriak: espetxeak.**

Espetxeena dugu erreformatzeko beharra zuen prozesu penalaren beste arloa[385]. XVIII. mendeko Gipuzkoako espetxeak prozesu penalaren zati gisa hartzen ditugu, azken zigorra baino, bere zeregina auziperatzea bermatzea zen eta. Antolakuntza honetan, ikusi dugun moduan, espetxe zigorrak ez ziren ematen herrietako espetxeetan betetzeko, Probintziatik kanpoko presondegietan baizik. Gipuzkoa-Zaragoza-Soria dugu Afrikako presondegietarako edo Erregearen aldeko bortxazko lanak betetzeko gizonezkoen ibilbidea[386].

Emakumezkoen patua, berriz, itxialdiarekin lotzen zen. Sexuen arteko banaketa ziegetan bermatzea etengabeko kezka zen, horretarako Azkoitian emakumezkoentzako presondegia atondu zelarik. Dena den, itxialdiekin zigortutako emakumeek Valladolid eta Zaragoza zuten helmuga. 1743ko Ahaldun Nagusi Bernardo Zabala Iurramendiren lorpenen artean, Zaragozako Loiolako ospitalean Gipuzkoako emakume zigortuak onartzea agertzen da, betiere garraioak eta helikadura Probintziaren kontura izango direla.

Hortaz, Probintzian espetxe-sistemarik zegoenik ere nekez esan dezakegu, ez behintzat lurraldetasuna eta botere bakarraren ikuspuntutik antolatua. Herriek bere ziega zuten, udaletxean bertan, eta Korrejimendua txandakatzen zuten hiribilduek honi lotutako espetxea apaindu behar zuten. Hauekin batera, Irungo mugako komertzioa zaintzen zuten "*alcaldes de sacas*" delakoak eta Donostiako zein Hondarribiko gotorleku militarrek bere espetxea zuten ere bai. Hau da, espetxeek ere lurraldearen eskumen aniztasuna islatzen zuten.

XVIII. mendearen hasieran Aldundiak luzatu aginduen artean, herrietako espetxeak egokitzea aurkitzen da. Jada 1710an aurkitu eta aipatu ditugun azterketa eta

---

385 Gai honi buruz luze aritu ginen bere garaian: ZAPIRAIN KARRIKA, David; MORA AFAN, Juan Carlos: "Gipuzkoako espetxeak..." *op. cit.*

386 Garraio hauei buruzko prozedura Tolosaldean: GAO: PT 170, 266; 2054, 217; 2573, 142; 2096, 357; 384, 426; 360, 342; 2099, 222; 2584, 59; 2088, 129, 307, 311... Zigortuaren patua zein izango den aski argi zegoen; horregatik, badaezpada zigortuek hilburukoa ematen zuten abiatu aurretik.

agindu hauek 1711. eta 1712 urteetan gauzatu ziren. Batzar Nagusiek Juan Tomas Irusta Bikuñari eskatutako txostena abiapuntu bezala erabili zuten, baina hainbat herrik, espetxea berritu beharra zutenek alegia, ez zituzten honen ondorioak onartu. Ondorioz, Aldundiak beste ikerketa sakon bat agindu zuen eta emaitzak antzekoak izan ziren: oro har, espetxeak oso jota zeuden[387]. Garai berean, Villegas korrejidoreak bere ikuspuntu eman zuen, espetxe batek sendoa eta ziurra izateko bete behar zituen baldintzak zehaztuz[388].

Txosten hauen guztien eragin praktikoa oso zalantzazkoa iruditzen zaigu. Horrela, 1753an Manuel Bernardo de Quiros korrejidoreak Azkoitia salatu zuen, korrejidore-etxean espetxerako eta espetxearen zaintzailerentzat egokituta zegoen tokia eta eraikuntza erortzekotan zegoelako[389]. Honek ez zuen inolaz ere bermatzen ez presoen segurtasuna, ezta prozesu penalarena ere; eta, era berean, espetxe-zaindaria eta bere familiaren duintasunaren kalterako zen. Quirosek bere izenean eta preso guztien izenean agindutako berrikuntzen artean, erlijioari tartea eskaintzea, emakumeak eta gizonak banatzea, eta korrejidoreentzat zein espetxe-alkaideentzat gela egokiak prestatzea agintzen da.

Salaketa honek agerian uzten du noraino hel zitekeen agintari tradizionalaren konpromisoa kontrol erakunde berriekin, Azkoitiko udalbatzak ez baitzuen onartu Quirosek agindutako eraikuntza berria. Argudioen artean, korrejidoreei zor zitzaien arreta legearen arabera betetzen zutela eta eskatzen zitzaiena zama bat zela aurkitzen ditugu[390].

Egoera beretsuan zeuden Korrejimenduzko txandan sartzen ziren beste hiribilduak ere. Quirosek berak gogorarazten ditu Donostiako espetxean hilik suertatu zen Migel Aranburu, edota Tolosako espetxetik ihes egin eta orain Azpeitian bertan preso dagoen Juana Bautista Miner.

---

[387] GAO: AJF 8, 2 eta JD IM 2 8 26.
[388] Lehen aipatu dugun artikulu berean jaso genuena.
[389] GAO: CO CRI 1753, 4.
[390] GAO CO CRI 295, 6.

Espetxeekiko utzikeria ez da eraikuntzara mugatzen. 1755eko Korrejidoreak, lehen aipatu dugun Pedro Cano Mucientes berak, espetxe zaindaria zigortu, Batzar Nagusia bera ikertu eta espetxeetarako ordenantzak sortu baitzituen[391]. Ekimen sakon hau korrejimenduari lotutako espetxeei egokitzen zaio, eta bere oinarrian, espetxe zaindariaren portaera zegoen. Alkaide honek, Enrike Antonio Zaloñak, ez omen zituen presoak espetxean gordetzen[392].

Zaloñak espetxe-zaindaria izateko gaitasuna nola lortu zuen adieraztean, bere izendapena 1743an izan zela gogorarazten du, horretarako Batzar Nagusietan berme ekonomikoa aurkeztea nahikoa izan zuela, eta inork ez ziola bere zeregina zehaztu esanez[393]. Etxera joateko baimenak emateko ahalmenari buruz, berriz, eskatu ahala preso guztiak ziegara itzuli direla argudiatzen du.

Espetxeratuen bizibaldintzen gordintasuna ahaztu gabe, honek agerian uzten du espetxea ez zela orokorrean zigorren artean kontuan hartzen[394]. Esan bezala, espetxearen zeregina akusatua kontrolpean izatea zen, eta hori lortzeko hitza bera nahikotzat jo zuela ematen du. Era berean, espetxe eremu bezala hirigune osoa ematea oso arrunta zen.

---

[391] GAO: CO CRI 1755, 2.

[392] Esate baterako:

- Matxino moduan ibili diren hamar lagunak beren etxetara itzuli dira, Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaletara. (1754ko matxino hauei buruz gehiago jakiteko: INURRATEGI, José María: *op. cit.*
- Preso bat ihes egiten lagundu duen Jose Larrañaga, berriz, espetxetik kanpo egiten zuen lo. Dirudienez, jateko adina ez zuenez Martin Arizagaren etxean gelditzen zen.
- Bere ama kolpatu zuen Jose Osoro Sagartegieta edota apaiz bat jo zuen Juan Domingo Goikoetxea ere libre zebiltzan, azken honek herriko ostatuan lo egiten zuela.

Presoen bertsioak espetxe sistema orokor baten falta uzten du agerian. Goikoetxeak, esate baterako, alkaideak ez diola kalera ateratzea debekatu esaten du, eta deitzen badiote alkaidearen etxean gelditzeko arazorik ez du. Errartek, bestalde, baimena zuen Mirandara joateko, erosketa batzuk egiteko. Osoro ere Elgoibarrera joana zen, Zaloñaren emaztearen baimenarekin, ama eta emaztea ikustera eta dirua hartzera, espetxealdia pagatu ahal izateko. Agirianok Gatzagan zegoen, gaixotua zen bere amaginarreba ikusten, eta ia berdin gainontzeko guztiak: familia ikusteko baimena zuten.

1684. urtean, Donostian, gauza bera dokumentatu genuen lehen aipatu dugun artikuluan.

[393] Dena den, Zaloñak 30 bat urte eman zituen espetxezain eta korrejimunduko prokuratzaile gisa, bera zehartzean, lan hauek bere semeari pasatu zizkiola.

[394] Lehen esan bezala, presoek prebentibo gisa ala zigorraren zain zeuden bitartean pairatzen zutenari buruz: ZAPIRAIN, MORA: *op cit.*

Korrejidoaren ikuspuntua, ordea, oso bestelakoa da. Bere eraginez abiatutako ikerketa eta gero, Zaloñak bere kargua zin egiten behartua izango da, eta Aldundiak kargua berrestuko dio Foruekin bat eginez. Zalantzarik gabe, baina, azpimarratu behar den ekintza Canok 1756ko urtarrilean espetxeetarako ordenantzak sortu izana dugu. Bere hitzak ezin argiagoak izan: "*siendo el empleo de alcaide de las reales carceles el mas preciso para la buena administracion de justicia, de la maior confianza del tribunal, segura custodia de los reos que se entregan a su cargo y requerirse que el que lo exerce guarde y observe puntualmente lo que previenen las leies del Reyno y Fueros de esta Provincia, haviendose observado un total descuido y ninguna formalidad por falta de ordenanzas que havisen su obligacion a los alcaides, mando su merced por su auto de veinte y cinco de octubre ultimo... para que en lo subcesivo no haia la disculpa de que jamas han llegado a saver lo que previenen las leies ni se les a hecho recuerdo por el tribunal...*".

Bilduma honetan, 27 agindu zehazten dira. Espetxe zaindaria izendatzeko eskumena Probintziarena dela berresten da[395], baina zina korrejidorearen aurrean ere egingo da. Presoen gorabeherak idatziz eramatea (akusazioak, bisitak, jasotzen diren eskupekoak,..), espetxean erlijioa bermatzea (ornamentuak, garbitasuna), espetxeko segurtasuna eta garbitasuna, presoen erosotasuna eta segurtasuna (eskubideen artean: ohea, berotzeko arropa, garbitasuna, medikuaren bisita; debekuen artean: armak, ardoa eta jokoak; alkaidearen betebeharrak: duintasunez artatzea, bere kabuz ez zigortzea, prezioen zerrenda publikoa izatea, sexuen arteko banaketa), korrejidorearen aginduak azkar eta zintzo betetzea,... eta hitzez hitz familia buru baten modura jokatzeko agintzen zaio alkaideari. Azken metafora honek kontrol tradizionalaren pisua adierazten du, izan ere korrejidorea alkaidearen lana "funtzionarizatzen" saiatu arren, honen jardunaren eredua familia buru batenarekin parekatzen zuen berdin.

Baina 1711-12ko ebazpenekin gertatu bezala, neurri hauek ez zuten lortu espetxe sistema serios eta eraginkor bat martxan jarri[396]. Alderantziz, arrakasta bakarra, eta ez oso luzea, tokiko agintariena izan zen, lehen aurreratu bezala, Azkoitian emakumeentzako espetxea egokitzerakoan.

---

[395] Foruen 16. ataleko 6. izenburua.
[396] Berriro ere ikus ZAPIRAIN, MORA: *op. cit.*

Beraz, erakundeen arteko adostasun faltaren ondorioz, itxi gabe gelditzen den beste auzi baten aurrean gaude, Probintziako eskumen nagusiek eraketa politikoan eta gizarte kontrolaren esparruan bere lidergoa aldarrikatzeko eztabaidagune bat gehiago sortuz, nola egonkortzen zen aurrerago ikusiko dugun eztabaidagunea, alegia.

Hortaz, herrietatik jasotzen ziren laguntza deiak zein antzematen ziren gabeziak zirela, gehi, bestalde, korrejidorearekin sortzen ziren tirabirak zirela-eta, Erakunde Probintzialen estrategian baliabide finko sortu eta zabaltzeko beharra gero eta nabarmenago izango da. Hedapen hori Probintziako garapen politikoarekin batera eman zen, giza-diziplina foru sistemaren osagaien arteko harreman sarearekin nahastuta gelditzen zela. Are gehiago, une batzuetan eztabaidaren erdian kokatu zela uste dugu. Probintziako erakundeek bere ildo politikoa defendatze aldera, diziplina, kontrol eta zigorraren baliabideen erabilera berezia egin zuten, unean-unekoa, foru sistemaren zati baina, era berean, foru sistemaren garapena oztopatzeko gaitasuna zuen korrejidorea gailendu eta Monarkiaren ordezkariekin zuzenean topo eginez. Herritar xumeen artean tenkatu egoneza estu hartzeko beharrekin bat egingo du honek, 66ko bezalako altxamendu gehiago ez pairatzeko eta bizimodu ilustratua (ekonomikoki, sozialki) ezartze aldera.

## *IV. 1772-1808: GIZARTE KONTROL OLDARKORRAREN ZUZENDARITZA LEHIAN.*

Gizarte kontrolaren jardueran eskumen ezberdinetako erakundeen arteko elkarlana ohikoa izan bazen ere, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera adostasun falta elkarlana bezain garrantzitsua bilakatu zela ikusi dugu.

Norgehiagoka horretan Probintziako agintaritzak aurrea hartu zuela ematen du, batez ere 1766ko gertakizunen errepresioaren haritik. Matxinadaren ondorengo urteetan Lurraldeko agintariek ekimen ekonomikoak eta hezitzaileak garatzeari ekin bazioten ere, Probintziako agintaritza honek ordena publikoa arautzeko urrats sendoak eman zituen, 1766ko Batzarrek zehaztutako ildoak jarraituz, hots: zigortu eta saritu. Batzar hauetan, gainera, alferrak jazartzeko bailarako ahaldunen ardurapeko komisarioak izendatzea agindu zen[397].

Korrejidorea, beraz, antolakuntza horretatik kanpo gelditzen zen. Aldundiak zuzendutako eta ordaindutako egitasmo honetan, atxiloketak burutzeko berezko sistema bat hedatzen zen, epaitze lanekin nahasten ez zena, eta, era berean, alkateen epaitegietarako lan egin behar zuena. Proiektuaren garapenaren berririk, aldiz, ez dugu jaso. Ziur asko matxinadaren errepresioak arlo honetako grina guztiak bereganatu zituelako.

Hala eta guztiz ere, Erakunde Probintzialek ez zuten etsi Aldundia buru zuen gizarte kontrol oldarkorra garatzen.

---

[397] GAO: JD AJI 3, 1: "*Que los señores diputados de partido, cada uno en el suyo, nombren un comisario que cuide la prisión de vagos, que a estos comisarios les de la diputación título en forma, que los comisarios entreguen a la justicia mas cercana los vagos que prendan para que los castiguen con arreglo al fuero y a las reales ordenes, y que la diputación de a los comisarios la gratificación que le pareciere por cada vago.*"

## 1. 1772KO ARAUALDIA. ALDUNDIA BEHIN-BETIKOTASUNAREN BIDEAN.

Bide horretan, 1770eko Batzar Nagusiak eskaletasuna zein atzerritzarrei eskatu beharreko bizi-baldintzak arautzeko Villafrancako Kondea, Nikolas Inazio Altuna, Migel Olaso Zumalabe eta Bizente Franzisko Oro-Miota izendatu zituen lurralde osoan arau bakarra izate aldera. Plangintza honen emaitzak 1771ko ekainean aurkeztu zen, alferren eskaletasun gogaingarria galerazteko. Izenburu hori eman zioten, behintzat, txostenaren egileek aurkeztu araudiari: "*Medios de embarazar la molesta postulacion de vagos*"[398].

1768ko urrian sinatu eta korrejidoreak plazaratutako Errege Agindu batekin egon zitezkeen kontraesanak aztertzeko, Batzar Nagusiek Aldundiari igorri zioten neurri sorta hau. Alta, une horretan korrejimenduaren buru Franzisko Antonio Olabe zen, korrejidore-orde lanetan, eta egitasmo honi buruz zorion hitzak baino ez zituen esan. Izan ere, Olabek guztiz beharrezkotzat jo zituen arau hauek pobrezian izkutatzen ziren eta, ondorioz, gizartea kaltetzen zutenak antzemate aldera. Bere hitzetan, gainera, "odol garbitasuna" ez ezik, jokamolde zuzena ere gizartean onartua izateko guztiz beharrezkoa zela gelditzen da agerian. Hau da, gipuzkoartasunak ez zuen bermatzen, inolaz ere, gizartekidetza ezta gizarteratzea[399].

Orduko egoerari egokitu ahal izateko eta lurraldeko gobernu politikoaren zatitzat (*sic*) jotzen ziren arlo hauek sendotzeko, urteetan zehar Probintziak emaniko ebazpen guztiak aztertu zituela esan zuen aditu taldeak[400]. Hortaz, plangintza honi

---

[398] GAO: JD IM 1 21 21. Araudi osoa eranskinean agertzen dugu.

[399] "*mui necesarias para separar de la clase de verdaderos pobres los que podiendose mantener de algun oficio o labor se entregan a la tuna en perxuicio de la causa publica, desviar la ociosidad y holgazanería del solar de VS y conservar su población exempta de toda jente que por mancha de sange, o por la de sus costumbres desamparando su patria, solicitan acoxida en el*".

[400] "*para la observancia de sus disposiciones, en orden a Pobres Postulantes, y para el metodo que se ha de observar en la admision de los que vienen a morar a esta Provincia, hemos aplicado todo nuestro cuidado a reconocer, y observar todas las disposiciones anteriores de V.S. sobre estos gravisimos Puntos, y acomodandolos con la constitucion presente, y con lo que nos ha enseñado la experiencia de lo mucho que importa arreglar solidamente estas dos partes del govierno Politico de V.S., nos ha parecido proponer a V.S. lo que creemos necesario sobre estos asuntos, dividiendo nuestro descargo, como V.S. dividio*

dagokionez lurralde osoan zehar hedatzeko nahia azpimarratu beharreko lehendabiziko ezaugarria dela iruditzen zaigu. Bilduma honekin erreferentzi puntu sendoa eta behin-betikoa izatea dugu Batzar Nagusia gidatzen zutenen asmoa, jokamolde zehatza adierazten zuena. Era berean, lege tresna hau Probintziak garatu egitasmoa zen, kanpoko inolako esku-hartzerik gabe.

Araudiak bi eremu batzen zituela aurreratu behar dugu: batetik, gehien landuko duguna hemen, eskaleak estu hartzeko premia; bestetik, aitoren semetzarik ez zuen biztanle multzoa zerrendatzekoa.

Eskaleen afera aurreneko zazpi ataletan jorratzen da bereziki. Funtsean, eskupekoak eskatzeko baimenak biziki gutxitu zituen, bai eginkizun hauetarako onartua izateko behar ziren baldintzak murriztuz, bai eta eskatzeko egokitzen zen toki fisikoa eskalearen herrira mugatuz ere. Kanpoko pelegrinoak iristekotan, laguntzaile bat egokitzea agintzen zen[401]. Edozein kasutan ere, lana egin zezaketenek debekatua zuten eskatzea. Era berean, herritarrek eskuzabaltasunez eskaintzen zuten aterpea galarazi eta ohitura hau bertan behera uzteko agintzen zen.

Tokiko alkateei egokitu zitzaien neurri hauek gauzatzea; hala, eskale moduan ibiltzeko idatzizko baimenak eman eta iruzurrean zebiltzanak zigortu behar zituzten.

Ezin dugu ahaztu arautegi honekin berezko behartsuei, gaiztakerietan eror ez zitezen, nolabaiteko babesa ematen ziela, zortzigarren eta hamalaugarren atalen bitartean luzatzen den bigarren neurri sortarekin jende xumea jende behartsua bihur ez zedin bilatzen zen-eta. Hau da, auzokoek, eta bigarren maila batean errotutako biztanleek, profitatzen zituzten herri-baliabideak jende gehiagorekin ez partekatzeko, bertakoen giza-maila bera aitoren semetza erakustea ezinbestez eskatzen zien kanpotarrei. Sendiaren bermea, baina, ez zen aski, eta iritsi berriek norbanakoaren portaera zintzoa eta normalizatua ziurtatzen zuen agiria aurkeztu beharko zuten ere, beraien jatorrizko herriko alkateak sinatuta.

---

*nuestra comision, escusando molestar a V.S. con la cita de sus Acuerdos, y de sus Fueros, para hacer menos embarazosa a la inteligencia comun esta disposicion."*

[401] Alegia, soldadu eskaleekin, arestian ikusi dugun moduan.

Araudia konpontzeko erabilitako iturriei dagokienez, aditu talde berak Foruak eta eskarmentua aipatzen zituen. Forutik, zalantzarik gabe, onargarriak ziren pobreak eta errefusatu beharreko ibiltari, arlote eta gezurrezko pobreen gaineko definizioak hartzen ziren, 10. kapituluaren 29 eta 31. ataletan emanak[402]. Lehendabiziko multzoan gaixo, ezindu eta edadeko jendea sartzea zen; bigarrenean, "*venta al por menor*" ibiltarian eta aldi baterako langileak.

Baina adituek berek aipatutako eskarmentua ezin ekarri gabe utzi, arauak gauzatze aldera 15 eta 25. ataletan adierazten dena bereziki. Aitortu beharrean gaude xedapen batzuetan Batzar Nagusiek aldez aurretik emaniko beste agindu batzuk errepikatu baino ez zela egiten. 7. atalean luzatu agindua, alkateek baimenak eta zigorrak benetazko/gezurrezko pobreen artean ezartzekoa, adibidez, 1766ko Batzarretan emanikoa, guk gorago jasotako bera, da. Izan ere, tokiko justiziaren ardurak berriz ere 15. eta 17.ean gogoratzen dira, urtero aldatzen ziren udal karguek elkarri eguneratzeko betebeharra zutela adieraziz.

Dena den, kargu publikoen txandatzea eta ebazpenekiko zein Lurraldeko proiektuarekiko atxikimenduan tokiko agintarien artean zeuden gorabeherak medio, adituek komisarioen berragerpena eskatzen zuten, –guk uste bezala, komisarioak izendatu gabe urteak bazirela baieztatuz–, nahiz eta jazarpenerako tresna hauek Gipuzkoak antolakuntza mailan emandako aurrerapenei egokitu behar zirela zehaztu ere bai. Horrela dio hamaseigarren atalak: "*por esto tubo la provincia, en otros tiempos, comisarios, que celeban una partes de este cuidado, y haviendose derramado con el tiempo su Govierno por todo su Territorio, con el ministerio de los Diputados de partido, parece muy propio, y aun necesario, encomendar a estos Cavalleros este cuidado...*". Hortaz, Batzarrek eskualdeko ahaldunen esku uzten zuten barrutietako zaintza eta horretarako

---

402 Hauen arabera, onartzen ziren: *Todos aquellos seculares, labradores y artesanos, que por su vexez, o enfermedad, o algun otro impedimento legitimo, no pueden atarearse a oficio alguno para ganar su sustento.* Eta ez ziren onartzen: *Todos aquellos que tomando por pretesto algunas tendezuelas que traen consigo, y la venta de lo que en ellas tienen, andan vagando por todos los pueblos (así como) todos los extraños que circulan por sus pueblos con pretesto de valladores, segadores y texeros, que an sido autores de alguno robos y otros graves excesos.*

beharrezkoak ziren baliabideak indarrean jartzea, ardura hau kargudunen ohorearekin lotuz[403].

Komisarioek betebeharreko lanari dagokionez, araudia betearaztea, arau-hausleak atxilotzea eta atzerritarren inguruko ikerketak abiatzea aipatzen dira. Lan bakoitzak bere saria dirutan zuen.

Azkenik antolakuntzari dagokionez, Ahaldun Nagusia sistema honen gailurrean kokatzen zen, eskualdeko arduradunek berari eman behar zioten-eta komisarioen izendapenen berri eta xedapen guzti hauek bere ahalmenen menpean zeudela gogoratuz.

Dena den, komisiodun hauen aztarnaren berri ez da agertuko. Atal hauek aintzat hartu zuten eskualdeko ahaldunek izendatu ez zituztelako edo ordena publikoa zelatatzeko beste modu batzuk lehenestuko zituztelako.

Araudia bukatzeko, adituek azken atal bat gehitu zuten, gure ustetan berebiziko balioa duena. Izan ere, primeran laburbiltzen du agintariek XVIII. mendean zehar garatutako diskurtso ideologikoa, alferkeria gizarte gaitzik handienetarikoen mailan parekatu eta gaiztakeriaren sorburu bezala hartzen zuelako. Egoera hori zuzentzeko, ezinbestekotzat jotzen zuten lana, karitatea bere neurrian erabiliz eta pobreen beharrak asetzeko gunea sorterrietan jarriz. Era berean, portaera okerrak eta zintzotasun falta Gipuzkoa etxearen orubearentzako "odolaren zikintasuna" bezain kaltegarria agertzen dira: "*Ultimamente el medio de comunicar V.S. su celo a los Pueblos de su distrito, es instruirles de la equidad y prudencia de las disposiciones, y arreglos que adoptase, y que V.S. quiere por el primer punto: desterrar de su Territorio la ociosidad y la olgazaneria; inspirar el espiritu de industria y laboriosidad, que ha hecho la gloria de las mayores republicas del Mundo, y*

---

[403] Eskualdeko ahaldun hauen zeregina hamazortzigarren puntuan zehaztuko da: *Cada uno de los Señores Diputados que componen la Diputacion extraordinarioa tendran obligacion de nombrar en cada pueblo de los que comprehende su distrito, un comisario de toda su satisfaccion, que cele la observancia de todos y cada uno de los articulos prevenidos en las reglas precedentes... Los Diputados de Partido tendran una absoluta facultad para todo lo que se lleba dicho, y aquella misma que reside en la Junta General; pero han de mirar como tan esencial e indispensable a su honor y obligacion el celo de estos puntos, que les sea vergonzoso la omision, que no podra menos de producirles la desconfianza de la Provincia, que es el castigo mas sensible para el delicado honor de los Cavalleros de su clase*".

*que es la mas necesaria en la esterilidad del Pais; emplear provechosamente la caridad notoria y heroyca de sus hijos; estorbar que ella nutra olgazanes y mal entretenidos; y facilitar el que cada Lugar mantenga a sus pobres, sin divertir sus limosnas en los estraños. Y poner orden, en fin, en este ramo de Policia, de que vienen los mas considerables males de la republica"*[404].

Orokorrean berritasun gutxiko araudia eman arren, arlo honen gaineko kudeaketa lurralde osoan zabaltzeko asmo trinkoa azpimarratu behar dugu beste behin ere, adibidez azken adierazpen honen lehendabiziko xedapenaren ildotik. Honi lotuta, adituen hizkeran ere funtsezkoak bilakatuko diren eta berriak diren ideiak antzematen dira: politika eta polizia, hain zuzen ere. Izan ere, Probintziako agintariek lurralde mailan eraman dute antolakuntza gunea. Aipatzen duten "*Govierno politico*" eta "*ramo de policia*" esamoldeak berriak egiten zaizkigu, beren ikusmoldean agindua Etxeko kudeaketatik *Polis*aren eremura guztiz igorri dela adieraziz. Bistan dena, *polis*en irudiak ez du bat egiten hiribildu bakar batekin, hiribildu metaketarekin baizik, alegia, Probintzia mailan gorpuzten den metaketarekin. Aurrerago helduko diogu gai honi.

[404] Eta jarraitzen du: "*Que por el segundo, pretende V.S. mantener inviolable la Nobleza de su feliz territorio, no dar abrigo en el a ninguno, que, o por la mancha de su Sangre, o por la de sus costumbres, se halla tiznado, y puede ser perjudicial perpetuar en este distrito, aquella noble elevacion de pensamientos, aquella pureza de costumbres, y aquella honrradez, que ha formado el caracter de los hijos de V.S., y que los ha hecho tan estimables en todos tiempos, y en todas partes*".

**1.1 1772ko araudiaren balioa.**

Errege Kontseiluak 1772ko uztailaren 15ean eman zion bere oniritzia Batzarrek 71ko udan bildutako araudiari. Honen erabilgarritasuna frogatzeko, aldiz, aukera ugari izan ziren. Balio teorikoa ukaezina izanik, arauadiaren praktikotasuna mantentzeko ardura alkateen lana izango da, aurreko urteetan gertatu moduan. Gizartearen ordena naturala, 1766tik aurrera Probintziako patrizioek ezarritako lerroen arabera eta 72ko bilduman erakutsi bezala, tokian-tokian eraiki behar zen. Aia[405], Azkoitia, Hernani, Zumarraga[406],... araudiak eskatu bezala, auzokoak izan gabe udalerrian bizi zirenak erroldatu zituzten udalak ditugu, baina era berean, berehala salatu zen Batzar Nagusietan plangintzaren beste agindu batzuk ez zirela aintzat hartzen.

Hala ematen du aditzera 1774an Villabonako alkate Juan Inazio Orkazagirrek, Martin Jose Ateaga Asteasukoak, Migel Antonio Iriarte Belandia Urnietakoak, Sebastian Larramendi Andoaingoak, Nikolas Gorostidik eta Juan Beltran Portu Jausorok aurkeztutako salaketa[407]. Hauek, 1772an agertu zituzten kezka berak zehaztu zituzten, mende osoan zehar topatzen ari garen berberak, lanarekiko utzikerian oinarritutako gaiztakeriaren inguruan, alegia[408]:

---

[405]AYERBE IRIBAR, Rosa: "La regulación de la postulación en Gipuzkoa (1772) y su inmediata consecuencia: filiación de la población de la Universidad de Aya en 1773". *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País, XLVIII-1-2 (1992)*. 3-26.

[406] Hernaniko Udal Artxibategia (HerUA): B 4 II 1 1. Zumarragako Udal Artxibategia (ZUA): E 7 III 1027 1. Azkoitiko Udal Artxibategia (AzUA): 1773ko liburuak. Dena den, herri askok zuen ohitura hau lehendik ere.

[407] GAO: JD AM 128.

[408] Hitzez-hitz hala esan zuten: "*con el maior descaro e insufrible libertad circulan por el pais sin temor de las justicias, ya solos, ya en quadrilla, varios franceses que con titulos de segadores y azequieros se introducen en los lugares con sus guadañas armadas, habiéndose ausentado tal vez de los de su naturaleza por el temor del castigo de que se han hecho acreedores por sus delitos. uchos de estos, abandonando sus oficios, se ocupan en robos y otras maldades, siendo su principal exercicio el de el juego. Prueba de esto son los casos recientemente ocurridos en las villas de Renteria, Villabona, Lazcano, Alegria y otras republicas, y no sin grave fundamento se puede persuadir que todos o la mayor parte de los rovos tan frequentes en esta era, son cometidos por este genero de gentes. Yguales a estos son otros, que con nombre de gitanos infesta el pais, sin ocuparse en oficios, de que puedan sacar su preciso sustento. Y no resulta menor daño de los mendigos, que vagan impunemente, sin que hayan sido bastantes las providencias insertas en el ultimo reglamento* [1772koa] *para contenerlos en sus patrias...Son notorios y frequentes los delitos y se sabe por experiencia la libertad y desenvoltura de los delinquentes, siendo los mas de ellos extraños, que asociados de tal qual paisano mal inclinado, e*

- Aldi baterako lanak egitera etorritakoek, nabarmen Euskal Herri kontinentaleko gizonezkoek, lapurretak egiten zituztela.
- Sorterrian gaiztakerietan ibiliak izatea litekeena zela uste dute.
- Gipuzkoa osoan zehar lanik gabe eta ijitoen gisan jende andana zebilen.
- Eskaleak nonahi topatzen ziren, bere herrietako mugak errespetatu gabe.
- Lapurretak gehienbat kanpotarrek eginak izanagatik, bertako oker batzuen laguntzari eta eskaleek emandako informazioari esker aritzen ziren.

Alkateen gabeziak zirela medio, salaketa plazaratu zuen talde honek ordura arte emandako ebazpenak ez zituen askitzat jotzen egoera konpontzeko[409]:

- Alkateek ez zituzten gaizkileak beldurtzen.
- Ebazpenak ez zituzten betearazten.
- Ermandadeko alkateak desagertu zirenetik, alkateek azkar eta zehatz aritzeko gaitasunik ez zuten. Ez eta beren burua defendatzeko, gaizkileei oldartzeko edota ondoko eskumenak zeharkatzeko baliabiderik ere.
- Era berean, kargua berritzearekin, ikerketak eteten ziren.
- Azkenik, ikerketak burutzea kargudunen kalterako zen, beren ondasunak gobernatu gabe gelditzen baitziren.

Hortaz, plantoa egin zutenek ez zuketeen gaizki ikusiko probintzi-kargu berri bat sortzea, lurralde osoan jokatzeko, alferrak eta okerrak jazartzeko eta uxatzeko gai izango zena. Honek argi eta garbi berresten du lehen aurreratu duguna, hots: Batzarretan agindua izan arren eskualdeko ahaldunek ez zutela komisariorik izendatu: "*semejantes excesos dieron motivo en lo antiguo a la creación de los alcaldes de hermandad, por no poder acudir los ordinarios con la puntualidad y presteza que se requeria al*

---

*instruidos de los mendigos que vagan sin embarazo, cometen los mas atroces excesos con diabólica osadia..."*

409 "*...Si aquella [*1772ko arauldia*] y otras dirigidas a conservar la seguridad y quietud publica, tuviesen puntual cumplimiento, el castigo de los unos serviría para escarmiento frente de los otros. Pero siendo añales los alcaldes de VS, espiran sus empleos antes de conocer estos y otros desordenes, y pensar en el remedio, por lo que quedan impunes los delinquentes y mas ansiosos para continuar en la maldad. A que se junta que por ser los mas sugetos que se emplean en el regimen y cuidado de sus haciendas, se ven en la precision de andar solos en los montes y caminos despoblados, y no se pueden considerar seguros en sus personas si persiguen a esta perversa casta de gentes, de quienes en venganza se puede temer una traicion, por lo que se hallan destituidos de aquel espiritu y autoridad que hace respetable la justicia y temida de los malos*".

*castigo de los delitos tan frequentes por ser montuoso el pais. Y para limpiarlo en el dia de los facinerosos que turban la tranquilidad publica, no seria tal vez fuera del caso la creación de unos empleos que recaiessen en personas de integridad y celo patriótico, que cuidasen del puntual cumplimiento de las providencias de VS, conociesen de los casos de Hermandad y persiguiesen a toda gente vaga y mal entretenida, con amplia jurisdicción de conocer de sus delitos, sin menoscabo de la ordinaria que reside en los alcades, autorizando a unos y otros con las facultades necesarias para la mejor expedición en la administración de la justicias y para alejar del pais a estos hombres sospechosos en su conducta, siempre que no presenten legitimos pasaportes, con información de su buena vida y costumbres y justos motivos de abandonar su patria".*

Dena den, aditu talde hau ez da ausartzen neurri zehatzak ematen, ez baitzuten modurik aurkitzen aginduak behar bezala bideratzeko, are gutxiago ebazpenen aurkako helegiteak sortarazi gabe[410].

Hortaz, 1771-72ko analisia zuzena izan arren eta diziplinari eusteko eta egoera kontrolpean edukitzeko alkateen lana eta engaiamendua aski ez izan arren, 1766an gertatu bezala, ez du ematen orduan ere jazarpenerako komisiorik eragin zutenik. Batzar Nagusiek ere ez zuten inolako neurri berezirik bultzatu, Gipuzkoara aldi baterako lanera joan behar zutenentzat ziurtagiriak ematea Baiona eta Behenafarroako agintariei eskatzea izan ezik[411].

Garbi dago, beraz, giza-kontrolaren ekimena alkateen ardura izaten segituko zuela, eta hala gertatu zen 70eko hamarkadan zehar. 1778ko Aldundiko agirien artean,

---

410 *"Pero no son capaces los suplicantes de dictar aquellas reglas oportunas para remedido de los males que palpan y mucho menos de asegurar su puntual cumplimiento sin contravención de lo que se ordenare".*

411 Alta, Lapurdiko agintariak Gipuzkoakoek erabilitako diskurtso beraren jabe ziren: hau da, aldi baterako langile kanpotarrak eta hauen noraezeko ibilerak gaiztakeriaren oinak zirela. Hala ikus daiteke Amouko Markesak Lapurdiko sindikoari 1777an igorritako eskutitz batean, "*sur les mendiants étrangers, errans et vagabons*" lelopean. Honek, lan egiteko zein salerosketa txikiak egiteko aitzakiarekin atzerritar ugari Lapurdira iritsi eta gaiztakeriak egiten zituztela adierazten du. Are gehiago, Lapurdin eta Gipuzkoan halako zirkuitu bat ezarrita zegoela dio eta harat-honat zebiltzatenak gehiegikerien arduradunak zirela. Ustaritzeko Udal Artxibategia (UUA): CC1. Manex GOIENETXEk ematen du honen berri, baita eskutitzaren zati esanguratsuena jaso ere: *Histoire Générale du Pays Basque. III. Donostia: Elkarlanean, 2001.* 145. or., 213. oharra.

lapurrak auziperatzeko alkateek eginiko lana ikus daiteke, ohi zen bezala, erakunde probintzialak gastuak bereganatuko zituztelakoan.

Nahiz eta erakunde probintzialaren deskribapenetan osperik txarrena kanpotarrek jaso –eta urte hauetako lapur talderik ospetsuena Aramaioko Murua anaiak buru zituena zela zirudien arren[412]– auziperatuen artean nekez topatuko ditugu atzerritar –edo hala ematen zuen– gizasemerik[413].

Dena den, lapurreta eta bizimodu onartezinen kopuruak berriz gora egin zuela ematen du, urte bereko abenduaren 27an Aldundiak herri guztiei igorri zien zirkularraren arabera behintzat. Honen bidez, zigorra eta laguntzaren arteko oreka bermatzen zuen 1772ko araudia gordetzeko eskatzen zen bitartean, tokiko eskumenak gainditu ahal izateko urrats zehatz eta praktikoak ematea agintzen zen. Honek gaizkileen jazarpena erraztuko zuen, lan hori alkateen eskutan utziz: "*siendo tan frecuentes los insultos y robos que de algun tiempo a estar parte se cometen en los caminos y despoblados de mi territorio, y tan conveniente poner freno a estos delitos castigando a los salteadores y malhechores con la brevedad y el rigor que corresponde, se me hace preciso excitar el zelo de VM a fin de que acuerde las providencias mas oportunas y eficaces para perseguir y prender tan perjudicial gente, dándose avisos reservados unas justicias a otras para las salidas a horas y parages determinados...Sera para mi de particular estimación y merito la aplicación del señor alcalde de VM al importante objeto de restablecer el respeto de la justicia y la seguridad publica, sin que en punto de vagos, ociosos y mendigos se pierdan de vista las reglas de*

---

[412] Talde hau 1776an agertuko da Gipuzkoan. Muruatar bilatuena "Bizi-bizi" zuen goitizena, Iruñeko presondegitik ihesi zebilena eta anaiarekin izena trukatzen zuena justizia tronpatu eta heriotza ekiditeko. Izan ere, heriotza-zigorra eskatu zitzaion, 1734ko ebazpenaren ildotik beste behin ere. Azkenik, Remijio Murua eta Marin Ariztegi laguna 10 urtez Iruñera eta Martin Murua Ferrolera 6 urtez izango dira bidaliak. GAO: CO CRI 1776-3.

[413] GAO: JD CO 36. 78ko azaroan eta abenduan, adibidez:

- Donostiak bi lapurrak auziperatu izana ordaintzea eskatu zuen: Melillara zigortua izan den Inazio Muñoa, eta Manuel Peraltaren aurkakoa.
- Getariak Zarauzko alkatearen laguntzaz Meagasen atxilotutako 5 gizon armatu Korrejidorearen esku utzi nahi zituen. Aldundiak hitzartu du afera.
- Segurakoak Manuel Agirre auziperatu eta 6 urtez Donostiako presondegira bidali du, lapurra eta alferra izateagatik eta aurreneko epai bat ez betetzeagatik.
- Bergarakoak Saturnina Otero auziperatu du, lapurreta txikiagatik.
- Azkoitiak, Juan Antonio Ugartemendia abere-lapurra.

*postulantes confirmadas por el consejo. Y por tanto espero toda la actividad posible y que me avise VM el recibo de esta carta*".

Ordena publikoa mantentzeko unean, korrejimenduaren esku-hartzea mugatzea alkateen lanari esker eta, era berean, tokiko eskumenak gainditzea ditugu Aldundiak 80ko hamarkadan zehar jorratutako estrategiak. Horri eusteko erabilitako aginduen arrastoa ugaria da gure artxibategian, bospasei urtez luzatu zirenak 78ko aginduarekin irekitako zikloari lotuak.

Alde batetik, alkateek beren mugak gainditu eta ondoko eskumenean sartu ahal izateko ebazpen eta aginduak izango genituzke. Hauen artean, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- 1782an Valladoliden "gobernu onerako" emaniko erabakia, tokiko eskumenak gainditzeko ahalmena berresten zuena, jakinarazi zuen Aldundiak, hau oztopatzea edo ez laguntzea delitu bezala hartuko zela ohartarazi zien kargudun guztiei: "*Siendo tan frecuentes los robos y latrocinios que se han cometido estos ultimos años en varios paises del territorio y jurisdicción de esta chancillería, así en los caminos publicos como en los mismos pueblos y casas de sus vecinos, sin perdonar las de los curas parrocos y lo que es mas, ni el sagrado de los templos, se hace preciso no omitir diligencia ni prevención que pueda contribuir a exterminar este jente malhechora, que tanto inquieta, y perturba la tranquilidad publica. A este fin, considerando, que uno de los medios mas oportunos para su aprension y severo castigo puede ser libertar a las justicias de las villas y pueblos cortos de la necesidad de conservar en sus carceles poco, o nada seguras, los que prendan por ladrones y salteadores de caminos y casas, como tambien de actuar y substanciar sus causas, por la poca proporcion que para ello tienen...y para que mas bien y sin embarazo alguno puedan continuar las diligencias de prisión y averiguación de sus estancias y excesos, se les concede facultad de extralimitar y pasar de una jurisdicion a otra, auxiliándose las justicias mutuamente en sus oficios...*"[414].

[414] Tolosako Udal Artxibategia (TUA): E 6 III 1 1.

- 1783ko urtarrilean, 78an emaniko ebazpenaren zuzentasuna eta eraginkortasuna azpimarratu zuen Aldundiak, agertu berriak ziren lapur taldeak atzemateko tokiko justizien parte-hartze funtsezkoa aldarrikatuz eta aipatutako ebazpenaren zatiak agindu berrian txertatuz: "*aunque causaron faborables efectos las prisiones y castigos de ladrones y malhechores hechas el año de 1779, a consecuencia de oficio circular mio de 27 de diciembre de 1778, mediante la aplicación y buenas diligencias de las justicias de mis pueblos, ha cundido la misma plaga en el pais de algun tiempo a esta parte, pues han sido salteados diferentes caminantes*"[415].
- Eta agindu berria errepikatu zuen 1784ko martxoan: "*para prender a tan perniciosa gente para que con su castigo se logre la publica seguridad sin que haya reparo en pasar recíprocamente de una jurisdicción a otra en seguimiento de salteadores mediante una reciente real orden, y componer un solo cuerpo de hermandad mis republicas*"[416].

Aldiz, Probintzia ez zen muga-gainditze hau Lurraldeen arteko mailara igotzeko prest agertu, nahiz eta 1780an horretarako proposamen formal bat jaso. Proposamen hau Bizkaian zuen sorburu, Korrejidorearen bidez helarazi zena. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko mugetan kokatu eta gaizkileak atzemateko tokiko justizien laguntza arituko zen mendiko soldadu-konpainia bat sortzea dugu proposamen honen mamia[417]. Batzar Nagusiek ideia ontzat jo arren, diruzaintzaren kaudamen falta zela-eta, bestelako bideak erabiltzea adostu zuen, alkateek beharrezkoa izan zezaketen

---

[415] HUA: A 15 1 2: "*en Urnieta se ha visto una quadrilla de once ladrones con indicios de querer robar las alajas de su iglesia; en Oyarzun estan arrestados dos mozos desconocidos y de mala traza. Y finalmente se ha dilatado bastante el temor y los embarazos del comercio. Urgen, por los mismo, las providencias de VM para el remedio de tan grave daño, y no puede menos de encargarla que se sirva acordarlas efectivamente y ponerlas en ejecución por medio de su justicia ordinaria procurando darse avisos reservados unas a otras para las salidas a horas y parajes determinados. En esta importante materia espero todas las atenciones y desvelos de VM, con aviso de las resultas y renuebo a su disposición mi buen afecto*"

[416] *Berdin*. Agindu hau tokiko kutsua izan arren.

[417] GAO: JD IM 3 11 19. Baita ere *Registro de Juntas Generales... 1780*: "*Enterada tambien del oficio que se paso al Señor Corregidor de esta Provincia por el Mui Noble Señorio de Vizcaya con fecha de veinte y siete de mayo ultimo, proponiendo el establecimiento de una compañía de soldados de montaña con destino a aprehension de ladrones y gente mal entretenida con cabo que la gobierne, ocurriéndose a este gasto por iguales partes de los fondos de las tres provincias esentas, para que se halle pronta dicha compañía por partidas en los confines de cada una de ellas y acuda a donde fuere llamada de las justicias...*".

laguntzarako militarrak ala "*alcalde de sacas*" delakoaren aguazilak urgazle moduan ibiltzea, hain zuzen ere. Betiere, bistan denez, alkateen nagusitasuna azpimarratuz[418].

Gure ustez, eta Batzarrek aitortu bezala, arazo ekonomikoaz gain bestelako zioak ere bilatu daitezke ezezko honen azpian. Alde batetik, mende osoan zehar Probintzia ez da inoiz iraunkortasunaren alde agertu eta beti lehenetsi izan du gastuak ekiditeko bere eragileak unean-uneko beharren arabera astintzea. Beste aldetik, ekimen hau korrejidorearengan protagonismo gehiegi jarriko zuela ematen du, kontutan harturik, gainera, sasoi berean bi erakundeak lehen auzialdiaren inguruko helegitean murgildurik zeudela[419].

Azkenik, Probintzia jazarpenaren tresna ohiko gunetik arlo profesional eta berezitura pasatzeko prest ez zegoela esan dezakegu. Lan hori alkateen ardura izaten jarraitu beharko zuen. Hala azpimarratzen zen ere aipatu berri dugun erantzunean, horretarako, 1772ko araudiaren berrespena behin baino gehiagotan eman baitzen. Berrespen hauek arazo zehatzak argitze aldera kausitzen ziren[420], baina baita modu orokor batean ere, gutxienez, hurrengo 70 bat urtetan zehar[421].

---

[418] "*Acordo la junta que para que el Señor Corregidor pueda contestar al del Señorio se le manifiesten las dificultades que por el atraso de la tesoreria de la Provincia se experimentan en la practica de tan util proyecto, debiendo suponerse considerable el dispendio que causaria la dotación de la expresada compañía. Por cuya razon y por otros justos reparos arduos de superarse, deja la junta cometido a la Diputación los oportunos expedientes, con deseo de que llene los loables objetos que se propone el Señor Corregidor de Bilbao por medios menos costosos, y entre ellos el de recurrir al auxilio de la tropa de la guarnicion de San Sebastián para las temporadas en que injurien al pais gentes tan perniciosas, valiéndose en defecto de algunos guardas del juzgado de sacas, subordinados a un cabo de las calidades correspondientes, y extendiendo estos mismo medios al cuidado de perseguir destores y contrabandistas...con la prevención de que deberan entregar siepre los desertores a su respectivos cuerpos y los contrabandistas y malhechores a las justicias ordinarias en cuyos territorios fueren aprehendidos o a las personas delegadas por la provincia...*".

[419] Eta korrejimenduaren egoitza finkatzeko eztabaidan ere bai. Lehendabiziko instantzia eskuratzeko Alkatearen eta Korrejimenduaren arteko lehia GAO: JD IM 3 9 47 agirian ikus daiteke, 1785-87 bitartean, Getariako alkateak lapur talde baten aurka abiatutako auzi baten haritik. Dena den, egoera berezia gertatu zen auzi honen garapenean: lehia gerora sortu zen Hernaniko alkatearen eta Korrejidorearen artean, baina auziperatuen artean Hernaniko alkatearen gertukoak zeudenez, Aldundiak Foruak baimentzen zituen salbuespenak erabiliko ditu korrejidorearen esku-hartzea lehenesteko.

[420] GAO: JD IM 3 14 44. 1776an, Debako alkateordeak Azpeitiko Jose Antonio Juanperezena eskalea gezurrezko pobrea zela erabakitze aldera Presondegian 8 urteko zigorra beteta zuen, 10 urte lehenago izandako iskanbila batengatik. Ejerzitoan zerbitzatzeko oso jota zegoenez, Erruki Etxera lanera bidali zuten. Udal agirietan planaren erabileraren inguruko testigantza gehiago agertzen dira, jakina.

GAO: JD IM 1 21 23 eta JD AJI 3, 5. 1778an. Maria Josefa Goikoetxandia txiroaren zama hartzeko Tolosak eta Lizartzak elkarrekin zituzten tirabirak argitzeko. Oro-Miotak berak,

XIX. mendearen erdialdera arte –gure ikerketa-denboratik kanpo, beraz eramango gintuzketen adibide hauek, alkateen lana eta gertuko komunitatearen babesaren indarra denboran zehar luzez iraunarazteko nahia erakusten digute. Jakinda ere, 72ko aginduak ez zirela, inolaz ere, etengabe pobretzen ari zen gizarte-multzoa artatzeko gai. Alderantziz: aginduen errepikapenak gaizkileak ugaltzea adieraziko luke.

Hori dela eta, arau honen eraginkortasuna epe motzean antzeman zitekeela uste dugu, betiere alkateen grinari lotuta. Eraginkortasuna, gainera, atxiloketak zenbatuz edo zigorrak deskribatuz neurtuko beharko genuke, ez baitziren gizarteak erroan zituen arazoak konpontzeko diseinatutako arauak, arazoen ondorioak ezabatzekoak baizik. Modu gordinean esatea onartzen bazaigu, gizartearen zutabeetako pipiak aireratu orduko ehizatzen baziren ere, egurraren usteldura sendatzeko ez zuten balio. Horregatik, 1772ko bilduma behin eta berriz berresten zen, Gipuzkoako egituratik kanpo zebiltzanak agertu orduko hauek desagertaratzeko gaitasun praktikoa eta gaurkotasun teorikoa baitzuten osotasunean betez gero.

Gainera, Aldundia-Alkateen arteko harreman zuzena sustatzerakoan, sistema propio eta itxi horretan gauzatzen ziren ekimenak giza-kontrol abegikorraren (eskatzeko baimenak eman) ala gizarte-kontrol oldarkorraren (komunitatetik kanpo zigortzeko beharrezkoak ziren atxiloketak eta epaiketak burutu) barne izanda ere,

---

Aldundiaren aholkulari gisa, hartu zuen erabakia, 71ko arauen arabera. Tolosari egotzi zion emakume txiro honen ardura.
1800ko Batzarretan. Eskale baten inguruan Hondarribiaren eta Zizurkilen artean izandako gastuak kitatzeko.

[421] Adibidez:

- 1796ko Batzarretan. Aldundiak 1772ko plangintza alkateek bete zezaten bermatu behar du. Alkateei utzikeria leporatu ahal zitzaien. Elizetan Batzarretako ebazpenak irakurri behar ziren.
- 1817ko Batzarrek eskaletasunaren inguruan agindutako ikerketan, Villafuertes Kondeak eta Manuel Aranbarrik 1772ko plangintza hartu zuten oinarri. Eskaleak lanaren bidez produktiboak bilakatzeko helburuarekin. GAO: JD AJI 8, 2.
- 1833an Tolosako alkate Pablo Gorosabelek Andoainera bidali zuen bertako eskale bat, 1772ko araudia segituz. Andoaingo alkateak erantzun zuen bere herrian ezinezkoa zela eskupekoak lortzea eta berak ez ziola debekatuko kanpoan eskatzea, bestela hilko baitzen. GAO: JD IM 1 21 31.
- 1841ean, Batzarretan Irungo ordezkaria zenak 1772ko araudia inprimatzea eta banatzea eskatu zuen. Nahiz eta bere erangikortasuna zalantzazkoa izan. GAO: JD AJI 11, 4

66ko krisialdiaren ondoren Probintziaren babespean tokiko erakundeei zerien agintea guztiz indartuta agertzen zen.

Jokamolde honekin, Probintziak ordena publikoa bere eremu politikoaren barruan menderatzea, bere gobernuaren barruan izatea, ziurtatzen zuen. Diziplina ezartzeko eta zigorrak bideratzeko kanpoko eragileekiko lehia –korrejidorearekikoa, militarrekikoa– irabazi duela ematen du. Gorago ikusi bezala gizartea batua eta orekatua mantentzeko baliabideak diziplinari eta bake sozialari gero eta zailtasun gehiago adierazi arren, Probintziak ez du molde hertsatzaile autonomorik, gizarte-gorputzetik zatitua, sortu. Oraindik gizartea osatzen duten aleak mendean hartzeko bitartekariak gizarte beretik lortzen ditu, gizartearen parte eta buru direnen bitartez.

Alkateei lan betearazlea egotzi arren, epe luzerako jarduera arautu honek ekimenen zilegitasuna gertuko agintaritzatik aldentzen hasia zela erakusten du ere bai, botere eta erabaki gunea Lurraldera igarotu eta egonkortzen ari dela adieraziz. Etxea ez ezik, Gipuzkoa *Polis* ere bilakatu dela ematen zaigu aditzera tresna hauen bidez, ekonomia hutsa gainditu eta politiko-ekonomikoa bihurtuz gobernua. Gisa honetako xedapenen balioa ez da soilik teoriko-praktikoa, politikoa baizik, hitzaren esanahi garaikide guztiarekin. Izan ere, politika edo polizia "hiria"ren gobernua dugu, etxeen kudeaketa gainditzen duena eta gizartearen zuzendaritza esku berezituengana uzten duena. Ez bakarrik ordena publikoari, baizik eta bizitza arlo guztiei begira. Dena den, "polizia"ren hitzaren esanahiak pairatutako murrizketak eta funtzio administratibo zehatz bati itsatsia gelditu izanak kudeaketa honen bilakaeraren berri ematen duela pentsatzen dugu.

XVIII. mendeko pentsalari eta teorikoek idatzitakoak ere hau guztia berresten du. Borboi Etxeko Monarkian Tomás Valeriola dugu, behar bada, idazlerik aipatuena; haren hitzak arras argiak dira: "*policía es la ciencia de gobernar los hombres, contribuyendo a sus prosperidades, y el arte de llenarles de felicidades, en cuanto es posible, y deben serlo según el interés general de la sociedad. Considerada en sus operaciones ordinarias, consiste en mantener el orden, vigilar sobre las necesidades comunes de los ciudadanos, dar providencias para impedir quanto puede turbar la paz y tranquilidad que deben gozar, prescribirles las reglas*

*que deben seguir, observar a los que por su conducta u olvido de sus obligaciones pueden perjudicar a los otros; detener, corregir y reprimir los abusos y desordenes, precaver los delitos, no omitir diligencia para que los delincuentes no escapen al castigo que se merecen, separar de la sociedad a los que pueden causar daño, hacer a todos sin distinción de empleo, estado y fortuna la más exacta y pronta justicia y concederles los auxilios, proteccion y alivios que necesiten y que es posible facilitarles...El magistrado de policia no es un juez, sino un amigo de, un protector de los ciudadanos. La ciudad exige de él los mismos cuidados y sentimientos que un padre debe a sus hijos...*"[422].

Seme-alaben eta gurasoen arteko gobernu-harremana ez da jada tokiko eremuan izaten, behintzat ez hor bakarrik, lurralde mailan baizik. Honek, noski, ez du esan nahi familia-interesak desagertuko direnik, aginte espezializatu hori bereganatzen dutenak sendi ahaltsuenetako ordezkariak izango direlako nagusiki.

Gipuzkoako agintariek ideia hauek ezagutzeko bidelagun ezin hobea izan zuten, Valentin Foronda arabarra honen erakuslerik nabarmena dugu-eta gurean. Poliziaren gaia, 1793-1800 bitartean jorratu zuen eta bere lehendabiziko idazkia 1793ko ekainaren 31n Bergaran sinatu zuen[423]. Poliziaren barruan segurtasuna nola jorratu

---

[422] VALERIOLA, Tomás: *Idea general de la policía o Tratado de policía (1798).* Madrid: Instituto de Estudios Administrativos, 1977. Valeriolaren aurretik Nicolas DELAMARE edo BIELFIED eta J.H.G. VON JUSTIren lanak ditugu. Hauei buruz eta Poliziaren bidezko kudeaketari ezinbestekoak dira: Pedro FRAILE: *La otra ciudad del rey: ciencia de policía y organización urbana en España.* Madrid: Celeste, 1997. Paolo NAPOLI: *Naissance de la police moderne.* Paris: La découverte, 2003.

[423] Balizko Printze bati igorritako aholku gisara igorritako eskutitzen bidez landu zuen gaia. Jorratu zituen gaiak honako hauek dira: osasuna, hornikuntza, kaleak-pasealekuak-kafetegiak, pertsonen eta ondasunen ziurtasuna, nekazaritza-industria-merkataritza, berdintasuna, eta heziketa. Honen guztiaren helburua 1820. urteko edizioan zehaztu zuen: "*No basta para labrar la felicidad de los habitantes de un pais, edificar una constitucion sabia, sobre los solidos fundamentos de la propiedad, seguridad, libertad ordenada, e igualmente delante de la ley; niel ser gobernados por los corolarios, que se deducen de unos principos tan respetables. Sino que es preciso también extender en cuanto sea posible, la periferia de las comodidades y de los goces licitos entre todos los coasocioados del pacto constitucional. Esto es: los ciudadanos, para cuya verificación se requiere el establecimiento de una buena policia.*"

FORONDA, Valentin Tadeo de: *Cartas sobre la policía (1801. 2. argitalpena 1820).* Gasteiz: Ararteko, 1998.

Baita ere: *Cartas sobre los asuntos más exquisitos de la economía política y sobre las leyes criminales (1788-90. 3. argitalpena 1821).* Gasteiz: [Gobierno Vasco], Departamento de economía y hacienda, 1994.

behar den zehazterakoan, Forondak bi jokamolde ezberdintzen ditu. Lehenengoan, gobernuaren ardurarik nagusiena heziketa eta lanen sustapenaren bidez delituak aldez aurretik ekiditea dela argudiatzen du. Bigarrenean, delitugileak nola zigortu eta indargetu behar diren ematen du aditzera: "*La policía debe aplicar el mayor conato en exterminar a los ladrones que infestan los caminos y lugares; lo que se consigue cuidando de saber qué género de personas viven en los pueblos y de qué viven, atisbando la conducta de aquellos que comen y beben bien; que están bien alojados; que visten con lucimiento; que se divierten sin conocerse la mina de donde sale el dinero que alimenta semejante boato; estableciendo tropas de caballería que corran los caminos bajo las órdenes de jefes activos y de una probidad reconocidad, y castigando prontamente los criminiales que coge...Como un gobierno ilustrado debe cuidadr más de evitar los delitos que de castigarlos, y que es causa frecuetne la indigencia y la mala educación, es preciso cuidar de que a nadie le galten ocupaciones, fomentando las artes y talleres públicos y velando en inspirar buenas máximas al pueblo*". Lapurrak deusezteko ardura "Polizia"ren arduren artean dago, hau da: administrazioaren arduren artean. Izan ere, ospe handiko, tradiziozko beraz, buruzagien zuzendaritzapean aritu behar den indar armatu zehatz hori poliziaren tresna da, eta ez polizia bera, lehen esandakoaren ildotik. Honekin batera, Forondak jazarpenerako proposatzen dituen tresnen artean salatari damutuei askatasuna eskaintzea eta, batez ere, edozeinek burututa ere, atxiloketak dirutan saritzea ditugu. Azken hau beste lurralde batzuetan (Ingalaterran eta EEBBetan) ohikoa eta arrakastatsua dela zehaztuko du bere eskutitzen bigarren argitalpenean. Era berean, espetxe orokorren, asaltoen aurka babestuen eta osasuntsuen alde agertuko da. Dena

---

Era berean, 1778-80 bitartean berebiziko lana egin zuen hala abegikortasunaren inguruan nola Gasteizko Erruki Etxearen nondik-norakoak zehazteko, RSBAP-en aktetan jaso bezala:
--- (itzultzailea eta hitzaurrea): *Tercer informe de los comisionados a quienes encargó la Academia de Ciencias de Paris el examen de los proyectos relativos al establecimiento de quatro hospitales (1786) [Jatorrizkoa, aipatu Akademiaren 1786ko urtekarian]. Resumen de una obra sobre hospitales... con un proyecto de un Hospital [1777an LE ROYk irakurria] [Akademiaren 1787ko urtekarian argitaratuta].* Madrid: Imprenta de Manuel González, 1793.
--- (sinatu gabe bada ere): "[Casa de Misericordia de Vitoria]". *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.(1778, 1779, 1780)* Imprenta de la RSBAP, 1778-1780. 126-132, 42-49, 50-96.
--- (berari egozten diogu ere bai): "Comunidad de señoritas". Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. (1781). Imprenta de la RSBAP, 1781. 20-30.

den, zigorrak ezartzea gizateriak tamalez pairatu behar den zerbait dela zehaztuko du eta errugabetasuna arretaz zaindu behar dela gehituko du[424].

Edozein modutan ere, Gipuzkoako agintariek hizkera eta ideia berrien jabe zirela argi eta garbi ikusi dugu, 1772ko egitasmoa aurkezterakoan jorratu nahi zituzten bi gaiak gobernu politikoaren zatiak zirela hitzez hitz esan zuten eta.

Probintziak gobernu politiko-ekonomikoa garatu eta lurralderatzen duen bitartean, aldiz, Monarkiaren antolakuntzan ere aldaketak izaten ari dira, ildo bera jarraitzen dutenak, alegia. Alta, Gipuzkoako bilakaerak barne-batasuna trinkotu arren, ez du Erresumarekiko harremanetan aldaketarik bilatzen, hau da, botere nagusi bezala hartu arren ez du Monarkia botere zentrala bezala ikusten, zentralitatea bere baitan, Probintzian, dagoelako. Monarkiaren erreformatzaileek Gipuzkoak egindako mugimendu bera egitean, ordea, zentralitatea Errege Kontseiluetan finkatzen saiatuko dira.

Honek bi gune politiko hauek elkarrekin talka egitera eramango duela pentsarazten digu.

[424] FORONDA, Valentin Tadeo de: *Cartas sobre la policía. Op. cit.*

**1.2 Erresumaren oldarraldia.**

Horregatik, Erresumaren ordezkariek zein erakundeek Probintziaren eremuan ordena publikoari lotutako inolako ekimen garatu gabe gelditu zirela pentsatzea okerra litzateke. Alkateek ematen zituzten epaiak, adibidez, Valladoliden berrestu behar ziren, auzitegi honek, ia beti, alkateek emandako epaiak zertxobait biguntzen zituelarik. Joera hau, 1766ko matxinoekin ere gertatu zen, eta Probintziako agintariek ez zuten horrelako zigor murrizketak oso begi onez ikusten. 1784an Donostiako alkate Ansorena-Garaioak adierazi bezala, alkateen gaitasuna eta nagusitasuna kolokan uzten zen modu horretan, auzietan gastatutako dirua alferrik xahutzen baitzen[425]. Ansorenaren hitzak balio handikoak dira, ez bakarrik Donostiako alkatea zelako. Izan ere, gorago aurreratu bezala, 1784an bertan Gipuzkoako alkateek lehendabiziko instantziak epaitzeko zuten gaitasunaren defentsa egiteko aukeretakoen artean Ansorena bera aurkitzen dugu[426].

Horrela, eta Erresumako erakundeek emandako urratsei erreparatuz gero, 1784ko urtea bidegurutze baten adierazletzat har dezakegula iruditzen zaigu. Prozedura kriminalean ezarritako baldintzak osatzeko, edo behintzat bere prozeduraren nagusitasuna ezartzearekin batera, Gaztelako Kontseiluak lapurren aurkako lurraldearen defentsa militarren esku utzi zuten. Horretarako, Erresuma osorako zen agindu bat Gipuzkoan ezartzen da ere bai, gotortuak zeuden militarrak lurralde osoan hedatzeko gaitasuna emanez.

Ebazpen edo instrukzio hau 1784ko ekainean sinatu zen. Horretarako, Gausako Kontearen[427] ekimenez Probintziako Komandante Nagusi Autresalle Bizkondeak Aldundiari uztailean igorria zuen[428]. Funtsean, gaizkile, kontrabandista zein bidelapurrak atxilotzea Probintzietako Kapitain edo Komandante Nagusien zeregina

---

[425] *Registro Juntas...1784...:* "produce perjudiciales consecuencias, desaires y desprecio de la real vara de justicia".

[426] 1765-66an auzi kriminalen prozedura berri eta azkar bati ekiteko Oro Miotak eta Alzolarasek proposatukoaren aurka Kontseiluan nagusitzen ari zen jarrera zela eta. 66ko prozedura 1782an izan zen egokitua, 83ko Batzar Nagusien oniritziarekin. GAO: JD IM 3 11 20.

[427] Migel Muskiz Goienetxe naparra. Ogasun ministerioan erreforma ugari bultzatu zuena.

[428] TUA: E 6 III 1 2: "*Instrucción que el rey ha mandado expedir para la persecución de malhechores y contravandistas en todo el reyno*".

dela baieztatzen da bertan, eginkizun honek erabateko lehentasuna zuela eta horretarako behar zen soldadu kopurua egokitzeko aginduz. Era berean, alkateek tropa hau lagundu behar zutela eta inork armekin aurre egitekotan heriotz zigorra ezarriko zitzaiola azpimarratzen zen.

Aldundiak berak instrukzio honen 55 kopia gehiago eskuratu zituen, abuztuan herrietara bidali zituenak. Honen ondorioz, ondoko lurraldeekiko mugakideak eta Errege Bide berrian nagusi ziren herrietan tropa zabalduko da gaizkileak atzemateko: "*para perseguir a viva fuerza los malhechores y contravandista que infestan al reyno…expresando que el Excelentisimo Señor Conde de Gausa le previene que el rey apreziara como uno de los mas servicios utiles a la Monarchia cualquier extraordinario esfuerzo qque notare en el desempo de esta comision…y que mirara con sumo desagrado cualquier omision flojedad o indiferencia… y en cumplimiento de el envía seis partidas de tropa con oficiales a los pueblos de Irun, Oyarzun, Tolosa, Villafranca, Vergara y Mondragon, como fronteras de Francia, Navarra y Castilla. A cuyo fin espera se prevenga lo conveniente a las justicias de los pueblos…y al alcalde de sacas, a fin de que a mas del alojamiento de la tropa de los auxilios y noticias correspondientes a las aprensiones de iguales delincuentes a dichos oficiales…que cumplan la publicación de vando u fijación de carteles en los parages mas frecuentados*"[429].

Militarren hedapen berezi honek tropa nagusien joan-etorriekin egingo du bat, gainera, eta izugarrizko kezka piztuko du sei herri horietan. Ondorioz, kaltetuek zehaztapen gehiago eskatuko dituzte, derrigorrez eman beharreko laguntzaren nondik-norakoak finkatze aldera. Hasiera batean, herriek plazaratutako eskaerek soldaduek sortzen zizkieten zama ekonomikoen aldetik datoz, baina soldaduen jarduera gehiegikeritzat jotzen dituzten adierazpenak agertuko dira berehala. Aldundia, jakina, herriekin lerrokatuko da, 1784ko urrian eta azaroan eskutitz luze batzuk kaleratuz, besteak beste Lapurdi eta Gipuzkoaren arteko mugan kontrabandoan eta baimenik gabeko txanponen zirkulazioa zaintzea "*alcalde de sacas*" delakoaren erabateko ardura zela gogorarazteko. Era berean, galdetu zaizkion xedapenen ildotik, militarrak gaizkileak jazartzeko gaitzen zituen instrukzioa

[429] GAO: JD AM 138. Eta ondorioz sortuko den korrespondentzia GAO JD CO 42, besteak beste.

betetzeko agintzen zaie herriei, baina beti haiei dagokien lehen auzialdiari eutsi beharko diotela azpimarratuz.

Egoera ez da baretuko hurrengo urteetan, eta arrangurek eta eskaerek Konbentzioko gerra arte iraungo dute[430]. Egurra, ikatza, olioa, ohe garbiketa ditugu, nagusiki, herriek bere gain hartu eta gainzama bilakatzen ziren gastuak. Baina, behar bada, kexarik nagusiena Arrasaterena da, troparen egoitzarako etxerik ez zuenez eraikin bat alokatu egin behar zuen eta. 1785ean herri honetan zeuden soldaduak 33 ziren: teniente, sargento eta danbolin bana gehi hiru kabo eta hogeita zazpi soldadu. Halere, Batzarrek eskainiko dioten laguntza bakarra bere kezka Errege Ogasunaren eta Zaragozan dagoen Armadaren Intendentzia Nagusiaren aurrean eramatea da.

Bestalde, soldaduen ekintzak ere oso zalantzazkoak iruditu zitzaizkien alkateei. Izan ere, ekintza hauen artean alkateen baimenik eta lekukotasunik gabe gauzatzen ziren etxe miaketak agertzen dira eta, kontrabandoaren jazarpenaren aitzakiarekin, baita merkatariek soinean eramaten zituzten diru kopuruak bahitzea ere. Honekin batera, beti kontrabandoaren aurka, Kontrabandorako Epaiaren zein Tolosako aduanako zaindarien ekintza armatuak gero eta ugariagoak bilakatzen dira lurralde osoan zehar, nahiz eta azken hauen funtsezko lana, esate baterako, Nafarroarantz ateratzen ziren gaien gaineko zergak kobratzea baino ez izan[431].

84ko instrukzioa hedatzeko argudioetan gaizkileak ezabatzea azpimarratzen baldin bazen ere, urteak aurrera joan ahala Gipuzkoako merkatal tratuak militarren helburua bilakatu zirela erakusten digu honek. Aldundiak bere gain hartutako auzi kriminalen gastuak errepasatu ondoren ere, lapurreta handia edo bide lapurren arrastoaren berri ez da agertzen.

Hortaz, jurisprudentzia eta aurretiez lagunduta behin eta berriz bidaliko ditu Aldundiak bere idatzizko gogoetak Gorteetako erakundeetara, batez ere Lereña eta

---

[430] Ikus GAO: JD AM 139-145 bitarteko sortak. Bertan Batzarren eta Aldundiaren aktak biltzen dira.

[431] 1788an, adibidez, hiru kontrabandista hil eta gorpuak bide bazterretan utzi zituzten. Eramaten zuten mandoaz, berriz, arduratu ziren.

Valdes Ogasun eta Marina arduradunei. Erantzunek –batez ere, Lereñarenak– agerian uzten dute Erresuma antolatzeko oso bestelako proiektuak bideratzen ari zirela. Aldundiak bere egitasmoa (1772ko plana adibidez) bere barrutian eta bere baliabideekin betetzeko zehaztu zuen moduan, Erresumako idazkariek ere monarkia bateratu eta berdindu baten alde egiten dute, bitarteko kidego politikoak aintzat hartu gabe.

Gure iritzi apalean, bi proiektu politiko ezberdin eta kontrajarri hauek sortzen zuten ezinegonak Gipuzkoak Frantziako Errepublikara pasatzeko hartu zuen erabakian uste baino askoz gehiago eragin zuen. Era berean, Konbentzioko gerrak antolaketa politikoa hankaz gora jartzerakoan eten bat ekarri zion Probintziaren eta Erresumaren artean mamitzen ari zen gatazkari. Gainera, pentsatzekoa da sortutako kalte eta gizarte-desegituraketak Gipuzkoak bere seme-alabak bere baitan aterpetzeko gaitasuna murriztu eta, ondorioz, jokabide zigorgarriak handitu egingo zituztela.

## 2. GERRA ONDOKO GATAZKATSUA.

Beraz, 70-80ko hamarkadetan zehar Probintziak pairatutako lapurretek mende hasierakoek lortutako aztoramendua lortu ez zutela pentsatzen dugu. Ekintza hauen eraginez pairatutako gorabeherek berriz ere egin ziren oso nabarmen, oso jasangaitz beraz, 90eko hamarkadaren erdialdean, Konbentzioko Gerraondokoaren haritik. Gerrateak, ohi den bezala, bizi-baldintzen ezegonkortasun eta eskastasunak areagotu egin zituzten. Honako hau jada jorratu dugun gaia da, baina ezinbestekoa egiten zaigu hainbat ideia gogoraraztea[432]. Gerrari zuzenean lotutako hilkortasunaz gain, bereziki hotza izandako neguak gehi uzten eta zelaien gainean gerrak sortutako kalteek egin zuten bat. Kalteak zenbatuak izan ziren herriz-herri, azken zehaztasuneraino, eta ondorioz eratutako zorra kitatu ahal izateko, udalbatzek ondazilegi eta gainontzeko ondasun komunak saltzeari ekin behar izan zioten, hurrengo hamarkadetan gertatuko zena iragarriz. Salmenta hauek, era berean, familia askoren bizirauteko ezinbestekoa ziren baliabideak merkaturatu egin zituen, pobrezia areagotuz eta tokiko komunitateak *self-help* gauzatzeko eskaintzen zituen aukerak biziki murriztuz.

Gainera, gerra giroa ez zen guztiz ezabatua izan, gipuzkoarrok armak eskutan gelditzen zirelako[433], gizartearen zatiketa –Konbentzioko ideien aldeko eta aurkakoak– begibistakoa zelako eta ideologia berriaren hazia, Estatu garaikidearen sorrerari lotuak, denon aurrean gelditzen zirelako.

Pobreziaren jatorriak bilatzeko tenorean, pobreen izaeraz gain –alferkeria eta bizio-zaletasunaz gain– agintarien deskribapenetan gerrak berak sortutako abagunea aipatua izango da behin baino gehiagotan. Gipuzkoako agintariak, jakina,

[432] David ZAPIRAIN KARRIKA, Juan Carlos MORA AFAN: "Gerra eta krisia: 1795, Gipuzkoa Basileako Bakearen ondoan". *Zumalakarregi Museoa. Azterketa Historiakoak. IV (1995).* 47-95.

[433] XVIII. mendearen amaieran agertzen diren lapur bandak pasa berria den gerrarekin harreman estua zutela gelditu da jada agerian, ez bakarrik gure aldez aurretiko ustea zelako, garai hartako agintariek behin eta berriz hala baieztatu dutelako baizik. Lotura hau, gudak sortutako miseriarekin eta, bereziki, ejerzitoarekin lotzen ziren. Alta, Gipuzkoako Batailoietan aritutakoak ere han hemenka agertzen dira lapur lanetan. Batzuetan, ikusiko dugun bezala, beteranoren bat mikelete zein lapur izango dugu. Batailoiek, beraz, mikelete partida ez ezik, lapurren bandak ere hornitu zituzten. Aldundiak lapurren gainean emandako lehendabiziko oharretan, hain justu, Urumeako Fagolla burdinolaren inguruan fusil eta sastakaiz armatuta eta lapurretan zebilen hirukotearen berri eskatzerakoan, Lehenengo Boluntarioen Bataiolan aritutako Marieluz baserriko semea zela jasoko du erantzun. GAO: JD CO 55.

krisialdiaren jatorria eta gizartearen nondik-norakoak ederki ezagutzen zituzten, 1801eko Batzarretan aurkeztu zen txosten batean jaso bezala: "*El lastimoso estado en que se halla esta Provincia y todos sus Pueblos, Naturales y Moradores, dimanado de; la extraordinaria subida de los viveres, notoria escasez de cosechas, temporales e inundaciones que han asolado los frutos de algunos años a esta parte; los males de la ultima guerra, en que se gastaron inmensas cantidades, con perdida de gente en ella, y en las epidemias, que a resulta se padecieron; de la falta de circulacon de moneda, por estar prohibida su introduccion desde Castilla, y sobrecargados sus generos con derechos muy subidos de estranjeria. Por cuyas causas, y otras de mayor gravedad, se halla en el mas triste y abatido estado esta Provincia*".

Deskribapen honek Konbentzioko Gerraren ondoren Gipuzkoako herriek egindako kalteordainen zenbaketari gehitu beharko genioke, lehen gogorarazi bezala inoiz ordaindu ez zirenak eta zor publikoa areagotu egin zutenak[434]. Erresumak gastu hauek bere gain hartuko ez zituela iragartzeak bi botere guneen arteko adostasun falta orokorrean sar genezake.

Gipuzkoa-Etxearen zutabeak kolokan zeudela ukaezina da: udal batzarretan eta udal egituretan izandako iskanbiletan, ondazilegiak, larreak eta orokorrean lur komunak indarrez pribatizatzeko izandako saiakeretan, edo goseak bultzatuta burutu lapurreta txikietan sistemaren ezintasuna islatzen zela iruditzen zaigu. Are gehiago, Elgoibarko Gelalsoroko errotan lapurtzeagatik auziperatutako Juan Bautista Etxanizek, esate baterako, lapurreta hauen oinarrian zegoen zioa laburbiltzen zuela ausartzen gara esaten: "*obligado por el hambre y la necesidad en que se hallaban él, su mujer y sus cinco hijos de tierna edad*"[435]. 1795-97 bitartean Aldundiak jasotzen dituen berriren arabera, lapurretak lurralde osoan zehar agertzen dira barreiatuta[436]. Ohi den bezala, lapurretak alferrekin eta okerrekin lotzen zituzten adierazpenak agertzen dira ere bai;

[434] Lehen ere aipatua. GAO: JD IM 3 4 77.
[435] GAO: JD CO 55. Ostutakoa: garia, irina eta zekalezko ogiak. Mota honetako lapurretek zerrenda luzeegia osatuko lukete: 1797an bertan: Mutrikun: Franzisko eta Maria Antonia Lekuona; artoa eta garia. Eibarren: Pedro eta Antonio Mendizabal aita-semeak; artoa eta garia. Seguran, Domingo eta Franzisko Mujika; txerria...
[436] Oiartzunen, esate baterako: Buenos Aires baserriko Manuel Mitxelena, Arteta baserriko Kamio anaiak; Gregorio Lekuona, Jose Etxeberria, Juan Bautista Lasarte. OUA: E 6 II 9 3 eta GAO: JD CO 54.

hortaz, lapur txikien aurkako bezain ugariak ditugun portaera okerrak zigortzeko abiatu ziren auziek gora egingo dute, beste behin ere[437].

Gertaerak beste maila batekoak bilakatzen ari diren seinale, baina, 1795eko abenduan eta 96ko urtarrilean agertzen zaizkigu, Jose Soroak Ahaldun Nagusiak herriei bidalitako gutunetan salatu moduan, gaitzaren atzetik alferkeria egon arren eta gerraren eragin kaltegarria gainditu gabe izan arren, bidelapurrak ziren gaiztakeriak eta gehiegikeriak gauzatu eta Aldundiak zuzendutako proiektu politikoa eta ordena publikoa kaltetzen zituztenak: "*Son continuas y mui conformes las noticias con que me hallo, de los excesos que se esperimentan en el Pais, cometidos por salteadores y ladrones, de modo que se han hecho intransitables los caminos. Estos avisos tan sensibles, despues de las desgracias en que se ha visto mi territorio, me han puesto en el mayor cuidado. Y animada de unos deseos muy ardientes de cortar desde el momento tales embarazos, he pensado en estimular el zelo de mis justizias, a fin de que me acompañen en un obgeto tan justo. Por lo mismo paso a VM este oficio, con el encargo mas estrecho de que tenga el vigilante cuidado de examinar y reconocer a todas las personas no conocidas que transiten o llegaren a ese pueblo, arrestando inmediatamente a las que se tengan por sospechosas. Para esto, convendra que VM se asegure, por medio de aquellas providencias oportunas que convengan, a fin de que todos y qualesquiera de los naturales de su jurisdicion le den pronto aviso de las personas de la referida clase, que sepan hallarse en ella para disponer su prision y formarle causa, dandome parte de ello, y pidiendo auxilios en caso necesario. Al mismo tiempo, repito a VM el encargo, que varias veces le tengo hecho, para el puntual cumplimiento de la ordenanza de vagos, afin de que los arreste y embie, bajo las formalidades acostumbradas, a los destinos prescritos por SM, estando muy a la mira de la conducta y pasos de todos aquellos sugetos que no se dedican a oficios y sean sospechosos por este y otro qualesquiera motivo. Tanto mas precisa se hace la vigilancia de las justicias en este asunto, quanto ya la necesidad está pidiendo el mas pronto y eficaz remedio contra los malhechores, que han infestado mi distrito. En la inteligencia de que desde luego ofrezco premiar de mis fondos con un doblon de a ocho por cada ladrón o salteador público que se aprehenda...*".

[437] 1796an: Arrasateko alkateak Bizenta Abarretegiren aurka: ezkongabea eta "*mal entretenida*". 1798an Amezketak Tomas Elola eta Madalena Aranzasti, lanarekiko atxikimendu ezagatik eta portaera txarragatik; Donostiak Bernardo Ardoi, Migel Otermin eta Manuel Jauregiberria, alferrak izateagatik ejerzitora bidaliak.

Hitz hauen oinarrian lapurreta txikiak baino potoloagoak ziren gertakizunak eta eskaleak baino arriskutsuagoak ziren etsaiak zeudela pentsarazten digu: banda handietan antolatu lapurrak, ekintzen helburuak aldez aurretik ondo aukeratu eta bideetan ala baserrien aurka jardutzen zutenak, alegia. Egoera honen inguruko agintarien mezuak 1795. eta 1796. urteetan areagotu baziren ere, Gipuzkoako Artxiboetatik orain arte lortutako informazioak bidelapurren aroa 1797tik aurrera lehertu eta orokorra bilakatu egin zela ematen digu aditzera.

Lapur banda hauetan profesionaltzat har ditzakegun hainbat buruzagi nabarmenduko da. Haien ondoan, laguntzaile ugari agertuko dira, oso bestelako betekizunak garatzen: batzuek zuzenean hartzen zuten parte lapurretan, lapurgintza sasoiko lan bezala hartuta; gure ustez, gehien bat kontrabando saretik gerturatzen ziren hauek lapurgintza antolatutara. Gero, lapurren ondoan funtsezko babes lanak burutzen zituzten laguntzaileak izango genituzke. Lehenik eta behin, aterpea eskeiniz: loa, jana, ezkutalekua... Bentak eta ostatuak ziren horretarako tokirik ohikoenak, normalean toki bakartietan baina ongi komunikatuta zeuden bentak, bereziki: Santa Luziakoa, Elosukoa, Oiartzungo eta Berastegikoak,... Ezinbestekoak ziren etxe finko batean bizi ez ziren lapur profesional hauentzat.

Bentetan ere ohostutako aleak eskuz aldatzen ziren, zela bentariei salduta, zela beste laguntzaile batzuei pasatuta, hauek salmenta gauza zezatela. Lapurren gertuko personek ere salmenta hauetaz arduratzen ziren, gehien bat senide edo maitaleak. Izan ere, salmentarena emakumezkoen lana zela ematen du. Dena den, ebatsitako aleak saltzea arriskutsua gerta zitekeen, hori baitzen lapurrak atzemateko ikertzaileek jarraitzen zuten bideetariko bat. Hau dela eta, oso arrunta zen harrapakinak Gipuzkoatik kanpo saltzea. Zeregin horretan Baiona toki lehenetsia izan zela esan dezakegu ziurtasun osoz.

Laguntzaile multzo honek betetzen zituen beste lan bat informatzaileena dugu. Eskaleak, benteroek ala gertuko lagunek informazio iturri fidagarria ziren helburuak finkatze aldera, eta lapurtutakoaren zati bat jasotzen zuten kontatutakoari esker emaitza onak lortzen zirenean.

Azkenik, bi dira bidelapur hauengan antzematen ditugun ezaugarririk nagusienak: bata, edadea; bestea, lanbidea. Adinari buruz, bidelapurrena gazteen ofizioa zela baiezta dezakegu. Hogeitahamar urte bete aurretik egiten den lana dugu hau, eta hogeita bost urte baino lehen honetan hastea ere oso ohikoa da. Lanbideari buruz, epaiketetan ematen diren aitorpenetan bidelapur guztiek jatorrizko lan bat zutela baina behar bezala ezin zutela garatu esango dute. Lan hauek, baina, eskulanak ala "zerbitzuetako" atalekoak dira: harginak, zurginak, arotzak, ikazkinak, garraiolariak, zapatagileak, otarginak, igeltseroak... Kortsario moduan ala soldadu gisan eskarmentu militarra agertzen dute maiz, baita ere desertore izatea. Era berean, burdinoletako lanekin lotutako emigrazio nabarmena aipatzen dute behin eta berriz: lapur asko Burgos-Kantabria-Asturieseko burdinoletara lan bila joandakoa eta itzulitakoa dela, alegia. Bide horretan, gainera, Bizkaiko zein Gipuzkoako gazte askorekin topatu dira, batzuk lanean eta beste batzuk lan bila zebiltzatenak. Honekin batera, saltzaile ibiltariak izan dira askotan, gehien bat Baionan erositakoa Gipuzkoan barrena (baina baita ere arestian aipatu mendietako burdinoletan ala Euskal Herriko ferietan eta jaietan –San Herminetan adibidez) salduz.

Lanari buruz horrenbeste xehetasun emateak lanegiteak gizartean zuen balorea utziko luke agerian. Kriminal arloko epaiketa batean murgilduta zeudenenei lanbide bat edukitzeak zigorgabetzea ekar ziezaiokeen. Eta, auziperatuen esanak egia balira, gazte gehienek lan ugari izan dute, aldi baterako bada ere. Hau da, zeregin horiek ez ziren lan probetxagarritzat hartzen. Deigarria da, bestalde, lapurren artean baserritarrarik ez topatzea. Baserri bideragarriek egitura sozial trinkoa izaten jarraitzen zutela utziko luke agerian honek argi eta garbi, baina era berean, ekoizpenerako baliabiderik gabe eta premuaren babesatik at zeudenentzako aukera gutxi zegoela miseriatik aldentzeko ematen du aditzera. Hau dela eta, gazte multzo honek -baserrigabetua, lanik gabekoa, urruneko migrazioan txertatu gabekoa, laguntza sarean tokirik ez zuenak- lapurgintzan bizi-irauteko moldea topatzen du. Honako hau pobrezian erori den gizarte talde batek jorratzen duen estrategiatzat hartu behar dugu, hots: ez da miseriara ez erortzeko saio bat, miserian erori eta gero jorratzen dena baizik.

Horregatik, XVIII. mendearen bukaera eta XIX. mendearen hasieran Gipuzkoan aritzen ziren bidelapur gehienak gipuzkoarrak ditugu, eta lurralde honetakoak ez zirenak, Euskal Herri atlantikoaren gainontzeko lurraldetik etorriak ziren. Elkarren arteko auzotasun, senidetasun eta laguntasun harreman estuak maiz izaten zituzten; beste batzuetan, aldiz, armadan, ihesean, espetxean, bideetan, kontrabandoetan, merkataritza ibiltarian edo Bilbo zein Baionako kaleetan elkartuak ziren.

Gazte hauek burutu zituzten ekintzak kontaezinak dira eta 1797-1802 bitartean Gipuzkoa bera zein Gipuzkoako ondoko eskualdeak lapurretako eremua hartu zituztela begi bistakoa da. Lapur talde hauek denak bateratuak ibili zirenik ezin badugu esan ere, hainbat ale taldez talde ibili zela ukaezina da. Batzuetan ikertzaileek ekintzaileen nortasunak argitzen lortuko dute, baina kolpeak inori egokitu gabe gelditutako uneak ez ziren gutxi izan. Azkoitiko Jazinto Olariaga, Irungo Juan Jose Ibargoien “Giñi”, Mugerreko Pierres Kaderezar “Frantses txikia”, Tolosako Domingo Aranburu “Galtxagorri”, Amezketako Ramon Oreja eta Albizturgo Franzisko Iraola “Migelindegi” genituzke Probintziako goi mailako bandolero edo bidelapur. Haiekin batera, Alegiko Zalakain anaiak, Albizturgo Diego Iparragirre, Arrasateko Manuel Zabarte, Mitikileko Arizpe eta Urnietako Bartolome Agirrerekin aritzen zen nafar taldea agertuko lirateke. Zerrenda honi beste hamaika izen gehi liezaiokegu, batzuk aipatu ditugunen maila berean, beste batzuk maila apalagoan. Mailaketa honetan agintarien salaketak hartzen ditugu aintzat; hau dela eta, agintari hauen grinak edo setak baldintzatzen gaituztela aitortu behar dugu. Era berean, eskura ditzakegun datuak atxilotu eta zigortuak izan zirenenak direla gogoratu behar dugu. Hau da: epaiketetan zehar aipatzen diren gazte askoren berri ez dago inon: ihesean ala izena aldatuta zebiltzatela pentsatu beharko dugu.

Zehaztapen hauek guztiak aintzat hartuta, ondoan Probintziako agintaritza erabat aztoratu zuen ekintzen laburpena proposatzen dugu.

1797. urtean gehien nabarmendu zen taldea “Frantses txikia”, “Giñi”, Joakin Imaz, Oiartzabal eta “Txasio” lagunek osatzen zuten dugu. Oiartzunen eta Behe

Bidasoan sustraitutako taldea da, "Frantses txikia" lapurtarra izan arren, Oiartzungo Iturriotzen aski ezaguna zen eta. Hasiera batean kontrabandozaleen bizkarzain lanetan aritzen zirela ematen badu ere, Urkiola-Gorbeiaren arteko Saldropo mendatean hain zuzen ere, burutu bidelapurrengatik izango dira atxilotuak. Oiartzabal, gainera, Sigenako monastegi batean egindako lapurreta handiagatik dugu ezaguna. Aramaio, Gasteiz eta Gernikako espetxeetatik pasa eta gero, taldeak ihes egingo du. Hemendik aurrera, bi izango dira nabarmenduko direnak: Kaderezar "Frantses txikia" eta Ibargoien "Giñi". Azken hau Bilboko espetxetik Ferrolera bidaliko dute, baina laster izango da gure artean, berehala ikusiko dugun moduan. "Frantses txikia"k berriz, beste banda batekin arituko da Saldropon bertan.

1798an, aldiz, Oreja, "Galtxagorri" eta Jazinto Olariagaren urtea izango da. Lehendabiziko biak bere aldetik arituko dira hasiera batean (Gatzagan adibidez) baina berehala beste goi mailako lapurrekin elkartuko dira: Azkona edo "Korreotxo" bezalakoekin[438].

Era berean, "Antonio Etxeberria" ezizenarekin aritzen zen Jazinto Olariaga eta bere kuadrilla atxilotua suertatuko da urte honetan, Eginoko bentan gordeta zirelarik. Konbentzioneko Gerraren baino lehen ekin zion Olariagak lapurretari; gero, desertorea izanik, izena aldatuta ibili zen. La Motako gotorlekutik egingo du ospa berehala[439].

Azkenik, urtea amaitu baino lehen Pasaiako kaian kortsario moduan ateratzeko aukeraren zain zegoen talde bat nabarmenduko da lapurretan. Talde honen buru Pedro Sebastian Etxeberria baztandarra izango dugu, bere kolaboratzaileen artean Bartolome Agirre urnietarra dagoela. Honekin batera, Agirreren beraren lehengusuak eta kaiaren inguruko bentero eta lagun ugari agertzen dira lapurretan nahastuta; baita marinel kortsario batzuk ere. Talde honek 1799ko hasieran nabarmenduko da ere bai.

[438] Adibidez, Azkona naparra (Erronkarikoa baina Berriozarren bizi zena) Araban epaituko dute, Barriako komentu batean eginiko beste lapurreta bat zela medio eta beste lapurreta batzuk leporatuz. Ordurako, baina, 6 urteko presondegiko zigorra bete gabe zuen. Azkenik, Gasteizen hilko dute, 1803. urtean. Azkona eta bere lagunen aurkako epaiketari buruz: AHN (España): Consejos suprimidos 2418, 12.

[439] Juan Tomas Olaskoaga, Martin San Juan eta Pedro Maizorrena dira bere taldekideak.

Bestalde, Ramon Orejak eta "Giñi"k, bakoitzak bere kabuz, espetxeetatik ihesi eta lapurretari ekingo diote berriz. Orejari dagokionez, Urkiolan eta Lapurdin. "Giñi"k, Aramako alkatearen etxean. "Frantses txikia"k, esan bezala, Saldropon jarraitzen du[440]. Eta, gainera, beste banda ahaltsu batean agertzen da, Beizamako elizan izugarrizko lapurreta burutuko duena. Banda honetako partaideak gehien bat Albiztur eta Bidanikoak -Franzisko Iraola "Migelindegi", Diego Iparragirre, Antonio Aranzabe- eta Euskal Herri kontinentalekoak –Mugarreko Ameztoi (Kaderezarrek erabilitako ezizena ote?, Mitikileko Arizpe, Bautista Lizarraga[441]- ziren.

1800. urtean zehar, aldiz, aurreko banda honetan "Frantses txikia" agertzen da, emandako kolperik ikusgarriena Zubietako Araeta baserrian burututako izan zelarik. Era berean, "Giñi"k eta Olariagak elkarrekin aritu ziren Markinan eta Loiolan[442]. "Giñi", dena den, Bartolome Agirrerekin arituko da Errege Bide Berrian -Oreretako Intxuzaga baserriaren parean-. Toki honetan zazpi lapurreta ikusgarri emango dira, Agirrek eta "Giñi"k zein beraien kolaboratzaile zirenek eginak (Ustaritz anaiak, Jose Fermin Landan "Beltza", Migel Otermin[443]...)

Baina, zalantzarik gabe, Hernanin gertatu asaltoa dugu urte honetako gertakaririk larriena. "Frantses txikia" eta "Giñi" buru zuen 26 lagunetako talde batek Hernanin indarrez sartu eta bertako etxe bat setiatu zuen, Baionako kontrabandozaleei kendutako diru kopuru handi bat berreskuratzeko asmotan.

1801. urtearen hasieran, berriz, "Frantses txikia" eta "Migelindegi"ren taldea Baionan atxilotuko dute. Honek "Migelindegi" eta Iparragirrek Oreja eta "Galtxagorri"rekin bat egitea ekarriko du, bai ihes egite aldera, bai eta hainbat

[440] Juan Bautista Urkidizar, Domingo Barrutia, Manuel Elortza, Manuel Zabarte, Juan Abaitua eta Jose Arriolarekin batera. Elortza hau 50. hamarkadan ibili zen Joakin Imaz errotariarekin batera (aurreko ataletan aipatua); Zabarte "albañil de Mondragon" "Giñi"ren laguna dugu, berarekin ibilitakoa gerran. Araman lanegindakoa zen ere bai, ez dakigu, baina, bertako alkatearen aurkako lapurretaren bitartean "Giñi"rekin aritu zen ala ez.

[441] Paben gillotinatuta 1802an lapurreta ugari eta gero.

[442] Markinan bizkaitar batzuekin; Loiolan Zabarterekin, nahiz eta ezer ez egin bigarren honetan. Zabarte abenduan izango da atxilotua, Loiolan bertan, eta Gasteizen epaituko dute, besteak beste, Zigoitian burutu hilketa batengatik.

[443] Lehen alferra izateagatik ejerzitora bidalia izan zen bera, zalantzarik gabe.

bidelapurreta gauzatze aldera ere. Azken bi hauek, dena den, beste banda bat osatuko dute, beste behin ere Iparraldeko jendearekin[444] eta Alegiko Zalakain anaietako batzuekin. Talde honek "Bula" deritzan eliz-zergaren biltzailea erasotu zuen, beste ekintza harrigarri batean. Ikertzaileak noraezean ibili ziren, ekintza "Migelindegi"ren taldeari leporatuta. Horrela, Orejak eta "Galtxagorri"k Ameriketara egin zuten ihes, Goierrin izugarrizko ospe eta oihartzuna utzi bazuten ere[445].

Urtea amaitu baino lehen, Olariaga berragertuko da hainbat lagunekin. Bere jarduera 1802an zehar luzatuko da, baserriak eta herri txikietako apaiz etxeetan lapurtzen.

Hauetaz gain, beste asalto ugari eman ziren: Kerejeta, Zabala, Berroetak eta enparauek Gaintzako eskribauaren etxean egindakoa; Zalakain sendiak beste banda batean Beasainen egindakoa; Intxuzagan gertatu "portugaldarrena"; Cabarrus jaunak pairatutakoa Gatzagan... Dena den, jasotako adibideak gehi ondoko zerrendan aipatzen direnak bidelapurretaren ikuspegi orokorra emateko aski direla uste dugu.

[444] Bata "Manis" izenekoa; bestea, agian, "Txorat" bera izan zitekeen.
[445] Benezuelan ibili ziren, hasiera lanean eta gero berriz ere lapurretan.

1796
Matias Elizondo[1]. Goizueta. 22 urte. Franzisko Loidiren dendan beste lagun batzuekin lapurtzeagatik preso. Ihes egiten du. Berriz atxilotua, 97an berriro ihesean, Jose Antonio Istikallerekin batera.

Joakin Iturbe “Santu”[1]. Elgeta. Ermuan bizi zen. Mutrikuko alkateak harrapatuta, bidelapurrengatik. Tolosako espetxean segurtasunagatik zegoen. Ihes egiten du.
Atxilotua izan ondoren, 1799an beste behin egingo du ihes, Jose Antxia “Pitxili”rekin batera.

1798
Jose Antxia “Pitxili”. Bolibar. Zestagilea eta hargina. Mutrikuko Olabarriagoikoan eta Enzusen izandako asaltoan parte hartu zuelakoan Mendaron atxilotua. Bere kideek ihes egin zuten. Atxiloketak Mutrikuko alkateak antolatu auzoko talde batek burutu zuen, Mendaron laguntzaile gehiago pilatu ostean. Iturberekin egin zuen ihes 1799an[1].
1800an Diman izandako beste asalto batean agertzen da.
Bere auziperatzean 1782tik abereak lapurtzen aritzen zen talde bat ikertzen da ere bai: Zenarruzako Franzisko Ansotegik, Markinako Bautista Madariaga eta Juan Antonio Larruskainek elkarrekin osatzen zutena.

1800
Benito Manuel Usabe. Iruñea. Garmendiola-Leaburun pistolaz burutu lapurreta[1].

Migel Beitia. Gatzaga. Itsas-armadan zigortua, Ferrolen egin zuen ihes. Gipuzkoara itzultzean berriro ekin zion lapurtzeari, 1801ean Beasaingo Igartzan zelatan harrapatzen dutelarik.

1803
Pedro Loinaz. Zubimusun burutu lapurretagatik Donostian burutu beharreko bortxazko lanetan, oinak kateaturik, zigortuta[1].

Legazpiko alkateak ikerketa burutu arren, Deskargan bi biarnotarrek pairatu bidelapurreta argitu gabe gelditzen da[1].

1807
Jose Fernandez. Cribillente –Valentzia-. Urretxuko alkateak auziperatua errege bidean lapurtzeagatik. Ihes egiten du[1].

Urretxuko alkateak Deskargan izandako lapurreta lau hilabetez ikertu ondoren, Aldundiak bertan behera uzteko eta diru gehiago ez gastatzeko agintzen du[1].

Hortaz, Aldundiaren kezkak bazuen oinarri zehatza, eta orokorrean goi mailako familiek lapurreta zuzenik jasan ez arren, gizarte-gatazkaren aintzindaritzat har genituzkeen ekintza hauek kolpatzen zituztenen artean baserri aukeratuak, landa-auzoetako apaiz etxeak, eta Probintziaren antzutasuna ereintzeko ezinbestekotzat jotzen zen lurraldeko bide nagusia zeharkatzen zuten merkatari, hornitzaile eta garraiolariak nabarmentzeko beharrean gaude.

Beraz, mende hasieran gertatu bezala, bideetan gertatu lapurreta handiak ditugu Aldundiaren kezka piztu zuten gertaerak. Ekintza mota hauek ezabatzen saiatzeko ordura arte jorratutako tresneria ugari mahaigaineratzen da beste behin ere. Halere, honek berriro ere eskumenen arteko lehiaren parean jarriko gaitu. Izan ere, korrejidoreak ere ez du aukera galduko auziperatzeen arloan, ondorioz diziplina sortarazteko lehian, bere jarrera azaltzeko. Jarrera edo parte-hartze hau Probintziak egokitzat dituen jokamoldeen barruan eta elkarlanaren mesederako ematen denean, ez da arazorik agertzen. Hala gertatu zen 1796an bertan, urtarrilean zein uztailean, Aldundiak foru-baimenaren bidez onartutako ebazpenekin: urtarrilekoak 1793ko maiatzeko gobernu-auto bat, urte bereko azaroko errege-agindu bat eta 1795eko maiatzako hainbat araudi biltzen zituen. Agiri hauek lapurren jazarpenean alkateek bete beharreko funtsezko lana azpimarratzen zuten; uztailekoak, 95eko maiatzean esandakoa hartzen zuen abiapuntu, tokiko justizien lana eta ardura, beste behin ere, aldarrikatuz[446].

Korrejidorearen parte-hartzea, baina, ez zen beti ongi etorria. 1796an zehar tirabira hauek ugaritu egin ziren. Aldundiak alkateek lehen auzialdian epaitzeko zuten lehentasuna defendatu behar izan zuen, korrejidoreak ez baitzuen eskumen hori

---

[446] TUA: E 6 III 1 1. "*continuan circulando... varias quadrillas de vandidos y facinerosos de a pie de a caballo, que con el mayor descaro, avilantez, y osadia cometen todo genero de robos, insultos y atropellamientos en caminos despoblados, valiendose en estos para violentar y allarnar las puertas y ventanas, ademas de un continuo fuego con trabucos de extraordinario calibre, del auxilio de una viga con que a fuerza de golpes las quebrantan, y profiriendo en unos y otros las mas execrables blasfemias y amenazas, con las quales y los muchos malos tratamientos que ocasionan a los dueños de las casas en que hallan resistencia, tienen aterrados los habitadores de los pueblos*". Ez dugu, baina, ekintza hauek Gipuzkoan edo beste toki batean gertatzen ziren zehazterik.
Bergarako artxibategian ere agiri hauek gorde dira.

behar bezala aintzat hartzen. Era berean, Aldundiak gogor salatu zuen hainbat auziperaturentzat korrejidoreak agintzen zuen behin-behineko askatasuna[447].

Hau dela-eta, Aldundiak 72ko plana betetzea ezinbestekoa zela behin eta berriro errepikatzea ez gaitu harrituko, honek bide propioa eta babestua jorratzen baitzuen[448]. Ondorioz, mendearen amaieran Aldundiak finkatzen zituen helburuak 1766an errotu eta 70eko hamarkadan indartu ziren berak ditugu: alkateen jarduerari zerizkion ohiko mugak gainditzea (eskumenekoak, denborazkoak, konpromiso mailakoak, baliabideen eraginkortasun ezakoak,...) eta ondoko lurraldeekiko elkarlana bultzatzea Probintziaren lehentasunen artean nabarmentzen dira. Betiere, Aldundiak bere burua herrialdeko gobernu politikoaren baitan eta ekimenen lidergoan kokatuz.

Horretan guztietan, alkateek Aldundiaren babes ekonomikoa (gastuak ordaintzeko) eta ideologikoa (1772ko araudiaren erabilera) izango zuten, baina baita zerbait gehiago ere: beren lanaren gertuko jarraipena. Izan ere, Gipuzkoak jasaten zuen egoneza inoiz baino gordinagoa zen (beste behin ere!) Probintziako agintaritzak egiten zuen deskribapenetan. Hala errepikatu zuen 96ko azaroan Ahaldun Nagusiak, alkateei beren egitekoak ondo betetzeko agintzerakoan eta 1772ko araudiaren balioa eta indarra berresterakoan. Ahaldun Nagusiak errieta berezi bat gehitu zuen, alkateen utzikeria auziperatzearekin mehatxatuz, idi demak, gaueko jokoak eta antzeko gehikeriak, jada 92an agindu bezala, mozten ez zirelako. Dirudienez, pilota partiden, karta jokoen eta antzekoen inguruan sortzen zen giroa gaiztakeriak burutzeko pizgarri ezin hobea omen zen[449].

---

447 GAO: JD CO 54, 1796ko uztailaren 16 eta abuztuaren 13. Prozeduren ezaugarri zuzenak eta arlo hauetan mendeetan zehar emaniko jurisprudentzia biltzen da.

448 Bergarako udalak, adibidez. Bergarako Udal Artxibategia (BUA): L0072. Aldundiak gutxienez, 96ko urtarrilean, azaroan eta abenduan. (GAO: JD CO 54 eta HUA: A 15 1 2).

449 HUA: A 15 1 2. GAO: JD CO 54, 96ko azaroaren 24. "*teniendo presente la multitud de postulantes, huerfanos, vagos y mal entretenidos que giran en los pueblos de mi territorio, fomentando acaso por el abuso que see experimenta en esta parte, los robos y maldades que se ven mas que nunca en el día, acordó que mis justicias ordinarias cumplan puntualmente las reglas dictadas en real provision del año de 1772... Con arto dolor he llegado a saber que despreciandose los justisimos acuerdos de mis juntas generales y especialmente de la de 1792, se frecuentan en varios de mis pueblos apuestas de pruebas de bueyes, juegos nocturnos y otros excesos de esta naturaleza y no pudiendo mirarlos con indiferencia por los gravisimos males que acarrean, solo advierto a VM para que celen con la mayor eficacia el cumplimiento de los referidos acuerdos, como lo espero de su zelo, pues en defecto mer será preciso tomar mas serias providencias.* 1796ko urrian, esate baterako, Oiartzunen ospatu behar zen pilota partida batekin guztiz tematua agertzen zaigu Aldundia. Urriko 17ko eskutitzan, gainera, karta joko debekatuak

Bestalde, Gipuzkoak ondoko lurraldeekin garatutako elkarlana berritasun gisara har genezake, ordura arte maiz errefuxatu lankidetza mota zen eta. Elkarlan honen helburua eskumenez eskumen igarotzeak iheslariei eskaintzen zizkien aukerak bertan behera uztea zen[450] baina, era berean, Gipuzkoako botere egituraren estekak lurralde osoan tinkatuak zeudela ere adierazten duela uste zaigu. Elkarlan honi atxikitako urrats sendoak 1796ko abenduan agertzen zaizkigu, Aldundia eta Lapurdiko mugakideak diren herriak Gipuzkoako Kapitain Generalak eta Pirineo Atlantikoen Departamentuaren Generalak desertoreak eta abar atzemateko eta trukatzeko elkarrekin osatutako egitasmoaren partaide bilakatzerakoan. Egitasmo horretan, Nafarroako Kapitaina ere gehituko da, bandidoek hiru lurraldeetako herriak hartuak zituzten eta[451].

Abagune honetan, Aldundiak grinatsu agertzeko eskatuko die alkateei, atxiloketak, ikerketak, eta auziperatzeak egiteko, eta beharrezkotzat jotzen zituzten laguntzaileak hartzea eta ebazpenak ematea aginduz. Ildo horretatik, Aldundiak ez du inolako zalantzarik agertuko alkateei kargu hartzeko orduan, ez eta errietatik salaketara pasatzeko. Hala erakutsi zuen Urtsularre baserrian izandako lapurretaren haritik, Zaldibiko alkateak honen inguruan gauzatutako –hobe esanda: gauzatu gabeko– prozesua delitua zela salatuz. Nonbait, lapur taldea ofizioz jazarri beharrean, gaizkileen aurka aritzeko dirua eskatu zion-eta alkateak Aldundiari[452].

---

ez baimentzeko gehitzen da: *"juegos de naipes como es el parar, banca, sacanete"*. GAO: JD CO 54. Kezka bera agertuko da 97ko urriko Aldundian (GAO: JD AMI 148: alferkeria, pilota partidak eta demak ez ziren behar bezala begiratzen eta, horrela, Probintziak bideratzen zituen disziplinarako ekimenak indargabetuak gelditzen ziren.

[450] Gune sakratuetan aterpetzeak, adibidez, 1780. urtean galdu zuen bere balioa.

[451] HUA: A 15 1 2. Bizkaiari dagokionez, elkarlana aspaldian zegoen errotua Foruan. Hau berresteko 1796an eginiko ziurtagiria JD DD 79, 1-ean ikus daiteke.

[452] GAO: JD CO 54, 1797ko otsailaren 4. "*si VM quiere pues evitar los cargos a que da lugar su delincuente modo de pensar, debe levantar inmediatamente su auto de oficio y recibida la sumaria continuar y fenecer la causa..."*. Lapurreta: GAO: CO CRI 1797. Alkatearen utzikeria eskribauaren portaerarekin zerikusia omen zuen, bigarren honek alkate izan bitartean izan zuen jarreragatik. Ataungo Manuel Franzisko Zabalak ekin zion alkatearen hutsunea betetzeari, komisiodun gisan arituz: "*como comisionado que es de esta MN y ML Provincia para la aprehension de bagos, malhechores y gente sospechosa que circula por el pais*".

Billabonako alkateak, berriz, Aldundiaren zorionak jaso zituen 1796ko irailean, Erreka baserria asaltatu zutenak atxilotzean[453]. Eta Tolosako alkateak burdinoletako langileak prestatzen ari ziren matxinada berria oztopatu ahal izateak alkateen ardura lehenesteak alde onak ere bazituela erakusten du, gertutasuna eta ospean oinarritutako gizarte kontrola gauzatu zitekeela erakutsiz[454].

Orokorrean, beraz, tokiko agintarien konpromiso maila aldakorra eta hauen baliabideen ez-egokitasuna Aldundiak bere nahien aurka beti topatzen zituen ezaugarrien artean agertzen zaizkigu. Baliabideen egokitasun eza, gaizkileen jazarpenetik baino haratago antzematen da XVIII. mendeko 90eko hamarkada honetan. Oso nabarmena da, esate baterako, espetxeetako segurtasun falta, nahiz eta toki zinez gogorrak izan. Edo auziperatuak zigorra betetzera eramateko ardurari dagokionez, lan hori betetzen zuenik ez egotea[455].

Honengatik guztiatik, lehen Billanobari zuzendutako zorion mezuarekin batera, Ahaldun Nagusiak oso hausnarketa luzea plazaratu zuen, Probintzian bizi zen egoeraren berri emanez eta indar armatu iraunkorra sortzeko beharra aurreratuz.

---

[453] GAO: JD CO 54: Juan Bautista Gorostizu, Martin Jose “el marraguero”, eta Migel Olaiz. 1794an egindako asaltoa izan zen.

[454] Gertutasunak ez ezik, zelatariek ere ahalbideratzen zuten kontrola. Haiei esker jakin zuen alkateak burdinoletako ofizialak matxinada prestatzen ari zirela. Soldaten igoera eskatzeko bi bilera eginak zituzten, alkateak 7 lagun atxilotzea deliberatu zuenean. Aldundiak aski uzteko agintzen du, soldata igoera taldeka aldarrikatzeaz gain nagusiekin zuzenean negoziatzeko baldintzarekin. JD CO 54, 1796ko urria.

[455] Ondorioz, jarraitu beharreko prozedura, gastuak nola ordaindu eta abar afera bakoitzeko gogoratu beharko du Aldundiak. Adibidez: GAO: JD CO 54, 1796ko uztailaren 16an. Fermin Astiazaran, Martin Aiestaran eta beren emazteei ezarritako zigorra betetzeko gizonezkoak (Afrikako presondegietara 8 urtez) Valladolidera eraman eta emakumezkoak (desterrua) kanporatu behar dira. Garraiolari bati ala beste edozein pertsonari lana eskaini beharko zaio.

### 2.1 Arazo zahar eta errepikakorren aurkako jokamolde berriak: mikeleteak.

Ideia honen oinean, alkateen ezintasunak eta Errege Bidean gero eta ugariagoak ziren lapurretak aurkitzen ditugu. Alkateek ezin zieten lapur-bandak osatzen zituztenei aurre egin, zigorgabetasunak eta utzikeriak gehiago ez handitzeko eta justiziak eta bideetako segurtasunak bermatzeko esku-hartze sendoa beharrezkoa baitzen. Tolosako Jose Antonio Lizarzaburuk 1796ko urtarrilean izandako asalto ausarta baten ondoren egin zuen proposamena aintzindaria izan zen, zera eskatu baitzuen: "*gente armada dispuesta a proposito y pagada a costa comun*".

Azkenik 1796ko irailaren 10etik aurrera proposatutako irtenbideak guztiz dira berriak eta finkoak, Konbentzioko gerran Boluntarioen Batailoietan aritutakoekin talde berezi bat sortzea mahaigaineratzen da eta. Hots: aipatutako irailaren 10eko gutunaren bidez, Ahaldun Nagusiak Batailoi horietako arduradun izandako Gabriel Mendizabalen eta Carlos Areizagaren menpean ibilitakoen artean kopuru egoki bat aukeratzeko eta hierarkikoki banatzeko eskatzen zitzaien: "*Siendo frecuentes los insultos que se experimentan en el Camino Real de Coches de mi distrito por los muchos malechores que giran por él, egecutando continuos robos, sin que baste para atajarlos el zelo y actividad de las justicias por andar en quadrillas armadas los salteadores. No pudiendo mirar con indiferencia estos excesos, que pudieran ir en aumento y ocasionar mui perjudiciales consecuencias en todo el Pays de consentirse con impunidad tales delitos y deseando tomar las mas serias providencias para afianzar la recta administracion de Justicia y el logro de la seguridad publica de los caminos, me ha parecido que sería el medio más oportuno destinar algunos individuos que hayan servido en sus batallones de voluntarios que estubieron al mando y cargo de VSS*".

Lapur taldeak sei gizon armatutik gora osatzen zirela kontutan harturik, talde armatu honen zeregina alkateen lana erraztea zen, hauen zein eskualdeko ahaldunen deiei erantzuten behartuak baitziren. Indar armatu hau hainbat patruilatan banatu beharko zen, Bide Nagusia ez ezik beharrezkoa izanez gero barneko herriak eta gune arriskutsuak ere zaindu ahal izateko. Taldea osatzeko, Aldundiak bi erreal eguneko gehi atxiloketa bakoitzeko saria jarriko zuen eta jendea ez izutzeko partaideak

uniformatuak ibiliko ziren. Patruila buruek ere ikur bereziak izango zituzten. Azkenik, txosten guztiak sekretupean gordetzeko beharra zehazten da eskaeran.

Aldundiaren asmoak aztertzeko eta osatzeko aukeratutakoek ere, Mendizabalek eta Areizagak ardura militar nabarmena izan zuten pasa berria zen Konbentzioko gerran, haiek izan baitziren Gipuzkoako bi batailoietako komandanteak. Agian Gipuzkoan maila eta eskarmentu militar handiagoko pertsonak egongo ziren, ohiko gotorleku militarretan esate baterako, baina horiek ez ziren aritzen Aldundiaren izenean. Mendizabal eta Areizaga Gipuzkoako militarrak ziren, Gipuzkoako izenpean arituak eta Gipuzkoaren menpekoak. Hortaz, aztoramendu sozial orokorra sortzeko tenorean gerrak izandako eragina ukaezina baldin bazen, agintea eta ordena ezartzeko tenorean ere gerran hartutako eskarmentuak, eta gerrak berak zabaldutako ideologiak ezinbestekoak izango ziren.

Aldundiaren konfidantzak eskatzen zuen moduan, Mendizabalek eta Areizagak ziztu bizian erantzun zuten, lapurrak eta gaizkileak jazartzeko boluntario-partidak arautzeko zirriborro bana igorriz[456]. Era berean, boluntarioen izenak jasotzen zituen zerrenda bidali zuen Areizagak, "alcaldía de sacas" delakoan zaintza lanak egiten zituen Franzisko Tornakue Arbelaitz partidaren buru gisa proposatuz[457].

Honen guztiaren gainean, Probintziak aholkua eskatu zien Lardizabal, Alzolaras eta Beristain jaunei. Hirurak ziren ideia berri honen aldekoak, nahiz eta iradokizun batzuk gehitu. Hauen artean esanguratsuenak, gure ustetan, Jose Maria Lardizabal Oriarek egindakoak dira. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Lardizabalek izugarrizko garrantzia izango du ordena ezartzeko eta gaizkileen jazarpena antolatzeko arduretan[458]. Orain ere, mikelete hauen portaera uneoro bermatu beharko

---

[456] GAO: JD IM 1 6 25. Eranskinean. Aldundiaren erantzuna, eskerrak emanez, JD CO 54: "*No puedo menos de vivir muy reconocida a la laboriosidad con que se han dedicado VSS a disponer las reglas que pudieran observar las Partidas de Voluntarios destinadas a la persecucion de ladrones y mal hechores. Desde luego pues doy a VSS las mas atentas y expresivas gracias por esta produccion de su conocido amor a la Patria, pudiendo VSS estar mui asegurado de que quedo trabando con toda eficacia sobre este punto de tanta gravedad y en dar a VSS parte de lo que se resolviere con toda la brevedad posible...20 de septiembre de 1796*".

[457] GAO: JD IM 1 6 25. Zerrenda guztia eranskinean.

[458] Urrutirago joan gabe, mikeleteen diseinua lantzen ari zen bitartean, Ataunen inguruan zebiltzan lapur taldea antzemateko, Aldundiak Mendizabal, Areizaga, Lardizabal eta lehendabiziko bien menpenkoa,

zela azpimarratu zuen, Bizkaian gertatuakoa ez errepikatzeko Gipuzkoan. Izan ere, Bizkaiko 10 mikeleteetatik 6 atxilotu eta beste 4 bilatzeko agindupean zeuden, egindako lapurretak zirela-eta. Beristainek, bestalde, arlote eta gaizkileengandik jasotako informazioari esker delituak prestatzen zituzten herritarrak espioien bidez zelatatzeko eta ikertzeko gaineratu zuen ere[459].

Beraz, erabakiak hartzeko azkartasuna dugu Aldundiaren borondatearen irmotasunaren nabarmentzeko zantzua. Izan ere, urriaren 1ean, Aldundiak Patruila ontzat eman eta arauadiaren laburpena Eskualdeko Ahaldunei igorri zien. Aldundiak Batzar Nagusietan eta neguko ez-ohiko Aldundian jorratu beharreko gaia zela aitortu arren, Ahaldun hauen iritzia jaso nahi zuela adierazi zuen. Horretarako, planaren berri zehatza eskaini zien, ekimenaren zergatia eta ekimenaren nortasuna argituz.

Zergatiari dagokionez, Probintziako aginteak Gipuzkoa bere Historiaren unerik larrienean aurkitzen zela aldarrikatzen zuen, mende hasieran erabilitako hitz berberak, hitzez-hitz, beste behin errepikatuz: "*Nunca ha estado mi territorio tan ocupado por todas partes de hombres de mala conducta que en este dia.*" Oraingo honetan, berriz, oso ondo zehazten da zeintzuk diren gaizkile hauei egozten zitzaizkien okerkeriak: bideetan lapurtzea, gauez zein egunez, toki isolatueetan zein agerikoetan. Alkateen ezintasunak ere argi eta garbi jartzen dira mahai gainean. Egia eta aski probatua izateaz gain, salaketa hau ezinbestekoa zen Patruila armatuaren izaera onartzeko, Lurralde osoan zehar zabaldu nahi zen indar hau tresna guztiz berria zen-eta, ohiko jazarpen moldeetatik aldentzen zena. Argudio hau indartzeko, herritarrek Aldundiaren esku hartzea eskatzen ari zirela ekartzen da gogora: "*Los robos que se experimentan son continuos, habiendo llegado a tanto el desorden que ni de dia dejan viajar a los pobres transitantes, sorprendiendolos en los parages a caso mas publicos del camino real.*

---

Sargento Nagusi gisara, izandako Jose Imaz elkarrekin kordinatu eta aipatutako taldea atxilotzeko eskatu zien. JD CO 54, irailaren 20an: "*...en jurisdiccion de la villa de Ataun se junta una numerosa quadrilla de ladrones que tienen en aquel destino sus juntas, y desde el toman sus rutas para Descarga, Navarra y otras partes...que se cree llegan a quince o diez y seis...para que tomen las providencias correspondientes a este importante fin y las pongan en egecucion en el seguro de que se gratificará bien a la gente que consideren VSS necesaria para la empresa, y aunque no se consiga la apreension segun lo que a VSS les pareciere justo...se anticipe el dinero que se crea conveniente a la gente que se destinare a la expedicion".*

[459] GAO: JD IM 1 6 25.

*Son repetidos los clamores de mis naturales, a fin de que se pongan remedio en un punto en que interesa el bien estar del pueblo, y aunque me consta el zelo con que mis justicias ordinarias se dirigen en el particular, no me parece que en las circunstancias actuales pueden llegar sus esfuerzos a tanto, como a poder prestar cierta seguridad a los caminantes y desterrar del Pays gente tan perniciosa*"[460].

Hori zela-eta, Aldundiak alkateak ez ezik bestelako bitarteak jartzen derrigortua ikusten zuen bere burua, horretarako Patruila osatzea, "kidego" bati bizitza ematea alegia, deliberatu zuen, ondoko ezaugarriak beteko zituena: "*establecer un cuerpo, a Patrulla, compuesta de diez y ocho hombres, tres capataces –uno de ellos principal y dos subalternos- que bajo los reglamentos y ordenanzas que se dispusieren persigan a todos los malhechores, con el sueldo el primer capataz de ocho reales diarios, los otros dos de siete, y los hombres sueltos de seis; vestidos con el uniforme del primer batallón, y armados con carabina y dos pistolas que deberan costear a sus espensas*"[461]. Gastu finko hauei, emaitzen araberako sariak gehitu beharko zaizkie, arrakastaz zigortutako atxilotu bakoitzeko ontza urre bana ordainduz. Guztira, urteko 40.000 erreal aurreikusten ziren.

Hortaz, Gipuzkoako indar poliziala –gerora "mikeleteak" izenarekin ezagutuko duguna– sortzea erabaki zen data 1796ko iraila dugu. Gure uste apaletan, berebiziko garrantzia zuen ideia zen hau. Lehenik eta behin, talde hau ez zelako eratu kanpoko aginduei jarraiki, ez eta Madrilgo Gortetik igorritako inolako ebazpenetan oinarrituz ere. Probintziak sortu, Probintziak antolatu, Probintziak finantzatu eta Probintzia zaintzeko osatzen zen polizia-sistema dugu, beste Botere gunetik guztiz aldendua eta Ahaldun Nagusiari zuzenean eta hierarkikoki lotua. Hortaz, egitasmoak berebiziko balio politikoa zeukan, batez ere 1784ko gertakizunen ondoren, barneko ordena Aldundiaren zuzendaritzapean uzteko eta, baita Kontseiluetatik hel zitezkeen aginduen esanak bete ahal izateko aldez aurretik prest agertzeko ere, Probintzian zeuden baina Probintziaren zuzendaritzatik at zeuden baliabide militarren beharrik gabe.

---

[460] GAO: JD CO 54, urriaren 1a.
[461] *Berdin.*

Bestalde, Probintziaren barneko antolakuntzari eta ohiko diziplina ereduari begira ere jokaera honi izugarrizko aitzindaritasuna zeriola iruditzen zaigu. Izan ere, gizartearen kidegotik bereiztutako kidego armadun hau ez zen urtero berritu behar, lehen komisarioekin gertatu bezala, ez eta herriko gizaseme ospetsuen menpean jartzen ere. Talde profesionalizatua zen, betebehar zehatz batzuk osatu behar zituena eta Lurralde mailako gobernu politikoaren hedapenak, eskumen bakarra eta bateratua lotzen ari zenak, bultzatzen zuen.

Gipuzkoako egoera sozial eskasa erabakigarria izan zen berezitasun honen jatorrian. Gipuzkoa etxe baten gisara mihiztatua eusten zuten habeen ahuldadeak hutsune nabarmen sortzen zituen eta. Hutsune hauek gizakiek gizarteratuak segitzeko erabiltzen zituzten euskarrietan kokatzen ziren, 1766an eztanda egin zuten eta Konbentzioko gerrarekin guztiz kolokan gelditzen ziren berberak. XIX. mendeko erabateko haustura iragartzearekin batera, jende xumearen bizirauteko aukerak beste modu batzuetan jorratzen bideratzen zituen honek: lapurretan esate baterako. Era berean, diziplinarako ohiko bidea bere eragina galtzen ari zen, Etxean, Herrian edo Probintzian obeditzeak ez baitzuen bermatzen laguntza sarean aintzat hartua izatea.

Balore aldaketa hauen barruan, ulertzekoa da patruila profesional honek, oraindik inolako izen ofizialik jaso gabe zegoenak, ez jasotzea kontrako inolako ahotsik, ez eta foruaren eta agintearen tradizio zorrotzena defenda zezaketenen artean ere. Era berean, eta hiru hilabeteko epean pairatu zuen aldaketa zela eta, arrakastaren prezioa oso altua izan zela ematen du, finantzaketarena izan omen zen eta taldea erreformatzeko erabilitako argudioa.

Izan ere, gastuek patruilaren bilakaeraren gainean berebiziko eragina izan zutela esan dezakegu. Horrela, 96ko abenduaren 14ko ez-ohiko bilkura batean patruilaren egokitzapen maila aztertzeko talde bat izendatu zuen Aldundiak, Lardizabal, Areizaga, Mendizabal, eta Lardizabal beraren laguntzaile Manuel Zabalak osatuta. Azterketaren helburua lurraldeko segurtasuna eta gastuaren murrizketa uztartzea zen: "*Plan de reforma de la actual Patrulla destinada a perseguir malhechores, cuio objeto verdadero es el deseo de conciliar los dos estremos que reconoce la Diputacion de la*

*indispensable necesidad de dicho cuerpo y de los ningunos medios con que se halla para ocurrir a su subsistencia*[462]."

Gaizkile taldeak desagertutzat jotzen zirenez, Areizagak eta Mendizabalek patruilaren kideak gutxitzeko oniritzia eman zuten. Hemendik aurrera, lehendik emanak ziren irizpide ekonomikoekin Tornakueren zuzendaritzapeko bost gizonetako taldea osatzen da, taldearen egoitza nagusia Urretxun paratzea proposatuz. Hortaz, Tornakuerekin batera Gabriel Saldias, Migel Eraso, Ramon Iruretagoiena, Migel Apaolaza eta Julian Mendizabal gelditu ziren eta gainontzeko guztiak lizentziatu izan ziren sari bat ordaindu eta gero[463].

Errotik egindako moldaketa da, beraz, Aldundiak abenduaren 14an oso bestelako plangintza jorratu zuen arren. Orduan, Patruila hiru zatitan banatzea aurrikusten zen: Probintziaren bi muturretan (Arrasaten eta Oiartzunen) eta gune zentralean (Tolosa). Bertako lagunekin hornituak eta alkateen esku-hartze handiago batekin. Gainera, ziur asko Lardizabalen eraginez, Manuel Francisco Zabala Ataun zaintzea proposatzen zen[464].

Dena den, dela patruilaren presioa gutxitzen zelako, dela desegituraketa sozialak bultzatuta, liskarrek eta lapurretek gora egiten zutelako, talde armatuaren presentzia areagotzeko eskaerak entzungo dira berriz, Migel Franzisko Barkaiztegi Ahaldunak 1797ko Batzar Nagusietara eraman beharreko gaien artean patruilaren ezaugarriak sartu arte[465].

Hortaz, Patruilaren iraupenari eta ezaugarriei buruzko txostena 97ko Batzar Nagusietan plazaratuko da[466]. Patruilaren balioa ukaezina dela berresten da, berarekin

---

[462] GAO: JD IM 1 6 25.
[463] Boskote horretatik jatorrizko zerrendan agertzen den bakarra Ramon Iruretagoiena dugu, Konbentzioko gerran bigarren mailako sargentua izandakoa.
[464] *Berdin.* Eranskinean.
[465] "*La importancia y necesidad indispensable de la subsistencia de la Patrulla, que se estableció para perseguir malhechores en que hai planes trabajado al tiempo de su ereccion*".
[466] GAO: JD AM 148. Sinatzaileak; Joakin Irarreta, Franzisko Xabier Sanzetenea, Jose Inazio Gamon, Jose Joakin Ameztoi, Pedro Gregorio Iturbe, Carlos Elkano, Valdespinako Markesa, Jose Maria Lardizabal Oriar, Jose Inazio Arriola Iriondo, Jose Inazio Arriola Muguruza, Domingo Olazabal.

segitzea ezinbestekoa baita delitoak eta irainak Probintziatik desagertarazteko, patruilak berak ekintza hauek guztiak errotik murriztu ditu eta. Hau dela eta, patruilakideren kopurua 31 izatera pasatu behar dela irizten dute. Lagun hauek bost taldetan banatu eta talde bakoitzeko kabo baten agindupean bost mikelete egongo dira; denen buru, berriz, ofizial nagusia bat, komandantea alegia. Azpimarratzekoa da, mikelete izena kaboaren menpekoak izendatzeko erabiltzen dela jada[467].

Taldeak Gipuzkoan zehar banatzeko unean, Errege Bidean kokatzen diren Bergara, Tolosa eta Oiartzun gehi Lazkao eta Zestoa kokaleku bezala proposatzen dira eta komandantearen egoitza Tolosan finkatuko da. Horrela, lurralde osoan hartuko zen mendean, eta, gainera, taldeak elkarri lagundu liezaiokete. Herriz herriko joan-etorriak kontrolatzeko, talde bakoitzak komandanteak emandako pasaporte bat aurkeztu beharko du dagokion herriko alkatearen aurrean, honek ibilaldia bermatuko baitio. Mikelete taldeak komandantearen aginduetara egongo dira, baina, era berean, berau ez dagoenean tokiko agintaritzaren esanetara egongo direla azpimarratzen da.

Azkenik, patruilak osatzeko Batailoietan aritutakoek izango dute lehentasuna eta hautaketan Aldundiak eta Komandanteak parte hartuko dute. Komandante izateko, Gipuzkoako Bigarren Batailoiko kapitaina izandako Jose Urkola aurkezten da, Batzarrak ardura hori egokituko diola aginduz.

Berrantolaketa honi aurre egiteko, 60.000 errealetako aurrekontua osatuko da. Alta, finantzatzeko arazoak desagertu ez direnez, guztiz beharrezkoa egingo zaie diru-iturri bereziak zehaztea. Horretarako, ardoaren gaineko zerga bat eskatzen dute: marabedi bat pitxer bakoitzeko[468].

---

[467] *Berdin: "es inegable la utilidad de este nombramiento, y la necesiad de su continuacion para desterrar del distrito de VS los delitos e insultos que en mucha parte se han disminuido desde que se erigió la Patrulla. A fin de que sea mayor su utilidad y se consigan los fines propuestos hemos discurrido que pudiera aumentar la Patrulla hasta el numero de treinta y un individuos, de modo que se compusiera la Patrulla de un oficial comandante dotado con diez y seis reales diarios: cinco cabos con seis; y veinte y cinco miqueletes con cinco, en cuya conformidad segun hemos calculado, podría tenr de coste la Patrulla assi levantada cosa de sesenta mil reales de vellon".*

[468] *Berdin: "que se impusiese un maravedi en cada azumbre de vino, solicitando Facultad Real para VS a nombre de los Pueblos, y que este impuesto se solicite para mientras se crea necesaria la subsitencia de la Patrulla. Que los Pueblos a una con el producto del Donativo pongan en poder del Tesorero General lo que produgere el arbitrio de maravavedi destinado a este establecimiento, que este arbitrio*

Ondorioz, Batzarrak txostena berretsi eta araudi berri bat osatzeari ekin zion. Araudi hau abuztuaren 28an idazten da, eta patruila armatuaren izena mikeleteena izango dela zehazten da bertan[469].

Erreforma honen helburua mikeleteen eraginkortasuna areagotzea dela aitortzen dute adituek. Egokitzapen honen oina, berriz, mikeleteak finantzatzeko Gipuzkoak zuen gaitasuna agertzen zaigu. Aukeratutako bidea, baina, erresumaren oniritziaren zain gelditzen zen. Hau lortu bitartean, ordura arte bezala segitu beharko dute, hau da: Aldundiaren gastuentzako Donatiboaren herenetik hartzen denarekin ordainduz eta mikelete kopurua handitu gabe[470].

Batzar honetan agertzen diren ordainketa batzuk, Gipuzkoak mikelete kopuru txikiak sortzen zituen ezintasunak nola betetzen zituen argitzen digu. Izan ere, gaizkile zein susmagarriak ehizatzeagatik banatzen ziren sari orokorrek –"*un doblón de a ocho*" Forondak azpimarratutako berak– indarrean zirauten. Honek, hainbat sari-ehiztariren interesa piztuta mantentzen zituen. Horrela, Diego Arzelusen izena agertzen da, Oiartzunen eta Mutrikun lapurrak atxilotu dituzten beste lagun batzuen aipuekin batera, nahiz eta hauen izenak, eta oraindik konprobatu gabeko beste atxiloketak egin dituztenenak ere, ez diren zehazten[471].

Aldiz, lehen aipatu dugun Zabalari eta Aldundiaren aktetan agertzen den Juan Antonio Goñiri garai zaharreko komisarioen antza hartzen diegu. Gaizkileak

---

*del maravedi lo pongan los Pueblos en remate juntamente con el Donativo o separadamente, segun mejor acomodare.*

469 GAO: JD IM 1 6 25. Eranskinean: "*Plan de reglamento vajo del qual ha de mantenerse el establecimiento formado por la MN y ML Provincia de Guipuzcoa de una patrulla armada con el nombre de miqueletes*". Adituek emandakoa eta Batzarrak berrestutakoa jasotzen du hitzez hitz. Gehitzen diren atal berriak gaizkileen aurrean nnola jokatu zehazten direnak ditugu. Mikeleteek *"Presos por el Rey*" ohikatu behar zuten, tiro egiteko aukerak ondo neurtzeko eskatzen zaie, mozorroak behar izanez gero tokiko agintariei eskatu beharko diete. Bestalde, patruila ibiltari moduan aritzerakoan, herriei eskatu beharreko gauza bakarra lo egiteko toki estalkia zen

470 GAO: JD AM 148: *"y que mediante a que hasta que se logre dicha Facultad no pueden sufrir los fondos de V.S. este gasto nos parece que entre tanto pudiera quedar la Patrulla en el pie en que se halla actualmente, costeando como hasta aqui su gasto diario y gratifiaciones (quando los que se prendan se declares por Reos y fueren sentenciados, y egectuada la Sentencia y no antes) del Tercio del Donativo destinado a gostos de Diputacio*n

471 GAO: JD AM 148

atzemateko Probintziaren komisiodunak zirela behin baino gehiagotan esaten baita, esate baterako Korrejidorearen agindupean egindako atxiloketa batzuetan laguntzaile gisa arituz. Izan ere, izendapen hori Korrejidoreak, Manuel Arizabalok –Noblezia pasaitarrak, hain zuzen ere– eta Ahaldun Nagusiak adostu zuten elkarrekin, Iturriotzen izandako lapurretaren ostean zera bermatzeko: *"asegurarse toda gente sospechosa que encontrase en la cercanía de dicha villa de Orio y demas parajes de sta dicha Provincia y condexese a las carceles de esta dicha ciudad"*[472]. Arizabalok berak negoziatu zuen Kapitain Generalarekin troparen laguntza eta honek teniente, sargento, kabo eta 12 soldadu utzi zizkion. Bistan da, beraz, mikeleteen faltan Probintziak bide osagarriak bilatu behar zituela ordena publikoan gutxieneko zaintza bermatzeko.

Azkenik, mikeleteen kopurua txikia bazen ere, aleak are gehiago murriztu ziren barne arazoak zirela medio. Lehen baja Ramon Iruretagoiena oriotarrarena izan zen. Honek nahi gabe bere burua zauritu zuen balaz 1797ko urrian, hanka bateko hezurrean larriki min hartuz. Aldundiak, zalantza asko izan arren, hainbat soldata aurrera zion Tolosako Miserikordiatik Zaragozako ospitalera abiatzeko, baina 98ko urtarrilean ez da oraindik lekualdatu, Sarako petrikiloak sendatuko zuelakoan.

Bigarren arazoa, berriz, oso bestelakoa izan zen, eta, nolabait, larriago ere, mikelete baten portaerarekin zerikusia zuelako. 97ko azaroan Tornakuek Migel Eraso mikeletea taldetik egotzi zuen, maiz agertu zuen desobedientziazko jarreragatik. Erasok, berriz, atxiloketengatik Probintziak ordaintzen dituen sariak behar bezala ez banatzea leporatzen dio Tornakueri[473]. Tornakueren txostena jaso eta gero, Aldundiak Erasori besteen aurrean errieta egitea agindu zion Tornakueri, baita dirua nola banatzen zuen argitzea ere.

---

[472] GAO: JD IM 3 14 134. Talde honek Usurbildik Iturriotz eta Ibañerrieta zeharkatu zuen eta Debaraino heldu. Bide honetan, besteak beste, Pablo Santos eta Asturieseko Ramon Argüelles atxilotu zituzten. Santos aurrekari larriak zituen, lehen ikusi bezala Bergarako baserri batean izandako asaltoan parte hartu omen zuelako. 96an Bergarako Amuskibar baserrian egindako asaltoan, Gandiako Bautista Muñozekin batera aritu omen zen Toledoko Cedillo herrikoa zen eta *"manchego"* goitizena zuen Santosek. Bertako etxeko jaunari trabukoa eta bi pistola jarri zizkioten bularrean zera esanez: *"la vida era amable y manifestase la bolsa, no exponiendola"*. 98an, espetxean emandako denbora luzea kontutan harturik, Bergaran ezarritako desterrua bi urtez luzatu zitzaion.
[473] Tornakuek berak hori bezalako salaketa paratu zuen behin bere nagusi baten aurka, "*alcalde de sacas*" delakoarentzat zaintza lanak egiten zituela.

Honek, dena den, ez zituen baretu Erasoren jarrera, 98ko apirilean Hernaniko bidean neska gazte bati eraso baitzion. Era berean, Amezketako alkateak ere planta bat aurkeztu zuen mikelete honen aurka. Oraingo honetan egotzia izan zela ematen du.

Erasoren protestek mikeleteek atxiloketak egiten zituztela uzten du agerian, baina Aldundiaren akten arabera, beste lan mota batzuk eskatu zitzaien ere, espetxeak zaintzea (97ko urrian Orereretakoa), atxilotuen kontrako testigantzak ematea (98ko urtarrilan Antonio Gonzalez soldaduaren aurka; hemen, gainera, minoinak bezala agertzen dira izendatuak); edo Valladolidera zigortuak eramatea (98ko maiatzean. Baita miñoi izenarekin ere).

Esan bezala, mikeleteen kopurua handitzea eta lurralde osoan zehar estrategikoki banatzea ezinbestekoa zen patruilaren eraginkortasuna bermatzeko. Baina horretarako beharrezko finantzaketarentzako oniritzia uste baino gehiago atzeratzen zenez, taldea ez zen handitu. Honek, bidea irekitzen zuen beste eskumen batzuen esku-hartzea gauzatzeko diziplina eta jazarpenaren eremuan, nagusiki Gipuzkoarako Kapitain Generala zen Drouhot-eko Blondel Markesaren eskuetan zegoen eskumen militarrena.

### 3. ORDENA PUBLIKOAREN ZAINTZA LEHIAN.

97ko irailean, Batzarrak mikeleteen plangintza berria eratu eta ardoaren gaineko zergarako baimena eskatu ondoren, Drouhot Kapitain Generalak talde militar bat Gipuzkoan barrena hedatuko duela jakinarazi zion Aldundiari, gaizkileak eta lapurrak atzemateko helburuarekin. Talde hau 16 lagunek osatuko zuten: ofizial bat, sargento bat, bi kabo eta hamabi soldadu, Gipuzkoan kantonatutako Kataluniako errejimentukoak. Gipuzkoako zein Arabako bideetan barrena ibiltzeko asmoa zuten, horretarako, lasaitasun publikoak eskatu bezala, tokiko agintarien laguntza jasoko zutelakoan. Aitzakia bezala, lapurretak orokorrean aipatzen dira, baina batez ere Postak pairatutakoak.

Erabaki honek oso ataka estuan uzten zuen Aldundia, eta 1784an gertatutakoaren errepikapenaren aurrean gaudela ematen du. Baina oraingo honetan, aldiz, Aldundiak jazarpenerako tresnak indarrean edukitzeko borondate eta gaitasuna aski soberan erakutsita zuen. Hortaz, hedapen militar honen bidez Aldundiak mikeleteen bidez gauzatutako ordena publikoaren kontrola kolokan jartzen zen. Erakunde probintzialak berehala eman zuen bere ikuspuntuaren berri, bai Drouhoti berari, bai alkateei zein Gortean zituzten ordezkariei. Bakoitzarekin erabilitako doinua, gainera, oso bestelakoa izan zen.

Lehenik eta behin Aldundia Drouhotekin jarri zen harremanetan[474]. Militarren buruari igorritako eskutitzean, bere eskerrik beroenak luzatzen zizkion, lasaitasuna eta segurtasuna Erakundeak lehenetsitako helburuak baitziren. Horren erakusle ziren hala xede horretarako eskainitako sariak eta minoi partida nola bildu berri ziren Batzarretan iragarritako partida bera egokitzeko asmoa[475].

Aldundiak arrazoi praktikoak mahaigaineratu zituen bere erreformaren nagusitasuna aldarrikatzeko. Mikeleteak bertakoak izateaz gain, jendea eta zonaldeak ezagutzen zituzten, eta, gainera, boluntario prestu eta ausartak ziren. Militarrak,

[474] GAO: JD CO 55, 1797ko irailaren 9an.

[475] Egoitza Urretxun zegoela zehazten da, 96ko erreforman esan bezala, baina 5 beharrean 7 lagunek osatzen zutela dio Aldundiak.

berriz, kanpotarrak izanik, ez zuten jakingo bereizten gaiztakeriak eta, adibidez, guztiz zilegizkoak eta beharrezkoak ziren merkatal tratu txikiak[476].

Hau dela eta, kontuan harturik bi erakundeek helburu bera zutela, gutxiengo adostasun bat lortu behar zen, eragiten ziren baliabide eta tresnek babestu nahi zuten jendea kaltetuko ez bazuten. Izan ere, Aldundia sinestuta dago militarren tropelaren buruak nornahi eta nonahi atxilotuko duela, onura baino galerak, kexak eta kalteak sortuz. Egoera hau ekiditeko, militarrak tokiko agintarien laguntzaileak baino ez direla gogorarazteko eta, ondorioz, atxiloketak egiteko hauen adostasuna galdetzeko eskatzen zaio Drouhoti[477]. Mikeleteak berritzen diren bitartean hala eginez gero, Aldundiak atxilotze arrakastatsu bakoitzeko ohikoak ziren sariak soldaduei ere egokitzeko prest azalduko da.

Diskurtso honekin, Aldundiak buelta ematen dio militarren eskaerari. Hauek, 1784an egin bezala, tokiko aginteak laguntzaile moduan hartzen zituzten bitartean, Probintziak alkate-epaileak talde armatuaren buruaren parean jartzen zuten. Era berean, prozedura zehazterakoan, Aldundiak alkateen lehen auzialdiaren gaitasuna aldarrikatu eta babestu nahi zuen. Honekin batera, jende xumearen bizirauteko ezinbestekoa zen maila txikiko salerosketak babestu nahi zituen, batez ere Lapurdin erosi eta Gipuzkoan saltzen ziren gaien ingurukoa. Militarrek merkatal tratu hauek kontrabandotzat joko ez ote zuten beldurra begi bistakoa da; 80ko hamarkadan zehar izandako eskarmentuak hala pentsatzeko arrazoi asko ematen zituen gainera.

---

[476] "*haviendose propuesto escoger para el efecto gente de providad, agil y robusta, acostumbrada a las breñas y parages escabrosos del Pays, y que huviesen dado pruebas de su valor en mis dos Batallones*"

[477] "*pudiera acarrear resultas poco satisfactorias el que el oficial catalan destinado vaya arrestando a todo aquel que a el parezca malhechor, especialmente en esta Provincia en que por el mutuo trato y reciproco comercio de los Pueblos, cruzan los caminos muchos hombres de diferente trage. Por cuya causa y la de no tener el oficial destinado ni los Individuos de su partida conocimiento del terreno ni de las gentes, puedieran dar motivo a muchas quejas que sirvan de molestia a V.E. y a la Diputacion, arrestando personas que no deben ser detenidas. Por esta consideracion y la de ser la fuerza militar auxiliadora de las Justicias ordinarias en estos casos, no puedo menos de pedir a V.E. como lo hago, se sirva dar sus instrucciones a dicho oficial apra que no proceda a arrestar a ninguno sino es de acuerdo con las Justicias de los respectivos Distritos...mandandle al mismo tiempo que en todos y qualquiera de ellos ellos entregue los Reos a las mismas Justicias para que les formen causas y sentencien conforme a derecho en virtud de la Jurisdiccion Real ordinaria que les asiste*".

Drouhotek, espero litekeen moduan, alkateak berari lagundu behar diola argudiatzen du, 1784ko errege aginduaren arabera. Ondorioz, Aldundiak egoeraren berri alkateei jakinarazi, eta laguntza ematerakoan lehen auzialdia aldarrikatu eta gauzatu behar zutela gogoratu egingo die[478]. Antzeko agindua zuzentzen zaio Tornakueri: eskatzekotan, laguntza emateko, baina bestela ez eskaintzeko[479].

Gortean Probintziak zuen agente Blas Torres Errazkinekin Ahaldunak erabilitako hizkera askoz gordinagoa izan zen[480]. 1784ko arauari buruz, adibidez, ez zela onartua izan eta, gainera, Aldundiak hartutako neurriei esker –hau da: mikeleteei esker– beharrezkoa ez zela esaten da. Kapitain Generalak erabilitako doinua lehorra eta mespretxuz betea izan dela jakinaraztearekin batera, Ahaldunaren erabakien aurka aritu izana leporatzen dio Aldundiak. Hortaz, 84ko aginduaren aurka berriro egitea komenigarria den kontsultatzeko eta Drouhoten balizko eta ezkutuko maniobrak gelditzeko galdetzen zaio Torres Errazkini. Gainera, Aldundiak militarren jarrerak eta tropak gauzatzen zituen desmasek arazoak baino ez zituztela ekarriko susmatu ez, jakin bazekiela aitortzen zion honi.

Azkenik, Aldundiak Arabako ordezkariei gertatutakoen berri eman eta bien arteko elkarlan eta harreman onak eusteko nahia azaltzen du[481].

Aldundiak bete-betean asmatu zuela esan dezakegu, batez ere 1798. urteari dagozkion salaketen arabera. Batetik, militarrek sortzen zituzten gastuak herriek ezin zituztelako beren gain hartu, are gutxiago gerrak sortu eta Probintziak monarkiari erreklamatutako kalteordainak ordaindu gabe gelditu eta gero[482]. Bestetik, Gironako soldaduek gehiegizko miaketak egiten zituztelako. Urte horretako ekainean hiru emakume atxilotu izanak militarren ekintzak nolakoak izaten ari ziren adierazten du.

---

[478] GAO: JD CO 55, 1797ko irailaren 12an: "*presten a esta tropa el auxilio que necesite, pero teniendo particular cuidado de que sus Justicias no permitan que con este motivo se usurpe ni padezca menoscabo alguno la Jurisdiccion Real ordinaria que egercen conforme al Fuero y Leyes del Reyno*".

[479] Adibidez, mikeleteek militarrengandik ihesi zebilen lagun bat atxilotu zuten 1797ko urrian, Erregeari egindako mesede moduan. GAO: JD DD 79, 1.

[480] GAO: JD CO 55.

[481] *Berdin.*

[482] Esate baterako, 1798ko azaroan, Cavarrus jaunak pairatutako asaltoaren ondoren, ejerzitoak 20 gizon bidali zituen Gatzagara. 5 egun baino ez ziren pasatu udalbatzaren kexak agertu arte. GAO: JD DD 80, 1. Gaizkile, desertore, lapur eta arloteek Probintzia hartu dutela esaten da ere bai.

Izan ere, emakume hauek Pasaia eta Donostiaren arteko bidean geldiarazi, arakatu eta pana eta oihalak antzematerakoan Donostiako espetxeak sartzea berria eta mingarria zela esaten du Aldundiak[483]. Kapitain Generalaren izenean aritzen ziren granaderoek hau burutzean Gipuzkoako barne komertziorako gai guztiak onargarriak zirenik aintzat ez hartzeaz gain, zaintza tokiz kanpo gauzatu zuten, ez baitzuten eskumenik bide horretan aritzeko.

Hiru egun beranduago, Baionatik zetorren beste gizon bat patu bera jasan zuen. Eta urrian Oreretako alkate Juan Bautista Portuk helarazito berriek ildo beretik zihoazen: gaizkileak jazartzeko hedatutako militarrek zeregin hau ahaztu, herritarren joan-etorriak oztopatu eta alkateen eskumena baztertzen ari ziren. Porturen hitzak, gainera, gaizkileak jazartzea aitzakia bat baino ez zela izan eta benetako helburua Probintziaren izaera murriztea zela ziurtatzen da[484].

1797ko abenduan, berriz ere Korrejimendu buruan oraindik Arizabalo izanik, erakunde hau Aldundiarekin lerrokatu zen. Batetik, gerra denboran ejerzitoa Gipuzkoan egoteak gaizkile-ekoizle gisa aurkezten zuen; bigarrenik, delitu egileak Lapurdin gordetzen zirenez epaitzea zaila suertatzen zela gogorarazten zuen; eta, azkenik, Valladoliden epaiketak behar baino gehiago luzatzeak ageriko eraginkortasun ezaren erantzule egiten zuen. Ondorioz, bera ere mikeleteak handitzearen eta ardoaren gaineko zergaren alde agertzen zen.

Hilabete horretan bertan Torres Errazkinek Gaztelako Kontseiluaren Fiskalak finantzaketa mota hori ez zuela onartzen eta proposatutako helburuak atxikitzeko Kontseiluak berak agindutako ebazpenak aski zirela jakinarazi zuen.

---

483 GAO: JD CO 55, 1798ko ekainaren 13an: "*Unas pobres mugeres infelices que traian de vender unos generos de corto valor en unas cestas para sacar su vida rodeadas de Granaderos y conducidas entre ellos por la calles de una Ciudad de tanta poblacion a casa de un Capitan General y desde alli a la carcel publica era un espetaculo demasiado nuevo y doloroso*". Mendeetako jurisprudentzia gehitzen da. Berdin gertatuko da urrian, GAO: JD DD 80, 1.

484 GAO: JD DD 80, 1. "*No contentos los voluntarios de Gerona que tiempo ha se establecieron de Partida en el Valle de Oyarzun, a lo que al principio se creio con interes de perseguir a jentes malhechoras (que es en lo que menos se ocupan sin duda) con la opresion a que han tenido reducida en temporada la livertad natural del Pais...*"

Hortaz, Kontseilua ere bere estrategia garatzen ari zela begi bistakoa da. Batetik, ikusi berri dugun zergarako ukapena Aldundiak diziplinarako eta ordena publikoa mendean hartzeko eratutako sistema guztiz geldiarazten zuen. Bestetik, behin Aldundiaren ekimena geldituta, Kontseiluak Erresuma osorako diseinatutako tresna propioak Gipuzkoak ere erabiltzea nahi zuen. Tresna horiek zehazten zituzten xedapen eta ebazpenak, Torres Errazkinek aipatutakoak, erakunde probintzialei igortzen zaizkio berriz ere. Horrela, 1797ko abenduaren 12 eta 17an, 1797ko azaroan eta 1796ko abenduan gaizkileen jazarpenerako Gaztelako Kontseiluak emandako ebazpenak onartu ziren Aldundian.

Lehendabizikoari dagokionez, 1793ko azaroan alkateei zuzendutako deialdia errepikatzen zuela esan dezakegu. Aldundiak eskatzen zena Foruen aurkakoa ez dela aitortu arren, oso ohar garrantzitsua erantsi zion foru-baimenari, onarpen honek ez zuela minoien patruila handitzeko urte bereko Batzarrak eskatutako ardoaren gaineko zergarako baimena ezabatzen edo bertan behera uzten[485].

Bigarrenari dagokionez, gaizkileak harrapatzeko soldatapeko auzoko boluntarioekin osatutako Partidak sortzeko plana eta araudia jasotzen zituen[486].

Onartzeak, jakina, ez zuen esan nahi praktikan jartzea. Torres Errazkinek berak komunikazioak aintzat ez hartzeko eta berriz ere Kontseiluari zergari buruzko baiezkoa eskatzeko aholkatzen dio Aldundiari. Erabili beharreko argudioen artean, Kontseiluaren neurrien egokitasun eta eraginkortasun eza, Aldundiaren Patruila

---

[485] Gorago aipatua izan dena. TUA: E 6 III 1 1: *"...la Carta-orden precedente del Supremo Consejo de Castilla, en que recordando la Circular expedida en veinte de noviembre de 1793, se excita el zelo de las justicias del Reyno a la aprehension de malhechores...Reconocido que su tenor no se opone a los referidos nuestros Fueros, la damos uso, para que por lo que a ellos toco se cumpla...entendiendose sin perjuicio del recurso que en virtud de Acuerdo de la última Junta General tenemos pendiente en el mismo Consejo a fin de que se nos concede el arbitrio de un maravedi en azumbre de vino para la manutencion de la Patrulla de Miñones que pensamos aumentar".*

[486] TUA: "*Plan para la formación de partidas de paysanos voluntarios pagados, que se dediquen a la persecucion de malhechores. Instruccion para el gobierno de las partidas de Paysanos voluntarios, con destino a la persecución y arresto de malhechores.*"

finantzatzeko modu merkea eta gipuzkoar guztiek honekiko erakutsitako adostasuna aurkitzen dugu[487].

Torres Errazkin eta Aldundiaren artean agertutako beste argudio bat ejerzitoaren jardunari atxikitutako gehiegikeriak ditugu, soldaduek inolako irizpiderik gabe atxiloketak eta miaketak egingo zituztelakoan. Hauek ere, Aldundiak iragarri bezala, berehala agertu ziren, armadako partaideek eta Erakunde Probintzialek ez baitzuten berdin ikusten egunero jende xumeak Lapurdi eta Gipuzkoaren artean egin ohi zituen merkatal tratuen eta kontrabandoen arteko muga. Gainera, ejerzitoaren ekintza hauek ez ziren gertakizun isolatutzat hartzen. Izan ere, Ahaldunak gogoratu bezala, Drouhotek berak ere bere iritzia eta iradokizunak helarazten zituen Kontseilura, Probintziak garatutako egitasmoaren aurkakoak zirenak.

Hortaz, mikeleteen finantzaketaren geldotasuna, jazarpenareko ebazpen orokorrak bidali izatea eta ejerzitoaren jarduna, hiru urrats hauek, nahita jarritako oztopoak ditugu Probintziaren garapen politikoan, bereziki ordena publikoaren antolaketan. Aldundiak, oztopotzat ez ezik, Foruen aurkako erasotzat joko ditu. Probintziak bere burua tirokatua (sic) izaten ari dela eta Foruak zein gainontzeko arauak Munstro baten erasoaldiaren menpean daudela dio. Hau da: XVIII. mendearen erdialdean Probintzia erasotzen zuen Munstroa matxinoengan gorpuzten bazen, mendearen bukaeran Munstro (ala Leviatan?) hori Erregearen kontseilari eta ordezkari batzuengana haragiztatzen zen: foraltasuna akatu eta erresuma bateratua diseinatzen ari zirenak[488].

---

[487] "*desentendiendose VS de este dictamen, disponga una representacion para el Consejo...exponiendo que haze tanto tiempo remitio VS un testimoni del acuerdo celebrado para el establecimiento de la citada Patrulla [de miqueletes]... se halla hasta ahora sin resolucion. Y por quanto se agraban de dia en dia las causas en tales terminos que no solamente son sorprendidos los naturales y transehuntes sino que llega ya la audacioa al punto de haver interceptado varias veces a los correos conductores de la mala, sin que sea bastantes para contener estos males las providencias tomadas por el Consejo. Y como por otra parte la tranquilidad del Pais y la seguridad de los viajantes se puede lograr por un medio tan suave e imperzeptible como el de un marabedi en cada azumbre de vino que se consuma, con que estan conformes todos los naturales y desean con ansia el proyectado establecimiento, que suplica VS al consejo se digne a la maior vrevedad aprovar el referido acuerdo...por mas que la ha reflexionado no halla medio mas equitativo mas pronto ni mas eficaz que lo acordado para cortar de raiz un daño embexecido con las reliquias de los malhechores que quedaron desde que estubo el exercito en el Pais.*"

[488] GAO: JD CO 55. Lehen aipatu dugun 1798ko ekainaren 13ko eskutitzean hala jakinarazi zion Ogasun Idazkaria zen Francisco Saavedrari. "*Nada mas sensible para mi que molestar la atencion de SM y sus sabios y rectos ministros con frequentes y repetidos recursos, pero tampoco hay cosa mas precisa a este*

Konbentzioko gerrak moztu zuen debatearen maila berreskuratua da, Aldundiak mikeleteak eztabaidan gehitu dituela. Une honetan, beraz, mikeleteen afera ordena publikoaren zaintzari dagokion arazoa ez ezik, kutsu politiko nabarmena duen eztabaida dugu. Jokoan jarri dena ez da soilik funtzio polizialak betetzen zituen talde armadun baten etorkizuna, Probintziaren eta Erresumaren arteko harreman mota baizik.

*pobre y esteril Pays sino ha de experimentar su total ruina, que el hecharse a los pies del trono y buscar la proteccion de un Rey Padre, quando a cada paso se ve atacado de los tiros de la emulacion que procuran a toda costa desacreditarle y destruirle los Fueros y exempciones que goza desde su origen y que llebo en dote al tiempo de su feliz union con la corona de Castilla. Estos mismos Fueros y exempciones...son el blanco en que quiebra sus saetas aquel Monstruo que no cesa de combatirle. Parece que por lo mismo que los Soberanos Monarcas de España se empeñan en mantenerme aquella franqueza tan necesaria para mi subistencia, los Jueces Territoriales y Ministros inferiores hacen todo el esfuerzo posbile en contrario.*"

### 3.1 Tradizioaren bide berria.

Kontseiluak, eta militarrek, jarritako oztopoak gaindiezinak zirelakoan[489], Ahaldun Nagusia izandako Jose Soroak oso hausnarketa luzea plazaratu zuen 1798ko Batzarretan[490]. Luzea eta, hein batean, harrigarria, Ahaldun ohiak mikeleteak bertan behera uztea eskatzen zuelako.

Bere ustetan, eskumenen arteko lehiak mikeleteen bidea ixten zuen, ordena publikoaren zaintza Foruaren eta tradizioaren barruan bideratu behar baitzen. Gainera, mikeleteek lortutako emaitzak ez ziren aski gastatutako dirua zuritzeko; batez ere hainbat alkatek lortutako emaitzekin alderatuz gero: "*de los muchos arrestos que se han hecho mientras existe la partida de miñones, mui poco y de poca consideración es lo que debe VS a estos, en comparación del merito que han tenido en ello las justicias, quando por otra parte el coste de la manutención de aquellos y las gratificaciones que han exigido quando han hecho alguna diligencia de conducción de reos han aniquilado la depositaria del tercio en tales terminos que ha havido que recurrir hasta dos veces en este año a la de la contribución fogueral*". Lardizabal Oriar eta Manuel Antonio Gamon aipatzen zituen bereziki bere laudorioan ("*han sobresalido en el celo y la vigilancia a este importante obgeto publico*"). Hauen grinak gainontzeko tokiko agintarientzako adibide izan behar zuela aldarrikatzen zuen, beren lanari esker bideetan ematen ziren liskar eta lapurren oihartzunak desagertuak ziren eta.

Arlo honetan Aldundiari zor zitzaion eskubidea eta nagusitasuna babesteko, Ermandadeko Alkateek eta Ermandadeko Prozedurak berreskuratzea proposatzen

---

489 Torres Errazkinek proposatutako helegitearen ezaugarriak zailtasun honen lekuko dira: "*hacer un recurso hablando con el mismo consejo en los mismo terminos que habla el oficio remitido por VS y poniendo un carta en pliego para el escribano de camara, previniendole de la inclusión para que de cuenta en el consejo. Y sino bastara poner la representacion para el consejo y en el sobrescrito "Al Real y Supremo de Castilla por mano de Don Bartolomé Muñoz de la Torre", que de este modo abrira el oficio y leera su contenido en el Consejo. Si los escribanos de camara de Gobierno fuesen tan autorizados como los Secretarios de Camara de Castilla y Patronatos y Consejo de Guerra, podria correr el oficio, por que los que se dirigen a ellos corren con los respectivos expedientes, pero con los escribanos de camara solo se entienden los cuerpos, quando de orden del consejo comunican alguna providencia, contestando por la misma via queda enterados de ella*".

490 GAO: JD AM 149. Uztailaren 5ean aurkeztuta, Soroaren agiriak ekainaren 30eko data zuen.

zuen, Arabak egin antzera[491]. Horrela, betiere Soroaren esanetan, Gipuzkoaren Foru eta Konstituzioaren barruan arituko ziren Kontseiluaren onespena bilatze aldera, gai honetaz arduratuko zen komisioak arreta berezia jarri eta Korrejidorearen laguntza aintzat hartu beharko zuelarik eskaera idazteko tenorean[492].

Bere irtenbidearen balizko arrakasta argudiatzeko, Ermandadeko alkatearen kargua beteko luketenen grina eta arreta azpimarratzen du, biak mikeleteen indarra eta "*cabo*" baten nortasuna baino eraginkorragoak zirelakoan.

Praktikotasunari begira, Ermandadeko Alkateari lauzpabost laguntzaile egokitzea beharrezkoa ikusten zuen. Aldiz, hauen soldatak pagatzeko, baita atxilotuen elikadura eta ofizioz aritzeak zekarren gastuak ordaintzeko ere, mikeleteentzako aurreikusia zegoen ardoaren gaineko zerga erabiltzea proposatzen zuen. Antolakuntza mota honen bidez Ermandadeko Alkateen ereduan mikeleteen hainbat ezaugarri txertatzen zirela iruditzen zaigu. Izan ere, laguntzaile horiek mikeleteen antza handia zuten, eta, taldeko burua aginte tradizionaleari lotutako pertsonaia izan arren, bere eraginkortasuna ez zetzan ospean, laguntzaileek beraiek bermatzen zuten indarrean baizik. Horregatik, ezkutuko mikelete partida baino, Ermandadeko sistemaren Forudun erreforma baten aurrean gaudela ematen du, Ermandadeko alkateen gabeziak gainditu, Ermandadeko prozedura gaurkotu eta mikeleteen abantailak foraltasunez hornitu nahi duena.

---

491 Arabak Gipuzkoak baino lehen sortu zuen bere patruila: lehendabiziko koadrila, 33 lagunek osatuta, 1794ko urtarrilan, gorago hainbestetan aipatu dugun 1793ko azaroko errege ebazpenaren ildotik. Bigarrena, 1797ko urtarrilan, eztabaidatsua izan arren Soroaren diskurtso honen garaian indarrean zirauena. Izan ere, ugariak izan ziren gai honi buruz Arabako ordezkarien arteko hika-mikak. Halere, alkate eta minoiekin batera, Araban Ermandadeko Alkateak ere aritzen zirela ematen du, bide hau izanik, hain zuzen ere, Soroak azpimarratu nahi zuena.
Arabako minoiei buruz: VAL, Venancio del: *El cuerpo foral de Miñones en Alava.* Gasteiz: Aldundia, 1992. MARTIN LATORRE, Peli: *Los Miñones en Alava. Minoiak Araban.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1998.

492 "*en terminos que no hallase reparo en el consejo. Para lo qual y acordar lo demas conducente a fin de que se eviten las insufribles dilaciones que con tanto daño de los intereses de VS ocasiona a la administración de la justicia el estancamiento de las causas que se remiten al crimen de Valladolid, sin duda por lo recargado de asuntos que se halla aquel tribunal, pudiera aprovecharse la comision de las luces del caballero corregidor de VS que no respira sino celo hacia quanto pueda ceder en utilidad de la causa publica y vien de sus naturales*".

Soroak bestelako zehaztapenak ematen ditu ere, indar polizialen ahaleginak alferrik galduko ez badira. Horretarako, zigorrek eskatutako bortxazko lanak urrun burutu beharrean, Probintzian bertan eta oin-bilurrez lotuta gauzatzeko eskatzen du. Izenak eta ospeak hain garrantzi handia zuten gizarte batean herritarren begien aurrean zigorrak betetzea bigarren zigor bat izateaz gain, galdera honek zigorren eredugarritasuna aldarrikatzea bilatzen du, inolako zalantzarik gabe. Alta, zigorrak kanpoan betetzea ezinbestekoa izatekotan, Donostiako alkate Izquierdo Agirre jaunak jorratutako bide bera erabiltzea proposatzen zuen. Hau da: itsasoratu arte aginte militarren esku utzi, gordailuan, errege diru-iturrien kontura elikatzeko.

Batzar Nagusien aginduz argudio hauek aztertu zituen aditu taldeak gastu-eraginkortasun bilanari erreparatu zion. Honen arabera, Tornakuek eguneko kobratzen zituen 8 errealek, mikelete bakoitzeko 6ek, harrapaketengatik ordaintzen zen ontza urre sariak gehi presoen lekualdatzengatik ordaintzen zenak, urteko 20.000-24.000 erreal biltzen zituen. Ondorioz, emaitzak ikusirik, gastu honek ez zuen zuribiderik. Hori zela eta, Soroaren iradokizuna ontzat eman eta mikeleteak bertan behera uzteari ondo irizten diote. Aldi berean, ohi bezala, tokiko justiziek susmagarriak eta gaizkileak antzemateko grina areagotzeko eskatu behar zen. Susmagarritasunaren zantzuak, ostatuetan, ospe txarreko etxeetan eta tabernetan bilatzeaz gain, lana behar bezala egiten ez zutenengan antzeman behar ziren. Agindu hau Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenteria, Donostia, Hernani, Tolosa, Urretxu, Zumarraga, Bergara, Arrasate eta Gatzagako agintariei zuzentzen zitzaien bereziki; hots: Errege bidearen ondoan kokatzen ziren hibirildurik garrantzitsuenei gehi Donostiari. Arestian aipatu lehendabiziko lauek, gainera, elkarrekin eta modu koordinatu batean lan egin zezaten eskatzen zen.

Azkenik, gizartearen etsai den jende mota (sic) honen jazarpena pizteko, txostenaren sinatzaileek atxilotutako lapur bakoitzarengatik ontza urre sariari eusteko eskatzen zioten Aldundiari, betiere ordaintzearen komenigarritasuna erakunde Probintzialaren esku utziz. Batzar Nagusiek txosten hau onartu, eta Tornakueri minoiak etxeratzeko agintzeko eskatuko zuen.

### 3.2 Ermandadearen baliabideen aldarrikapena

Soroak 98an eginiko eskaeraren ildotik, 1800eko Batzar Nagusian Ermandadearen bidea berreskuratzeko egokitasuna jorratuko da berriz. Honekin batera, arlo kriminaleko justizia konpontzeko beharra eta Aldundia-Korrejimenduaren egoitza Tolosan finkatzeko egokitasunaren ingurukoak eztabaidaren parte bihurtuko dira.

Funtsean, justizia kriminalaren alde guztiak –atxiloketak egitetik zigorrak gauzatzera arte– Aldundiak zuzendutako sistema eta antolakuntzaren barruan egotea eta, era berean, auziak azkar, merke eta era egokian bukatzea dugu eztabaida honetan bilatzen zena. Esan bezala, eta Probintziaren oin eratzale ala konstituzionala den heinean, Ermandadeko prozeduran aurkituko omen dituzte egoera zuzentzeko baliabideak: "*el remedio de estos males y la causa de tales bienes en el procedimiento que sirve de obgeto a una buena parte de sus Leyes constitucionales; procedimiento que...obra maravillosos efectos en una de las Provincias vecinas y, finalmente, procedimiento cuio restablecimiento debe por lo mismo ser la idea y el fin de nuestra propuesta.*".

Prozedura horren bertsio berritua bezain egokia topatzeko, 1765ean Alzolarasek eta Oro-Miotak prestatutako jardunbideari begiratu diote, gorago plazaratu dugun bezala, 1782-84 bitartean egokitu zen berari. 1784ko estrategia, ordea, okertzat jotzen da, Fiskaltzaren aurkako elegite bat korrejimenduarengana zuzentzerakoan prozeduraren erabilgarritasuna ezeztatuko zukeelakoan Probintziak bere asmoa bertan behera utzi baitzuen orduan.

1796an, baina, Arabak eginikoa eredutzat hartuz, Ermandadearen aldarrikapena berreskuratua zen. 96ko Batzar honek aditu talde bat osatu zuen auzi kriminalak ofizioz nola jorratu zehazteko, justizia ezartzea eta dirukutxaren egoera tamalgarria bateragarriak egiteko asmoz. Joakin Antonio Elizaga, Sebastian Antonio Errazu, Joakin Antonio Mendizabal Lizentziatua eta Mateo Heriz Lizentziatuak osatzen zuten taldeak, 97ko uztailean aurkeztu zuten bere hausnarketaren emaitza

Aldundian, 43 atalez osatutako txosten baten bidez[493]. Honen arabera, eta azken berrogeita hamar urteko jarduera aztertu eta gero, Batzarrak plazaratzen zituen kezkak gainditu ahal izateko Ermandadeko bidea berreskuratzea zen, hain zuzen ere, irtenbiderik egokiena. Ekonomikoki bideragarriak ziren epaiketak osatzearekin batera, prozedura hau gaizkileak ezabatzeko modurik eraginkorren eta azkarrentzat jotzen zuten. Azkartasunak, gainera, badaezpadako atxiloketaren epeak murrizterakoan presoen bizi-baldintzak gordinak arintzen zituen, eta, era berean, zigorra une eta epe egokietan betetzea bermatuko zuen[494]. Honen ildotik, aditu talde honek presoen bizi-baldintzen inguruko kezka sakona plazaratzen du, kalteordaina baino espetxealdia presoen izaera basapizti batena bilakatzeko modurik errazena zelakoan.

Gainera, aditu hauek Foruak berak proposatutako 31. Kapitulua 3. Titulua eta Gehigarriaren 2. Kapituluaren 3. Titulua ekartzen dituzte aditzera. Xedapen hauekin, korrejimenduaren lana baztergarria litzateke, Ermandaderako gordeta zeuden ekintzetan alkate arrunten parte-hartzea onargarri eta eztabaidaezina bihurtuz[495]. Probintziak aurreneko prozesuan argudio hau aurkeztu gabe utzi bazuen ere, helegite moduan agertzeko eta Ermandadearen prozedura berabiatzeko aukera egokia ikusten zuten taldekide hauek.

Beraz, 1800ean Aldundiaren menpean mamitzen ari zen antolaketa honen oinak lau urte lehenago prestatutako berak ziren, Soroak 98an defendititutako bera eta bere sustraiak berrogeita bost urte atzerago bota ziren, nahiz eta orain Probintziako sistema judizial osoa garatu ahal izateko Foruek ematen zuten babesa ezinbestekoa izan[496]:

---

[493] GAO: JD IM 3 1 22. Zalantzarik gabe, txosten hau dugu Jose Soroaren diskurtsoaren funtsa.

[494] "*El Curso de Hermandad pues a mas de ser un pronto y eficaz modo de castigarse a los delincuentes con grande aorra de costas, lleba embebido en si al mismo tiempo el mas util y provechoso medio de contenr y esterminar la maldad...Otro hau todavia tan recomendable como qualquiera de ellos, y es el alivio de los reos. Al paso que puestos con brevedad en sus respectivos destinos, estan pagando la pena merecida por sus delitos y dando la debida sastisfaccion a la vindicta publica*".

[495] Ekintza hauek zehazten dira: edozein diru-lapurreta herri kaskoan egina baina lapurra landa eremura ihes egina; lapurreta lortzeko edozein hilketa ala zauri mota; elizetan edo toki sakratuetan gauzatu edozein lapurreta; alkatearen eta bere ordezko ala laguntzaileen aurkako edozein eraso; gaizkileak aterpetzea. Lehendabiziko aipuan, landa eremua ihes egitearena aldatzea proposatzen da.

[496] GAO: JD IM 3 11 23 eta JD AJI 6, 1. 1800ko uztailaren 8an Azkoitian Juan Antonio Olazabal, Jose Maria Lardizabal Oriar, Fernando Izquierdo, Jose Inazio Gamon, Juan Manuel Gazteluzar, Jose Maria Soroa Soroa, Juan Bautista Alzaga, Ramon Maria Moya lizentziatua eta Inazio Ibero lizentziatuak

- ***Atxiloketak gauzatu eta epaiketa bideratzea: Ermandadeko alkateen ardura***. Zazpi alkate, lau laguntzailerekin bakoitzeko. Alkateen ezaugarrien artean tradiziozko eta tokiko agintearen ordezkaria izatea aipatzen bada ere, bigarren mailako baldintza dela ematen du (*"ademas de ser personas de representacion"*), konpromisoa eta prestutasuna gehiago azpimarratzen baitira. Batzar Nagusiek izendatuak.
- ***Presoen zaintza: Probintziako espetxe nagusia.*** Aldundia-Korrejimenduaren egoitzan bertan. Gizalegeak (*sic*) preso bakoitzeko

---

sinatuta. *"El que se restablezca el nombramiento de los siete alcaldes y curso de hermandad, conforme al espíritu de sus fueros y el que en esta provincia se adopte el metodo que en la de Alaba, en quanto a que la diputación general entienda en el conocimiento de las causas criminales, teniendo una carcel general en que reciba los reos, que se vayan remitiendo por las justicias, admitiendo tambien y continuando las causas en su juzgado. Estos son los medios que se creen necesarios, para que se logren los importantes objetos a que se aspira.*

*Nosotros adherimos a ello, y lo consideramos tanto mas oportuno, quanto por este medio advertimos que puede estar en continuo ejercicio la jurisdicción que compete a VS en este ramo, la misma que administrada por nuestros mayores en las epocas anteriores conservo a este pais con la brillantez que le ha sido característica. Por lo mismo, y haviendo servido de guia a la provincia de Alaba la conducta de aquellos para los establecimientos utilies y economicos que la gobiernan en esta parte, juzgamos que en el dia no debe quedarnos mas sino el sentimiento de havernos separado de tan ilustre ejemplo, y arreglar por consiguiente la nuestra al nivel de la de Alaba, convencidos enteramente de los gravísimos daños que ha causado a VS esta separación.*

*El nombramiento de los siete alcaldes de hermandad, repartidos proporcionalmente por todo el distrito de VS, consideramos convendría hacerse en sus juntas generales, echando mano para estos empleos de sujetos de educación, que sepan conocer la importancia de su buen desempeño, y que además de ser personas de representación, se hallen en edad y disposición de poder sufrir qualquiera fatiga que se ofrezca.*

*Nos parece tambien conveniente que una vez que se pusiese corriente el juzgado de la Diputación para la sustantacion de causas, el ministerio de dichos alcaldes pudiera reducirse en esta parte, solo a prender y formar sumaria a los reos, con la calidad de remitirlos a la diputación con el proceso en sumario, luego que resulten ser delinquentes los arrestados, y procediendo en ello acumulativamente con las justicias ordinarias.*

*No menos indispensable que se solicite la sisa del maravedí en cada azumbre de vino, acordada por VS en la junta ultima de Azpeytia y ratificada en la siguiente de Zarauz, con aplicación a este ramo. Su importe se pudiera invertir tan utilmente como lo insinuo a VS el señor Soroa en su exposición a la misma junta de Zarauz....Por este medio pudiera tener cada alcalde de hermandad quatro mozos de satisfacción, ágiles, y provistos de armas y municiones, para los casos que se ofreciesen y para prestar auxilio a las justicias ordinarias, siempre que se les pidiese. Pudiera tener un real de vellón de diario fijo cada mozo, y además de estar destinados para las fatigas que se ofrezcan en la prisión y arresto de malhechores, pudieran servir para quando hubiese que hacer traslaciones de reos, ya a las carceles de la diputación, ya quando deben ser conducidos al presidio o castillo de San Sebastián, abonándoseles 8 o 10 reales vellon respectivamente cada dia de estos de fatiga, con lo que podría economizarse mucho en este punto, pues por no haber un arreglo establecido, ha costado a VS sobre tres mil reales este año ultimo la conducción de quatro reos de Segura y Beasain a San Sebastián.*

*Auxiliados de esta fuerza, pudieran lo alcaldes de hermandad, ya entendiéndose entre sí, o ya con orden de la Diputación, darse el "Santo", para dejarse caer a un tiempo en ciertos puntos sospechosos, y aseguramos a VS que estas visitas, aun quando no surtiesen el efecto de prender y arrestar sospechosos y malhechores, causarian a lo menos el de dar cuidado a estos y que no se paseasen en el territorio de VS tan impune y escandalosamente como lo representa la justicia de Beasain."*

eguneko egokitu erreala erreal eta erdi ala bi erreal bihurtzeko tenorea dela adierazten zuela gaineratzen da.

- ***Epaiketak: Aldundia.*** *"Juzgado de la Diputación"*. Ermandadeko Prozeduraren bitartez. Arabak egin bezala, tokiko epaileek bide honi ez atxikitzekotan, prozedura-gastuak ez lirateke aintzat hartuko.
- ***Presoak leku-aldatzea: Ermandadeko alkateen laguntzaileak.*** Garraiotze hauek izugarrizko gastuak sortarazten zituzten ordura arte.
- ***Finantzaketa: ardoaren gaineko zerga***. Halere, egitasmoa hau abiatu arte, sisaren gaineko marabedi bat ezartzea aurrikusten da.

Honen ildotik, baina, 1801eko Batzarrean beste ikuspuntu bat islatuko da, Errenteriko ordezkariak aurkeztuta, tokiko agintarien lana eta hauek abiatutako prozedura aldarrikatzen zuena. Bere esanetan, gaizkileen atxiloketa, punizioa eta zigor-betetzea bermatzeko eta aurreratzeko tokian-tokiko prozedura kriminalak ezinbestekoa zen. Ondorioz, 1801eko Batzar honek 1800ean plazaratu ziren helburuak eta bideak berrestearekin batera, Oreretako alkateek erakutsitako adorea sustatzeko eta jarrera hori eredugarri bilakatzeko, Aldundiari diru-kopuru bereziak egokitzeko eskatu zion, batetik auziperatze horiek bermatzeko eta, bestetik, beste herrietan sor litezkeen gastu judizialak ere aintzat hartzeko. Honekin guztiarekin batera, gastuak handitu gabe Bizkaia eta Arabarekiko preso-trukaketa arautzeko borondatea erakusten zen[497].

Errenteriako ordezkariek plazaratu zuten kezka honek 98an Soroak berak botatako laudorioekin egiten zuen bat, arestian aipatu duguna eta hala Gamondarrak nola Lardizabal Oriar hizpide zituena. Mikeleteen lanaren emaitzak alkateek izandako arrakastarekiko alderatuz gero, Soroak egin bezala, Ahaldun Nagusiak Patruilaren

---

[497] GAO: AJI 6, 2: "*diputación quede encargada de activar los recursos para obtener la facultad de la imposición de un maravedí de sisa para los fines acordados por la ultima junta general. Que por la multitud de causas de oficio y reos presos en las carceles de la villa de Renteria y en atención a los particulares esmeros de la justicia de aquel pueblo en este objeto de tan grave consideración y demas circunstancias especiales que se han tenido presentes, se libren en el donativo siete mil reales para el seguimiento de dichas causas. Que para acreditar a los demas juzgados ordinarios el deseo que anima a esta provincia de asistirles en este ramo, interin se verifica la concesión de la real facultad para la imposición de un maravedí de sisa, se paguen las costas de las causas rematadas por su respectiva antelación del primer repartimiento en la compañía de Filipinas, conforme al acuerdo de la ultima junta, o de los 50.000 reales que existen en la tesoreria general en vales reales*"

gainean egindako kritika ez zela guztiz okerra onartu behar dugu. Behintzat, talde honek bere ekimenez aurrera eraman zituen ekintzak urriak izan zirela pentsarazten digute mikeleteek utzitako aztarnek, bere lana agindutakoa betetzeari mugatu baitzen. Agian haiek egote hutsa aski zen gaizkileak uxatzeko, baina, zalantzarik gabe, 95etik aurrera alkateek egindako lana segitu beharrean gaude Gipuzkoako agintariak horren gogor aztoratu zituzten maltzurkeria handien berri izateko. Agintarien ardura hau guztiz da ulergarria. Batetik, mikeleteak izan ezean Gipuzkoako arduradunek Probintziako antolaketa politiko orokorra Gaztelako kontselarien aurrean zuritzerakoan ezinbestekoa zutelako barruko ordena zuzen eramatea, bere gaitasunaren erakusle gisa eta militarren esku-hartzea saihesteko. Bestetik, lapurrek mehatxupean zuten Errege Bidea Gipuzkoako ilustrazioaren egitasmorik kutunetakoa zelako; Gipuzkoa herritarren ama baldin bazen, bide hau aita genuen, Probintziaren antzutasuna garaitzeko komertzioaren bidez ernaltzen zuena.

Lardizabali dagokionez, Tolosako buru bezala zabaldutako grina guztiz agerikoa izan zen. Izan ere, Tolosako alkatetzat gazte guztiak norbaitek helduta egon behar zutela, eta alferkeria lurraldetik egotzi behar zela esan eta gero, zazpi edo zortzi gazte tolosar itsas-armadara bidali edo aprendiz bezala jartzea proposatzen zuen. Aldundiak ideia eskertzearekin batera, Arrasaten ireki berria zen altzairu lantegian edo Pasaiako itsasontzietan erroldatzen saiatuko dela erantzun zion[498]. Era berean, Tolosako espetxeen zaintza ezagatik gertatzen ziren ihesaldiak medio, bertako arduradunak Donostiako presondegi militarrera bidaltzen saiatuko da, 1797an, Valladolidek isuna batekin baino zigortu ez bazuen ere[499].

Gamondarrek, berriz, egundoko giza-uxaldiak zuzendu zituzten, mikeleteen laguntzarik gabe, eskualdean aritzen ziren lapurrak atxilotze eta zigortze aldera. Batzuetan, oso ekintza praktikoak antolatzen dituzte. Adibidez, 1801ean bertan Jose Inazio Gamonek eskualdeko herrietako auzolana eskatu zuen, bakoitzak proportzionalki bidalitako gizonei esker (hogei lagun Hernani, Astigarraga, Errenteria, Lezo eta Altzak; berrogei Oiartzunek) Astigarragako Tablako Errekatik Oiartzungo

[498] GAO: JD CO 53 eta 55, JD DD 81, 1. Gainera, umezurtzak Ferroleko ontzioletan trebatzeko saio bat iragartzen du Aldundiak.
[499] GAO: JD IM 3 14 135.

Ardituri bitarteko Errege Bideko ertzetako sastraka garbitzeko, lapurren ezkutalekuak ezabatze aldera[500].

Besteetan, aldiz, jarrera politiko zehatz baten bitartez. Lehen Aldundiari Valladolideko Entzutegiari aurre egiteko eskatzen edo alkateen lanaren balioa eta eskumena Batzarretan zein militarren aurrean aldarrikatzen ikusi ditugu. 1801eko azaroan, berriz, Korrejidorearen eta Aldundiaren egoitzak Tolosan finkatzeko eta honekin batera goi-mailako segurtasun espetxeak eraikitzeko eskatuko dute, betiere lapur eta bizimodu okerrak zigortzeko eta Zeutako zein Melillako presondegietan ematen ziren ihesaldiak saiheste aldera: "*La villa de Renteria hace presente la necesidad de que permanezca en la villa de Tolosa la Diputazion y Gobierno de la Provincia de Guipuzcoa, asi para el establecimiento de carceles seguras en donde se pongan los ladrones y gentes de malvivir para su con digno castigo* [sic], *como para otros objetos importantes del Real Servicio*"[501].

Hortaz, Ermandadeko araudi berrituarekin batera, eta berrikuntza gauzatu bitartean, alkateen kemena erabagarria suertatzen zen ordena publikoa mantendu ahal izateko eta, ondorioz, arau-hausleak zigortzeko.

Jarduera honetan, gainera eta mikeleteekin gertatu bezala, Koroaren ordezkari juridiko eta militarrekin egingo dute topo, gizarte kontrol oldarkorra hedatzeko lehiaren beste atal batean bete-betean sartuz.

---

[500] GAO: JD CO 53.

[501] Bartolome Agirrek Zeutatik ihes egin eta gero jorratu txostena da. AHN (Espainia): Consejos, 12748. Sinatzaileak: Jose Inazio Gamon, Juan Bautista Portu, Franzisko Errazkin, Juan Antonio Gamon, Roke Aranalde eta Manuel Antonio Gamon.

### 3.3 Lapur profesionalak eta alkateak aurrez aurre[502].

Gamondarrek aukera paregabeak izan zituzten Probintziari eta gizarte-ordenari bere atxikimendua erakusteko, bere eskumena bidelapurrek lehenetsitako gunea izan zen eta. Astigarraga eta Oreretaren arteko mugan kokatzen den Benta Berri-Intxuzagako aldapa toki estrategikoa zen lapurretak burutzeko, Baiona-Pasaia-Donostiaren ardatzaren aurkitzen zelako eta, era berean, hiri guneetatik aldenduta zegoelako. Sasoi honetan gauzatu lapurreta handiek hala ematen dute aditzera.

Inguru honetan aritutako lehen talde esanguratsuaren inguruan, gainera, Gerraren eragina, alkateen lana eta jazarpenerako baliabideak, sistema ekonomikoaren krisialdia, gizarteratze tradizionalaren porrota, mikeleteen bigarren mailako zereginak, espetxe sistema baten eza, Errege Bidearen garrantzi eta ahuldadea,... osagai guztiak batzen dira. Asaltoaren data bera, esate baterako, guztiz da delikatua: 97ko urria, mikeleteentzako plan berria eratu eta gero beraz[503].

Lapurreta jasan zutenak merkatari portugaldar batzuk ditugu, kortsario batzuen asaltoa jasan eta gero Bordeletik Lisboara zihoazenak[504]. Lehorrean pairatutako asalto berri honetan, bost lagunek hartu zuten parte eta, aurpegiak estalita, bidearen bi norabideak itxi zituzten. Tarte horretan bidean geldiaraziak izan

---

[502] Lapurretarik nabarmenenak jasotzen dituen taula eranskinean ikus daiteke. Baita ere lerro hauek idaztean moldiztegian dagoen ondoko liburuan: ZAPIRAIN, David: *Bandoleros vascos.* Donostia: Ttarttalo, 2006.

[503] GAO: JD CO 55. 97ko irailean, esate baterako, Aldundira iritsi eta bere gain hartuko dituen auziperatze gastuen artean:

- Tolosa: Juan Migel Amiamaren aurka, xapiak lapurtzeagatik. Albizturko Isidro Arrue, hiru apaizi lapurtzeagatik.
- Gaintza: Franzisko Garmendiaren aurka, alferra eta kontrabandista.
- Aia: Maria Jesus Aizpurua, lapurreta txikiak eta espetxetik ihes eginda.
- Errenteria: Asensio Huizi eta Goizuetako Juan Bautista Apeztegia, idiak lapurtzeagatik.

98ko urtarrilean:

- Tolosa: Antonio Goikoetxea, lapurra, eta Matias Elizondo, espetxetik ihes eginda.

Martxoan, berriz:

- Berastegi: lapurrek baserri batean lapurtzerakoan Maria Madalena Sanjuanena hil zuten.
- Amezketa: Jose Joakin Elosta, alferra.

Eta ekainean:

- Amezketa: Etondo baserrian izandako lapurreta.

[504] Errenteriako Udal Artxibategia (EUA): E 7 II 18-2 eta 19-3. Lapurreta honi buruzko informazio gehiago: Felipe MAYA URRUTICOECHEA: “Vidas azarosas a finales del siglo XVIII”. *Oarso, 21 (1989).* 36-38. David ZAPIRAIN KARRIKA, Juan Carlos MORA AFAN: *Guerra y cirisis: 1795, Gipuzkoa tras la Paz de Basilea*. Zumalakarregi Museoaren 1995eko Beka, argitaratu gabea.

zirenek ez zuten inolako irain ala lapurreta jasan, erasoaren helburu zehatza eta bakarra merkatari portugaldarrek osatzen zuten seinale garbia. Erlojuak, harribitxiak, armak, arropa eta diru-kopuru handi batez jabetu eta gero, lapurrek ihes egin zuten Añarbetik Leitzarantz.

Ekintzaren ikusgarritasunetik haratago, asaltoan nabarmendu zen Juan Jose Mendia tolosarrari esker gertakizun honek Gipuzkoa irentsita zeukan zurrunbiloaren irudi ezin hobea ematen digu. Mendiaren bizitzak baserrien buruzagitzatik aldenduek bazterketaren bidean nola erortzen ziren islatzen du, baita aginte tradizional gizarteratzailearen jardunbidea eta porrota ere. Azken prozesu honetan, alkateak bere bi aurpegi erakutsiko dizkigu: Etxeko ordenaren zuzentzailearena bezala, gizarte kontrol tradizionalaren buruarena; eta Gipuzkoako proiektuaren jagole moduan gizarte kontrol oldarkorraren eragilearena.

Mendiaren gurasoek 1790ean topatu zuten semearekiko lehendabiziko elkarbizitzako arazoak. Etxean estutu ezinean eta anai-arrebekiko liskarrak saiheste aldera, semearen atxiloketa eskatu zuten, Oran-eko ejerzitora bidaltzeko, portaera zuzentzeko asmoz. Aldiz, azken unean etsi zuten, lau hilabeteko espetxealdia bide onean sartzeko aski izango zirelakoan. Eztabaida hauen guztien atzetik, baserrien seniparteak eta ondasun banaketa zegoen, Mendiak adieraziko lukeen moduan. Bera ez zetorren bat egindako banaketarekin eta gurasoek ostatuan zeukaten posta negozioa ez zen errentagarria gerra bukatu eta gero. Hortaz, Mendiak berak kontatzen digu Gipuzkoako gizarte-egituraren hutsuneak non zeuden eta hutsune horiek bera irentsi zutela.

Dena den, 96an semea atxilotzeko beste bi alditan eskatu behar izan zuten Mendiaren gurasoek, oraingo honetan itsas-armadara bidaltzeko. Lehendabiziko eskaeraren haritik, Mendia Ferrolera izan zen bidalia, bidean alde egin eta etxera bueltatu bazen ere; bigarrenean, bere amak atera zuen ziegatik, ezkontza negoziatu eta honek bide onean jarriko zuelakoan: ezkonduta eta amaren laguntzaz, mandatuak eginez eta, batez ere, xaboia saltzen atera behar zuen bizimodua. Bistan da, sendia gehi

ezkontza gehi lana pilatuz, gizarteratze tradizionalaren ekuazioa osatu nahi zuela Mendiaren amak.

Mendiaren bizimodu berria, aldiz, ez zen Tolosako alkate Jose Maria Lardizabal Oriarren gustokoa izan, honek alfer, susmagarri eta Probintzian ematen ari ziren lapurretako partaidetzat du-eta Mendia, bere etxean beste susmagarri batzuk aterpetzen zituela gaineratuz. Lardizabalek ba omen ditu hainbat lekuko Mendiaren ahotan zera jartzen zutenek: "*que con dos hombres que hubiere tenido era bastante para ponerse rico para siempre y separarse de los bagamundos porque un obispo o Arzobispo de Francia llevaba mas de dos arrobas de oro y era bastante salir al camino de Lizarza*". Honek, gainera, bazterketaren barruan nolabaiteko mailaketa zegoela ematen digu aditzera, bidelapurra izatea arlote hutsa izatea baino gehiago zela dirudi eta[505].

Ondorioz, Lardizabalek, mikeleteen buru Tornakuek lagunduta, zigorgabetasuna eskainiko dio Mendiari salatari bihurtzearen truke[506]. Hasiera batean elkarlan hau ondo bideratuta ematen zuen, Mendiak Gipuzkoan aritzen ziren lapur nagusien nortasunak[507] eta Baiona bilgune nagusia zutela konfirmatu ondoren. Ondorioz, Mendiaren partaidetzarekin segada bat prestatu zuten, lapur ospetsu hauek Albizturren atzemateko. Amarru hau, berriz, ez zen ongi irten, bigarren aldiz saiatu arren. Hortaz, Mendia eta beste susmagarri batzuk atxilotuak izan ziren. Mendiarekin

[505] Hauen artean aipatzen direnak: Joakin Imaz, bere garaian oso ospetsua izan eta Sigenan gertatutako lapurretako partaide bat, Miguel Romero, "Txonbo-Cebadero de Hernani" zein "Frantses zapatagiletxoa" –azken hau Kaderezar "Frantses txikia" da-.
Honetaz gain, Tornakuek Villabonako Agaraitz burdinolatik gertu harrapatu omen zuen behin Mendia, txakur eta karabina batekin zelatan zegoen bitartean.
Aragoiko Monegros-etan dagoen Sigenako monastegian izandako lapurreta handia da goian aipatutakoa.
[506] Berriz ere Forondaren itzala?.
[507] Mendiaren arabera hauek lirateke lapurrik esanguratsuenak: Joakin Hernanikoa, Julian Ganuza "Txonbo-Cebadero", Miguel Romero, Azkona eta Aralarko santutegia asaltatu zutenetako bi lagun. Asalto honi buruzko koplak Aita Donostiak jaso zituen; Florencio Idoatek ere honen berri eman zuen. Azkenik, guk geuk datu berriren bat aurkitu dugu. Ikusi, besteak beste:
- AITA DONOSTIA: "Canción popular referente a un robo de la imagen de San Miguel de Excelsis". *Homenaje a don Julio de Urquijo... T. I.* Donostia: Museo de San Telmo, 1949-1951. (*Número extraordinario del BRSAP*).
- IDOATE, Florencio: *Rincones de la Historia de Navarra.* Iruñea: EUNSA, 1954.
- ZAPIRAIN KARRIKA, David: *Bandoleros vascos.* Donostia: Ttarttalo, 2006 (moldiztegian).

batera Baionatik etorritakoak ziren hauek, baina Gipuzkoan izandako lapurreta nagusietan nahasturik zeudenik ez du ematen[508].

Lardizabalen zuzendaritzapean giltzaperatuak gelditzen diren hauek Oreretako ziegan bertako alkateen ekimenez atxilotuak zeuden beste lapur batzuekin elkartuko dira[509]. Bat egite honek eta auziaren osaketa hainbat urtez luzatzeak izugarrizko segurtasun arazoa sortuko du; espetxea asaltatzeko eta presoak askatzeko helburu duen talde armatu bat inguruan zebilela zabalduko dute zurrumurruek. Ondorioz, 98ko otsailean espetxea zaintzeko troparen laguntza eta Motako gotorlekura lekualdatzeko mikeleteen eta soldaduena eskatuko da.

Lekualdetzeak auziperatuen bizibaldintzak nabarmen okertzea ekarri zuen eta hau, era berean, 22 presok burutu ihesaldian erabakiorra izan zela uste dugu. Ihesaldiak ez zuen luze jo, eta bizimodua are gordinago ezarri zitzaien. Horregatik, presoek Aldundiaren laguntza idatziz eskatuko dute, troparen gehiegikeria giza-legearen aurkakoa izateaz gain, gipuzkoar izaeraren aurkakoa ere badela argudiatuz. Beti fusilen mehatxupean eta burdinei loturik, ez jateko berorik, ez surik, ez argirik ezta euskaraz mintzatzerik ere bizi zirela esaten dute, tratu duina lortze aldera, Gipuzkoak bere ardura bete edo Valladolidera bidaltzeko eskatuz eta, egoera konpondu ezean, haiek gara lezaketen edozein motatako ekintza zilegia izango zela aurreratuz: *"Lo principal es que nosotros semos presos de esta Noble Provincia y para que nos mande la tropa, no pudiendo mandar, que se nos conduzca a la Sala de Valladolid, que es nuestra capital. Y de lo contrario esta expuesto, tratanto tan inhumanamente como nos tratan, hacer quanto el hombre pueda pensar. Y asi esperamos en el caritativo corazon de V.S. se dignaran tomar una justicia como Dios manda"*[510].

---

[508] Ez behintzat guztiak. Aipatzen direnak hauexek ditugu: Miguel Romero, Julian Ganuza, Jose Ramon Olazagutia, Julian "aragones" desertorea, Ignacio Rodriguez eta Francisco Torres. Ez daude, beraz, ez Txorat, Frantsesttipia, Imaz edo Azkona bezalako lapur profesionalak.

[509] Besteak beste, Antonio Agirre "cesterillo" ospetsua. Gorago jasotako korrejidorearen adierazpenetan, 97ko abenduan eginak, lapur honen espetxeratzeagatik bere poza agertzen zuen. Errege-garraio bat erasotu omen zuen Alcobendasen, besteak beste. Eta diru asko gordeta zuela jakina omen zen.

[510] Ihesaldiaren eta presoek duintasunez bizitzeko eta euskaraz mintzatzeko aldarrikatzen zuten eskaeraren berri izateko (GAO: JD IM 3 15 5. 98ko abuztuan Ahaldun Nagusiei igorrita) ikusi ZAPIRAIN, MORA: *op.cit.* Dena den, bere aldarriari esker, arropa maiztasunez garbitzea eta lotarako koltxoi batzuk lortuko dute.

Eskatzen zuten justizia, bederen, fiskalaren aldetik jaso zuten, nahiz eta honek zigorraren gorena ezartzea eskatuko duen: heriotza-zigorra, hain zuzen ere. Biztanle guztien ziurtasun eta lasaitasuna bermatzeko zigor eredugarri bat beharrezkoa zela argudiatzen du fiskalak, zoriontasun publikarako beharrezkoak ziren bideak arriskuan jarrita zeudelako (*sic*. Errege Bidea, alegia) eta lapur talde honek herritarren artean beldurra zabaldu duelako[511].

Abokatuaren esanetan, berriz, auziperatuek ez dute inoiz inolako banda antolaturik osatu. Gazte hauek lan egiteko parada izan dutenean, tajuz eta ondo egin dute, eta Baionara joan-etorriak lan-baldintzak hobetzeko edo salmentarako gaien bila egiten zirela adierazten du. Bere esanetan, lapurretan parte hartu dutela frogatu gabe dago, batzuen errugabetasuna agerikoa izanik; eta hala egin izan bazuten, gaztetasunak, pobreziak eta gerrak sortutako miseriak bultzatuta izan da: "*solo pudo consistir en su indegencia, y falta de prontos medios dimanada de las desgracias de la ultima guerra con la Francia*".

Beraz, lapurreta ez zuten bizimodua, noizean behin erabiltzen zen uneko baliabide bat baizik. Gerraren eraginarekin batera, Mendiarengan aurkitzen genituen ezaugarri batzuk besteengan ere topatuko ditugu, ondoko koadroan agertu bezala. Hau da: etxeko babes egituratik aldenduak eta aldi baterako langileak izatea. Horrekin batera, ejerzitoan eskarmentu izatea ala, alderantziz, desertorea izatea agertzen da ere.

[511] *"salteadores de caminos publicos y famosos ladrones...que han tenido y tienen aterrados a todos los habitantes que no se atrevian a exponer sus personas y caudales precisos para el trafico y sus necesidades".*

**Juan Jose Mendia**. Tolosakoa. 30 urte. Perratzailea, bere aitak kudeatzen zuen ostatu-postan. Ezkondu eta gero, xaboi saltzailea.

**Julian Ganuza**, "*Txonbo*". Iruñea. 26 urte. Kotxe gidaria. Hernanin egindako lanagatik "*Cebadero*" ere du goitizen. Desertorea.

**Julian aragoiarra.** Desertorea. 30 bat urte.

**Ramon Olazagutia**. Ibero. 28 urte. Albaitar eta perratzaile.

**Miguel Romero**. Griegos (Albarracin-Teruel). 25 urte. Nekazari izateari utzi eta tokiz-tokiko saltzaile: Baionako judutarrei erosi eta Tolosan, Arrasaten, Bilbon, Gasteizen... saldu.

**Inazio Rodriguez**. Badajoz. 35 urte. 17 urtez ejerzitoan ibilia. Albizturren ezkonduta. Zaldiarekin garraioak egiten ditu; baita ere oiloak saldu.

**Franzisko Torres**. Bilbo. 20 urte. Manuela Zubizarretarekin Baionara egin du ihes, familiek ez baitute ezkontza onartzen.

**Antonio Agirre**, "*Cesterillo*". Mendaro, Bilbon ezkonduta. 37 urte. Zestagilea. Baionan bere emazteak saldu egiten duen arropa, trukean urdaia erosten. Alconbendas-en Erregearen dirua garraiotzen zituen orgak asaltatzea leporatzen zaio.

Nahiz eta heriotz zigorra gauzatu ez, ezarriko zaizkien zigorrek, auziperatuak talde antolatu baten partaideak zirela emango dute aintzat, betiere eredugarritasuna helburu. Asaltoa bost lagunek burutu arren, zortzi dira zigortuak, eta ez nolanahi gainera. Dena den, Valladolideko Entzutegiak epaia zuzenduko du, zigorrak bigunduz. Azkenik, herriko aguazil Juan Bautista Burrutxagak eramango ditu auziperatuak Valladolidera[512].

Mendia eta enparauen aurkako prozesua garatzen zen bitartean, Gamondarrek beste auzi bat abiatu zuten. Benta Berri – Intxuzagan, oraingoan ere, izandako beste lapurreta batetik tira, Oreretako alkatetzak Pasaiako kaiatik Oiartzun bitartean aritzen zen lapur talde bat eta bere inguruan antolatutako sarea desegingo du. Taldearen buruzagitza "Migel baztandarra" ala "Migel Txanogorria"ri egokitzen zitzaion. Ezizen honen atzean, Pedro Sebastian Etxeberria dugu, ustez kortsario bezala itsasoratzeko prest zegoen gazte talde baten partaide eta buru zena. Gazte nafar eta gipuzkoar hauek, baina, hainbat lapurreta burutzeari ekin zion. Horretarako, esan bezala, eskualdeko hainbat biztanleen laguntza izan zutelarik, bai lapurretak gauzatzeko bai eta galdera gehiegi egin gabe aterpea emateko ere. Intxuzagan, Arizabalo etxean eta beste hainbat tokitan gertatu lapurretaren ondorioz, Gamondarrek soldaduen laguntza eskatu eta atxiloketa ugari burutu zuten. Guztira 21 lagun auziperatu zuten Altzan, Pasaia, Oreretan eta Oiartzunen. Akusatzaileek hiru lapurreta leporatuko dio taldeari, nahiz eta denetan guztiek parte hartu ez.

Auziperatuen abokatu defendatzaileak Gamondarren gehiegikeriak salatuko ditu, pilota partida bat ikustera joan izana bizimodu okerraren froga eztabaidaezina zela esatea gehiegi esatea zelakoan, adibidez[513]. Alkateak, berriz, oso harro agertzen da burutu lanarekin; azken taldekidea atxilotzearekin batera, esate baterako, pakea ezarri

[512] 98. urtearen azken egunean Juan Bautista Portu alkateak ondoko zigorrak ezarri zituen: Torres, 8 urtez Zeutara; Ganuza eta Romero, 10 urtez Filipenetara, eta zortzina urte Mendia Olazagutia eta oraindik libre zegoen "Aragones" zelakoarentzat; Rodriguez eta Agirre, berriz, 2 urtez Melillara. Valladolideko ebazpena 99ko apirilean.

[513] Eta ez hori bakarrik: "*Una imaginaria complicación que por mero antojo ha encaminado el promotor fiscal contra mis partes relativas a un robo de generos perpetrado en la villa del Pasaje ha sido la causa para las vejaciones extraordinarias e inauditas que han sufrido unos padres de familia nobles acendados y de los mas honrrados de este recintos. Si se reconoce el proceso con alguna detencion se notara el desacierto con que asesta sus tiros el promotor fiscal*".

duela iragarriko du. Honen ildotik, Oreretako alkatetzak 7 taldekide bidaliko ditu Zeutako presondegira. Gainontzekoak, aldiz, desterruarekin eta isunekin zigortuko ditu. Hala eta guztiz ere, Valladolideko Entzutegiak epaia beste behin ere zuzenduko du. Batetik, Zeutako presondegian eman beharreko urteak mailatuko ditu, zigor batzuk leunduz eta burututako lapurreta kopuruaren arabera neurtuz; bestetik, desterruak isunekin ordezkatuko ditu, eta bereziki handia suertatu den epaiketaren gastuak bermatzeko eskatuko dio Oreretari[514].

Neurri hauekin, bost urtez luzatuko den arazoa sortuko da. Alkatetzak ez du isunak kobratzen lortuko, eta epaiketaren gastuak ordaintzeko Aldundiaren laguntza eskatuko du behin eta berriz. Ondorioz, Valladolidek, 1.000 dukateko isunarekin zigortuko ditu Gamon anaiak.

Gamondarrek eta herriko gainontzeko alkateek bere lanaren aldarrikapena egingo dute behin eta berriz, bost urte horietan zehar zenbat atxiloketa burutu, zenbat lagun epaitu eta zenbat lagun zigortu dituzten gogoratuz. Bidelapurren artean izua zabaldu dutela eta, ondorioz, mehatxupean bizi behar direla esaten dute. Hortaz, bere agintea gutxitzea eta, gainera, isunekin zigortzea, biziki mingarria egiteaz gain, alkateen lana gutxitzea ekarriko duela uste dute: "*La particular actividad de esta justicia ordinaria, que ha merecido los aplausos que se saven en el publico, en punto tan importante al real servicio y a la tranquilidad del Pais, no necesitan de pruevas mas recomendables que las frecuentes comisiones que nos ha conferido VS a los dos hermanos, aun sin estar en actual exercicio de los empleos de alcaldes, las que prestan los mismo autos de estos procedimientos, la voz difundida del terror de los malhechores con estos castigos que para preservarse de tanto mal devieran ser mas severos y el odio que nos tienen a los dos los malhechores, empeñados por voz publica a asesinarnos…hasta…estar en nuestras casas prevenidos con una docena de vocas de fuego para prevenir insultos...ha de resfriarse precisamente el celo de las justicias, se han de retraer los alcaldes de su districto del actual empeño de la persecucion de los muchos facinerosos que cada vez van en aumento y de esto han de seguirse forzosamente consecuencias las mas*

[514] Preso hauek zigorra betetzera eramatea, Burrutxagaren lana izango da ere bai.

*lamentables*". Gamondarrak hiltzeko hiri kaskoan prestatu omen diren saioaz gain, bidelapurrak ariketa militarrak egiten dituztela ere salatzen da, besteak beste[515].

Gamondarren konpromezu mailarik gorena, dena den, "Giñi"ren aurka eman zela uste dugu, eta lehen eskatu duten zigorren gogortzea berehala jarriko duten abian. Bidelapur honen aurka garatu zuten jazarpena ia ia arazo pertsonal moduan uler daiteke. Esan behar dugu ere, "Giñi"ren laguntzailerik fidelena Bartolome Agirre izango dela, Etxeberria baztandarrarekin aritua eta zigortua baina Zeutako presondegitik ihes egin ondoren Pasaia eta Orereta aldea itzuli zena[516].

Gamon anaiek 1800. urteko urrian atxilotu zuten berriz Agirre, eta hurrengo hilabetean "Giñi" harrapatu. Hauek askatzeko bere lagunek burutu saioak ugari izan zirela esan dezakegu, izan ere Nonbait, "Giñi" eta Agirre ez ziren bikote bezala aritu, beste laguntzaile batzuekin baizik, hauen artean nabarmen: Antonio Ustaritz, Jose Fermin Landan "Beltza" eta Migel Otermin. Denak nafartarrak, gazteak eta esku-langileak. Gainera, espetxean egon arren, hainbat merkatarik "Giñi"ri eskupekoa pasatzen zioten babestuak segitzeko[517].

Orereta ko agintariek "Giñi" Motara eramatea eskatu zuten, baina Donostiako komandante nagusia preso arriskutsu hauek hartzeari uko egingo dio. Soldadu eta

---

[515] GAO: JD IM 3 14 139. 1800ko irailaren idazkia. Manuel Antonio Gamonek sinatuta. *"piden distincion de partes para la resolucion que exige el nuevo Auto de la real sala del crimen, concevido en therminos los mas rigidos contra mi, sin mas causa de mi parte que la de un notorio singular celo al real servicio y a la seguridad publica, que esta expuesta mas que nunca en el dia a los mas tristes insultos por uno veinte vandidos, que tienen en la maior consternacion al Pais...Tal es la osadia de la quadrilla de salteadores...que nos rodean a corta distancia del cuerpo de esta villa, la qual parecer haver llegado a ultimo grado de la insolencia como que se me ha insinuado que uno de los dias pasado estavan siete de ellos a una legua de distancia...haciendo excercicio de armas..."*

[516] EUA: E 7 II 24-3. Gamon: "*se ha experimentado una frequente concurrencia de salteadores de caminos y gente facinerosa con diferentes robos en el real de coches a las cercanías de esta Villa"*. Isasa*: "que de unos dos meses a esta parte...han frequentado muchos salteadores de caminos...por cuia razon ha tenido el testigo que estar largo tiempo vigilante y armado en su casa desde la media noche en adelante...maiormente por haverse dicho que varios de los facinerosos se han introducido diversas veces en el cuerpo de la Villa*".

Bartolome Agirrek preso-katetik egin zuen ihes 1798an eta orduan Hernaniko alkateak harrapatu zuen. 1800eko irailean Zeutatik ihes egin berria, Gamondarren ekimenez Oreretako Kaputxinosen atxilotuko dute. Lagunak indarrez askatzen saituko dira, baina oraingo honetan 1803ra arte ez du lortuko ihes egitea.

Auzi honetan Aramako alkatearen etxean 1799an eta Markinako beste baserri batean lapurtu izana leporatu zioten "Giñi"ri.

[517] EUA: E 7 II 25-1.

mikeleteak ziega zaintzea lortuko du, ostera, baina saio ustel batzuen ondoren, Manuel Antonio Gamonek troparen utzikeriari egokituko dion ihesaldia gauzatuko du "Giñi"k 1802ko maiatzean gauzatutako ihesaldia. Hortaz, bera eta Bartolome Agirreren aurka emandako heriotz-zigorraren berri ihesean zebilela jakin zuen Ibargoinek. Epai hau urte horretako uztailan eman zen, Valladolidek 1803ko azaroan baieztatu zuelarik.

Halere, soldadu katalanek, baina, bere akatsa zuzendu ahal izan zuten, beste lapurreta baten ondoren Giñi atxilotu eta Motara eramanez[518]. Honek, izugarrizko nahastea sortu zuen, Oreretako alkatetzak "Giñi"ren zaintza aldarrikatzen zuelako, heriotza ezartzeko inolako zalantzarik gabe. Militarrek, berriz, beraien presoa zela eta alkateen aginduak ez zituztela betetzen argudiatzen zuten. Gironako soldadu buru zen Juan Francisco Vivesen jarrera Gaztelako Kontseiluaren babesa izango du, honek militarrek antzemandako bidelapurrak epaitegi militarrean juzkatuko direla jakinarazi zien-eta Batzar Nagusiei. Batzarrek, foru-baimena emango diote ebazpenari, baina betiere Foruen 3. eta 17. atalak aintzat hartuz, epaile arrunten eskumena gordez, helegiteak aurkezteko aukera gordez eta onespen hau Probintziak bizi zuen egoera larri eta berezia pasa bitartean baino ez zuela luzatuko iragarriz[519]. Azkenik, goi mailako instantzia juridikoek alkateen esku utzi zuten "Giñi", baina honek beste auzi bat sortu zuen, espetxealdiak sortutako gastuak kitatzea zeini zegokion argitze aldera. Hau argitu eta gero, 1804ko apirilean, "Giñi" eta Agirre hil egin zituzten Donostiako plazan "garrote"aren bidez eta Iruñeatik propio ekarritako borreroaren eskutan.

Hernaniko lapurretaz arduratzen zen fiskalak Gamondarren iritzi berekoa zen. Hain ezagunak egin diren hiru gizonak (Agirre, Giñi, Kaderezar) gizartetik behin betiko aldentzeko eskatzen du. Hau da, bidelapur profesionaltzat jotzen zituzten hirurak hiltza eskatzen zuen, bere bizimodua besteen ondasunak lapurtzen oinarritzen zituztelako: "*una reunion de delitos tan atroces...hasta el extremo de quitar de la sociedad unos hombres de quienes no puede esta prometerse ventaja alguna y puede justamente temer las catastrofes mas deplorables. ¿A que excesos...no se arrojaran unos hombres que detestan el*

[518] Agirrek berak 1803an egin zuen ihes, esan bezala, Beltzak eta beste lagun batekin batera. Hauek ere berehala izan ziren atzemanak.
[519] GAO: JD AM 154.

*trabajo y todo medio onesto de ganar su sustento, y que careciendo de bienes propios fundan su subsistencia en la posesion de lo ageno?... Tales son a lo menos los tres primeros, bien conocidos por sus nombres en este Pais"*[520]. Dena den, "Frantses txikia" ez zuten erail, nahiz eta atxilotua egon eta lapurreta ugari leporatuak izan[521]. Hortaz, "Giñi" eta Agirreren heriotza Gamondarren grinari esker eman zirela esan dezakegu, heriotza jotzen baitzuen bidelapurrak izutzeko biderik onena, Mendiarekin ere aitortu bezala.

**Pedro Kaderazar**, "*Frantsesttipia*". Mugerre. 29 urte. Zapatagile. Iruñean lan egindakoa. Konbentzioneko gerra eta gero, Madrilen igeltsero. Xapiak, larruak eta abar saltzen ditu. Desertorea.

**Jose Ibargoien**, "*Giñi*". Irun. 32 urte. Nekazari. Mikelete. Kortsario. Konbentzioneko gerran bolondres.

**Bartolome Agirre**. Urnieta. 26 urte. Zurgina. Bere ihesaldien artean, Zaragozako preso-kateatik eta Zeutako presondegitik burututakoak.

Lapur banden aroa, baina, ez zegoen amaituta gurean. Alderantziz, lapurreta gero eta ugariagoak ziren, batez ere mende berria hastearekin batera, eta gaizkileen lan eremua gero eta zabalagoa zela ematen du[522]. Gainera, Zaldibiko Urtsularren ikusi bezala, alkate guztiek ez zuten Gamondarren eta bere taldearen maila ematen. 1801ean Bulari zegokion kobraketaz arduratzen zen Pedro Antonio Urdanpilleta gasteiztarrak pairatu lapurreta ikusgarrian, esate baterako, Segurako alkatearen moteltasunak lapurrak gaizki identifikatzea eta, ondorioz, hauek ihes egitea ekarri zuen[523].

---

520 HerUA: E 7 III 22.
521 Melillan bete behar izan zuen 10 urteko zigorra.
522 GAO: JD IM 3 14 143, 145-147, 149-150, 156, 159, 168. Sorta hauetan alkateek lapurreten inguruan ekoiztutako txosten ugari jasotzen da, 1800-1808 bitartean.
523 GAO: CO CRI 1801-1, 1801-2, 1805-1. GAO: JD IM 3 14 145. Segurako alkateak zuzendu zuen talde honen jazarpena, auzoen laguntza armatuarekin. Era berean, Aldundiaren parte-hartzea eskatu zuen, lehen aipatu dugun Zabala komisarioaren bitartez. Dena den, oso ikerketa kaskarra burutu zuten, lapur talde hau beste batekin nahastuz. Azkenean, 1805ean Amezketako Ramon Orejari, Alegiako Zalakain anaiei eta Tolosako Domingo Aranburu "Galtxagorri"ri leporatuko zaie lapurreta, Ipar Euska Herriko beste bi ekintzaileekin batera. Jose Inazio Gamonen argibideak baliogarriak izan ziren. GAO: JD IM 3

**Ramon Oreja**. Amezketa. 21 urte. Nekazari.

**Franzisko Ugarte**. Berastegi. 35 urte. Burdinoletako langile. Alfer izateagatik Iruñean zigortua, ihes egin zuen.

**Franzisko Altuna.** Amezketa. 22 urte. Artzai eta nekazari. Desertorea.

**Pedro Antonio Egues**. Ibarra. Ikazkina.

Egoera are larriago omen zen Deba Garaiko bailaran, eskualde honen berri alkateen eskutik iritsi beharrean, Garagarza auzoko apaizaren idazki batzuen bidez egin baitzen ezaguna 1803. urtean[524]. Juan Bengoaren idazkiak, gainera, inoiz idatzitako gogorrenak iruditzen zaizkigu: bai alkateen utzikeria salatzerakoan aldera, bai eta bidelapurren gordinkeria plazaratzerakoan. Bengoa apaizak Aldundiaren esku hartzea eskatzen du, Gatzaga-Bergara bitarteko alkate guztien geldotasuna eskandalagarria baita. Besteak beste, Bengoa "***bandolero***" hitza erabiltzen du bailarako lapurrak deitzeko, hauen ausardia zigorgabetasunean, epaiketen gastu handietan eta herrietan aurkitzen zuten laguntza oinarritzen dela argudiatuz. Lapurrek berek Sierra Morenako lapurrak baino hobeagoak direla aldarrikatu omen dute. Bengoaren esanetan, berriz, Gipuzkoak emandako sasiko hauek ("*hijos espurios*") karibeak baino basatiagoak dira, Aramaioko botikaria hil izanak frogatzen zuen moduan. Ondorioz, atxiloketak egiteko sariak eskatzen ditu, jendeak lapurretak jazartzeko bide bakarra delakoan: "*la osadía y multitud de ladrones que infestan este contorno por la poca vigilancia de las justicias me impele a molestar la atención de vs con la suplica de que se digne mandar y estrechar a las justicias de Salinas, Escoriaza, Arechavaleta, Mondragon, Vergara a que hagan*

14 143. Ihesean zeuden hauek atzemateko saioek ez zuten etenik izan. Oreja, baina, Venezuelan zegoen, hasieran lanean baina gero berriz ere lapurretan; Galtzagorriri buruz, Ameriketan ala Santander inguruan zegoela esaten da; eta Zalakaindar bat edo beste ere Kastro Urdialesen omen zegoen. Azkenik, 1807an, korrejidoreak heriotza-zigorra ezarriko zien Oreja eta Aranbururi, eta Afrikan 10 urtez Zalakain anaiei. GAO: CO CRI 1801-1. Valladoliden bi urte beranduago berretsiko dena.

[524] GAO: JD IM 3 14 147.

*el ultimo esfuerzo en prender a toda persona sospechosa…ofreciendo premio suficiente a los prendedores de ladrones por ser este el unico medio de cogerlos, sin cuio aliciente nadie quiere exponerse a lidiar con ellos. Dicha multitud dimana del poco castigo que se les aplica a los bandoleros facinerosos y de que…el temor de los gastos que se originan a las republicas de la aprension de ellos muchas veces quedan estos impunes…estamos en una epoca en que los ladrones de esta pais son mas temibles que los caribes asi por sus crueldades como por la osadia con que roban casi con seguridad por los muchos encubridores y espias que tienen en los pueblos... los pueblos del territorio de vs inmediatos a la raia de Alaba por la parte de Leniz son el solar de ladrones como es publico y notorio en el arte de robar no les sucederan los mas famosos salteadores de sierramorena, según han manifestado en varios asaltos o latrocinios*".

Hilabete batzuk beranduago, Bengoaren eliza bera erasotu eta lapurtu egingo dute. Bengoak bere kexak errepikatu zituen, lapurrak ezagunak zirela eta lan egiten zuen jendeak baino askoz hobeto bizi eta jaten zutela salatuz. Oraingo honetan bere eskaerak arrakasta gehiago izan zuen, Arrasateko alkatearen zuzendaritzapean elkargo baten antzera osatua zegoen taldea ("*especie de compañía de ladrones que tenian formada en este pueblo y los de su circuito*") atzemango baitute[525].

Antzeko kritika luzatuko dute Probintziako alkateen gainean kanpoko beste erakundeetatik. Esate baterako, Gasteizko Postaren Administrariak Gipuzkoako alkateek lapurrak atxilotzeko erakusten zuten utzikeri nabarmena salatzeko eginiko adierazpenaren ildotik, Gipuzkoako tokiko justiziei kargu hartzen zien Errege Ebazpen bat helaraziz. Beste behin ere, Oreretako alkatetzak hartuko du salaketa bertan behera uzteko ardura. Izan ere, udalbatzaren aburuz, lapur-izurritearen iraupena ez datza haien ekintzetan –bestela aspaldian sendatutako gaitza izango zen honako hau–, jarraitzen den prozedura kriminal luze, garesti eta eraginik gabekoan baizik: "*Si solo dependiese del celo y actividad de la Provincia y sus Justicias el remedio de los frecuentes insultos y salteamientos con que varias quadrillas de facinerosos han tenido y tienen en la maior consternacion al Pais...mucho tiempo ha se hubiera disipado esta orrenda plaga...; pero es otra mui diversa la causa de esta unibersal desgracia, y ella sera inevitable sino se piensa*

[525] Arrasateko Juan Antonio Garcia, Juan Gomez del Rio, Javier Toral, Manuel Sagastizabal, Benito Mendizabal, Manuel Maria Altube; Aretxabaletako Franzisko Aranburu Zabala, eta Lino Uribe. Garcia atxilotu eta gero erori ziren besteak. Berak ematen du elkargoaren moduko deskribapena.

*pronta y seriamente en precauciones que exige un deshorden jamas hasta ahora esperimentado ni ohido en epoca alguna*".

Errege Kontseiluek ezarritako geldotasuna, beraz, zerikusi handia zuen Probintziako erakundeek adierazten zuten gabezietan. Espetxeak zaintzeko erabiltzen den tropak gastu hauek areagotzen ditu, baina bere lana oso zalantzazkoa da, auziperatuek berdin egiten dutelako ihes, bai herrietako ziegetatik, baita gotorleku militarretik ere. Era berean, oso gogor salatzen du Afrikako presondegietan zigortutakoek zein erraztasun eta azkartasunez egiten duten ihes, urtebete igaro baino lehen berriz Probintzian agertzen baitziren[526]. Hauek, jarraian, Baiona inguruan gorde eta okerkerietan amorruz bizirik murgiltzen dira. Azken bi urtetan Orereetak berak bidalitakoen artean hamahiru batek hala egin omen dute. Honek, bistan dena, alkateen indarra biziki ahultzen du.

Hortaz, udalbatza honek Gipuzkoako bozeramaile gisa aritu zela ematen du, lapurren gaiaren inguruan hausnarketa sakona aspaldian egina zuela erakutsiz, eta lapurrek ugaltzea duten erraztasunaren errudunak, agintarien gaitasun edo interes eza baino, Probintziari bere baliabideak garatzeko jartzen zaizkion oztopoak direla argudiatuz. Ondorioz, Batzar Nagusien eskaerak betetzeko eskatuko dute.

Bengoak berak onartzen zuen alkateen utzikeriaz gain epaiketek sortzen zituzten gastu handiek bazutela berebiziko eragina jarrera honetan. Hortaz, honek guztiak Ermandadeko eskumena gaurkotzeko Probintziak bultzatzen zuen saio tematia hobeto ulertzeko eta baloratzeko balio duela iruditzen zaigu. Espetxeen ziurtasun falta eta gogortasuna, zein epaiketen errebisioa Valladoliden berandutzea, egoera gehiago kaskartzen zuen, auziperatuak ihes egiteaz gain gero eta bortitzagoak bilakatu eta, ondorioz, gero eta izu gehiago zabaltzen zuten. Honen testigantza Beasaingo alkateak eman zuen 1801. urtean, beraz Gamondarren ekimenak gailurra zeuden bitartean Besaindik iristen ziren berriak oso bestelakoak ziren. Guztiz etsitzailea zen txostena herrian egindako asalto baten ostean bidali zion Aldundiari Beasaingo alkateak, bai baliabideen faltarengatik bai eta lapurren ugaritasunagatik ere

[526] Bartolome Agirreren aferarekin zerikusi zuzena duen argudia dugu.

jasanezina zen egoera deskribatuz eta lapurgintzaren jazarpenarekin zerikusia zuen oro erakunde probintzialaren esku utziz, egoera kontrolpean izateko bide bakarra Aldundiaren esku-hartze zuzena zela uste baitzuen: "*los muchos que se han echo en estas inmediaciones, los sustos y desdichas que han pasado los naturales de VS y los buenos perellanes que infestan su solar, con arto sentimiento suio y de los hijos que en todas partes aun las mas remotas del globo blasonan tener madre como VS... que es dejar correr impugnemente delitos y delincuetes y que los naturales de Vs y sus propiedades sean la proa de los facinerosos que tendran, como a sucedido en todo este año, al cura, al labrador y a todo havitante en un sobresalto continuo sin poderse acostar, descansar, ni hallar seguridad en ninguna parte*"[527].

[527] GAO: JD IM 3 14 143.

## 4. EGOERA TRABATUA

Adostasun falta hau, gure ikerketaren gune zentrala den gizarte kontrolaren moldean hedatzen jarraitu zuela esan behar dugu. Mikeleteak finantzatzeko bidearen gaineko betoak Aldundiak Foruaren babesa omen zuen Ermandadeko prozedura berritzeari eta alkateen ardura sustatzeari ekinarazi ziola esan, ikusi eta berretsi egin dugu jada.

Honek, aldiz, ez zuen ezertan aldatzen militarren bidez Gortea zabaltzen ari zen indar armatuen jarrera. Gaztelako Kontseiluak gizarte kontrol oldarkorraren zuzendaritzari eusten jarraituko du irmo. Hortaz, Aldundiak bere bide propioa segitzeko borondatea erakusten du ere . Umezurtzen eta Emakumezkoen espetxerako araudiak, esate baterako, 1803ko Batzarretan onartu zituzten. Bestalde, zigor-betetze arrakastatsuetan bihurtzen diren atxiloketak saritzeko beti prest agertzen da; adibidez 1803an bost urte lehenago atxilotutako Ramon Oreja eta Franzisko Ugarteren aferan, edo 1805ean Ferrolera bidali eta hiru urte lehenago atzeman zuten Leon Zubizarretaren auzian[528]. Baina, batez ere, herriko alkateak ez ezik Probintziako zuzendari nagusienen artean kokatu ahal ditugun agintariek eginiko lana guztiz funtsezkoa izango da. Beste behin ere Lardizabal Oriar zein Gamon anaien bultzadak, esate baterako, etengabekoak izan zirela gogoratu behar dugu.

Honekin batera, Probintziako erakundeek bere proiektu propioa garatzeko ezinbestekotzat jotzen zuten ardoaren gaineko zergaren auzia argitzeko eginiko saiakerak ugariak izan ziren oso. 1804. urtean itxaropen-izpi bat ikusten zela ematen du, Gortean Probintziak duen ordezkariaren esanetan, baina hau ere ustelduko da. Honek, Ermandadearen prozesuaren berrestea gertu ikusten zuen, baina eskaera hau zergarena eta Korrejidorea gehiago ez bidaltzearenarekin azaltzeak ez du erantzuna ahalbideratzen.

Auzi honen blokeatze eta betikotzeak militarren hedapena zilegi bihurtzeko parada eskainiko du. Aldundiak, beste tresnarik ezean, komandanteak lapurrak

[528] Hortaz, bere anaiek egindako eskaera, lehenago jaso duguna, alferrikakoa izan zen.

jazartzeko bost talde soldadu hedatzea eskertu beharko du, arestian aipatu ditugun eta ematen ez diren erantzunen zain zegoela alor honetaz indar guztiekin arduratzeko. Probintziako herriak, berriz, ez dira hain diplomatikoak soldaduek sortzen dituzten gastuak nola ordaindu ez dakitelako eta sortuko dituzten iskanbilak guztiz kaltegarriak direlako, 1804 eta 1805eko Aldundiko eta Batzarretako aktek jasotzen duten moduan[529]. Aldundiak ere alkateei luzatuko die deia behin baino gehiagotan, baina Probintziako gaitasun ekonomikorako bide ez ematekoan dei hauek alferrikakoak direla aitortuz[530].

Harritzekoa bada ere, XIX. mendearen hasieran guztiz bigarren mailako eragile bihurtu den korrejidoreak zeharkako eta uneko laguntza luzatuko die Probintziako herriei 1804ko batzarretan, gaizkile talde zehatz baten jazarpena ordaintzeko herrietako ondasun propioak erabili ahal izatea Ordiziak, Lazkaok, Beasainek eta Zaldibiak elkarrekin aurkeztutako proposamena onartuz eta bide hori segitu nahi duten guztiei irekiz[531].

Egoera honek sortzen zuen giroa 1805eko Batzarretan laburbilduko da, prozedura kriminalaren gastuak ordaintzeko adierazten den ezintasunaren ildotik. Txostenaren egileek gai honetaz arduratzean nahastea eta izua baino ez zutela nozitu aitortzen dute haien hausnarketaren hasieran. Ez soilik ardura honi uko egin nahi ziotelako, baizik eta Probintzian bizi diren gertakizunak oso latzak eta beldurgarriak direlako[532]. Hau ilustratzeko, Beasaingo baserri batean gertatukoa ekartzen dute gogora, bertan jazotakoa lapurren ohiko jokamoldea delakoan: "*Entraron pues cinco hombres con armas de fuego, sorprendiendo en la cozina a dos hombres, una muger y tres hijos que tenian robustos y no niños. Ataron a todos, les pusieron guardas, tomaron dos de la mano a la muger, que por preliminar dieron una puñalada en el muslo, la trageron reconociendo cuantas arcas y rincones tenia la casa, hasta que cayo accidentada, y llenó de sangre toda la*

[529] GAO: JD AM 156, 157. Adibidez, Hernanik ez du soldaduentzako egoitzarik atondu nahi; Arrasatek fakturak nola kitatu jakin nahi du; Astigarragak ez ditu hartu nahi; Ordizia kezkati oso agertzen da,...
[530] GAO: JD AM 157. 1806ko ekaina.
[531] GAO: JD AM 156. Pascual Rodriguez Arellano korrejidorea.
[532] GAO: JD AM 157. "*este es un asunto que solo considerar sobre él nos llena de confusion y espanto*". Ramon Antonio Goibidetak, Juan Bautista Andonaegik, Jose Hilarion Maizek eta Juan Bautista Amiliabiak elkarrekin sinatutako txostenean. Gai honekin arduratzea inposaketa bat izan zela azpimarratzen dute, bere borondatearen kontra izendatuak izan ziren eta.

*casa. No contentos con todas estas crueldades, la llevaron a la cocina, rompieron un banco, hicieron fuego, hecharon por tres vezes a el, se la quemaron parte de las ropas, y esto a presencia de su amado marido, queridos hijos y del criado, que era su hermano... "*.

Honetaz gain, preso dauden bidelapurrek, haien artean ustez erasoaldi honetan aritutako hiruk, agintariek baino gehiago dakitela eta zelatatuak baino haiek direla alkateak eta gainontzekoak zelatatzen dituztenak esaten dute, agintariek inolako baliabiderik ez dutelako: "*hay entre ellos planes del modo de conducirse en las declaraciones, robos y demas maldades... han llegado a decir repetidas veces que ellos saben mas que VS y sus justicias, porque están sin energia alguna por falta de caudales*".

Adierazpen hauek oso mingarriak izan dira, baina era berean, alkateen harrotasuna pizteko balio omen dutela ematen du, txostenaren egileek, beste behin ere, tokiko agintarien lana eraginkorra dela aldarrikatzen dutelako: "*no han pensado bien hasta donde llega la autoridad de las justicias, pues apenas reunidas algunas de estas, hanhacho copaturar a varios de los capataces, se han mitigado los robos*". Alta, alkateen artean damua zabaldu da, bere lana alferrikakoa dela ikusirik zenbat ordaindu behar den prozesuak iraun bitartean; esate baterako, auziperatuak elikatzen urrats guztiak bete bitartean –Gamondarren esanetan urte eta erdi pasa liteke Valladolideko erantzuna iritsi arte–. Hortaz, Aldundiak gastu hauek bereganatzeko ala herriek ordaintzen duten kopuruetatik murrizteko galdegingo diote.

Hortaz, finantzatzeko gaitasunarekin egiten dugu topo beste behin ere. Bidelapurrak gainditzeko prozedura hauek garatu eta gastuak kitatzea ezinbestekotzat jotzen zen eta. Ondorioz, beste behin ere, Batzarrak ardoaren gaineko zergaren afera argitzeko eskatuko dute[533].

Bi gune politikoen arteko adostasun faltaren ondorioz, 1805-1808 bitartean Probintziako ordena publikoa anabasa batean murgildurik agertzen zaigu. Honen adibiderik nagusiena, zalantzarik gabe, Urnieta eta Oiartzun bitartean gertatu zen lapurretaren inguruan kausitu zen. Oiartzungo eta Frantziako Inperioko

[533] Eta emakumezkoen gartzela martxan jartzeko antzeko zerga bat ahalbideratzeko ere bai.

Enbaxadorearen Postariak erasotuak izan eta gero, militarrek laguntzera gerturatu ziren auzokoak erasotzailetzat hartu eta elkarri tirokatzen hasi zirenean. Ondorioz, zauritu ugari eta hildako bat, gutxienez, gertatu zen[534].

Beraz, Probintziari ezarritako baliabideen faltaren ondorioz, auzokoak berak ziren zaintza eta jazarpen lanak egin behar zituztenak. Urnietan bezala, hala gertatu zen ere, esate baterako, 1806an Gallekun izandako lapurreta baten ostean, beste behin ere Iturriotz eta Etumetaren artean: Asteasuko alkateak eraman zituen laguntzailek armarik gabeko auzokoak izan ziren[535].

1805ean Idiazabalen 15 bat mandozainek pairatutako asaltoen ondoren, udalbatzak Aldundiaren laguntza eskatu behar izan zuen, kontrolik gabeko egoera bat deskribituz besten behin ere. Izan ere, ugariak izan ezik, lapur sortak osatzen zutenak oso odoltsuak omen ziren eta, Bengoak bi urte lehenago esandakoa berretsiz: "*exterminio y abolición entera de tantos hombres, sanguinarios que tenian en una continua agitación y zozobra la seguridad de todo este pais*". Ordea, beste baliabiderik ezean eta Arizabalo korrejidoreak urte batzuk lehenago egin antzera, oraingo honetan Aldundiak militarren parte-hartzea lortu zuela ematen du. Ondorioz, 1805-1807 bitartean Tolosan, Idiazabalen, Seguran eta Zegaman gutxienez 13 lagun izango dira atxilotuak[536].

XIX. mendearen hasieran, beraz, ordena publikoa mantentzea justizia sistema orokor batean txertatu eta gizarte kontrolaz zein zigor bideaz arduratu behar ziren talde eta erakunde berezien bitartez molde nagusi bezala hartzen baldin bazen ere, egoera politikoa eta erresumako antolaketaren eztabaida Probintziaren ekimenak erabat geldiarazten zituztela baieztatzen dugu.

---

[534] GAO: JD IM 3 14 156.

[535] GAO: JD IM 3 14 159. Hala eta guztiz ere, auzoko talde batek Amasa-Villabonako Martin Jose Elosegi atzematea lortuko du. Berarekin aritutako beste lagun batzuk Amasako Juan Bautista Beobide eta Girgillanoko Lorenzo Eraso ziren. Hurrengo urtean, Manuel Zalakain eta Bernardo Etxebertz "gitano francés" izango dira atxilotuak, betiere besteekin zuten loturengatik. Elosegiri dagokionez, 10 urtez Afrikan zigortuko dute.

[536] GAO: JD IM 3 14 156. Taldea deskribatzeko erabiltzen den hitza, oraingo honetan, "*gavilla*" da. Auzi honetan 1.300 orritik gora omen zuen espedientea osatu zen. 1806an atxilotuak zeudenak honako hauek ziren: Domingo Aldasoro, Franzisko Antonio Amundarain, Juan Inazio Rezola, Juan Inazio Albizu-Uribe, Juan Inazio Garmendia eta Jose Mendiaraz.

Funtzio polizialak bete behar zituzten tresnei begira, Probintziak bere zuzendaritza bakarra eta zuzenpean lurralde mailan eragindako talde armatuaren gaiaren defentsa bukatutzat eman beharrean, hasi baino ez dela egin esan behar dugu. 1808an abiatuko den gerraren atarian gaude, baina, eta aurreneko gudak egin bezala, gerra honek irteera puntura eramango du berriz ere eztabaida. Horrela, urte hauetan guztiz blokeatuta egon arren, XIX. mendean zehar Probintziak mikeleteak indarrean jartzea lortuko ditu, era askotan, helburu anitz eta, beste behin ere, Estatu Garaikidearen disenatzaileen gogoz kontra, 1844an Guardia Zibilaren hedapenarekin gertatu bezala.

Gure lana, baina, hemen bukatzen da, esan bezala, egoera berri baten hasieran gaudelakoan, gizarte kontrolerako molde tradizionalaren ondotik beste molde bat –gizartean jada mamitua zena– agerikoa dela uste baitugu.

*V. ONDORIOAK*

Lan honen bitartez egin nahi genuen ekarpena zein izango zen zehaztu dugunean, ikerketaren bidez pobreziaren eta honen gainean ezarritako babes/kontrol tresnen arteko lotura jarraitzeko asmoa iragarri dugu. Historiografian aurkitzen genuen hutsunea bete nahi genuen, gizarte kontrolaren ontzia eta honen edukiaren ezagutzaren bidez Gipuzkoako gizarte tradizionalaren egitura hobeto ezagutzeko asmoz. Ikuspuntu orokor honetan, gizarte kontrolaren arlo oldarkorra hautatu dugu ardatz bezala, gizakien jazarpenerako arrazoiak eta gizaki jazartuen beren ezaugarriak azalaraztean, eremu horretan sortzen edo moldatzen ziren erakundeek gauzatutako jarduerak gizarte egoera neurtzeko guztiz baliogarria izango zitzaizkigulakoan. Ikerketa "Gipuzkoa Etxea" deitu dugun egituran abaitu dugu, non komunitatetik besteratu gabeko gizarte kontrol gizarteratzailea nagusi agertzen zen. Gizarte kontrol mota honetan, tokiko elkartasuna eta baserriaren sistema kultural-ekonomikoaren gainetik eraikitako sarea sartuko genuke, betiere baliabide propioak kudeatzeko taldearen gaitasuna horrelakorik ahalbideratzen dituen heinean. Gizabanakoen balioa erakusteko eta gizabanakoak ataka estuetan mereziko lukeen babesa aldarrikatu ahal izateko, taldearen proiektuarekiko atxikimendua erakutsi beharko zen, taldea, sendia, auzoa edo Probintzia delarik. Atxikimendu honen arabera, Errukia-Laguntza edo Urkamendi-Zigorra egitasmoaren barruan geldituko dira egokituak gizabanakoak. Jokamolde gizarteratzailea etxez etxe eta hiribilduz hiribildu hedatu arren, gainezka azalduko zaigu XVII. mendean zehar. Bere ikur nagusienetakotzat har ditzakegun ospitaleen egoera eta hauen inguruko pasadizoak honen lekuko dira. Ospitaleek eskaintzen zuten abegikortasuna erreformatzerakoan, ordea, bide gizarteratzaileen parean oso bestelako diskurtso eraikitzen ikusi dugu, berehala modu berezitua, eta behar bada nagusian, garatuko dena: gizarte kontrolerako baliabide hertsatzailearen garapenarena, alegia. Horrela, XVIII. mendearen bukaeran, diskurtsoa guztiz bikoitza izango dela esan behar dugu, gizarte kontrolerako proiektu bakoitzak –Errukiak/Urkamendiak– bere bidea zedarritua izanik.

Garapen honetan, 1796an Gipuzkoak sortu zituen mikeleteak jartzen genuen gure jomugan, Erakunde probintzialak talde armatua, profesionala, berezitua eta gobernu gunetik zuzendua antolatzen zuen lehendabiziko aldia zelakoan. Horregatik, gure hipotesiaren oinean ekimen berritzaile gisa jotzen genuen gertaera hau

gertakizun historiko gisa jorratu eta eremu politiko gipuzkoarrean kokatu nahi genuen, indar poliziala, erakunde bezala, unibertsala edo naturala den hartu beharrean. Hau da: egungo gizarteak kontrolerako izan duen erakuslerik nagusiena, polizia erakundetua alegia, bilakaera baten ondorioa zela pentsatzen genuen. Ez, ordea, erakunde baten bilakaera, baizik eta gizartean ordena eta diziplina ezartzeko eskarmentuarena. Hau horrela zen ala ez erakusteko, ordura arte gizarte kontrolerako erabilitako tresnak azalarazi behar genituen, batzuen zein besteren arteko ezberdintasunak alderatu ahal izateko.

Ikusi dugun moduan, eta betiere Probintziaren mugen barruan, mikeleteek ez dute inolako aurrekari zuzenik, ordura arte gaizkileen jazarpenaren eskuduntza Lurralde osoaren eskumenean bere gain hartzen zuen talde berezitua eta profesionalizatua ez baitzen ezagutzen. Beraz, 1796ko irailean Gipuzkoako mikeleteen sorrera gertakizun guztiz berria zela berretsi ahal izan dugu.

Alabaina, honek ez zituen gizarte kontrolaren arlo oldarkorrean aritzen ziren eragile tradizionalak guztiz ordezkatzen. Eragile hauek jatorri anitza zuten. Batzuk, Probintziatik kanpo sustraitzen ziren eragileak ditugu, indar militarren modukoak. Beste batzuk, berriz, Aldundiak zuzenean izendatuak ziren. Berezienak, gure ikuspuntutik, atxiloketak gauzatzeko mandatu bereziak eskuratzen zituzten komisarioak izan ziren, nahiz eta mandatu hauek denbora tarte mugatuetan eman. Ohikoenak, aldiz, alkateak ditugu, alkatetzek ematen zieten zilegitasunean oinarrituta komunitatearen buru gisa aritzen zirenean, baina baita Probintzia osoaren ordezkari gisa aritzen zirenean ere. Gainera, gaizkile bezala kontzeptualizatuak izan zirenen jazarpenean bere seme gipuzkoarren parte-hartzea pizteko, Aldundiak berak beste bide batzuk bultzatu zituen. Honen adibiderik esanguratsuena, zalantzarik gabe, zigorrak bermatzen zituzten atxiloketa guztiak dirutan saritzea dugu.

Aldundiaren menpeko tresna hauek korrejidorearekin batera oso elkarlan interesgarria aurrera eraman zuten. Hala, XVIII. mendearen lehendabiziko hiru laurdenetan korrejidorearen esku-hartzea oso nabarmena izan zen, esate baterako, mende hasieran sistemaren buru zen Villegas korrejidorearena. Mende bukaeran,

berriz, Aldundiaren ordezkariak diren alkateak zuzen-zuzenean aritzen ikusiko ditugu, Valladoliden egingo diren zehaztapenen azpian badaude ere. Bigarren garai honetan, Probintziak ez du bilatuko korrejidorearen laguntza, erakunde hau gipuzkoarren esku gelditzen direnean baino ez baita elkarlana normaltasunez gorpuztuko. Honek, urteetan zehar agintarien estrategiak aldakorrak izan direla erakusten digu, egoera politikoarekin zein agintarien pertsonalitatearekin lotuta.

Alkateen bidezko gizarte kontrol oldarkorrak berehala hartuko du lurralde osoa jarduera gune gisa, baina, era berean, baliabideen egokitasun falta eta alkateen sistemaren gabeziak azkar gelditukо dira agerian. Horrela, Probintziaren barruko mugak direla, alkateen urteroko txandakatzea dela edota alkate-epaileak zirenen laguntzaile profesionalizatuen eza dela, alkateak lurralde osoan zehar ordena publikoari eusteko gai ez direnean, Erakunde probintzialak zuzentzen zituztenek indar armatu bereziak, probintzialak eta funtzio polizialak betetzen zituztenak antolatzeari ekingo diote, usuadiozko beste eragile horiek uzten zituzten hutsuneak betetzeko asmoarekin.

Esan bezala, baina, honek ez du esan nahi aldez aurretik jazarpena eta honen ondorengo zigorrak ezagutzen ez zirenik, jarduera errepresibo horiek betearaztea ordura arte lurraldeko ikuspuntu batean oinarritzen ez zela eta diskurtso propio eta orohartzaile baten zati ez zela baizik; alegia, kontrol oldarkorra ez zegoela "lurraldetua" (onartzen bazaigu hitza) edo probintzializatua. Horregatik, mikeleteen sorrera gizarte kontrolaren bilakaeran eta eraberritzearen barruan aurkeztu dugu, beste osagai batzuekin batera gizarte kontrol sistema orokorraren barnean eta giza talde zehatz baten historian txertatua, beraz. Izan ere, ikerlanaren aurkezpenean aurreratu dugun bezala, ez funtzionala zein instituzionala den ikuspuntua ez eta polizia eta gizartea parez-pare eta aldenduak hartzen dituena ez dira aski poliziaren historia ikertzeko.

Gipuzkoako mikelete taldearen historia Poliziaren Historiaren zati bat da eta, era berean, urrats bat Gipuzkoako administrazio garaikidearen historian. Horrelakorik martxan jartzea ez zen Gipuzkoako Nagusien asmakizun bat izan, gure probintzian

baino lehen ondoko herrialdeetan –gutxienez Bizkaian eta Araban, baina baita monarkiaren beste lurralde batzuetan ere– antzeko erantzunak abiatuak ziren eta. Baina, era berean, ez zen Historiaren hastapenetan sustraitzen zen talde bat ere. Horregatik, talde honek berarentzako finkatutako betebeharren bidez, bere sustatzaileei buruz hitz egiten digu, agintarien interesei erantzuteko sasoi jakin batean, arrazoi zehatz batzuk medio eta botere harremanenek finkatutako ingurune batean, sortu zen eta.

"Polizia" izena ez eramatearren ezin dugu ukatu mikeleteak "poliziak" zirenik: zuzendaritza zentralak koordinatutako taldea osatzen zuten; delituen inguruko informazioa jasotzen zuten; bortxazko ekintzak burutzeko zilegitasuna zuten; eskumen oso bat hartzen zuten bere gain; uniformedunak; profesionalak... Hala eta guztiz ere, *Polizia* hitzak, *politika* hitzaren parekoa izanik, kudeaketa ala administrazioa baino ez zuen esan nahi bere jatorrian. Gipuzkoako agintariek ezaguna zuten hitza, eta bere garaiko saiakera-idazleen antzera erabiltzen zuten, eguneroko bizitzaren arloak hobetzeko martxan jartzen ziren neurri administratiboak izendatzeko; adibide oso garbia 1792an dugu, Juan Jose Zuaznabarrek emakume presoen egoera aztertzeko Aldundiak plazaratu zion galderari erantzuteko "*Reglamento para la* ***policía general*** *de las mugeres condenadas a reclusión*" delakoa aurkeztu zuenean. Beraz, XVIII. mendearen bukaeran polizia hitzak ez zuen gaur ezagutzen diogun esanahi hertsi eta murriztua; ondorioz, Gipuzkoak segurtasun arloan hedatzen zuen indar armatua izendatzeko hitz hori ez erabiltzea guztiz logikoa da, bai ordea monarkiaren beste lurraldeetako Historian antzeko taldeak izendatzeko erabiltzen ziren deiturak hartzea, XVII. mendean sustraitzen zirenak.

Mikeleteen helburua bide-lapurrek sortzen zituzten kalteak borrokatzea zela argi gelditu da. Horretarako, Arlaban-Irun, ondorioz Baiona eta Gasteizekiko komunikabideekin, lotzen zituen kotxeen Errege Bidearen segurtasuna zaintzea eta bide honek bermatzen zituen merkatal tratuak babestea zuten lehentasun. Beraz, tresna honen bidez jabegoa eta merkataritzari begiratzen zitzaien. Hala eta guztiz ere, lehendabiziko talde honen partaideek ez zuten erakutsi Probintziaren proiektu politikoarekiko atxikimendu berezirik. Ez ziren herritarren eskubideen alde

borrokatzen zuten boluntarioak, ez eta gobernu eraberritutakoaren subjektu politiko eragileak. Jatorri xumea zuten, ia *lumpen*ekoa esan genezake, jazartzen zutenen erro bereko kimuak, eta, batzuetan, gaizkileengandik bereizteko zailak. Soldata eta lana edukitzea da Probintziaren gobernu politikoarekiko lotura bermatzen zuena.

Arlo politikoan, berriz, Probintziako lehendabiziko erakunde poliziala eratzean Aldundiak tokiko botereen gainetik bere eskumena hedatzeko eta, era berean, kanpoko laguntzarik gabe eskuduntzak garatzeko zuen gaitasuna erakusten du, egitura politiko guztiz trebatu eta tenkatu baten aurrean gaudela aditzera emanez. Kanpoko botereen ordezkarien aurrean, gehienbat militarren aurrean, esparru politikoaren zilegitasuna defendatzea egitura horren barnean dago. Ohi zuen bezala, bere burua zaintzean Probintziak Erresuma zerbitzatzen zuela aldarrikatzen zuen. Zentrala bilakatzen ari zen monarkia erreformatuaren ikuspuntutik, aldiz, Errege Kontseiluen ardurapean egon behar zuen esparrua zen honako hau. Ataka honetan, Aldundiak bere bidea errepasatu eta ekintza burujabeak ekintza forudunak bihurtzen saiatuko da. Izan ere, Foru-babesa bilatzea izango dugu Aldundiaren buruhausteetako bat. Gure lanaren hasieran Lurralde mailako proiektu politikorako ordena publikoa motzean lotzeko beharra eta estrategia guztiz ezinbestekotzat jotzen bagenuen ere, eskuduntzen inguruko kutsu politiko nabarmena duen eztabaida baten erdian hain nabarmen eta horren goiz topatzea ez genuela espero aitortu behar dugu.

Tirabira horretan, gainera, indar poliziala sortzeko zilegitasuna eta gaitasuna gizarte kontrol oldarkorraren beste osagaien inguruko eztabaidarekin –batez ere justizia eta espetxe sistemaren ingurukoa– agertzen da lagunduta. Hirukote honek botere egitura garaikideen gune gogorra osatuko luke, guri dagokigunez Gipuzkoa izeneko lurraldearena, izatetik *egotera –Estatu*-ra beraz– pasatzen ari zen, eta Aldundian eta Batzar Nagusietan gobernu politiko ekonomikoaren buru zituen lurralde politikoarena.

Ondorioz, mikeleteen gainean egin beharreko moldaketak eztabaida politiko honetan geldituko dira iltzatuak, ordena publikoaren zaintzaren eraginkortasuna biziki murriztuz. Egoera hau zuzentzeko, alkateen lanak ezinbestekoak izango dira

berriro ere, nahiz eta askoren ekinbidea oso eskas suertatu. Izan ere, ohiko baliabideen gabeziarekin batera, espetxe sistemaren faltak eta prozedura penalaren moteltasuna zein gastu handiek egingo dute bat hauen jardueraren kalterako. Hots: monarkiaren eta Probintziaren arteko gatazkak garatu ezinean zituen gizarte kontrolerako beste bi arlo hauek. Monarkiak, gainera, bere baliabide propioak hedatuko ditu Gipuzkoan, ez-adostasuna areagotuz.

Honengatik guztiagatik, eta jende xumea pobrezian murgitzen zuten bizi-baldintzak gehiago okertzearekin, gizarte gatazkaren zatitzat har ditzakegun lapurretek eta bortxazko mailak handitu baino ez zuten egin, bereziki nabarmena dena XVIII. mendea bukatu eta XIX.a hasterakoan.

Gizarte kontrol oldarkorraren ontziaren aleak biltzeak bere baitan harrapatuak gelditzen zirenak eta Gipuzkoako gizartea eta bere gorabeherak hobeto ezagutzeko parada eskainiko zigulakoan geunden. Neurgailu izateaz gain, gizarte gatazkaren subjektu hauei interes berezia zerien , beren bizipenak *standar* jotzen zen portaeratik aldentzen ziren eta. Hau da, Gipuzkoaren eraketa eta antolaketa garatu bitartean, Probintziaren eraikuntzatik kanpo geldituta multzo garrantzitsu bat izango genuke hemen, Etxea eta Lurraldea bezala osatutako gune politikoaren gabeziak eta mugak islatuko lituzkeena eta, batzuetan, bizi-irauteko estrategia zehatz bezain gogorretan murgildu zena.

Esan dugun moduan, eraikuntza probintziala arauak eta ezaugarri zehatz batzuk betetzen zituzten aleak aterpetzeko gai zen, baina laguntza sare hori bideragarritasuna bermatzeko, batez ere baliabide komunen kudeaketa murriztu orduko laguntzaren ahalmena gutxitu ahala, errukitik aldentzeaz gain zigorgarriak zirenen markak tajuz jorratuko dira gobernu erakundeetan. XVIII. mendearen hastapenetan burutu lan hau, Forua idatziz jarri eta gero, *labeling approach* teoriaren barne sar genezake, izaerak zigortu eta ordura arte jazarpen sistematikoa merezi ez zuten portaerak bere baitan hartuko dituelako. Premuaren antolakuntzatik at geldit direnei lan egitea eskatzen zaie gizarteratzeko bidea moduan, gizarte kontrol eragilearen luzapen gisa. Era honetan, diziplinatuak izaten pasiboki ala aktiboki

ukatzen direnentzako "urkamendi" proiektua altxatzen ikusiko dugu, hasi bortxazko lanekin –erabilgarritasunean heziketa eta etekin ekonomikoa lortzeko nahia islatzen zituztenak– eta buka gizartearen alderatze eta ezabatze nagusia zen heriotza-zigorrarekin.

Erakundeek nagusitzen duten diskurtsoa defentsa moduan ere maiz entzuten zen epaiketetan, giza taldearen maila guztietan hedatua zegoela erakutsiz. Hala eta guztiz ere, agintariek prestatutako etiketa horietan bilakaera nabaria ikus daiteke. Izan ere, hasiera batean gaitzaren arrazoia delitugileen izaeran kokatzen bada ere, ardura biologikoa azpimarratuz, hemeretzigarren mendearen atarian portaera okerren oinean arrazoi sozialak daudela ere onartuko da. Era berean, ekintza zehatzik garatu gabe auziperatutako askok baliabide urriekin biziraun baino egiten ez zuenez, gaizkileak bereiztea zaila suerta daitekeela esan behar dugu. Gainera, portaera ez egokiak berak erantzun ezberdin jaso zezakeen, gizabanako guztiek ez zituztelako giza-baliabide berdinak auziperatzearen olatuaren aurrean gizartean ainguratuak gelditu ahal izateko.

Dena den, hemen ere gutxieneko "adostasuna" hedatuta zegoela ematen du, bide-lapurretak arloteriaren maila gorena bezala ikusten zutenen artean auziperatu ugari agertzen da eta. Delitua gertakizun zigorgarri zehatz batekin lotzen denean ere, oso arrunta da burutu duen pertsonaren ikuspuntutik ekintza hori aldi baterako ala noizbehinkako ekimena izatea, hau da, beste bizimodu zuzen baten barruan gertatzea. Honengatik guztiagatik, alfer, oker, bizio eta jokozale, lapur txiki eta abarren gainetik bidelapurrak izan dira gure arreta piztu dutenak. Esan bezala, gutxi batzuk ziren goi-mailako lapurgintza ogibide zutenak, eta ugariak, berriz, ostea bere bizimoduaren ekintza osagarri gisa hartzen zutenak, esate baterako, kontrabandoarekin gertatu bezala. Ildo honetan kokaturik, auziperatu gehienek aipatzen dituzten ogibide kopurua ugaria eta, bereziki, lapurretan aritu aurretik zein urruti saiatu ziren bizitza ateratzen ikustea, ez zaigu hain harrigarria egingo. Egia da orobat etxeetan gertatzen ziren lapurreta txikiak, auzokoen artean edo zerbitzari-nagusien artekoak, bidean ematen zirenak baino arruntagoak eta zabalduagoak zirela. Aldiz, goi mailako ebasketa hauek, Probintzia osoa bere baitan hartzen eta modu profesionalizatu batean

antolatuko zirenak, ditugu jazarpenerako tresna bereziak sortarazi egin zituztenak. Gainera, agintea kudeatzen dutenen esanetan, lapurreta handi hauek ziren Probintziak inoiz pairatutako gaitzik larriena.

Hortaz, lapurgintza antolatuari jarri diogu arreta berezia, ez bakarrik historiografiak oso modu urrian jorratu duelako edo benetan bizimodu harrigarria eta ikusgarriak eskaintzen dituelako, Probintziaren garapen politikoarekin ere lotzen delako baizik. Aurkezpenean ere aurreratu bezala, bidelapurren sortzearen atzetik zeuden arrazoiak, eta orokorrean txirotasunaren atzean zeudenak, ez ditugula aztertu bistakoa da. Nolanahi ere, honako hau gure ikerketaren aurretik ederki landutakoa izan denez, gu honen arrastoan kokatzen gara.

Alabaina, lapurreta mota hau oso zabalduta zegoen Europan, bai denboran zehar bai eta lurralde askotan ere. Are gehiago, Gipuzkoan bertan bide lapurrena etengabe agertzen den ekimena izan arren, ezin dugu esan jarraipen bat dagoenik jarduera honetan. Hau da, bidelapurren artean ere ahal da bereizketa egin, dagokien sasoiaren arabera. Horrela, XVIII. mendeko eta bukaerako bidelapurrek antza gehiago dute elkarrekin, mende erdialdekoekin baino. 30eko hamarkadatik aurrera azaltzen diren hauek talde txikiagoak osatzen zituzten, eta leporatzen zaizkien ekintzetan nornahi lapurtzea maiz agertzen da, hots: bidetik pasatzen den edozein, aldez aurretik gehiegi prestatu gabe edo lapurgaia soberan aukeratu gabe. Lapur hauek ere bortitzagoak izan zirela ematen dute. Mende hasierako eta bukaerakoek, aldiz, banda handiagoak osatu, beren helburua hobeto aukeratu eta asalto bakoitzean etekin handiago lortzen zutela ematen du. Mende bukaerako taldeek Gerratik jasotzen duten eskarmentu eta eragin zuzenarekin batera, beste ezaugarri berezi bat dute, agintariengan izugarrizko beldurra sortuko duena: Kotxeen Errege Bidea lan eremu bezala hartzea, alegia. Komunikabide nagusi honetan, Tolosa eta, batez ere, Pausu-Astigarragako zatia tokirik jorratuenak agertzen zaizkigu. Hauekin batera mendi mailako igarobide tradizionalak –Ernio inguruan nabarmen– aipatu behar baditugu ere. Balorapen hau tentuz egin behar da, han-hemen aritzen ziren beste talde antolatu gehiago egon zitekeelako hainbeste iskanbila eta kezka sortzen ez zutenak. Hobe esanda, kezka sortu arren alkateek ez bazuten krisialdian eskua sartzen, nekez izango

dugu guk gertatukoaren berri. Horregatik, mikeleteei ezarritako betoa gainditze aldera alkate gehigoren parte-hartzea azaltzerakoan, arazoa Probintzia osora zabalduta zegoela ikusiko dugu. Horrela, Leintz-Bailara edo Beasain-Urretxu-Deskarga guneak lapurren lan eremuak zirela iruditzen zaigu. Honekin batera, gure informazio-iturriak korrejimendutik Aldundira lekualdatuko dira, Probintziaren gobernuan ematen ari ziren aldaketak nolabait islatuz.

Hau dela-eta, XIX. mendearen hasieran Goierri eta Deba bailara ere gune arriskutsuen zerrendan guztiz txertatuak agertuko dira: batzuetan alkateen ezintasunak agertzen; besteetan, talde handien aurkako ekimenak jasotzen. Biek ala biek XIX. mendeen egoerak okerrera jo zuela eta, gainera, lapurrek bortitzagoak zirela –lapurretak ez ezik, hilketak ere sortuz– adierazten dute.

Etxeetan gertatzen ziren beste lapurreta handi horiei dagokienez, azpimarratu behar dugu asaltoak landa eremuko apaizen etxean askotan agertu zirela, baita hainbat komentu eta elizetan ere. Baserriak lapurtzeko, berriz, isolamendu eta ekoizpen multzo bideragarria izatea hartu beharko genuke aintzat, etekinak dituzten eta bideragarriak ziren baserri hauek Gipuzkoa sendo eta trinkoaren ikurrak har litezke-eta, hau da, lapurrak lapur izan baino lehen aterpetzeko gai izan ez zen gizartearena. XIX. mendeko Aldundiak lapurrek sortzen zuten egoneza laburbiltzeko aukeratutako adibidea mota honetakoa izatea oso adierazgarria iruditzen zaigu, adierazgarri eta, hein handi batean, alegorikoa, asalto hartan jipoitua izaten zen ama etxekoandre soila izan beharrean Aldundia bera balitz bezala agertzen da eta. Izan ere, esanguratsua da lapur jardueran baserri buru den lagunik ez topatzea, baizik eta noizbehinkako lanetan aritzen zirenak eta ekoizpenerako tresnen falta zutenak.

Jarduera honek gizartean sortzen zuen aztoramendua, berriz, orokorra zela esaten du Aldundiak, eta egia da gertakizunen inguruan adierazpenak egiten dituztenengana elkartasuna ala ulerkortasuna baino beldurra aurkitzen dugula, nahiz eta hauek auzitegiaren giroan aztertu behar. Oso litekeena da mehatxu sentimendua zabalduta izatea, baserriak edo mandozainak asaltatzen zirenean gehienbat, baina bide nagusian egun argiz goi-malako merkatari eta antzeko lagunen aurkako gertatzen

ziren lapurretei dagokienez baieztatu gabe utzi beharko genuke hori. Are gehiago, agintarien deskribapenetan herrietako jendeak lapurrei eskaintzen zien elkarlana sarritan azpimarratua izan dela kontutan harturik. Ildo honetan, aipatu izan dugu ere bidelapurrena ez zela lapur guztien ogibiderik nagusiena, talde buruena baizik, gainontzekoek zeregin hau aldi baterako jarduera gisa hartzen zuten bitartean; hau da: eguneroko bizitzan herriko semeak izaten jarraitzen zuten. Honekin batera, nahiz eta desertzioak medio gizarte kontrolaren sarean atzerritar franko harrapatuta gelditu, bai alfertzat hartuak direnak bai eta bidelapur gehienak ere gipuzkoarrak ditugula ezin da ukatu, babes egituran tokirik ez eta baztertzearen eremuan erortzen direnen kopurua, gainera, etengabe handitzen baita.

Bat-bateko irakurketa batean, normala litzateke agintarien kezka beren interes komertzialak kaltetuak suertatzearekin lotzea, nahiz eta auziperatuen aitortzetan boterea iraultzeko ala jauntxo aberatsak kaltetzeko inolako zantzurik agertu ez. Hala eta guztiz ere, agintariek margotzen zuten lapurrek setiatutako Gipuzkoa gehiegikeritzat jo bagenezake ere, ez da guztiz bazter daitekeen irudia, XVIII.-XIX. mendeen tarteari dagokionez, behintzat, datu batzuk aintzat hartzeko modukoak direla iruditzen zaigu.

Lehendabizikoa, 1801. urtean Oiartzun inguruan lapur talde batek burutu omen zituen maniobra militarrak, indar erakustaldia eginez eta agintariei erronka garbia botaz.

Bigarrena, berriz, talde-buru batzuek erakusten zuten gaitasuna bandak osatzeko, elkarrekin lan egiteko, eta tokialdatzeko. Esan dugun bezala, ez dugu lapurrengan kutsu ideologiko zuen jarrerarik antzematen, era jakin batean bizirautetik haratago zihoana. Baina egia da ere bai, talde buruak oso ondo ezagutzen zutela elkar, banda bat desegiteak beste bat osatzea edo eratuta zegoen beste baten buruzagitza hartzea ekar zezakeelarik.

Gainera, lapur profesionalak ez ezik, talde buruek lapurretan aldi baterako aritzeko prest zegoen jendearekin harremanetan jartzeko erraztasuna agertzen zuten,

ziurrenik kontrabandoaren sareei esker eta ezkutaleku bilakatzen ziren tokietan, batez ere Baionan, ematen ziren harremanei esker. Honetaz gain, elkarlan hau legez kanpoko beste eragileekin batera gauza zitekeen, Hernanin erakutsi bezala.

Segurtasun eza giroa areagotzen zuen hirugarren egoera bat, aurrenekoarekin lotuta, jazarpenareko baliabideen ahuleziak sortzen zuen hutsunea genuke. Ez alkateek, ez mikeleteek ez eta ejerzitoak ere ez zuten lortzen gaizkileak obratzen ari zirela harrapatzea, erakunde hauek motel aritzen zirela asaltoak ematen zirenean. Agintariei moteltasuna darien moduan, gaizkileak izugarrizko abiadan mugitzen zirela ematen du, agintariekiko buruz burukoak ekidin eta ziztu bizian ospa eginez. Ihesaldi hauetan Lapurdi eta Nafarroa Garaiko iparraldea izkutaleku lehenetsia ziren Gipuzkoan lapurtzen zutenentzako, eskumenen ugaritasunaz eta lurraldeen arteko joan-etorriak egunerokotasunaren parte zirela baliatuz. Hortaz, erakundeen lana, batez ere alkateena eta betiere hauek erakusten zuten grinari lotuta, epe ertainera izaten zen emankorra.

Atxiloketei lotutako zailtasunak gainditu eta gero, baina, espetxe antolaketaren gogortasunaren eta eraginkortasun ezaren gaineko salaketa maiz agertu zaigu, jazarpenaren emaitza zaintzeko orduan, hau da, presoak epaitegira zein zigorrak betetzera eramatea, espetxeak guztiz zirela eskas, bizi-baldintzak eta segurtasun falta zirela medio, gogoratuz. Izan ere, agintaritzak ezaugarri sasi-heroikoak egozten zizkien Probintziako etsai nagusi hauei, batez ere ihes egiteko zuten trebeziaren ildotik. Nahiz eta ezin ahaztu espetxeak indarrez hartzeko saioak egon direla, zaintza eta espetxe sistemaren gabezia dugu presoek burutu ihesaldi gehienek erakusten dutena. Hortaz, hein handi batean, jazarpen sistemaren ahultasunaren erakusle dugu gaizkileen gaitasun hau. Etsaiaren indarra loratze honekin, baina, Aldundiak bere esku-hartzea ezinbestekoa zela aldarrikatu nahi zuela pentsatzen dugu, kontrol bidearen zorrozteari zilegitasuna emanez.

Honi, sistema judizialaren moteltasuna erantsi behar zaio, Valladolideko Entzutegiak egiten zuen zaintza eta ikuskaritza gehiago berandutu egiten zuena.

Honek ezartzen zituen zigorrak, gainera, alkateenak zuzendu eta, ondorioz, hauen aginte maila gutxietsia gelditzen zen.

Azkenik, Errege Bideko joan-etorriak hain erraz eta egunargiz oztopatzeak bazekartzan beste kalte batzuk. Alde batetik, bidea Aldundiaren egitasmorik gogokoena izanik, erakunde probintzialak Probintziaren gobernu politikoaren aurkako erasotzat har zezakeen lapurreta mota hau. Beste alde batetik, irain honek Probintziak bere burua babesteko gaitasuna eta, ondorioz, Monarkiaren alde aritzeko gaitasuna zalantzan jartzen zuen. Izan ere, mende hasieran Aldundiak eta korrejidoreak gertakizun hauek elkarlanean jorratzen bazituzten ere, bakoitzak bere baliabideak atonduz eta lan eremuak eta lehentasunak adostasunean partituz, mende bukaeran erresumari atxikitako gorputz-atal guztietan zehar gobernu politikoa era zentral batean hedatzen ari ziren monarkiaren erreformatzaileek bide lapurrak aitzakiatzat hartuko dituzte, esku-hartze administratiboa militarren bidez zabaltzeko, egoera hau Aldundiaren ahuldade edo utzikeriari leporatuz. Horregatik, ezinbestean, Probintziako proiektuaren sustatzaileek beren indar eta baliabide guztiak garatu behar zituzten barne arerio honen aurrean, kudeatzen zuten lurraldean ordena publikoa, merkataritzaren segurtasuna eta erregearen aldeko zerbitzua bermatzeko haiek aski zirela erakuste aldera. Gizarte gatazkak bere burua elikatzen zuen horrela.

Bestalde, laburtu berri dugun ikerketak egiten duen ekarpen zehatza adierazteko tenorean, mahai gainean bi motatako berritasun jarri direla iruditzen zaigula esan behar dugu. Bata, XVIII. mendean zehar Gipuzkoaren eta monarkiaren arteko harremanen inguruan. Bestea, antzinako erregimenaren gipuzkoarron eguneroko bizitzan ohikoak bilakatu ziren bi osagai berreskuratze aldera: lehenengoa, okertzat jotzen zen bizimoduan murgilduak bizi zirenak, bidelapurrak bereziki; bigarrena, gizarte kontrol oldarkorraren baitan jazarpenaren tresnak: hots, alkateen jazarpenerako ahalmena, gizakiak ehizatzeko komisarioak eta mikeleteak.

Lehendabizikoari dagokionez, ekarpena baino berrespena esan beharko genuke, Gipuzkoaren eta monarkiaren harremanen ingurukoak zehazte horretan, XVIII. mendearen bukaeran bi botere guneek elkar jotzen argi eta garbi ikusi baititugu,

eraikitzen ari zen gobernu politikoaren atetik biak batera ezin zutelako-eta pasa. Gure irudiz, ez da Gipuzkoa eskumen berri bat sortzen duen bakarra –Portillok eskumen probintziala deitu dutena–, Monarkiaren erreformatzaileak ere hortan ari ziren-eta. Probintziak bere eskumena sortu edo asmatu egiten duenik ez dugu ukatzen, bai ordea egikaratze horrek aurretik indarrean zegoen erregearen eskumena ordezkatzen duenik, aipatutako historialariak aditzera ematen duen moduan. Kontrol sozialaren garapenaren arabera, eskumen probintzial berrituak tokiko agintarien ahalmena osatu eta lurralde mailan zabaltzen da, probintziako eskumen hori tokiko eskumenak elkartzetik eratuko baita.

Hortaz, ordezkatzen den eskumena tokiko alkateena da, gobernu ekonomiko hutsa eta tradizionala gorpuzten zuena. Horregatik, Probintziak mikeleteak nola, hala errege erakundeek berritasunak ere proposatzen dituzte, ordena publikoari dagokionez militarren eskutik gehienbat. Hori dela eta, eskumen bateko ala besteko tresnen bidez gizarte kontrolaren eremuan nagusitasuna lortzeko saioak gobernu ekonomiko-politikoa ezartzeko lehian sartzen direla iruditzen zaigu. Probintziak berritasunak ia burujabe den modu batean eman arren (mikeleteen lehendabiziko osaketa lekuko), ez du bilatuko haustura, bere gobernu politikoa monarkiarekin ohiko elkarlanean eramatea baizik. Mikeleteen gerra-oihuak berak Erregearen izenean emateak hori erakutsiko luke. Horregatik, errege-kontseiluetatik jasotako erantzunaren ondorioz, ala erantzun ezaren ondorioz, Aldundiak eta Batzar Nagusiek beren ekimenen norabide-aldaketa egokituko dute, Foruaren babesa izateko eta Monarkiaren erresistentzia gainditzeko. Monarkia, berriz, ez du onartuko jokamolde hau, bai pasiboki –luzatzen zaizkioen galderei buruzko ebazpenak atzeratuz–, bai eta aktiboki ere –bere tresneria propioa zabalduz– bide hori oztopatuko dituela. Honetaz gain, Aldundiak salatu bezala, hainbat errege-ordezkariren jarrera lurraldearen gobernuaren aurkako eraso zuzentzat joko dute, tiroz eta geziz –hitzez hitz– gauzatzen zena.

Gizarte kontrol oldarkorraren gainontzeko osagaiei erreparatuz gero –1765tik prozedura judizialaren inguruan zein 1801ean espetxe sistemaren gaineko aldarriaren gainean–, egitasmoak finantzatzeko proposamenen inguruan gertatukoa aztertuz gero,

edo Konbentzioko gerran sortutako kalteak kitatzeko Godoy-k emandako ezezkoa aintzat hartuz gero, bi gune politikoen bateratzeko ezintasun berdintsuarekin egingo genuke topo. Ikuspuntua zabalduko bagenu, antzeko egoerak aurkituko ditugulakoan gaude, Ruiz Hospitalek modu orokorrean bildu bezala edo Angulok kontrabandoaren arlo zehatzetan erakutsi bezala, besteak beste.

Hortaz, Nagusi ez ezik zentrala bilakatzen ari zen monarkiaren aurrean, eta batera, Probintzia gobernu politikorako eredu propio baten arabera garatzen ari zela, eta honek XVIII. mendean bertan gatazka bat sortu zuela ukaezina iruditzen zaigu. Are gehiago, monarkiako ordezkariek Gipuzkoa osatzen ari zen gobernu politikoa onartu ez izana, Probintziak Konbentzioko garaian hartu zuen jarrera frantses-zalean eragin zuela sumatzen dugu, nahiz eta, bistan dena, honen emaitzak ez izan agintariek espero zituztenak.

Probintziak defendatzen zuen ereduaren muina, baina, ez zetzan Erdi Aroko edo XV. mendeko eskuduntzetan, XVIIIan bertan garatzen ari zen eta Lurralde osoan hedatzen zen kudeaketa politikoan zein honi atxikitako tresna administratiboetan baino. Kutsu politikoa zuen eztabaida honek, beraz, gobernu molde batetik beste batera mamitzen ari zen aldaketaren berri ematen digu, guk eremu zehatz batean urratsez urrats nola gauzatzen zen erakutsi duguna. Antolaketaren funtsean ematen ari zen oin-aldaketa hau erabat bideratuta egoteak eta berari lotuta agertzen diren erresistentziak erabat sustatuta ikusteak, gure lanaren muga kronologikoaren itxiera zuritzeko balio dute. Aldaketa honi dagokion eztabaida, arestian aurkeztu duguna, gerrateek moztu dute birritan, Konbentzioko garaian eta Napoleonen gobernuaren sasoian, baina XIX. mendean zehar indartuko dela garbi dago.

Gure bigarren ekarpena, aldiz, oso bestelakoa da, askoz ere zehatzago esan dezakegu. Lehenik eta behin, hala giza-talde zabal bat (Etxegabetuena, aisialdian eta lan ezan murgilduena) nola honen barruan errotua zegoen bizimodu bat (lapurretarena, batez ere bidelapurrena) ekarri dugu gogora, biak ala biak aski arruntak eta oso zabalduak izanagatik orain arte Gipuzkoaren historiaren eragileen

artean aintzat hartzen ez zirenak eta, salbuespenak salbuespen, inolako arreta jaso ez dutenak gure historiografian.

Gipuzkoako ekoizpen sistemaren mugak aski jorratuak izan badira ere, ez ziren behar bezala ezagutzen zer nolako estrategiak garatzen zituzten ezintasun produktibo horrek kaltetzen zituztenek bizirauteko. Ez behintzat Etxetik kanpo garatutako estrategiak, baserriaren kulturak gizarteratze-baztertze bidean nolako betebaldintzak eta euskarriak eskatzen eta proposatzen zituen Urrutikoetxeak ederki asko jaso baititu, esate baterako.

Gure ikerketan zehar era sakonean jorratu ez arren, zigorraren helburua zirenen bizitzen oinarrizko zantzuak ikusi ahal izan ditugu, gizarte tradizionalaren nondik-norakoen berri ematen dituzten lanetan, gehienbat Gipuzkoako Etxearen aterpean bizi zirenen ezaugarriak eta bizi-baldintzak ardatz izan dutenek, aipatu ere egiten ez diren gizabanakoak auzi judizialen poderioz multzo zabal batean batuak agertzen zaizkigularik. Horregatik, Gipuzkoak eskaini nahi/ahal zuen babesetik baztertuak zeudenen ezaugarriak aipatzeari eta bereizteari oso interesgarria deritzogu, betiere kontuan harturik delitutzat eta gaizkiletzat zer eta zeintzuk hartzen ziren agintaritzatik abiatutako auzi judizialen arabera eta probintziako zuzendariek ezarritako baldintzen arabera jaso dugula. Ildo honek alferkeriaren etiketapean sartzen zituen kalitatezko lanik egiten ez zuen oro, "lan-eza"ko egoera horretan egonda ere borondatez edo halabeharrez, gizarterako probetxagarri izateari ukatze horretan zuritzen ziren gizabanako hauen patua: bai haiek izan zitzaketen portaera okerren sustraiak adierazteko, lapurretenak esate baterako, bai eta bere nagikeria zigortzeko egitasmoak ere.

Alfertzat hartuak ziren hauek lana bilatze aldera adierazitako bizipenak oso deigarriak dira gure ustez. Batetik, testigantza hauen arabera lapurretak ogibide osagarri bezala aurkezten zutelako, ugari baitziren lapurgintzan murgildu aurretik Gipuzkoatik kanpo ibilitakoak aldi baterako lanetan murgilduak, batez ere Burgos eta Asturieseko burdinoletan, edo maila txikiko salerosketetan arduratuak. Bestetik, ibilaldi hauetan Bizkaia zein Gipuzkoako seme askorekin topo egiten zutelako, hau da,

Gipuzkoako ekoizpen moduak gero eta urrutiago bidaltzen zituela jabeak ez zirenak bizitza aurrera ateratzeko.

Honekin batera, lapur hauek haien buruarentzat lapurtzen zutela azpimarratu behar dugu. Ez lirateke, beraz, lapur oparo eta eskuzabalen mailan sartuko, nahiz eta, inolako zalantzarik gabe, batzuek zein besteak elikatzen zituen egoera sozial bera izan. Dena den, oro har, bidelapurgintza honek agertzen duen bortxaketa maila ez-odoltsuagatik eta, batez ere, bere protagonisten egoera sozialengatik, ezingo genuke sartu gizartearen aurkako bandolerismoaren multzoan, lapur gehienek urtean zehar bizimodu arrunta baitzeramaten. Horregatik, eta batez ere mendearen erdialdean edo bigarren mailako komunikabideetan izaten ziren aferetan zein ekintzaileak banda handitik kanpo aritzen ziren uneetan pertsonaren aurkako bortxaketa maila oso agerikoa izan zela aitortuz, Gipuzkoako bidelapurrekiko antza gehien duten bandolerismoak Euskal Herrian bertan, Galizan (Lopez Moranen lanaren ildotik), edo Frantziako hainbat zonaldeetan (adibidez Erdialdeko Mendigunearen ekialdean dagoen Vivarais eskualdean) izandakoak direla dirudi, Kataluniako bandolerismo barroko, Extremadurako lapur biziki bortitz, ala bandolerismo soziala zein erromantiko (Andaluziakoa XIX. mendean kasu) deritzoten lapurgintzekiko aldendurik. Edozein kasutan ere, Europako gizarte aurreindustrializatuaren tradizio handiko jarduera izan zela uste dugu, batez ere krisialdietako uneei lotuta.

Gure bigarren ekarpen honen segidan, arestian aipatutako multzoak estu hartzeko Aldundiak egokitutako tresnak eta garatutako erakundeak aipatu behar ditugu ere. Hots: gizarte kontrol oldarkorraren osagaiak identifikatzea eta aztertzea, haien artean indar polizialak lehenetsirik.

Araba, Nafarroa eta, hein apalago batean, Bizkaiko foru indar polizialak lantzen dituzten ikerketak izan arren, Gipuzkoako mikeleteei buruz ez dago horrelakorik. Alde batetik, mikelete izenaren etimologiari buruzko artikulu klasiko bezain errepikakorrak ditugu; beste aldetik, berriz, indar polizial hauek XIX. mendean zehar izandako bilakaerari buruzko lanak agertu dira, Serapio Mujikaren edo E.J. Alonso Olearen eskutik. Guk, berriz, indar polizial hauen jatorrian miatu nahi genuen,

gizarte kontrol oldarkorraren sistema kokatuz eta bere eraketaren aurretik jazarpenerako erabiltzen ziren erakundeekiko talde honen izaeran ager litezkeen berritasunak bilatuz.

Horrela, mikeleteen logika haiekin hasten dela eta beste erakundeen ondorengo zuzena ez direla berresten dugu. Era berean, Aldundiak funtzio polizialak betetze aldera ezaugarri hauetako talde armatua osatzeko erakusten zuen gaitasunak lurralde politiko batenak direla eta bere garaiko irizpide ideologikoekin bat egiten dutela baieztatzen dugu. Honen ildotik, Gipuzkoako komunitatea Gipuzkoako gizartean eta Gipuzkoako egitura politikoan eraldatu dela adieraziko luke egikaritza honek, gizarte kontrolerako baliabideak komunitatetik bertatik besteratuak eta kidego berezi eta profesionalizatuetan gorpuzten ari zirela. Honek, beraz, bat egingo luke arestian Gipuzkoari buruz plazaratu dugun ikuspuntuarekin.

Honetaz gain, mikeleteak tresna berri bat diren ala ez egiaztatzeak ala gezurtatzeak bere aurretik gizarte kontrolerako erabiltzen ziren lanabesen inguruan miatzera eraman gaitu, batez ere kontrol oldarkorra deitu dugun arloan. Horrela, tokiko agintea gorpuzten zuten heinean, alkateak zeregin hauetan topatu ditugu murgildurik. Alkatetzari atxikitako epai gaitasuna guztiz ezaguna baldin bazen, epaiketak abiatu aurretik gauzatzen eta hedatzen ziren jazarpenerako indarrak ez direla behar bezala baloratu iruditzen zaigu. Dena den, ekintza hauek gutxiengo bermearekin bete ahal izateko, alkateek auzokoen beharra izango dute, batez ere ongi antolatutako taldeei zein eskarmentu handiko bidelapurrei aurre egiteko.

Bestalde, tokiko eskumenari lotutako eginbeharra zenak Aldundiaren babespean eskumen probintzialaren maila hartuko du, horretarako eta monarkiarekin arazoak saihesteko, XVII. mendearen bukaeran baztertutako Ermandadeko baliabideak egokitzen erakunde probintziala saiatuz.

Honekin batera beste baliabide bat topatu dugu, funtzio poliziala profesionalaren eta tokiko agintaritzak zuzendutako jazarpenaren artean koka daitekeena, eta Gipuzkoako Erakundeen ezaugarriak eta funtzio administratiboak

landu dituen historiografian agertzen ez zena: komisarioena, alegia. Kudeaketaren eremu guztietan komisioen bidez aritzea Batzar Nagusiek ohikoa zuten jokamoldea izan arren, portaera okerretan murgildutako gizabanakoak ehizatzea xede zuten mandatu berezi hauek ez dute arreta berezirik jaso ikerketetan. Orijinaltasuna ez datza, beraz, komisarioak izendatzean, kutsu nabarmen poliziala eta gizarte kontrol oldarkorrari dagokion jazarpena tradiziozko aginteengandik aldentzean baizik. Sari-ehiztari hauek, beraz, ez zuten bere zilegitasuna usadioan edo komunitatearen aurrean zuten ospean sustatzen, Aldundiak haiengan egindako ahalordetzan baizik. Ermandadeko alkateen desagerpenarekin batera sortu izanak, Aldundiak gaizkiletzat hartzen zituen aurkako eraginkortasuna lurralde mailan bermatzeko ahalegin gisa har dezakegu, alkateen oinarritutako sistemaren hutsuneak osatzeko asmoz.

Gizarte kontrolaren eragile hauek 1688-1715 bitartean jo zuten gailurra. Hala, produktiboki antzuak ziren gizabanakoak eta, ondorioz, babes sarerako zama handiegia sor lezaketenak, gehi jabetzaren aurka aritzeko gai zirenak izan ziren beren ekintzen helburuak. Gerora, Erresumaren eskaerak betetzeko gai zela erakusteko eta, era berean, herrietako ordena publikorako kaltegarriak izan litezkeen aleak aldentzeko, Aldundiak komisarioen sistema berreskuratu zuen XVIII. mendearen berrogeigarren hamarkadaren erdian, tarte labur batez eta, gure ustetan militarren esku-hartzerik gabe monarkiaren ebazpenak betetzean, funtzio politiko batekin. Azkenik, komisarioak XIX. mendearen hasieran ere agertu zirela aipatu behar dugu, mikeleteak berrantolatzeko Probintziari jarritako oztopoek sortutako kaltea gutxitzeko eta bigarren mailako eragile modua bada ere.

Komisarioek, beraz, hasiera eta bukaera izan dute gure ikerketan. Kontrol oldarkorraren osagai klasikoak diren espetxe sistema, prozedura kriminala eta indar polizialak, aldiz, ez. Honek, bistan denez, ikerketa berrientzako ateak ireki ditzake. Aipatu ditugun lehendabiziko bi osagaiei dagokionez, arlo osagarri moduan erabili ditugulako. Halere, bien garrantzia zein edukia ikerketa propioa abiatzeko ezaugarria aski dira. Batez ere XIX. mendean emango diren aldaketa administratibo eta politikoen barruan kokaturik. Ildo honetan, ziur gaude espetxeek bete behar zuten funtzioaren

inguruan erabateko aldaketa topatuko dugula, gartzelek egun betetzen duten lanaren nondik-norakoak argituz.

Era berean, XIX. mendean ikusmira gizarte kontrol oldarkorretik kontrol gizarteratzailera zehar luzatuko bagenu, hor ere garapen biziki interesgarria aurkituko genuela uste dugu. Ildo beretik, eta ikerketan agertu diren zantzuen arabera, hala indar polizial hauek nola kontrol sozialaren beste osagaiek ere gainontzeko euskal lurraldeekin elkarlanean erabili ziren ala ez egiaztatzeari interesgarri deritzogu, bide batez euskal foru polizien alderaketa bat eginez.

Alabaina, gure ikerketaren ikusmiran izan duguna indar polizialaren eraketa denez, gure ikerketa haien sorrerarekin amaitu behar dugula iruditzen zaigu, jazarpenerako tresna hau guztiz berria zela eta Probintziako izaeran eta kudeatzeko gobernuan gauzatzen ari ziren aldaketen eskutik erdituak zirela frogatua gelditu baita. Hortaz, Gipuzkoako foru poliziaren historiarentzako oina baino ez dugu hemen jarri, betiere kontrol sozialaren zati gisa hartuta. Hau dela eta, XIX. mendean zehar gizarte kontrol hau nola gauzatu zen ikertu gabeko gaia dela iruditzen zaigu. Era berean, mikeleteen bilakaerak ere azterketa berezi bat merezi luke. Izan ere, gure ikerketan zehar jazarpen tresnen inguruan antzematen genuen erakundeen arteko lehia XIX. mendean areagotu zela pentsatzen dugu. Lehia horretan, baina, badira hainbat gizasemek izugarrizko garrantzia izan zutenak, baina haien parte-hartzea arlo honetan ez ezik erakunde probintzialen zuzendaritza orokorrean ere berebizikoa izan zela iruditzen zaigu. Henaorekin hasi eta Gamon anaiekin buka, Oro-Miota, Ansorena-Garaikoa, Olabe, Arizabalo, Soroa,... Gipuzkoaren foraltasunaren zantzuak finkatu zituztenen artean agertu zaizkigu, bere jarduera politikoa oro har gutxi ikertuta dagoen arren.

Dena den, abagune politiko orokorrek Gipuzkoak indar polizial propioak sortzeko aukerak baldintzatzeko berebiziko gaitasuna izango dutelakoan gaude. Honen erakusle, esate baterako, mikeleteen helburuak eraldatu izatea genuke. Napoleonen garaia eta gero gaizkileak eta bidelapurrak bere xede lehenetsia izango dira oraindik. Aurrerago, aldiz, Aldundiarentzako funtzio administratiboak baino ez

egokitzea gertatuko da. Azkenik, garaien arabera, ez gintuzke harrituko jazarpen politiko eta ideologikoan murgilduta aurkitzea.

Modu horretan, mikeleteak Aldundiak garatutako beste baliabide administratiboekin batu genitzake, Gipuzkoaren eraketa administratiboa hobeto ezagutzeko parada ematen baitu. Gainera, mikeleteak finantzatzeko eta modu eraginkor batean lurralde osoan zehar hedatzeko sortzen zituzten zailtasunei, Gipuzkoari zegozkion zailtasunei, beraz, Probintzia ez diren beste gobernu politiko guneetatik eratutako egitasmo polizialak gehitu beharko genizkieke.

Dena den, Probintziak kanpoko eragileen aurrean bere tresna polizialen zilegitasuna eta balioa etengabe defenditu zituela aurreratzen ausartzen gara, bai eta milizia nazionala deritzona zabaltzerakoan eta, bereziki gainera eta beste euskal Aldundiekin batera, 1844. urtean Guardia Zibila sortu eta hedatzeari ekin zitzaionean ere.

Bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi gizarte kontrolaren ontzian aurkitu dugun edukia; hau da: Gipuzkoako antolakuntza ekonomiko eta politikoan tokirik ez zuten aleak. Gizarte kontrolaren ardatza baliogarria izan zaigu bazterketa horretan murgildutakoak ezagutzeko, baita ere bazterketa horren ondorioei aurre egiteko haiek garatutako estrategiak legez kanpokoak izanda ere. Estrategia hauek XIX. mendearen hastapenetan gogortzen zirela ikusi dugu ere, lapurretak gero eta bortitzagoak bilakatuz eta gertu gertatuko ziren eztandak aurreratuz. Baina estrategia hauekin batera gizarte gatazka eta egoneza islatzen zituzten beste ekintza ugari agertzen da artxiboetan: irainak, umezurtzak, emakumeen aurkako bortizkeria, auzokoen arteko liskarrak,...

Hortaz, betiere Gipuzkoa eta bere barne gatazka hobeto ezagutzeko asmoz baina baita ere XIX. mendearen bilakaera politikoa kontutan harturik, gizabanakoak ez ezik, lurralde politikoengana ere nolabaiteko bazterketa ezarri zela aintzat hartuz, XIX. mendean portaera hauek nola garatu edo eraldatu ziren aztertzen jarraitzea guztiz

beharrezkoa iruditzen zaigu, gero eta gipuzkoar gehiago bertan harrapatuta gelditu zirela pentsatzen dugu eta.

*VI. ERANSKINAK*

## ERANSKINAREN AURKIBIDEA

**GAO**: **JD IM 1 21 10.** *"Razón de los enfermos que se han curado en el Hospital General de esta ciudad de la Provincia de Guipuzcoa y Vizcaya".* 406

*Karlos III.ak ijitoen aurka emandako 1695eko ebazpena.* 411

**GAO**: **JD AM 93.** *1710eko Aldundiak 1709koak ospitaleak murrizteko plazaratu azterketa ontzat ematen du.* 415

**GAO**: **JD IM 1 21 21.** *1771ko araudia.* 416

**GAO**: **JD IM 1 6 25.** *Reglamento. Instrucción para el establecimiento de una Partida armada en la MN y ML Provincia de Guipuzcoa, compuesta de un oficial comandante, un sargento, un cabo y 18 soldados, para cortar los insultos que los salteadores de caminos cometen en esta Provincia, y con el deseo de aplicar el mas pronto y eficaz remedio conviene su formación en las reglas siguientes.* 421

**GAO**: **JD IM 1 6 25.** *Plan de reforma de la actual Patrulla destinada a perseguir malhechores, cuio objeto verdadero es el deseo de conciliar los dos estremos que reconoce la Diputacion de la indispensable necesidad de dicho cuerpo y de los ningunos medios con que se halla para ocurrir a su subsistencia.* 425

**GAO**: **JD IM 1 6 25.** *Plan de reglamento vajo del qual ha de mantenerse el establecimiento formado por la MN y ML Provincia de Guipuzcoa de una patrulla armada con el nombre de miqueletes y compuesta de un oficial comandante, cinco cavos y veinte y cinco individuos, repartida en cinco distintas partes del districto de ella, a efecto de desterrar de este los muchos insultos y delitos de robos, que se experimentan en el, asi en los caminos como en las casas y conseguir por este medio el sosiego, tranquilidad y seguridad publicas, que por esta causa se ven oprimidas.* 427

*Lapurretarik nagusienak eta hauen ondorio batzuk* 432

**GAO: JD IM 1 21 10.** "Razón de los enfermos que se han curado en el Hospital General de esta ciudad de la Provincia de Guipuzcoa y Vizcaya"

| **Izena** | **Jatorria** | **Data** |
|---|---|---|
| | | *1631* |
| Sebastian Ibarburu* | Urnieta | II-4 |
| Sebastian Alzaun | Azpeitia | II-14 |
| Joan Luain | Hernani | XII-13 |
| | | *1632* |
| Sebastian Ibarburu*[537] | Urnieta | III-13 |
| Antonio Iturbide | Urretxu | IV-21 |
| Bernardo Aranburu | Segura | IV-22 |
| Sebastian Mesti | Donostia | V-8 |
| Sebastian Amezki | Urnieta | VI-16 |
| Martin Etxeberria | Donostia | VIII-3 |
| Domingo Mendiodo | Azpeitia | VIII-29 |
| Joan Aurindes | Orio | IX-2 |
| Simon Etubete | Donostia | IX-18 |
| Martin Berastegi | Berastegi | IX-19 |
| Mariana Ibaeta | Donostia | IX-19 |
| Martin Amusasti | Hernani | X-12 |
| Martin Olabide | Segura | XI-12 |
| Joanes Arretxe | Azpeitia | X-19 |
| Martin Bengoetxea | Hernani | XII-24 |
| | | *1632* |
| Baltasar Madariaga | Tolosa | I-12 |
| Joan Bidarte** | Azkoitia | II-13 |
| Franziska Iriarte | Donostia | II-18 |
| Joan Bidarte** | Azkoitia | III-14 |
| Joanot Aldabe | Billabona | V-20 |
| Martin Perez Sendile | Billabona | VI-14 |
| Joan Eguzkiza | Andoain | VIII-31 |
| Franzisko Apezetxea | Hernani | XI-14 |
| | | *1633* |
| Maria Etxeberria | Segura | V-26 |
| Jazinta Bidaso | Donostia | V-27 |
| | | *1634* |

[537] Larburu.

| | | |
|---|---|---|
| Andres Tolosa | Berastegi | I-IV |
| Kosme Ezkiaga | Tolosa | II-22 |
| Joan Ruiz Bikuña | Alegia | VI-8 |
| Guillen Salinas | Donostia | VI-8 |
| Martin Padadizabal | Beasain | VI-16 |
| Monso Castillo | Donostian soldadu | VI-16 |
| Maria Arbizu | Ordizia | VI-16 |
| Maria Karrera | Billabona | VI-16 |
| Joanes Zabala | Tolosa | VII-21 |
| | | *1635* |
| Jorge Bikendi | Azpeitia | III-7 |
| Franzisko Etxeberria | Urretxu | V-9 |
| Bizente Igantzi | San Pedro | V-24 |
| Martin Usarralde | Donostia | V-28 |
| Santiago Mimendi | Donostian? | VI-6 |
| Maria Otano | Beasain | VI-8 |
| Maria Ugarte | Azpeitia | VI-9 |
| Maria Garate, Sebastian Agirreren alarguna | Donostia | VI-13 |
| Joan Ituren | Alegia | VI-14 |
| Isabela Urkiza | Hondarribia | VIII-1 |
| Mariana Aranburu | Donostia | VIII-? |
| Paulo Isasaga | Donostia | VIII-31 |
| | | *1636* |
| Maria Pinos | Donostia | IV-18 |
| Madalena Beristi | Azpeitia | VI-6 |
| Katalina Gonzalez | Segura | VI-12 |
| Mari Perez Iturralde | Donostia | VII-4 |
| Kristobal Iturria | Donostia | VII-22 |
| Maria Bertiz | Donostia | VIII-19 |
| Lorenza Aroztegi | Donostia | VIII-25 |
| | | *1637* |
| Migel Ibarburu | Oiartzun | III-11 |
| Martin Olabide | Segura | III-20 |
| Joan Aginaga | Donostia | III-22 |
| Joan Olastegi | Oiartzun | V-12 |
| Maria Gomez Astur*** | Donostia | VI-22 |
| Antonio Zuloaga | Donostia | VII-28 |
| Andres Txara | Urretxu | VIII-22 |
| Maria Gomez Astur*** | Donostia | VIII-23 |

| | | |
|---|---|---|
| Domingo Garmendia | Azpeitia | IX-6 |
| Agustin Ararketa | Azpeitia | X-14 |
| Domingo Armendia | Azpeitia | X-16 |
| | | *1638* |
| Mateo Iturralde | Ordizia | VII-23 |
| Fabian de la Orden | Orereta | VIII-9 |
| Franziska Arze | Azpeitia | X-4 |
| Joan Abaria | Irun | X-22 |
| Tomas Etxeberria**** | Donostia | XI-7 |
| | | *1639* |
| Katalina Iturbil | Tolosa | I-12 |
| Jeronima Salteta | Tolosa | IV-22 |
| Pedro Apeztegi | Hondarribia | VIII-9 |
| Antonio Armendariz | Tolosa | IV-9 |
| Maria Goikoetxea | Donostia | V-15 |
| Joan Ezpilla | Azpeitia | VI-27 |
| Madalena Zuzuarregi^ | Tolosa | X-11 |
| Katalina Mañarendegi | Tolosa | X-30 |
| | | *1642* |
| Domingo Ruiz, soldadu | Tolosa | III-6 |
| Madalena Zuzuarregi^ | Tolosa | VII-1 |
| Domenja Bidasun | Donostia | IX-22 |
| Mari Migel Iriarte | Donostia | X-9 |
| Madalena Zuzuarregi^ | Tolosa | X-11 |
| Migel Iturriotz | Donostia | XII-9 |
| Joan Martinez | Donostia | XII-23 |
| | | *1643* |
| Martin Zamora | Irun | I-13 |
| Maria Alegria | Alegia | V-24 |
| Juan Martinez Alegria | Alegia | VI-18 |
| Maria Elorza | Azpeitia | VI-29 |
| Katalina Alberdi | Oiartzun | X-24 |
| | | *1644* |
| Pedro Zabalza | Beasain | III-24 |
| Joana Eleizegi | Tolosa | V-14 |
| Antonio Pozo | Pasaia | VI-16 |
| Jose Etxeberria | Alegia | IX-17 |
| Joan Alzaga | Gatzaga | X-29 |
| Antonio Alzua | Hernani | X-6 |

| | | |
|---|---|---|
| Martin Aranburu | Tolosa | XII-12 |
| | | *1645* |
| Domingo Leieta | Segura | III-21 |
| Joanes Etxegerre | Irun | III-21 |
| Martin Lakosta | Astigarraga | IV-12 |
| Maria Ibarra | Tolosa | V-22 |
| Joan Sanz Igeleta | Alegia | V-31 |
| Maria Zabala | Segura | VI-20 |
| Maria Larrenzaga | Donostia | VIII-26 |
| Garzia Etxeberri | Azkoitia | VIII-31 |
| Franzisko Ugarte | Orereta | X-28 |
| Maria Tejeria ^^ | Zumarraga | XI-7 |
| Ana Maria Mendia^^^ | Segura | XI-7 |
| | | *1646* |
| Katalina Ertanoa^^^^ | Ordizia | II-16 |
| Joan Ibarrola ^^^^^ | Azkoitia | IV-9 |
| Katalina Rekalde | Gatzaga | IV-26 |
| Ana Maria Mendia^^^ | Segura | V-24 |
| Katalina Ertanoa^^^^[538] | Ordizia | V-28 |
| Maria Tejeria ^^ | Zumarraga | V-28 |
| Joan Ibarrola ^^^^^ | Azkoitia | VI-19 |
| Joan Diez Gereño | Alegia | VII-10 |
| Esteban Azkerru | Donostia | VIII-24 |
| Migel Mugaze | Alegia | VIII-7 |
| Tomas Etxabarria**** | Donostia | IX-16 |
| | | *1647* |
| Anbrosio Goikoetxea | Urnieta | IX-6 |
| Martin Mardoki | Hernani | X-11 |
| | | *1648* |
| Franzisko Garzia Oskariz | Alegia | II-25 |
| Domingo Aroztegi | Donostia[539] | V-6 |
| Joan Martinez Alegia | Donostia | VI-2 |
| Angela Iturbide | Azpeitia | VI-24 |
| | | *1649* |
| Klaudia Katalina Berasuerte[540] | Segura | VI-20 |

[538] Artana.
[539] Hala jartzen du oharrean, nahiz eta testuan "natural de la Provincia" jarri.
[540] "Doña"

| | | |
|---|---|---|
| Ana Reiz | Donostia | VII-2 |
| Migel Aramendia | Soraluze | VII-16 |

*Karlos III.ak ijitoen aurka emandako 1695eko ebazpena***.**

- 1. Que dentro del termino de treinta dias de la publicacion desta pramatica que se deuera hazer en todas las Ciudades, Villas y lugares Cauezaas de partido sean obligados todos los gitanos y gitanas que se hallaren en estos reynos a comparecer ante las justicias de los lugares donde estuvieren avecindados o hauitaren assi realengos, como de territorio de las Ordenes de auadengo o Señorio o eximidos, declarando sus nombres, hedad, y estado, y los hijos que tuvieren con sus nombres, y hedades y tambien sus oficios modos de biuir, y todas las armas que tubieren assi ofensiuas como defensiuas de qualquier genero que sean tanto las que tubieren en sus casas como las que huvieren puesto en otras partes o dado a guardar a otras personas, y los cauallos mulas o otros animales que tuvieren para seruirse de ellos o para venderlos o comerciarlos. Todo lo qual deuan declarar puntualmentte, y deuajo de juramento, y de la pena que aqui hira expresada, y las justicias deuan admitir promptamente esta declaracion, y registro en la forma, y con las calidades que aqui se contienen, sin lleuar ni permitir que lleuen los escriuanos antte quien se hicieren derechos algunos por esta reazon y cada justicia se a obligada pasados los dichos treinta dias a remitir el registro que ante ella se hiciere echo original firmado de la tal justicia () y en quanto a los registros que se hicieren en los lugares de diez leguas en contorno de esta cortte se deuan remitir a manos del nuestro fizcal del consejo para que en el de cuentta ().

- 2. Que si pasados los dichos treinta dias fuere aprendido algun gitano o gitana que no aia cunplido con hazer el dicho registro que no le aya echo puntual y cumplidamentte, y aya ocultado alguna de las cosas contenidas en el Capitulo antecedentte por el mismo echo si fuere hombre incurra en la pena de seis años de Galeraas y si fuere muger en la de cien azotes, y destierro de estos reynos sin que para la execucion de estas penas se necesite demas aueriguaciones ni proceso que la misma aprencion de la persona o la cosa ocultada, y el testimonio de no hallarsse en el registro, lo qual sea vastantte para condenar en las dichas penas ()

- 3. Que pasado el termino de los dichos treinta dias que se dan por el Registro de las personas, armas y demas cosas de los gitanos segun va referido sean obligados todos los gitanos y gitanas que se hallaren en nuestros Reynos a salir de ellos dentro de otros treinta dias y no lo executando assi, yncurran los Hombres en pena de ocho años de galeras, y las mugeres en la de doscientos azotes, las quales penas se executen en sus personas sin necesitar demas prouanza ni proceso que el ser aprendidos en qualquier parte de estos Reynos despues de hauer pasado los terminos referidos, pero esto no se entienda con los gitanos y gitanas que se hallaren estando avencidados en lugares cuia vecindad sea demas de ducientos vezinos y no de menos por que los tales gitanos y gitanas azi avecindados deueran tolerarse sin pena alguna()

- 4. Que los gitanos que permanecieren tolerados en estos Reynos por estar avenzidados segun se preuiene () no puedan tener otro exercicio ni modo de vivir mas que el de la labranza y cultura de los campos en que tambien

podran aiudarlos sus mugeres y Hijos de hedad competentte sin que a unos ni a otros se les permitta otro oficio ni exercicio, tratto ni comercio, que expresamentte lo prohiuimos con pena de que por el mismo echo que se les prueue que tratan o contratan o se exercitan en otra cosa que la labranza pierdan la vecindad que tuvieren () y deuan salir destos Reynos dentro del termino que les fuere señalado () y no lo cumpliendo assi, y siendo aprendidos sean luego embiado a galeras donde siruan por tiempo de ocho años

- 5. Que los gitanos que quedaren avecindados segun dicho es no puedan tener en sus casas ni fuera de ellas cauallos ni hieguas ni seruirse de ellos en manera alguna y si les fuere aprendidos o les fuere averiguado que los tienen incurran en pedimento de los tales cauallos Yeguas cuio precio se aplica a gastos de justicia, y demas se les de la pena de dos meses de carzel y la misma se de a qualquier gitano que se Hallare en cauallo o Yegua aunque no sea suyo el qual pierda el dueño que se le hubiere prestado, y su precio se aplique en la misma forma y que solamente se les permitte a que puedan tener cada vno alguna mula o otra caualleria menor para acudir a la labranza o por otros usos de sus familias

- 6. Que no puedan tener en sus casas ni fuera de ellas armas de fuego corttas ni largas en manera alguna, y si les fueren halladas en sus casas o ellos fueren aprendidos con tales armas dentro o fuera de poblado incurran por el mismo echo en la pena de ducientos azotes y ocho años de galeras lo qual se entienda aunque las dichas armas que les fueren halladas o con que fueren aprendidos sean largas porque para esta gente se han de tener todas por igualmente prohiuidas. Y en quanto a las armas de fuego, cauallo, Yeguas, y otros animales que tubieren al tiempo del registro permitimos que hauiendolos registrado puedan despues venderlos y perciuir su precio con tal que esto sea precisamenmte en el thermino de diez dias siguientes al registro, y dando noticia de ello a las justicias y no de otro modo, y por lo tocante a las armas corttas, y prohiuidas dexamos en su fuerza y vigor lo dispuestto en la ultima pragmatica de dies y siette de julio del año pasado de mil seiscienttos y nouenta y uno ()

- 7. Que los Corregidores y justicias de los lugares en que hubiere gitanos avecindados tengan obligacion de visitar, y registrar por sus personas las casas de los tales gitanos las vezes que les pareciere para reconocer si en ellas tienen algunas de las cosas aqui prohiuidas o otra sospecha, y que tambien deuen estar muy informados de su modo de biuir y costumbres para aplicar los remedios que combiene

- 8. Que los dichos gitanos avecindados no puedan acudir ni asistir a ferias ni mercados, y si en contrauencion desto fueren hallados, y aprendidos en algun mercado o feria incurran por el mismo echo en la pena de seis años de galeras, y los mismo se entienda aunque no sean aprendidos si les fuere prouado hauer acudido

- 9. Que tampoco puedan trattar en compras ni ventas ni trueques de animales ni ganados mayores ni menores assi en ferias y mercados como fuera

de ellos, y si los prouare auerlo echo, aunque no ayan sido aprendidos actualmentte en tratto o trueque incurran en la pena de seis años de galeras

- 10. Que los gitanos avecindados no puedan auitar en varrios separados de los otros vecinos ni vsar de traje diuerso del que vsan comunmentte todos ni hablar la lengua que ellos llaman Gerigonza so pena a los hombres de seis años de galeras y a las mugeres de cien azotes y destierro del Reyno

- 11. Que so la misma pena no puedan los dichos gitanos avecindados salir de los lugares en que tubieren vecindad ni pasar a otros ni viajar en los caminos y campos, porque solamentte han de poder salir de sus lugares para el exercicio de la agricultura que les es permitido, y en caso que tengan necesidad de pasar a otro lugar por alguna dependencia propia deveran pedir licencias a las justicias y podran concedersela segun la causa y razon que propusieron por el tiempo () y las tales licencias se deueran dar por escrito, y no en otra forma

- 12. Que en todos los casos contenidos en los capitulos anttes de estte en que a los que contravinieren se impone pena de galeras deua entenderse, y executarse en los que fueren mayores de diez y siete años asta los sesenta y los que fueren menores de diez y siete siendo mayores de catorze se embien a precidos donde siruan para las obras, pues para los de otras hedades se daran otras prouidencias combenienttes, y que en los casos en que corresponde a los hombres pena de galeras se entienda que para las mugeres a de ser de azotes y destierro del reyno

- 13. Ordenamos y mandamos que si fueren aprendidos junttos en quadrilla algunos gitanos en el numero de tres o mas con armas de fuego corttas o largas a pie o a cauallo sean o no avezindados en estos reynos aunque no se les prueue otro delictto incurra en la pena de muerte, la qual se executte consultandolas primero con las Chancillerias o audiencias a cuio distrito tocase () y en la misma pena incurran los que no hauiendo sido hallados, y aprendidos en estta forma fueren combencidos por lexitima prouanza de hauer sido vistos en caminos y despoblados juntos a lo menos tres y con armas de fuego de qualquier genero que sean. () Pueda qualquierea de ellos indultarse desta pena entregando preso en manos, y poder de la Justicia a otro gitano, compañero suyo combencido del mismo delicto Con lo qual el que assi entregare quede libre de la pena que por aquel delicto hubiese incurrido, y no sea mas por ello molestado

- 14. Y porque entendemos que la permanencia de los gitanos en estos reynos a dependido del fauor, proteccion () que han hallado en personas de diferentes estado ordenamos que qualquiera contra quien se prouare hauer fauorecido, receptado o auxiliado despues del dia de la publicacion desta pragmatica en qualquier forma dentro o fuera de sus casas a los dichos gitanos incurra siendo noble en la pena de seis mil ducados aplicados a nuestra Camara y gastos de justicia por mitad, y siendo pleueio en la de diez años de galeras, y declaramos que para proceder a estas penas se tenga por lexitima y concluiente probanzas la de dos testigos integros sin tacha ni sospecha ()

- 15. Y para que no pueda auer duda en quales deban tenerse por gitanos y gitanas para comprehenderse en la disposicion, y penas desta pragmatica declaramos que qualquiera hombre o muger que se aprendiere en el trage, y hauito, que asta aora a ussado estte genero de gente y conttra quien se prouare hauer vsado de la lengua que ellos llaman gerigonza sea tenido por gitano para el efectto referido, y lo mismo se entienda en aquellos contra quienes se prouare la fama y opinion comun de hauer sido tenidos y reputados por ttales gitanos en los lugares donde hubieren morado y residido, suponiendolo assi a lo menos cinco testigos

- 16. Y porque la dificultad de la prouanza de los robos y delictos que suele cometer estta gente assi por subceder en despoblados como por la malicia y astucia con que los executan no sea causa para que queden sin el deuido castigo Ordenamos que para gouernar a los gitanos en estos casos sean bastantes las disposiciones de las mismas personas a quienes se hubiere echo los robos o tras ofensas en despoblado...

- Y en quanto a los gitanos que contra la forma desta pragmatica perseueraren en estos Reynos tengan obligacion todas las dichas Justicias de perseguirlos y procuren por todos los medios mas rigurosos y eficaces su prision y castigo, para lo qual mandamos a ttodas las dichas Justicias que luego que tengan noticia de que en sus territorios andan alguna quadrilla de gitanos devan dar promto aviso a las otras justicias de los lugares circunvezinos, convocandose para dia y lugar señalado en la forma que tubieren por mas combenientte y con la preuencion necesaria de gente y armas persigan, y prendan a los dichos gitanos los quales deuan entregar presos en las Carceles Reales de las Ciudades y cauezas de partido mas inmediatas cuios corregidores y justicias sean obligados a reciuirlos y tenerlos en buena guarda ()".

**GAO**: **JD AM 93.** *1710eko Aldundiak 1709kook ospitaleak murrizteko plazaratu azterketa ontzat ematen du***.**

Y siendo tambien segun se reconoce por [irakurezina] mui grande ocasion de los delitos e incombinientes que se desean evitar, el poco miramento con que se acojen y se admiten en los ospitales todo genero de gentes que con capa de pobres handan de unos pueblos a otros y teniendo presente la Junta la consulta que desde la villa de Azcoitia hizo a las republicas la diputacion el dia veinte y uno de noviembre ultimo con la mira de reformar los ospitales que estan situados en parages montuosos y despoblados y en lugares de poca vezindad y que no son de transito preciso de peregrinos y pobres viandantes, encomendo discurrir y dar parecer en este asumpto a los señores procuradores...; y que los que no han respondido lo hagan.

Maiatzaren 12an emandako txostena "...y siendo esta una materia mui digna de la grande atencion y providencia de VS y de la qual ha de resultar mucho alivio a sus naturales pues segun cartas y informaciones de las republicas los mas de los hospitales solo sirve de gasto a ellas y de albergue a vagamundos y gente ociosa, discurrimos que combendra ejecutar enteramente la hidea propuesta por la Diputacion, que segun se conoze de sus decretos, ha mirado el punto con grande reflexion y con dictamen que asegura la justicia y mauior piedad de esta institucion[?], y para ponerla en practica, de suerte que no falte la ospitalidad nezesaria en distancia proporcionada para peregrinosy pobres pasageros, sentimos que solo pueden conservarse ospitales en las republicas de Irun, Oyarzun, Hernani, Tolosa, Villafranca, Segura, Zumarraga, Villareal, Mondragon, Escoriaza, San Sebastian, Guetaria, Motrico, Eybar, Vergara y Azpeitia. Que para cerrar la puerta al ospicio publico de los demas, podría VS servirse de nombrar en esta junta dos cavalleros que entendiesen en lo que fuere nezesario con la Diputacion; y con las republicas soliciten las licencias combinientes de el ordinario y disponga su reforma, tomando medio para que su havitacion, rentas, limosnas, y obras pias solo se empleen y distribuian en beneficio y alivio de los verdaderos pobres de cada republica".

**GAO: JD IM 1 21 21.** *1771ko araudia*

I.º

Nadie podra pedir limosna fuera de la Jurisdiccion del Pueblo de su residencia, y las Justicias ordinarias tendran estrecha obligacion de recoger a quantos Paysanos, con capa de Pobres, permanezcan en sus respectivos territorios.

II.º

Un Alcalde que arreste a Vecino, o Morador del Pueblo de V.S., lo dirigira luego al Alcalde del Lugar de su residencia, y este pagara egecutivamente el importe de jornales, alquiles, y gastos de manutencion, que ocasionare el Postulante, que se le dirige.

III.º

Quantos quartos, o cosas se hallaren mendigadas a este, las aplicara el Alcalde que lo arrestare, al Ministro de quien se valiere; de modo, que el Postulante ha de bolver a su Casa, sin efecto alguno de lo que le huviese producido su Postulacion.

IV.º

Si el Pobre vago, fuese de fuera del Terrritorio de V.S., la Justicia que lo aprendiere lo sacara al confin, quitandole quanto haya recogido, y llevando quenta exacta de lo que en esto gastare, la presentara a la primera Junta, para que se le mande reembolsar.

V.º

Si entre tantos como giran el Pais, sucediere alguna vez que llegue al paso alguno que sea verdaderamente Peregrino pobre, las Justicias de los Pueblos de V.S. le asociaran algun muchacho que lo acompañe a la Postulacion del poblado; de modo, que no pueda detenerse sino al tiempo preciso de pasar pidiendo su limosna, y de comer, o dormir si huviese Casa destinada a este fin.

VI.º

Como el origen principal de este desorden esta en el abrigo que hallan los Postulantes en las Casas, y caserias del distrito de V.S. renovando las prohiviciones, que antes de aora tiene V.S. puestas, quedara determinado para adelante, que ninguno podra acoger en su Casa, ni Caseria de noche a Pobre alguno, sino los Mayorales de los Hospitales donde los hay, o los Posaderos publicos, y de poblado. Y qualquiera que quebrantase esta disposicion, y recogiese de noche algun Postulante, pagara efectiva, y prontamente los seis ducados de vellon que V.S. tiene determinados anteriormente.

VII.º

Para que aun con los Pobres de cada Pueblo haya orden, y no se de mal destino a la Caridad de los Fieles, nadie podra pedir limosna, ni aun en su mismo Pueblo, sin licencia escrita de su Alcalde, y por punto general, ningun Alcalde dara semejante permiso a quien pueda trabajar, tenga Padres, o hijos que lo puedan, y

